

NORTASUNAREN PSIKOLOGIA

ehu^{press}



OPEN
ACCESS



Jesús Guerra Plaza
Mikel Haranburu Oiharbide
Luis M. Sainz de Murieta



Euskara Institutuak
argitaraturiko bestelako lanak

DSM-III-R. Burutiko nahasteen
diagnosi eta estatistika esku-
liburua

American Psychiatric Association

Ikaskuntza eta jokabide
mekanismoak

Michael Domjan eta Barbara
Burkhard

Psikologia sozialera hurbiltzeko
zenbait gai

José Francisco Valencia

**NORTASUNAREN
PSIKOLOGIA**

NORTASUNAREN PSIKOLOGIA

Guerra Plaza, Jesús (EHUko irakasle titularra)
Haranburu Oiharbide, Mikel (EHUko irakasle laguna)
Sainz de Murieta, Luis Mari (EHUko irakasle laguna)

eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco
servicio editorial

Euskal Herriko
Unibertsitatea
argitalpen zerbitzua

Debekatuta dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, bai eta berorri tratamendu informaticoa ematea edota liburua ezein modutan transmititzea, dela bide elektronikoz, mekanikoz, fotokopiaz, erregistroz edo beste edozein eratarata, baldin eta *copyrightaren* jabeek ez badute horretarako baimena aurretik eta idatziz eman.

Lanaren egilea eta jatorrizko izenburua:

© *Nortasunaren psikologia*
1998, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 84-7585-938-0

Lege gordailua: BI - 196-98

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Aurkibidea

1. Sarrera	13
1.1. Nortasunaren kontzeptua	14
1.2. Nortasunaren psikologiaren iker eremua eta ikuspegiak	21
1.2.1. Nortasunaren ikerketen ikuspegiak	22
1.2.1.1. Nortasunaren azterketaren ikuspegi klinikoa	22
1.2.1.2. Nortasunaren azterketaren ikuspegi korrelazionala	25
1.2.1.3. Nortasunaren azterketaren ikuspegi esperimentalak	26
1.2.2. Nortasunaren teoriaren ereduak	27
1.2.2.1. Eredu internalista	27
1.2.2.2. Eredu situazionista	27
1.2.2.3. Elkarreginaren ereduak	27
1.3. Tenperamentua	33
1.4. Karakterea	35
1.5. Berezitasunak	36
1.6. Tipologiak	36
1.6.1. Platon	36
1.6.2. Lau tenperamentuen teoria	37
1.6.3. Kant	38
1.6.4. Heymans-en tipologia	39
1.6.5. Kretschmer	40
1.6.6. Sheldon-en tipologia	44
1.6.6.1. Somatotipologia primarioa, Sheldon-en arabera	44
1.6.6.2. Somatotipo sekundarioak	46
1.6.6.3. Somatotipoaren neurketa	48
1.6.7. Somatotipoei eta tenperamentuei buruzko ikerketa bat	49
1.6.8. Somatotipoaren neurketari buruzko praktika	50
1.6.9. C.G. Jung	55
2. Nortasunaren diagnostikoa eta ikerketa	57
2.1. Psikodiagnostikoa	57
2.2. Testen sailkapena	60

2.2.1. Test egituratu gabe eta mozorrotuak	63
2.2.2. Egituratu gabeko eta mozorrotu gabeko testak	65
2.2.3. Test egituratuak eta bolondresak	69
2.2.4. Test egituratuak eta objektiboak	73
2.2.5. Auresate klinikoa auresate aktuariaren aurrez aurre	76
2.3. Nortasunaren ikerketaren aspektu teorikoak	78
2.4. Ikerketa prozesua: alderdi enpirikoa	84
3. Nortasunaren garapena: gorputz eskematik autokontzeptura	89
3.1. Gorputz eskema	89
3.2. Gorputz irudia	90
3.3. Autokontzeptua	92
4. Nortasunaren teoria indibidualistak	93
4.1. Allport-en nortasunaren teoria	93
4.1.1. Norbere buruaren kontzeptua Allport-engan	97
4.2. Norberaren kontzeptua	103
4.2.1. «Norbera»-ren kontzeptuari sarrera	104
4.2.2. Niaren kontzeptuaren ekoizpen historikoa	107
4.2.3. Nien aniztasuna	108
4.2.4. Autokonplexutasunaren eredia	109
4.2.5. Autodesadostasunaren teoria	111
4.2.6. Nien arteko desadostasunak	112
4.2.7. Niaren giden arteko desadostasunak	113
4.2.8. Nortasun anizkoitza	113
5. Kellyren eraikuntza pertsonalen teoria	115
5.1. Sarrera	115
5.2. Egitura	118
5.3. Nortasunaren ebaluazioa	120
5.4. Saretxoaren teknikaren manuala	122
5.4.1. Diseinuaren etapa	122
5.4.2. Administrazio fasea	123
5.4.3. Puntuazio sistemak	125
5.5. Kelly-ren oinarritzko postulatua eta hamaika korolararioak	126
5.6. Prozesua eta garapena	130
5.7. Patologia	131
5.8. Aldaketa edo terapia	133
5.9. Teoriaren balioztatzea	134
6. Nortasunaren azterketarako hurbilketa fenomenologiko-humanista: Rogers-en selfaren teoria	137
6.1. Sarrera	137
6.2. Selfaren teoria	141
6.3. Prozesua	142
6.4. Hazkuntza eta garapena	146

6.5. Psikopatologia.....	147
6.6. Aldaketa.....	148
6.7. Ikuspegi hurbilak eta teoriaren eboluzioa	152
6.8. Kritika eta ebaluapena.....	153
6.9. Laburbilduz.....	155
7. Nortasunaren teoria faktorialistak.....	157
7.1. Sarrera	157
7.2. J.B. Rotter-en (1966) «Kontrol locus-aren» teoria.....	158
7.3. Zuckerman-en (1971) «Sentipen bilaketaren» (SB) teoria	163
7.4. Berezitasun anitzetako teoretan	164
7.5. Teknika multibariatuak: Analisi faktoriala	166
7.6. Eysenck-en nortasunaren teoria dimentsionala.....	168
7.6.1. Nortasunaren egitura hierarkizatua.....	168
7.6.2. Lehen eta bigarren mailako faktoreak	170
7.6.3. Joera neurotikoaren oinarri biologikoak	175
7.6.4. Kanporakoitasunaren oinarri biologikoak	177
7.6.5. Kanporakoitasunaren eta joera neurotikoaren efektu konbinatuak	180
7.6.6. Nortasunaren neurketa	181
7.6.7. Kanporakoitasuna-barnerakoitasuna	182
7.6.8. Neurotizismoa	182
7.6.9. Kanporakoitasun eta neurotizismo korrelatoak.....	185
7.6.10. Nortasunaren inplikazioak anormalitatean	187
7.7. Cattell-en nortasunaren berezitasunen teoria.....	187
7.7.1. Sarrera	187
7.7.2. Egitura	190
7.7.3. Prozesua.....	195
7.7.4. Hazkuntza eta garapena	201
7.7.5. Patologia	201
7.7.6. Aldaketa.....	202
7.7.7. Cattell-en «Nortasunaren Galdekizun Faktoriala» (16 PF).....	204
8. Nortasunaren teoria psikodinamikoak	209
8.1. Sigmund Freud	209
8.1.1. Freud-en bizitza	209
8.1.2. Freud-en ekarpena	220
8.1.2.1. Sarrera.....	220
8.1.2.2. Teoria psikoanalitikoaren garapena.....	223
8.1.2.3. Nortasunaren teoria psikoanalitikoa	224
8.1.2.3.1. Nortasunaren oinarritzko egiturak	224
8.1.2.3.2. Nortasunaren eredu psikoanalitikoaren funtzionamendua	228
8.1.2.3.3. Nortasunaren garapena.....	234
8.1.2.4. Psikopatologia eta terapia	240
8.1.2.5. Hurbileko ikuspegiak eta garapen berriak	244
8.1.2.6. Azken ondorioak.....	245
8.2. Carl Gustav Jung (1875-1961).....	250

8.2.1.	Bizitza	250
8.2.2.	Nortasunaren egitura	252
8.2.3.	Energia psikikoa	252
8.2.4.	Nia	253
8.2.5.	Tipo psikologikoak	253
	8.2.5.1. Jarrerak	254
	8.2.5.2. Funtzioak	254
	8.2.5.3. Tipo kanporakoiak	255
	8.2.5.4. Tipo barnerakoiak	255
8.2.6.	Inkontziente pertsonala	256
8.2.7.	Inkontziente kolektiboa	257
8.2.8.	Arketipoak	258
8.2.9.	Anima eta animus	260
8.2.10.	Autoerrealizazioa eta norbera	261
8.2.11.	Psikoterapia jungiarra	263
8.2.12.	Ebaluapena eta ikerketa	265
9.	Kognitibismoa nortasunaren psikologian	267
9.1.	Sarrera	267
9.2.	Berezitasunen psikologiatik psikologia kognitibora	269
	9.2.1. Situazioen egitura eta subjektuen definizioak	272
9.3.	Jokaeren koherentzia: sistema kognitiboa eta sistema afektibo-motibazionala	273
9.4.	Teoria psikoanalitikoak eta aldagai kognitiboak	275
9.5.	Nortasunaren psikologia kognitiboan ikuspegi fenomenologikoa	280
	9.5.1. Autoritarismoa eta pentsamendu dogmatikoa	283
9.6.	Psikologia Kognitiboa, Nortasunaren Psikologiaren aurrez aurre	285
	9.6.1. Nortasuna eta perzeptzioa	286
	9.6.2. Kategorizazioa eta kognizioa	291
	9.6.3. Sormena eta kognizioa	294
	9.6.4. Zurruntasuna eta kognizioa	295
9.7.	Ondorioak	296
9.8.	Estilo kognitiboak	298
	9.8.1. Estilo kognitiboaren kontzeptua	298
	9.8.2. Estilo motak	301
	9.8.2.1. Eremitik dependentzia/independentzia	301
	9.8.2.1.1. (TRTC), (BAT), (RAT) eta (RRT)	303
	9.8.2.1.2. «Rod and Frame Test» (RFT)	305
	9.8.2.1.3. E.F.T. (Embedded Figures Test = Irudi Mozorrotuen Testa)	305
	9.8.2.2. Ikuspegi artikulatua versus ikuspegi globala	306
	9.8.2.3. Erreflexibitatea versus Inpulsibitatea	307
	9.8.2.4. Konzeptualizazio estiloa	308
	9.8.2.5. Kontrol hertsia-kontrol malgua	308
	9.8.2.6. Nibelaketa-zorrozketak edo diskriminazioa-ezdiskriminazioa	308
	9.8.2.7. Scanning: ikerketa	309

9.8.3. Estiloen jatorria. Ontogenia	309
9.8.3.1. Eboluzioa	309
9.8.3.2. Garapen ontogenikoan eragiten duten aldagaiak	311
9.8.3.2.1. Faktore biologikoak	311
9.8.3.2.2. Hezkuntza	311
9.8.3.2.3. Kulturaren eragina	313
9.8.3.3. Estilo kognitiboak eta adimenaren garapena	314
10. Nortasunaren nahasteak	317
10.1. Nortasun eskizoidea eta nortasun eskizotipikoa	317
10.2. Nortasun paranoidea	318
10.3. Nortasun antisoziala	318
10.4. Mugako nortasuna (border line)	319
10.5. Nortasun histrionikoa	319
10.6. Nortasun narzisita	320
10.7. Saihesteagatiko nortasuna	320
10.8. Nortasun dependentea	320
10.9. Nortasun obsesibo-konpultsiboa	321
Bibliografia	323

1

Sarrera

«Nortasuna» hitza egunero darabilgu, testuinguru desberdinetan. Hitz horri eguneroko hizkuntzan ematen diogun esanahia, testuinguruaren arabera aldatzen eta ulertzen da. Gizakiok niaren konzientzia eta zentzuna garatu zitzaigunetik izan gara nortasunaren psikologoak. Beste pertsonak egunero behatzen ditugu, haien ezagugarriei buruzko ideiak formulatzen ditugu, horrela jokatzeko dituzten arrazoiak asmatzen saiatzen gara, beren jokaerari buruzko aurrikuspenak egiten ditugu etab.

Maila batean edo bestean, pertsonen arteko diferentziak ikusten ditugu, tipoetan bereizten ditugu eta beren ezaugarriei buruzko teoriak baditugu. Nortasunaren esanahiari buruz jendeari galderak egiten badizkiogu, erantzun desberdinak jasoko ditugu. Pertsona ikasi gabeek ere badituzte nortasunari buruzko «teoria herrikoiak» edo «teoria implizituak», gizartearen testuinguruan erabilgarriak direnak, eta atsotitz nahiz erretrauetan isladatzen direnak.

Gutako bakoitzak gizakiei buruz, orokorki, ditugun usteak izendatzeko erabiltzen da «teoria implizituak» terminoa. Nortasunaren ezagugarri jakin baten sarritasun eta aldakortasunarekin dute zerikusia teoria horiek. Pertsonen zein ezagugarri agertu ohi diren elkarrekin agertzen dute. Adibidez, pertsona bat profesioz militarra dela dakigunean, aldi berean disziplinatua, zorrotza eta kontserbatzailea dela uste izaten dugu. Ezaugarrien elkarrekikotasun honi buruzko usteak eta iritziak biltzen dituzte teoria implizituek.

Nortasunari buruzko teoria implizituak teoriak dira, ezagugarrien arteko elkarketak egituratuak daudelako, barne konsistentzia bat dutelako. Implizituak dira, termino formaletan formulatuak ez direlako egoten. Esplizitoki formulatuak ez egotean, haien egitasuna edo faltsutasuna nekez jar daiteke frogan. Hala ere, pertsonak teoria horiek erabiltzen jarraitzen dute, egiaztatzen dituzten datuetan begiaz jarritz, eta ez gezurtatzen dituzten datuetan.

Teoria horiek idiosinkratikoak dira. Esan nahi baita, gizabanako bakoitzak bere teoriak garatzen dituela. Aldakortasun hori gorabehera, nola-

baiteko adostasuna badago gizarte edo giza talde jakin bateko kideen artean. Kultura eta hizkuntza jakin bateko kideek teoria inplizito asko konpartitzen dituzte.

Gizakiak, errealitateari buruzko bere perzeptzioak egituratu beharra dauka, eta horretan dute izateko arrazoia teoria hauek.

Nortasunaren azterketa zientifiko bat garatzeko, gertakariak definitzerakoan behatzaileen arteko adostasuna egotea beharrezko da; hau da, gertakari berak, izen berberaz izendatzen denak, esanahi berbera eduki behar du ikerlari guztientzat. Ikusiko dugun bezala, baldintza hau ez da bete izan, arrazoi ezberdinengatik. Arrazoi nagusienak honako hauek izanen lirateke: a) Biltzen dituen gertakariak esplikatzeke eredu teoriko bakar bat ez da lortu psikologian. Ondorenez, teoria bakoitzak bere modura definitzen ditu darabiltzan terminoak, eta horien artean nortasunarena. b) Gainera, kontzeptu honetan bakarrik zentratutako eredu teoriko guztiz singularrak sortu dira; c) Hirugarren arrazoia, beste biekkin elkartua, gai honen azterketarako psikologiak sarrienetan izan duen iker eremuari dagokiona da: praktika klinikoaren eremuarekin loturik agertzen da nortasunaren ikerketa. Esparru klinikoan sortutako arazoak esplikatzeke egokienak ziren nortasunaren kontzeptuak eraikitzen joan dira teorikoak, moldaeraren arazoak konpondu asmoz. Esparru klinikoak izan da, beraz, nortasunaren teori eta ereduaren iturri oparoena. d) Beste arrazoi garrantzitsu bat, nortasunari eman nahi zaion ezaugarri globala edo holistikoa, gizabanako osoa biltzen duena da (egiten duena, pentsatzen duena, sentitzen duena etab.); teoria holistiko horrekin batera, bizitzaren filosofia bat, ideologia teoriko bat agertzen da; nortasunaren teoria bakoitzaren atzean teorilariaren beraren nortasuna ere isladatzen da neurri batean. e) Azkenik, faktore guzti hauek urrundu egin dute nortasunaren psikologia psikologia esperimentaletik. Psikologia esperimentalak da ezagutza zientifikorako beharrezko metodologia landu duena; baina, psikologia esperimentalak «aldagai kutsatzaile arrotzak» bezala, ezabatu edo/eta kontrolatu beharrekoak bezala, kontsideratzen ditu nortasunaren psikologiari interesatzen zaizkion aldagaiak.

Geroago, bi hurbilketak integratzeko entseiu bat egon da, eta nortasunaren psikologiaren azterketa esperimental bat ere bai, laborategiaren esparruan eta laborategitik at; horren adibide dira «aldagai modulatzaileak», esistentzia ukaezina duten aldagai behaezinak.

1.1. NORTASUNAREN KONTZEPTUA

Nortasunaren definizio eta kontzeptioetan sartu aurretik, azter dezagun «pertsonalitate» eta «persona» hitzen jatorria. Latin klasikoan «persona» erabiltzen zen, eta ertaroko latinean, «personalitas». Hemendik datoz, frantseseko «personnalité», ingelerako «personality», alemanerako

«Persönlichkeit», gatzelerako «personalidad». Euskarazko «nortasunak», sustrai autoktonoa (nor + tasuna) du. Pertsona adierazteko, «notin» neologismoa ere erabili izan da.

Pertsona hitzaren hiru esanahi bereiz ditzakegu:

1. Hasierako esanahia: antzerki errepresentazioetan aktoreek zerabilten mozorroa. Bere adiera psikikoan, zerbait kanpokoia da nortasuna, bere buruaz norbaitek eman nahi duen irudia edo itxura.
2. Mozorroaren atzeko aktorea adierazteko ere erabiltzen hasi ziren gero pertsona hitza. Adiera psikikoan, paper bat betetzen duen norbait horren egitura. Barne egitura.
3. Pertsona hitzaren geroagoko beste adiera bat, pertsonaiarena da. Gizartean ospe errekonozituko berezitasunak dituzten pertsonen garrantzia azpimarratzeko erabiltzen zen hitz hau.

Etimologiari begiratuta, beraz, antzerki errepresentazioetan aktoreek erabiltzen zuten mozorroa adierazten zuen «pertonak». Edonola ere, pertsonaren kontzeptua, analisigai izan zen jurista eta filosofarientzat, psikologia sortu baino lehen ere.

Ciceron-entzat, «persona» hitzak lau esanahi desberdin zituen: 1) Besteek hautematen duten kanpoko itxura; 2) Interpretatzen den papera; 3) Betetzen den paperaren atzeko benetako «nia»; 4) Norbere rolak betetzeko agertzen den distintzio eta duintasuna.

Kontzeptu horren historia filosofikoan, Filosofia Teologiaren neska («ancilla theologiae») bezala kontsideratzen zenean, dogma trinitaria eta kristologikoa azaldu nahi izan zen «personaren» bidez; pertsona nozioa eta natur nozioa bereizi egin behar ziren: Jainkoak natura bat eta hiru pertsona zituen; Kristok, berriz, pertsona bat eta bi natura.

Teologiaren testuingurutik at, Boecio-k VI mendean eman zuen pertsonaren definizio ezagun hau: «natura razionalako sustantzia indibiduala» da pertsona («Persona est rationalis naturae substantia indibidua»). Definizio horretatik, ezagugarri bikoitza gordetzen dute Ertaroko Eskolastikak eta Filosofia Razionalista modernoak:

- Karaktere razionala: arrazoiz, adimenez hornituriko gizabanakoa bakarrik deitzen dugu pertsona.
- Karaktere substantziala: substantziaz ari garenean hitzegiten dugu pertsonaz («sub-stat»), azpian dagoen zerbaitez ari garenean.

Pertsonaren kontzeptu filosofiko honetan egonen da nortasunaren psikologiaren problematikaren sustraia: nortasunaren psikologia, pertsonaren agiriko jokaeren azpian dauden egitura eta prozesuen azterketa bezala ulertu beharko litzateke. Agiriko jokaera horretatik inferitzen dira (eskolastikoez akzidentetik substantzia ondorioratzen duten bezala) barne egitura eta prozesuak. Baina, egitura eta prozesu hauek izkutuan dira, ez dira publikoki behagarriak.

Edonola ere, nortasunaren definizio asko eraiki dira; hiru taldetan sailka daitezke definizio horiek: 1) Kanpoko itxuran oinarritzen direnak; 2) Barne egituraren oinarritzen direnak; 3) Positibista erradikalak.

1) Kanpoko itxuran oinarritzen diren definizioak, guk sortzen ditugun eta bestek hautematen dituzten inpresioetaz ari dira: «nortasun handia du», «nortasunik ez du», «nortasun bitxi samarra du» etab. Gizabanako baten eraginkortasun eta erakarpen sozialaren apreziazio bat da. Besteek hautematen duten subjektuen kanpoko itxuran oinarritzen da. Zentzun honetan, pertsona batek eduki ditzake nortasun anitz, bera epaitzen duten pertsonen kopuruaren arabera.

Subjektuaren kanpoko azalpen eta jokaeretan oinarritzen da; horien bidez, behatzaileak auresan dezake subjektuaren etorkizuneko jokaera; baina, estereotipo eta azaleko kalifikapenen sorrera ere eragin dezake.

2) Bigarren definizio taldeak, barne egituraren ikuspegitik kontsideratzen du nortasuna. Beraz, zuzenki behagarriak ez diren aspektu, ezagugarri eta aldagaiak aztertzen saiatuko da. Psikologo gehienentzat, ezagugarri hauek benetan esistitzen dira. Nortasuna kanpotik ezagu daiteke, baina bere izaera pertsonala da, intimoa, eta errespetatu egin behar da; horregatik, behagarria ez izanik, zeharkako indikatzaileen bitartez bakarrik objektiba daiteke haren ezaguera. Modu konkretuan definitu nahi dugunean sortzen da arazoa. Hemen pilatzen dira osagaiak, batzuk zientifikoki ezagu daitezkeenak, eta besteak ez hainbeste; batzuek prozesuei buruzkoak, eta besteak egiturei buruzkoak; batzuek osagai kognitiboak biltzen dituzte, eta besteek, emozionalak.

3) Azkenik, ikuspegi positibista erradikala «barne egitura» saihesten saiatzen da, zientzia haraino ezin daitekeela iritsi uste baitu; pertsona ezagutzeko modu bakarra, testuinguru jakin batetan egiten eta azaltzen duenaren bidezkoa da. Gainera, subjektua ezagutzeko modua, aztertzaileak darabilen metodologiak guztiz igurtzitzen du. «Konduktismo erradikalak» eragindako ikuskera honek saihestu egiten ditu «bitarteko aldagaiak», eta kanpotik beha eta manipula daitekena bakarrik onartzen du.

Aipatu ditugun hiru alternatibetatik, nortasuna aztertzeko ahalbidea ematen duen bakarra bigarrena da. Lehenengo ikuspegitik begiratuta, nortasunaren konsistentziarik gabeko ezagutza, nork eta nola hautematen duenaren araberakoa bakarrik edukiko genuke; hirugarren ikuspegiak, nortasunaren eraikuntzarik gabe lan egin nahiago du. Behar bada pertsona gutxi egonen dira, aditu nahiz aditu ez direnen artean, zuzenki behagarriak ez diren jokaeren existentzia (pentsamenduak, sentimenduak etab.) zalan-tzan jartzen dutenak, haien ebidentzia osoa pertsona guztiok baitugu. Nolanahi ere, denek onartzen dituzte barne gertaera horien ezagutzak dituen mugak eta zailtasunak.

Teorikoen elaborazioak kontsidera ditzagun, beraz, orain. Lehen berri-kuspen batek, definizioen kopuru oso zabal bat aurkezten du. Definizio gehienak subjektuen barneko kualitate eta ezagugarri berezien kontsidera-

zioan zentratu dira. Definizio asko ematea baino argitzaileagoa izan daiteke, definizio horiei amankomunak zaizkien osagaiak izendatzea, egokia dirudigun definizio batez ilustratuz.

Lehenik esan behar dena, zera da: autore desberdinek proposaturiko definizioak ez dira «definizio operatiboak», baizik nortasunaren fenomenorantz egiten diren «hurbilketa definitzaileak». Hau da, definizio operatibo bidez, ez da kontzeptua esplikatzen bakarrik egiten, baizik maneiatu, erreproduzitu etab. ere egin daiteke, adibidez, «ura» H_2O bezala definitzen denean; definizio horrek, analisi eta sintesi kimikoak ahalbidetzen ditu; baina, hurbilketa definitzaile batek, ura egarria kentzen duen elementu bat dela, fluido dela edo bizitzarako beharrezkoa dela etab. esanzen liguke; baieztapen guzti hauek egiak izanik ere, antzera defini daitezkeen beste kontzeptuekin anbiguotasun eta solapamendu maila handia gordetzen dute.

Gaur gaurkoz, metodo zientifikoaren fase induktiboa dei dezakegunaz konformatu beharrean gaude, horretaraino bakarrik heltzeko gai izan baikara. Definizioek aurkezten dituzten presupostu amankomunak honako hauek dira: a) Nortasunak jokaera osoa biltzen du; b) Konsistentzia gehiago edo gutxiago duten psikebarneko osagaiei egiten die erreferentzi; c) Indibidualitate pertsonala azpimarratzen du; d) Konstruktio teorikoak erabiltzen ditu; e) Orokorrean, balioei buruzko iritzirik ez du ematen (edozein nortasun onargarria da, ez da berez ona edo txarra).

Lehenik, nortasunak jokaera osoan du eragina, bai jokaera behagarrian, bai behagarria ez denean. Arlo honetako ikerketak gai hauetaz arduratu dira nagusiki: prozesu emozionalak, afektiboak, motibaziozkoak etab. Hau da, prozesu «orektiko» edo «konatiboez» arduratu dira, «kognitibo» edo «intelektualez» baino gehiago. Edozein modutara, gero ta interes gehiago dago, nortasunaren azterketa egiterakoan, pertsonaren globalitatea kontsideratzeko, adimena eta jarrerak barne direla.

Bigarrenik, psikebarneko elementuen kontsistentzia handiago edo txikiagoa kontsideratzen du nortasunaren definizioak. Nortasuna, batzuentzat iraunkorra eta aldakaitza da; baina besteek ez dute gauza bera pentsatzen. Jokaeraren kontsistentziaren gaia, aurrerantze gaitasunari lotua doa. Pertsonologo ortodoxoentzat, nortasunaren ezagugarriak dira jokaera determinatzen dutenak, eta, beraz, ezagugarri horiek ezagutzea nahikoa da, situaziozko testuingurutik independenteki subjektu batek egingo duena jakiteko.

Enpirikoki egiaztatu denez, nortasunaren ezagugarriek, galdekizunen bidez operatibizatuek, bariantza osoaren % 20 baino gehiagorik ez dute esplikatzen ahal izan, jokaera baten aurrerale bezala kontsideratu ditugunean (Guerra & Crawford, 1988). Beste hitz batzuen bidez esanda, nortasunaren bereizgarrien bidez, jokaeraren zati oso txiki bat bakarrik esplika liteke, nortasunari globaltasun bat aitortzen baitzaio. Ebaluazio metodoen egokitasunaz eztabaida metodologikoetan sartu gabe, helburutzat aurreraletea bakarrik hartzen bada, situaziotik abiatuta hobeto esplika litekeela jo-

kaera pentsatu da. Ikuspegi situazionistatik, jokaeraren kontsistentziarik eza, araua (ez salbuespena) da; jokaerak, garatzen deneko testuingurutik dependitzen du. Honela, estimuluaren baldintzak eta estimuluek erantzune-kin dituzten harremanak antzekoak eta kontsistenteak direnean bakarrik izanen da jokaera kontsistentea. Jarrera hau formulazio konduktistarekin lotu behar da zuzenki: jokaeraren zergatiak ez dira subjektuaren barnean bilatu behar, kontingentziak sortzen diren ingurunean baizik. Hurbilketa honek sortzen duen problema, bere aldagai inplikatuekin nortasuna desgertzearena da.

Gaur egun, «elkarreraginaren» planteamendu deituetan bateratzen dira joera biok. Alde batetik, ukalezina da bitarteko osagaien existentzia: pentsamendu, sentimendu prozesuak etab.; bestalde, egia da osagai horien balio aurrealea txikia dela, eta askotan ingurunearekin harremanean agertzen direla. Zentzun honetan, alde batetik gizabanakoaren ezagugarrien eta bestaldetik situazioko parametroen arteko modulazio eta elkarreraginaren emaitza izanen litzateke jokaera. Azken hurbilketa honen teorikoek proposatu dutenez, elkarreraginak izan behar du, eta ez pertsonak edo situazioak, bakoitzak bere aldetik, analisiaren oinarritzko unitatea. Elkarre-
raginaren ikuspegi hau kontutan hartzeak, hobetu egin du gaitasun aurre-
salea, batez ere maila espezifikoa, jokaera osoarenean baino gehiago.

Hirugarrenik, gizabanako bakoitzaren bakartasuna azpimarratzen da. Edonola ere, aspektu tangentiala da, arrazoi zenbaitengatik. Hasteko, indibidualtasuna eta nortasuna ez dira gauza bera: denok bakarrik gara eta denok nortasuna dugu. Bigarren, osagai sail bat modu indibidualizatuan antolatzen eta ordenatzen bada ere subjektu batetan, horrek ez du esan nahi pertsona guztiengan agertzen ez direnik, maila desberdinetan bada ere, eta haien azterketa espeziko subjektu guztiengana generalizatu ezin daitekeenik. Beharbada, kasu konkretuetan aldagaien talde txiki batek izango du eraginik gehien, subjektu baten ezagugarri bereizgarriena bezala.

Laugarren, nortasuna, entitate fisiko ukigarria baino gehiago, «eraikuntza teoriko» bat da, hau da, jokaeratik inferitzen den jokamoduari buruzko abstrakzio edo eraikuntza hipotetiko bat. Behatutako gertaerak modu ekonomiko eta zuhurrean ordenatzen laguntzen duen «artifizio baliagarri» bat da.

Azkenik, nortasunari buruzko ohiko definizioetan baliozko iritzirik ez dela ematen esan da. Hau egia da, subjektuaren ingururako doiketa eta egokitzapenaren balorazio bat inplikatzen duen «moldaera» hitzaren salbuespenaz. Orokorrean, onartzen da, ez dagoela besteak baino hobea den «izaerarik»; daudenak, jokatzeko eta moldatzeko modu desberdinak dira, eta modu guzti horiek ingurune batetan denak zuzenak dira.

Nortasunaren definizio (edo hurbilketa definitzaile) gehien arabera, nortasunaren aldagaiek elementu hauek hartu behar dituzte kontutan: a) Bitarteko aldagaiak dira: jokaeraren berdintzan (subjektua-organismoa-erantzuna); pentsamenduak, emozioak etab. bezalako osagaiak lirateke; zuzenki

behagarriak ez izatearen ezagugarria dute. b) Haientzat sostengu biologiko bat postulatu da: nortasunak entitate fisikorik ez duen arren, nonbaiten finkatu behar du, eta organismoaren ezagugarri fisikoek eragina dute berarengan. Adibidez, kanporakoitasuna, garunazaleko inhibipenak definitzen du; barnerakoitasuna, garunazaleko kitzikapenak. c) Psikebarneko osagaiak, antolatuak eta egituratuak daude. d) Kontsistentzia handiagoa edo txikiagoa, edo gizabanako arteko patroik tipikoak gertatzen dira; garrantzitsua da hemen gizabanakoaren bereiztasunaren kontzeptua. e) Ezagutza zientifiko guztietan, derrigorrezkoa da auresatearentzat espazio bat gordetzea.

Hauk dira, nortasunaren definizioak irakurriz biltzen diren ezagugarri nagusiak.

Nortasunaren kontzeptuak gizabanakoaren irudi bateratu bat eskaintzen du. Kontzeptu horren barnean integratzen eta egituratzen dira sentipenak, perzeptzioak, motibazioak, ikaskuntza, temperamentua, bereiztasunak, afektuak, emozioak, jarrerak, premiak, gaitasunak eta antzeko aspektu psikologikoak.

Modu desberdin askotara definitu izan da nortasuna:

1. *Allport*-ek (1963), nortasunaren hainbat definizio aztertuta gero, definizio propio batetan bildu zituen: «Ingurugirorako doiketa bereziak eragiten dituzten gizabanakoaren barneko sistema psikofisikoen antolamendu dinamikoa da nortasuna».

2. *Eysenck*-entzat (1947), nortasuna «heredentziak edo inguruneak determinaturiko organismo baten jokoera-patroi aktua eta potentzialen batuketan osoa da; jokoera patroik horiek lau sektore nagusitan funtzionalki integratuz sortzen eta garatzen da: sektore kognitiboa (adimena), sektore konatiboa (karakterea), sektore afektiboa (temperamentua) eta sektore somatikoa (konstituzioa)».

3. *Filloux*-ek (1957) honela definitzen du nortasuna: «Gizabanakoaren historian zehar, haren jokoeraren sistema arduradunek hartzen duten konfigurazio berezia». Nortasuna, bakarra eta berezia da; ez da funtzioen batuketan, antolamendu edo integrazio bat baizik; historian zehar, denboran zehar eratzen da; ez da estimulu edo erantzun bat, bitarteko aldagai bat baizik.

4. *Hampson*-ek, Child-engandik hartuta, honako definizio hau agertzen: «egonkortasun gehiago edo gutxiagoko barne faktoreei egiten die erreferentzi nortasunaren kontzeptuak, okasio ezberdinetan pertsonaren jokoerari kontsistentzia ematen dioten eta antzeko situazioetan beste pertsonak izango luketen jokoeratik ezberdin bihurtzen duten barne faktoreei» (I. L. Child, 1968, or. 83). Definizio honek, nortasunari nolabaiteko egonkortasuna aitortzen dio: nortasun ez da egunetik egunera edo situaziotik situaziora erabat aldatzen. Une eta situazio ezberdinetan jokoera kontsistentea edukiko du pertsonak. Nortasuna, bigarrenik, gizabanakoaren barnean kokatzen du: behaketa zuzenez ezin hel gaitetzke nortasuna ezagutzera; jokoera behatuz inferituko dugu nortasuna. Azkenik, nortasuna da

antzeko situazioetan pertsona batzuk eta besteak jokaera desberdinak edukitzea eramango dituen.

5) *Jose Lorenzo Gonzalez*-entzat, nortasunaren psikologia gizabanakoaz arduratzen da, *osotasun* bezala hartuta eta beste gizabanakoekiko *diferentzien* ikuspegitik hartuta. Nortasunaren elementu osatzaileak nola egituratzen diren esaten digute nortasunaren teoria ezberdinek. Nortasunaren egitura elementuz edo unitatez osatua dagoela suposatzen da. Nortasunaren oinarritzko unitateak, erasokortasuna, fanatismoa eta gizartekoitasuna bezalako *berezitasunak* dira. Beste batzuentzat, *tipoak* dira nortasunaren elementu egituratzaileak. Berezitasun taldeak dira barnerakoitasuna eta kanporakoitasuna bezalako tipoak. Baina, berezitasun eta tipoetatik aparte, badira beste kontzeptu batzuk ere, nortasunaren egiturazko unitate bezala kontsideratuak izan direnak: *motiboak*, *ezagutz estiloak*...

Nortasuna, hala ere, berezitasun isolatu eta egonkorren katalogo bat baino zerbait gehiago da. Gizakiaren jokaerak jarraipena eta konsistentzia agertzen ditu. Badago, beraz, berezitasun indibidualen nolabaiteko antolamendua. Hala ere, jokaeraren atzean dagoen antolamendu motari buruz akordiorik ez dago teoriko desberdinen artean.

Nortasuna ez da entitate egonkor bat, antzaldaketak jasaten dituena baizik. Nortasunaren aldakuntzok muga batzuen barnean egiten dira: faktore biologikoek, ikaskuntzak eta zirkunstantzi soziokulturalek ezarritako muga barnean. Nortasuna, zati batean aldatu egiten da eta beste zati batean mantendu egiten da. Ez dakigu gaur egun oraindik zein neurritan egiten duen bata edo bestea.

Ikus dezagun orain, Gonzalez-ek ematen duen nortasunaren definizioa: «Gizabanakoaren autoeskema bat da nortasuna, haren ezaugarri psikofisikoak biltzen dituen, eta inguruneko situazio desberdinen aurrean jokaera eta ezagutz estilo bereziak agertzera eramaten duena».

Autoeskema esatean, autoirudia, autoerrepresentazioa, norberaren kontzeptua eta autoperzepzioa adierazi nahi ditu Gonzalez-ek. Norberari buruzko informazioa maila kontzientean nahiz maila prekontzientean prozesatzearen ondorena da.

Ezaugarri psikofisiologikoak esatean, organismoaren sentimenezko, emoziozko, motibaziozko... esperientziak biltzen ditu. Organismoaren era guztietako esperientziak.

Bestalde, nortasuna, jokaeraren antolatzailea da, jarduera sortzaile baino gehiago. Errepresentazio mental kontziente eta prekontzienteen antolatzaile, memoriaren bidez. Oroimenak koherentzia ematen die gizakiaren esperientzia anizkoitzei: autoeskemaren ezagutz elementu ezberdinen arteko kontraesanak agerian uzten ditu, norbereburuaren kontzeptua osatzen duten perzepzio guztien kongruentzia lortzeko.

Jokaera berezia esatean, norbereburuari eta esperientziari buruzko perzepzio eta errepresentazio multzoa pertsona guztiengan ez dela berdina, ez eta lan beraren edo estimulu konfigurazio beraren aurrean ere, adierazi nahi du.

Ezagutz estiloa, berriz, gizabanako bakoitzaren errepresentazio eta esperientzia konstelaziotik sortzen den antolamendu kognitiboa da, pertsonen gogamenaren jokaera berezia determinatzen duena.

Inguruneko situazio desberdinak aipatzean, gure erantzunek, gehiago edo gutxiago, kanpoko faktoreetatik dependitzen dutela adierazi nahi du, baina bere antolamendu kognitiboaren arabera hautematen eta ebaluatzen dituela subjektu bakoitzak.

6. *Pinillos*-entzat (1975), «inguruaren estimulazioaren eta subjektuek hari erantzuteko darabilten jokaeraren artean, subjektuen erantzuteko modu indibidualizatuak esplikatzeko psikologiak tartekatu behar duen bitarteko egitura errepresentatzen du nortasunak».

Zati hau bukatzeko, autore desberdinek agertutako osagai garrantzitsuenak bilduz definituko dugu nortasuna: «Oinarri somatikoa duten, autokontzientzia indibidualarekin lotuta dauden, kontsistentzia eta bereizgarritasun gehiago edo gutxiago duten, bereiziak diren, eta ingurugiroarekiko elkarreagin moldakorrean garatu eta/edo heldu diren bitarteko elementuen elkarreaginetik sortutako antolamendu estruktural eta funtzionala da nortasuna».

1.2. NORTASUNAREN PSIKOLOGIAREN IKER EREMUA ETA IKUSPEGIAK

Nortasunaren estudio zientifikoa egitea izango da Nortasunaren Psikologiaren lana. Diferentzia indibidualen eta gizaki osoaren funtzionamendu antolatuaren ikerketa sistematikoa egin behar du; gizabanakoen arteko diferentziez eta nortasunaren zatiek osotasun funtzionalean duten antolamenduaz arduratu behar du.

Nortasuna zientifikoki aztertuko dugula esatean, giza funtzionamenduaz egiten ditugun behaketak beste behatzaileek ere errepikatu ahal izango dituztela esan nahi du. Nortasunaren psikologia zientifikoa geroagoko behaketek frogatuko dituzten printzipio eta legeak formulatzeko entseiuak egiten ditu.

Zeintzuk dira Nortasunaren Psikologiak aztertzen dituen gertaera psikologikoak? Galdera honi erantzun baino lehen, Psikologiaren zein adar nagusirekin lotuta dagoen ikusi beharko dugu, horrek emango baitigu planteiatzen dituen arazo eta gaien ideia bat. Bere jatorrian, Nortasunaren Psikologia, nagusiki psikologia klinikoarekin lotuta agertu zen; diferentzia indibidualen metodologia eta epistemologiari dagokionez, psikologia diferentzialarekin lotuta agertzen da; gizakiaren jokaera, batez ere beste pertsonetik harremanean garatzen dena, testuinguruak determinatzen duela kontsideratzerakoan, gizarte psikologiarekin elkarturik ikusi dugu; eta, azkenik, jokaera orokorraren oinarriak ezartzen dituen psikologia orokorrekin lotuta ere ikusi dugu.

Praktika klinikoa, nahaste psikopatologikoak eta normalitateranzko aldaketa ahalbideak hobeto ulertzeko entseian, bere esparru teorikotik giza funtzionamenduaren azalpen globalagoak lantzen joan zen eta hauek nortasunaren teorian amaitu zuten. Harreman hau, historikoki garrantzitsua izateaz at, metodologikoki preziagarria bezala kontsideratu behar da, jokaera desbideratuaren eta haren aldaketaren azterketa, eraginkortasun terapeutikoaren indikatzaileen bidez, erabilitako eraikuntzen balidezia irizpide bezala kontsidera baitaiteke.

Diferentzialtasuna osagai konstatagarri bat da; bi gertaera guztiz berdinek ez dago. Baina honek ez du esan nahi, gertakarien arteko lotura zuzirik ez dagoenik; psikologia diferentzialaren ikuspegitik, lotura hau, gizabanakoen arteko bereizkuntza maila kuantitatiboek eratzen dute, eta hauek dira bere erreferentzi puntuak. Guztiok bakarrak gara, baina ez gara batzuk besteekin alderaezinak izateko adina bakar; horregatik, Kleinmuntz-ek (1967) oso ongi esan duen bezala, «persona batek atributu batean lorturiko puntuazioaren esanahia, atributu berean beste pertsonen lorturiko puntuazioarekin alderatuzetik eratortzen da» estrategia honen punturik esentzialena. Postulatu epistemologiko honek eraten du nortasunaren ikerketaren oinarria eta finkatze zientifikoa, metodologia eta teknika diferentzial eta/edo korrelazionalen ekarpenarekin batera.

Askotan definitu izan da psikologia zientzia sozial bat bezala. Jokaera eta nortasuna, beti kontutan eduki behar diren testuinguru soziokulturalen garatzen dira. Eragin hau okasio askotan behatu da, eta osagai lehiakor edo interferentziatzko bezala baino gehiago, konplementari bezala kontsideratu beharko litzateke.

Azkenik, zalantzagabeak dira psikologia orokorrak, oinarritzko ezagutza bezala, eginiko ekarpenak. Beren ezagugarrien mailaren eta garrantziaren arabera bereiz badaitezke ere gizabanakoak, denek oinarri amankomun bera dute; oinarri hori, lege orokorrak jarraituz finkatu da, eta psikologiaren puska honen aztergaia da. Zentzun honetan, lege eta prozesu orokor hauen aplikazio diferentzial indibidualizatua biltzen du nortasunaren psikologiak.

1.2.1. Nortasunaren ikerketen ikuspegiak

Pervin-en (1996) arabera deskribatuko ditugu ikuspegiok (Avia, M.A. & Sánchez Bernardos, M., 1995).

1.2.1.1. NORTASUNAREN AZTERKETAREN IKUSPEGI KLINIKOA

Nortasunaren *ikuspegi klinikoak*, gizabanakoen azterketa sistematikoa egin nahi du, sakonean. Ikuspegi honen historia, Pariseko klinika neurologiko batetan lan egiten zuen Jean Charcot-ekin (1825-1893) has dezakegu.

Gaixo histerikoen arazoak ulertzen saiatzen zen Charcot. Bere klinikan aztertzen zituen, anatomikoki ulergaitzak ziren paralsiak jotakoak, ikusmen aparailu osasuntsu bat eduki arren, ikusmen problemak zituztenak etab. Charcot gaixo hauek aztertzen, sailkatzen eta hipnosi bidez tratatzen hasi zen.

Charcot-en hiru ikaslek ere beren erakarriak egin zizkioten nortasunaren psikologiari Pervin-en arabera:

Morton Prince (1854-1929) Charcot-en ikasle ospetsuetako bat izan zen. Interes berezia agertu zuen Prince-k nortasunaren eremuarekiko. Lehenik, nortasun anizkoitzak zituzten pertsonen deskribapen klinikoak egin zituen. Gizabanako horiek bi nortasun edo gehiago agertzen zituzten, ezberdinak eta bereziak, haietarikoa batek bestearen existentziaren konzientziarik ez zuela. Egun, interes handia dago nortasun anizkoitzekiko. Kliniko askoren arabera, kaso hauen kopuruaren gehitze esanguratsu bat izan dela, niari, konzientziari eta borondatearen kontrolari buruz planteiatzen dituzten galdera guztiak.

Pierre Janet (1859-1947), histeriaren behaketa klinikoak sistematizatzen eta kontzeptu psikologikoekin erlazionatzen saiatu zen. Hipnosia erabiliz, zera aurkitu zuen: gaixo hipnotizatuek baldintza normaletan erabat ahaztuak zituzten esperientziak oroit zitzaizketela. Hipnosi garaian iradokitzen ziena, terapeutiko gerta zitekeen esna zeudenean, nahiz eta sugestioa gogoratzen ez zuten. Modu honetara, Janet-ek pentsatzen zuen, konzientziaren zatiketa bat gertatzen dela histerian: histerikoarengan gogamenaren funtzionamenduaren bi korronte edo gehiago agertzen direla, elkarrengandik bereziak, eta ez batuak, funtzionamendu normalean bezala. Gizabanakoak, elkarrengandik bereziak diren «ideia finkoak» balitu bezala jokatzeko Janet-entzat. Sintoma, eskuaren paralsia bezala, ideia finko bereziaren kontrolpean egongo litzateke, eta ez gainerantzeko nortasunaren kontrol bolondresaren pean.

Janet-en teoria hau baztertua egon da luzaz, baina indarberriturik da berriro prozesu inkonzienteak aztertzen dituzten psikologo kognitiboaren artean.

Charcot-ek izan zuen hirugarren ikaslea Sigmund Freud izan zen (1856-1939). xx mendeko erraldoi intelektualetako bat izan zen Freud. Haren nortasunaren teoriak eta terapia metodoak (psikanalisiak) izugarriko eragina izan du gure gizartean. Prozesu inkonzienteen garrantzia, instintu sexual eta oldarkoiarena, nortasunaren eraketan esperientzia goiztarrak duen garrantzia, neurosiaren eraketan larritasunak eta defentsa mekanismoek duten eginkizuna azpimarratu zituen. Nortasunaren egitura deskribatzeko erabili zituen hitzak gure kulturako eguneroko hizkeran ere sartuak daude. Nolanahi ere, bere formulapen teorikoak baino areago bere behaketa klinikoak izan dira Freud-en jeinua agerian jarri dutenak.

Metodo kliniko den heinean, psikanalisiak ondoko gai hauek ditu ikerketagai: pertsonen desira eta beldurrak, iraganeko oroitzapenak eta bere

egungo funtzionamenduarekin hauek duten harremana, larritasuna edo lotsa bezalako sentimendu mingarriei aurre egiteko borroka eta bere pentsamendu eta sentimenduak besteekin konpartitzeko erresistentzia.

Freud-en behaketak eta teoriak oso kritikatuak izan dira, ez bakarrik psikanalisia bazterten dutenen aldetik, berarekin konprometiturik hasi ziren aldetik ere bai baizik. Adler eta Jung bezalako lehen jarraitzaileek, Freud-ekiko harremanak hautsi eta beren eskola propioak eratu zituzten. Gaurregun, badira psikanalisan pazienteek oroitzen dutenaren egia zientifikoa zalantzan jartzen dutenak edo psikanalisia erabat bazterten dutenak, ikuspegi kognitiboagoen alde eginez. Psikanalisiaren formulazio teorikoak ezezik, hark egiten dituen behaketen izaera jartzen da zalantzan. Non daude datuak? Egiten diren behaketak besteek egiazta ez baditzaizkete, aurrez finkaturiko modu sistematikoan, ikuspegi zientifikotik baliorik ez dute.

Carl Rogers (1902-1987), Giza Potentzialaren Mugimenduaren ordezkari ezagunena da. Indar inkonziente izkutuek gidaturiko pertsonen ikuspegi psikanalitikoaren aurrean, eta kanpoko errefortzuei erantzun besterik egiten ez duen gizabanakoaren ikuspegi konduktistaren aurrean, organismoak hazkuntzarako eta autoerrealizaziorako duen joera azpimarratu zuen Rogers-ek. Rogers-en teoria humanistak, fenomenologiaren eragina jasan zuen: garrantzia duena ez da objektua edo gertaera, hura hautemateko modua baizik. Rogers-entzat, interesgunea niarengan zegoen, gizabanakoak hura hautemateko eta esperimendatzeko dituen moduetan. Hasiera batetan bere lana ez zuen niaren kontzeptuarekin hasi, baina bezeroek niaren ikuspegitik hitzegiten zutela ikusita, nia bihurtu zuen ikerketa foko eta nortasunaren deskribapenaren ardatz. Skinner-ek psikologiari buruz zuen ikuspegia kritikatu zuen Rogers-ek, bere iritzian, gizakia kontrolatzen saiatzen baitzen hura, gizakiaren askatasuna, ardura eta espontaneitatea gehitzen baino areago.

Carl Rogers eta George Kelly-ren (1905-1966) artean paralelismo interesgarri bat badago. Urte gutxiren diferentziarekin jaio ziren, urte berean lortu zuten doktore gradua, biek hurrekin lan egin zuten lehen urteetan eta pazienteekiko esperientziatan oinarritutako nortasun teoriak eta psikoterapia motak garatu zituzten. Hala ere, fenomeno ezberdinak azpimarratu zituzten.

1955ean argitaratu zuen Kelly-k *The Psychology of Personal Constructs*. Bere teoria, alternatibismo eraikitzailean oinarritzen zen; hau da, edozein gertakarik interpretazio desberdin ugari eduki ditzake. Zientzilari bezala deskribatzen zuen pertsona, bere jokaeraren auresaten onenak egiten ahalegintzen den zientzilari bezala. Konstruktioak, pertsonen mundua analisatzeko (interpretatzeko) dituzten moduak aztertu zituen; moldatzaileak ez diren konstruktioez baliatzeak edo eraikuntzak modu ez-moldatzailean aplikatzeak sortzen diren problemak ere aztertu zituen. Kelly-rena nortasunaren teoria kognitibo bat izango litzateke, pertsonen mundua

pentsatzeko eta hari buruzko informazioa prozesatzeko duten forma azpimarratzen baitu. Kelly-ren teoriari, intelektualegia izatea leporatu zaio, nortasun osoaren eta emozioen kaltetan.

Metodo klinikoak osotasun bat bezala hartzen du pertsona. Behaketa berriak eta hipotesi ugari sorrarazteko gai da. Baina, zaila gertatzen zaio beste pertsonen egiaztatzeko moduko behaketak egitea eta baldintza empiriko zehatzetan egiaztatuko diren hipotesi espezifikoak formulatzea. Hala ere, kontutan hartzeakoa da, oinarri klinikoaren nortasunaren teoria gehienak, formazio metodologiko zientifikoa zuten pertsonen garatuak izan direla. Freud biologia arloko ikertzaile aparta izana zen, Murray ikerketa kimikoan formatua etab. Nolanahi ere, behaketaren onerako, nortasunaren eremu zabala hartu nahian, frogan jar zitezkeen hipotesien formulazioa alde batera utzi zuten.

1.2.1.2. NORTASUNAREN AZTERKETAREN IKUSPEGI KORRELAZIONALA

Ikuspegi honek diferentzia indibidualari eta haien artean ezar litezkeen harremani ematen die garrantzia. Ikuspegi klinikoak behaketa azpimarratzen duen bezala, ikuspegi korrelazionalak neurketa azpimarratzen du. Ikuspegi klinikoak gizabanakoaren eta gizabanako gutxi batzuen azterketa egiten du; ikuspegi korrelazionalak subjektuen kopuru handi batetatik lortutako datuak erabiltzen ditu. Ikuspegi klinikoak osotasunean aztertzen du subjektua; ikuspegi korrelazionalak nortasunaren funtzionamenduen elementu gutxi batzuen arteko harremanak aztertzen ditu.

Ikuspegi korrelazionalak, beraz, diferentzia indibidualak neurtu eta diferentzia horien artean erlazio estatistikoak ezartzen ditu, Pervin-ek (1995) dioen bezala.

Sir Francis Galton (1822-1911) izan zen psikologia indibidualaren fundatzailea. Giza ezagugarrien heredentzian sinesten zuen. Laborategi antropometriko bat jarri zuen, pertsonen bereizgarri kopuru handiak neurtzeko. Milaka pertsona neurtu zituen, bai ezagugarri fisikoetan, bai psikologikoetan. Datuen arteko erlazioak ezartzeko, koerlazio koefizientearen ideia garatu zuen. Koefiziente honen bidez, bi datu multzoen arteko loturaren neurketa koantitatiboa burutu zuen. Honela, adibidez, taila eta pisuaren, edo gurasoen adimenaren eta ondorengoen adimenaren arteko korrelazioa azter zitekeen. Ikuspegi honetatik, Galton-en lana bere jarraitzaile Karl Pearson-ek jarraitu zuen, Pearson-en korrelazio indizearekin.

Galton-en beste jarraitzaile bat Spearman izan zen. Gaitasun mentalen neurketarekin jarraitu zuen. Inteligentzia orokorrik ba ote zegoen jakiteko, ehundaka pertsonaren adimen gaitasuna neurtu zuen froga batzuen bidez eta gero korrelazio frogak egin zituen, gaitasun batetan altu puntuatzen zuenak besteetan ere altu puntuatzeko joera ote zuten jakiteko. Bere erantzuna hau izan zen: badagoela inteligentzia orokor bat. Lan honetan sortu zen analisi faktorial bezala ezagutzen den prozedura estatistikoa. Prozedu-

ra honen bidez, datu masa handi batetan aspektu amankomunak edo faktoreak aurkitzen dira. Nortasunaren ikertzaileen galdera hau da: esistitzen ote da pertsonak elkarrengandik bereizten dituzten berezitasunen oinarritzko taldeak edo faktoreak?

Raymond B. Cattell-ek nortasunaren unitate edo ezagugarrien taxonomi erabilgarri bat egin nahi izan zuen. Kimikan hezia izanik, taula periodikoko elementuen sailkapenaren antzeko zerbait egin nahi izan zuen nortasunaren oinarritzko unitateekin. Nortasunaren elementuak berezitasunak ziren, hots, elkarrekin kobariatzen, gehitzen edo gutxitzen ziren jokaerak. Bereizitasunak, elkarren artean korrelazionatzen zuten jokaerak ziren. Bereizitasun horiek aurkitzeko metodoa analisi faktoriala zen. Analisi faktorialaren bidez lortu zuen Cattell-ek, geroago ikusiko dugun bezala, nortasunaren 16 faktoreak bereiztea.

Hans J. Eysenck-ek ere nortasunaren ikuspegi korrelazionalari heldu zion, galdekizunetako item-en analisi faktoriala eginez. Ikerketa honek nortasunaren hiru oinarritzko dimentsio edo ezagugarri bereiztera eraman zuen: introbertsio-extrabertsioa (barnerakoitasun-kanporakoitasuna), neurotizismoa (egonkorra-ezgonkorra) eta psikotizismoa (sentibera-ezsentibera).

Une honetan, adostasun moduko bat badago oinarritzko 5 faktore edo dimentsioren inguruan: neurotizismoa, kanporakoitasuna, ardura, maitakortasuna eta esperientziarako irekitasuna.

1.2.1.3. NORTASUNAREN AZTERKETAREN IKUSPEGI ESPERIMENTALA

Ikuspegi honek, aldagaien manipulazio sistematikoaren bidez ezartzen ditu nortasunaren zergati-harremanak. Esperimentatzaileak aldagai independentea manipulatu du, aldagai dependentean dituen ondorenak neurtzeko. Adibidez, mehatxu edo larritasun maila (aldagai independentea) esperimentalki gehitzen da, ikaskuntzan edo errendimuntuan (aldagai dependentea) dituen ondorenak neurtzeko. Ikuspegi klinikoarekin alderatzen badugu, ikuspegi esperimentalak subjektu askoren azterketa eskatzen du. Ikuspegi korrelazionalarekin alderatzen badugu, ikuspegi esperimentalak pertsona guztien funtzionamendu psikologikoaren lege orokorrak aztertzen ditu, ikuspegi korrelazionalak diferentzi indibidualak aztertzen dituen bitartean. Beste ikuspegietatik ez bezala, ikuspegi honetatik ikeritzailearentzat interesa duten aldagaien kontrol esperimental zuzen bat badago.

Pervin-ek (1995) dioen bezala, Wilhelm Wundt-ek (1832-1920) ezarri zuen psikologia esperimentalako lehen laborategia Alemanian. Alemanian, baita ere, Ebbinghaus-ek (1850-1909) oroimenari buruzko lehen ikerketa esperimentalak egin zituen, «ahantzuraren kurba» lortuz. Kurba honek alde batera uzten zituen diferentzia indibidualak.

Rusian, baldintzapen klasikoari buruzko ikerketetan jardun zen Paulov (1849-1936). Nortasunaren psikologoentzat interes berezia du neurosi es-

perimentalari buruzko bere azterketak. Adibidez, zakur bat hartzen dugu eta zirkulu bat janariari baldintzatzen zaio eta forma obalatuak shock bati; ondoren, zirkuluaren eta obaloaren arteko estimuluak aurkezten zaizkio. Zakurraren diskriminatzeko gaitasuna nahastua gelditzen da, eta emozio-nalki desbideratutako jokaeretara eramaten du zakurra.

Paulov-ek baldintzapen klasikoaren lege orokorrak aztertu nahi izan zituen. Aipatzekoak dira, korrante honen barruan, John B. Watson (1878-1958), Clark Hull (1884-1952), Dollard eta Miller.

Aipatzekoa da, baita ere, Skinner-en (1904-1990) baldintzapen operantea: errefortzu programen bidez erantzun behagarriak moldeatzea. Skinner-entzat, normala ez den jokaera, moldatzailea ez den ikaskuntza bati dagokio. Baldintzapen operantearen printzipioak jokaeraren aldakuntzari aplikatzen saiatu dira Skinner eta bere jarraitzaileak.

1.2.2. Nortasunaren teoriaren ereduak

Baina, itzul gaitzen atal honen hasieran planteiatutako arazora. Nortasunaren Psikologiaren helburua, gizakiaren jokaera osoa deskribatu, esplikatatu eta auresate da. Hau lortzeko, hemendik eratorritzen diren arazo korapilatsuei erantzun ahal izateko, Nortasunaren teoriari eredu desberdinak eratu dituzte. Beste kontsiderazio batzuek gain, azterketa eta ikerketaren helburuak hasieratik zuzendu dituzten hiru eredu teoriko aurkeztu dira. Hona hemen hiru eredu hauek:

1.2.2.1. EREDU INTERNALISTA

1.2.2.2. EREDU SITUAZIONISTA

1.2.2.3. ELKARREGINAREN EREDUA

1.2.2.1. Gizabanakoek jokamodu berezi eta ezberdinak dituztela pre-suposatzen du nortasunaren *eredu pertsonalista edo internalistak*. Pertsonaren jokaera, gainera, denboran zehar egonkorra izan da: pertsona batek bere existentziako garai ezberdinetan dituen jokamoduaren artean erlazio bat auresuposatzen da. Horrez gain, situazio ezberdinetan subjektuak dituen jokaeraren artean ere erlazioa badago.

Nortasunaren teoriari askorentzat, pertsonaren barne egiturak dira jokaeraren egonkortasun eta iraunkortasuna eragiten dutenak. Ikuspegi horretatik, nortasunaren aspekturik egonkorrenak azaltzeko eta gizabanakoaren jokaeraren iraunkortasuna adierazteko erabiltzen dute nortasunaren egituraren kontzeptua

Lehen eredu hau da nortasunaren teorikoek eskuharki onartzen dutena: jokaera deskribatzea, esplikatzea eta auresate ahalbidetzen duten bi-

tarteko aldagai eta prozesuen azterketara zuzendua dagoen eredua. Eredu honetan konplikazio sail bat sortu diren neurrian, hala nola, nortasunaren ezagugarrien situazio eta denbora arteko kontsistentzia handiagoa ala txikiagoaren arazoa, beste bi ereduak proposatu dira, teorien gaitasun aurre-salea gehitzen saiatzeko.

Ohar bat egitea garrantzitsua da hemen. Jokaera globala auresatean, pisu jakin bat dute barne aldagaiek, bai nortasunarenek, bai besteek; baina, horrek ez du esan nahi jokaera ezagugarri horien arabera bakarrik esplikatzen eta auresaten denik, jokaeraren azken emaitzak osagai askoz gehiago inplikatzeko baititu. Zentzun honetan, beste bi ereduak, batez ere situazionista, ez dira bereziki eta eksklusiboki nortasunarenak. Eredu horien helburua, gaitasun auresalea gehitzea da; gero ikusiko dugunez, situazionismoa, nortasuna kontuan eduki gabe funtzionatzen saiatzen da, eta interakzionistak, ereduaren zati bezala kontsideratzen du, baina nortasunaren aldagaien sorrera teorikoki independentea da. Guztiarekin ere, badu meriturik, jokaeraren auresatea gehitzearen situazioko aldagai eta parametroak integratzeko ahaleginak (Pinillos, 1975). Beranduago itzuliko gara horretara.

Lehenengo ereduaren zentratuz, subjektuen ezagugarri bereizgarri egiturazko eta dinamikoak errepresentatzen dituen nortasunak: ezagugarri horiek bereizgarriak dira, bai beren buruarekiko, bai besteekiko, bai ingurunearekiko. Jokaera estilo bat sustatzen duen barne sistema bat da; jokaera estiloa, gutxienez, behagarria da eta enpirikoki aztergarria; eta ingurunean ematen diren erantzunekiko erlazioan, koherentzi eta kontsistentzia maila bat badu, ezagugarria izateko.

Ondorengo gaitako teoria desberdinen garapenean ikusten joango garen aldagai kongretuen edukinak, ez ditugu oraingoz kontsideratuko; egituratzen dituzten elementu amankomunak nabarmendu besterik ez dugu egingo. Ezagutzen diren teorien kopuru handiak garbi agertzen du, zeinen konplexua den pertsona eta testuingurua globalki ulertzea; horregatik, teoria horiek, ikerketarako eta ezagutzarako esparru teorikoek duten «baliagarritasunean» zentratu dira nagusiki, haien egian edo faltsutasunean baino gehiago.

Pervin-en arabera (1975), giza nortasunaren azterketak ezagugarri sail bat eduki behar ditu kontuan:

1. Gizakia espezie guztien artean zerbait bakarra da. Bere buruaz hausnartzeko gaitasunean oinarritzen da nagusiki singularitate hau. Gizakiaren pentsamenduaren eta hizkuntzaren garapenak, haren gaitasun simbolikoak, garatzen den ingurune fisikoaren dependentziatik askatzen du eta garatzen den gizarte testuinguruaren dependentzia handiagoa ematen dio.

2. Giza jokaera konplexua da. Bereziki, ikuspegi kognitiborik eta errealtatearen gogamen eraikuntzaren ikuspegitik begiratuta.

3. Jokaera ez da beti dirudien bezalako. Jokaera behagarri baten interpretazio genotipikoa oso desberdina izan liteke.

4. Gure jokaera determinatzen duten faktoreei buruz ez gara beti kontzienteak. Jokaeraren konplexutasunari eta mekanismo perzeptibo eta kognitibo desberdinei zor zaie hori.

Lau puntu hauetatik abiatuz saiatzen da Pervin pertsonari buruz zer-bait jakiten, haren jokaera globala ulertu asmoz. Hau izanen litzateke, nagusiki, nortasunari buruzko ikerketen eginkizuna: pertsona bat nolako den, dena izatera nola heldu den eta jokatzeko duen bezala zergatik jokatzeko duen ezagutzea.

Pertsona nolako den galderak pertsonaren ezagugarriei eta haien antolamendu modua egiten dio erreferentzi; «nortasunaren egitura» edo «nortasunaren profila» adierazi nahi du. Teoria desberdinek kontzeptu deskribatzaile oso desberdinak garatu badituzte ere, haien arteko bi aipatuko ditugu: «berezitasuna» eta «tipoa». Berezitasunaren kontzeptuak, situazio desberdinetan subjektu batek agertzen dituen erantzun berezien konsistentzia eta iraunkortasuna adierazten du. Abstrakzio edo eraikuntza teorikoa izanik, ez dute entitate erreala eduki beharrik; jokaeraren behaketetatik abiatuz lantzen ditugu berezitasunak, situazio desberdinetan zehar pertsonen jokaerak agertzen duen agiriko konsistentzia esplikatzen. «Tipo» kontzeptua, bere aldetik, berezitasunen taldekamendu bat da, hierarkikoki goragoko mailakoa. Adibidez, Eysenck-en nortasunaren teorian, «kanporakoitasuna», maila tipologikoan egonen litzateke, «Gizartekoitasun» eta «Inpulsibitate» berezitasunekin konektaturik. Bi kontzeptu hauen erabilpena oso generalizatua dagoen arren, beste kontzeptu batzuk erabiltzen dituzten, edo modu ezberdinetara erabiltzen dituzten teoria asko daude.

Nortasunaren ezagugarriei buruz hitzegiteko erabiltzen den beste termino garrantzitsu bat, «faktorearena» da. Nortasunaren faktoreak, teoria faktorialista deituetatik sortuak dira, analisi faktorialaren teknika matematikoa erabiliz eraiki edo definitu baitira.

Honela, beraz, esan daiteke, nortasunaren kontzeptuak deitzeko erabiltzen diren berezitasun, tipo, ezagugarri, aldagai, faktore etab. bezalako terminoak, edukin edo jokaera pautak berbera izendatzeko erabil daitezkeela, baina erreferentzi esparru teoriko edo metodologiko desberdinetatik.

Bigarren galderak, den bezalako izatera nola iritsi den galderak, garapen ebolutiboaren eta teleologikoaren (ekintzaren norabidearen) aspektuak biltzen ditu. Motibaziozko aspektuak eta aspektu dinamikoak biltzen ditu. Eredu esplikatzaile zenbait proposatu dira, haien artean, «tentsioaren jaistearena». Organismoak bere baitan tentsio eta premia sail bat sentitzen ditu, adibidez tipo fisiologikokoak; tentsio hori gutxitu nahiko litzateke, oreka homeostatiko bat lortzeko. Eredu hau teoria psikodinamikoek darabilte. Baina, sarritan aurkitu izan den beste gertakari bat, organismoek

tentsioa eta estimulazioa bilatzearena da; organismoek hazkuntzarako eta autoaktualizaziorako berezko joera dute. Bestela, nola ulertu behar da espezie anitzetan, batez ere garatuenetan, agetzen den jokaera esploratzailea eta ludikoa? «Estimulazio bilaketa» honek eramanda, bere ingurunea kontrolatzeko gero ta gaituago egingo duten trebetasunak lantzen ditu subjektuak. Jarrera hau, besteak beste, teoria fenomenologikoez defendatzen dute.

Maslow-k (1976) agertzen duen bezala, batzuetan premia fisiologikoez kitzikatzen dute subjektua eta haiek gutxitzea bilatzen du honek; bestetan, joera autoaktualizatzaileek edo gizartearen aldetiko onarpen eta kontsiderazio premiez kitzikatzen dute.

Nortasunaren garapen ebolutiboan, haurtzarotik helarora, faktore biologikoez batera, ingurunezko determinatzaileek ere eragiten dute. Jokiera pautak hauek ondorengo faktore sail honen bidez artikulatzen dira: ingurunearen eragina ordezkatzeko duten kultur, gizarte eta familiako faktoreak, eta biologikoen eragina ordezkatzeko duten genetikako eta heldutasuneko faktoreak.

Nortasunaren garapenean kulturaren faktoreek duten garrantzia kontutan hartzekoa da. Nortasuna igurtzitzen duten konzeptzio asko, bizitzari, erlijiotasunari, heriotzari, osasunari, balio nagusiei (dirua, boterea etab) buruzkoak, kulturaren testuinguruak determinatuak dira. Mendebaldeko kulturaren nahiko sustatuak dira indibidualtasuna edo errendimendu profesionala bezalako balioak; subjektuen jokaeraren zati handi bat determinatzen dira. Subjektuak kultur markoetan garatzen diren neurrian, marko horiek jokaeraren pautak markatzen joko dute. Kulturak, gure izaera eta jokaera guztia biltzen duen presio bat eragiten du, iraunkortasun eta kontzientzi maila desberdinetakoa. Horretarako, gizarteratze prozesu desberdinak erabiltzen ditu, esate baterako, nolabaiteko «kontzientzia kolektibo» sortzen doazen ipuin eta mitoen «ahozko transmisioa». Haurren ipuinek kultur balioen transmisioan duten garrantziaz asko idatzi da; ipuin horiek forma eta edukin samurrak eta xumeak dituzte, baina beren azpiko mezuak sakonak dira.

Gure jokaeraren zati handi bat, gizartearen geruza jakin batekoa izateak arartekotua da. Gizarte klasemaiak, esparru profesionalak etab. gure pribilegio eta betebeharrak definitzen dituzten rolak ezartzen dituzte. Horregatik, gure pentsamendu eta jokaeraren «deformazio profesionala» bezalako aspektuez sarri hitzegin beharrean aurkitzen gara. Gure laneko jokiera, gure eguneroko ordutegiaren zati handi bat hartzen duenez, gure izaeraren eta jokaeraren zati handi batetan isladatzen da.

Beste gizarteratze esparru garrantzitsu bat, gure nortasunaren eta gure jokaera pauten garapenean eragin handia duena, familia da. Hazkuntz estiloen, ezagutz estiloen etab., transmititzaile garrantzitsua da familia. Zenbait egilek azpimarratu dute bizitzaren lehen etapetan ama-eme/alabaren arteko haremanek duten garrantzia, adibidez, larritasun kantitatea eta giro au-

toritario/demokratikoa transmititzerakoan. Ezagugarri pertsonalen artean, garrantzitsuenetakoa autoestimarena da; ezagugarri hori, inguruneko gizarterako irudi esanguratsuekiko elkarreraginean garatzen da. Gainera, haurrekiko, identifikazioaren eredu bezala serbitzen dute gurasoek.

Espezie guztiari amankomunak zaizkion heldutasunaren eta garapenaren prozesu naturalekin batera, gizabanakoen faktore genetikoek eginkizun garrantzitsua betetzen dute nortasunaren konfigurazioan, adibidez, nerbio sistemaren erreaktibitate handiagoan edo txikiagoan. Faktore genetikoa, adimena edo gaitasunak bezalako beste ezagugarrietan garrantzi gehiago egotzi bazaie ere, beste ezagugarri guztien (nortasuna barne dela) garapena sostengatzen duten oinarriko sustratua dira. Nahiz eta askotan zaila den beren pisua zedarritzea, azken emaitza inguruneko faktoreekin elkarreraginean ekoizten delako.

Hirugarren galdera, jokatzeko duen bezala zergatik jokatzeko duenari buruzkoa, jokaeraren zergatiari buruzkoa da. Seinalatu dugun bezala, nortasunaren teoria gehienek jatorri klinikoa dute. Horregatik, garapen normalaz gain, garapen psikopatologikoa ere esplikatzen saiatzen dira, eta garrantzitsuagoa dena, aldaketa terapeutikoa ere bai. Aspektu hau oso garrantzitsua da, teoriarik inplikaturiko elementuen irizpide eta eraikuntz balidetzaren finkapena ahalbidetu baitiezaguke. Hain zuzen ere, ez da nahikoa deskribatzea; «aldaketa kontrastagarriak» gertatzen diren neurrian, jokuan sartzen diren elementuen kontrola eta maneia nabarmen gelditzen da; horrek, jokaeraren zergati azalpenak ahalbidetzen dituen ezagutza modua suposatzen du.

Nortasunaren ikerketa sustatzen duten eredu teorikoetara itzuliz, eredu situazionista eta interakzionista ukituko ditugu orain.

Lehen azaldua dugun bezala, eredu berrion asmoa, teoriaren botere auresalea gehitzea da, eredu internalistak ez baitzuen auresangarritasun maila garairik lortzen. Eredu situazionista teoria konduktistarekin hertsiki erlazionatua dago, eta haren eragin garbia du. Teoria honen abiapuntuko ideien arabera, organismoaren jokaeraren azalpena ez da barnean bilatu behar, ingurunean baizik.

Barne faktoreen izana ez da ukatzen, baizik jokaera auresateko garaian faktore horiek duten operatibitate eza agertu nahi da. Zentzun honetan, ez du nortasunaren teoriarik proposatzen, haren baliagarritasuna ukatzen baitu. Nortasunaren terminoa mantentzen bada, jokaeraren sinonimo bezala da, eta ez barne egoera edo prozesuen indikatzaile zuzen edo zeharkako bezala, eredu internalistetan gertatzen den bezala. Nortasun terminoa erabiltzen denean, subjektu batek aurkezten duen jokaeren erreperitoriumaren batuketa eta antolamendua izendatzeko erabiltzen da, Watson-ek berak proposatu zuen bezala. Jokaeraren eskurapenaren eta aldaketaren bidea da ikaskuntza; ikaskuntza, subjektuaren ezagugarri biologikoen, filogenetikoak (espeziea) eta ontogenetikoak (indibidualak) barne direla, mugatzen dute. Zentzun honetan, Nortasunaren Psikologia, Ikaskuntzaren

Psikologiaren zati bat izatera mugatzen da, jokaera baldintzatzearen paradigmaren arabera esplikatuz.

1.2.2.2. *Ikuspegi situazionista* dutenek diotenez, gizaki bat areago eza gutzen dugu haren situazio soziala deskribatuz, kanporakoitasuna, dominantzia eta indezisia bezalako kualitate lausotsuak izendatuz baino.

Situazionistek, situazioaren eragina azpimarratzen dute; ingurune zirkunstantziak dira gizakia erreazionatzerantz bultzatzen dutenak. Zirkunstantzi horietako asko sozialak izanik, jokaeraren ikaskuntza, ikaskuntza soziala gertatzen da neurri handi batean.

Joakeraren egonkortasun transituazionalaren kontra, situazionistek zera diote: situazio aldatzen den neurrian, jokaera ere aldatu egiten dela; denboran zehar jokaeraren egonkortasunik gertatzen bada, hura situazioaren berdintasunak esplikatzen duela, eta ez subjektuaren egitura iraunkorrak.

Kinada berdinaren aurrean gizabanako ezberdinek ezberdinki jokatzeko dutela esaten bazaie, situazionistek zera diote: aldagai independenteak kontrolatzen diren heinean, subjektuaren oraingo eta historiako baldintza estimularrak kontrolatzen diren heinean, gizabanakoen erreazionatzeko moduen artean egon daitezkeen aldeak desagertu egiten direla.

Mischel-ek dioenez, teoria pertsonalistek agertzen dutena baino konsistentzi transituazional gutxiago erakusten dute gizakiek beren jokaeretan. Eta, pertsonen jokaerak iraunkorrak ez diren neurrian, barne-egiturei ematen zitzaizen garrantzia zalantzan jartzen da eta situazio aldagaiak azpimarratzen dira.

Eredu situazionista eredu determinista bat da, jokaera inguruneak bakarrik zedarritzen baitu. Zalantzarik gabe, bere auresateak sustatzeko situazionismoak dituen pretentsioak gehiegizkoak dira, estimuluaren eta errefortzuaren balioa arartekotzen duten ezaugarriak ezin ahantz baitaitezke. Beti pasiboa ez den egokitzapen bat badago ingurunearen eta organismoaren artean: subjektuak aldatu eta egokitu egiten du bere ingurunea bere premia eta ezaugarrien arabera, kualitatiboki desberdinak diren aldatetarako ekoiztuz.

Situazionismoak eredu internalisten puntu ahul bat ere kritikatu du, ezaugarri pertsonalen ustezko konsistentziari dagokiona. Situazionismoetik postulatuenez, jokaeraren konsistentzia, ingurunea konfiguratzeko duten dimentsioen antzekotasunak determinatzen du. Jokaera guztiz aldakorra eta ezegonkorra da, estimuluaren eta errefortzuaren baldintzak oso antzekoak eta iraunkorrak ez direnean; ingurune parametroak dira, gizabanakoaren iraganeko esperientzietan pilatutakoak barne direla, jokaeraren iraunkortasuna esplikatzeko dutenak.

Oro har, subjektuak modu ezberdinean jokatzeko du situazio desberdinen arabera; aldi berean, situazio berak erreazio desberdinak sortaraz ditzake subjektu ezberdinetan, ikaskuntz diskriminatiboaren eta bere errefortzuen historiaren funtzioan.

Baina, puntu honetan hausnarketa batzuk egin behar dira. Horietako baten arabera, jokaera ez du inguruneke estimulazioak zuzenki gidatzen, subjektuak egiten duen hautemateak eta interpretazioak baizik. Bestalde, jokaera bat behatzean, dela testuinguru zientifikoan, dela testuinguru naturallean, situazioa aurredefinitu egiten da, hots, igurikapenak eta «autobetetzen diren auresateak» gertatzen dira; hau da, gure aurrejarreraren arabera behatzen dugu, aurrez finkatuarekin ados ez datorrena alde batera utziz; behaketa horiek ratifikatu egiten dituzte, besteei eta geure buruei aplikatzen dizkiegun rol eta igurikapenekin erlazonaturiko egozpenek. Oro har, pertsona konkretu bat, egonkorki definituriko situazioetan behatzen dugu, eta ez subjektuak emandako erantzunak aldatzen doazen situazio guztietan, 24 ordutan zehar.

Arrazoi zati bat emanda ere, eredu situazionistak kareletik botatzen du pertsonaren ondare guztia. Aspektu auresalea gehitu beharrak eramanda, subjektuak egindako interpretazio eta hautemate kognitiboak, jokaerari benetako zentzuna emanen diotenak, ez ditu kontutan hartzen; «zirkunstanzien mirabe edo morroi» izatearen eredu pasiboa eta errektiboa postulatu du.

1.2.2.3. Azkenik, *elkarreraginaren ereduaren* arabera, subjektuen jokaeraren bariantza osoa, zati batean ezagugarri pertsonalek esplikatzen dute, beste zati batean, situazio testuinguruak, eta batez ere, bi prozesuen arteko elkarreraginak. Eredu honen ikuspegitik eginiko ikerketen arabera, «larritasuna» eta «etsaitasuna» bezalako ezagugarrien bariantza maila handiagoak ezplika zitezkeen, pertsonaren, situazioaren eta bien elkarreraginaren aldagaietatik abiatuz. Pertsonaren ezaugarriek, beraiek bakarrik, onenean ere ez zuten % 20a baino gehiago esplikatzen; situazioaren ezaugarriek bakarrik, %4 eta %8ren artean esplikatzen zuten, subjektuen eta situazioaren arteko elkarreragina, berriz, %30a esplikatzerantz heldzen zen.

Gainera, elkarreraginaren ereduak organismoaren eginkizun aktiboa azpimarratzen du, batez ere errealitatearen atzemate, kodifikazio eta simbolizazioari dagokionez; subjektuarentzat esanguratsua eta baloratua den neurrian kontsideratzen da situazioa.

Subjektua ez da «tabula rasa» bat; bere situazioarekiko harremanak arartekotzen dituen tresneria bat badu; subjektua, berak eraikitzen eta interpretatzen duen «giro psikologiko» batek biltzen du. Horregatik, eredu honetatik, izkutuko jokaera, zuzenki behagarria ez dena, azpimarratzen da; hori da, beharbada, giza jokaeraren aspekturik garrantzitsuen eta bereizgarriena, eta psikologia zientifikoaren helburu bezala ahortzi ezin daitekeena.

1.3. TENPERAMENTUA

Eskuarki nortasunaren kontzeptuaren sinonimo bezala beste bi termino erabiltzen dira: tenperamentua eta karakterea. Tenperamentuaren nozioa.

Konstituzio fisikotik dependitzen du. Nortasunaren berezitasunak eragiten dituzten barne ingurune biologiko eta biokimikoari dagokio tenperamentua. Termino zaharra izanik, «konstituzio» hitzak ordezkatu du; horrela, gaur egun «psikologia konstituzionalaz hitzegiten da». Arlo honen aurrerapena, genetika, biokimika, neurologia, endokrinologia, fisiologia eta antropologia fisikoaren azterketa eta ekarpenek bultzatu beharko lukete.

Badira aspektu psikologiko batzuk, determinatzaile biologikoak dituztenak, identitate sexualarekin gertatzen den bezala. Kulturalki hartzen ditugun rol, igurikapen eta entrenamendu sexualki norabidetuetatik at, sexuatu izateak berak ematen dizkigu elementu anatomiko eta hormonal diferentziatuak, eta neurri handi batetan, hauek dira gure jokaeraren determinatzaileak. Adibidez, testosterona hormonaren arabera indar gehiago edukitzeak, eduki dezake eragina, jokaera gaizkilea dutenen %90 gizonetakoak izatean, emakumearen eskuhartzea bigarren mailako eginkizunetara eta gaizkilea estaltzera mugatzen den artean; eta baita ere, emakumeak, eraso egin behar duenean, ekin aurretik, biktimarekiko abantaila disposizio bat eduki behar izatean (Guerra eta Lerma, 1989); eta, beste maila batean, zergatiak zuzenki ezagutzen ez badira ere, bihotzeko nahaste gutxiago gertatzen dira emakumeengan, menopausiara bitartean behintzat. Biologikoki determinaturik agertzen den beste bereizgarri bat, «energia vs. bizitz apatia» da: bulkada intentsoak, tiroidesaren metabolismo garaiekin oso erlazionatuak agertzen dira.

Motibaziozko erantzunen eta erantzun afektiboen erantzule diren faktore genetiko eta konstituzionalek eratzen dute tenperamentua. Ikaskuntzak modulatu badu ere, aldaketari jazarpen gehien jartzen dion nortasunaren alderdia da.

Nozio oso zaharra dugu tenperamentuaren nozio hau. Humore hipokratikoen teoriarekin hertsiki erlazionaturik agertzen zaigu. Pertsonaren tenperamentua gorputzeko humoreek determinatua egonen litzateke. Faktore biologikoetatik zuzenki dependitzen duten jokaeraren kalitateei dagokie tenperamentua. Faktore biologikoen multzo horrek energia mobilizatzeko estilo berezia determinatzen du. Erreakzio tipo bat eta emozio tonalitate tipo bat ebokatzen du.

Temperamentuak, beraz, konstituzio fisikoari eta erreakzio moduari egiten dio erreferentzi. Konstituzionala eta aldakaitza da, zenbaiten ustez. Beste zenbaitentzat, ez. Honela, J-C. Filloux-ek, tenperamentua hereditziak determinatua eta aldakaitza dela diotenen aurrean, galdera hau egiten du: — Sistema sinpatiko eta endokrinoaren funtzionamendu bera ez al dute maila psikologikoko faktoreek baldintzatzen?

Hona hemen nola definitzen duen Allport-ek tenperamentua: «Gizabanako bat bereizten duten izaera emozionalako fenomenoak biltzen ditu, hala nola: estimulaketa emozionalarekiko sentiberatasuna, ohiturazko erreakzioen abiadura eta intentsitatea, humore egoera nagusia eta egoera horren aldaketaren eta intentsitatearen bereizgarriak» (Allport, 1961).

1.4. KARAKTEREA

Grekoan du jatorria: marka grabatua, objektu batetan zizelkatzen edo marrazten den seinalea adierazten du. Adiera psikologikoan, gizabanakoaren jokaeran agerian jartzen den bizitz estiloa edo seilu pertsonala adierazteko erabiltzen zen. Hasiara batetan, batez ere autore europarrak, karakterraren egitura zerbait mugikaitza bezala planteiatzen zuten, nortasunaren egituraren sinonimo bezala.

Karaktereari buruzko kezka antzinateko Grezian ageri zen ia. Aristotele-ren ikasle izan zen Teofrastok idatzi zuen «Karaktereak». Idazlan horretan, tipo psikologikoen 30 deskribapen egiten dira. Tipo baten deskribapena edo erretratua egiterakoan, subjektuaren berezitasun nagusi batetan oinarritzen da. Tipo idealen deskribapenak dira, bizitza errealean inoiz aurkitzen ez diren tipo puruak.

Baina, denborarekin, karakterearen esanahi bereizten joan da, eta hasierako «marka»-ren esanahiaz gain, beste esanahi moralago bat hartu du, harreman sozialekin elkartuagoa. Karakterearen bidez, bere kualitate moralek determinaturiko giza-jokabidearen berezitasuna adierazten da. Norbaitek «karaktere ona» duela esaten badugu, tratu onekoa (gizartekoia) eta patxadatsua dela adierazi nahi dugu. Norbait «noblea», «sortzailea», «leiala» dela esatean, bere karaktereari egiten diogu erreferentzi. Baloraziorik egiten ez dugunean, nortasunaz ari gara.

Karakterea: nortasun baloratua. Nortasuna: baloratu gabeko karakterea (Allport, 1963).

Karakterea ez da, beraz, nortasunaren zati bat, positiboki edo negatiboki baloratutako nortasuna bera baizik.

Karakterea, sarritan nortasunaren sinonimotzat hartu izan bada ere, denboran zehar adiera etikoa hartzen joan da. Honela, Allport-entzat, «karakterea, etikaren ikuspegitik ebaluaturiko nortasuna da, sinpleki» (Allport, 1961). Pertsonaren karakterea, haren esperientziaz eratzen da nagusiki, haurtzaroko esperientziez, batikbat, eta aldagarria da neurri batean, norberaren ezagutzaz eta esperientzia berriez».

Baldintza temperamentalek zuzenki ukitzen dute pertsonaren jokaeraren forma, baina ez jokaeraren edukia; erreakzio modua baldintzatzen du temperamentuak, baina ez pertsonak egiten duena, ekintzaren edukia. Adibidez, pertsona batek temperamentu kolerikoa badu, haren erreakzioa «bizkorra eta indartsua» izango da; baina, modu horretan zeren aurrean erreakzionatuko duen, haren karaktereak esanen digu. Fromm-ek dioen bezala, pertsona koleriko hori produktiboa, justiziazalea eta maitakorra balitz, maitatzerakoan, zuzengabekeria baten aurrean edo ideia berri baten aurrean erreakzionatuko luke bizkorki eta kementsuki. Aitzitik, pertsona koleriko hori suntsitzailea eta sadikoa balitz, bizkorki eta kementsuki erreakzionatuko luke, baina suntsitzerakoan eta bere krudelkeria agertzean.

1.5. BEREZITASUNAK

Modu jakin batera erreakzionatzeko joera orokorra eta iraunkorra adierazten du berezitasunak. Situazio ezberdinen aurrean ematen diren erantzunen konsistentzia eta iraupena. Horregatik, nortasunaren dimentsio iraunkor horren ezagutzak, gizabanakoaren jokaera aurrean ahal izatea ahalezatzen du.

Pertsonak, berezitasun edo ezagugarri kopuru handia dute. Berezitasun batzuk fisikoak dira (pisua, garaiera...), beste batzuk gogamenekoak (oroimena, hitzen ulermena...), beste batzuk, berriz, propioki nortasunaren berezitasun deituak: elkarkoitasuna, jarduera, emotibitatea...

Berezitasun gehienek propietate eskalarrak dituzte. Berezitasun eskalarra, kuantitatiboki mailaka dezakegun hura da. Berezitasun ez-eskalarra, berriz, haren indikatzaile egokirik aurkitu ez dugulako, bere presentzia edo ausentzia soilagatik ezagutzen dugun hura da.

Kontutan eduki behar da, ordea, berezitasunen koantifikaziorako ahalbideak mugagabeak direla. Gakoa, indikatzaile egokiak aurkitzearena eta zenbaketa metodo egokia aplikatzearena da. Oinarrizko berezitasun bezala zeintzuk kontsideratu behar ditugun eta haien intentsitatea nola neurtu behar dugun erabakitzerakoan sortzen dira problemak. Orainarte erabilgarriatsun gehien agertu duen metodoa, analisi faktorialarena izan da. Análisi moeta honek, unitate funtzionalak isolatzea ahalezatzen du, nortasunari buruzko datu koantitatibo multzo handi batetatik abiatuz lorturiko interko-relazioen analisiaren bidez.

Berezitasun multzo baten taldekatetik, tipo kontzeptura heltzen gara. Tipo kontzeptuak, beraz, berezitasun kontzeptuak baino antolamendu eta abstrakzio maila handiagoa eskatzen du.

1.6. TIPOLOGIAK

1.6.1. Platon

Psikologiako tipologiaren lehen entseguak Platonengan (K.a. 427-347) aurkitzen ditugu. Gizarteko kideen desberdintasuna zerk eragiten duen aztertuz, giza psikismoan hiru zati bereizten ditu: adimena, zati haserrekorra eta zati grinatsua. *Adimenaren* zatiak (logistikon) ezagutza bilatzen du eta buruan kokatua dago; *zati haserrekorrak* (zimoeides), afektu eta pasio nobleak biltzen ditu (zuzengabekeriaren aurreko haserrea, garaipen gosea, arrakasta eta ohore nahia) eta bularrean kokatzen da; *zati grinatsua* (epizimetikon), diafragma eta zilborraren eskualdean lekutzen da eta objektuak eskuratzen saiatzen da, edateko, jateko edo atsegin sexuala lortzeko. Hiru zatiok modu desberdinean banatzen dira, bai gizabanakoengan, bai herriengan.

Metodo tipologikoaren konstanteetako bat da, psikismoa oinarrizko osagai kopuru batez osatua ikustea, gizabanako bakoitzaren konstituzio

psikikoan dosi aldakorretan eskuhartzen dutela osagai horiek. Platon-ek, nortasunaren ezagugarriak aukeratzekoan, mugimendu bizkor eta bortxazkoak dituzten pertsonak, beren ausardiarengatik eta haserrekoartasunarengatik bereizten direnak jarri ditu alde batetik (zimoeides-aren nagusigoa); bestaldetik, patxadaz, neurritz, jakinduriz eta zuhurtasunez jokatzeko dutenak (logistikon-aren nagusigoa). Honela, adibidez, grekoak logistikon-aren nagusigoarengatik bereizten dira; trazioak eta eszitak, berriz, azkarrak, ausartak eta bortxazaleak dira. Zati grinatsuaren nagusiagoak ez dakar bertuterik, baina, Platon-entzat, feniziarrek eta egiptiarrek dira zati horren nagusigoa erakusten dutenak.

1.6.2. Lau temperamentuen teoria

Teoria hauek nortasunari buruzko azterketen historiaurrean kokatzen dira. Teknikarik ez zuten kontzeptuok zientifikoki aztertzeko, baina teorion eragina gure egunetararte luzatu da.

Temperamentuen deskribapena sostengatzen zuten teoriak Enpedokles-ek garatu zituen (K.a. V mendea), errealtate guztia lau elementu betiko eta suntsiezinez osatua bezala agertzean: Aire, lurra, sua eta ura ziren elementu horiek. Unibertsoa lau elementu horien konbinaketaz osatua dago. Bi indarrek eragiten duten beren gain: maitasunak eta gorrotoak. Lehenak elkartu egiten ditu; bigarrenak, bereizi.

Hippokrates-ek (K.a. 460-370) makrokosmosetik gizakiarengana ekarri zuen ikuskera hau; gizakia mikrokosmo bat zen, lau elementu haietaz osatua, lau elementuak lau «humoreen» modura agertuz gizakiarengan. Humore hauetako bat nagusituko balitz gizakiarengan, lau temperamentuetako bat emango luke.

Hippokrates-entzat osasun fisikoak eta psikikoak gorputz elementu batzuen dosifikaziotik dependitzen dute. Odola, flema, behazun hori eta atrabilis-aren nahasketa orekatu edo desorekatutik dependitzen du osasunak edo gaixotasunak. Hippokrates-en teoria hau, geroago Galeno-k landuko du (129-199) eta temperamentuen sistema tipologikoaren oinarriak ezartzen ditu. Hona hemen bere sailkapena, Enpedokles-en lau elementuen dotrinarekin paralelismoan jarriz (Giza naturaren tratatua, IV atala).

Elementuak	Propietateak	Humoreak	Temperamentua
Lurra	Hoztasuna-lehortasuna	Behazun-beltza	Malenkoniatsua
Airea	Beroa-hezetasuna	Odola	Odolbizia (sang.)
Sua	Beroa-lehortasuna	Behazun horia	Haserrekorra (koler.)
Ura	Hostasuna-hezetasuna	Flema	Flematikoa (patxad.)

(Allport, 1963)

Humoreok proportzio egokietan nahasten baziren, nortasun orekatsua sortzen zen. Hori gertatzen ez zenenan, humore dominatzailearen funtzioaren arabera bereizten zen nortasuna.

1.6.3. Kant

Kant-ek, 1798 urtean argitaratu zuen Antropologia liburuan, bereizgarri antropologikoari dedikatzen zaio bigarren zati. Temperamentuaz hitzegtzean, Hippokrates-en temperamentuak oraindik bizirik agertzen dira:


- Temperamentu sanginikoa (odolbizia): odol arina duenarena.
- Temperamentu malenkoniatsua: odol astuna duenarena.
- Temperamentu kolerikoa (haserrekorra): odol beroa duenarena.
- Temperamentu flematikoa: odol hotza duenarena.

(Kant, 1798)

Egungo zientziak, sustantzia hormonal asko ediren ditu organismoan; aurkitu denaren arabera, sinplistegia geratzen da Hippokrates-en deskribapena; baina, temperamentua eta organismoaren osagai materialak erlazionatzeko intuizioa ikerketa askok egiaztatu dute, eta aldagai psikologikoe-tan gorputzaren kimikak eragin handia duela ikusi da. Modu koalitatiboan, temperamentu kolerikoari haserrekortasuna egotzi zitzaion, sanguineoari, adoretzu eta dezidituaren izaera egotzi zitzaion eta flematikoari, apatia.

Lehen ikuskeran, temperamentuak modu koalitatibo-diskretoan kontsideratu ziren, hau da, subjektu bat lau kategoria horietako batean sailkatzen zen, eta hortik abiatuta, lau temperamentuetako baten bereizgarriak egotzen zitzaizkion. Baina, sailkapen sistema hau ez zen batere egokia, tipo puruak aurkitzea zaila baitzen; lau temperamentuetako baten nagusigoa zuten pertsonak aurkitzen ziren, beste temperamentuen bereizgarriak baztertu gabe. Eragozpen hori zela ta, autore modernoek berriro onartu zituzten temperamentuak beren lan eremuetan, baina dimentsionalizatuz, hots, dimentsio koantitatiboetan integratzeko gradienteak ezarriz. Honela, adibidez, Wundt-ek temperamentu hitza erabiltzen du, erantzun emozionalaren bi parametrori erreferentzi eginez: abiadura eta intentsitatea. Dimentsio hauetako bakoitzean subjektu bakoitzak zuen gradientearen arabera, lau temperamentuetan kokatuko zuten. Ikus irudia:

Temperamentuei buruzko Wundt-en eskema



Temperamentuen teoriaren eragina grekoengandik ia gure egunetararte luzatu da. Geroago ikusiko dugunez, Eysck izan da, lau temperamentuen gai hau gehien aztertu duena, bere nortasunaren teoriaren sostenguetako bat bezala.

Lau temperamentuen teoria hau erabili izan da patologiak, estilo emozionalak eta abar esplikatzeko, zentzun komuneko teoria psikologikoen barnean azterketak egiterakoan. Horrela, gizon gaztea odolbizia zela esaten zen, lehen helduaroan, kolerikoa, helduaroan, melankolikoa eta zahartzaroan flematikoa. Saillkapen hauek literaturatik gehiago dute noski, zientifikotik baino.

Gerora, lau temperamentuen zatiketak eskema hirukoitz batetarantz eboluzionatzen du, Kretschmer eta Sheldon-en teoria biopsikologikoetan ikusiko dugun bezala.

1.6.4. Heymans-en tipologia

Heymans-en helburua, gizakiak bereizten dituzten ezaugarri psikologikoen artean, elkarrekin loturik dauden berezitasun taldeak aurkitzea da, kategoria psikologiko edo tipo egoki batzuk finkatzeko. Garaiko tipologoen metodo intuitiboen ordez, metodo objektiboagoak erabili nahi ditu Heymans-ek. Inkestaz eta koerlazioen kalkuluaz baliatuko da. Kalkulatzen duen koerlazioa ez da Pearson-en koerlazio koefizientea, berezitasunak elkarrekin aurkezten direneko kasuen portzentaien kalkulua baizik.

Karakterraren dimentsio nagusiak, hunkiberatasuna (emotibitatea), jarduera eta errepresentazioen funtzio primarioaren edo sekundarioaren nagusigoa dira Heymans-entzat. Hiru ezagugarri horiek aukeratzeko baditu, temperamentuen teoria klasikoetan eduki zuten garrantziagatik da, batez ere. Heymans-entzat, temperamentuen teoria klasikoa, afektuen edo emozioen intentsitate eta iraunkortasunaren funtzioan formula daiteke. Sangi-neoak erreakzio afektibo ahul eta ez-iraunkorrak ditu. Flematikoak, ahulak eta oso iraunkorrak etab. Horrela, lau talde klasikoak hartuz:

	Indartsua	Ahula
Iraunkortasun gutxi	Haserrekorra (koler.)	Odolbizia (sang.)
Oso Iraunkorra	Malenkoniatsua	Flematikoa

Aipatu bi kualitateetan (emozioen intentsitatea eta iraunkortasuna), Heymans-en sistema domeinatzen duten hiru dimentsioetatik bi errekonoziti daitezke: hunkiberatasuna (emotibitatea) eta oihartzun maila (primarieritatea eta sekundarieritatea). Heymans-entzat, bi dimentsio hauen alboan, jarduerarena ere jarri behar da. Errepresentazio baten funtzio primarioa, konzientzian presente dagoen bitartean bizitza psikikoan eragiten duen

ekintzan datza; errepresentazioaren funtzio sekundarioa, konzientziatik ir-tenda gero ere pertsonaren jokaeran, pentsaeran edo sentimentuetan duen eraginean datza. Funtzio primarioa nagusi duen gizabanakoa, egungo si-tuazioko datuetara irekiago egongo da, baina bere jokaerak jarraipen eta koherentzia gutxiago edukiko du.

Heymans-en tipo primarioa, Platon-en erreakzio bizkorreko gizon bortxakoiaren alboan eta Kretschmer-en ziklotimikoaren parean jarri be-har dugu. Jung-en tipologiako kanporakoa izango litzateke.

Heymans-en hiru dimentsio nagusietako bakoitzak bi polo ditu: hunkibe-ratasuna eta hunkiberatasunik eza, jarduera eta jarduerarik eza (aktibitatea eta aktibitaterik eza), funtzio primarioaren edo funtzio sekundarioaren nagusigoa. Hiru dimentsio hauek kontutan hartuta, zortzi taldeetara heltzen da Heymans:

Urduriak: emotiboak, ez aktiboak eta primarioak

Sentimentalak: emotiboak, ez aktiboak eta sekundarioak

Odolbiziak = *Sangineoak*: ez emotiboak, aktiboak eta primarioak.

Flematikoak: ez emotiboak, aktiboak eta sekundarioak.

Haserrekorrak = *Kolerikoak*: emotiboak, aktiboak eta primarioak.

Grinatsuak = *Apasionatuak*: emotiboak, aktiboak eta sekundarioak.

Amorfoak: ez emotiboak, ez aktiboak, primarioak.

Apatikoak: ez emotiboak, ez aktiboak, sekundarioak.

Honela, adibidez, urduriak, bulkadatsuak, bortxakoiak, gastatzaileak, haizetsuak, printzipio enuntziatuekiko kontraesantsuak eta kiskilosoak dira. Flematikoak, berriz, alderantzizkoak. Kolerikoak, ezegonkorrek, bui-losuak, ohore zaleak eta autoritarioak dira. Sentimentalak, indezisoak, za-lantzakorrak, herabeak, adore gutxikoak, malenkoniatsuak eta beren bu-ruaz deskontentak dira.

Bere tipologia kubo baten moduan errerepresentatzea proposatzen du Heymans-ek. Tenperamentuaren hiru osagaiak kuboaren hiru dimentsioen bidez errerepresentatzen dira. Pertsonak, hiru dimentsio horien arabera ko-katzen dira kuboan: zenbat eta emotiboago izan, are ta gorago kokatua egonen da; zenbat eta aktiboago, are ta eskuinerago; zenbat eta sekunda-rioago, are ta sakoneko planutik hurbilago. Katetoria bakoitzeko ertzeko ordezkariak, kuboaren zortzi erpinetan kokatzen dira.

1.6.5. Kretschmer

Kretschmer-ek 1921 urtean ematen du argitara bere sistema tipologi-koa, gaixotasun psikiko moten eta gorputz konstituzio tipoen artean ko-rrespondentzia bat ezarriz. Kretschmer psikiatra zen eta, XIX mendeko Kraepelin psikiatra alemaniarrari jarraiki, bi talde handitan banatu zituen gaixo psikikoak: zorotasun maniako-depresiboa (zirkularra) eta nahas-mendu eskizofrenikoa (dementia praecox). Lehenengo taldeko gaixoak bi-

garren taldekoengandik bereizi egiten ziren beren gorputz konstituzioan: zirkularrek sarriagotan agertzen zuten forma biribileko konstituzioa (konstituzio piknikoa). Eskizofrenikoek, berriz, forma meheetako konstituzioa (konstituzio leptosomatikoa) agertzen zuten. Eskizofrenikoen talde batean, katatonikoengan, konstituzio angelutsua, atletikoa, aurkitu zuen (katatonia: zorotasun konbultsiboa. Gaixotasun hau, berehala desagertzen diren gorputz jarrera zuzrrunez lagundua doa).

Kretschmer-ek laugarren talde bat ere bereizi zuen: talde horretan, hiru oinarrizko tiporen berezitasunak nahasten ziren (piknikoak, leptosomatikoak eta atletikoak); Kretschmer-ek konstituzio «displasikoa» deitu zuen: enbor leptosomatikoa, baina hanka atletikoak. Pertsona epileptikoengan sarriagotan ematen zela konstituzio hau ikusi zuen.

— Pertsona lodiek (*tipo piknikoa*. Piknos = lodia, sendoa, indartsua), kordialak, alaiak eta sintonikoak izateko joera dute eta, psikikoki gaixotzean, malenkonia eta mania edukitzeko joera dute. Fisikoki, egitura horizontalak dira hauengan nagusi, zabalera dute altuera baino gehiago, bular zabala eta soin-adar laburrak dituzte, astunak eta potoloak izan ohi dira eta burusoil izateko joera dute.

— Pertsona argalak (*tipo leptosomatikoa*. Leptos = estua, meharra), egitura bertikal eta luzeak dituzte, meharrak dira, bular planua, sorbalda estuak eta soin-adar meheak. Oso lagunkoiak ez dira, errealitateari ihes egiteko joera dute, eta gaixotzean, eskizofreniarako joera agertzen dute. Tipo «astenikoa», leptosomatikoaren aldaki bat da, leptosomatikoaren eta atletikoaren arteko hibridoa; giharreak gutxi garatuak dituen atletikoa bezala har daiteke.

— *Tipo atletikoa*, hezurreria eta giharrerria kementsu batez hornitua agertzen da, energikoa ezezik, agresiboa eta euskorra (zaildua) izateko joeraz hornitua. Leptosomatiko eta piknikoaren arteko egitura du. Baina, Kretschmer-entzat ez da bien arteko continuum-ean kokatu behar, hirugarren tipo independente bezala kontsideratu behar da, hiru tipoetako bakoitzaren enbrioï jatorria ezberdina delako. Sheldon aztertzean ikusiko dugunez, hau ez da zuzena, gizabanako bakoitzak baititu hiru enbrioï geruzetatik datozen atalak (ektodermo, endodermo eta mesodermotik eratorriak).

— *Tipo displasikoa*: enbor leptosomatikoa, baina hanka atletikoak. Epilepsia sarriagotan. Ez da benetako somatotipo bat, baizik nahasketa metabolikoren baten ondorenez (adibidez, funtzio endokrinoren nahasketaz) sortutako forma somatikoei egiten die erreferentzi.

Ze erlazio mota dauka biotipoak aspektu psikologikoeekin?

«Tipo puru» bakoitzarekin erlazioa litezkeen bereizgarri edo jokaera estilo sail bat deskribatu da. Nortasunaren bereizgarri dagokienez, kanporakoitasun-barnerakoitasun dimentsioa nabarmentzen da, lehena piknikoekin erlazioatua, bigarrena leptosomatikoekin, nahiz eta korrelazioa moderatua den, ez 0.30 baino garaiagoa. Ezagutzaren bereizgarri dagokienez, ez da erlazorik ikusi biotipoaren eta adimenaren artean.

Hori bai, goian adierazi dugun bezala, somatotipoen eta gaixotasun mentalen artean erlazio diferentzialak topatu dira modu konsistentean: eskizofreniaren eta tipo leptosomatikoaren artean eta maniako-depresiboaren eta piknikoaren artean elkarrekikotasun bat ikusi da. Elkarrekikotasun moderatua ikusi da, baita ere, tipo atletikoaren eta epilepsiaren artean. Horrelako erlazioak aurkitu ziren, 8099 subjektuekin egindako Westphal-en ikerketan (1931): gaixotasun zirkularrak zituztenen %64,6 piknikoak ziren; eskizofrenikoen %50,3 leptosomatikoak, eta epileptikoen %29,5, displasikoak eta %28.9, atletikoak.

**Kretschmer-en tipologiarekin erlazioan, eskizofrenikoen,
maniako-depresiboaren eta epileptikoen portzentaia**
(Westphal-en arabera, 1931)

Gorputzaren konstituzioa	Eskizofrenikoak	Maniako-depresiboak	Epileptikoak
Piknikoak	13.7	64.6	5.5
Atletikoak	16.9	6.7	28.9
Leptosomatikoak	50.3	19.2	25.1
Displasikoak	10.5	1.1	29.5
Forma mixtoak	8.6	8.4	11.0

Paziente psikiatrikoekin aurkitu zituen elkarrekikotasun hauek, populazio normalera hedatu zituen, matizazio batzuk eginez. Subjektuak, beren bereizgarri psikologikoen arabera, hiru nortasun tipotan sailkatu zituen:

- Eskizotimikoak
- Likatsuak (biskosoak)
- Ziklotimikoak

Eskizotimikoa (biotipo leptosomatikoa duen subjektu normala), barnerakoitasunaren aldagaiarekin erlazionatua dago. Herabea, bere baitan bildua, gogorra, brutala, tematia (setatsua), zurruna, zuhurra, afektu gutxiakoa, idealista, metodikoa, bere buruaz kezkatua da.

Likatsuak, konstituzio atletikoa du, euskor-etsi-zaildu-nekaezinak (tenaz), kementsuak, egiatiak, ziurrak. Ariketa fisikoari eta kirolari emanak.

Ziklotimikoak (tipo piknikoa duten subjektu normalak) kanporakoitasunerako joera du eta maitakorra, bihotz onekoa, zuhurra, praktikoa, inprobisatzailea, sinpatikoa, jolasari, edariari eta humoreari emana da.

Edozein modutara ere, berezitasun psikologiko eta psikiatrikoen eta gorputz egitura tipoaren arteko elkarrekikotasuna zertxobait ezabatua gelditzen da adinarekin, hau gehitzean gehitu egiten baitira subjektuak piknikoaren artean sailkatzeko probabilitateak. Adina kontrolatuz gero, homogeneitate gehiago agertzen zuten ikerketek.

Kretschmer-ek darabilen metodologia, intuizioan eta «begi klinikoan» oinarritzen da nagusiki. Hasieran egin zituen analisi eta sailkapen tipoak, prozedura koalitatiboz egin zituen, paziente psikiatrikoak behatuz. Gero, subjektu normalengana hedatu zituen bere behaketak, entrebistak eginez eta historia klinikoak bilduz.

Autore ezberdinek bultzatuta, bereizgarri antropometrikoen kunatifikazio entsegu bat egin zen geroago, garaiera eta pisu neurriak edukiera torazikoarekin formula aktuarial batetan integratuz. Beste indize askoren artean, aipatzekoak dira, «Pignet-en indizea», «Rees eta Eysenck-en indizea» eta «Wertheimer-Hesketh-en indizea»; beren formulak ondoko laukian agertzen dira:

Pignet, Rees & Eysenck eta Wertheimer-Hesketh-en indizeen formulak

Pignet-en indizea

Altuera cm-tan – (Pisua Kg-tan + perimetro torazikoa cm-tan)

— Piknikoak	5
— Atletikoak	10
— Leptosomatikoak	25

Rees & Eysenck-en indizea

Altuera cm-tan $\times 100$

Perimetro torazikoa cm-tan $\times 6$

Wertheimer-Hesketh-en indizea

Altuera cm-tan $\times 1000$

Toraxaren perimetrea \times sakonera \times altuera cm-tan

Guztiarekin ere, Kretschmer-ek ez zuen zaindu bere teoriaren alderdi metodologikoa; bere ikerketetan, aldagai kutsatzaile bezala maila sozio-ekonomikoa eta adina seinatu dira. Lehena, tipo leptosomatikoarekin erlazionatua eta bigarrena tipo piknikoarekin erlazionatua; adibidez, ikerketa batzuek frogatu zuten, piknikoen adin ertaina 50 urtekoa zela, leptosomatikoena 31 urtekoa zen bitartean; jakina denez, horrenbesteko aldakortasunarekin, ez dira zuzenki alderagarriak bi taldeak. Honela, adinaren aldagaia kontrolatu zenean, diferentzia psikiatrikoek desagertzeko joera agertzen zuten, nahiz eta joera mantendu, hau da, leptosomatikoaren kopuru handiagoa eskizofrenian eta piknikoen kopuru handiagoa gaixotasun maniako-depresiboetan.

Biotipologiek aurkezten duten arazo garrantzitsu bat horixe da, hain zuzen ere: adinak, elikadurak, ariketa fisikoak eta abarrek eragina dutela haiengan; hala ere, gure jokoaren zati batek gure bereizgarri biologiko konstituzionalatik dependitzen dute. Hauek, beraz, beste aldagai batzuekin batera, gure erreakzioak sustatu eta determina ditzakete.

1.6.6. Sheldon-en tipologia

Inork ez du zalantzan jartzen ia, gure egoera fisikoak gure humore egoerak ukitzen dituenik. «Mens sana in corpore sano», zioten latinoek, eta gorputzaren eta jokaeraren arteko harreman hau literaturan ere isladatu da. Honela, esate baterako, Miguel de Cervantes-en luma zorrotzak nortasun leptosomatiko eta piknikoa hilezkortu zituen, Don Kixote eta Santxo Panzaren pertsonaietan. Izan ere, erlazio zuzena dago osagai biologikoen eta jokaeraren artean. Osagai biologikoak ez dira heredentziaz edo genetikaz jasotakoak bakarrik, ingurunearekin zerikusia dutenak ere bai baizik: bizitz zikloak (loaldia-esnaldia), elikadura ohiturak, kiroletarako edo ariketa fisikoetarako ohiturak.

Ideia hauek dira «psikologia konstituzionalaren» oinarria osatzen dutenak. William Sheldon psikologo amerikarra, psikologia horren erakuskarri garrantzitsua da. Autore honen helburua, «giza jokaeraren aspektu psikologikoak gorputzaren morfologiarekin (gorputzaren formaren, egituraren eta anatomiaren zientzia) harremanean» aztertzea da.

Kretschmer-ek eragin handia izan zuen beregan, baina bere interesak subjektu normalengana zuzendu ziren: gizaki bakoitzaren gorpuzkeraren eta jokaeraren arteko harremana aztertzea. Gainera, eta hori da Kretschmer-ekiko duen bigarren aldea, bereizgarri tipologikoak gradienteetan mailakatzen ditu; «tipo puruak» aurkitzea oso zaila denez, tipoetako bate-tarako joerak aurkitzen dira, baina ez modu esklusiboan.

Sheldon-en somatotipoen izenen iturburua, gizakiaren jokaeran eragin gehien duten atalen jatorrizko geruza enbriologikoetan aurkitu behar da. Horrela, nahiz eta gure organismoa hiru geruzetatiko egiturez osatua egon, geruza horietakoren baten nagusigoa gertatzen da somatotipoan eta somatotipotik eratortzen den jokaeran.

Sheldon-en tipologia, eta tipo bakoitzari dagokion jokaera eta nortasuna, ondoko laukian deskribatzen dira. Ikus daitekeen bezala, Kretschmer-ek deskribaturiko bereizgarrien antzekoak dira.

1.6.6.1. SOMATOTIPOLOGIA PRIMARIOA, SHELDON-EN ARABERA

Gorputz tipoa	Jokaera	Nortasuna
Endomorfoa (gizentasunerako joera)	Biszerotonia (erlaxatzeko joera)	Endo/biszerotonikoa
Mesomorfoa (gihartsu izateko joera)	Somatotonia (fermutasunerako joera)	Meso/somatotonikoa
Ektomorfoa (mehar izateko joera)	Zerebrotonia (zuhur izateko joera)	Ekto/zerebrotonikoa

Goiko laukian ikus daitekeen bezala, Sheldon-en tipologia bikoitza da: fisikoa eta psikologikoa; eta bien arteko koerlazioa azpimarratuko du.

Somatotipoak sailkatzeko, irizpide hauek erabili zituen Sheldon-ek:

1. *Endomorfo-biszerotonikoa*: gehiegizko pisua edukitzeko joera du endomorfikoak, «garapen horizontalaren egitura» jarraituz. Jatorri enbriologikoa, geruza endodermikoan aurkitu behar da (erraiak, liseri hodia etab.). Geruza enbriologiko honen nagusigoak, somatotipoan eta jokaeran eragingo du. Tipologia honen bereizgarriak hauek dira, Sheldon-en arabera, nahiz eta denak beharrezkoak izan ez pertsona bat endomorfiko bezala jotzeko:

- Erlaxapena, erosotasuna eta erreakzio makalak. Subjektu hauek, jarrerara egonkorreko joera dute, mugimendu makal eta pausatuak dituzte, jarrera arduragabeak eta perfekzionismo gutxikoak; *arousal* maila baxua dute, esnatzea, mugitzea eta ekitea kostatzen zaie.
- Sentipen interozeptiboekiko zaletasuna: jatea atsegin dute, «ardo ona» ere bai; edariak beren bereizgarri ludikoak eta gizarte haremanekoak sustatzen ditu. Seko egiten dute lo.
- Gizartekoiak dira: ezagun eta ezezagunekin hitzegitea eta lagun izatea atsegin zaie. Ekitaldi publikoetako zeremoniak eta arranditasunak liluratzen ditu. Lagunkoiak dira eta afektuaren nahiz sozial onarpenaren beharrea aurkitzen dira. Toleranteak eta kondeszendienteak dira, beren emozioak erraz adierazten dituzte, eta beren inguruneke pertsonak eragin handia dute beraiengan. Arazoak dituztenean, besteen laguntasun bila jotzen dute, eta familiako harremanetara oso norabidetuak daude, familia delarik beren gizarte nukleo nagusia.

2. *Mesomorfo-somatotonikoa*: fisikoki ongi proportzionaturiko subjektuak, indartsuak eta giharretsuak. Sustrai enbriologikoa, giza egituraren geruza mesomorfikoaren nagusigoan aurkitu behar da. Ondorenez, hezur, gihar eta ehun konjunktiboaren garapen maila aurreratua dute. Beren bereizgarri psikologikoetan eragin handia du gorputz egitura horrek, beren igurikapen eta pretentsioak betetzeko oinarri bezala hartzen baitute.

Beren jokaerak bereizgarri hauek ditu:

- Energia: erabakikorak dira. Barne bulkada indartsuak dituzte, eta ariketa, kirol edo lehiaketa bidez kanporatu behar izaten dituzte. Etengabeko jardunean ari dira: geldi egotea ez dute atsegin, ez dira intelektual onak, irakurketa zaletasunik ez dute. Energia hori delata, besteekin modu erasokorrean jokatzeko dute, nabarmendu nahiez. Gihar jardueraren nagusigoa dute: energiatsuak, erasokorrak, aktiboak, gogorak, arriskatuak, ausartak...
- Kanpoko estimulatetaren premia: sentipen berriak esperimintatzea atsegin dute eta situazio horretan beti egotea. Arrisku eta aldaketa

zaleak dira, monotonia ez dute jasaten. Temerarioki gidatzea dute atsegin. Boterearen bilaketak eta erabilerak asko estimulatzen ditu. Dominatzea obsesio bat da somatotonikoentzat. Sentipen bilaketa hauek, beren gorputzaren osotasuna zalantzan jar dezaketen jardueratara eramaten dituzte. Arazoak dituztenean, aktuatu beharra izaten dute, eta helburu burugabeetara zuzentzen dira.

- Aipatu ditugun bereizgarri batzuek eragindako nahaste psikologiko batzuk edukitzeko joeta dute, hala nola, besteen premiekiko sentiberatasunik eza, batzuetan ankerkeria bihurtzen dena; beren buruarikiko krudelkeria ere bai, joera paranoide batzuekin; klaustrofobia, beren jarduerak espazio irekietara eramaten dituela; goraki eta ozenki hitzegiten dute, batez ere molesta dezaketen tokietan; pentsamendu lineala dute, modu estereotipatuz eta zurrunki pentsatzen dute, gauzak ongi ala gaizki eginak daude, matizaziorik gabe, egingdako atsotitz eta errefrauen bidez justifikatzen dutelarik; nahiko dogmatiko bezala kontsidera ditzakegu, beraz.

3. Ektomorfo-zerebrotonikoa

Meharra izan ohi da eskuarki; «garapen bertikalaren egitura» jarraitzen du, altu izan beharrik ez badu ere. Enbrioiaren geruza ektodermikoaren nagusigoan du jatorria, han baitute iturburua garunak eta nerbio sistemak. Orokorrean, bereizgarri hauek ditu:

- Bakardaderako joera: erreserbaren, inhipipenaren, aurreratu nahi ezaren nagusigo nabarmena. Herabea eta hipersentikorra da. Bakardadean musika entzutera eta irakurtzera jotzen du. Bere benetako sentimenduk ez ditu adierazten; beretzat gordetzen ditu. Ahots bajuan hitzegiten du. Agorafobiarako joera: bakardadean egotearren, espazio irekiak saihesteraino hel daiteke. Barnerakoitasunerako joera, batez ere arazoak dituenean.
- Erreakzio bizkorak ditu: latentzi dendora laburra du, erantzunaren ondoren. Beti tentsioan dago, bizkorki erantzuteko prest. Beti erne egonik, makina batek bezala erantzuten du. Gehiegizko gogamen intentsitatea du, obsesiboa da, arazoak eta gatazkak etengabe hausnartzen ditu. Ustekabeko erreakzioak agertzen ditu. Azkar erantzutera daraman tentsio iraunkorrek, eroso lo egitea eragozten dio.
- Metikuloso da: delikatua, refinatua, zehatza. Eguneroko rutina aldatzen saiatzen da, ez aspertzeko. Minarekiko hipersentibera da. Edan txarrekoa da, alkohola gaizki eroritzen zaio eta hura ekiditera jotzen du.

1.6.6.2. SOMATOTIPO SEKUNDARIOAK

Ikusi berriak ditugun hiru somatotipoak «puruak» edo «primarioak» bezala kontsidera daitezke, eta populazioan ez dago, ia esateko, horrelako

tipo pururik. Pertsona gehienek, somatotipo baten nagusia duten arren, beste bi somatotipoen ezagugarriak ere badituzte. Temperamentuarekin erlazionatu gabe, Sheldon-ek gorputz tipoaren aldaketa hauek deskribatu ditu:

- Displasia.
- Iruzur piknikoa.
- Textura.
- Ginandromorfia.
- Aspektu maskulino eta femeninoak.

Displasia: Somatotipo puruarekiko inkonsistentziak topatu zituen Sheldon-ek. Honela, esate baterako, enbor endomorfikodun eta soin-adar mesomorfikodun subjektuak aurki zitezkeen. Inkongruentzia hauek «displasia» edo «d» indize deitu zituen.

Iruzur piknikoa: Nerabezaroan gorputz mesomorfiko gihartsua edukita, adinarekin endomorfiara eboluzionatzen dutenak biltzen ditu. Aldaketaren eboluzioa ez da zuzenki elikuen barneratzen sortua, adinarekin gertatzen den gorputzaren eboluzioa baizik. Sheldon-ek zioenez, gorputzaren benetako tipoa 30 urte inguruan da ezagugarria. Elikadura eta ariketa faktoreek eragina eduki dezakete, noski, osasun eta gaixotasun kronikoen prozesuek bezala.

Textura: «T» indize deituriko, textura estetikoaren kanpoko itxurari egiten dio erreferentzi: antzeko gorputz neurriak eduki arren, pertsonen itxura ezberdinki kontsideratua da.

Ginandromorfia: «g» indize ere deitua, gorputz batek bere ezagugarri sexualetan duen hermafroditismo mailari dagokio. Osagai hormonalen eragina dago jokoan, baina ez du nahitaez inplikatzeko bietariko atal sexualak edukitzea. Gizon batek «g» indize garaia edukitzeak, bere tipoa itxura femeninoa edukitzea dakar berekin.

Maskulinitatea-feminitatea: Orainarterakoan, nabaria den bezala, Sheldon-en teoria gizonezkoengan zentratu da, emakumeengan baino gehiago. Sheldon-en motibazio matxistek baino eragin gehiago eduki zuten garaiko muga sozialek. Gorputz biluzak aztertzeo eta neurtzeo erraztasun eta tolerantziarekin zuen zerikusia; garai haietan, eta testuinguru militar batetan gehiago, egingarriagoa zen hori gizonezkoekin emakumezkoekin baino, gehiago oraindik, kontutan hartzen badugu, Sheldon-en neurketa eta analisi prozeduretan argazkiak ere sartzen zirela. Sheldon-ek kontutan hartu zuen, sexu bien arteko alde hau, eta geroztik orekatzen saiatu dira, baina bi sexuen arteko desfase bat gertatu da.

Sheldon-en informazioak behinbetikoak ez badira ere, haren iritziz, emakumeengan gizonek baino gehiagotan gertatzen da tipo endomorfiko eta mesomorfikoaren nahasketa (displasia gehiago gertatzen dira) eta endomorfismorako joera gehiago dute.

1.6.6.3. SOMATOTIPOAREN NEURKETA

Sheldon, hasieran, datu antropologiko objektiboetan oinarrituz, morfologiaren sailkapen bat egiten saiatu zen. Arrakastarik ez zuen eduki, eta apreziazio global eta intuitiboaren metodora, somatoskopiara jo zuen. 16tik 20 urtera bitarteko 4000 ikasleren argazkiak ikusmen hutsez sailkatuz (subjektu bakoitzaren hiru argazki erabili zituen, aurrez, sorbaldaz eta perfilez ateratakoak), hiru sailkapen eskala ezberdin aurkitu zituen, osagai deitu zituenak. Pertsona bat tipifikatzen duten hiru digitotara heltzeko, prozesu luze batetatik iragan behar izan zuen Sheldon-ek, gorputzaren aldagaiekin batera jokaeraren aldagaiak ere kontutan hartuz.

Somatotipifikazio hori, aparailu, erregistro, historia kliniko eta, batez ere, argazkien bidez gertatu zen. Sheldon eta lankideek, testuinguru militarreko 40.000 gizonetan oinarrituta, beren «Atlas of men» ospetsua burutu zuten, bertan beren tipologiaren metodo eta kalkuluak agertzen direlarik, 1.175 argazkirekin. Gizon ertainak, 4-4-3 bezala tipifikaturiko somatotipoa agertzen zuten.

Hurrengo urratsean, somatotipoek nortasunarekin eta jokaerarekin eduki zezakeen harremana aztertu zuen Sheldon-ek. Nortasunaren ezagugarrien hautespen exhaustibo baten ondoren, eta korrelazioen bidez, ezagugarri bakoitza somatotipo bati asignatu zion. Alderdi hau oso kritikatu izan da, Sheldon-ek aldagai psikologikoen eta somatikoen artean ezaugarri korrelazioak altuegiak jotzen zirelako.

Azkenik, esan behar da, Sheldon-en teoria oso erakarkorra izan arren, eta gorputzaren morfologiak izaeran eta jokaeran eragina nabaria izan arren, baldintzazko sozial, ekonomiko eta inguruetikoak oso indartsuak direla.

Bestalde, teoria biopsikologiko hauek beren auresate gaitasuna galduta egiten dute, subjektuen tipologia mixtoa denean. Kontutan hartzen badugu, Kretschmer-ek dioen bezala, populazioaren % 10a baino gehiago ez dela tipo purukoa, orduan esan behar da, teoria hauek balio zientifiko kaxkarra dutela, pertsona kopuru txiki bati bakarrik aplikatu dakizkielako.

Guzti horrengatik, norabide bakarreko eraginetan pentsatu baino gehiago, organismoaren eta ingurunearen arteko elkarreraginen ideia finkatu beharko litzateke.

Geroztik, egon dira beste ahalegin batzuk, jokaera, sistema nerbio-soaren bereizgarriekin eta mekanismo neuroendokrinoekin erlazionatzeko. Nortasuna fisiologi endokrinoarekin erlazionaturik dago, bai hormona baten gehiegizko funtzionamenduaren kasuan, bai hormonaren hipofuntzionamenduaren kasuan, bai funtzionamendu normalaren kasuan. Guzti honen ikusi da, gorputzak jokaeran eragina baduela, baina ez dela haren azalpen iturri bakarra.

Adierazi den bezala, tipo puruak ez dira ia esistitzen. Somatotipo konkretuek, definitu ditugun hiru tipo primarioen bereizgarriak dituzte, maila batetan; horretatik dependituko du beren konfigurazioak. Teoriarekin kohe-

rente izanik, honek temperamentuan ere eragina izango du. Honela, subjektu guztiek edukiko dituzte bereizgarri endo-biszerotonikoak, meso-somatototnikoak eta ekto-zerebrotonikoak, nahiz eta bereizgarri batzuk nagusi izan.

Sheldon-ek kuantifikazio sistema bat landu zuen Columbiako Unibertsitateko bere laborategian, aurretiko beste teoria psikobiologikoena baino askoz ere konplexuagoa. Sistema honetan, subjektu bakoitzari hiru zenbaki ematen zaizkio, 1etik 7ra bitartekoak, hiru somatotipoei dagozkienak. Horrela, 343 konbinazio irteten dira, baina garbi definitu, 76 eta 88 bitartean definitu ahal izan zituen. Gizabanakoak ardatz bipolodun eta jarraitu batzuen arabera sailkatu zituen: ardatz horrek zazpi gradu zituen. 1 = osagaiarik ezetik abiatuta, 7 = osagaiaren presentzia nabarmenera, *extremora* bitarteko mailak. Subjektu bakoitza konbinazio bat bezala hartu zuen. Osagai bakoitzak 7 gradu posible ditu, teorikoki. Beraz, $7^3 = 343$ konbinazio desberdin ateratzen dira.

Somatotipoak 1etik 7rako eskalan neurtzen ditu, beraz, eta «*endomorfia/mesomorfia/ektomorfia*» ordenuan ezarritako hiru zenbakitako seriez deskribatzen. Adibidez, zeharo mesomorfoa den somatotipo bat honela deskribatuko du: 1-7-1. Zeharo endomorfo bat: 7-1-1. Ezagugarri ekto-morfo batzuk dituen somatotipo bat honelatsu deskriba dezake: 2-3-7.

Kretschmer-en tipologia bi eratarako hobetu zuen Sheldon-ek: alde bate-tik, hark baino subjektu kopuru handiagoa aztertuz eta hartutako neurriak analisi faktorialez analisatuz; bestaldetik, lortutako tipoko sistema eskalar jarraitu batetan mailakatu zituen, 1etik 7rako puntuazioa erabiliz. Bai ala ezeko alternatibaren ordezt, dimentsio bakoitzerako kategoria gehiago sar-tzen ditu, eta gizabanako guztiak jotzen dira osagaia dutenak, gehiago edo gutxiago. Kretschmer-en arabera, gizabanako bat leptosoma baldin bada, ez da piknikoa edo atletikoa izango; Sheldon-ek berriz, esango du, maila bajuenean dituela mesomorfia eta endomorfia (1 edo 2), ektodermia nabar-mena duen bitartean (6 edo 7). Ikuskera hau, Heymans-en kuboan ere ager-tu zen. Autore horren arabera, gizabanako bakoitzak, maila batean agertzen du bere tipologiako osagai bakoitza eta horren arabera kokatzen da kuboan.

Somatotipoen eta temperamentuen arteko harremanei dagokienez, Sheldon-en lanaren azken etapa, osagai fisikoen eta temperamentuen artean kidetasunak aurkitzea izan da. Hona hemen koerlazio batzuk: Endo-morfismoak erraitoniarekin: +.79. Mesomorfismoak somatotoniarekin: +.82. Ektomorfismoak zerebrotoniarekin: +.83.

1.6.7.. Somatotipoei eta temperamentuei buruzko ikerketa bat

Hipotesiak

1. 17 neurketen analisiak hiru faktoreetara eramango gaitu (E = endo-morfismoa; M = mesomorfismoa eta e = ektomorfismoa), elkarren artean koerlazio negatiboarekin.

2. Tenperamentuen eskala laburtuaren 30 item-en analisiak elkarren artean koerlazio negatiboa duten hiru faktore isolatzera eramango gaitu: E = erraitonia; S = somatonia eta Z = zerebrotonia.

3. Koerlazio positiboak agertuko dira faktore morfologikoen eta dagozkien faktore tenperamentalen artean (endomorfismoa erraitoniarekin, mesomorfismoa somatoniarekin eta ektomorfismoa zerebrotoniarekin).

Emaitzak

1. Hipotesia ez da egiaztatu. 17 neurketen kondentsazioak ez ditu Sheldon-en hiru osagaiak ematen.

2. Hipotesia: tenperamentuaren 30 item-en kondentsazioak hiru faktore ematen ditu: T1, T2 eta T3.

T1-ek item somatotonikoak biltzen ditu eta somatonia izena hartzen du: energia, adorea, abenturazaletasuna...

T2-ak, gizartekoitasuna, adierazkortasuna eta espontaneitatea bezalako itemak item zerebrotonikoei (kontrola, inhibipena, zuhurtsuna) oposatzen dizkie: kanporakoitasun/barnerakoitasun itema da.

T3, hiru osagaien nahasketa da. Bere edukina garbia da: heldutasuna, asebetetzea, ekuanimitatea, emozioen kontrola, gazteen bizkortasunari, karaktere faltari eta tentsio mentalari oposaturik. Emozio egonkortasuna, ezegonkortasunari oposatua.

3. Hipotesia ez da egiaztatzen. Endomorfoek emozionalki ezegonkorak izateko joera dute. Mesomorfismoaren eta somatoniaren artean erlaziorik ez da ikusten. Subjektu zabal, astun eta gizenek (endomorfok) emozionalki nahastuak egoteko joera dute, Sheldon-en arabera lasaiak, atseginak eta asebetekak izan behar luketenean.

Neurri antropometrikoen (objektiboen) eta tenperamentalen (autoebaluatuak) ondoan, somatoskopiaz subjektu bakoitzaren somatotipoa estimatu da globalki (E, M eta e 1etik 7ra ebaluaturik) eta tenperamentuaren hiru osagaiak globalki ebaluatu dira. (E, S eta Z). Aurkitutako koerlazioak ez dira batere esanguratsuak.

1.6.8. Somatotipoaren neurketari buruzko praktika

Nortasunaren Psikologiaren asignaturako praktiken testuinguruan, neurri antropometriko desberdinak hartu ziren, geroago somatotipoaren neurketarako formula actuarialean erabili zirenak.

Erakuskarria

46 subjektuk osatu zuten. Guztiak, Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko bostgarren ikasturteko A (goizeko) eta E (arratsaldeko) taldeetako 89-90 ikasturteko ikasleak ziren. Tal-

de honetan, %82,6 emakumeak ziren eta %17,4, gizonezkoak. Adin ertaina, 24,76 urtekoa zen, 4,68-ko desbiderapen tipiko batekin; adin balio usuenak hauek izan ziren: 22 urte: 17 (%37.0), 23 urte: 10 (%21,7) eta 24 urte: 6 (%13.0). %71,7k, 24 urte edo gutxiago zituen.

Formula aktuarialak

Pignet, Rees & Eysenck eta Wertheimer-Hesketh-en formulez gain (... laukian jasoak), beste bi erabili ziren:

—A indizea: Altuera - Pisua

—B indizea: $\frac{\text{Toraxeko perimetroa} \times 100}{\text{Altuera}}$

Datu bilketa

Pertsona bakoitzaren somatotipoa ebaluatzeko datu bilketa, mahaian alboko lagunak egin zuen. Neurri hauek hartu ziren:

1. Somatotipoaren heteroperzepzioa: mahaiko lagunak, «begi kliniko» erabiliz, somatotipoa ezarri behar zuen, leptosomikoa A: 5 bezala kontsideratuz, atletikoa B: 3 bezala eta piknikoa C: 1 bezala. Gainera, bi-tarteko beste bi puntuaketa ere egin ziren: AB: 4 eta BC: 2.

2. Somatotipoaren autoperzepzioa: hemen, subjektu bakoitzak bere burua ebaluatu zuen, beren lagunarengandik modu independentean.

3. Begien margoaren hetero- eta autoebaluapenaren adostasuna. Ebaluapen konplementari hau, ebaluapenen independentzi eta objektibitatea neurtzeko ebaluazio irizpide independente bezala erabili zen. Hiru posibilitate kontsideratzen dira: 0 : adostasunik ez; 1 : gutxigorabeherako adostasuna; eta 3: adostasun osoa.

4. Ondoren, honako neurketa antropometriko hauek hartu ziren subjektu bakoitzarengan:

—Pisua

—Altuera

—Perimetro torazikoa

—Sakontasun torazikoa

—Altuera torazikoa

Analisi estatistikoak: Emaitzak

Oinarrizko estatistikoez gain, sexuen arteko diferentzien «t» frogak, aldagai guztien arteko korrelazioen matrize bat, eta, azkenik, indize somatotipikoen analisi faktorial bat egin ziren.

Formula aktuarialestatik lorturiko batezbesteko eta desbiderapen tipikoak, ondoko laukian isladatzen dira:

Bost formula somatotipikoen batezbesteko eta desbiderapen tipikoak

Aldagaiak	Batezbestekoak	Desbiderapen tipikoa
Pignet (PG)	20.15	11.16
Rees & Eysenck (RE)	30.61	4.99
Wertheimer-Hesketh (WH)	3.72	1.30
A indizea	107.56	5.56
B indizea	53.35	3.65

Datu hauetatik abiatuta, finka zitekeen, tipo atletikoak, batezbestekoa gehi-ken desbiderapen tipiko baten bitarteko puntuazioa edukiko zuela. Balio honetatik haratago, gehiagoz, leptosomatikoa izango zen; gutxiagoz, piknikoa; azken formulak izan ezik; formula honetan, aldeantzik norabidean joango zen, koerlazioen matrizean ikus daitekeen bezala.

Ondorengo laukian ikus daitezke, gainerantzeko aldagaietan sexu aldagaitik abiatuz lorturiko aldean frogak.

«t» diferentzien frogak, sexu aldagaitik abiatuta

Aldagaiak	Gizonak		Emakumeak		«t»	Esan. m.
	Batezbest.	Desb. tp.	Batezbest.	Desb. tp.		
Adina	29.87	8.54	23.68	2.46	2.03	
HPS	3.75	0.70	4.05	1.06	-0.77	
APS	4.00	0.92	3.76	1.07	0.58	
PG	5.25	14.10	23.28	7.46	-3.51	1%
RE	29.06	1.69	30.93	5.40	-1.76	
WH	2.45	0.96	3.99	1.20	-3.38	1%
A indizea	101.85	6.96	108.64	4.62	-3.28	1%
B indizea	57.79	3.39	52.51	3.07	4.11	0.1%

K: Gizonak = 8 Emakumeak = 38

Lauki honetatik ihalgitzen denez, adin diferentzia esanguratsurik ez dago bi taldeen artean. Bigarren, gizon edo emakume izateak ez du diferentziarik ezartzen norberaren eta bestearen somatotipoa hautematerakoa. (Ikerketa honetan ikusi ahal izan zen, % 58,7k ez zuela problemarik eduki, lagunaren begi koloreei buruz adostasuna izateko, % 34.8 hurbildu egin zela eta % 6.5 bakarrik izan zela ados agertu ez zena).

Indize somatotipikoetatik lorturiko diferentziei buruz, Rees eta Eysenck-ena bakarrik izan zen alderik agertu ez zuena. Emaitz hauen arabere...

ra, gizonezkoengan «egitura horizontal» gehiago gertatzen da emakumeengan baino; emakumeengan, «egitura bertikal» gehiago.

Ondoren, datuen korrelazio analisi bat egin zen. Hona hemen emaitzak:

Aldagai guztien arteko koerlazio matrizea

	Sexua	Adina	HPS	APS	Begiak	PG	RE	WH	A	B
Sexua	—	-.42*	.06	-.04	-.00	.60**	.14	.41*	.45	-.53**
Adina		—	.10	.02	.01	-.49**	-.07	-.40*	-.43*	.32
HPS			—	.55**	-.07	.39*	-.02	.13	.39*	-.31
APS				—	-.02	.40*	.24	.19	.46**	-.32
Begiak					—	-.04	.15	.18	-.10	-.00
PG						—	.17	.53**	.84**	-.88**
RE							—	.37*	.01	-.22
WH								—	.32	-.52**
A									—	-.75**
B										—

N: 44

Esanahikortasun maila: * = .01; ** = .001

Oharra: zeroa ezabatu egin da.

Sexu aldagaiak zentzun negatiboan korrelazionatu zuen adinarekin, horrek adierazten duelarik, emakumeen erakuskaria gizonezkoena baino gazteagoa zela, nahiz eta «t» frogan ikusi genuen bezala, alde hori esanguratsua izan ez. Sexu aldagaiak dituen beste korrelazioak, diferentzien frogek seinalaturiko norabidean doaz (RE izan ezik), hau da, gizonezkoak norabide piknikoan, eta emakumeak, norabide leptosomatikoan. Adin aldagaiak antzeko korrelazioak ditu (B indizean izan ezik), adina gehitu ahala puntuazioak txikiagoa izateko joera duela seinalatuz, eta alderantziz. Honek esan nahi, adinean aureratu ahala, somatotipoa «loditu» egiten dela.

HPS eta APS arteko korrelazioa, behatzaile barneko fidagarritasunaren indize bezala kontsidera daiteke; kasu honetan, interkorrelazioa 0.55ekoa izan zen, .001 mailan esanguratsua; oso garaia izan ez bazen ere, itxarondako norabidean doa. Gainera, bestaldetik, HPS eta APS, diagnostiko «klinikoaren» indize bezala kontsidera litezke, somatotipoak diagnostiko «aktuarialaren» indize izango lirartekeen bitartean; hemen esan behar da, hauetako bi indizek bakarrik (PG eta A) agertzen dutela haiekin korrelazioa, eta 0.40 inguruko korrelazioa dela.

«Begien koloreari» dagokionez gertatzen den adostasunaren ebaluapena, beste aldagaietatik guztiz independentea da, inolako korrelazio esanguratsurik ez konstatatzean, espero zen bezala.

Azkenik, bost indize somatikoek elkarrekin esanguratsuki interkorrelazionatzeko joera dute; nahiz eta ez denek denekin. PG-k WH-rekin, A-k B-rekin. RE agertzen da independenteena, WH-rekin bakarrik erlazionatua. WH-k, RE-rekin, PG eta B-rekin korrelazionatzen du. A indizeak, PG eta B-rekin korrelazionatzen du. Eta B-k, PG, WH eta A-rekin (zeinu negatiboak, aitziko norabide kuantitatiboa bakarrik adierazten du). Osagai nagusien analisi faktorialetik (varimax errotazioa), ondoko laukian agertzen den harreman egitura ateratzen da:

Indize somatotipikoen matriz faktorial biratua (varimax)

	1 faktorea	2 faktorea	Komunalitatea
PG	.94491	.20250	.93387
RE	-.03279	.91684	.84167
WH	.46481	.66492	.65816
A	.92910	-.04183	.86497
B	-.89719	-.26217	.87368
Balio propioa	3.04706	1.12528	
Bariantza portzentaia	%60.9	%22.5	%83.4

Lauki honetan ikus daitekeenez, lehen faktorea PG, A eta B-k osatzen dute nagusiki; bigarrena, RE-k osatzen du.

Ondorioak

Laginaren bereizgarriengatik, ikerketa hau emakumearen somatotipoaren azterketan zentratu da batez ere, ikerketa klasikoak gizonezkoen erakuskariekin eginak diren bitartean.

Indize somatotipiko guztietatik, Rees & Eysenck-ena agertzen da, erakuskararen bereizgarri soziodemografikoetatik independenteena bezala, eta, beraz, kanpoko balidezia gehienekoa, edo populazio orokorrari generalizatzeko gaitasun gehienekoa. Indize guztiek, gizonezkoaren somatotipoan «egitura horizontalaren» alderako joera agertzen dute, eta emakumearenean, «egitura bertikalerako» joera; eta egitura horizontalaren nagusiagoa, adinaren gehitzearen funtzioan.

«Behatzaile arteko» fidagarritasuna moderatua izan zen, eta diagnostiko somatotipiko «klinikoa vs. aktuarialaren» arteko erlazioa oso baxua izan zen bi indikatzaileetan, eta ezerezekoa beste hiru indikatzaileetan, beste bereizgarri psikologikoen diagnostikorako literaturak seinalatzen duen bezala.

Azken ondorio bezala, esan daiteke, bost indize somatotipikoen arteko interkorrelazioetatik abiatuta ezarritako «irizpide balidezia gurutzatuak», RE indizea seinatzen duela independenteena bezala (WH-rekin bakarrik), eta eragin soziodemografikoetatik aske, horrek bere aplikapen generalizatu sustatuko lukeelarik. Beste indizeak elkar-erlazionatuak daude, zentralak bezala Pignet-ena eta B indizea agertuz. A indizea tangenzial bezala agertzen da, eta WH-rena, RE-rekiko loturagune bezala.

Korrelazio analisi honetatik deduzi liteke, denek somatotipoa neurtzen badute ere, modu ezberdinean egiten dutela. Analisi faktorialetik abiatuz, bost indizeak bi faktoreetan taldekatzen direla konstata liteke. Lehenak, honako hauek biltzen ditu, saturazio ordenuan: PG, A eta B. Bigarrenak, RE definitzen du eksklusiboki. WH-k bitarteko paper bat betetzen du, bi faktoreen arteko lotura bezala. Bere papera behar bada ezabaturik gelditu da bi faktoreen artean, formula aktuarial konplexuena edukitzeagatik. RE, bereizgarri soziodemografikoetatik duen independentziagatik, populazio orokorrean aplikatzeko egokiena bezala hartu liteke. Edozein modutan, datu hauen arabera, guztiz egokiak dirudite, Pignet-en eta Rees & Eysenck-en indizeek.

1.6.9. C. G. Jung

Jung-en tipologiak bi maila ditu: tipo barnerakoi eta kanporakoiari dagokiona eta psikismoaren baitako lau funtzio esentzialesen baten nagusigoari dagokiona (pentsamendua, sentimendua, intuizioa eta sentipena). Jung-en tipo barnerakoa, Heymans-en funtzio sekundarioak bereizten du; kanporakoa, berriz, funtzio primarioak bereizten du.

Subjektua *kanporakoa* objektuak magnetikoki erakartzen du, objekturantz irekia dago, harekiko harremanak ugaritu egiten dira, objektua da subjektuaren gain agintzen duena. *Barnerakoitasunaren* kasuan, subjektua da interes guztien erdigunea, kanporakoi buruz itxia dago subjektua; bizitz energia subjektuarengan zentratzen da, eta objektuak ez du eragin gehiegirik haren gain. Barnerakoa, erretiratu egiten da objektuaren aurrean, defendatu egiten da kanpokotik, objektuak berak zeditu behar du.

Kanporakoiaren psikismoko prozesuetan faktore objektiboak agintzen du; subjektuak objektura egokitu behar du. Faktore subjektiboak menpekotua eta zapaldua gelditzen da. Ondorenez, konpentsazio mekanismo batez, faktore subjektiboak azpimarratu nahiko da, eta joera egozentriko indartsu bat agertuko da. Horrela, kanporakoiarengan izaera berekoa duten pretentsio inkonzienteak ikusiko ditugu. Antzeko prozesua somatzen dugu barnerakoiarengan ere. Jarrera subjektiboaren gehiegizko nagusigoak, konpentsazioz, objektuaren eraginaren indartze inkonzienteak ekar dezake, maitatua izateko desira indartsu bat ager daiteke.

Freud eta Adler-en teorien eksklusibitatea eta aldebakartasuna ikusita, beren autoreen tipo psikologikoan aurkitu zituen teoria horien sustraiak. Adler-en kasuan, subjektuaren azpimarratze bat dago; Freud-en kasuan, objektuarekiko menpekotasun bat dago. Kant-ek subjektuarenganako orientazioa du; Darwin-ek objektuarenganakoa. Platon-en ikuskera idealista, tipo barnerakoiari dagokiona da; Aristotele-ren ikuskera errealista eta praktikoa, kanporakoiari dagokiona da.

Oinarrizko mekanismo psikikoen bikoiztasun honetan oinarrituta, Jung-ek tipologia funtzional bat ere eraiki zuen. Jung-entzat, funtzio psikikoetako batek (pentsamenduak, sentimenduak, sentipenak eta intuizioak) duen nagusigoaren arabera sailkatzen ditu gizabanakoak: sentimental kanporakoia, sentimental barnerakoia, pentsatzaile kanporakoia, pentsatzaile barnerakoia, sensitibo barnerakoia, sensitibo kanporakoia, intuitibo kanporakoia eta intuitibo barnerakoia.

2

Nortasunaren Diagnostikoa eta Ikerketa

Gai honetan, nortasunaren azterketako bi arlo garrantzitsu jorratuko ditugu. Batetik, galdekizun eta testen duagnostikoa, garapena eta aplikazioa. Bestetik, ikerketa, teoria eta zientzia enpirikoaren elkartzaile bezala.

Lehenik, diagnostikoaz jardungo gara, nortasunaren aldagaiak eta aspektuak neurtzeko garatutako tresnek bi gauzetarako balio baitezakete: klinikako, eskolako, laneko eta abarretako testuinguruetan diagnostikoak egiteko, eta ikerketa batetan aldagaiak operatibizatzeko. Ikerketan erabilita gero, erabil daitezke tresna horiek jokaeraren aurrikuspen zehatzago batetarako.

2.1. PSIKODIAGNOSTIKOA

Informazioa biltzeko eta/edo nortasuna ebaluatzeko teknika edo metodoen azterketaz jardungo gara hemen. Teknika batek, erabilgarria eta emankorra izango bada, teoria batekin eta honek garatutako eraikuntzekin barnetik erlazionatua egon behar du; horrela neurtu eta ebaluatu ahal izango ditu eraikuntza horiek.

Nortasunaren bereizgarriak ebaluatzeko, situazio jakin batetan erreaktibo edo estimulu batzuk aurkezten dira, eta haiei emandako erantzuna neurtzen da. Subjektuak estimulu horiei ematen dien erantzunetik hel gaitzke haren nortasuna ezagutzera.

Subjektu bati buruzko datuak hartzen hasita, aldagai ugariaren artean aukera egin beharrean aurkitzen gara; hori dela ta, ugari dira nortasunaren diagnostikorako teknikak. Edonola ere, diagnostiko teknikek lau puntu eduki behar dituzte kontutan:

1. Estimulua edo erreaktibo.
2. Frogaren pasaketarako instrukzio eta situazioa.

3. Subjektuen erantzunen bilketa.
4. Datuen analisi eta interpretazioa, maila koantitatiboan eta koalitati-boan.

Lau elementu hauetan eragina du teoriak, hark erabakitzen baitu zein estimulu behatuko diren eta behaketaren ondorengo tratamendua. Ikerlariak ziur jakin behar du, bilduko dituen datuak garrantzitsuak direla giza-kien arteko diferentziak aztertzeko. Datu esanguratsuak bildu behar ditu; horretarako, teoria baten barnean, haren kontzeptu eta konstruktoekin erlazioan, sistematikoki bildu beharko ditu datuak. Nortasunaren teoria ezberdinek diagnostiko tresna ezberdinak ekoiztuko dituzte; tresna horiek konstrukto ezberdinak ebaluatuko dituzte eta behaketa ezberdinak ekoiztuko dituzte. Zentzun honetan, teoriak eta tresnak erlazionatuak egon behar dute, eta elkarrekiko erlazioan bakarrik edukiko dute zentzuna.

Neurketa prozesu guztietan, esanguratsua den informazioaren bilketa-rekin batera, «hutsegite soslai» batzuk agertzen dira, eta haiek ezagutzea beharrezkoa da tresnak egoki aplikatzeko. Hutsegite horiek, aipatutako lau puntuetako bakoitzean gerta daitezke, kasu bakoitzean bereizgarri ezberdinak agertuz. Hutsegite iturri hauen azterketa, neurtresnen *balidezia* eta *fidagarritasun* analisisien barnean kokatzen da.

Test edo galdekizun batek neurtzen duenetik independenteki, neurketaren zehaztasunean zerikusia baduen testuinguru batetan gertatzen da aplikazio konkretua. *Fidagarritasunaren* arazoa da hori. Lehenik, erregistraturiko behaketek berdinak izan behar dute edozein dela ere behatzailea: behatzaile arteko fidagarritasuna deritzaio honi. Zentzun honetan, bi fidagarritasun mota daude: barne konsistentzia eta denboran zeharreko egonkortasuna. Lehenak esan nahi du, errektibo guztiek edukin bera neurtzera jotzen dutela, gauza bera neurtzen dutela. Behatzaileek entrenatuak egon behar dute: gertaera berberak behatuko dituzte, berdin puntuatuko dute eta analisi naiz interpretazio berberetara helduko dira. Bigarrenaren arabera, tresnak denboran zehar behar adina sentikortasun behar du, eskuartean dugun konstruktoa ebaluatzeko, eta testuinguruko gertaerek eraginik ez izateko. Nortasunari egonkortasun bat aitortzen zaionez, test bera bi une desberdinetan aplikatzen bada, antzeko behaketetara heldu behar du (test-retest fidagarritasuna). Tresna baten fidagarritasun indizea ezagutzen ez bada, situazio batetan gauza bat neurtzen egon daiteke, eta beste gauza bat hurrengo situazioan, nahiz eta situazioak oso antzekoak izan; informazio sistematikoa jasotzeko tresna desegokia izan daiteke.

Balideziaren kontzeptuak, test batek neurtu nahi duena neurtu behar duela adierazten du. Balidazio prozesua, konplexua eta nekoso da, eta ez da beti finkatzen erraza, aldagaiak psikebarnekoak eta haien indikatzaileak zeharkakoak baitira.

Nortasunaren bereizgarrien neurtresnek eduki behar dituzten balidezia motak honako hauek dira:

1. Edukinarena.
2. Agirikoa.
3. Irizpidezkoa.
4. Konkurrentea edo auresalea.
5. Konstruktoarena.

Lehen bi balidezia motak formalak dira, eta beste hirurak metodologi-koak. *Edukinaren balideziaren* arabera, item guztiek neurtzen dutena eza-gutu behar da, adibidez, bateria konplexuen kasuan; neurtu nahi duen edukia neurtzen ari den aztertzen du balidezia mota honek. *Agiriko balideziak*, garrantzi zientifiko handirik ez badu ere, egin beharreko frogaren aurrean subjektuak duen jarrera positiboa edo negatiboa sustatzen duen neurrian, bere garrantzia badu. *Irizpide balidezia* askoz garrantzi-tsuagoa da eta balideziaren arazoaren gunea zentrala bezala har dezakegu. Tresna batek aldagai bat neurtzen badu, testaz kanpoko aldagai objektibo-ak beharko ditugu, neurtu nahi genuena zein neurritan neurtzen ari garen seinaltatzeko. Adibidez, depresioa neurtzeko galdekizun kliniko bat garatzen badugu, DSM-ko irizpideak erabiltzen dira irizpide balideziaren indikatzaile bezala.

Irizpide balideziaren barnean, balidezia *konkurrentea* eta balidezia *auresalea* bereizi beharra dago. Balidezia *konkurrentearen* kasuan, irizpide-ak, kanpoko erreferentzi puntu independenteak dira, konstrukto bat balidatzeko erabil daitezkeenak. Irizpideak aurrez finkatuak daude, edo testa aplikatzeko garaian eskuratzen dira. Adibidez, garunaren hondamena neurtzeko erabil daiteke blokeen diseinuko testa, garun ehunaren analisisaren orde. Test horretan, materiale bat antolatu eta egituratzeko eskatzen zaio subjektuari, garun ehunaren analisi biokimiko bat egin orde. Testaren eta azterketa neurologikoaren ebaluapenen arteko korrelazioa garaia bada, testak balidezia konkurrentea badu.

Balidezia *auresalearen* kasuan, iadanik garatutako tresnak dira, diagnostiko bat egiteko edo jokaera bat auresateko erabiltzen direnak. Gerora nabarmenduko den irizpide bat auresaten du balidezia irizpideak; test hauetan lortutako puntuazioek koerlazio garaia agertzen badute geroago lortutako datuekin, balidezia auresalea dutela esan daiteke. Balidezia auresalean, etorkizuneko jokaera bat auresan behar da, test batetako puntuazioen funtzioan; adibidez, «Strong-en bokazio interesen galdekizunaren» eta etorkizuneko arrakasta profesionalaren arteko erlazioa. Honela, beraz, testaren benetako erabilgarritasuna bere gaitasun auresalean dago, benetan neurtzen duen horretan baino gehiago.

Tresna baten zientifikotasuna eta/edo erabilgarritasuna, balidezia konkurrenteak eta/edo auresaleak ematen digu. Konstrukto bat ezagutu eta manea dezakegula egiaztatzeko era bat, test batetan lorturiko puntuazioen bidez jokaerak auresateko dugun gaitasuna frogan jartzea da. Bi balidezia motaren arteko diferentzia, auresan behar dugun jokaerarekin erlazioan

testa aplikatzeko unean datza. Oraingo gertakizun bat diagnostikatzeko erabiltzen da testaren puntuazioa balidezia konkurrentean; erosotasunak edo faktore ekonomikoek erabakitzen dute haren komenientzia.

Azkenik, *konstruktoaren balideziak*, teoria batek definitzen dituen konstrukto eta aldagaiak neurtzeko tresna batek duen gaitasun teorikoa finkatzen du. Testuinguru teorikorik gabe, esana dugun bezala, datu biltze hutsa alferrikako lana da. Zentzun honetan, beste balidezia moten erabilgarritasun praktikoa, konstruktoen finkamendu teorikoa bermatzen duen konstruktoaren balideziak gainditzen eta justifikatzen du. Bestalde, balidezia hau da konplexuena, teoria baten barnean konstrukto desberdinek duten harremana eta garrantzia finkatzen baitu. Psikebarneko konstrukto zenbait diren neurrian, erreferentzi puntuak ez daude beste balidezia motetan bezain argi; horregatik, elkarreragin konplexuen «sare nomologikoetan» oinarritzen da. Eraikuntza hauentzat irizpide absoluturik ez dago; beraiek osatzen duten teoria orokorraren funtzioan definitzen dira irizpideok. Zentzun honetan, irizpide absoluturik ez egotean, konstrukto balideziak, ikerketa jarraikorretan zehar progresiboki garatzen doan prozesu pilotzaile bat jasaten du, teorikoki postulaturiko erlazioak aurkitzeko. Konstrukto bat neurtzeko test bat erabil daiteke, baina irizpide balidezian gertatzen zenaren kontrara, balidezia ezin ezar dezakegu guztiek onarturiko irizpide batekin erlazioan. Eraikuntz balidezia progresiboki pilatzen doa, teoriatik eratorritako harremanak egiaztatzeko baliagarri gertatzen den heinean. Teoriek eraikuntza bat postulatzeko dute eta testaren egileek ere testak eraikuntza hori neurtuko duela suposatzen dute. Teoriarekin erlazonaturiko ikerketarako testa baliagarri den neurrian, eraikuntz balidezia duela esango da. Gauza bera neurtzeko test bat baino gehiago dagoenean, teoriarentzat erabilgarriena dena da eraikuntz balidezia gehien duena.

Fidagarritasuna eta balidezia finkatzeko konplexutasun honek adierazten du, neurtresnek ez dituztela maila absolutuan edukitzen haiek; galdekizun edo test bakoitzak, aplikatua izateko, fidagarritasun edo balidezia maila bat behar du, eta hori ikerketa prozesu mailakatu eta jarraitu batetan finkatzen da.

2.2. TESTEN SAILKAPENA

Diagnostikoaren osagai diren lau elementuak garatzeko moduagatik sailkatzen ditugu neur tresnak, hau da, estimuluaren situazioa, frogaren pasaketarako instrukzioak, subjektuaren erantzunak eta emaitzen ebaluazio eta interpretazioa garatzeko moduagatik. Ebaluazio eta neurketa prozesuak aldaki asko eduki ditzake lau elementu hauetan. Honela, estimuluak gertatzen direneko situazioa bizitza errearen antzekoa izan daiteke, estimuluak libreki jariatzen direla, edo laborategi situazio batetan eman dai-

tezke, estimuluaren testuinguruaren kontrol zehatz batez. Erreaktiboak argiro definituak egon daitezke, edo anbiguoak eta konpreziorik gabeak izan; aspektu bat bakarrik neur daiteke, edo aldi berean aspektu asko neur daitezke; erantzunen erregistroa maila desberdinetan eman daiteke: hitzezkoa, ez-berbala, fisiologikoa etab.; datuen taldekatzea gehiago edo gutxiago mekanizatua egon daiteke, eta psikologoaren interpretazioa objektibagarritasun edo subjektibotasun gehiago edo gutxiagokoa izan daiteke.

Nortasunaren neurketarako frogen sailkapen nahiko argitzailea proposatu du Campbell-ek. Bere sailkapen sistema, hiru dimentsioen definizio-tik abiatzen da:

1. Egituratua-egituratu gabea.
2. Mozorrotua-mozorroto gabea.
3. Bolondresa-objektiboa.

Egituratua-egituratu gabea dimentsioak, froga bati erantzuterakoan subjektu batek duen askatasun mailari egiten dio erreferentzi. Erabat egituratuan, alternatiba guztiak zedarrituak daude, eta proposaturiko bat aukeratzean datza lana; erabat egituratu gabean, nahi den erantzuna libreki eman daiteke. Tresnak sailkatzeko erabiltzen diren dimentsioak modu mailakatuan kontsidera daitezke; horrela, puntu ertain bat badago, tresna erdi egituratuari dagokiona: alternatiba zenbait ematen diren arren, erantzun askeak emateko ahalbidea uzten du. Erabat egituratutako itemaren adibide bezala, subjektuaren sexuaz galdetzea har daiteke: aurrez finkaturiko bi erantzunetako bat ematea beste ahalbiderik ez dago. Galdera irekia, erabat egituratu gabearen kategoria barnean sartuko litzateke; bere burua kokatzeko profesio sail bat ematea eta «besteak» laukitxoia seinaltatzeko ahalbidea uztea, item erdiegituratuaren adibidea izanen litzateke.

Mozorroto-uz mozorroto dimentsioarekin erlazioan, nortasunaren teoria batzuen arabera, subjektuaren bereizgarriak ez dira zuzenki hautemangarriak (atzemangarriak), dela subjektuak gordetzen dituelako (kontziente edo inkontzienteki), dela bere bernetik ezagutzeko gai ez delako, edo ezagutzen ez dituelako, beste gabe. Zentzun honetan, «mozorrotoaren» dimentsioan, ebaluatua den subjektuari argiro agertzen ez zaizkion neurketa asmoak dituzten frogak sartuko lirateke. Mozorroto gabeetan, berriz, neurketaren helburuak garbi agertzen zaizkio subjektuari, dela itemen edukinarengatik, dela ebaluatzaileak berak komunikatzen diolako. Adibidez, pertsonalaren hautespren situazioan, nortasunaren froga batzuk mozorrotoak dira, subjektuak ez baitaki zein erantzun diren egokienak lana lortzeko; adimen edo gaitasun froga bat aurkezten bazaio, berriz, ahal duen item guztiei zuzenki erantzun behar zaie, puntuazio on bat lortzeko.


Azkenik, *bolondres-objektibo* dimentsioak, erantzun pertsonal bat emateko subjektuak duen ahalbideari egiten dio erreferentzi: dimentsioaren lehen poloan, edozein dela ere erantzuna, ez dago erantzun zuzen edo okerrik, printzipioz; froga objektiboen poloan, alderantziz, gaitasun frogere-

tan gertatzen den bezala, alternatiba zuzen bat badago, eta beste guztiak okerrak dira. Azken polo honek («objektiboa»), egituratu-egituratugabea dimentsioaren lehen poloa ukitzen du; bigarren poloak, egituratugabeak, erantzun aske «bolondresak» eta pertsonalizatuak deskribatzen ditu. Era berean, mozorrotu-mozorrotugabe dimentsioaren lehen poloak garrantzi gehiago du test egituratu gabeetan, hauetan ebaluapenak globalagoak eta anbiguoagoak baitira.

Edozein modutara, diagnostiko tekniken eta nortasunaren teorien arteko erlazioa finkatzeko, dimentsio sailkatzaile nagusia egituratu-egituratugabea da: aurrerago ikusiko dugun eta aurrikuspenerako garrantzitsua den estatistiko-klinikoarekin erlazionatua dago.

Dimentsio guzti hauek, eta dagozkien adibideak, ondoko irudian ikus daitezke.

Irudia: Testen sailkapenerako dimentsioak



- A) Bolondresa: nortasunaren galdekizuna.
Objektiboa: gaitasun testa, nortasunaren diagnosiarako.
- B) Bolondresa: entrebista zuzendu gabea.
Objektiboa: azterketa entrebista.
- C) Bolondresa: Kelly-ren REP-a, diferentzial semantikoa.
Objektiboa: trebetasun testa (psikopatologia).
- D) Bolondresa: test proiektiboa (aplikapen orokorra).
Objektiboa: test proiektiboa (aplikapen partikularra).

Honela, bada, zortzi kategoria sortzen dira. Baina, kontutan hartzen badugu, dimentsioen polo batzuk garrantzi gehiago dutela nortasunaren diagnosirako testuinguruan, nortasunaren galdekizun eta test gehienak lau kategorietan bakarrik isladatuak egongo lirateke:

1. Test egituratu gabeak eta mozorrotuak: test proiektiboak.
2. Test egituratu gabeak eta mozorrotu gabeak: gidatu gabeko entrebistak.
3. Test egituratu eta bolondresak: nortasunaren galdekizunak (mozorrotuak edo mozorrotu gabeak).
4. Test egituratu eta objektiboak: jokaeraren analisi funtzionala (mozorrotuak edo mozorrotugabeak izan daitezke hauek ere).

Lau kategoria hauek ahalbide guztiak agortzen ez badituzte ere, adibidez, Kelly-ren REP-a, erabilitako tresna gehien sailkapen eskema orokor bezala erabil daitezke.

2.2.1. Test egituratu gabe eta mozorrotuak

Kategoria honetako adibide bereizgarria test proiektiboek osatzen dute. Hauen artean, nabarmenenetakoa, Hermann Rorschach-en «Tinta mantxen testa» da, autore batzuek test perzeptibo bezala kontsideratu nahiago badute ere (Fernández Ballesteros, 1981). Denbora luzez, esparru klinikoan gehien erabilitako testa izan da.

Hasieran bere jatorria teoria psikodinamikoetatik atekoa izan bazen ere, nabaria da haiekin duen erlazioa, eta bere garapenean psikanalisiak eragina izan zuen. Bietan, gizabanakoaren idiosinkrasia azpimarratzen da; bientzat, barne indarrek determinatzen dute jokaera (bulkadek, premiek, gatazkek etab.); bietan, nortasunaren egitura antolamendu geruza desberdinetan artikulatzen da (kontzientea, inkontzientea etab.); jokaerak, inguruan azaltzen bada ere, psikebarneko prozesuetan du bere jatorria; eta pertsona osotasun bat bezala globalki kontsideratzen da, bai terapian, bai diagnosian.

Erreaktibo anbiguoen aurrean subjektuen erantzun askatasuna sustatzeari bereizten dira teknika proiektiboak. Horrelako kitzikapen batek erraztu egiten du, subjektuak barnean daramana aurkeztutako laminan proiektatzea; zentzun honetan, estimuluak erantzun ezberdin anitz sortaraz ditzake subjektu bakoitzean eta situazio bakoitzean. Gainera, azken asmoak ez zaizkio subjektu ebaluatuari garbi jarri behar, horrek defentsa mekanismoak erraztuko lituzkeelako; eta ebaluatzaileak egiten duen protokoloen interpretazioa subjektu bakoitzeko da, bere entrenamendutik, presupostu teorikoetatik eta abarretatik dependitzen duena; globala eta konplexua ere bada interpretazioa, subjektuaren osotasuna hartzen baitu.

Horregatik, test bat pasatzerakoan, informazio kantitate handi bat sortzen da; eta suposatzen da, informazio hori subjektuen aspektu intimoenekin erlazioan egonen dela.

Konkretuki, Rorschach-en testak hamar lamina ditu. Aurkezturiko estimuluak tinta mantxa simetrikoak eta lausoak dira: ikerketa neketsu baten ondoren, talde psikiatriko ezberdinengan erantzun diferentziatuak sorrazteko nahiko esanguratsuak bezala jotzen zituen mantxa horiek egileak. Balorazio sistema, denboran zehar garatzen joan da, analisi estatistikoaren ahalbidea irekiz; adibidez, estimulu zati batek sortarazten duen erantzunen sarritasuna aztertzen da. Edozein modutan, intuizio klinikoek jarraitzen dute froga honen oinarri analitikoaren izaten.

Rorschach-ek teoria psikoanalitikoaren eragin handia jaso zuen, batez ere inkontzientearen konstruktoarena; oinarri teoriko psikodinamikoaren era-

bili zuen bere teknikaren interpretazioak lantzeko. Beste teknika psikoanalitikoaren (ametsen interpretazioaren, ideien elkarketaren) laguntzaile bezala kontsideratzen zuen bere teknika; protokoloen interpretazioa sinbolikoa zen nagusiki.

Rorschach-ek, subjektuaren ebaluapenean, hitzezko edukinekin batera, frogaren aurrean hark zituen jokaera eta jarrerak ere kontsideratzen zituen. Erantzunen interpretazioa, hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren edukinak modu koalitatiboan eta koantitatiboan konbinatuz egiten zen.

Aberastasun pertsonal global guztia ebaluatzeko pretentsioak mugimendu kritiko bat sorrarazi du, froga honen fidagarritasun eta balidezia problemetan oinarriturik. Oso zaila da behar bezain garaiak diren indizeak lortzea. Fidagarritasunari dagokionez, tresnak ez du konsistentziarik agertzen, tresna erabiltzen den bakoitzean aldatu egiten baitira ebaluazio globalak. Rorschach-aren interpretazioak, datuen konbinaketa ikaragarriaren erabilera eskatzen duenez, kontraesan asko gertatzen dira psikologo klinkikoen interpretazioen artean. Balideziaren problema konplexuagoa da oraindik. Tinta mantxen eta nortasunaren bereizgarrien arteko erlazioa finkatzea falta da. Bien arteko lotura bakarra honetan datza: nortasuna proiektatu egiten dela tinta mantxetan, estimulu kromatikoak, ambiguoak izatean, proiektzioa errazten baitu, eta erantzun propio eta pertsonal indibidualizatuak ematea ahalbidetzen baitu. Baina, nortasuna jokaeraren edozein agerpenetan proiektatzen dela onartzen bada ere, besterik da nortasun hori modu konsistente, garbi eta berezian detektatzea. Rorschach-en interpretazioen eta beste tresnetan oinarritutako deskribapen klinkikoen artean ez da batera etortze nabarmenik ikusi. Etorkizuneko jokaeraren auresale bezala Rorschach-a erabiltzea ere, porrot iturri izan da.

Balidezia indizeak finkatzeko beste problema bat, susmo batetatik dator: ebaluatzaileak darabiltzan elementu interpretatzaile batzuk norberarenak dira; esan nahi baita, subjektua bakarrik ez dela proiektatzen, ebaluatzailea ere bai baizik, interpretaziorako erantzun batzuk besteen aurretik onartzean, norberaren aurreiritziekin edo soslai interpretatzaileekin bat etortzearen arabera. Hemen planteiatzen den arriskua hauxe da: ebaluatzailea ere «inkontzienteki» proiektu liteke diagnostikoaren prozesuan.

Protokolo bereberei ebaluatzaile desberdinek egindako interpretazioetan bat etortze (adostasun) gutxi aurkitu dira; eta etorkizuneko jokaeraren auresateak ez dira arrakastaz amaitu, interpretazioen zehaztasuna determinatzeko irizpide egokiak aurkitzeko zailtasunagatik.

Tresna honen babesleentzat, balidezia eta fidagarritasunaren gaia psikometria tradizionalarekin erlazionatua dago, eta Rorschach-ak beste eskema batzuk ditu; behar bada, ezin dakizkioke premisa hauek aplikatu. Baina, orduan, zertan oinarritu daiteke tresna zientifiko bezala, tresna global bat izatean, bere asmatze eta hutsegite iturriak finkatzea oso zaila bada?

Soluziobidea, tangentetik irtetean datza. Testaren alde daudenek, balidazio metodoak zalantzan jartzen dituzte, zurrunak eta desegokiak direla-

ko, eta uste dute intuizio klinikoa askoz garrantzitsuagoa dela ikerketa metodoak baino. Test psikometrikoak banalak eta azalekoak dira; Rorschacha, osoa, konplexua eta globala da. Teknika hauen erabilerak, psikebarneko indarren, bulkaden, gatazken eta abarren elkarrekintzak determinaturiko indibidualitatea eta jokaera dinamismoa azpimarratzen duen nortasunaren eredu kliniko bat bereganatzea inplikatzeko du. Zentzun honetan, frogaren bereizgarriek (egituratu gabea, mozorrotoa eta bolondresa), subjektua bere aberastasun guztian globalki proiektatzea sustatzen dute.

Azkenik, bide hau aukeratzeko bada, zailtasun anitz dituen aukera bat egiten da, entrenamendu teoriko eta praktikoa handia eskatzen duena; hartan sinesten ez bada, zaila da jarraitzea.

Beste tresna proiektibo oso ezaguna, Murray-k garatutako T. A.T.-a («Aperzepzio tematikoaren testa») da. Hemen, estimuluak, eszenadun 17 lamina dira (eta bat gehiago txurian), eta subjektuaren aspektu proiektiboa sustatzen dute; ikusten duenari buruzko kontakizunak eraiki behar ditu subjektuak, ondoren kontakizun horien interpretazio koalitatibo bat emateko. Izkutuan edo ez hain izkutuan dauden gatazken iturria aurkitu nahi da test honetan; horretarako, giza irudiak dituzten eszenak eta karga emozionaleko erantzunak sortaraz ditzaketeko beste batzuk aurkezten dira laminetan, anbiguotasun piska batez.

Azkenik, froga proiektibo unifasikoaren adibide bezala, psikebarneko bereizgarri bakar baten neurketarako, Rosenzweig-en «Frustrazioaren Testa» aipatuko dugu. 24 lamina ditu, eta hauetako bakoitzean pertsonen «silueta alboratuak» agertzen dira; pertsona hauetako batek esaldi frustratzaile bat ematen du, beste pertsonari batekin harremanean; beste honen gainean, espazio huts bat agertzen da. Froga egiten zaion subjektuak azken pertsonari honekin identifikatu behar du, eta beste pertsonak esandakolari erantzun behar dio, bururatzen zaio beste esaldi batez. Erantzun hau tipifikatua da eta frustrazioaren maneiuko mekanismoak isladatzen dituzten aurretiko kategoriatan batzuen funtzioan interpretatzen da.

2.2.2. Egituratu gabeko eta mozorroto gabeko testak

Eredu hau jarraituz garatzen diren teknikak hurbilketa fenomenologikoari lotuak daude orokorki; beraz, bere buruaz edo inguruneaz subjektuak dituen perzeptioetan zentratzen da interesa. Teknika nagusiak, entrebista zuzendu gabea eta autobiografia dira: biak, bolondresak. Hemen, baita ere, teknikaren interesa gizabanakoan zentratzen da, alternatiba ezberdinen artean berari dagokiona aukeratzeko uzten balitote subjektuari; honetan, test proiektiboen antzekoak dira, askeki espresatzea baimentzen baitute; baina, test proiektiboek ez bezala, hauek ez dituzte beren asmoak estaltzen; teknika proiektiboekiko duten diferentzi garrantzitsu bat honetan datza, beraz, beren asmoak ez gordetzean eta subjektuari argi agertze-

an. Zerbait ezagutzen ez bada, hobe da zuzenki galdetzea. Informazioa eskuratuta gero, subjektuarekin batera interpretatzen eta baloratzen da, simbolismo izkutura jo gabe; hemen azpimarratzen dena, subjektuak zuzenki eta kontzienteki adierazten dituen hitzezko txostenen edukina da.

Psikologoari interesatzen zaizkion datuak, subjektuaren perzeptzio, esanahi eta esperientziak dira, modu subjektibo eta pertsonalean deskribatzen dituen bezala; erantzunaren subjektibitatea eta berezitasuna nabarmentzen da; horregatik, interpretazioa ere ahal den gehien pertsonalizatzen da, aurretiko konstrukto teorikoetatik independenteki.

Hurbilketa honen oinarriko teknika entrebista da, eta aspektu desberdinak ditu. Definizio orokor bat honako hau izan liteke: Hitzezko elkartruke bat da, bi pertsona edo gehiagoren artean aurrez aurre gertatzen dena; horietako bat, elkarriketara, informazioa ateratzen edo bestearen edo besteen iritzi eta usteak ezagutzen saiatuko da. Entrebistak izan daitezke estandarizatuak edo estandarizatu gabeak. Entrebista estandarizatuak neurketa eta koantifikazioa, eta subjektu ezberdinen arteko alderaketa errazten ditu: galderak aurrez erabakita daude eta subjektu guztei galdera berberak egiten zaizkie. Entrebista egituratu gabeak, subjektuaren analisi fenomenologiko subjektiboa errazten du, bere individualitateari balio berezia emanaz; galderen edukinak eta ordenuak, subjektuaren erantzunetatik dependitzen dute; galderak malguagoak izatean, subjektua gehiago definitzen da, pertsonaren singularitate eta berezitasunera gehiago hurbiltzen da, nahiz eta zorrotasuna eta zehaztasuna galtzen diren, eta subjektuen arteko alderaketak batez ere koalitatiboak gertatzen diren.

Teknika malgua izanik, bere zatietakoren bat estandarizaturik izan liteke; adibidez, galdera batzuk berdinak izan litezke subjektu guztientzat, edo aldakortasun handia eduki lezakete subjektuaren erantzun jarraikorretatik dependituz.

Hasierako topaketetan eta entrebista laburretan, «erreziprozitatearen printzipioa» erabiltzea komenigarria da; printzipio honen arabera, sinpatien, sentimenduen, komunikazioen eta abarren adierazpenean berdintasuna dago. Lehen une hau iraganda, entrebistatzaileak eginkizun abegitsu bat hartu behar du, baina ez du nahastu behar entrebistatuaren sentimenduetan, ez eta bere esperientzia propioak agertu ere.

Entrebistetan, subjektuari eginiko galderak dira estimuluak. Aurkezpen modua ere garrantzitsua da, baina, batez ere, «rapport-aren» edo konfiantza sortzaile den giro enpatikoaren ezarpena. Eskuraturiko datuak, hitzezkoak edo ez-hitzezkoak izan daitezke, eta edukinen nahiz formaren tratamendu objektibo bat jasan dezakete (erreakzio denborak, jokaera bereizgarriak etab.). Edukinaren analisiaren bidez, entrebista batetako datuak sistematikoki kategoriza daitezke, subjektu desberdinen erantzunak kontrastatu ahal izateko; zentzun honetan, elementu jakin batzuk besteak baino aldera errazagoak dira, hala nola, hizkuntzaren osagaiak, edukin afektibo subjektiboen aurrez-aurre.

Entrebistan gertatzen den aurrez-aurreko elkarreraginak ere elementu konplexu eta distortsionatzaileak sar ditzake. Elkarrizketariak eragin dezake subjektuaren erantzunetan, haietako batzuk indartuz, beste batzuk indarririk gabe utziz; eta hori bera egin dezake haren jarrera, ohitura eta aurrejarrerekin ere. Eragin honen adibide bezala, «Greenspoon efektua» bezala ezagutzen duguna har dezakegu. Greenspoon-ek, hitzezko kondizionamenduari buruzko bere ikerketetan aurkitu zuenez, subjektuen hitzezko jokaeran eragin esanguratsua eduki zezakeen espresio jakin batzuen (pluralak eta generoa) aurrean esperimendatzaileak emandako hitzezko errefortzu kontingenteak. Ikerketa hauetan egiaztapen interesgarri bat ere egin zuen: subjektuak ez ziren eragin horretaz jabetzen, eta, beharbada, entrebistatzailea ere ez entrebista naturaleko situazioetan. Nora bide honetan argigarriak dira Matarazzo-k (1965) aurkeztutako datuak ere: entrebistatzailearen eta entrebistatuaren tasa eta erritmo kardiakoek sinkronizatzeke joera dute.

«Greenspoon efektua», entrebistetan hutsegiteetara eramaten gaituen efektuen arteko bat besterik ez da. Efektu honen konstatazioetik abiatuta, entrebistetan gertatzen diren hutsegite potentzialen beste iturburu asko agertzen hasi ziren; horien artean, entrebistatzailearen kanpoko aspektua, modalak, entrebistatzailearen sexuak entrebistatuarengan sortutako efektuak, bien arteko adin ratioa, estilo pertsonala, jantziaren egokitzapena, faktore guzti hauen arteko elkarreragina etab.

Interpretazioen fidagarritasunak ere kontsiderazio metodologikoak jasana ditu. Adibidez, taxonomia psikiatrikoari dagokionez, bi psikiatreek pertsona bera entrebistatzen zutenean, probabilitate asko zeuden biek irizpide berberak ez erabiltzeko eta nortasunaren bereizgarri berberak ez behatzeko, diagnostikoa ezartzerakoan. Subjektuaren bereizgarrien perzeptioan gertatzen diren distorsioak, ebaluatzailearen aurretiko esperientziek eta haren nortasunaren bereizgarriak sortuak direla dirudi. Subjektuen berbalizazio subjektiboei buruzko iritzi subjektiboak ematerakoan ere, norbere burua proiektatzeko arriskua dago. Guzti honek, balidezia eta fidagarritasunaren gaia berriro planteiatzen du: ahalegin handia egin behar da arlo horretan, teknika honekin eskura daitezkeen datu klinikoek kopurua handia baita.

Denbora zeharreko egonkortasunari dagokionez, fidagarritasun gutxi-ko tresna da; horrek ez du hasiera batetan baliogabetzen, bere beizgarriengatik interesgarri izan baitaiteke malgutasun hori gordetzea, informazioa une jarraikorretan biltzeko. Balideziaren gaia erraz konpon liteke, entrebistan ezarritako diagnosiaren arabera, irizpide eta/edo auresale egokiak erabiltzen badira.

Esparru teorikoak ere badu eragina, entrebistak aurrera eramateko erabil daitezkeen dibertsitatean. Entrebista psikoanalitikoan, elkarketa askea, gatazkak, inkontzientearen esplorazioa azpimarratzen dira, interpretazio sinbolikorako informazioa biltzen saiatuz. Entrebista zuzendu gabea, sub-

jektuaren autoerrealizaziorako joera suposatuz abiatzen da; entrebistatzailearen egitekoa hari bidea erraztea da, elkarrekiko konfiantza giro bat sortuz; giro horretan subjektua ahal duen askatasun gehienaz espresatuko da, edukin kontzienteetan fijatuz eta mozorrotu gabeko esanahi zuzena emanetz. Edonola ere, entrebistaren faseren batetan gutxienez, selfaren, doiketaren, self-ideialaren ebaluaziorako esparru teorikoa isladaturik agertzen da entrebistariaren galderetan. Hurbilketa honen bereizgarri klabe bezala, entrebistatzaileak egiten duen entrebistatuaren edukinen errepikapen usua eta baloraziorik gabea jarri behar da; ahaztu gabe, bere buruaz garrantzitsu jotzen duena kontatzeko adore ematea eta interesa piztea ere.

Entrebistan zehar subjektuari galde diezaiokegu bere burua deskribatzeko, hau da, bere «selfa» nola dakusan esateko. Selfaren gaiean zentratuta, baldintza egituratuagoetan, adjektiboen zerrenda bat eman diezaiokegu, eta eskatu, esan diezagula zeintzuk diren bera hobekien deskribatzen dutenak, edo esaldi kopuru handi baten artetik, aukera ditzala bera hobekien deskribatzen dutenak (Q banaketa). Eska diezaiokegu, baita ere, izenlagunen eskala baten bidez autoebalutzeko (Diferentzial Semantikoa).

Honelako teknikak artean gehien nabarmentzen direnak honakook dira: Stephenson-en «Q» banaketa, Osgood-en Diferentzial semantikoa, Kelly-ren «Rolei buruzko eraikuntzen errepertoriumaren testa» (REP testa).

Q teknikan, subjektuari 100 txartel inguru aurkezten zaizkio, nortasunaren bereizgarri buruzko esaldiekin, eta subjektuaren lana, haiek pila desberdinetan taldekatzea da, aplikagarri zaizkion neurrian. Teknika egituratu bat da, esperimendatzaileak emandako esaldiei erantzun behar baitie subjektuak; baina subjektuak askatasuna du pilak konfiguratzeko; gainera, beste kontzeptuak ebaluatzeko erabil daiteke: self-ideiala, beste pertsonen nortasuna, eta diagnostikoaren helburuen arabera alda daitekeen pilen kopurua.

Diferentzial semantikoan, bipolodun adjektibo bikote sail baten bidez (ona-txarra, gaixoa-osasuntsua, handia-txikia etab.) ebaluatzeko kontzeptu bat proposatzen da (self-a, self-ideiala, lagunak, lana etab.). «Konnotazio semantikoa» atzematea da bere helburua, hau da, ebaluatzen diren kontzeptuen esanahi subjektiboa atzematea. Teknika egituratu bat den arren, malgutasun handia du, eta bere erantzuna kuantifikaeraz izatearen abantaila du, batzuetan teknika proiektiboen eta nortasunaren galdekizun egituratuen arteko «zubi» bezala kontsidera daitekeelarik.

Kelly-ren *REP*-ari ere lerro batzuk dedikatuko dizkiogu, teknika honez autore horren teoriari dedikaturiko atalean arduratuko bagara ere. Tresnaren helburua, pertsonak bere ingurunea definitzeko, interpretatzeko edo eraikitzeke ze eraikuntza konkretu erabiltzen dituen determinatzea da. *REP*-ean, subjektua bera da konstruktoak ebaluatzeko erabiliko dituen eskala bipolodunak eraikiko dituenak; ez dira beraz, psikologoak inposatuak. Horretarako, aztertzaileak sarrera bikoitzeko taula (sare) bat ematen dio,

han pertsona ezagunak eta haiek definitzen dituzten bereizgarri bipolodunak kokatzeko. Horretatik abiatuta, hiru pertsona aukeratzeko eskatuko zaio, haietako bik antzeko bereizgarri bat dutelarik eta bereizgarri horretan hirugarren batetatik bereizten direlarik. Hirukoteen aurkezpen jarraitkorrak, konstruktio definitzaile bipolodunak zedarritzea ahalbidetuko du, kopuruaren mugarik gabe. Subjektuak eratzen dituen eraikuntza hauen bidez, inguru mundua eta bere burua nola antolatzen dituen ezagu liteke.

Test honek egituratua izateko joera du, baina askatasun maximoa ematen du pertsona bakoitzarentzat garrantzitsuak diren eraikuntzak finkatzeko garaian; interpretazio egokiek, bere ingurunea eta bere nia nola erakitzen duen ikus daireke. Teknika guzti hauek teoria fenomenologikoaren eragina dute.

2.2.3. Test egituratuak eta bolondresak

Nortasunaren teoria gehienek galdekizunak eta inbentarioak erabiltzen dituzte. Tresna hauek test egituratuak dira: galdera konkretuak formulatzen dituzte eta erantzun forma konkretua finkatzen dute; erraz kodifika daitezkeenez, koantifikazio modua eta erabilpen metodologikoa objektibatzen dituzte; bolondresak dira, berari gehien egokitzen zaion alternatiba aukeratzeko du subjektuak, eta edozein erantzun zuzentzat jotzen da; eta, azkenik, mozorroak edo mozorro gabeak izan daitezke, ebaluatu behar den eraikuntzaren konplexutasunaren, edo soslaiak ekiditeko ebaluatzaileak ematen duen informazioaren arabera.

Galdekizunak, denbora minimo batetan eta modu merkean nortasunaren berezitasun eta/edo ezagugarri buruz informazio asko eskaintzen duten neurtresnak dira.

Galdekizunak darabiltzaten teoria askok, berezitasunen mailan nortasunaren eraikuntzak neurtzeko egiten dute. Berezitasunak nortasunaren oinarriko unitateak dira, eta situazio desberdinetan zehar erantzunek duten konsistentziari egiten diote erreferentzi. Berezitasunaren kontzeptuak, jokoaren ekintza espezifikoek baino maila garaiagoa du, baina «tipo» kontzeptuak baino maila bajuagoa. Berezitasun eta tipoak, dimentsio moduan eta hierarkikoki antolatzen dira, teknika multibariatu baten bidez (analisi faktorialaren bidez) estatistikoki finkaturiko moduan. Teknika koantitatibo hau da nortasunaren azterketaren hurbilketa honetarako oinarri metodologikoa; hori gabe ezingo zatekeen aurrera eraman. Oinarriko prozedura honako hau da: berezitasun bat edo gehiago neurtzen dituela suposatzen den itemen erakuskari bat landuta gero, subjektuen erakuskari zabal bati aplikatzen zaio. Bi erakuskariak, ausaz eta aurreiritzirik gabe aukeratuak izan beharko lukete, beren sorrerako populazioaren elementuak modu errepresentatiboan deskribatzeko. Subjektuek emaniko itemen erantzunekin, datuen matrize bat finkatzen da; matrize horretatik abiatuta,

analisi faktorialaren teknika aplika daiteke. Ikerlariak honako galdera hau egiten du: «Zeintzuk dira pertsona talde desberdinetan erantzun berberak lortzen dituzten itemak?». Item hauek elkarrekiko erlazio bat badutela dirudi, eta faktoreak osatzen dituzte. Oinarrian, teknika honek antzeko elementuak taldeka ditzake, eta faktore bat konfiguratu; faktore hori are eta konsistenteagoa izango da, zenbat eta elementu inplikatuaren koherentzia eta elkarrekiko harremana handiago izan. Gai hau xehetasun gehiagoz aztertzen da, nortasunaren teoria faktorialistak tratatzerakoan.

Kontutan hartu behar da, itemei emandako erantzunak ez badira konsistenteak, faktorerik ez dela osatzen, informazioaren dispersioa gertatzen baita. Izan ere, faktore bat edo gehiago konfiguraturako dituzten itemen taldekatzeak lortzeko metodoa da analisi faktoriala; faktore horiek, hasiera batetan elkarrengandik independenteak dira, baina definitzen dituzten item-en artean koherentzia handia agertzen dute.

Faktore bat zedarritzen duten itemak, ikerketa desberdinetan zehar garbi zedarrituta gero, nortasunaren bereizgarriak neurtzeko «eskalak» edo «plantilak» bezala erabiltzen dira faktoreak. Eskalen izen berezia, ikertzaileak erabakitzen du, biltzen dituen itemen edukinaren funtzioan. Zentzun honetan, faktoreen eta eskalen izenak, enpirikoki sortzen dira, elaborazio teoriko baten emaitza bezala baino areago, nahiz eta honek ere eragiten duen.

Ekiteko modu honek finkatu ditu nortasunaren «teoria psikometrikoak edo faktorialak» bezala ezagutzen ditugunak; faktore subjektibo eta intuitiboetatik independenteak diren teknika estatistiko konplexuak aplikatu ahal izateko oso garrantzitsua da erantzunen objektibitatea; faktore subjektibo eta intuitiboek itemen lantze eta aurretiko aukeratze garaian bakarrik jokatu lukete. Teoria hauen barnean, edozein elementuk, kontutan hartua izateko, koantifikagarria izan behar du, eta besteekin estatistikoki harreman enpirikoan jartzeko modukoa, ikertzailearen pentsamendu prozesuek arartekotu gabe.

Teoria faktorialisten barneko tresnarik ezagunenetakoa, Raymond B. Cattell-en «*Nortasunaren hamasei faktoreen galdekizuna*» (16PF) da. Bere izenak adierazten duen bezala, enpirikoki lorturiko 16 faktoreen bidez, nortasunaren 16 faktore deskribatzen saiatzen da, jokaeraren erregulartasun eta konsistentziak esplikatzeke.

Cattell-en prozedura honako hau izan zen: aurretiko galdekizunen eta iritzi, interes eta jarrera eskalen bilketa zabal batetik abiatuz, galdekizunaren itemen oinarria izango ziren hogeit hamar faktore landu zituen. Analisi faktorial jarraikorraren bidez, 370 subjektuaren lagin bati aplikaturiko 80 aldagaiko galdekizun bat analizatu zuen. Hortik ateratako hasierako 20 faktoreetatik batzuk baztertu egin zituen, hamabost gelditu bitartean; hamabost horiei, gero, inteligentzia orokorreko faktore bat erantsi zien. Geroago, forma paraleloak eraikitzen joan zen (gaur egun lau daude: A, B, C eta D), faktore bakoitzeko 10-13 item-ekin, eta guztira 186 item-ekin.

Cattell-en iritiz, bere 16 faktoreak nahikoak dira nortasunaren oinarriko deskribapen batetarako. Faktore hauek nahiko uniformeak eta bata bestearengandik independenteak dira. Ondorengo laukian agertzen dira faktoreok, beren bereizgarri nagusiekin:

16 PF-aren berezitasunak

Faktorea	Puntuazio baxua	Puntuazio garaia
A	SIZOTIMIA (erreserbatua, urrundua, kritikoa, isolatua)	AFEKTOTIMIA (irekia, maitakorra, lasaia, eskuhartzailea)
B	ADIMEN BAJUA (geldoa, tentela, makala)	ADIMEN GARAIA (azkarra, disdiratsua)
C	NIAREN INDAR GUTXI (emozionalki ezegonkorra)	NIAREN INDAR ASKO (emozionalki egonkorra)
E	MENPEKOTASUNA (maneiagarria, egokitzailea)	NAGUSITASUNA (oldarkoia, lehiakorra)
F	DESURGENTZIA (isila, sobrioa)	SURGENTZIA (utzia, entusiasta)
G	SUPEREGOAREN INDAR GUTXI (arauez axolakage)	SUPEREGOAREN INDAR ASKO (eskrupuloso, moralista)
H	TREKTIA (kohibitua, herabea)	PARMIA (ausarta, enprenditzailea)
I	HARRIA (sentikortasun gogorra)	PREMSIA (sentikortasun biguina)
L	ALAXIA (konfidagarria, moldakorra)	PROTENTISIOA (susmakorra, mesfidatia)
M	PRAXERNIA (praktikoa)	AUTIA (irudimentsua, abstraitua)
N	SAMURTASUNA (naturala, autentikoa)	MALTZURKERIA (maltzurra, kalkulatzaila)
O	EGOKITZAPEN ASALDAKAITZA (ziurra, patxadatsua)	ERRUDUNTASUNERAKO JOERA (aprentsiboa, insegurua)
Q ₁	KONTSERBAKORTASUNA (ideia tradizionalak)	ERRADIKALTASUNA (esperimentalista, liberala)
Q ₂	TALDEARI ATXIKIMENDUA (gregarismoa)	AUTOSUFIZIENTZIA (independentea)
Q ₃	INTEGRAZIO BAXUA (erlaxatua, arau propioak jarraitzen, autogatazkatsua)	AUTOIRUDIAREN KONTROL HANDIA (eskrupuloso, konpultsiboa, autokontrolatua)
Q ₄	TENTSIO ENERGETIKO GUTXI (erlaxatua, lasaia, patxadatsua)	TENTSIO ENERGETIKO ASKO (tentsoa, frustratua, behartua, gainkitzikatua)

16 PFaren forma bakoitzean, item bakoitzak esaldi edo galdera bat ordezkatzen du; honek, erantzuteko hiru ahalbide ditu: bat alderakoa, bestea kontrakoa eta bestea bitartekoa. Erantzuna ematean, egiatia izatera animatzen da, erantzuna pentsatuz, baina ez gehiegi; zuzena bezala hautematen den lehen alternatiba aukeratzea da onena. Galdera guztiei erantzutea azpimarratzen da, nahiz eta norberarekin erlaziorik ez dutela iruditu; edozein modutara ere, itemak planteiaturiko situazioan kokatzen da gogamezez subjektua. Tarteko kategoria, ahal den gutxiena erabili behar da, ertzetako erantzunaren aldeko erabakia hartzeko gai ez denean bakarrik; baina, ahal delarik, ez da utzi behar itemik txurian.

Honela, kontsidera liteke, 16 PF-a entrebista bat dela, kolektiboki pasa litekeena, estandarizatua, sistematikoa eta pertsonalizatu gabea. Egituratu da, informazio posible guztiak zedarritua duelako eskuratze bidea: item bakoitzarentzat hiru erantzun posible bakarrik baimentzen dira. Bolondresa da, subjektua aske baita bere erantzun propioa aukeratzeko, eta edozein erantzun zuzena izan litekeelako. Mozorrotua ez da, subjektuak badakielako nortasunaren galdekizun bat dela, eta batzuetan antzeman dezakeelako itemen garrantzia, ebaluatzen diren faktoreen izen konkretuak ezagutzen ez baditu ere. Erantzun orriak, informazioa bizkorki kodifikatzeko eta konputagailuz prozesatzeko moduan diseinaturik datoz. Azkenik, datuak behin analizatuta gero, (faktore bakoitzean item guztien batuketa), interpretaziora jotzen da, profil indibidualak ezarriz; profil horiek erakuskariko estatistikoekin alderatzen dira (batezbestekoa eta desbiderazio tipikoa), eta baita dagozkien baremoekin ere.

Prozedura objektibo honek erraztu egiten du fidagarritasunaren eta balideziaren azterketa, orain ikusiko dugun bezala muga batzuk seinalatu badira ere. Faktoreen fidagarritasuna altu samarra da. 16 PF-aren balidezia azterketak eraikuntzaren balidezian zentratu dira eskuarki, beste eskalekiko elaborazio faktorial eta korrelazionalatik abiatuz. Oso eskuraeraza eta aplikaraza izatean eta behar beste faktoreen erakuskariak badituelako, psikologiaren arlo ia gehienetan erabili da.

Galdekizun autoebalutzaille hauek kritikatuak izan dira, bai teknika proiektiboen defendatzaileen aldetik, eta baita beren hutsegite psikometrikoen iturriengatik ere. Lehenengoen zalantzan jartzen dute, pertsonak bere burua behar beste ezagutzen ote duen, galdera pertsonalei modu zuzenean erantzuteko, defentsa mekanismo inkontzienteek eskuhartu gabe, edo egia esateko benetako gogorik ba ote duen. Ikuspegi psikometrikotik hutsegite soslai asko aipatu dira, galdekizunen balidezia bermatzerakoan kontutan eduki behar direnak. Horien artean, beti itemaren edukinari erantzuten ote zaionaren zalantza, subjektu desberdinek gauza desberdinak uler baititza-kete galdera berdina egitean; kontutan hartu gabe, gainera, itemaren idazketa izan daitekeela, aldi berean gauza ugari aditzera emateko bezain orokorra. Galdekizunen balidezia bermatzeko egin den ahaleginaren beste zati garrantzitsu bat, galdera sail bati erantzuteko «erantzunen estiloan»

zentratu behar da; horien artean, guztiari bai erantzuteko «akiesentzia» edo joera nabarmentzen da; edo, erreaktantzi prozesua, hau da, negatiboki erantzuteko joera. Beste soslai iturri batzuk, onarpen sozial zabaleko erantzunak emanarazten dituen «Desiragarritasun soziala», edo ebaluatzailearen arreta erakartzeko asmoz egiten den sintomen exajeratzea edo «gaixo-jokaera» agertzea dira. Efektu hauek izkutarazteko modu bat, eskala batetan erantzun afirmatibo eta negatiboen kopurua orekatzea da, hau da, denak ez daitezela norabide berean joan; horretaz gaian, erantzun mota guztiak onargarriak direla eta erantzuna ematean egiatia izan behar duela azpimarratu behar da: erantzun erabat zuzenik eta erabat okerrik ez dagoela, baizik subjektuaren araberakoak direla adieraziz.

Muga guztiekin ere, nortasunaren galdekizunak oso zabalduak daude, eta beren baliagarritasuna argi dago, diagnostiko klinikoa egiterakoan esklusiboki ez, baizik beste test objektibo eta enpirikoekin modu konplementarian erabiltzea aholkatzen bada ere.

2.2.4. Test egituratuak eta objektiboak

Azkenik, informazio bilketa egituratu eta objektiboko prozedurak azpimarratuko ditugu. Egituratuak dira, subjektuari alternatiben kopuru mugatua eskaintzen diotelako, eta objektiboak dira, erantzun zuzen bat ematea eskaintzen diotelako. Subjektuaren erantzun bolondresetan oinarritzen ez diren jokaeraren neurketak egiten dira test horien bitartez. Neurketa hauen artean, jarduera fisiologikoaren indikatzaileak eta baldintzatze prozesuak aurkituko ditugu, nortasunaren diagnostikoan erabil daitezkeenak.

Behaketak laborategi situazioan edo antzekoan egiten dira, zehaztasuna eta fidagarritasuna bermatzeko. Zentzun honetan, ematen diren urrats guztiak estandarizatuak daude: instrukzioak, estimuluak, erantzun erregistroak etab.

Egin beharreko lanak burutzapen testak bezala konfiguratuak daude: situazio estandarizatuan jarritako subjektuaren jokaera, objektiboki ebaluatzen da. Subjektu guztiek kitzikapen berbera jasotzen dute. Esperimintatzailearen intereseko aztergaia den jokaeraren aldaketak aztertzeraz mugatzen dira test hauek. Situazio kontrolatuan jokaera espezifikoetara buruz informazioa lortzea da beren helburua.

Teknika projektiboak gehiago zentratzen dira nortasunaren funtzionamendu osoan; test egituratu eta objektiboek, gizabanako guztiei amankomunak zaizkien prozesuak gehiago azpimarratzen dituzte. Test egituratuak erabiltzeko joera duten nortasunaren teoriak, gehiago azpimarratzen dituzte pertsonen prozesu amankomunak, diferentziak baino; jokaeraren aspektu partzialetan arreta gehiago jartzen dute, aspektu osoan baino; situazioen arabera aldatzen denari arreta gehiago eskaintzen diote, iraunkor mantentzen denari baino. Teoria hauek kontsideratzen dute, nortasunaren uler-

kuntza globalaren entsegu guztiak, haren zatien ikerketa sistematikoarekin hasi behar direla. Horregatik iradoki da, nortasunaren teoriekin baino gehiago, hurbilketa hau psikologia orokorrarekin lotzen dela, ikaskuntzaren eta oinarritzko prozesuen hurbileko testuinguruetan aldagai gutxi bazuk ikertuz: perzeptzioa, arreta etab.

Ikerketa hauek zorrotzasun eta fidagarritasun alderdiak gehitu badituzte ere, ez da gauza bera gertatzen balidezia arazoarekin, izan ere, ez baitira oso garaiak izaten test hauetan lorturiko puntuazioen eta diagnostiko forma independenteetatik lorturiko puntuazioen arteko koerlazioak. Hurbilketa honen teorikoek ematen duten soluziobidea, lortzen diren neurketak berez balioetsuak bezala kontsideratzea da, beste irizpideekin erlazionatu beharrik gabe.

Indikatzaile fisiologikoekin jokatzeko moduaren adibide bereizgarri bezala, poligrafoaz eginiko lanak daude. Organismoaren potentzial elektrikoaren aldaketak detektatzeko diseinaturiko aparailu bat da hau. Bihotz tasa (elektrokardiograma), giharreen potentzial elektrikoa (elektromiograma), garuneko uhinak (elektroenzefalograma), azalaren erantzun psikogalbanikoa etab. neurtzeko erabili izan da nagusiki psikologian. Honela, adibidez, ikusi ahal izan da, eskizofrenikoek estresari erantzun bortitzagoa ematen diotela, pertsona normalek baino.

Garrantzi berezikoak dira, kondizionamendu eta ikaskuntzaren arloko lanak. Paradigma klasikoari jarraituz, nortasunaren aldagaiekin erlazionatu daitekeen erantzun baldintzatu egonkor bat ezartzean dautza. Paulov-ek iadanik aldeak ikusi zituen erantzun baldintzatuak eskuratzeko erraztasunean, eta baita iraungipen aldietan ere, bere ikerketetako txakurretan. Geroago, Eysenck-ek (1959), erlazio bat ezarri zuen nortasunaren dimentsio garrantzitsuenetako baten (kanporakoitasun-barnerakoitasun) eta erantzun kondizionatuaren artean. Pertsona barnerakoiak baldintzatzen errazagoak zirela eta erantzunaren iraungipenerako zailtasun gehiago zutela ikusi zuen; pertsona kanporakoiek, aldiz, entseiu gehiago behar zizutzen erantzun kondizionatua lortzeko, eta behin erantzuna lortuta, errazagoa zen hura iraungitzea. Ondorio hauek balio izan zioten Eysenck-i (1964), bere nortasunaren teoria, delinkuentziaren eremura aplikatua, formulatzeko. Eysenck-entzat, harreman bat ezarri daiteke jokaera antisozialaren eta kanporakoitasun edo neurotizismo maila handiagoen artean. Lehen aldagaiak, gizarte testuinguruko jokaera moldakor eta sozialki itxarondakoetan ager daitezkeen erantzun baldintzatuak zaildu egiten ditu. Bigarren aldagaiak, emozioen deskontrolerako efektu bat edukiko luke, eta, beraz, erantzun kondizionatu egonkorren, gizarteak sustatuen, finkamendua zailduko luke. Teoria honek ez litzuke ekintza gaizkile guztiak esplikatuko, baina haietako portzentai handi bat ulertzeko oinarria sortuko luke.

Azterketa interesgarriak dira, betazalaren kondizionamenduaz Franks-ek egindakoak ere. Hogei subjektunako hiru talde erabili zituen: distimi-

koak, histerikoak eta normalak. Diagnostiko irizpideak, psikiatrikoak izan ziren: distimikoak, depresioaz eta larritasunez bereizten ziren, eta histerikoak, konbertsio sintomez eta bereizgarri psikopatikoz. Lehenak izan ziren erantzun kondizionatu gehiena eman zutenak, eta bigarrenak, gutxiena emandakoak.

Arrazoi faktiko batzuegatik, test objektibo hauek erlazio gehiago dute ikerketarekin, beste diagnostiko tresnek baino. Adibidez, laborategi situazioan, kontuan eduki beharreko aldagai kopurua gutxitu egiten da; honek, zailtasun handiagoa sortzen du, nortasunaren diagnostiko globalerako; baina, fidagarritasun eta balidezia gehiago sortzen du, eta ikerketa prozesuekin erlazionatuagoak gelditzen dira. Edonola ere, emaitzak situazio estandarizatu oso konkretuan lortzen diren heinean, zaila da haiek ingurune naturalera generalizatzea; beraz, kanpo balidezia txikia dute, eta gutxitu egiten dira balidezia indizeak, batez ere balidezia auresalearena. Konstruktua balidezia ere ukitua gelditzen da, zaila baita aldagai batzuk, forma individualizatuan aztertu diren beste batzuekin erlazionatzea.

Hurbilketa honen teorikoentzat, tematika mota hau beste analisi dimentsio bati dagokiona da. Benetan kezkatzen dituen, jokaera espezifikoen eta situazio espezifikoen bereizgarrien arteko erlazioa dela azpimarratzen dute, eta horrek, «Jokaeraren diagnostikoa» deituriko beste maila bat konfiguratzeko duela.

Jokaeraren diagnostikoa, konduktisten eragina duena, edo «jokaeraren analisi funtzionala», hiru aspekturi buruzko informazioa biltzeaz arduratzen da: a) Jokaera espezifikoa diren jokaera-objektuak; b) Jokaera horien ingurugiroko dispartzaile eta errefortzazailak; c) Jokaeraren aldaketa ekoiztu ahal izateko ingurugiroko faktore espezifikoko manipulagarrien identifikazioa (adibidez, haurren haserrean: a) negarrak, b) aitaren arreta, c) arreta eta errefortzu alternatiboaren erretiratzea). Prozedura honi «ABC diagnostikoa» ere dei egin zaio, kontutan hartzen baititu, aurretiko baldintzak (A), jokaera (B) (behavior) eta jokaeraren ondorenak (C). Diagnostiko mota honetan ez dira interesatzen eraikuntza teorikoak; situazio eta jokaera konkretuetan zentratzen da. Jokaeraren diagnostikoan kezkarik ez dute sortzen, situazio desberdinetan gertatzen diren jokaera aldaketek; suposatuzat ematen da, situazioko aldagaiek determinatzen dutela jokaera, eta beraz, situazio bakoitzean espezifikoa dela. Balidezia auresalearen problema soluzionatzeko, auresatea situazio jakin batetan bakarrik dela posible esaten dute, hots, auresan nahi duten situazioarekin alderagarria den situazioan. Zentzun honetan, balidezia auresalearen arazoa erabakitaz jotzen dute, forma operatibo eta zuzenean definiturikoaz bakarrik arduratuz. Era berean, eraikuntz balideziaren arazoa berez lurruntzen da, situazio konkretuetako jokaera behagarriez arduratzen baita jokaeraren diagnostikoa, eta ez behakitzak diren eraikuntzez. Zentzun honetan, jokaeraren ustezko konsistentzia gabeziak ez ditu kezkatzen, agertzen deneko situazioaren bereizgarrietatik dependitzen baitu zuzenki jokaerak. Si-

tuazioen arteko estimulu kidetasuna zenbat eta handiagoa izan, jokaeraren konsistentzia eta, beraz, jokaeraren auresatea, are ta handiagoa izango da.

Jokaeraren diagnostikoaren ikuspegiak gizabanakoen jokaera espezifikoak aztertzen ditu: jokaera, inguruneko indarren eerraginaren emaitza bezala ikertzen dute. Nortasunaren psikebarneko dimentsioei buruzko presuposaturik ez dute onartzen, inguruneko aldagaiek determinaturiko erantzun espezifikoaren antolamendu bezala hartzen baita nortasuna. Aitzitik, neur tresna bezala, behaketa zuzenaz gain, autotxosten eta autobehaketa eskalak onartzen dituzte, diagnostikorako garrantzitsuak izan daitezkeen situazioko elementu espezifikoaren bilaketan.

Ikuspegi kritikotik, berriro postula daiteke, barne prozesuak hor daudela eta erlazio zuzenik ezin dela ezarri ingurugiroaren eta subjektuaren jokaeraren artean; kanpotik datorren informazioa aktiboki prozesatzen du honek, eta bere erantzunak ez daude estimuluei zuzenki erlazionaturik. Subjektuaren igurikapenen, bitarteko prozesuen, informazioa prozesatzeko gaitasunaren, adimenaren eta nerbio sistemaren erreaktibitatearen araber, inguru bera modu desberdinetara hautematen da, eta koantitatiboki nahiz koalitatiboki desberdinak diren erantzunak probokatzen ditu.

2.2.5. Auresate klinikoa auresate aktuarialaren aurrez aurre

Diagnosiako tresnek, elementu zientifiko bezala, jokaeraren deskribapena, esplikazioa, eta bereziki jokaeraren auresatea bilatzen dituzte. Nortasunaren eredu teoriko bakoitzak, hori lortu nahi du, bide derberdinetatik, bere presupostuen araber. Diagnostiko mailan egituratu-egituratu gabe dimentsiotik deskribatu dugunak, badu zerikusia jokaeraren aurrikuspen eta azalpen mailan dimensio aktuarial-kliniko bezala agertzen dugunarekin.

Auzi honek urruneko sustraiak ditu, baina gaur oraindik jarrera eta hurbilketa asko zalantzan jartzen ditu. «Kliniko» eta «aktuarial» terminoek, diagnostikoan erabil daitezkeen estrategia sail bat denotatzen dute. Diagnostikatzailak bi joera hauetakoren baten aldeko apostua egin behar du, modu eksklusiboan ez bada ere, eta horrek determinatuko du, ez diagnostikoa bakarrik, baizik baita jokaeraren aldaketarako estrategiak ere.

«Kliniko» hitza ez da hemen erabiltzen edukin psikopatologikoen edo «psikologia klinikoren» zentzuan, ondoko bereizgarriok biltzen dituen hurbilketa modu bezala baizik: nahiago dira tresna gutxi egituratuak, bereziki entrebista, «begi klinikoa» eta «interpretazio elaborazioak» bereziki azpimarratzen dituen entrebista; intuizioa elementu klabea da, eta testuinguru pertsonal eta intimoa sustatzea ere bai. Informazioaren elaborazioa modu librean egiten da, adituaren esperientzi eta intuizioak gidatuta. Klinikoren trebetasuna faktore erabakiorra da.

«Aktuarial» hitza, objektibotasun, fidagarritasun eta balidezia frogatua duten tresnei egokitzen zaie. Beraz, koantifikazioa eta babes enpirikoa garrantzitsuak ditu. Diagnostiko metodoek, beren zati guztietan, egituratuak izateko joera izango dute. Aktuarial hitzaren sinonimo bezala erabiltzen dira, «estatistikoa eta/edo psikometrikoa» hitzak ere.

Hurbilketa biak, auresatera zuzenduriko estrategiak dira, hau da, informazio jakin batetik abiatuz, irizpide batzuk ahal den hobekien auresatera. Baina, haietako bakoitzak informazioa biltzeko modu desberdina dauka, eta batez ere, diagnostiko bat emateko informazioa sintetizatzekeo modu desberdin bat.

Ikuspegi klinikoan, aztertzaileak berak jasotzen, egituratzen, interpretatzen du informazioa, eta berak formulatzen du diagnostikoa. Gehien erabilia izan dena da, eta bere sustraiak «eredu medikuan» oinarritzen dira. Hurbilketa honetatik eratoritzen diren arazo metodologikoak, klinikoaren esperientziaren eta trebetasunaren arabera zehaztapen aldakor bati eta fidagarritasun baxu bati dagozkionak dira nagusiki.

Ikuspegi klinikoak, datu kopuru handi bat modu malguan integratu eta sistematizatzea errazten duela esan izan da. Baina, informazio gehiegizkoak, edo informazio askok, ez du nahitanahiez zehaztasuna eta fidagarritasuna gehitzen. Egin diren behaketen arabera, *informazio muga* batetara eta diagnostikatzaile-subjektu elkarreraginen muga batetara helduz gero, judizio kinikoa saturatu egiten da eta *auresatearen kalitatea* jaisten hasten da. U inbertituaren tipoko kurba bat sortzen da beraz bi aldagaien artean. Diagnostikatzaile klinikoen beste gain arazo, nagusiki kontrastazio enpiriko zaileko eraikuntza behakaitzak dituzten teoriak erabiltzean datza.

Ikuspegi aktuarialaren formulazioa askoz modernoagoa da. Test psikologikoetatiko edo beste iturrietatiko datu espezifikoen, eta pertsona ebaluatuaren beste bereizgarri sozial, kliniko edo teorikoki esanguratsuen artean gerta daitezkeen erregularitasunen determinazio enpirikoa bezala definitzen da auresate aktuariala. Probabilitate maila bat determinatuko duen erlazio koantitatibo baten finkamendua lortzea da helburua. Zentzun honetan, hurbilketa aktuarialak, formulak, taulak eta baremoak darabiltza, datu batzuetatik abiatuz, gertakizun batzuek duten inzidentzia haiekin alderatzeko. Hauetako batzuk irizpide bezala kontsidera litezke, eta besteak auresale bezala, eta, adibidez, auresate berdintzaren baten bidez erlazio-natu (erregresio analisia, kontingentzia taulak etab.). Garrantzitsua da irizpideen eta auresaleen definizio operatibo egokietara heltzea, horrek fidagarritasun eta balidezian eragina edukiko baitu, eta gure berdintzaren gaitasun auresalean ere bai.

Meehl-ek 1954an hurbilketa kliniko eta estatistikoaren auresate gaitasuna, eta gerora bere berrikuspenak zabaldu egin zituen, irizpide dibertsitate handia ezarriz: eskolako arrakasta, lantokiko asebetetze maila, psikoterapiako berreskurapena etab. Aztertu zituen 98 ikerlanetatik, batean bakarrik aurkeztu zen goi mailako eredu klinikoa, 36 ikerlanetan balioki-

dea izan zen emaitza, eta 61etan aktuarialaren alderako joera agertzen zen (guztira, 62,2 %).

Kliniko batzuek argudiatu dutenez, metodo aktuariala «hotzean» hobe den arren, kasu zail eta berri batzuetan, koantifikatzen zailak direlako, hurbilketa malguago eta ulerkorrago bat behar da; edozein modutara ere, bereizi egin behar da, aurrerate kliniko tolesgabeen eta aurrerate kliniko sofistikatuen artean, hauetan ere kontrastaketa irizpideak agertzen baitira; eta batez ere, bereizi egin behar dira informazio bilketarako moduak eta informazioa konbinatu edo sintetizatzekeko moduak.

Ildo honetatik, artikula liteke «intuizio kliniko» (inork ez baitu honen garrantzia ukatzen), hipotesi kontrastagarriak formulatzeko gai litzatekeen formulazio objektibo eta operazional batekin; eta guzti hori, aurrerate diagnostiko hobe baten alde joango litzateke. Diagnostiko teknikak aztertzaile klinikoaren trebetasunetik bakarrik dependitzen badu, bere erabilgarritasuna oso mugatua izango da, ebaluatzailearen bereizgarri indibidualen pentzuan baitago; horregatik, kontsiderazio pertsonala garrantzitsua izan badaiteke ere, koantifikatzen zailak diren inpresioak jasotzen dituelako askotan, prozesu zientifikoak objektibatzea eta koantifikazioa eskatzen ditu.

2.3. NORTASUNAREN IKERKETAREN ASPEKTU TEORIKOAK

Ezagutza zientifiko guztien garapena, ikerketaren bidez finkatzen da. Ikerketa, zientziaren oinarria da. Ikerketa prozesuaren bidez, materia bakoitzaren eta ezagutzaren arlo bakoitzaren aztergai diren gertakariak deskribatzea, azaltzea eta aurrerata lortzen da. Horretarako, zientziak metodologia batetan apoiatu behar du; metodologia hori ikerketa objektu konkretuaren funtzioan dibertsifika liteke, baina gertakari natural guztien ikerketari epistemologikoki amankomuna zaio: metodo esperimental edo metodo «induktibo-hipotetiko-deduktiboa». Metodologia honen funtsa, teoretatik eratorritako hipotesien kontrastaketa objektiboa da.

Psikologiaren aztergaia, organismoen jokaera behagarria eta behakaitza da; metodo esperimental, laborategiko ikerketekin hasten da, aldagaien kontrol eta manipulazio maximoarekin; ondoren, ikerketa diferentzial eta korrelazionalak datoz; eta, azkenik, ikerketa naturalak: hauetan gertakariak ez dira ia kontrolatzen, ikertzailearen lana behaketara eta datuen bilketara mugatzen baita.

Datu bilketak eta pilaketak ez du ezertarako balio, ez bagara gai haiek integratzeko, antolatzeke eta esparru teoriko baten barruan haiei zentzuna emateko. Aurkikuntza empirikoaren dibertsitatea elkartzeke balio duten suposatuetak eta kontzeptuetak ematen ditu teoria batek, eta aldagaien artean aurkez daitezkeen erlazio posibleak seinalatzen ditu. Zentzun honetan, ikerketaren garapen zientifikorako noraezkeko osagaia da teoria, eta zein gertakari azter-

tu behar diren eta nola tratatu behar diren erabakitzerakoan eragina badu. Ezagutz zientifiko guztien beste oinarria osagai enpirikoa da. Aspaktu teoriakoak seinalatzen dizkigun datuak behin bildu eta gero, prozesu zientifikoari sorrera emango dioten hipotesi kontrastagarriak eraikitzen dira.

Teoriaren funtzioaz zalantzarik ez badago ere, psikologiaren egungo garapenak ez du oraindik ekarri ikerlari guztiek onarturiko eredu teoriko bakar baten onespenez; aitzitik, sarritan uztarrezinak eta elkarren aurkakak diren teoria anitz sortu ditu. Eztabaidaren abiapuntua bera, gizakiaz eta haren jokaeraz autore desberdinek dituzten ikuskera desberdinetan zentratzen da. Autore batzuentzat noraezekoa da teoriak datuak laguntzea edo inspiratzea; besteentzat, garapen zientifikorako eragozpen bat besterik ez da teoria. Azken hauen artean, Skinner-en ideiak nabarmentzen dira: autore honentzat, teoria, alferrikakoa izateaz gain, kaltegarria ere bada. Berak dioenez, aurkikuntzak sarritan kasualitatez gertatzen dira (Serendipity efektua), eta datuek beren kabuz hitzegin dezakete. Autore honek merezi duen begirune guztiarekin ere, bere postura zaila da sostengatzen: datuak ez dira gertakari soilak, gizakiak sorturiko tresna batzuen bidez lortzen dira, eta, beraz, haien bereizgarriez igurtziak daude. Iradoki denez, «inkontzienteki» bada ere, Skinner-ek ere eredu teoriko bat darabil, eta organismoaren jokaera kanpo inguruneke kontingentzietatik bakarrik dependituz kontsideratzen dute haren oinarriko presupostuek; horregatik, bere ingurunearen biktima den elementu pasibo bat izanen litzateke subjektua. Gainera, nahiz eta baieztatzen duen datuen bilketa hutsak errealitatea agertuko duela, datuak aurretiko ideia batetik abiatuz eraikitzen dira; hark finkatzen du zein datu bildu eta zein ez, nola ordenatzen eta egituratzen diren etab. Zenbakizko aplikazio koantitatibo bera ere, gertakarien arteko harreman posibleak ulertzeko modu batez igurtzia dago.

Teoriaren premia asumitzea beharrezkoa da, nahiz eta teoriak eraikitzeke modu batzuek errealitatea izkutatu eta mozorrotzen duten; behaketak zuzendu eta orientatzeko noraezekotzat jotzen da esparru teorikoa. Ikuspegi honetatik, teorilari desberdinak bereizten dituen, erabiltzen ari diren teoriari buruz duten kontzientzia maila da. Errealitate horren ezezagutzak ez du sustatzen ikerketa lana; elementu teorikoaren ezagutzak erraztu egiten du teorian inplikaturiko suposatutako frogan jartzeko beharrezko ahalegina egitea. Zentzun honetan, teoria guztiek ez dute balio zientifiko berbera edukiko; balio zientifikoak, bildutako datuetatik abiatuz hipotesi kontrastagarriak egituratzeko teoriak duten gaitasunetik eta erraztasunetik dependitzen du. Norabide honetan, nortasunaren teoriak, ikerketa zientifikorako erabilgarriak izateko bete behar dituzten hiru irizpideak proposatu dira (Hall eta Lindzey, 1957):

1. Globaltasuna edo hedadura.
2. Parsimonia.
3. Ikerketarako garrantzia/baliagarritasuna.

Lehenengo irizpidearen arabera, datu kopuru handi bat integratzeko gaitasuna eduki behar du teoria batek. Ez du horrek esan nahi teoriak dena azaldu behar duenik, baizik giza jokaeraren zati handi bati koherentzia emateko gai izan behar duela. Zentzun honetan, batetik, gizaki osoa bildu nahiko luketen teoriak garatu dira, eta, bestetik, aspektu edo bereizgarri gutxi batzuetan, baina giza jokaera ulertzeko garrantzitsuak diren zentratzen diren teoriak.

Bigarren irizpidearen arabera, teoriak, iker eremua konplexuagotu eta ilundu baino areago, sinpletu egin behar du. Horregatik, aztertzen dituen gertakari garrantzitsuen abstrakzio eta antolamendu maila bat eduki behar du.

Hirugarren irizpideak, teoria baten baliagarritasunari egiten dio erreferentzi. Teoria bat baliagarri izan dadin, lehenik, hipotesi kontrastagarriak sortzeko gai izan behar du. Bigarrenik, Hall eta Lindzey-k «itzulpen empirikoa» deitzen dutena eduki behar du: erreferentzia empirikoa eduki behar du, eta koantifikatzeko (datu eta aldagai bihurtzeko) nahiz inplikaturiko kontzeptuak maneiatzeko gai izan behar du, zientziaren hiru oinarrizko helburuak betetzea lortzeko: deskribatu, azaldu eta auresan. Hemendik eratorzen da, hirugarrenik, teoria onek ez daukatela betikoak izan beharrik, baizik faltsutzea ahalbidetu behar dutela, teoria integratzaile berrien, espektro zabalagokoen sorrera bultzatzeko.

Hiru irizpide hauek iradokitzen digutenez, teoria zenbait elkarrekin bizi litezke, haietako baten aldeko aukerarik egin beharrik gabe, besteen kaltetan. Teoria osorik ez dago; batzuk besteak baino gehiago zentratzen dira edukin batzuetan. Ikerketa prozesuak, ezarian ezarian, teoria horiek «makroteoria» batetan biltzea izanen litzateke ideiala. Baina, bidea ez da erraza, faktore anitzetatik dependitzen baitu, hala nola, biltzen dituzten gertakarietaz, eta erabiltzen dituzten teknika metodologiko konkretuetaz jabetzeko zailtasun handiago edo txikiagotik. Bi bereizgarri hauek egiten dute, askotan gertakari berberak ez ikertzea eta elkarrekin ez erlazionatzea, maila desberdinetan mugitzen baitira. Baina, printzipioz ez da ezein teori gutxietsi behar, ordurarte gutxi aztertutakoak edo ezezagunak ziren arloak ireki baititzake, geroago oso interesgarriak izan litezkeenak. Adibidez, gertakari parapsikologikoen azterketa, horretaz egun nahasketa handia badago ere.

Edozein modutara, argudiatu dena zera izan da: psikologiak ez badu oraindik guztiek onarturiko teoria nahiko konsistente eta onarturik, zientzia bezala oraindik beharrezko heldutasun eta garapenik lortu ez duelako dela. Kuhn-ek (1970), bere «Iraultza zientifikoen egitura» liburuan agertzen dituen aurrerapen zientifikoaren eta aldaketa paradigmaticoaren hiru etapak aplikatu dakizkioke:

1. Jaiotza.
2. Zientzia amankomuna.
3. Iraultza zientifikoa.

Lehen etapak, elkarrekin lehiatzen diren eskola eta ikuskera anitzen sorrera agertzen du. Denek zientifikotzat dute beren burua, eta, aldaki bazuk gorabehera, metodo zientifikoak aplikatzen dituztela diote; baina, inguruko gertakariak eta errealitatea ikusteko moduagatik bereizten dira. Datuen eta sinesteen gorputz amankomuna erditzen ari da etapa honetan, baina, bakoitzari interesatzen zaizkion gertakari eta egitateak selekzionatzeko prozesuan urruntze teorikoak ere gertatzen dira. Kuhn-en hitzetan, zientziak ez du etapa honetan oraindik behaketa eremua eta ikerketa metodologia definituko duen paradigma edo eredu amankomunik, osagai ideologiko eta filosofikoak baitira eginkizun garrantzitsuena betetzen dutenak.

Bigarren etapan, eredu amankomun baten onarpen bat badago; joera desberdinak elkartu edo haietako bat inposatzen da, paradigma bat ahobatez onartzen da, aurrerapen zientifiko garbietan oinarrituta. Aukeraturako paradigmak definituko ditu problema mota, ikerketa eremua eta aplikatu beharreko ikerketa metodoak. Guztiek onarturiko eskola bakar bat dago, eta zientzilarien lana, onartutako eredia artikulatzea eta garatzea izanen da.

Onarturiko ereduaren barnean egokitzen ez diren gertakari eta behaketak gertatzen diren heinean, krisi eta eredu berrien bilaketa prozesua hasten da; eta informazio berria integratuko duen eredia mamitzen bada, paradigma aldaketa gertatzen da; hau ez da bizkorki onartzen, eredu berriaren onarpenari jazartzen zaizkion eredu zaharren kontra borrokatu beharra baitago. Zentzun honetan, etapa hau lehenengoaren antzekoa da, nahasketa egoera bat baitago, eta erreferentziako teoriak balioztatzen zuzenduriko ikerketa kopuru handi bat; bigarren etapan agertuko dira eza-gutzaren pilaketara zuzenduriko ikerketak.

Psikologian, eta bereziki nortasunaren arloan, ez da finkatu eredu bakarririk; zientzilariak eskola eta teoria desberdinetan banatzen dira, premisa eta helburu desberdinekin. Teoriak sortzeko moduaren azpian, oraindik ere, gizakia kontzebitzeko ideologia desberdin bat dago: edo barne faktoreak hartzen dira jokaeraren determinatzailetzat, edo kanpo faktoreak. Kuhn-ek iradoki zuenez, gizarte zientziak oraindik garapenaren etapa goiztar batetan aurkitzen dira, natur zientziak bigarren etapara iragan diren, eta iraultzaren bat ere jasan duten bitartean. Hala ere, guztiarekin, nortasunaren datuen edo teoria desberdinen teoria integratzaile bat lortzen joateko premia, ezagutza zientifiko egonkor baten konfiguraziorako aurreurrats bat dela dirudi.

Agertu dugunaren norabide berean, nortasunaren teoriaren autoreen babilio eta nortasunaren bereizgarri jakin batzuek heuren nortasunaren teoriatan, helburuetan eta ikerketa metodoetan eskuhartzen dutela argudiatu da. Hau da, teoriak objektiboak izan behar badute ere, bizitza eta gizakiak ikusteko modu konkretuak eta subjektiboak dituzten subjektuek eratzten dituzte. Nortasunaren teoriak, beren nortasun propioaren bereizgarri desberdinak agertzen ari direla esateraino ere iritsi dira. Egiaz hauteman dena

zera izan da: autore batzuek besteek baino garrantzi gehiago ematen diete-la aspektu batzuei. Horrek, teorilariak bi talde handitan sailkatzea ekarri du, matizazio batzuekin:

1. Humanistak.
2. Zientzilariak.

Lehen taldeak bereizgarri pertsonalak, indibidualitatea edo borondate askea sustatzen ditu eta, orokorrean, teoria fenomenologiko deituak biltzen ditu. Bere helburua, organismoak esperimentatzen duen bezala munda «ulertzeko» da, zientzilariak definitzen duena bezala baino gehiago. Bigarren taldeak, gizakien kidesunean jartzen ditu begiak nagusiki, eta metodologia esperimentalean oinarrituriko hurbilketa pragmatikoago eta enpirikoago bat egiten du. Determinismoa azpimarratzen du eta diagnostikorako metodo objektibagarri eta estandarizatuak erabiltzen ditu. Hurbilketa honen arabera, orokorrean, hipotesi iturri bezala bakarrik da baliagarria gizabanakoaren azterketa fenomenologikoa; ikuspegi hori berez ez da zientifikoa. Zientzilariaren helburua, objektibitatea, fidagarritasuna, estandarizazioa eta balidezia da; ezagutza intuitiboa ez, kontrastaketa enpirikoa baizik.

Lehenengo artean, korrante existentzialistak, humanistak eta fenomenologikoak daude. Bigarrenengo artean, batez ere, esperimentalistak eta konduktistak kokatzen dira. Haiek introspektzioa darabilte; besteok aldagai behagarrietatik abiatuz, metodo konduktualak erabiltzea nahiago dute; hauen azken helburua ez da ulerkuntza, jokaeraren aurreraketa eta kontrola baizik.

Nortasunaren psikologiaren eremuan, bi joera hauek «idiografiko-nomotetiko» eztabaida piztu dute. Lehenaren arabera, pertsona esentziaz bakarra eta alderaezina da, eta modu honetara aztertu behar da, bere aberastasun guztia atzemateko. Hurbilketa honen ordezkarietako bat Allport da. Bestalde, jarrera nomotetikoaren arabera, guztiok bakarrak gara, baina pertsona bakar bezala ez gara azterketa zientifikoaren objektu, baizik artearen eta historia deskribatzailearen objektu. Zientzilariaren egitekoa, pertsona guztiei amankomunak zaizkien lege orokorrak aurkitzea da. Hurbilketa honen ordezkarietako bat Eysenck da.

Eztabaida honek hiru osagai inplikatzeko ditu:

1. Gertakariak.
2. Metodoak.
3. Lege motak.

Lehen puntuari dagokionez, subjektu indibidualen ezagugarri eta berezitasun bakarrak ezagutzeko interesa sustatzen du hurbilketa idiografikoak; kualitaterekin batentzat nabarmendu diren pertsonai garrantzitsu eta ospetsuak interesatzen zaizkie bereziki: pintoreak, politikoak etab. Zentzun honetan, koantifikazio objektiboa zaildu egiten da, eta ulerkuntza

subjektiboa nahiago izaten da. Hurbilketa nomotetikoa, subjektu guztiei amankomunak zaizkien eta maila desberdinetan edukitzen dituzten berezitasunengatik interesatzen da. Hurbilketa idiografikoaren metodologia kasu indibidualei bakarrik aplikatu dakieke: autobiografiak, entrebista egituratugabeak etab.; intuizioak eta enpatia, ikerketaren tresna baliagarriak dira. Metodologia nomotetikoak neurrien koantifikazio eta objektibaketa azpimarratzen ditu, subjektu batzuek besteekin alderatzeko. Azkenik, lehen metodoaren bidez lorturiko legeak gizabanako konkretuari bakarrik aplikatu dakizkioke; bigarren metodoaren bidez, berriz, subjektu batzuk besteekin eta beren erreferentzi taldeekin alderatzen dira.

Bi hurbilketak ez dira uztarrezinak. Alde batetik, denok bakarrik eta errepikaezinak gara, baina giza espeziearen barnean bereizgarri berberak ditugu, nahiz eta maila desberdinean. Horrela, gizabanako bakoitzari bereizgarri mota guztien perfil bat egotz dakioke, beste gizabanakoenengandik desberdina dena. Gizabanakoen desberdintasuna koantitatiboa litzateke, eta ez koalitiboa. Guztiok aldagai eta bereizgarri berberak ditugu, baina maila desberdinean, eta konbinazio osoak, subjektu bakoitzarentzat perfil bakar bat konfiguratu du.

Hainbeste teoria desberdin egoteak, nortasunaren gaiari heltzeko modua egile batzuegandik besteengana hainbeste aldatzeak, nortasunaren teoria eragin batzuen pean dagoela adierazten du. Eragina duten faktore horien artean, faktore pertsonalak, «Zeitgeist»-a edo garaiko espiritua, faktore filosofikoak, kultur faktoreak, faktore nazionalak etab. aipatu behar dira. Gertakari batzuek aztertzeko eta besteak alde batera uzteko garaian, norbere bizipenei garrantzi handia ematen zaie, objektibitatearen kaltetan. Lurralde eta denbora batetan bizitzeak, koordenada horietatik aldentu ezina ekartzen digu.

Modek ere eragina dute zientzian. Psikologiaren historian garai bat izan zen, organismoaren bultaden eta premien ikerketak nagusioa zueneko; ondoren, ambientalismoa nagusitu zen, eta gaur egun kognitibismoarekin harremana duen guztia sustatzen da.

Hain zuzen ere, kognitibismoak eman ditu hurbilketen eta presuposuetuen dibertsitate hau ulertzeko beharrezko erreferentziak. Esan daiteke, teoriaren oinarrian behaketa enpirikotik datozen datuak aurkitzen direla, baina behaketa hori behatzaile aktibo batek egiten du, eta horrek bere bereizgarriez igurtzitzen ditu informazio biletarako tresnak, eta informazioa bera. Joera hau are nabarmenagoa da psikologiaren kasuan, behatzailea eta behatua gizakiak baitira. Kelly-ren «Eraikuntza pertsonalen teoriarekin» ikusiko dugunez, besteen jokaera kategorizatzen/ebaluatzeko eta esplikatzeko erabiltzen ditugun elementuak, beharbada garrantzitsuagoak izango dira haiek aplikatzen dituen subjektuarentzat, aplikatzen zaizkion subjektu/objektuarentzat baino. Beste modu batetara esanda, behatzailearen jarrera kognitibo-interpretatzaileek igurtzi egiten dute behatua. Hampson-en (1982) ikerketek erakusten dutenez, «beste pertsonari

buruzko inpresioen eraketa», familiartasunaren gehikuntza eta behatzai-le-behatu arteko ezagutza bezalako aspektuek modulatzten dute. Hasieran, norberarengandik eta gizartetik jasotako estereotipoetatik eratorritako etiketa eta ideia aurre-kontzebituak erabili ohi dira ezagutzan; ondoren, behatutakotik eratorritako sailkapen kategoriak ezartzen ditu ezagutzak. Zentzun honetan frogatu ahal izan da, nortasunaren egituraren deskribapenerako darabiltzagun datuek, erabilitako terminoen arteko harreman semantikoak isladatzen dituztela nagusiki. Horrek, aurretiko elementuek, kasu honetan hizkuntzak, kategorizatzen denaren aurrez aurre duten eragina agertzen du.

Iradoki denez, interpretazio prozesu hau, perzeptioa eta ezagutza sesgatzen duten aurredisposizio kognitiboen mekanismo sail batek arartekotua dago:

1. Interpretazio kontzienteak inkontzienteen aurrez aurre.
2. Mekanismo indibidualak kolektiboen aurrez aurre.

Beste mekanismoak ere badira, baina hauek dira bi garrantzitsuenak. Lehenaren arabera, sarritan manipulazio interpretatiboak gure kontzientziari ihes dagoite. Gizakiaren aspektu arrazionala ez da uste izaten den bezain erabilia. Bigarren puntuari dagokionez, errealitatea konfiguratzeko darabiltzagun eskemen zati handi bat gure kultur eta gizarte inguruneke bereizgarriek modulatu da; mugitzen garen testuinguruan, jokaeraren eta afektibitatearen patroiak badira, eta inguru horretako kide bakoitzari erreferentziko interpretazio eremu bat eskaintzen dio.

Guzti honek soslai perzeptiboen garapena sustatzen du, adibidez, nortasunaren eta jokaeraren konsistentziari buruzko soslai perzeptiboen garapena. Norbaiten irudia behin eratuta gero, gure ikuskera finkatuko duten datuak biltzera jotzen dugu, eta irudi horrekin ados ez datozen beste batzuk ez ikustera. Guzti hau indartua gertatzen da, pertsona konkretuak funtzio eta situazio konkretuetan behatzen ditugulako, hau da, pertsona bat tipifikatzeko egokiak jotzen ditugun situazio eta rolen gaman aurrez mugak ezartzen ditugulako.

2.4. IKERKETA PROZESUA: ALDERDI ENPIRIKOA

Nortasunaren psikologia disziplina zientifiko bat da, horregatik, ekar dezakeen edozein ezagutzak aurretiko ikerlanetan oinarritua egon behar du. Hauek bi elementutan oinarritzen dira: alde batetik, teoria; bestetik, datuak. Zientifikoki baliagarriak diren teoriak, enpirikoki kontrastagarriak diren hipotesiak planteiatzeko gai dira. Hau da metodo esperimentalaren funtsa. Hipotesi batetan, bi aldagai edo gehiagoren arteko erlazio posiblea planteiatzen da. Hipotesi bat kontrastagarria izan dadin, beharrezko da bere osagaiak, hau da, aldagai inplikatuak aurrez operazionalizatuak iza-

tea. Nortasunaren azterketetan erabil daitezke diagnosi teknikak helburu honekin: datuen operazionalizazioa eta bilketa.

Metodologi eta teknika egokiak ditugulako, egungo momentu historikoan ebazgarriak izan daitezkeen problemen enuntziatu anbiguo edo ez hain anbiguo batetatik abiatzen da ikerketa prozesua. Hurrengo urratsean, osagai eta aldagai inplikatuak operazionalizatzea lortu behar da, horretarako noraezekoa delarik gertakarien koantifikaziora heltzea. Nortasunaren psikologiako aldagai garrantzitsuek bereizgarri sail bat dituzte, metodo zientifiko orokorra egokitzera eta partikularizatzerara daramatenak, nahiz eta une batean edo bestean ia ikerketa estrategi guztiak erabiltzen diren. Nortasunaren aldagaien ezagugarri nabarmenenetako bat, arartekoak izatearena da, hau da zuzenki behagarriak ez izatearena; hori dela ta, arlo honetan, kontrol eta manipulazio zailtasunarengatik, metodo diferentzialak eta korrelazionalak nagusitu dira, laborategiko metodo esperimentalen erabilera eta behaketa naturalaren metodoen erabilera oso mugatuak izanik. Nahiz eta metodologia baten edo bestearen aplikazioak irizpide ugariatatik dependitzen duen, hala nola, iker eremuaren garapen mailatik, ikerketaren fase konkretutik eta aldagaien izaeratik (aldagarriak ala ez).

Azken puntu honek kontsiderazio labur bat merezi du. Manipulazioaz hitzegiten da, hau modu zuzenean eta fisikoan gerta daitekeenean. Nabaria da, nortasunaren ezagugarriak aldatzekotan, epe luzera bakarrik alda daitezkeela, heldutasunaren edo garapenaren aldaketa makalak ekartzen dituzten terapia edo eboluzio prozesuen bidez. Ikerketa baten testuinguruan, nortasunaren aldagaien manipulazio posible bakarra, «balioen hautespena» bezala ezaguturiko estrategia da, hau da, testuinguru naturalean gertatzen diren gertakariak maila diferentzialak dituzte beren ezagugarrietan. Diseinu egoki bat duen ikerlariaren egitekoa izanen da, interesatzen zaizkion balioak biltzea eta haietatik abiatuz talde esperimentalak eratzea. Zentzun honetan, hautetsitako balio desberdinek aldagai independentearen mailak bezala funtzionatuko dute.

Garrantzi handia du hemen aldagai «modulatzaileaz» hitzegiteak. Psikologian ezaguna da, aldagaien artean harreman linealik nekez gertatzen denekoa; gertatzen direnak, nagusiki, harreman kurbilineoak edo atipikoak direla. Hemen, harremanen bidezko alderaketa zuzen/linealak efektu konpentsatzaile bat dauka, maila batzuek besteak konpentsatzen dituztela, eta azken emaitza nahastua eta lausoa agertzen da. Aldagai modulatzailerak, argitasun handiagoa ahalbidetzen du, aldagaien arteko harreman posibleen ezagutzan. Aldagai independenteen mailen bariantza maximizatzean datza, edo, errelebantzi teoriko edo enpirikoagatik, beste era batera nahasian agertuko litzatekeen «puntuen hodeian» argitasun gehiago eskaintzen duten balioak bakarrik aukeratzean.

Hasieran kontraesankorrak bezala agertzen diren emaitza batzuk argitzeko balio izan dute aldagai modulatzailerak. Adibidez, «estilo kognitiboak» intentsitate «motibazionaletik» independente bezala aurkezten zituen

Klein-en (1954) esperimentu batek agertzen duen bezala. Ikerlan horretan, egarriak perzepzioaren gain duen efektua azertu zen; egarria, gabezia egoera (motibazioa) bezala definitzen zen; bigarrena, estilo kognitibo batetik abiatuz.

Hasieran auresuposa genezake, subjektu egarritsuak aurredisposatuagoak daudela asetuak baino jokaera partikular sail bat agertzera, adibidez, edari eta fraskagarriak errepresentatzen dituzten iragarkietako sinboloak gainestimatzeraz, estimuluaren gain arreta fokatzera, hitz neutro batetik abiatuta egarriarekin loturiko hitzeko elkarketa kopuru handiagoa ekoiztera etab. Hala ere, askotan igurikapen hau ez zen enpirikoki betetzen, itxarondakoekin kontraesankorrak diren emaitzak aurkitzea sarritan gertzen zelarik, eta ondorioz, ondorio honetara heldu ziren: ez zela nahikoa subjektuak gabezia jartzea, norabide horretako emaitzak lortzeko.

Kontraesan hauek azaltzeko, «hertsialmalgu» kontrol kognitiboaren aldagaia sartzea proposatu zuen Klein-ek; interferentzia perzeptualak inhibitzeko gaitasuna neurtzen duen «Stroop-en testaren» bidez neurtzen da kontrol kognitibo hori. Test horretan, koloreen izenak kolore desberdin batetan inprimatuak aurkezten dira (adibidez, «gorria» kolore berdez inprimatzen da); hitzak, eskuarki, inprimatzeko erabili den koloreari begiratu gabe irakurtzen dira, baina test honetan, hautematen den kolorea izendatu behar da hain zuzen ere. Horrela, bada, subjektu «malguk» denora gutxi behar dute lanaren instrukzioetara ohitzeko, dela inpresio kolorea izendatzea denean lana, dela hitz idatzia irakurtzea denean; baina, lan berorretan subjektu «hertsiek» behar duten denbora esanguratsuki luzeagoa da.

Klein-ek egiaztatu zuenez, egarriaren intentsitateak (edaria gabeziaren intentsitateak), efektu minimoak zituen perzepzioaren gain, ikerketaren erakuskari sosoan, hau da, bai subjektu egarritsuek, bai subjektu egarri gabeek antzeko modura hautematen zuten estimuluaren tamainua; ez dirudi beraz harremanik dagoenik motibazioaren intentsitatearen eta estimulu errefreskagarrien hautematearen artean. Hala ere, subjektu egarritsuen artean «hertsiak» «malgukin» alderatzen baziren, diferentzia nabariak agertzen ziren aurkako zentzuan. Subjektu «malguk» estimulu errefreskagarrien tamainua gainestimatzen zuten, subjektu hertsiek azpiestimatzen zuten bitartean.

Begien finkamenduak aztertuz, subjektu malguk estimulua eta eremu periferikoa behatzen dutela egiaztatu zen, subjektu hertsiek estimuluan bakarrik zentratzen diren artean.

Joerak berberak, nahiz eta biguinagoak, agertu ziren egarri gabekoen taldeetan; moldaera kognitiboaren estiloa premiaren aurrean inposatzen eta agertzen da beraz.

Esperimentu honen bidez egiaztatu ahal izan zen, premia baten (egarriaren) efektua auresateko, garrantzitsuagoa zela subjektuaren kognizioa

ezaġutzea, premiaren indarra (gabezia maila) ezagutzea baino. Horrela egiaztatu ahal izan zen, perzepzioaren eremuan garrantzitsuagoa dela subjektua (hautemalea), kanpoko estimulua baino, eta subjektuaren barnean garrantzitsuagoa dela kognizioa motibazioa baino.

Ikusi ahal izan dugunez, kontrol kognitiboak aldagai «modulatzaile» bezala jokatzen du, perzepzioaren (tamainuaren estimazioa) eta motibazioaren (gabeziak sorturiko premiaren intentsitatea) arteko harremanean, orokor samarra dirudien eta premiaren aurrean agertzen den moldaeraren estilo egonkor bat bultzatzean.

Azkenik, ikerketa prozesuan, hipotesiak behin eraikita gero, kontrastaketa enpirikoa egiten da, froga estatistiko egokien, parametrikoko edo ez-parametrikoko eta abarren bidez, aldagaien izaeraren funtzioan. Emaitzak teoriarekin erlazioan interpretatzen dira, hipotesian egiaztatzen edo baztertzen diren neurrian. Hipotesiaren bazterketak ikerketaren bazterketa edo berrikuspina inplikatzeko du, adibidez, hutsegite metodologikoenagatik. Hipotesiaren onarpenak, ezagumodu probabilitistikoak, pilatzailea eta berrikusgarria asumitzea inplikatzeko du, eta beraz, ez da erabatekoa eta alda-kaitza.

Eta gai hau amaitzeko, subjektuen eta esperimendatzaileen jokaeran eragina duten gizarte faktore batzuei buruzko hausnarketa batzuk. Gizakia ez da animalia tolesgabe bat. Igurikapenek, sinesteek eta jarrerak aldatu egiten dituzte gizakiaren inguruarekiko elkarrekinak, eta baita ikerketa testuinguruan ere. Ezagugarri hauek, eta beste batzuek, ez dira kontutan hartzen ikertzaileak planteaturiko diseinu esperimendalean, bere kontzientziaren kontrolpean erortzen ez direlako.

Esperimentu psikologikoa gizarteko elkarrekin mota bat da eta halakoa denez, bere kideen arteko harremanak arartekotuak daude. Subjektuek modu aktiboan erantzuten diote dinamika esperimendalari, bere jokaera zuzena izan den ala ez galdetuz, adibidez. Inplikazio pertsonala ikerketa lana interferitzaeraino ere heltzen da. Sarrantan agertu izan denez, psikologian egin den ikerketaren zati handi bat, psikologiako ikasle unibertsitariekin egin da, eta ikerketa hauetan parte hartu duten subjektu ia denak bolondresak izan dira; gertaera honi buruz, erakuskari mota honen ezagugarri buruz lan interesgarri bat argitaratu zuen Bellek (1962): horien artean aipatzekoak dira, koefiziente intelektual handiagoari dagokiona eta kanporakoitasun maila handiagoari dagokiona. Testuinguru honetan gehien aztertutako efektuen artean, Orne eta Rosenthal-ek deskribatuak aurkitzen dira, lehenarena, subjektu esperimendalari buruzkoa, eta bigarrena, esperimendatzaileari berari buruzkoa. Azken autore honen arabera, ikerlaria bera, halanahigabeko hutsegite iturri izan daiteke, bere igurikapenen bidez subjektuei indikazioak bigunki iradoki baitiezazkieke, bere hipotesien norabidean. Eragin honek ikerketaren edukinak berak ere biltzen ditu. Eskuarki jakinmin ikertzaileari egozten bazaizkio ere, egon daitezke beste arrazoi sutilago batzuk,

hala nola, momentuko moda, teknika egokia edukitzea, edo erantzun jakin batzuk errazten dituen giro batean aurkitzea (testuinguru kulturala, soziala, akademikoa etab.).

Alborapen guzti hauek giza ikerketa guztietan aurki badaitezke ere, psikologiari, bere sustrai filosofikoengatik eta bere aztergai den materiale-arengatik, eginkizun erreflexiboago bat egokitu zaio alderdi honetaz.

3

Nortasunaren garapena: gorputz eskematik autokontzeptura

Carmelo Monederoren deskribapenari jarraituko gatzaizkio (Monedero, C., 1987) atal honetan.

Geure buruaz dugun perzepzioa, errepresentazioa eta kontzeptua aldatu egiten dira bizitzaren etapa batetik bestera. Helaroan, aldaketa hauek, gehienetan, ingurunearen eraginei zor zaizkie eta muga batzuen barnean mantentzen dira. Gaixo mental larriek bakarrik izaten dituzte beren buruarekiko harremanetan aldaketa nabarmenak. Beren buruak arrotz sentitzen dituzte, ordurarte hautematen edo kontzeptualizatzen ez zituzten bezala ikusten dituzte beren buruak. «Despersonalizazio» bat gertatu da.

3.1. GORPUTZ ESKEMA

Haurrak bere buruarekin duen esperientzia bezala definitzen da. Perzeptiboa, propiozeptiboa eta mugimenezkoa da esperientzia hori. Ez da estimulazioen eta mugimenezko erantzunen prozesu kontingenteen erresultatu, korporalitatearen konstituzio berak baldintzatua baizik. Nerbio sistema bera ere, gorputz egitura eta funtzio ezberdinen antolamendu hierarkizatua da.

Norbere gorputzaren perzepzioa da gorputz eskema. Perzepzio hori gorputzari eta bere nerbio sistemari estuki menpekoturik dago. Gorputz eskemak korporalitatean ditu bere sustraiak. Horregatik, guk geure buruaz dugun lehen ideia gure biologiak baldintzatua dago nagusiki.

Haurraren jokaera desberdinak integratzen dituen entitate bateratzaile bezala agertzen zaigu gorputz eskema. Jaioberriak, bere gorputzak hauteman dezakeena hautematen du. Posible lirateken mundu guztien artetik, bere gorputzak beretzat «a priori» eratua duen mundu honetara bakarrik ireki liteke.

Gorputz eskema emana da, baina ez du horrek esanahi ditiedale guztiek berdin hautematen dutenik beren burua. Naturak, salbuespenak salbuespen,

ez du genetikoki berdinak diren gizakirik egiten. Horregatik, norbere gorputza hautemateko moduan desberdintasunak daude, genetikatik hasita.

Bere barnean hautematen duena (interozeptibitatez eta propiozeptibitatez), ingurunean hautematen duenarekin integratu behar du haurrak. Espiluaren aurrean haurrak duen jarrera, bere gorputzaren identifikazioan ematen duen urrats bat bezala hartu izan da. Bizitzaren lehen hilabeteetan, haurrak ez du espiluko irudian bere burua errekonozitzen. Zortzi hilabete inguruan, bere harridura agertzen hasten da, espiluan hautematen duena bere burua dela konturatzen denean.

3.2. GORPUTZ IRUDIA

C. Monederoren arabera, bizitzako bigarren urtearen bigarren erdian, eboluziorako garrantzi handia duen aldaketa gertatzen da: errepresentazio mentalaren jaiotza. Orainarte ingurunearekin harreman zuzena eduki du: sentimenaren eta mugimenezko erantzunaren bidez bakarrik moldatzen zen ingurunera.

Bigarren urteko bigarren erdian, bizi izandako gertakarien errepresentazio edo irudi bat barnean gordetzen hasten da. Piaget: imitazio diferiturako gai izaten hasten da haurra. Imitazio diferituak zera erakusten digu: haurrak bere barnean gorde ahal izan duela ikusitakoa. Gordetzen duen hori, «irudi mentala» deitu ohi dugu. Irudi mentala: perzeptzioaren hondakinak; imitazio diferitua egiteko hondakin horietara jotzen du.

Piaget eta Inhelder-entzat, errepresentazioa eta irudi mentala, aurreko aroko sentimen-mugimenezko moldaeren barneratze prozesuaren ondorenak dira. Gaitasun errepresentatzailea, ez da hainbeste objektu errepresentatuarena, objektu hori aurrean egotean hartzen diren gorputz jarrerena baizik. Irudi mentala: objektu ezberdinen aurrean gorputzak dituen jokareen iraunkortasuna. Objektua aurrean ez dagoenean ere, aurrean dagoenean izaten diren jokaerak edo sentimen-mugimenezko pautak agertzen dira. Irudia ez da objektuaren argazki moduko bat, objektua aurrean egongo balizko zirkunstantziko gorputzaren perzeptzioa baizik.

Sartre-rentzat, ausente dagoen zerbait errepresentatzea, objektu hori present egongo balitz izango genituzkeen gorputz jarrerak hartzea da. Nire lagun Koldo errepresentatzen dudanean, hura present egongo balitz izango nituzkeen gorputz jarrerak hartzen ditut. Hori gertatzen da objektu sexualen errepresentazioan ere: nire gorputzak, dagokion exzitazioarekin, objektua present dagoelako ilusiora narama. Errepresentazioak, beraz, kanpoko mundua korporalitatean biltzen du.

Gorputz eskemaren gainean gertatzen da haren elaborazio subjektibo eta egozentrikoa den gorputz irudia. Haurrak gauzen errepresentazio subjektibo eta egozentrikoa duen bezalaxe, bere gorputzaren errepresentazio subjektibo eta egozentrikoa du. Bere korporalitate osoa errepresentatzeko,

beretzat esanahi edo balio handiagoa duten gorputzaren zatiak erabiltzen ditu. Bere gorputz eskemaren zati batzuk edo besteak hartuko ditu, haietaz egiten duen balorazioaren arabera. Balorazio hori, gorputz eskemaren eta ingurunetik jasotzen duen informazioaren arabera egingo da. Gorputz eskemaren zati batzuk potentziatu egingo ditu inguru sozialak. Besteak baztertu egingo ditu. Baztertuak gelditu direnek hor jarraituko dute, baina gorputz irudia antolatzerakoan ez dira kontutan hartuak izan.

Bere buruaz haurrak dagien errepresentazio subjektiboa baino harata-go doan haurraren errealtate bakarra, gorputz eskema da. Errepresentazioa jaiotzen denetik, gorputz eskemak existentzi inkonziente eta anonimoa darama. Errealtatean, lehengo existentzi bera darama; gertatzen dena zera da, gorputz irudia eratu denetik, norberaren ezagutza eboluzionatua-go edo erreflexiboago bat posible dela.

Haurrak hizkuntza kanpotik hartzen duen bezala, norbere irudiaren zati handi bat ere kanpotik hartuko du. Neska: rol femeninoaren jokaera sail bat kanpotik potentziatua. Subjektu batzuegan, bere gorputz eskemarekin ados ez datorren sexuaren gorputz irudia ikus dezakegu. Subjektu homosexualen kasuan, gorputz eskemaren eta gorputz irudiaren batera ez etortze bat dakusagu. Horrek garbi uzten du, zenbaterainoko distantzia ager daitekeen errealtatearen eta norbere irudiaren artean.

Beraz, gorputz irudiaren genesian, gorputz eskemaren bibentzia ezezik, kanpoko baldintzak ere kontutan hartu behar dira. Gorputz irudia neurri handi batean haurrari arrotz zaizkion faktoreek baldintzatzen dute: alienazio baten aurrean gaude beraz.

Haur ditiedalearen nortasuna gorputz eskemak eratzen zuen. Errepresentazioaren sorreran jatorrizko nortasun hori hor dago, baina gorputz irudia gainjarri behar zaio, alienazio prozesu bezala.

Pertsonalismoa: Haurrak 2-3 urte dituenean, jazarpen jarrerak ikus ditzakegu haurraren. Helduen eskaerei oposatzen zaie haurra, «ezetza» ugari erabiliz. Bada zerbait haurraren, sozializazioari gogor oposatzen zaiona. Gorputz irudiaren jaiotza, hasieran, gorputz eskemako behar biologikoen asebetetzearen zerbitzutan dago; bere irudi propioa defendatzeko borroka egiten du haurrak, besteen desiren kontra. Sozializazio prozesuaren buruan, gorputz irudiaren barruan sartu beharko ditu kanpotiko elementuak, berari arrotz zaizkionak. Adibidez: araudiak eta rol sexualak.

Bide honetatik, haurrak elementu sinbolikoen ondoan esanahiezko elementuak onartzen ditu. Haurrak duen tigreaken errepresentazioa sinbolikoa da: beretzat deigarriak diren elementuak aukeratu baititu hura errerepresentatzeko. Gorputz irudian, elementu sinbolikoak hor daude, bere gorputz eskematik baliozkoenak diren elementuak hartzen baititu haurrak, baina elementu errerepresentatzaileak ere badaude: hitzak bezala zeinuak direnak.

Gorputz irudian topo egiten dute, sinbolikoki errerepresentaturik dauden haurraren premiak eta zeinu bidez errerepresentaturik dauden konbibilitzi arauak.

Errepresentaturik ez dauden gorputz eskemako zatiak nortasunaren oinarri inkonzientek dira, maila emozionalean agertuko direnak.

3.3. AUTOKONTZEPTUA

Pentsamendu logiko formalerako gaitasuna lortzen du haurrak nerabezaro aurretik. Mundu materialeko objektuen kontzeptuekin batera, aberria, ontasuna, anaitasuna eta askatasuna bezalako kontzeptu abstraktoak eratzeko gai bihurtzen da. Bere buruaz dagien kontzeptualizazioa ez da asko aldatzen beste gauzetaz egiten duenetik. Bere irudi pertsonaletik hartuko ditu bere buruarekin identifikatuen ikusten dituen elementuak. Autokontzeptu hau osatzeko, baztertu egingo ditu kontraesanezkoak diren gorputz irudiko aspektuak. Autokontzeptuaren osakuntzak zerikusi handia du razionalizazioaren prozesuarekin, Monederoren arabera.

Nerabearen autokontzeptuaren zati handi bat ingurunetik etorriko da, lehenago gorputz eskemarekin eta gorputz irudiarekin gertatu zen bezala. Kanpotik hartzen diren autokontzeptuaren alderdi hauek, ez dira erresistentia eta jazarpen gabe onartuak izaten. Garai guztietako nerabeek protestatu izan dute gizarteak ezartzen dienaren kontra.

Emozioak eta sentimenduak: gizakiak autokontzeptu razional bat garatzen du, baina afektuek autokontzeptuarekin lehian dagoen nortasunaren irudi bat eskaintzen digute.

Nerabezaroaren hasieran gorputz eskemak aldaketa garrantzitsu bat jasaten du, autoirudi berri bat sortzen delarik. Sorpresa eta arrotasun erreakzio baten ondoren, nia berri bat osatzen du, dituen elementu berriekin. Kanpotik begiratuta, armoniarik gabea eta automatizatua dirudi. Barnetik begiratuta, arrotz sentitzen da bere gorputzaren barnean: despersonalizazioa. Bere buruarekiko sintonia eta batasuna hautsi ditu.

Gorputz eskemaren aldakuntzak gorputz irudiaren eta autokontzeptuaren berdoiketa bat eskatzen dute.

4

Nortasunaren teoria indibidualistak

4.1. ALLPORT-EN NORTASUNAREN TEORIA

Gordon W. Allport (1897-1967) iker eremu honetan aipa litekeen per-sonologo garrantzitsuenetakoa eta ezinbesteko erreferentzia da. Korrante idiografikoaren ordezkari nagusia izanik, gizabanakoaren nortasun globa-la, subjektuaren bakartasun eta berezitasuna aztertu nahi du. Allport-en sistema, ikuspegi ireki bat baino gehiago sistema «mixto» bat dela esan izan da, edozein informazio iturri onartzen baitu, datorren tokitik datorre-la, nortasunaren ulerkuntza hobeto bati laguntzen badio. Zentzun honetan, literaturako eta filosofiako deskribapenak ezezik, natur zientzien eta bio-logiaren metodoak, eta ekialdeko pentsamendua ere jasotzen zituen. Jarre-ra honek, ezagutza oso sakon eta historikoa edukitzera eraman zuen. Nor-tasunari buruzko berrogeita hamar definizio biltzera heldu zen, bilketa eta pilaketa lan estimagarria eginez.

Bere definizio propioa honela eman zuen:

«Bere jokaera eta pentsamendu bereizgarriak determinatzen dituzten pertsonaren barneko sistema psikofisikoen antolamendu dinamikoa» da nortasuna.

Honela bada, nortasunak honako osagai hauek ditu:

1. Bereizgarria: gizaki bakoitza bakarra eta besteengandik guztiz ez-berdina dela esan nahi du.
2. Determinatu: nortasuna «zerbait dela eta berez zerbait egiten duela» esan nahi du, ez da iragazki perzeptual bat, jokaeraren zergatizko iturri ere bada.
3. Sistema psikofisikoak: garuneko eta gorputzeko elementuak inpli-katzen ditu. Allport-entzat, psikea, adimena eta tenperamentua ziren nortasunaren lehen gaia, eta beren elkarrekintzarekin nortasuna sor-tzen dute. Horregatik, Sheldon-en lanaren eta teoria biotipologikoen ezagule sakona zen.

4. Barne antolamendu dinamikoa: multzoa, osagaien batuketa baino gehiago da; osagaiak antolatuak daude eta subjektuaren barnean etengabeko garapenean.

Gainera, nortasunaren aurretiko definizio batetan, «bere jokaera eta pentsamendu bereizgarriak» erabili ordez, «giorako doiketa berezia» erabili zuen. Espresio biotan ingurugirora moldatzeko funtzioari egiten zaio erreferentzi; azken definizioak behar bada joera kognitibo berrien eragin gehiago du.

Allport-en nortasunaren kontzeptua ulertzeko, noraezko da nortasunaren eragina duen eta nortasuna konfiguratzeko duen beste kontzeptu sail bat ere aztertzea. Garrantzitsuena, beharbada, motibazioarena da. Zer ulertzen du Allport-ek motibazioaz?

Motibazioaren gaia, nortasunaren azterketatik bereizteza da, haren «motorea» baita. Alderdi «erreaktiboa» azpimarratzen duten teorien aurrean, adibidez, instintuen, bulkaden, konpentsazio deficiten etab. bidez jokaera esplikatzen duten teorien aurrean, Allport-ek aspektu «proaktiboari» ematen dio garrantzia; esan nahi baita, gizabanakoak, izatera heltzeko, garatu beharra duela, eboluzioaren eta heldutasunaren ikuspegitik aldatu beharra duela, baita eguneroko bizitzan ere, autonomia, autoerrealizazioa etab. bilatzen dituen. Horregatik, bizitzaren motoreak intentzioak direla pentsatzen du, premia sexualak, eliku edo babes premiak baino gehiago. Nortasun normalak etengabeko garapen eta aldaketaren beharra du.

Ongi integraturiko nortasun baten motibazioen zerrenda urria da. Motibazioaren faktore garrantzitsuena «bizitzaren plangintza» sistematiko pertsonala da. Horregatik, motibazioak ezagugarri sail bat du: lehenik, orainean ekiten du; adibidez, helduen motibazioak hauren motibazioetatik ezberdinak dira. Bigarren, gizabanakoen artean motibazioen diferentzia handia dago; motibazioaren maila gehitzeko, garrantzitsua da gizabanakoaren ego pertsonala inplikaturik egotea. Kanpoko zirkunstantziek bultzatuta bakarrik jokatzen badu subjektuak, «errutinazko motibazioaz» hitzegin liteke; benetako motibazioa egon dadin, «niaren motibazioa» gertatzea beharrezkoa da, hau da, subjektuak hauteman dezala lan bat berez garrantzitsu bezala, hau da, berak gainditu beharreko desafio pertsonal bezala. Hirugarren, motibazioak badu planifikazio bat eta intentzionalitate bat. Laugarren, pertsona baten motiboak elkarrekin erlazionatuak daude, batasun bat osatuz.

Allport-entzat, tentsio gutxitzearen funtzioa bakarrik betetzen duen motibazioa, animalien kasuan gertatuko litzatekeen bezala, patologikoa da. Giza motibazioak hazkuntzara inbitatzen du, ez orekara bakarrik. Zentzun honetan, garapen jarraituan doan «autonomia funtzionalaren» bilaketara bultzatzen du motibazioak batez ere.

Autonomia funtzionala, beren jatorrizko bulkadatik askatu diren motiboen sistema batetan garatzeko joera indartsua da. Zentzun honetan, jar-

duera bat berez helburu bihur liteke edo egiteko atseginatik mantendu. Adibidez, inguruneak eskatzen duelako ikastetik, jakite atseginak eramanda ikastera iragan liteke. Edozein modutara ere, Allport-ek funtzionalki autonomoak ez diren prozesuen izana ere ezagutzen du, hala nola, erreflexuak, bulkada biologikoak etab. Motibazioan, globala izatean, prozesu biak sartzen dira, erreaktiboa eta proaktiboa; eta subjektu normal batetan deskonpentsazio bat gerta daiteke, bietako bat nagusitzen denean.

Baina, motibazioak sarritan ikaskuntzaren moduan ekiten du; eta, hain zuzen ere, Allport-ek bere nortasunaren kontzeptua ulertzeko erabiltzen duen beste elementu bat «ikaskuntzarena» da. Honela, bi ikaskuntza mota bereizten ditu: determinismo mekanikoarena eta autoerrealizazioarena. Lehena, kondizionamendu eta errefortzu paradigmek esplikatuko lukete; bigarrena, informazioaren bereizkuntza eta integraziotik abiatutako prozesua da, subjektua bere bizitzan jomugak lortzera zuzentzen duena. Bigarren ikaskuntza mota honek erakusten digu nortasuna nola garatzen den.

Allport-en teorian oraina eta, neurri batean, etorkizuna ere, iragana baino garrantzitsuagoak dira. Gertatua eta iraganean oinarritzen diren teoriak ez bezala, gizakia orainean bizi dela eta orainean pentsatzen duela uste du. Iragana ez du ahanzten, baina haren garrantzia erlatibizatu egiten du.

Bestalde, jokaera guztietan bi osagai bereizten ditu: moldakorra eta adierazkorra. Lehenak, gizakiak egiten duena, haren jokaeraren edukina agertzen du; bigarrenak, ekintza nola egiten duen, zein estilo darabilen adierazten du. Bigarren honek darama nortasunaren ezagugarri nabarmena.

Allport-en teoriaren beste ezagugarri definitzailea bat, gizakiaren barkatasuna azpimarratzearena da. Nortasunaren premia afektiboak bereiziak eta indibidualak dira. Ezertarako ez du balio, gizabanakoen pertzentil eta araudi estatistikoak finkatzeak, taldeetatik abiatuz. Nortasunaren itzala besterik ez diren perfiletan galtzen da subjektua. Honek, «idiografiko» eta «nomotetiko» terminoak erabiltzera eramaten zuen. Idiografikoak, norberarena adierazten du. Nomotetikoak, lege unibertsalen bilaketa. Hurbilketa idiografikoaren eta nomotetikoaren bereizketan aurkitzen dugu arazo metodologikoen luzapen bat. Lehena, «idios» sustrai grekotik dator, eta norberarena, berezia adierazteko erabiltzen da. Bigarrena, «nomotetikos» hitz grekotik dator, eta legeak ematen edo hotsegiten dituen adierazten du. Hurbilketa bion artean, nortasunaren psikologiak aztertu behar duenaz eztabaida bat gertatu da. Hurbilketa idiografikoaren arabera, sistema antolatua diren objektu partikularrak dira existitzen direnak, eta gizakiaren kasuan, gogamen eta gorputz prozesuen antolamendu iraunkor eta bakarra litzateke nortasunaren psikologiak aztertu behar duena. Hurbilketa nomotetikoaren arabera, benetako ezagutza zientifiko bat egon dadin, gizabanako guztiei aplikagarriak izango zaizkien lege unibertsalak ezartzera joko duen hurbilketa bat beharrezkoa da. Horrela, gizabanakoen ezagugarriak elkarrekin alderatu ahal izanen dira.

Allport-ek pentsatzen zuen, gizabanakoen artean antzekotasun motaren bat egon zitekeela, espezie biologikoaren, kulturaren edo ingurunekeo elementuen antzekotasunei zor zitzaiena, baina pertsonaren berezitasunari (singularitateari) eman zion garrantzia. Horregatik, bere metodologia ez da analisi faktoriala bezalako teknika multibariatuetan oinarritzen. Izan ere, teknika horiek, modu globalean, eskuarki talde batean definituriko datu batzuetatik bakarrik abiatuz nortasuna ateratzen saiatzen dira, eta gizabanako konkretuari erreferentzi urria egiten diote. Jakintzaren arlo guztietatik (zientzia, artea, erlijioa etab.) harturiko teknika eklektikoetan oinarritzen dira.

Hala ere, «berezitasunaren» kontzeptua onartu zuen, modu idiografiko batez garatua bazen ere. Geroago ikusiko dugun norbere buruaren kontzeptuarekin batera, Allport-en nortasunaren teoria bere berezitasunak ulertzeko moduagatik bereizten da. «Gizabanakoaren sistema neuropsikiko generalizatu eta fokatuak, estimulu asko funtzionalki baliokide bihurtzeko eta jokaera moldakor eta adierazkorraren modu koherenteak hasteko eta gidatzeko gaitasunez hornituak» bezala kontzeptualizatzen ditu.

Termino honekin batera, *norabide*, *joera* eta *temperamentuen* terminoak ere badarabiltza, eta sarritan egotzi zaion arren, ez du «tipo» terminorik erabili. Termino hauek erabiltzeko arrazoia, izaera estetikokoa izan zen, ingelesez termino guzti hauek «t»-z hasten baitira: traits, trends, tendency eta temperament, type-ena ahortzi gabe.

Norabideak, bizitz estiloaren edo berehalako ekintzarako jarreraren antzeko zerbait lirateke. *Joerak*, jokaerarantz zuzendutako iritsiera luze-gogamenaren aurre-jarrera adierazten du. *Temperamentuak*, heredentzi eta biologi tipoko ezagugarriak isladatzen ditu, hala nola, nerbio sistemen erreaktibitate handiago edo txikiagoa, eta nortasunaren lehen gaietako bat da.

Edozein modutara, nortasunaren teoriaren kontzeptu klabea *berezitasunarena* da. Zortzi irizpidek definitzen dute:

1. Izen bat baino zerbait gehiago da.
2. Azturak modu koherentean antolatzen ditu.
3. Dinamikoa da eta ekintzaren zergati determinatzaile.
4. Enpirikoki finka eta ezagu liteke.
5. Elkarrengandik independenteak dira.
6. Kontzeptu sozial konbentzional batekin ados etor daiteke edo ez.
7. Nortasun beraren berezitasun kontraesankorrek ager daitezke (txukuntasuna eta utzitasuna).
8. Berezitasunak, bakarrak eta unibertsalak izan daitezke.

Gizabanakoaren jokaera definitzen duten sistema psikofisikoen elementu antolatzailea da, beraz, berezitasuna. Baina, jokaeraren jarrera moldakor eta adierazkor bezala ere uler liteke. Eta, azkenik, berezitasunak, jokaeraren patroik koherente, egonkor eta fidagarriak ezartzen ditu. Zentzun

honetan, morfologikoki ezberdinak baina funtzionalki alderagarriak diren jokaeren errepikapenek, berezitasunaren izana adierazten digute.

Allport-ek bi dimentsioetatik abiatuz sailkatzen ditu berezitasunak: a) Nortasunaren egitura integratuaren barnean berezitasunak duen garrantzia, eta b) Amankomutasun-indibidualitatea.

Lehen dimentsioaren arabera, berezitasunak hiru tipotan zati daitezke:

1. Kardinalak.
2. Zentralak.
3. Bigarren mailakoak.

1) Gizabanakoaren ia jokaera osoa berezitasun horren indikatzaile bezala kontsidera litekeenean da berezitasun bat kardinala. Ikuspegi honetatik, «berezitasun kardinalak» eta «nortasunak» identifikatzera jotzen dute. 2) Orokorrak izan gabe, erlatiboki independenteak diren jokaera patroien multzo garrantzitsua eratzen dutenak dira berezitasun zentralak. 3) Azkenik, bigarren mailakoak, askoz espezifikagoak, indibidualagoak dira, eta jokaeren maila mugatuagoa biltzen dute.

Bigarren dimentsioaren arabera, subjektu zenbaiti amankomunak zaizkienetatik guztiz indibidualizatuak direnetera sailka daitezke berezitasunak. Gizabanako zenbaiten artean kidetasunak beha ditzakegu, adibidez, kultur giro berak eramanda edo egitura psikofisiko berberak konpartitzean, antzeko moduan jokatzeko dutenean. Honen adibide ertzeko bat, talde batek gizaki bakar bat balitz bezala egiten dituen jokaeren ezagugarriak lirateke.

4.1.1. Norbere buruaren kontzeptua Allport-engan

Allport-ek garatzen duen hurbilketa idiografikoak eta berezitasunen teoriak, norbere buruaren kontzeptua nortasunaren teoriaren elementu definitzaile nagusietako bat bezala finkatzen du.

Norbera da gizabanakoaren erdigunea Allport-entzat. Kontzientziak bilduko luke norberaren kontzeptua, kontzientzia nortasunak bilduko luke, eta, azkenik, organismoa egonen litzateke, dena biltzen. Norbera izanen litzateke gune zentrala eta gizabanakoak ulertzeko erreferentzia esentziala.

Organismoa

Nortasuna

Kontzientzia

Norbera

Norberaren izaera subjektiboa da, eta gai zaila den arren, aurre egin behar zaio, Allport-ek esentziala eta garrantzitsua kontsideratzen baitu. Gaiaren zailtasuna, hiru arrazoik esplikatzen dute:

1. «Norberaren» kontzeptua zentzun anitzetan, batzuetan elkarrekiko kontraesankorrek diren zentzunetan erabiltzen da.
2. «Norberaren» ebidentzia zalantzagabea bada ere, ezin dugu zehaztasunez esan zer adierazi nahi dugun termino horen bidez. Adibidez, gure pentsamenduei buruz: batzuetan gureak direla pentsatzen dugu, baina sarritan ikusten dugu, beste pertsonak ere konpartitzen dituztela, haiek ere berenak bezala kontsideratzen baitituzte.
3. Allport-ek pentsatzen du, beste asko bezala filosofiatik heredatua izan den kontzeptu honek, gizakiaren izaerari buruzko eztabaidagai sakonak planteiatzen dituela, hala nola, hilezkortasuna, askatasuna etab., psikologiaren ikuspegitik aztertzen zailak diren gaiak.

Halaz guztiz ere, hiru arrazoi hauek ez dute desanimorik sortu behar, arazoa gainditzeko gogoia baizik. Horrela, Allport-ek gaia ez uzteko hiru arrazoi proposatzen ditu.

Lehenik, gure izatearen eta gure identitatearen lehen irizpidea da norbere buruaren zentzuna. «Halaz guztiz ere, banaiz» dioskun oinarri subjektiboa ezin dugu albora utzi. Bigarren, «norberak» zentzuna damaio nortasunari, dagokiona eta interesatzen zaiona zer den eta zer ez den adieraziz. Azkenik, beste materietatik (kasu honetan filosofiatik) datozen eta esanahi psikologikoa duten kontzeptu guztiak biltzea psikologiaren eginkizun bezala kontsideratzen du Allport-ek.

Norbere buruaren kontzeptura hurbiltzeko metodorik erabilgarriena ebolutiboa dela pentsatzen du Allport-ek; horregatik, *Pattern and Growth in Personality* (1963) liburuan, «Norbere buruaren zentzunaren garapena» izeneko atal bat idazten du, ondoko lerrootan laburbilduko duguna.

Haur jaioberriarengan, animaliarengan bezala, beharbada ez dagoke barne munduaren eta kanpoko munduaren arteko bereizkuntza garbirik. Subjektuak ez du ingurunearekiko independentziaren kontzientziarik, eta ziu-rrenik, ingurunean sarturik, harekin nahasturik sentitzen da. Horregatik, jaiotzetik bost-sei urtetara bitartean, niaren ingurunearekiko bereizkuntza-ren prozesu oso bat dago.

Jaiotzen garenean, nagusiki egozentrikoak, erabat «geuregan zentra-tuak, garela esan dezakegu», ingurunean ditugunak, batez ere ama, tiranizatu-tuz. Baina, horretaz kontzientziarik ez du haurrak: gose edo egarri bada, hotz edo heze baldin badago, asebate bitartean negar egingo du haurrak. Jaiotza eta lehen urte t´erdi bitarteko lehen etapa bat, «sentimen mugime-nezko fase» deitua egonen litzateke; fase horretan haurrak inpresioak ja-sotzen ditu eta bere gorputzak jasotzen dituen sentipenei erantzuten die, baina guztia «osotasun» batetan, Piaget-ek norbere buruaren eta ingurune-aren «absolutu bereizigabea» deitzen duenean galtzen da. Lehen etapa ho-netan, entseiu eta hutsegitez funtzionatzen du haurrak, emaitzak memori-zatuz, baina horretaz kontzientzia gehiegirik eduki gabe. Baina, poliki poliki, «hor kanpokoaren» eta «hemen barnekoaren» arteko bereizkuntza

lauso bat agertzen doa, kanpo ingurunetik datozkion asebetetzeak ez baitira bapatekoak, bere premiak ez baitira bapatean asetzen. Sariak jasotzen dituen une berean, frustrazioak ere jasotzen ditu. Ibiltzen hasten da, eta sariztailea da hori, baina erori eta kolpeak hartzean, min hartzen du, eta kanpoko errealtate gogor bat badagoela ikasten du ezarian ezarian. «Nia ez» den mundu bat badago, Allport-ek esaten duen bezala. «Niaren» erai-kuntzan, «niaren» zentzun erreziprokoaren eboluzio osoa iragartzen duen «ni ez» bat beharrezko eta noraezekoa da.

Hori dela ta, garatzen den norberaren lehen aspektua «gorputz norbera» da. Gorputzaren etengabeko sentipen sariztaile eta ez-sariztaileek, kanpokoek nahiz barnekoek, gorputzaren sentimen-mugimenezko garapenak, eta moldaera espazialean eta zutikako jarreran begiek duten garrantziak, guzti honek norbera burua bekainen arteko «Tartalo-begi» moduko batetan lekutzeko joera sortzen du.

Haurrak bere sentipenei eta ingurunean dagitzan bere asmakuntz eta hutsegite entseiei zentzuna bila diezaien, beharrezkoa da garunazalaren heldutasun egokia eta oroimena eskuratzea. Ezarian ezarian bere mugak eta zedarripenak aurkitzen joango da, elikua ez baitu hartzen gosea duen mementu berean, eta kanpotik hartzen duena ez baita beti sariztailea.

Baina, gorputz niaren zentzuna ez da haurtzaroarekin agortzen. Bizitza guztian zehar, gure izanaren lekuko da gure gorputza eta gure sentipenek beti laguntzen gaituzte, bagarela ahanztea eragotziz, eta askotan hautematen ez badugu ere, garbi dago gorputza hor dagoela, gaixotasun edo min aldietan ditugun sentipenek garbi agertzen diguten bezala. Batzuetan, hagineta minak, haginak berak baino benetakoagoa dirudi. Puntu honetara helduta, interesgarri da «sentipen gabetzeareari» buruzko ikerketa batzuen emaitzak aipatzea; ikerketa horietan ikusi ahal izan denez, ingurune-ko estimulazioa kentzen zaionean organismoari, edo bere baitaratze klinikoan kasuetan, norberaren sentimendua galdu egiten da, eta aluzinazioak izateraino ere hel daiteke. Guzti honek erakusten duenez, etengabe sentipenak jasotzeko egina dago gure organismoa, eta ezin egon daiteke sentipenik jaso gabe. «Nia» «ni-ezaren» iraunkortasunaz mantentzen dela esan liteke.

Baina, gorputza niaren sostengu fisikoa den arren, nia zerbait gehiago da. Oroitzapenak baditugu, eta nahiz eta aldatzen goazen, baita materialki ere, zelulen berriztapenaz, denboran zehar geu bezala ezagutzen gara. Norbera izatearen kontzientziaren jarraipen hau dei genezake «norberaren identitate»; identitate horrek, aldaketa onartzen du, eta gainera, hazkuntzarako eta bizitzarako noraezeko da. Denboran zehar aldatzen bagoaz ere, badakigu gu geu garela. Puntu hau izan zen gai honen abiapuntua, filosofariak norbere buruaren kontzientziaren jarraipenaz kezkatzen hasi zirenean.

Norbere buruaren kontzientziaren eskurapenerako faktore oso garrantzitsu bat hizkuntzaren garapena izanen da. Identitatearen hastapenak ga-

runazalaren heldutasunarekin eta hizkuntzaren garapenarekin finkatzen dira. Honek garrantzia badu, hizkuntzaren garapenik gabe «norberaren» zentzunik izango ote litzatekeen galdetzeraino. Gainera, ingurunean ditugun objektu, pertsona eta animalia guztiak izendatu eta pertsonifikatzea ezagugarri oso gizatiarra da. Eta garrantzi berezia hartzen du, haurra konaturatzen denean, izen bat baduela, etengabe errepikatzen zaiola eta berari buruzkoa dela. Gure bizitza osoan, gure identitatearen hitzeko finkamendu garrantzitsua da izena. Hilzorian, erdi konorte gabe dauden pertsonak, erreakzio minimo bat agertzen dute, betazalak mugitzera heltzen dira, beren izena entzutean. Izen propioa da beharbada gure bizitzan, geurekin erlazionatuta gehien entzuten dugun hitzeko soinueta bat, eta identifikazio sakon bat gertatzen da harekiko.

Strunk-ek ikusi zuen harreman estua zegoela izenaren eta norbere autoestimaren artean. Beren izena gustatzen ez zitzairen pertsonak, beren burua gutxiago preziatzeko joera zuten-

Allport-entzat, guzti hau batikbat mendebaldeko kulturetako subjektuengan gertatzen da. Beharbada, beste kultura ez hain indibidualistetan, guzti hau bigundua egonen da, ez da norberaren eta beste pertsonen edo naturaren artean hain bereizkuntza sakonik egingen.

Norbereburuaren kontzeptuarekin oso erlazionatua, autoestimua dago. Allport-en arabera, bi eta hiru urte bitartean, dena ikusteko, dena galdetzeko, autonomo sentitzeko «bulkada esploratzailea» agertzen da haurraren; bulkada hori zapuztua denean edo kontra egiten zaionean, norbere buruaren perzeptzioa zorrotzen da. Adin honetan, bere buruaz jabetzearen garapenak, negatibismoarekin lortzen du bere estadio kritikoa. Zaintzen duten helduen proposamenei uko egitea, autobaieztapen ezagugarri bat da, haurrak, helduaren edozein proposamen bere integritatearen kontrako mehatxu potentzial bat dela sentitzen baitu, eta autobaieztapen hori dela jaiotzen ari den bere autoestimua babesteko sistemarik onena. Joera hau heldu batzuegan eta kultur mugimendu batzuetan finkaturik nola gelditzen den ikustea bitxia da, negatibismoa autobaieztapenerako plataforma bihurtuz; zentzun kritiko zorrotzia dei dezakeguna da, kontrako argudioak eta kanpotik datorrenaren kontrako erresistentzia nagusitzen baitira.

Geroago, lau urte inguruan, lehena izateko eta besteen aurretik kokatzeko premia lehiakorra agertzen da. Balio hau dexente sustatzen da gure kulturaren, beronen eragileetako bat izanik. Margaret Mead-ek dioenez, lehiakorrak ez diren kulturetan gizabanakoarekin baino taldearekin identifikatuagoa den autoestimua bat garatzen da. Baina, gure kulturaren, «berekoikeria sanoa» dei dezakeguna sustatzen da; berekoikeria horretan, autoestimua eta norbereburuaren maitasuna ezagugarri oso garrantzitsuak dira, eta jokoaren zati handi bat «niaren maila» mantentzeko jartzen da mugimenduan. Eta hau da batzuk besteak kontrolatzeko gizarteak darabilen mekanismo garrantzitsuenetakoa. Erridikuluaren eta lotsaren sentimen-

duek autoestimua zauritzen dutenez, subjektuak bere jokaera lotsagarria azkar zuzentzen du, besteen iseka saihesteko. Era batera edo bestera, autoestimua erreferentzia sozial bat du. Niaren hasierako zentzuna besteen jarrera, hitz eta keinuetatik eratortzen da neurri handi batean; haurrak hauteman eta imitatu egiten ditu jarrera, hitz eta keinu horiek, eta momentu bakoitzean jokatzeko duen rolararen arabera (seme, alaba, lagun, arrotz etab.) beroriei erantzuten die. Jarraipenaren eta identitatearen zentzuna garatzean, betetzen dituen paperen eta besteengan duen isladaren arabera hautesmaten du bere burua, baina haiengandik bereziz. Guzti honek «gizartekoa» zedarrituko luke.

Geroago, sei urte inguruan, norbere buruaren garapenean beste bi aspektu garrantzitsu agertzen dira: a) Norbere buruaren luzapena, eta, b) Norbere buruaren irudia. Lehenak jabetza zentzunari eta «ni materiala» dei dezakegunari egiten dio erreferentzi, hau da, gizabanako batenak diren gauza eta objektuei, eta berarekin zerikusia duten pertsonengana ere hedatzen da. Mementu honetararte dena «nirea» zen; hemendik aurrera, badaki norbere objektuak eta besteenak daudela. Bigarren aspektua, subjektuaren autobalorazioari dagokiona da. Gurasoek, hasiera batetan, «ona» eta «txarra» hitzak darabiltzate, haurrengandik une bakoitzean espero dutena adierazteko; modu honetara, poliki poliki, haurraren ardurak, helburuak etab. eraikitzen dira. Atal honek kontsiderazio batzuk merezi ditu. Lehenik, sarritan gertatzen den «hutsegite kognitiboa», gurasoek «on» eta «txar» adjektiboak globalki, ez jokaera konkretu batzuekin erlazioan, erabiltzearena da. Geroago Rogers-engan ikusiko dugun bezala, gurasoen seme-alabekiko onarpenak baldintzagabea izan behar du, eta errietek jokaera konkretuekiko kontingenteak izan behar dute, eta ez pertsona osoari zuzenduak. Bestalde, «ona-txarra» ez da esanahi psikologiko dikotomikoa duen bi polo oposatuko kontzeptua. Haur bati ona edo txarra den galdegiten badiogu, egin duen zerbaitengatik errieta bat jaso duenean ere, bere burua positiboki ebaluatuko du gehienetan. Pertsona helduengan ere hau da sarrietan gertatzen den balorazio subjektiboa, nahiz eta zirkunstantziak eramanada jokaera gaitzesgarriak aurrera eraman. Zentzun honetan, bere burua on bezala autokalifikatzeak ez du balio absoluturik, baizik egonkortasun emozionalaren adierazgarri da: funtsean onak gara, ontzat daukagu geure burua. Baina, interpretazio bera ez luke edukiko bere burua «txartzat» jotzeak, batez ere haurrengan; depresioaren eta doiketa emozionalik ezaren adierazgarri kliniko bezala kontsidera liteke. Haur batek bere burua sarritan negatiboki ebaluatzen badu, zerbaitek hutsegiten du.

Seitik hamabi urtetara, identitatearen zentzunak eta norbere buruaren irudiak hizkuntzaren garapena eta eskolatzea nabarmenki sustatzen dituzte. Gizarteratze prozesuak ere, jokaera arauak eta pautak ikasiz, besteengandik bereizten laguntzen dio haurrari. Hemen garrantzia duten mekanismoen artean, identifikazio prozesuak eta batez ere, problemak ebazteko gaitasun razionala aipatu behar dira.

Geroago, nerabezaroan, identitatearen gaia indarberritzen da. Iraganal-dia da aro hau. Haurra izateari uzten dio, baina ez da heldua. Gauza bazuetarako haurtzat hartua da, eta besteetarako heldutzat hartua; horrek, jokaeraren eta pentsamenduaren iraunkortasun gabeziara eramango du. Identitateari dagokionez, erreferentzi eredu eta patroein krisi bat irekiko da orain; ez da beraz harriztekoa etapa honetan aro ezeztatzaile (negatibista) berri bat hastea; baina orain subjektuak duela bi edo hiru urte baino gaitasun gehiago ditu, helduagoa, independenteagoa da, eta horrek errebeldiara ere eraman dezake. Identitate bilaketak eraman dezake ohitura haustaileetara, jazkeraren, orrazkeraren, hitzegiteko moduen, edo pentsamenduaren edukinen arloetan.

Gainera, konplexutasun handiagorako, momentu honetararte izkutuan zegoen elementu berri bat agertzen da indarrez: heldutasun sexuala; heldutasun hori, gure kultur ingurunean, norberaren identitatearen eraikuntzan zailtzen duten inkongruentziz, tabuez eta errepresioz inguratua dago. Bakardade eta sofrikario sentimenduak handitu egiten dira, bizitza irabazten hasi behararen edo hartarako prestatu behararen gizarte eskakizunak eramanda. Norbere gaitasunak frogan jarri beharrak, gurasoen igurikape- nek eta abarrek ez dute bidea errazten. Niaren eraikuntza egokiak, egonkortasun emozional iraunkorra eskuratzek, faktore anitzetatik dependitzen du, beraz.

Geroago, hogeita hamar urte inguruan, bere gaitasunen, muge eta ingurune-ko eskaeren artean egokitzapen bat egiten du subjektuak. Egokitzapen hau helduen lana da, Allport-en arabera, «ahalegin orientatuaren» bidez egiten dena. Gizakia, intentzionalitate eta norabidez hornitua agertzen da. Orainarte norabidea oso lausotsua zen, baina heldutasunera heltzean, ahalbideen eta gaitasunen arabera definitzen eta zedarritzen da. William James-ek bere burua, «helburu batzuen atzetik borrokatzen zena» bezala definitu zuen, horrela bere buruaren erdigunea azpimarratuz; helburuetara norabidetzen ez bada, heldugabea da norbera.

Modu laburtuan, Allport-ek proposatzen du, norberaren kontzeptuak honako zazpi aspektu hauek dituela:

1. Gorputz norberaren zentzuna.
2. Norbere identitate jarraituaren zentzuna.
3. Norbere buraren estimua, norbere maitasuna.
4. Norbere buruaren luzapena.
5. Norbere irudia.
6. Norbera, arazoen ebaztaile razionala bezala.
7. Ahalegin orientatua.

Zazpi aspektu hauek, Allport-ek «PROPRIUM» terminoaz izendatzen duen batasun global batetan integratzen dira. Beharrezko jotzen du kontzeptu hau sortzea, «self» edo «ni» terminoak erabili ordez, hauek eskuarki modu mugatuan erabiltzen direlako, pertsonaren zati konkretuak izen-

datzeko. Gainera, selfaren kontzeptuaren barnean bi osagai bereizten ditu: self «ezagutzailea» edo selfa subjektu bezala, eta self «ezagugarria» edo objektu bezala. Lehena filosofiari dagokiona eta bigarrena psikologiari dagokiona dela pentsatzen du; horregatik, proprium-a, ezagutz eta sentimendu gai den eta aipatutako zazpi aspektuak integratzen dituen norbera izendatzeko proposatzen du. Self ezagutzailea ezagugaitza da; proprium-a edo «ni objektua» bakarrik ezagu liteke, baina ez norbera subjektua, Kant-en terminologia erabiliz transzendental edo purua dena; baina, William James eta John Dewey-k esaten duen bezala, «ez dago ezagutza prozesutik ezberdina den ezagutzaile substantiborik».

Gure irudiko, eztabaida filosofiko honek ez du balio handirik. Norberaren ezagugarriek zedarritu egiten dute subjektu batek garatzen duen ezagutza; ezagugarri horiek ezagutzean, subjektu hori ere ezagutu egiten dugu. Arazoen ebazle razionala denaren autoanalisi gaitasuna, autokontzientzia etab. gara daitezke, norberaren beste aspektu asko bezala, gizarte elkarreaginean, informazioa kontrastatuz.

Aparteko gai bat, oso interesgarria, identitate nahasteek osatzen dute. Horien artean interesgarrienetakoak, gutxiagotasun sentimenduak dira, Alfred Adler-en teoriaren oinarri izan zirenak. Kanpoko eskaeren eta haietaz subjektuak dagien manipulazioaren arteko egokitzapen oker bati loturik egon liteke nagusiki nahaste horien jatorria. Honela, adibidez, porrot esperientziak orokorrak dira populazio osoan, baina aldatu egiten da haiek maneiatzeko modua. Modu okerrean egiten bada, desosagu sentimendua kroniko bihur liteke. Hemen laburki egin dezakegun gauzarik garrantzitsuena, egia absoluturik ez dagoela, eta arazoaren hautematea eta soluziobidea subjektiboak direla esatea da. Lan ezberdinek agertu dutenez, pertsona batzuek, porrotan ondoren eskuarki baikorrak izateko eta beren buruarengan konfiantza edukitzeko joera dute; beste pertsona batzuek, aldiz, inoiz ez dute asebetetzerik lortzen beren helburuak betetzean; horregatik, aurreko helburuak lortu ondoren, beste helburu batzuek bilatzen dituzte berehala; gertakari hori, konpentsazio, gainkompentsazio edo konpentsazio ordezkatzaillearen mekanismoz deskribatu da. Gutxiagotasun sentimenduen iturriak oso ezberdinak dira, eta norbere buruaren balorazioan aipatu zazpi aspektu horietako batean gertatzen diren deficitari egiten die erreferentzia; honela, adibidez, norbere gorputzarekin pozik ez sentitzea edo norbere eskubide edo ezagugarrietan kaltetua sentitzea.

4.2. NORBERAREN KONTZEPTUA

Gai honetan, Rogers eta Kelly-k nortasunaren azterketari egindako ekarpenak garatuko ditugu. Autore hauen alderdi amankomun nagusia, subjektu bakarrengan oinarriturik, nortasunaren teoria oso bat eraikitze-

an datza. Beren teoria orokorrak aztertuko baditugu ere, garrantzi berezia emango diogu, «niaren», «norberaren» edo «self-aren» kontzeptuari.

Autore horiengana iragan aurretik, gaia zentratzen ahaleginduko gara.

4.2.1. «Norbera»-ren kontzeptuari sarrera

Nortasunaren azterketarako kontzeptu garrantzitsurik baldin badago, hori «Niari» edo «Norberari» dagokiona da. Mendebaldeko kulturetan batez ere, gizabanakoa, eta batez ere, bere «pribatutasuna» eta barne mundua hartzen dira subjektua eta bere inguruarekiko harremanak ulertzeko erreferentzi puntu bezala. Hau da, «eskola fenomenologiko» edo «humanista» deitzen oinarria; eskola guzti horietan, gizabanakoak inguruarekiko duen eginkizun perzeptibo subjektiboa azpimarratzen da. «Norberaren» kontzeptua eskuarki teoria hauekin erlazionatzen bada ere, beste askok ere termino hori darabilte, beren nortasunaren egiturari buruzko teorian garrantzi gehiago edo gutxiagoko leku bat emanez. Esaten ari garenaren adibide garbia da teoria psikoanalitikoa, bere «supernia-nia-zera» egiturarekin.

Norberaren kontzeptuari buruzko ikuskera eta eztabaida guztien gaitetik, haren azterketa justifikatzen duen argudio nagusia, «norberaren» sentimendu subjektiboaren enpirikotasun ukaezina da; fenomeno enpiriko hori gertaera nabaritzat jotzen da (Epstein, 1973), eta nortasunaren azterketarako hurbilketa idiografiko eta nomotetikoaren elkargune bezala kontsidera liteke.

William James-ek, bere idazlanen zati garrantzitsu bat, «Self-aren» gaiari eskaini zion. Selfa subjektu bezala eta selfa objektu bezala bereizi zituen: selfaren kontzeptu globalaren zati ziren biak. Selfaren kontzeptu globalaren bereizgarriak, autokontzientzia eta denboran zeharreko jarraipena ziren; bion artean, selfaren batasuna eratzen zuten. Ezagulearen eta ezagutuaren arteko bereizkuntza honek, filosofari batzuek iadanik eginga zutenak, esanahi psikologiko bat hartu zuen James-ekin. Gainera, bere selfaren kontzeptu globalak lau osagai zituen, beheranzko ordenuan integratzen zirenak:

1. Self espiritualak.
2. Self materialak.
3. Self sozialak.
4. Self korporalak.

Lehena, norberaren gogamen prozesuen (batez ere pentsamenduen eta sentimenduen) kontzientziak osatzen du, gaitasunak eta zentzun moralak ere barne direla. Self materialak eta sozialak, espiritualaren eta korporalaren bitarteko bezala kontsideratu zituen. Nia soziala: besteekiko harremanei eta norberaren ohoreari dagokiena. Maila honetan, pertsona batek dituen «norbera» kopurua, berarekin harremanetan diren gizabanako edo talde kopuruaren araberrakoa da. «Norbera» batzuk gazakza-

tsuak dira eta erreferentzia bezala jokatzen duen pertsonaren hurbiltasun afektiboaren araberrako garrantzia edukiko dute. Puntu honetan sakondu zuen geroago George Mead-ek, giza elkarreraginean besteek norberari buruz dituzten perzeptzioak isladatzen dituen «espilu» bezala kontsideratzean norbera. Besteek («beste generalizatuak») ekinga batzuei nola erantzuten dieten ikusiz, gizabanakoak barne arauetarako iturri bat eskuratzen du, bere jokaera gidatu eta egonkortzeko balioko diona. Horrela, subjektuak betetzen dituen gizarte rolak adina norbera dituela esatera heltzen da.

Pertsonak dituzten gauza materialak ere garrantzitsuak dira, norberaren luzapen bezala. Honela, adibidez, dituzten objektuak pertsonalizatzen josten dute pertsonak, nahiz eta eraikuntza estandarreko objektuak izan (autoak, liburuak, jantziak, etxeak etab.), norberaren luzapen bihurtuz. Aspektu material honen nagusigoa nabarmena da pertsona batzuegan, egiten dutena baino daukatena garrantzitsuago dela eta daukatena direla esan ahal izateraino.

Azken tokian, «gorputz nia» jarri zuen James-ek. Beharbada ez zuen kontuan eduki aspektu fisikoak «nia»-ren garapenean duen garrantzia, haurrengan eta nerabeengan. Gorputzak eta aspektu fisikoak toki eta denbora garrantzitsuak betetzen dute pertsonen bizitzan, eta gorputz irudia ez da neutroa pertsonaren autoestimarako.

Lau «norbera» hauek eratzen dute pertsonaren «norbera» globala.

Guzti hau, eta garatzen deneko ingurunearen konplexutasuna kontuan izanik, James-ek autoestimari buruzko «lege» bat ezarri zuen: Autoestima = arrakasta/ pretentsioak.

James-entzat, «norbera»-ren kontzeptualizazioa, besteek norberaz duten perzeptzioarekin oso erlazio naturik dago. Geure perzeptzio propioa beste perzeptzioak kontrastatzen du.

Garapen historikoarekin jarraituz, 30-40 hamarkadetan, konduktismoaren objektibatze irrikak eramanda, zuzenki behagarriak ez diren prozesuekiko interesaren jaitsiera garrantzitsua gertatu zen zientzilariengan; jakina denez, «norbera» eta bere prozesuak ez dira zuzenki behagarriak. Hori onargarria izan zitekeen, psikologiaren doiketa metodologiko baten mesedetan; tokiz kanpora gelditzen da, ordea, nabariak diren kontzeptu eta konstruktoak, ukatzen dituztenen hitzezko etiketatara biltzeko entsegua. Ez da onargarria, adibidez, Skinner-ek (1953) dagien «norberaren» kontzeptuaren bazterketa, hau dioenean: «...norberarena, funtzionalki bateraturiko erantzun sistema bat errepresentatzeko konzeptzio bat da simpleki», hots, prozesu soil da. Baina, pentsatzen, idazten edo erantzunak funtzionalki elkartzen dituen norbait edo zerbait baldin badago, nabaria da, edozein modutara deitzen zaiola ere, nolabaiteko entitate bat baduela eta ezin dezakegula prozesu soil bezala har.

Konduktismoaren gorakadaren garaian, introspekzioari buruzko eta zuzenki behagarriak ez diren aldagaiei buruzko kritikak nagusitu ziren, eta

«niaren» gaiaz arduraturiko teorikoak ia-ia klandestinitatean jardun ziren. Horren agerpenetako bat izan daiteke, adibidez, Kelly-ren ekoizpen eskasa.

Geroago, Kognitibismoaren aurrerapenak, bitarteko aldagaien ikasketarako interesa piztu zuen berriro. «Materia autokonzientea» zen heinean, entitate hori zintifikoki ikertzeko metodoak ere gara zitezkeen. «Norberarengan» zentratuz, hurbilketa kognitibo honek, gizabanakoak bere ingurunea hautemateko eta eraikitzeke duen modua aztertzen du, «selfa» delarik erdigune, ez bakarrik subjektu bezala, baizik baita ere objektu bezala. Adibidez, psikoterapiaren garapen eta eraginkortasunean autoperzepzioak garrantzi nabaria duela esan izan da (Kanfer eta Philips, 1970); eta horregatik, edozein eskuhartze psikologikotan kontutan eduki behar da.

Poliki poliki konturatu ziren, benetako giza psikologia ez dela behargarria bere zatirik handienean; jokaera gidatzen duten sineste, pentsamendu, igurikapen eta abarrak, neurri handi batean ez dira behagarriak eta neurri handi batean jokaera determinatzen dute. Guzti honek eraginda, konduktistek eta antzeko jarrerak zituztenek, estimulu eta erantzunen artean bitarteko aldagaiak sartu zituzten, objektibatze eta neurketa irizpide metodologikoak betez. Adibidez, Hull eta Tolman-ek, jokaera behagarrian eragiten zuten barne konstrukto hipotetikoak postulatu zituzten. Ikuspegi berri hau, «niaren» gaia beti mantendu zuten Rogers eta Kelly bezalako autoreen ekarpenari gehitu zitzaion. Ideia oinarritzkoa hau zen: metodologia enpiriko/zientifikoa ez zela zuzenki behagarriak ez diren aldagaien ikerketarekin ezkontezina. Garrantzi nabaria zuten prozesuak objektibatzeke zeharkako indikatzaile egokiak aurkitzea zen arazoa. Operatibitatearen gaia izan zen, bere konplexitate guztiarekin, gai garrantzitsu horren eta metodologia egoki baten arteko uztarketarako esparru egokia.

Laburtuz, Epstein-en (1973), norberaren kontzeptuak ondoko bereizgarri hauek edukiko lituzke:

1. Barnean konsistenteak eta hierarkikoki antolatutak diren kontzeptuen azpisistema bat da norbera; nortasun globala litzatekeen sistema kontzeptual zabalago baten zati izango litzateke.
2. Norbera enpiriko ezberdinak ditu: sozialak, korporalak etab.
3. Esperientziarekin garatzen den antolamendu dinamiko bat da: esperientziatik integratzen ditu elementuak.
4. Esperientzia eta haren hautematea dira abiapuntu, batez ere, pertsona esanguratsuekiko elkarreragin soziala.
5. Norberaren antolamenduak denboran eta esperientzietan zeharreko jarraipenaren printzipioa mantentzen du: horretarako, kanpoko mehatxuetatik defendatzeko mekanismo desberdinak ditu.
6. Gizabanakoaren premia nagusia, norberari buruz, norberaren autoestima gehitu eta kontserbatzea da.
7. Azkenik, norberarena, esperientziako datuak antolatu eta esanahi propioa ematen dien elementu orekatzailea da.

4.2.2. Niaren kontzeptuaren ekoizpen historikoa, M.^a Dolores Avia-ren arabera (1995)

Protogoras-ek esaten zuenean, «gizakia gauza guztien neurria dela», gizakia jarri nahi zuen unibertsoaren erdigunean. Sokrates-ek «zeure burua ezagu ezazu» esaten zuenean ere, gizakiarengan zentratzen zen, naturako lau elementu oinarritzkoak (lurra, sua, airea eta ura) alde batera utziz. Edonola ere, gizaki indibidualarekiko interes hau, Antzinateko Greziako populazio pribilegiatuarengan bakarrik aurki zitekeen; jende gehienak, patuarengan sinesten baitzuen.

Egun darabilgun ni pribatuaren kontzeptua, Mendebaldeko gizarte urbanoari dagokiona da, eta Ertaroaren amaieraz geroztik garatu da. Garapen horretan zehar, garrantzi berezia eduki dute Errenazimentuak, Erreforma protestanteak, Ilustrazioak, mugimendu Erromantikoak eta Kapitalismoaren sorrerak.

Ertaroaren amaieran hasten da autoazterketarako interesa gehitzen, aitortzaren generalizazioarekin eta barne bizitzaren azterketa sakonarekin. San Inazioaren gogo-jardunak horren adibide dira. Ertaroan, zentzun gehiegirik ez zeukan autoerrealizazioak, kristau onak egin behar zuena, Jainkoak izendaturiko lekua betetzea baitzen. Errenazimentuan hasiko da indibidualitaterako interesa gehitzen; XVI eta XVIII mendeen artean, auto-konkizientzia indibidualaren gorakada nabarmena gertatzen da, burgesiaren sorrerarekin gizarteko mugikortasuna gehitzen baita, norberaren identitatea leinu familiarretik askatuz. Pertsonak ez dira definitzen bere aurretikoengandik jasotakoaz, beren autokontzientzia gaitasunaz eta besteengandik bereizteko gaitasunaz baizik. Erdi klasemila bat agertzen da, bizitza pribaturako eskubidea erreibindikatzeko duena. XVIII mende amaierako eta XIX mende hasierako Erromantizismoak, identitatearekiko interes berri bat sortzen du, patu indibidualaren bilaketa eta personaren potentzial berezia azpimarratuz.

Azken bi mende hauetan, niaren muga psikologikoak zedarritzen eta zehazten joan dira, indibidualistago bihurtu da gizakia, besteengandik isolatuago, barne bizitzari garrantzi gehiago emanez. Gizakiaren askatasuna, ardura eta lorkuntza gosea dira gizarte urbano modernoaren funtzionarazten duten baloreak. Familiaren, komunitatearen eta balore tradizionalen galarak niarengan utzi duen hutsunea betetzera etorriko dira terapeuta berriak, esperientzia interesgarriak eta ondasunen etengabeko kontsumoa.

Nolanahi ere, kultura batzuetan, nia besteengandik independente eta berezia bezala hartzen den artean, beste kultura batzuetan, besteekin konektatua bezala eta elkardependente bezala hartzen da. Ni independente batentzat, besteengandik bereizi ezina litzateke okerrena; ni elkardependente batentzat, berriz, taldetik kanporatzea.

Niaren eraikuntza elkardependentea, India, Txina, Japonia eta Afrika bezalako lurraletan ikusi izan da. Herrialde hauetako kulturetan, besteek

garrantzi handia dute nia eraikitzerakoan. Besteen desirak eta premiak norberaren helburuak baino garrantzitsuagoak izan daitezke kultura hauetan, eta pertsonarteko harremanak helburu dira. Barnetaldearen eta kanpotaldearen artean bereizkuntza nabariagoa egiten dute. Beste hitz batzuetan, niaren eraikuntza independentea dutenek, norberarengan zentratutako emozio gehiago esperimintatzen dituzte (haserrea, harrotasuna); eraikuntza elkardependentea dutenek, beste zuzenduriko emozio gehiago (enpatia).

4.2.3. Nien aniztasuna

Ondorengo deskribapena M.^a Luisa Sánchez Bernardos eta Jesús Sanz Fernández-engandik (1995) hartua da.

Nortasunaren kontzeptuak berekin daramatza batasunaren eta jarraipenaren ideiak: norbera izatearen sentimendua denboran eta situazio ezberdinetan zehar luzatzen da.

Bestalde, pertsonok geure niaren aspektu desberdinak agertzen ditugu: ezberdin jokatzeko dugu familian gaudenean, lantokian gaudenean, irakasle lana egiten ari garenean, ikasle lana egiten dugunean, menpekoen aurrean gaudenean edo agintarien aurrean gaudenean.

Gure benetako niaren ondoan, identitate ideialari dagozkion sentimendu, balore eta desirak ere baditugu. Garbi dagoena da, gizarte elkarreraginetik sortzen diren rol-identitate desberdinak dituela niak. Pertsona batek betetzen dituen rolen arabera (ikasle, irakasle, nagusi, langile), beste pertsonengan jokaera igurikapen batzuk sortzen dira. Gizarte igurikapen horien barneraketatik sortzen dira rol identitateak. Pertsonak, igurikapen horien arabera aldatu behar dute beren jokaera; igurikapen horiek barneratuz, beren identitate propioak eraikitzen dituzte.

Gizartearen igurikapenak oso desberdinak, eta batzuetan kontraesanak ere bai, izan daitezke; horrela, zenbat eta identitate edo nia gehiago eduki pertsona batek, are ta hobeto egokituko da gizarte rol ezberdinen eskaeretara. Bestalde, niaren batasunak, identitate desberdinak ezak, nolabaiteko zurruntasuna eta malgutasunik eza damaio joekaerari. Gizarte bizitzako estimulu ugari eta konplexuei erantzuteko zailtasunak izango ditu pertsonak. Zentzun honetan, Gergen-ek (1971) esaten zuen, pertsona zorionsuek moztu asko dituztela, gizarte testuinguru desberdinetan erabiltzen dituztenak.

Psikologia sozialak, pertsonaren moldaerarako garrantzitsua jo izan du pertsonak identitate ugari edo nien aniztasuna edukitzea; Nortasunaren psikologiarentzat, berriz, nien aniztasunak nien fragmentazioa adierazten du, eta ondorenez, pertsonarentzat ondoeza eta desmoldaera dakartza berekin.

Ikerlari batzuen arabera, autokontzeptuaren bereizkuntza maila oso garaia eta oso baxua zutenak, gaizki doituak egongo ziren, bereizkuntza

maila moderatua zutenak hobeto doituak egongo ziren bitartean. Beste ikerketa batzuen arabera, emaitz kontrajarriak agertzen ziren: batetik, nien aniztasuna ondoez emozionalari lotua agertzen zen; bestetik, identitate sozial gehiago zituztenek, sintomatologia psikologiko eta psikosomatikoaren maila baxuagoak zituzten. Baina, dirudienez, ikerketa horietan ez zen gauza bera esan nahi identitate aniztasuna esatean.

Psikologia sozialean identitateen pilaketaz hitzegitean, gizabanako baten posizio sozialen batuketa adierazten da. Unibertsitatean ikasi eta enpresa batean gerente bezala lan egiten duen eta haurrak dituen emakume batek, identitate kopuru handiagoa du eta desdoiketa emozionalerako joera gutxiago, ezkongabea eta ikasle ez den bere lantokiko lagun batek baino.

Baina, Nortasunaren psikologiak niaren fragmentazioaz hitzegiten duenean, pertsona baten identitate desberdinen integrazio faltari egiten dio erreferentzia, dela rol identitateena, dela pertsonaren aspirazioetan edo obligazioetan oinarrituriko identitateena. Honela, bere lagunek dibertitu bezala eta lankideek arduradun bezala ikusten duten pertsona batek niaren integrazio gutxiago eta autokontzeptuaren bereizkuntza gehiago agertzen du, bai lagunek eta bai lankideek dibertitu bezala ikusten dutenak baino. Nortasunaren psikologiaren ikuspegitik, azken honek doitasun psikologiko handiagoa luke.

Fragmentazioaren ikuspegitik, subjektuaren identitate kopuruak garrantzi gutxiago du, identitate horien arteko kidetasun edo koherentziak baino. Esan liteke beraz, identitateen kopurua eta fragmentazioa, kontzeptu independenteak direla. Ondorenez, identitate kopuru handiagoak ez du nahitaez haien arteko bereizkuntza maila handia inplikatzeko; ez du inplikatzeko, beraz, haietako bakoitzean nortasunaren bereizgarri desberdinak edukitzea. Era berean, identitate sozialen kopuru txikiagoa edukitzeak ez du inplikatzeko, guzti horietan pertsona modu berdinean ikusten denik, hau da, ni bateratu batetan integratzen direnik.

Identitateen pilaketaren hipotesiak eta fragmentazioarenak badute nolabaiteko sinpletasuna, ez baitaude eredu orokorragoetan integraturik. Eredu orokorrago hauek esplikatuko lukete aldagai horiek garapenaren beste aldagai garrantzitsuekin nola elkarreragiten duten. Adibidez, identitateen pilaketaren hipotesiak nahastu egiten ditu rol identitateen kopurua eta gizarte apoioaren maila.

4.2.4. Autokonplexutasunaren eredia

M.^a Luisa Sánchez Bernardos eta Jesús Sanz Fernández-en arabera (1995), Linville-rentzat (1987), autokonplexutasunak moderatu egiten du bizitzako gertakari positibo eta negatiboek afektuaren gain duten eragina. Gertakari horien efektu positibo eta negatiboek biguntzaile bezala jokatzen du. Horrela, autokonplexutasunean urri dabiltzanek aldaketa

handiagoak jasaten dituzte beren egoera afektiboan, bizitzako gertakariaren aurrean.

Adibide batez argi dezagun hipotesi hau. Pertsona batek bere buruari buruzko informazioa hiru aspekturen inguru bakarrik antolatzen badu (laneko harremanak, familiarekikoak eta kirol taldearekikoak), autokonplexutasun baxua edukiko du. Pertsona horrek, hiru arlo horietako batetan porrot bat jasaten badu, gertakari horri dagokion emozioa beste arloetara ere hedatuko da, aspektu desberdinen artean bereizkuntza txikia dagoelako.

Aitzitik, autokonplexutasun garaia duen pertsona batengan bizitzako gertakari batek duen eragina txikiagoa da. Aspektu gehiagoren inguru antolatzen badu informazioa (ikasketak, lana, kirolak, lagunak, senargaia, familia, politika), eta aspektu guztiok erabat independenteak badira, aspektu batetan jasandako porrota ez litzateke beste aspektuetara hedatuko.

Autokonplexutasun garaia dutenengan eragin gutxiago edukiko lukete bizitzako gorabeherak. Pertsona hauek ez lukete dena karta batera jokatu, ez lukete aspektu batetan bakarrik jokatu. Horrela, bizitzako edozein gertakariaren aurrean, dela positiboa, dela negatiboa, beti daude niaren aspektu batzuk, ukitu gabe gelditzen direnak; ondorenez, egoera animikoan edo autoestiman eragin gutxiago dute. Autokonplexutasun garaiak, denbora txarretan babestu egiten zaitu, baina denbora onetan ere oinak zoruan dituzula mantentzen zaitu.

Horrela, Linville-k ikusi zuen, autokonplexutasun maila baxua dutenek aldaketa handiagoak jasaten dituztela beren egoera animikoan, arrakasta edo porrot baten ondorenez. Arrakasta baten ondoren, adibidez, autokonplexutasun maila txikia zutenek egoera afektibo positiboagoa aurkezten zuten.

Linville-k (1987) ikusi zuenez, autokonplexutasun garaiak gutxitu egiten ditu gertakari estresanteek osasun psikiko eta fisikoan dituzten ondoren negatiboak. Gertakari estresanteen kopuru handi bat bizi izan ondoren, autokonplexutasun maila garaia zuten pertsonen sintomatologia depresiboaren maila baxuagoa agertzen zuten, eta sintoma fisikoen eta gaixotasunen kopuru txikiagoa, autokonplexutasun maila baxua zutenek baino.

Paziente depresiboen pentsamendu negatibo bereizgarrien patroiak esplikatzeko eraiki diren teorietan barneratu da eredu hau, Beck-en teoria kognitiboan bereziki. Autokonplexutasunaren eredutik begiratuta, pazienten depresiboek aurkezten dituzten pentsamendu negatiboen zirkulu bizioitsuak edo espiral zurrunbilotsuak, aspektu bati buruzko pentsamendu negatiboek, harekin erlazionaturiko beste aspektuei buruzko pentsamendu negatiboak aktibatuko lituzketelako gertatzen dira.

Estres maila garaia denean, autokonplexutasunak babestu egiten du estresetik. Baina, zer gertatzen da estres maila baxua denean? Linville-en (1987) arabera, pertsonen gertakari estresante oso gutxi esperimentatzen dituztenean, autokonplexutasun gutxikoek sintoma fisiko eta psikiko gutxiago agertzen dituzte, autokonplexutasun maila garaikoak baino. Emaitzaberberak agertzen dira Smith eta Cohen-en (1993) ikerketetan ere: gerta-

kari estresante gutxiko situazioetan, autokonplexutasun maila baxua dutenek ondoez psikologiko gutxiago jasaten dute.

Autokonplexutasunaren ereduan, niaren aspektu bakoitzari buruzko informazioaren balentzia ere kontutan hartu beharrekoa da. Autokonplexutasunaren efektu biguintzaileak ez dira berdinak, niaren aspektu gehienek bereizgarri negatiboak dituztenean edo bereizgarri positiboak dituztenean. Azken kasu honetan, niaren aspektu asko emozio positiboei loturik egonen dira eta gertakari estresanteen efektu negatiboak orekatuko lituzkete. Zentzun honetan, norberaren aspektu positibo asko eta oso diferentziatuak edukitzeak, gertakari traumatikoek doiketa psikologikoaren gain dituzten ondoren negatiboak gutxitzen ditu. Irudian ikus daitekeen bezala, esperientzia traumatikoren bat bizi izan duten pertsonen artean, autokonplexutasun psikologiko positiboaren maila baxua zutenek, desdoiketa psikologiko gehiago agertzen zuten; autokonplexutasun psikologikoaren maila garaia zutenek, traumarik jasan ez zutenen moduko doiketa psikologikoa agertzen zuten. Traumarik jasan ez zutenen doiketa psikologikoak ez zuen inolako erlaziorik autokonplexutasun positiboaren mailarekin.

4.2.5. Autodesadostasunaren teoria

M.L. Sánchez Bernardos eta J. Sanz Fernández-en arabera (1995), Higgins-en teorian ere (1987), pertsona batek norberari buruz dituen kontzeptu edo aspektuak anizkoitzak dira; baina, aurreko eredutik bereizten duena honako hau da: gaur egun direna (beren nia aktuala) bakarrik ez dutela kontuan hartzen pertsonak, izan daitezkeela pentsatzen dutena (beren ni posibleak) ere bai baizik. Niaren aspektuak bereizteko denboraren parametroa tartekatzen duenean, Higgins-ek motibaziozko esanahia ematen dio niari: ni posibleak jartzen ditu lortu beharreko helburu bezala.

Ni aktualetan eta posibleen arteko bereizkuntza hau ez da gaurkoa psikologian. Rogers-ek (1961) bereizten zituen iadanik ni erreala eta ni ideiala. Higgins-ek egin duena, niaren aspektu desberdinen esparru integratzailea proposatzea izan da. Esparru horretan azter daitezke haien arteko elkarreraginak.

Pertsona batek eduki ditzakeen ni aktualetan eta posible guztien artean, niaren eremuen eta niaren ikuspegiaren parametroen arabera taldeka daitezke garrantzitsuenak.

Niaren eremuen hiru mota bereizten ditu Higgins-ek (1987):

- Ni erreala: ni, naizen bezala. Ditudan atributu edo bereizgarriak buruz dudak errepresentazioa.
- Ni ideiala: ni, izatea gustatuko litzaidakeen bezala. Eduki nahiko nituzkeen atributuak. Asmo, aspirazio, helburu eta igurikapenen errepresentazioa.

— Behar lukeen Nia: nia, izan behar lukeen bezala. Arauei, obligazioei eta eginkizunei buruzko errepresentazioa.

1989ko lan batetan, niaren beste bi eremu eransten ditu Higgins-ek.

— Ni Potentziala: nia, izan naitekeen bezala. Eduki ditzakedan atributu, gaitasun edo potentzialesi buruzko errepresentazioa.

— Etorkizuneko Nia: nia, etorkizunean izango naizen bezala. Etorkizunean edukiko ditudan propietateen errepresentazioa.

Gainera, Higgins-ek bi *ikuspegi tipo* bereizten ditu:

— Subjektuaren beraren ikuspegia.

— Subjektuarentzat esanguratsua den pertsona baten (ama, aita, emaztea, lagun intimoa) ikuspegia: beste esanguratsuak norberaz pentsatzen duela uste duena.

Niaren eremu bakoitza niaren ikuspegi desberdinekin konbinatuz, Higgins-ek niaren hamar niak edo aspektuak bereizten ditu. Ni Errealarekin erlazionaturiko aspektuek osatzen dute autokontzeptua; niaren beste aspektuak, niaren gidak dira. Niaren gida hauek, sustatzaile bezala jokatzen dute; autokontzeptuaren testuinguru ebaluatzaile eta interpretatzaile bezala ere jokatzen dute.

4.2.6. **Nien arteko desadostasunak (M.L. Sánchez Bernardos eta J. Sanz Fernández-en arabera deskribapena, 1995)**

Moretti eta Higgins-en (1990) arabera, autoestima garaiena duten pertsonak, beren ni errealaren eta ni ideialaren atributu positiboan arteko adostasunezko uztarketa agertzen duten haiek dira. Adibidez, eskuzabalak eta lagunkoiak izan nahiko luketenak eta beren buruak halakotzat dituztenak.

Egoera emozional negatiboak, berriz, autokontzeptuaren eta norberaren gidaren baten arteko desadostasunetik sortzen dira.

Zer gertatzen da, bada, pertsonak batengan bere Ni Errealaren eta Ni Ideialaren edo Behar lukeen Niaren arteko desadostasunak agertzen direnean?

Ni errealaren eta ni ideialaren arteko desadostasunek tristura, beheraldia eta desadorea sortzen dute pertsonengan. Ni erreal/propioaren eta ni ideial/propioaren artean badago desadostasuna, tristura, desanimoa, asebetzterik eza eta dezepzioa sentitzen dituzte; ni erreal/propioaren eta ni ideialaren (bestea) artekoa bada desadostasuna, tristura eta desanimoaz gain, lotsa eta konsternazioa sentitzen dituzte. Ni Errealaren eta Ni Ideialaren arteko desadostasunak sintoma depresiboekin erlazionaturik daude.

Ni errealaren/propioaren eta izan behar lukeen ni/propioaren artekoa edo Ni erreal/propioaren eta izan behar lukeen niaren (bestea) artekoa de-

nean desadostasuna, agitazioa, urduritasuna, bildurra eta larritasun egoerak agertzen dira pertsonarengan. Eginkizun bat ez duela bete iruditzen bazaio, erruduntasun sentimentuak edukiko ditu gainera.

Laburbilduz, Ni Errealaren eta Ni Ideialaren arteko desadostasunek, depresioarekin dute erlazioa; Ni Errealaren eta Behar lukeen Niaren arteko desadostasunek, larritasunarekin dute zerikusia.

Higgins eta bere lankideek ni erreal/propioaren eta bere bi giden (ni potentzialaren eta ni ideialaren) arteko erlazioa aztertu dute.

Pentsa zitekeen, ni potentzial/propioaren eta ni ideial propioaren arteko desadostasun txikiak egoera emozional positiboak ekarriko zituela, gustatuko litzaiokeena izatea posible ikusten duelako. Baina, aldi berean aztertzen badira ni erreal/propioa eta ni ideial/propioa, desanimo eta dezepzio sentimentuak ager litezke. Izan nahi duena izateko gaitasuna baduela, baina horretarako ezer ez dela egiten ari ikusiko luke eta horrek sentimendu eta pentsamendu depresiboak edukitzera eramango luke. Horrela, Higgins eta lankideek ikusi zuten, ni erreal/propioaren eta ni potentzial/propioaren artean desadostasun garaia eta aldi berean, ni potentzial/propioaren eta ni ideial/propioaren arteko desadostasun bajua zutenek, altuago puntutatzen zutela Beck-en depresioaren inbentarioan. Hau da, porrota, asebetetzetik eza eta adorerik eza sentitzen zituztela eta, gainera, liseriketako disfunczioak zituztela.

Ogilvie-k (1987), Higgins-en taxonomiak aztertu ez zuen puntu bat aztertu zuen: ni errealaren eta ni desiratugabearen arteko desadostasuna. Ni desiratugabeak, pertsonak gorrotatzen dituen eta bildurgarri zaizkion atributuak biltzen ditu. Ogilvie-k ikusi zuenez, ni erreal/propioaren eta ni desiratugabe/propioaren arteko desadostasuna, bizitzan lorturiko asebetetzearekin erlazonaturik zegoen. Ni errealaren eta Desiratugabeko niaren arteko erlazioa auresangarriago gertatu zen, Ni errealaren eta Ni ideialaren arteko erlazioa baino.

4.2.7. Niaren giden arteko desadostasunak

Gerta liteke pertsona baten Ni-ideial/propio eta Ni ideial/bestearen arteko desadostasuna: adibidez, pertsona baten ideiala asertibo izatea denean eta bere aitak esaneko izaten irakatsi nahi dionean. Desadostasun hori desagertarazten ez bada, nahaste emozional larri bat gerta daiteke.

4.2.8. Nortasun anizkoitza

M.L. Sánchez Bernardos eta J. Sanz Fernández-en arabera (1995), nortasun anizkoitzaren nahasteak zalantzan jartzen ditu niaren batasun eta jarraipenaren kontzeptuak. Gaixoak nortasun bat baino gehiago agertzen

ditu; okasio bakoitzean nagusi den nortasunetik dependitzen du jokaerak. Kontzientziaren nahaste disoziatibo bat gertatzen da; nortasunaren zati bakoitzak jokaera patroi eta oroitzapen bereizia edukiko lituzke. Autore batzuen arabera, amnesia ere sartu beharko litzateke nahaste honen definizioan. Trauma baten ondorenez, aurrez niaren halanahiezko kontrolaren pean zeuden funtzioak zatitu egiten dira. Hasiera batetan identitate pertsonalaren kontzientziapen integraturik zegoen esperientziaren aspektu bat disoziatu egiten da. Situazio estresanteari ihes egitearren, identitate aldaketa gertatzen da; larritasunari ihes egiteko azken baliabidea da nortasun desberdin bat bereganatzea, identitatea aldatuz.

Ildo honetatik, nortasun anizkoitzeko pazienteen portzentai oso handi batek bi egoeren arteko amnesia agertzen zuen, hau da, nortasun batek ez du bestearen kontzientziarik.

5

Kellyren eraikuntza pertsonalen teoria

5.1. SARRERA

Teoria indibidualisten sail honetan ikusiko dugun ondorengo gaia George A. Kelly-ren (1905-1967) teoria da.

Bere haurtzaroko lehen urteak Kansas-en igaro ondoren, goi mailako ikasketak Kansas bertan, Minnesotan eta Edinburgon egin zituen. Doktore gradua 1931n lortu zuen, Iowa-ko estatu unibertsitatean.

Beste autoreekin gertatzen den bezala, honen nortasunaren teoria ere bere lan klinikoari buruzko hausnarketatik sortzen da, aspektu kognitibo pertsonaletan zentratuta. Bigarren Mundu Gerraren garaian, abiazioan psikologo lanak egin zituen. Bere lan profesionalaren zatirik handiena psikologo klinikoen formakuntzara eta Ohio eta Brandeis-ko Unibertsitateetan irakastera zuzendu zuen.

Bere teoria artikulatu zenbaitetan isladatua agertzen da eta, batez ere, bi liburuetan: *The Psychology of Personal Constructs* (1955) eta *A Theory of Personality: A Psychology of Personal Constructs* (1963).

Kelly-ren eraikuntza pertsonalen teoriak toki garrantzitsua hartzen du nortasunaren teoriaren artean. Teoria idiografiko bat da, gizabanako bakoitzaren aspektu partikularretan oinarritua. Inguruneko gertakarien eta eraikuntza modu pertsonalaren arteko elkarreragin ereduari aurreratu zaie, baina intrapsikiko-anbientalista ardatzean, polo intrapsikikotik hurbilago situatzen da, bere iritziz, errealitatea kontzeptualizatzeko ditugun modu idiosinkrasikoak baitira, inguruneko gertakariak baino areago, gure ekin-tzak determinatuko dituztenak.

Kelly pertsona indibidualizatutik abiatzen da, aldi berean dimentsio kopuru handi bat globalki kontsideratuz. Teoria holista bat da, nortasunaren aspektu totalak azpimarratzen ditu, ez funtzionamendu espezifikoak. Ekintza bakoitzaren atzean, gizabanako osoa dago. Gainera, eraikuntza pertsonalen azalpena, ezagutzazkoa da, kontzeptuen, pentsamenduen eta hipotesi mentalen terminotan interpretatzen baitute jokaera. Diferentzia

indibidualak eta pertsonak denboran eta situazio desberdinetan zehar duen jokaeraren egonkortasuna azpimarratzen du. Jokaera behagarriaren azaleko konsistentziarik ezari koherentzia ematen diona aspektu kognitiboa da. Bere teoria ezagutzazkoa da, beraz, aurrez dituen eta bere jokaera determinatuko duten barne-egituretan oinarriturik, subjektuak ingurunean dagitzan interpretazio eta perzepzioak baitira bere aztergaiak. Nolanahi ere, berak ez zuen erabili, ez kognitibista etiketa, ez berari egotzi zizkion tenetik bat ere: fenomenologikoa, psikodinamikoa, existentziala etb; beharbada, nahiago izango zukeen humanistarena, giza ahalbideak azpimarratzen baitzituen, bere pretentsioak holistikoak ziren eta gizabanakorearen garapen mentalean interesatua zegoen, eta hau da bere erreferentzi puntua.

Kelly egile oso sortzaile eta originala izan da, eta ia oraintsu arte nahiko ezezaguna, hala ere, datozen urteetako psikologiaren garapenean oso eraginkorra izango dela dirudi. Hasteko, esan dezagun, ez dituela erabiltzen psikologiako edozein liburutan agertzen diren termino eta kontzeptu gehienak, hala nola, «ikaskuntza», «motibapena», «errefortzua», «bultzada» (inpultsua), «inkonzientea» etab; hizkuntza berezi bat garatzen du, bere teoriaran entrenatu gabeko irakurleari ahalegin berezia eskatzen diona, terminologia bereganatzen joateko.

Kelly pertsona deziditua zen, eta ez zion bildurrik ematen esperientzia berriak egiaztatzeak. Gizakiaren naturari buruzko bere teoriaren atzean dagoen bizitz filosofia, gizakia zientzilari bezala kontsideratzea da. Zientzilariak fenomenoak auresan eta kontrolatu nahi izaten dituen bezala, subjektu normalek ere antzera jokatzen dute, norberaren eta besteen jokaera auresan eta kontrolatu nahiz. Horretarako, biek, zientzilariak eta pertsonak, teoriak, expektatibak, eraikuntzak, hipotesiak etb. lantzen dituzte eta gero frogatzen, egiaztatzeko edo gezurtatzeko. Batzuen eta besteen arteko diferentzia, azterketa objektu konkretuari dagokiona da: batentzat ezagutz arlo bat den bitartean, bigarrenareztat bere bizitza eta jokaera da, baina printzipio operatiboak berberak dira. Honela hautematen dira esperientziak eta haiei buruzko kontzeptu eta eraikuntzak formulatzen, haiek ordenatzeko, haiei zentzun pertsonal bat emateko eta haietan oinarrituz, etorkizuneko gertakariei aurre hartzen saiatzeko. Pertsona konkretu batzuen eta besteen arteko aldea, beren eraikuntza partikularrak erabiltzeko moduan datza; zientziarekin paralelismo bat eginez, teoria desberdinak izango lirатеke.

Gizakiak, unibertsoari erantzun ezezik, gaitasun sortzailez unibertsoa errepresentatu ere egiten du. Ingurunean errepresenta dezake, errerealitatearen eraikuntza alternatiboak egin ditzake eta, ados ez badago, errerealitatea alda dezake. Kanpoko errerealitateaz subjektuek dagiten errerepresentazio mentala izango lirатеke eraikuntzak. Gizakiak gaitasuna du mundua errepresentatzeko, mentalki eraikitzeko eta ez hari pasiboki erantzuteko bakarririk. Errealitatearen eraikuntza eta berreraikuntza hau da aurreratzen la-

gunduko duena. Zentzun honetan, teoria hau nagusiki intrapsikikoa bada ere, ingurunekeo gertakarien elkarrekintza alderdia kontutan hartzen du.

Gizakia zientzilari bezala ikusten badugu, horretatik ihalgitzen den lehen ondorioetako bat, etorkizunera begira dagoena bezala kontsideratu behar dugula da esentzialki, iraganera begira dagoena baino areago. Gaitasun honek ikuspegi berri bat ematen dio askatasunaren eta determinismoaren gaiari. Gizakia aske da, inguruneak eramana izan ordez, errealitate horretaz eta bere ekintzaz erabakitzen duelako. Gizakia «zientzilari» bezala kontsideratzean, ingurunea errepresentatzeko gaitasuna ematen zaio. Gizakia gai da, beraz, bere ingurunea interpretatu eta berrinterpretatzeko, eraiki eta berreraikitzeke. Iragana eta etorkizuna lotu eta bere gauzak ikusteko modu propioa erakitzekeo gai den bakarra gizakia da. Kelly-ren arabera, gizakia aske da, baina aldi berean determinatua dago. Eraikuntza pertsonalen sistemak erabaki askatasuna damaio eta, aldi berean, bere ekintzari muga jartzen dio. Askatasuna bai, gertakariei aurre egin diezaiekeelako, baina muga ere bai, berak eraiki dituen alternatibetatik at beste aukerarik egin ez dezakeelako.

«Alternatibismo eraikitzailearen» jarrera filosofikoa planteiatzean Kelly-k neurri batean erantzuten du. Gertaera bera esplikatzekeo zientzilarriaren eskura alternatiba desberdinak egon daitezkeela onartzea da. Askatasuna dago gertakarien interpretazio posible desberdinak balidezia berdinekotzat jotzeko. Teoria horren arabera, ez dago inolako errealitate objektibo edo egia absoluturik, baizik fenomenoak mentalki errepresentatuko dituzten eraikuntzak finkatzerakoan, zentzun bat eman nahi izaten zaie, baina alternatiba kontzeptual desberdinak egon daitezke. Gertakari berberak modu desberdinean kontsideratuak izan daitezke, denak egokiak direlarik, hautemalearen helburuak zerbitzatzan badituzte. Zentzun honetan, nortasunaren berezitasun bat norbaitek aurkitzen badu, adibidez, subjektu baten barnerakoitasuna, subjektu barneko entitate erreale bezala kontsideratzeko joera du; Kelly-rentzat, aztergaia, baieztapen hori egiten duen subjektua da. Gizabanakoa, errealitatea kontzeptualizatzeko erabiltzen dituen erikuntzen arabera eta eraikuntza horiek egituratzeko duen sistema propioaren (konplexua-bakuna etab.) arabera deskribatua izan daiteke.

Kelly-k metodo zientifikoei buruzko hausnarketa bat egin zuen eta hipotesi testagarriak lantzeko hiru metodo zientifiko zeudela eta lortutako ezagutzak erabilitako metodotik dependitzen duela ikusi zuen:

1. Hipotetiko-deduktiboa.
2. Hipotetiko-induktiboa.
3. Metodo estatistikoa.

Lehena (hipotetiko deduktiboa), positibismotik eratorritako metodoa da, experimentalistek erabilia. Ezarritako teoria batetik abiatuz, hipotesi kontrastagarriak deduzitzean datza. Bigarrena (hipotetiko induktiboa), eskuarki klinikoek erabilia, behaketa ez-sistematikoetatik abiatuz, hipote-

siak ezartzean datza; haietatik abiatuz, teoria bat gara daiteke. Hirugarren metodoa (metodo estatistikoa), analisi faktoriala bezalako «sare estatistiko» baten bidez fenomenoak «arrantzatzean» datza: teknika hauekin gertakarien lehentasuna onartzen da eta hipotesi eta teoriak minimizatzen dira, baina muga nagusi bezala zera aurkitzen dugu: analisi tekniken erabilerak gertakariak «kutxatzen» dituela, eta hauek haien funtzioan bakarrik existitzen direla. Tinturek eta ehunaren finkamendu metodoek mikroskopioan zehar neurona ehunen egiturak ikustea ahalezatzen duten bezala, baina aldi berean errealtatea deformatuz. Beste bi metodoek ere badituzte beren mugak: bietako lehena zurrina da eta behaketa oso heretsietara eta garrantzi gutxikoetara eramaten gaitu, eskuarki; bigarrenak, behatzaile barneko fidagarritasun eskasa dela eta, ondorio dispersoetara eramaten gaituela.

Argi dago, Kellyk, beste bi metodoak gutxietsi gabe, metodo klinikoaren aukera egingo duela, honek gaizki egindako edo gaizki zedarritutako galderei erantzutea ahalezatzen baitu. Gai garrantzitsuetan konzentratzeko eta zientzilariaren alderdi sortzailea potentziazteko beharra asetzen du metodo klinikoak. Bestalde, teoriak, haiek formulatzen dituzten pertsonen sinesmen munduaren zati bezala kontsideratzen saiatu zen, goiz edo berandu aldatuak edo utziak izatera deituak zeuden teoriak.

Ikus dezagun orain ideologia honen aplikazioa nortasunaren eremu konkretura, Pervin-en ikuspegiak bilduz.

5.2. EGITURA

Errealtatea eraiki eta interpretatzeko modu bezala hartzen du erai-kuntza. Kelly-ren teoriaren egiturako kontzeptu giltza da. Gizakiak, gertakariak esperimendu eta interpretatzen ditu; egitura eta esanahi bat ematen die gertakizunei. Eraikuntza sail baten bidez egituratzen eta esanahia ematen die. Horrek errealtatea ulertzen eta ingurunean izango dituen ondorenak aurreratzen laguntzen dio gizakiari. Gertakariekin esperimentatzean, haietako askok besteetatik bereizten dituzten ezagugarri amankomunak dituztela ikusten du. Gertakarien artean kidetasunak eta diferentziak ikusten ditu. Antzekotasunek eta kontrasteek eraikuntza baten osaerara daramate.

Errealtatea aldakorra da eta unetik unera aldatzen doa. Ez dago bi gertakari erabat berdinek, baina gure eraikuntzen bidez koherentzia eman eta uler ditzakegu. Eraikuntza bat, beraz, gertakariak kategorizatzeke erabiltzen den kategoria deskriptibo bat da, mundua eraikitzeke gure modu berezia errepresentatzen duena.

Eraikuntza guztiak dikotomikoak dira Kelly-rentzat, antzekotasun polo bat eta kontraste polo bat dute. Eraikuntza bat eratzeke, gutxienez hiru elementu behar ditugu: haietako bi antzeko bezala hauteman behar

ditugu, hirugarrena besteetatik ezberdin bezala kontsideratu behar dugularik. Pertsona desberdinek, errealitatea sailkatzeko modu bakar eta bereziak dituzte. Lehen bi elementuak, berdin bezala eraikiak: antzekotasun poloa; hirugarrenarekiko duten ezberdintasuna: kontraste poloa. Subjektu batentzat, «argia» (inteligentea) adierazpenak abstrakzio polo bat sinboliza dezake, eta beste poloa «tentela» izan daiteke, baina beste pertsona batentzat, beste poloa, «bizkorra» (listoa) izan daiteke; hemendik ihaltzen da, ezin dezakegula pertsonen dimentsio kognitiboa ezagutu, erabiltzen ari den eraikuntzaren bi poloak ezagutzen ez baditugu. Eraikuntza bat osatzeko, gutxienez hiru elementu behar dira: haietako bi kidekoak eta hirugarren bi haietatik berezia bezala atzeman behar dena. Eraikuntzaren anplitudea edo konbenientzi rangoa, eraikuntza eraginkortasun gehienaz aplikatu daitekeen gertakari guztiak biltzen dituen da (gertakari guzti horiei egiten die erreferentzi anplitudeak edo konbenientzi rangoak).

Eraikuntzak dimentsio askoren funtzioan sailka daitezke, beti ere dikotomikoki:

Adibidez, *nuklearrak eta periferikoak*, pertsonaren jokaerarentzat duten zentraltasun eta oinarritzotasun mailaren arabera: pertsonaren funtzionamendurako oinarritzokoak direnak nuklearrak dira; egitura nuklearra sakonki aldatu gabe alda daitezkeenak dira periferikoak. Baita ere, *iragazkorretan-iragazkaitzetan*, beren konbenientzi anplitudearen barnean elementu berriak onartzearen edo ez onartzearen arabera: elementu kontzeptual berriak onartzen dituzte beren konbenientzi anplitudearen barnean iragazkorrek, eta elementu berriak baztertzen dituzte iragazkaitzek; *fermu/zurrinak, elastiko/lausoak*-en aurrez aurre, beti auresate berdinak egitearen edo baldintza aldagarrietara egokitzearen arabera.

Eraikuntza guztiak ez dira hitzezkoak edo hitzetaragarriak. *Preberbalberbal* eraikuntza erabili zuen, Freud-en inkonziente-konzienteareki kide-tasunean. Hitzezko eraikuntza hitzezko sinbolo batez hornitu dago, preberbalak horrelakorik ez duen artean. Batzuetan ez da posible eraikuntzaren poloetako bat berbalizatzea, «*murgildua*» aurkitzen baita. Eraikuntza murgilduak darabiltzaten pertsonak, ertzetako bat ahaztu egiten dute errealitatea eraikitzean: hitzezko errepresentazioa dute eraikuntzaren polo batentzat, baina ez beste poloarentzat.

Gertakarien interpretazio eta aurrikuspenean pertsona batek darabil-tzan eraikuntza guztiak sistema batean antolatzen dira. Sistema honen barnean, *gainekoetan eta menpekoetan* hierarkikoki ordenaturiko taldekamenduak eratzen dituzte eraikuntzek. Goi eraikuntzek beste eraikuntza batzuek biltzen dituzte beren testuinguruan; menpeko eraikuntzek, goi eraikuntzen testuinguru barnean biltzen direlarik. Pertsonak ez dira erabiltzen dituzten eraikuntz motengatik bakarrik bereizten, baizik baita ere eraikuntz kopuruagatik, eraikuntzen arteko erlazioagatik eta sistema orde-natzeko moduagatik, *konplexuagoa edo bakunagoa* izan daitekeelarik

hori. Behin eratuta gero, sistemak gizabanakoarentzat modu global batean jokatzen du. Teoria honen aspektu garrantzitsu bat hau da: pertsona batek darabiltzan eraikuntzek bere mundua definitzen dutenez, bera ere definitzen dutela. Nortasunaren teoria gehienek kalifikapen sail bat bilatzen dute, ebaluaturiko objektuaren atributu bezala. Kelly-rentzat, pertsona batek darabiltzan kalifikatiboek bere errealitatea eraikitzeke modua isladatzen dute; modu hori ezagutzeko, eraikuntzak erabiltzeko modua ezagutzea beharrezkoa litzateke.

Bi pertsona antzekoak dira, eraikuntza sistema antzekoak darabiltzaten eta antzera antolatzen dituzten neurrian. Kulturak eragin dezake orduan gizabanakoen arteko homogeneizazio indar bat.

Nortasuna eraten duen egitura kognitibo hau jokaeraren ihardueraren eta norabidearen arduradun da. Bizitza guztian zehar saiaturen dira pertsona beren inguruneari buruzko kontrol bat lortzen, gertakarien eta besteekiko harremanen auresate zehatzagoak egiten. Etorkizuna auresateko grina, ez da motibaziotik oso urrun dagoen indar aktibatzailea.

5.3. NORTASUNAREN EBALUAZIOA

Nola ezagu daitezke pertsona baten eraikuntzak? Kelly-ren erantzuna garbia da: eskaiozu bere eraikuntzak zeintzuk diren esateko. Ez ditu teknika proiektiboak erabili nahi, teknika disfrazatuak baitira, zeharka galdetzen dute, fenomenoak gorderik dagoela suposatzen baitute eta, bestalde, Rorschach-a bezalako tresnen elementu estimularrek pertsonarentzat benetan interesgarri diren fenomenoekin harreman gutxi dute. Oso erlazio gutxi dago, tinta mantxen laminak eraikitzeke moduaren eta pertsonak eraikitzeke moduaren artean. Gainera, erabiltzen diren galdekizun egituratuen kontra ere badago, aurrez planteiatzen baitituzte eraikuntza garrantzitsuak, aukeraketa anizkoitz itxiko sistemarekin posibilitate gutxi uzten baitizkio adierazpen indibidualari. Baina, ez dago beti garbi subjektuarentzat darabilen eraikuntza sistema. Kelly-k bere diagnostikoko teknika propioa landu zuen, bere teoriatik zuzenki eratorrita: «*Rolen Eraikuntz Errepertorioaren Testa*» (*Role construcy repertory test*), «*REP testa*» ere deitua. Teknika hau, gizabanakoak bere ingurunea interpretatu eta ulertzeko darabiltzan eraikuntza pertsonalak elizitatu eta neurtzeko diseinatu zen. REP-arekin modu honetara jokatzen da: orri kuadrikulatu bat aurkezten zaio subjektuari, zutabeetan rolen kopuru mugatu gabe bat jartzeko (irudi eta pertsona garrantzitsuak, adibidez, ni neu, nire aita, nire ama, nire lagun Karlos etab., hogeitahogei hamar bat lagun bitartean. Edo, subjektuak Rol Sozialen Zerrenda bat hartzen du: beretzat garrantzitsuak diren rol, irudi edo pertsonen zerrenda bat da. Adibidez: irakasle maitatua, irakasle ez maitatua, ama, aita, auzokoa... Rol sozial bakoitzeko, pertsona ezagunen izenak eman behar ditu subjektuak, bere iritzian

rolari egokitzen zaion pertsonaren izena. Eskatzen diogu, pentsatzeko, adibidez, ama, aita eta irakasle maitatuaren roletarako dituen pertsonetan. Bigarrenik, aztertzaileak subjektuari elementu horietako hirutan pentsatzeko eta haietako bik zertan duten antza eta bi horiek hirugarrenetik zertan bereizten diren esateko seinalatzen dio. Esaten digu, adibidez, aitak eta irakasleak ezagugarri amankomun bat dutela, extrabertitu izatearena, eta amarengandik bereizten direla, hau introbertitua delako. Ados dauden aspektua, eraikuntzaren kidetasun poloa da, eta bereizten dituen, kontraste poloa. Eraikuntza bat finkatuta gero (extrabertsioarena, adibidez), subjektuari beste hirukote batzuk proposatzen zaizkio, eskuarki hogeï edo hogeita hamarreko kopururaino. Hirukote baten azterketak eraikuntza baten dimentsio bat generatzen du. Ikus daitekeen bezala, teknika hau zuzena da, egituratu gabe eta eraikuntzaren dimentsioa libreki produzitzea ahaleztatzen dio subjektuari, aztertzaileak inposaturiko dimentsioak derrigorrez erabili beharrik gabe.

REP testa aurreuposatu sail batetan oinarritzen da. Lehenaren arabera, subjektuak aukeratzen dituen irudiak garrantzitsuak dira pertsonaren bizitzan. Eraberean, askeki aukeratzen dituen eraikuntzak, errealitatea eraikitzeko erabiltzen dituenak dira, eta gainera, berbaliza ditzakeela.

Bere interpretazio klinikoan, aztertzaileak puntu hau kontutan hartzen ditu: aukeratzen diren elementuen kopurua kontsideratzen du, haien artean ezartzen diren harremanak eta eraikuntzen koaliteteak: iragazkortasuna, elastikotasuna etab. Edukiez aparte, REP-aren bidez eraikuntz sistema baten bereizkuntza maila azter daiteke, ezagutzaren sinpletasun-komplexutasunaren isladapen bezala. Sistema konplexu batek eraikuntza oso berezi asko ditu, mundu guztia ez baita berdin ebaluatzen; baina, sistema sinple batek mundu guztiari aplikaturiko eraikuntza gutxi erabiltzen ditu: adibide tipikoa, on-txar dimentsioarekin erlazionaturik kontsideratzea dena. Bierik aurkezturiko azterketa batetan, ezagutza alde-tik sinpleak diren pertsonak, konplexuak direnekin alderatu ziren, eta erresultatuek erakutsi zuten, konplexuek besteen jokaeraren auresate zehatzagoak egiten zituzten eta gai ziren beren eta besteen arteko diferentziak errekonozitzeko.

Azterketa batzuek egiaztatu dutenez, informazio konsistente eta egonkorra ematen duen tresna da REP testa. Aplikazio malgukoa da eta erraz kuantifika daiteena. Test psikometrikoen mugarik ez du. Duen mugetako bat, irizpide motako balidezia eta besteekiko alderagarritasuna ezartzeko ezintasuna da, subjektu batek lortzen dituen puntuazioak bakarrak baitira. Bere judizio gaitasuna aldatua duten subjektuekin ez du erresultatu onik. Kontuan eduki behar da, gainera, helaroan eskuratutako eraikuntza guztiak ez direla hitzetaragarriak. Erabilgarria da, larriak ez diren nahasmen-duetarako, baina ez psikosi eskizofrenikoetarako eta maniakodepresiboe-tarako.

5.4. SARETXOAREN TEKNIKA

5.4.1. Diseinuaren etapa

Ikerlariak dituen helburuen arabera, erabaki batzuk hartu behar dira. Ez da, beraz, prozedura guztiz estandarizatua.

Saretxoak osagai hauek ditu: aztertu nahi den eraikuntz arloko elementu batzuk ditu, elementuen artean bereizteko balio duten eraikuntza pertsonalak, eta eraikuntzaren dimentsio bipolarren funtzioan elementuak baloratzeko puntuazio sistema bat.

Beraz, diseinuan zehaztu behar diren parametroak: elementuen aukeraketa, eraikuntzen aukeraketa, erabiliko den puntuazio sistema eta administratuko den saretxo kopurua.

Elementuen aukeraketa: Entrebistatuaren eraikuntz jarduera aztertu nahi den arlo edo konbenientzi eremuaren funtzioan egiten da saretxoko elementuen aukeraketa. Pertsonarengandik hartu litezke, rolen izenburuen bidez, edo zuzenki eman, arlo jakin bat errepresentatu nahian.

Arlo klinikoan, subjektuaren edo bere arazoaren munduko pertsona esanguratsuak izaten dira elementuak. Adibidez, subjektuak talde jakin batekin dituen problema aztertu nahi denean, interesgarri izan liteke taldeko lagunak bakarrik aukeratzea. Kasurik gehienetan, self-aren eta besteen eraikuntzetan aurkitzen dira, arazo klinikoekin erlazionaturik egon daitezkeen eraikuntza nuklearrenak. Horregatik diseinatzen da, pertsonarteko saretxoak. Horrela aukeratzen da rolen zerrenda bat; zerrenda horrek subjektuarentzat esanguratsuenak diren pertsonen erakuskari errepresentatibo bat aukeratzen du.

Kelly-k rolen zerrenda luzea iradoki zuen. Eskuarki, zerrenda laburrago bat aukeratzen da: self-a, gurasoak, anai-arreba hurbilenak, egunko bikotea, lehengo bikotea (garrantzitsua izan bada), bi-hiru lagun, lantokiko lagunen bat, nagusi bat, pertsona non-grata bat.

Self tipo bat edo bi bakarrik sartzen dira: Ni-ideala (Izatea gustatuko litzaiden bezalakoa) eta Ni-erreala.

Elementuen selekzioak saretxoak aplikatu behar zaion pertsonaren (arazoa eta historia) ezagutza minimoa eskatzen du. Ezagutza horretarako, entrebista bat beharrezko da.

Eraikuntzen aukeraketa: Eraikuntz tipoei buruz, ikertzaileak erabaki oinarritzko bat hartu behar du: aurrez prestatutako eraikuntzak erabili edo subjektuarengandik zuzenki lortu. Azken kasu honetan, pertsonaren eraikuntz idiosinkrasikoetaz interesatzen da, azterketa kliniko indibidualaren esparruan, ikuspegi idiografiko batetik. Eraikuntzak ikerlariak berak aurreratzen baditu, aztertu nahi duen taldearen puntu amankomunak jaso behar ditu.

Puntuazio sistemaren aukeraketa: Aukeratu den puntuazio sistemak (dikotomikoa, ordinala edo interbaloena), egin behar den analisi matema-

tiko mota determinatzen du, eta administrazioaren iraupen eta konplexitatea ere bai. Aukeraketa irizpideek ikerlariaren helburuetatik eta pertsonaren gaitasunetatik dependitzen dute.

Saretxo kopurua: Eskuhartze terapeutiko batek sortu duen aldaketa aztertu nahi denean, adibidez, eskuhartze aurretik eta ondoren administratu behar zaio saretxo. Administrazio denbora ertaina: 45-60 minutu.

5.4.2. Administrazio fasea

Interesatzen dena, entrebistatuaren eraikuntz prozesuak ezagutzea, minimora jaitsiz entrebistatuaren eragina. Hemen deskribatuko duguna, pertsonarteko saretxo bat, emanak ez diren eraikuntz eta elementuekin. Hiru fase edukiko ditu: Elementuen elizitazioa, eraikuntzen elizitazioa eta puntuaketa. Pertsonarteko saretxo administratzeko, protokolo bat erabiliko da, elementuak, eraikuntzak eta puntuazioak sartzeko.

Elementuen elizitazioa: pertsonarteko saretxorako elementuak eskuartzeko instrukzioak:

«Txarteltxo hauetako bakoitzean idatz itzazu nik izendatzen ditudan rol edo pertsonari deitzeko erabiltzen dituzun izenak. Adibidez, idatz ezazu lehen txartelean zeure izen propioa (segundu batzuk uzten dira), bigarrenean zure amarena (segundu batzuk uzten dira)» eta horrela jarraituan, elementu bezala sartzen diren familiako elementu guztientzat. Ondoren, esaten zaio: «Hurrengo txartelean jar ezazu ongi ezagutzen duzun lagun baten izena» (segundu batzuk uzten dira, zein jarri erabaki eta idazteko), eta horrela jarraituki gainerantzeko elementuentzat.

Subjektua txartelak betetzen ari den bitartean, entrebistatzailea joan daiteke zutabeetako izenburuak jartzen, protokolo orrialdean, zentzun bertikalean. Entrebistatua konturatu dadin, esaten zaio: «Zu txarteletan izenak idazten zoazen neurrian, nik orrialdearen goikaldean idatziko ditut», azkenean berak manejatuko beharko baitu protokolo orria.

Rolen izenburuetarako pertsonak izenak emateko duen moduak eta omisioak, kontuan hartzeko moduko lehen materialea dira iadanik. Prozesu honek pertsonaren harreman gamaren ideia bat ematen digu ia. Adibidez, gerta liteke, familia testuingurutik ateko pertsona esanguratsurik ez edukitzea.

Eraikuntzen elizitazioa: prozedura egituratu desberdinak daude, eraikuntza pertsonalen eskurapenerako (Kelly-k berak sei definitu zituen), baina bi prozeduretan sinplifikatu ditugu: hirukoteka eta bikoteka hartuz elementuak.

Aurrez selekzionaturiko elementu serieen (hiru edo bi) arteko kidetasun eta diferentziei buruzko galderak egiten zaizkie. Elementu horien antzekotasuna agertzeko subjektuek aipatzen dituzten bereizgarriak, eraikuntza pertsonalak dira. Honela, eraikuntza bat adjektibo batez («ondradua»,

«desatsegina») edo adjektibo funtzioa duen esaldi labur batez («ukondoetik ere hitzegiten du», «ez zaitezke berataz fida»). Elizitaziorako erabilgarriak dira oso lehen aipatu ditugun txartelak.

a) Elementuak hirunaka: Kelly-k erabilitako jatorrizko forma. Hiru elementu aurkeztu eta galdetzen zaio: «Zertan dute antza bi elementu hauek eta zertan bereizten dira hirugarrenetik?», eta jarraian: «Zertan bereizten da hirugarren elementua beste bietatik?». Honela aurkeztutako hirukote kopurua eta aurkeztordena entrebistatzaileak determinatzen ditu. Kelly-k iradoki zuen, hirukoteak jarraian aurkez zitezkeela, aldiko elementu bakarra aldatuz.

b) Elementuak binaka: autore batzuen arabera, kontraste polo explizitoagoak lor litezkeela, bi elementu bakarrik auzkeztuz. Prozedura honek, antzekotasunari buruzko galderak (Zertan dute antza bi elementu hauek?) bezala eskatzen ditu diferentziari buruzko galderak ere (Zertan bereizten dira bi elementu hauek?). Diferentzia honen azalpenak oposatuena pare atera izan da, bakoitza bikotearen elementu bati aplikatuz. Diferentziaren galderak oposatuena taldea ateratzen du zuzenki, bakoitza bikotearen elementu bati aplikatuz. Antzekotasunaren galderak beste galdera bat behar du oraindik, oposatua lortzeko (Zein da bereizgarri horren aitzikoa?). Prozedura hau errepikatuz egingo da elementu guztiekin.

Prozedura didaktikoa kontseilatzen da: bikotea aurkeztea errazagoa delako, administrazioan hutsegite gutxiago gertatzen direlako...

Gure ohiko praktikan, lehenik antzekotasunaren galdera egiten dugu eta gero diferentziarena, elementu bikote bakoitzerako. Batzuetan pertsonak antzekotasun edo desberdintasun eraikuntza bat baino gehiago eskain dezake. Bestetuetan, zailtasunak ditu antzekotasun edo diferentziak aurkitzeko. Horrelakoetan, hurrengo bikotera iragaten da. Pertsona batek eraikuntza bat errepikatzen duenean, entzuten zaio baina ez da apuntatzen, ez eta aitzikoagatik galdetzen ere.

Gehien errepikatzen diren eraikuntzak dira garrantzitsuenak.

Adibidez, 13 elementuko saretxo batean, bikote posibleen kopurua 78koa da. Konbinazio posible guzti horien artean aukeraketa bat egin behar da, eta gehiago, kontutan hartzen badugu, bikote bakoitzeko eraikuntza bat baino gehiago lor daitekeela.

Aukeraketarako irizpideak:

- Elementuen bikote aurkeztuetan elementu bakoitza gutxienez behin irten dadila.
- NI elementua, ama, aita, bikotea, pertsona «non-grata» eta, batzuetan, anai-arrebaren batekin irten dadila.
- NI-IDEALA bezalako elementu artifiziosoenak bikoteen aurkezpenetik exkluitu.
- Elementuen lehen bikotei (self-arena eta familiakoak)besteei baino denbora gehiago dedikatu.

Entrebistaren sekuentzia hau jarraituz, subjektu asko saturazio moduko batera heltzen dira: asko kostatzen da eraikuntza berriak ateratzea.

Ebaluaziorako egokiak ez diren eraikuntzak baztertea kontseilatu da. Erabilgarriak ez diren eraikuntzak detektatzeko:

1. Eraikuntza iragazkorregiak: eraikuntza orokorregiak dira, konbentientzi eremua zabalegia dutenak, elementu aukeratuen artean botere diskriminatzaile gutxirekin. Adibidez, «gizaki-animalia» eraikuntza ez da oso erabilgarria gertatuko. «Gizon-emakume» eraikuntza ere ez da oso informatzailea gertatuko.
2. Iragazkaitzegiak diren eraikuntzak: aspektu espezifikoeziak hartzen dituzte, konbentientzi eremu oso estuarekin (adibidez: lana delegatzen du-lan gutzia egiten du).
3. Situazio eraikuntzak: elementuen lekutze fisikoarekin erlazonaturiko aspektu batetan oinarritutako diskriminazioak dira (adibidez, auzoa, lurraldea, toki konkretua etab.). Sarritan ez dira batere erabilgarriak.
4. Azaleko eraikuntzak: psikologikoak ez diren edo akzidentalak diren bereizgarriei buruzko eraikuntzak dira. Adibidez: begi urdinak, ilehoria, gorbataaduna...
5. Rol titulu batetik zuzenki eratorritako eraikuntzak: eraikuntza hauek ere ez dira informatzaileak izaten (adibidez, maixua, progenitora...).
6. Eraikuntza lausoak: «biak pertsona onak dira», «biak guay-ak dira» bezalako erantzunak zehaztasunik ez dute. Gehixeago aztertu behar da, balio diskriminatzailea duen eraikuntza den edo disposizio orokor bat bakarrik den jakiteko.

Eremu klinikoan interesatzen diren eraikuntzak, nortasunaren bereizgarriak edo izaera deskribatzen dituztenak, eta elementuen artean egoki diskriminatzen dutenak.

5.4.3. Puntuazio sistemak

Behin elementuak eta eraikuntzak eskuratuta gero, protokoloaren sarrrera bikoitzeko taulan anotatzen dira. Bien ebaketak (intersekzioak) kuadrak edo saretxo bat eratzen du, tresnari izena damaiona. Elementuak bertikalean idatzita daude, goi partean, eta zutabeak definitzen dituzte. Eraikuntzak horizontalean jartzen dira ezkerretan, iladei izena emanaz. Disposizio honen bidez, eraikuntza bakoitza elementu guztien gain aplikatzen da, puntuazio sistema baten bidez. Horregatik eskatzen da, elementu guztiek eraikuntzen konbentientzi eremuaren barruan egon behar dutela. Subjektuak egin behar duena, aukeratutako sistemaren arabera, puntuazio bat ematea, elementu bakoitzak eraikuntza bakoitzari buruz duen situazioa

definituko duena. Kontseilatzen dena: iladak osatuz egin dezala, ezkerretik eskuinera, ilada bat amaitzean hurrengoarekin jarraituz.

Puntuazio sistema zenbait deskribatu dira, bakoitzak bere abantailak eta desabantailak dituela:

a) Sistema dikotomikoak: eraikuntzaren polo batean ala bestean sartu behar dira elementu guztiak. Nahiko mugatua da. Kelly-k iradoki zuen, eraikuntza batean ia elementu denak polo batean sartzen direnean, eraikuntza bazter zedila, diskriminatzeke gaitasun gutxi zuelako.

b) Sistema ordinalak: eraikuntzaren ertz batetik bestera elementuak ordenatzeko eskatzen zaio pertsonari, adibidez, «ondradue»-netik hasi eta «lotsagabe»-eneraino: «Ordena itzazu elementuak ezker polotik eskuin polora, elementu ordnatuenari 1 zenbakia emanez, 2 zenbakia hurrengoari, eta horrela, elementu lotsagabeeneraino.

Sistema ordinalak dikotomikoak baino hobeto diskriminatzen du, baina oinarri gabeko bereizketak egin ditzake elementuen artean. Elementuak gehitu ahala, sistema honen aplikazioa zailagoa gertatzen da. RECORD programarekin, gehienez ere 9 elementuko saretxoak bakarrik konputa litezke.

Saretxoa administratu eta protokoloa bete ondoren, datuak prestatu behar dira, analisi matematikorako.

c) Likert tipoko interbaloen sistema: elementu bakoitzari balore bat ematen zaio, eraikuntzen bi poloek zedarrituriko eskala batetan. Eskala hauek joan daitezke hirutik hamaika edo gehiago interbalotara. Hiru interbalotakoak, zailtasunak dituzten pertsonentzako dira. Praktikan, 7 interbalotako eskala da erabilgarriena.

5.5. KELLY-REN OINARRIZKO POSTULATUA ETA HAMAIKA KOROLARIOAK

Giza jokaera ulertzeko bere moduarekin harremanean, esan dugu, Kelly-ren eraikuntza pertsonalen psikologiak ez dituela kontuan hartzen beste teorietan erabilitako terminoak, hala nola, motibazioa, inpultsuak, premiak etab. Motibazioa eta emozioa ez ditu noraezekoak jotzen, giza jokaera ulertzeko, gizakia naturaz aktiboa baita beretzat. Gizakiak ez du jotzen, premia bat asetzeko, inpultso bat jarraitzeko edo sari bat lortzeko. Gizakia etengabeko jardunean ari da, eta etengabeko elkarreraginean dago inguruneko gertakariekin. Motibazioarena, termino redundante bezala jotzen du, gizakia inerteza dela eta mugimenduan jarriko duen zerbait behar duela aurreuposatzen baitu. Kelly-rentzat, gizakia garapenera eta ekintzara zuzendua dago bitalki eta ez du barne motore baten beharrik, oinarrian aktiboa delako. Eraikuntza pertsonalen teoria aktibazioaren teoriaren antzekoa da: gizabanakoari bariatetate dosi bat atsegin zaio eta desatsegina ematen diote, bai gehiegizko aldaketek, bai aldaketa gabeziak. Organis-

moaren aktibitatearen alderdi diferentziala, gertakariak aurrikusteko moduak emana da, zientzilari batek egingo lukeen bezalako auresatea. Auresate hori bere eraikuntzetatik abiatuz egiteko gai da, gero ta auresate zehatzagoak egiteko esperientziarekin elkarreragin an aldatzen dituela. Ezagutza azpimarratze honek herren uzten du gizonaren ikuskera, aspektu razionala bakarrik kontsideratzen baitu eta teoriak oso gutxi insistitzen baitu sentimendu eta emozioetan. Azalpena behar duena, beraz, ez da hainbeste aktibitatearen iturburua, haren norabidea baizik, jokaeraren bideratzearekin zerikusia duena. Gizakiaren jokaera, gertaerak interpretatzeko eta auresateko duen moduagatik esplikatzen da. Jokaera alternatiba posible guztien artetik, bere iritzian etorkizuneko gertakariak auresateko ziurtasun gehien ematen diotenak aukeratuko ditu. Bere auresatea ez bada behar bezain zehatza izan, auresate zehatza lortu bitartean aldatzen joango da.

Kelly-k proposatzen duen giza funtzionamenduaren eredu a: zirkunsppekzio-eskuratzea-kontrol ziklo bezala deskribatzen du. Zirkunsppekzio garaian, situazioari dagozkion alternatiba posible guztiak kontsideratzen ditu. Eskuratzea: eremua mugatzen du, garrantzitsuak diren eraikuntzekin bakarrik geldituz, eta bere aukera egiten du, situazioari egokien zaiona aukeratuz. Kontrola: auresatea zuzena den egiaztatzen du eta aurrikuspenaren zehaztasunaren arabera, etorkizunerako aldaketak kontsideratzen ditu. Auresatea egiaztatu bada, eraikuntza balidatua da; auresatea betetzen ez bada, eraikuntza inbalidatua da.

Kelly-ren *oinarrizko postulatu a* honako hau da: «*Pertsona baten prozesuak, gertakariak auresateko moduagatik kanalizatzen dira psikologikoki*». Persona baten prozesu guztiak, ageriko jokaera barne dela, etorkizunean gertatuko dena auresateko pertsonak duen moduak determinatuko ditu.

1. *Eraikuntzaren korolaria*: «Pertsonak gertaerak auresaten ditu, haien replikak eraikiz». Eraiki esaten duenean, gertaeren interpretazioa egin esan nahi du. Eraikuntza, gertaerak ikusteko modu bat da, eta horren arabera erregulartasun bat ikusten da haietan. Replika edo analogo horien bidez, pertsonak etorkizunean gertatu behar duten gertaera batzuk auresaten dituzte.

2. *Indibidualitatearen korolaria*: «Gertaerak eraikitze a moduagatik bereizten dira persona batzuk besteetatik». Gizakiak ez dira elkarrengandik bereizten, batez ere, gertaera ezberdinak bizitzen dituztelako, baizik, antzeko historia badute ere, eraikuntz prozesu ezberdinak dituztelako.

3. *Antolamenduaren korolaria*: Persona bakoitzak eraikuntzen sistema bat garatzen du, zeinetan eraikuntzak hierarkikoki antolatuta dauden. Eraikuntzak egitura baten arabera antolatzen dira; eraikuntzek sistema

hierarkiko bat eratzen dute, eraikuntz batzuek goi-mailako eginkizun bat dutela eta besteak haiei menpekotzen zaizkiela.

Gizabanakoen arteko diferentziak ez datoz gertaeren eraikuntzetatik bakarrik, eraikuntza horiek antolatzeko eta ordenatzeko modu bereizitiki ere bai baizik.

4. *Dikotomia korolaria*: «Pertsona baten eraikuntz sistema, eraikuntz dikotonikoen kopuru mugatu batez osatua dago». Kelly-rentzat, errealitatea hautemateko gure moduak, ardatz batzuen inguru egituratzen dira. Ardatz horiek bi polo dituzte: ona-txarra, interesgarria-aspergarria, positibo-negatiboa, goi-behe...). Batek, bi elementuen arteko antzekotasuna adierazten du (antzekotasun poloa) eta besteak (kontraste poloa), aurrekoaren negatibo bezala jokatzen du.

5. *Aukeraketaren korolaria*: «Eraikuntza dikotomiko batetik, pertsona bakoitzak aukeratzen du, bere sistemaren elaborazio handiena (hedadura-definizioa) auresaten duen alternatiba». Arrazonamendua hau izan zen: eraikuntzen eginkizuna gertaerak auresatea bada, eta eraikuntza guztiek bi polo badituzte, gertaerak auresateko garaian, erabilgarriena zaigun poloa erabiliko dugu. Auresate garaian irabaziak lortzea kontzeptua, «sistemaren elaborazioa» kontzeptuarekin adierazten du Kelly-k. Elaborazio honek bi forma posible ditu: definizioa eta hedadura. Definizioa: modu orokorrean auresanak izan diren esperientziaren aspektuak modu zehatzagoan egiaztatuak izatea; gertakari kopuru txiki bat auresateko ahalbidean zehaztasuna lortzea. Hedadura: sistema gertakari berriei aplikatzea, kasu batzuetan hutsegiteko arriskua izan arren.

6. *Aplikazioaren edo eremuaren korolaria*: «Eraikuntzak guztiak egokiak dira gertakarien kopuru mugatu bat auresateko». Eraikuntzek, teoria zientifikoek bezala, konbenientzi zentru hertsia dute eta aplikazio muga jakinak. Aplikazio eremua ezagutzeko, eraikuntzaren bi poloak ezagutu behar dira. Adibidez, ezin jakin dezakegun «errespetu» eraikuntzaren barnean ze gertakari sartuko diren, kontraste poloa ezagutzen ez badugu. Polo oposatua «mexpretxua» bada, jakin dezakegu zein gertakariri aplikatzen zaion.

7. *Esperientziaren korolaria*: «Gertakarien erreplikaren eraikuntza suzesiboarekin aldatzen da pertsona baten eraikuntza sistema». Pertsona baten eraikuntz sistema etengabeko aldaketan dago. Eraikuntzak, hipotesiak bezala, lanerako erremintak besterik ez dira: beren eraginkortasunaren arabera aldatzen dira, esperientziarekin harremanean. Sistemaren aldaketa, gertakarien eraikuntz jarraikorraren arabera gertatzen da, eta ez gertakari beraien arabera.

8. *Modulazioaren korolaria*: «Eraikuntz sistemaren aldaketa eraikuntzen iragazkortasunak mugatua dago; eraikuntzen konbenientzi rangoren barnean sartzen dira aldakariak». Ikaskuntza, eraikuntz pertsonalen sistema osoari menpekotua dago. Eraikuntzen iragazkortasunaren kontzeptua garrantzitsua da teoria osoarentzat. Eraikuntza bat iragazkorra da, bere konbenientzi eremuaren barnean elementu berriak onartzen baditu. Iragazkortasunak ez du lausotasuna adierazten, esperientzia berriak modu diskriminatuan eransteko gaitasuna baizik. Adibidez, Kelly-k honela ilustratzen du korolario hau: pertsona batek «izua-menpekotasuna» eraikuntza erabili du eta bere esperientzian «errespetua-mexpretxua» eraikuntzaz ordezkatzea beharrezko iruditu zaio. Bigarren hau lehenengoaren aldakari bat bezala hartzen da. Aldaketa hau egiteko, beharrezkoa da hierarkikoki bi aldakarien gainekoa den eraikuntza bat egon dadin, bere baitan kontzeptu berria onartzeko behar besteko iragazkortasunarekin. «Heldutasun-umetasun» eraikuntza gainordenatuak bete lezake funtzio hau, adibideko kasuan. Experientziarekin aldakuntza asko jasaten dituen eraikuntza supraordenatu bat, «ona-txarra» eraikuntza da.

9. *Fragmentazio korolaria*: «Pertsona batek erabil ditzake suzesiboki, beren artean inferentzialki ezkontezinak diren eraikuntzen azpistema barietateak». Honek esan nahi du, logikoki bata bestearengandik deduzitzen ez diren azpistemak erabil ditzakeela momentu ezberdinetan, eta beraz, sistemaren antolamenduak ez duela konsistentzi eta logika osorik. Adibidez, aita bat oso txeratsua izan liteke momentu batean seme batekin, eta gero jaramonik egin gabe utzi. Azpistema biok (amodioa/desatxekimendua) logikoki ezkontezinak izan arren, sistema orokorrago baten funtzioan koherentea ager liteke: bi jokaerak biltzen dituen eraikuntza orokorrago supraordenatu baten funtzioan. Adibidez: «heziketza» eraikuntza.

10. *Amankomuntasun korolaria*: «Pertsona batek beste baten esperientzia-eraikuntz antzekoa erabiltzen badu, bere prozesu psikologikoak ere haren prozesuen antzekoak izango dira». Experientzia berdintsuki eraikitzen duten bi pertsonen prozesu psikologikoak ere antzekoak izango dira; baina, bi pertsonak experientzia beretik pasatu behar izan badute, baina modu ezberdinean eraiki badute, prozesu psikologiko desberdinak edukiko dituzte.

Kultura berekoak diren pertsonen aspektu amankomun nagusia: gauza batzuk era berdinean hautematen dituztela. Gizarte arauen ezagutzari esker, errealtatea ikuspegitzeko eta hautemateko era bereziak eta antzekoak dituzte. Neurri batean, antzeko prozesu psikologikoak dituzte.

11. *Gizartekoitasun korolaria*: «Pertsona batek beste baten prozesuak eraikitzen dituen neurrian, hura inplikatzeko duen prozesu sozialean egin-kizun bat betetzen du». Pertsona batekiko egin-kizun garrantzitsu bat bete-

tzeko, gauzak ikusteko bere modua ulertu beharra dago. Harreman garrantzitsua edukitzeko, ez da beharrezkoa esperientzia era berean eraikitzea, batak bestearen ikuskera interpretatzen jakitea baizik. Horrela bakarrik aurrerango dugu besteak egingo duena, eta bere jokaerara egokituko.

Pertsona askoren prozesu psikologikoak ezagutu eta aurreratu dituenak, lider izateko tenorean dago. Liderraren jokareak, besteen jokaera aurreratu eta besteen eraikuntz sistema ulertzeko dependitzen du.

5.6. PROZESUA ETA GARAPENA

Erakuntz pertsonalen teorian, jokaeraren dinamika esplikatzen psikologoek erabiltzen dituzten ohiko kontzeptuak baztertu egiten dira. Kellyren arabera, psikologiaz pentsatzeko modu berri honetan, ez dago ez ikas-kuntzarik, ez motibaziorik, ez kogniziorik, ez estimulurik, ez erantzunik, ez egorik, ez inkonzierik, ez premiarik, ez errefortzurik, ez joerarik.

Esperientziaren buruan eraikuntza asko aldatu, berformulatu edo erabat baztertu egiten dira. Zirkunstantzi hauetan Kelly-k nortasunaren teorian ohikoak diren kontzeptu batzuk aztertzen ditu: larritasuna, mehatxua, etsaitasuna, oldarkoitasuna eta erruduntasuna. Baina, aldagai emozional hauek ez dira, beste teoretan bezala, jokaeraren motore nagusia, aldagai kognitiboen ondoren edo erresultatu baizik.

Larritasuna: gizakiak bizi dituen gertakizun gehienak, eraikuntzen aplikazio eremutik at gelditzen direnean. Larrituak ez daki nola manejatu aurrean duen errealitatea. Bere eraikuntz sistemak ez dio balio gertaerak aurreratzeko, eta baliapiderik ez du haien aurrean funtzionatzeko.

Mehatxua: Pertsona askorentzat, ordurarte bizitza ikusteko izan duten modua aldatzea (eraikuntz sistema aldatzea), beren zirtasunarentzat mehatxua da. Beren sistema eraginkorra ez bada izan ere, edozein sistema hobe da, ezer ez baino. Aldaketa guztiek arrisku bat suposatzen dute. Horregatik, pertsona asko beren eraikuntz sistemari katiatuta gelditzen dira, eraginkorrak izan ez badira ere. Honen ondorenez, etsaitasun sentimendua sortzen da.

Etsaitasuna: esperientzia distortsionatzeko eta porrot iturri izan den aurreratu sozialen batekin kongruente bihurtzeko ahalegin jarraitua. Bere eraikuntz sistemak porrot egin duela errekonoizteak situazio kaotiko batean utziko lukeenez, gizabanakoak horretatik askatzeko duen modu bat bezala aurkezten du Kelly-k etsaitasuna. Situazioa ikusteko modu alternatibo bat aurkitu dugunean bakarrik utziko dugu alde batera etsaitasun sentimendua. Horregatik dio Kelly-k, etsaitasunaren polo oposatua jakinmina dela, besteen ikuspegiakiko interesa.

Agresibitatea: ez da etsaitasunaren berdina. Agresibitatea: norberaren eremu perzeptiboaren hedatze aktiboa. Agresiboki jokatzeko ari den pertsona, bere eraikuntzak balidatu nahian dabil, haien konbenientzi eremua noraino heltzen ote den neurtzen.

Erruduntasun sentimendua: besteekiko duen rolaren oinarritzko egituratik desbideratu izanaren sentimendua. Ez dago eduki etiko jakin bati loturik.

Kontzeptu guzti hauekin Kelly-k azalpen razionalak ematen ditu arazo emozionalentzat. Teoria mentalista bat da Kelly-rena.

Kelly-ren teoriaren arabera, pertsonen eraikuntzek gero ta auresate zehatzagoak egin behar dituzte, horregatik, garapenean aurreratu ahala, haurren eraikuntzek gero ta konplexuagoak izan behar dute. Ondorengo ikerketetan aurkitu zenez, 13 urteko haurren eraikuntzak 7 eta 10 urtekoenak baino konplexuago eta abstraktoagoak zirela. 7 urterekin, hurrek harreman eta gizarte rolaren eraikuntzak (familiarterko izatea, haur edo heldu izatea...) zerabiltzaten, 13 urterekin, berriz, nortasun eraikuntzak (maitakorra, antipatikoa...). Gainera, haurren konplexutasun kognitiboak haurtzaroan bizi izan duten estimuluen konplexutasun mailarekin loturik dago.

5.7. PATOLOGIA

Gizakia zientzilari bezala hartzen duenez, zientzilari txarrak bezala munduarekin erlazionatzen direnei arreta berezia jartzen die: hipotesia lausoatsuak egiten dituzte, frogan jar ezin daitezkeenak; esperientziak egiaztatzen ez dituenen ere ereduak ez dituzte aldatzen; edo bere teoriaren kontra doazen ekintzak distortsionatu egiten dituzte.

Psikopatologiarekin harremanean, beste hurbilketetan bezala, larritasun, bildur eta mehatxu kontzeptuek eginkizun oso garrantzitsua betetzen dute. Garapen sano batek, ezagutz konplexutasun bat edukitzeko gaitasuna ematen die hurrei. Garapen hau txikitandik jaso dituzten estimuluen konplexutasun mailarekin erlazionaturik dago. Beren garapenean zehar, haurren eraikuntzak konplexuago bihurtzen joan behar dute. 13 urteko haurren eraikuntzak 7-10 urteko haurrenak baino konplexuagoak dira. Haurrak mehatxu larri eta iraunkorretara menpekotuak baldin badaude, beren eraikuntzak hertsu egingo dituztela espero liteke, zurrun, hertsatu eta ez oso moldagarri bihurtuz.

Hemen erabilitako beste kontzeptu garrantzitsu batzuk erasoarena, etsaitasunarena eta erruarena dira. Norbere eraikuntz sistema mehatxatua sentitzean, beste pertsonengandik datorkigun informazioa distortsionatzeko ahalegin jarraitua suposatzen du etsaitasunak. Pertsonak bere buruari ezartzen dizkion rol nuklearrak bete ezin izatearen sentimenduek sortzen dute errua. Orokorrean, psikopatologia eraikuntz sistemaren funtzionamendu desordenatu bat eta gertakariei eraikuntz sistema gaizki aplikatzea da. Problema dituen pertsona, bere auresatei lotzen zaien zientzilari ez-eraginkor bat bezala kontsideratua da, aurkako ebidentziaren aurrean ere bere teoria aldatzen ez duena. Eraikuntz sistema oker batekiko atxikimen-

du zurrun honen oinarrian, larritasuna dago, jokaera desordenatu sail bat sorteraizten duelarik.

Nahasmendu psikologikoetako asko eraikuntz sistema erabiltzeko moduarekin erlazioatzera ere iritsi da Kelly. Aukeraketaren korolarioran harzzen badugu, eraikuntz sistemaren gehiegizko hedatzeak edo definizioak, *nahaste maniakoa eta depresiboa* sor ditzakete. Honela, *depresiboaren* kasuan, definizio prozesua exajeratzen du, sistemaren hedadura gehiegi mugatuz, eremu perzeptiboaren gehiegizko herstura sorraraziz. Depresiboek sistema hori hertsitzeko joera dute, beren interesak mugatuz eta ez-konezintasuna minimizatuz, hots, beren eraikuntz sistemak asimila ezin ditzakeen gertakariak minimizatuz. Herstura honen ondorenez sortzen da depresiboa definitzen duen bigarren bereizgarri bat: fatalismoa. Gizakia definitzen duen aurrikuspina blokeatua gertatzen da depresiboarengan. Depresiboak gertakarien rango oso hertsia bat bakarrik interpretatu eta auresan dezake. Depresiboak ezin ikuspegitu dezake orainaldikotik zerbaitetan desberdina den etorkizunik. Etorkizuna erabat determinatua bezala ikusiko du. Fatalismoa du etorkizunarekiko.

Hersturaren eta beronen ondorio txarren kasurik ertzekoena norbere buruaz beste egiten duenarena da. Heriotzarekin bizitza balioztatu nahi du, eta soluzio horretara jotzen du, mundua auresan ezinezko gertatzen zaiolako (eraikuntzak desantolatuak dituelako) edo bere aurrikuspenak erregularregiak eta interes gabekoak iruditzen zaizkiolako. Suiziden eraikuntzak normalenak baino desantolatuagoak eta hertsatuagoak dira (Landfield, 1976). Nolanahi ere, azterketa transbertsalak bakarrik egin direnez, ez dakigu desantolamendua edo hertsadura suizidio saioaren aurretik edo ondoren gertatzen diren.

Maniaren kasuan, pertsonak eraikuntz zabalegiak erabiltzen ditu eta eremu perzeptiboa gehiegi hedatu nahi du, bere sistemaren dilatazioa gertatuz. Maniakoek zabaldu egiten dituzte eraikuntzak, eta gai batetik bestera jauzi egin dezakete, elementu oso gutxi generalizazio borobilak eginez.

Pertsona *konpulsiboek* iragazkaitzegeiak egiten dituzte eraikuntzak, elementu berriak ez onartzu eta egokitzen ez zaien gutzia baztertuz. Obsesiboen eraikuntz sistema hain iragazkaitza izatean, esperientzia berri bakoitzeko kajoitxo berri bat behar dute. Elkarrekin inferentzialki ezkontezinak diren eraikuntza azpisistemen barietatea hain da zabala, zaila gertatzen zaiela eraikuntza supraordenatuak aurkitzea, konsistentzia orokor bat mantentzeko iragazkorrak edo irekiak direnak.

Orokorrean, eraikuntzak modu malgugian edo modu zurrungian erabiltzean datza psikopatologia.

Gaixo psikiko bat, Kelly-rentzat, trebea ez den zientzilari bat da, bere auresate okerrei kateaturik dagoena et aldatzen ez dituen, nahi eta etengabeko porrotek bere teoriaren kontrako ebidentziak eskaini. Gertaerak alde batetik doaz eta bere teoria bestetik. Situazio berriari dagokion eraikuntzarik ezean, larritasunak kaosean murgiltzen du. Neurotikoa

eta psikotikoak soluziobide tenporal bat ematen diote beren larritasunari, baina mozorrotu arren, hor jarraitzen du larritasunak, azalertzeko arriskuarekin.

Sintomak, larritasuna desagertarazteko erantzun desegokiak besterik ez dira. Gizabanakoak ezberdinki jokaten dute larritasunaren aurrean. Hortik, sindrome ezberdinak.

5.8. ALDAKETA EDO TERAPIA

Kelly-rentzat, auresate hobeak lortzeko eraikuntza sistema berriak eta hobeak ezartzen direneko prozesua da terapia. Psikoterapia, eraikuntzen sistemaren berreraikuntza prozesua da. Eraikuntza batzuk beste batzuez aldatzea, batzuk errefortzatzea, besteak iragazkortzea edo iragazkaiztea etab. inplikutzen du honek. Pazienteak eta terapeutak haren kontzeptu teorikoak analizatzen dituzte, eta bizitzako gertakariei hobeto egokitzen zaien eredu bat formulatzen saiatzen dira.

Eraikuntza berrien elaborazioa hiru baldintza hauek errazten dute:

1. Esperimentazio giroa.
2. Elementu berrien horniketa.
3. Bezeroen eskura datu balidatzaileak jartzea.

Lehena da garrantzitsuena. Terapia gela «laborategi terapeutiko» bihurtu behar da. Pazientea hipotesi berriak kontsideratzera, bere buruaren zientzilari bihurtzeko experimentu berriak egitera inbitatuko da. Terapia esperimentazio mota bat bezala kontsideratzean datza, zeinetan eraikuntza berriak frogan jar baitaitezke, derrigortzerik gabe.

Bigarrengoan, subjektuak zaindu ez dituen datuak kontuan hartzen dira, eraikuntzak osatzeko edo eraikuntza berriak egiteko. Aurreko eraikuntzetan isladatzen ez ziren elementu berriak sartzen dira.

Azkenik, pazientearen eskura datu balidatzaileak jarri behar dira, eraikuntza zaharren egiaztapena edo berrien balidapena errazteko. Emaitzen ezagutza erabakiorra da ikaskuntza berriak ezartzeko. Eraikuntza berrien egokitzapenaren erreferentzi puntu bezala serbitzen du terapeutak.

Guzti honi zentzuna emateko, Kelly-k teknika terapeutiko berezi bat garatu zuen: «*rol finkoaren terapia*». Gauzak beste modu batera ikusten lagundu behar zaio pazienteari. Berreraikuntz prozesua da: elementu berriak onartzen ditu, erabilgarriak ez diren beste batzuk batertu eta bere burua modu desberdinetan erreprestatzen du. Erreprestatzen duen pape-raren antzekoa dela gizabanakoa pentsatzen du Kelly-k. Horregatik eskatzen zaio pazienteari, autokarakterizazio bat lantzeko. Horrela, pazienteak bere buruaz duenaren irudi alternatibo bat lantzen du terapeutak eta pazienteari eskatzen dio, pertsona hori balitz bezala bere ingurunearekin erlazionatzeko. Bizitzaren arlo desberdinetan jokatu behar du pazien-

teak rol hori. Zertarako egiten da hau? Errealitatea ikusteko modu batean harrapatua dagoela, baina ez dela modu bakarra ez eta onuragarriena ere erakusteko.

Terapia honetan, bere burua modu desberdinetan errepresentatzera animatzen da pazientea, fikzio bat bizi dezala, «balitz bezala» joka dezala. Terapeutak, bezeroaren ondoan, nortasun berri baten zirriborroa definitzen du eta pertsona hori balitz bezala, ekintzan jartzera inbitatzen du bezeroa. Kelly-k pentsatzen zuen errazagoa zela jokaera oso desberdinak «errerepresentatzea», baita aurkakoak ere, subjektuari hurbilak zaizkion haiek baino. Prozesu honen helburua, «konbultsionatzea» eta ordurarte ezezagunak ziren prozesuak martxan jartzea da, eraikuntzen sistema osoa ukituko duten prozesuak. Terapia honen asmoa ez da doiketa txikiak egitea bakarrik, aldaketa globalak egitea ere bai baizik. Nortasunaren berre-raikuntza osoak egitea ere bai. Papera denboraldi batez bete behar da eta saio terapeutikoetan entsaiatua, zuzendua eta berrikusia izan daiteke; terapeutak zuzpertzeko du eta erreferentzi puntu bezala serbituko dio, aldaketarako erresistentzi situazioetan laguntzen diola. Ez da hain garrantzitsua «norbera» izatea, pozik aurkitu artean paper desberdinak betetzeko gai izatea adina, eta besteei nahiz norberari buruz auresateak egin ahal izatea adina. Geroago, ideia guzti hauek «rolen jokoa» izeneko jokaera terapian bilduak izan dira; «rolen jokoa», entrenamendu asertiboko terapia garrantzitsuenetakoa da.

Rol finkoaren terapia hau ez da Kelly-k erabili zuen bakarra, ez eta gehien erabili zuena ere. Hamabost kasutik batean bakarrik erabili zuen. Beste kasuetan, psikanalisia eta jokaera terapia erabili zituen.

5.9. TEORIAREN BALIOZTATZEA

Korolario batzuen balidezia izan da aztertua:

— *Indibidualtasunaren korolarioak* aldeko datu ugari ditu. Pertsonak, datuak kategorizatzeke moduagatik bereizten dira, eta eraikuntza modu indibidual hauek nahiko egonkorak eta gertakarietatik independenteak dira. Gizabanako baten eraikuntzen ezagutzak, gizabanako horren ezagutza hobera eramaten gaitu, beste pertsonak berataz egiten duten deskribapenak baino.

— *Dikotomiaren korolarioari* buruz eztabaida dago. Lehen ikerketek korolarioa egiaztatzen zutela bazirudien ere, gerora aurkitu zuten, subjektuen sortutako eraikuntzen % 25ek bakarrik zutela erabilkera dikotomiko garbia eta % 75 inguruk erakusten zutela erabilkera dikotomikorako joera sustantziala. Geroago ikusi zen subjektuen elizaturiko eraikuntzen erdiak bakarrik zirela modu bipolarrean erabiliak, Rep Grid bateko elementuak ebaluatzeke. Erabilkera dikotomikoaren kontrako datu hauek, dikotomia

korolariora baztertua izan behar lukeela esatera eraman dute autore bat baino gehiago.

Dikotomiaren korolariora erlaxatu egin beharko litzatekeela esaten da gaurregun eta eraikuntzak nahitaez diktomikoak ez dutela izan behar edo eraikuntza batzuek bitarteko balioak eduki ditzaketela onartu.

— *Esperientziaren korolariora* dexente aztertua izan zen 50 eta 60 hamarkadetan. Azterketa guzti horiek erakutsi zuten eraikuntz sistema aldatu egiten dela esperientziarekin eta aurrerata okerretara garamatzaten eraikuntza gehiago aldatzen direla, aurrerata zuzenetara garamatzatenak baino (Bonarius, 1965). Ikerketa bide hau ez da berriro orduz geroztik.

— *Amankomunitasunaren korolariorak* apoioa aurkitu zuen 50 eta 60 hamarkadetako ikerketetan, gertaerak erakitzeko modu antzekoak edukitzeak komunikazio pertsonalaren gehitzea dakarrela agertu baitzuten. Geroago, lagunaren arteko eraikuntzen antzekotasunei buruzko ikerketek, amankomunitasun korolarioraren aldeko datu enpirikoak ekarri dituzte.

11 korolarioretatik 4 bakarrik izan dira sistematikoki aztertuak.

6

Nortasunaren azterketarako hurbilketa fenomenologiko-humanista: Rogers-en selfaren teoria

6.1. SARRERA

C. R. Rogers eta A. H. Maslow dira ikuspegi humanistaren ordezkari nagusienetakoak. Psikanalisiaren eta konduktismoaren aurrean, Hirugarren Indarraren alternatiba agertu nahi izan zuten, subjektibitatea, norberaren aktualizazioa, sormena, benetakotasuna, balioak, giza harreman esanguratsuak eta antzeko kontzeptuak azpimarratuz.

Psikologia humanistaren ikuspegitik gizabanako bakoitza osotasun bakar, antolatu eta integratu bezala hartu behar da. Ikuspegi holista honetatik, elementuak ezin dira esplikatuz, osatzen duten konfigurazio osotik kanpora. Holismoarentzat, ez da egokia gizakia fragmentatzea; horregatik oposatzen zaio konduktismoaren elementalismoari. Era berean, batasun psikosomatiko da gizakia. Ez du onartzen nortasuna zati konziente eta inkonzienteetan banatzerik, psikanalisiak egiten duen bezala.

Humanistentzat, gizakia izaera ona da funtsean. Bortxa eta ezabamenduak ez dira gizakiaren barnetik sortzen diren bereizgarriak, ingurunearen emaitzak baizik. Gizakia aske eta bere jokaeraren arduradun da: ez dute determinatzen ez kanpoko baldintzek (konduktismoarentzat bezala), ez barneko indar irrazionalek (psikanalisiarentzat bezala).

Psikologo humanistarentzat, gizakia proaktiboa da, hau da, gizakiak ekin egiten du; gizakia ez da erreaktiboa. Gizakia ez dago inguruneak edo barneko indarrek determinaturik, baizik helburuek gidatzen dute (ikuspegi teleologikoa).

Greziako filosofian ideien munduaren eta mundu behagarriaren artean bereizten zuen Platon-ek. Ideien mundua zen benetako mundu erreala; hautematen dugun mundua haren itzala besterik ez da.

Immanuel Kant-ek noumenoaren eta fenomenoaren mundua bereizten zituen. Noumenikoaren bidez, objektuak berez diren bezala, gure sentipenetatik independenteki azaldu nahi dira. Fenomenoaren bidez, objektuak esperimentatzen ditugun bezala, subjektuari aurkezten zaizkion bezala agertu nahi dira. Noumenoaren mundua ezaguezina litzateke Kant-entzat. Kausalitaterik edo determinaziorik ez legoke han. Gizakiaren aspektu moralak, aukeraketa eta ardura, noumenoaren munduan kokatzen zituen Kant-ek. Naturako gertakari fisikoak, berriz, fenomenoaren munduan; mundu hau ezagugarria da, ezagu daiteke, eta kausalitatea nahiz determinismoa hor kokatzen dira.

Carl R. Rogers (1902-1986), hurbilketa fenomenologikoaren ordezkari nagusietako bat da. Ikuspegi fenomenologikoak bere osotasunean, zatiatan disezionatu gabe, aztertu nahi du gizakia.

Gizakiak modu berezian hautematen du ingurunea eta hautemate horiek osatzen dute bere eremu fenomenikoa. Eremu fenomeniko horrek perzeptio konziente eta inkonzienteak, sinbolizatuak eta sinbolizatu gabek, biltzen ditu. Ingurunea hautemateko modu horrek determinatzen du gizakiak inguruneari erreakzionatzeko duen modua. Baina, jokaeraren determinatzaile nagusiak, perzeptio sinbolizatuak edo sinbolizagarriak dira.

Rogers-entzat, gizakiaren mundu fenomenologikoak, termino konziente eta sinbolizatueta bizi duenak, jokaera ulertu eta auresateko beharrezko diren elementu guztiak baditu. Baina, ez zion behar besteko garrantzirik eman eremu fenomenologikoaren eta indar inkonzienteen arteko harremanari. Esan behar da, hala ere, Rogers-entzat, ikuspegi fenomenologikoa ez dela psikologiako ikuspegi bakarra, eta ikerketa enpirikoari loturik joan behar duela.

Roger-en teoria fenomenologikoa, nortasunaren teoria baino gehiago, psikoterapiaren eta jokaeraren aldaketa prozesuaren teoria da.

Rogers-en teoriak baditu pertsona guztientzat aplikagarriak diren aspektuak, baina gizabanakoen arteko diferentziak eta gizabanakoen funtzionamendu globala aztertzeke balio du, batez ere.

Hiru aspektu azpimarratu behar dira Rogers-en teorian:

1. Norberaren kontzeptua (selfa), nortasunaren kontzeptuarekin berdindu litekeena. Arreta handia jarri zuen Norberaren kontzeptuan eta harekin erlazionaturiko harremanetan.
2. Inkonzientea eta irrazionalitatea azpimarratzen duten hurbilketen aurrean, razionaltasunaren eta kontzientziaren nagusigoa gizakia-rengan.
3. Ingurunearen perzeptioa eta ezagutza subjektiboa.

1902an jaio zen Oak Park-en (Illinois). Ongi egindako lanerako zale-tasuna eta gai etiko eta moralekiko ardura irakatsi zizkioten familian. Wisconsin-go Unibertsitatean nekazaritza ikasten hasi zen, baina laster eraba-

ki zuen ministrari protestante izatea. New York-eko «Union Theological Seminary-n» teologia ikasi zuen. Geroago, seminarioa utzi eta psikologo kliniko egitea pentsatu zuen. Columbiako Unibertsitateko Teachers College-n ikasi zuen, eta han lortu zuen doktoregoa 1931n.

Formazio akademiko bariatua eduki zuen, beraz, ez psikologiko hutsa. Metodo zientifikoarekiko begirune handia eta osagai etiko indartsua garatu zizkion formazio horrek. Ohio, Chicago eta Wisconsin-go Unibertsitateetako irakasle izan zen, eta bere formazio eta interesak norabide klinikoan garatu ziren nagusiki.

1968 urtean, Jokaeraren Zientzien Institutuko kide humanistenekin batera, Institutua utzi eta «Pertsonaren Estudiorako Zentrua» eratu zuten. Psikologiari egin zion ekarpen nagusia, «pazientearengan zentratutako terapiaren» edo «pertsonarengan zentratutako terapiaren» garapena izan zen; terapia horretatik eratorritzen da bere nortasunaren teoria, baina terapiatik bereizi gabe; horregatik, sarrera honetan, etengabeko erreferentziak egingo dizkiogu aspektu terapeutikoari.

1946tik 1947ra bitartean, Psikologiaren Elkarte Amerikarraren Lehendakari izan zen. Zientziari eginiko ekarpenengatik behin baino gehiagotan saritua izan zen. Sari horietako bat jasotzean (1972), honela azaldu zuen bere lanaren ekarpena: «Une zehatz batetan ideia bat agertu nuen, eta ideia hori, uretara harri bat botatzean uhinak hedatzen diren bezala hedatu zen. Ideia honetan datza: gizabanakoak badu bere baitan nahikoa baliapide bere bizitzaren ibilia aldatzeko, eta baliapide hauek mobilizatuak izan daitezke, giro egokia dagoela suposatuz».

Kualitate sail bat aitortu behar zaio Rogers-i. Egiten zituen lanetan bere burua isladatzeak ez zion bildurrik ematen: bere liburuetan gertaera biografiko garrantzitsuak kontatzen ditu; horretaz gain, bere lana ezagutu eta analizatzeko bitarteko guztiak jarri zituen, bere entrebista klinikoak bideoetan grabatuz. Bila zebilena aurkitzeko beharrezko baliotzat zeukan zuzentasuna; horregatik, ez zuen bildurrik eta ez zituen bere prozedurak gordetzen.

Eskola psikologiko orok, badu atzean korrante filosofikoren bat edo gehiago, harengan eragina duena. Rogers-en kasuan, existentzialismoaren eta fenomenologiaren eragina nabarmentzen da. Bere teoria, bere esperientzia kliniko pertsonaletik ihalgitzen da, bere esperientziak eta bizitza modu apasionatuan hezurramituz (plasmatur). Jarrera fenomenologiko honekin adostasunean, modu berezian eta bakarrean hautematen du barne eta kanpoko errealitatea, beste subjektuengandik modu independentean, esanahi propioa emanez. Perzepzio hauek bere eremu fenomenologikoa eratzen dute, eta subjektua eremu hori konzienteki sinbolizatu eta tratatzeko gai da eskuarki.

Rogers-en bizitzan oso loturik agertzen dira teoria eta gizakia. Bere teoriaren osagai asko biltzen dituzten hamalau printzipio hauek ematen dizkigu:

1. Pertsonetikiko nire harremanetan ikusi dut, luzera ez didala ezertarako balio benetan ez naizenaren itxurak egiten ibiltzeak.
2. Eraginkorrago dakust neure burua, neure burua entzuten eta onartzen dudanean, eta neu naizenean.
3. Beste pertsona ulertzen saiatzea oso onuragarria dela ikusi dut.
4. Besteak bere sentimenduak eta bere perzeptzio mundu pribatuak komunikatu ditzan bideak irekitzeak asko aberasten nauela ikusi dut.
5. Beste pertsona onartu ahal izatea oso sariztailea dela aurkitu dut.
6. Nire eta bestearen errealitateari zenbat eta irekiago egon, «finko» denaren bilaketan ibiltzeko desira gutxiago dudala ikusi dut.
7. Nire esperientzian konfia dezaket nik.
8. Bestearen ebaluapenak ez dira niretzat gida..., pertsona batek baka-rik jakin dezake, egiten ari naizena ondradua, kontzientziakoa, irekia eta zentzuduna, ala, alderantziz, defentsiboa eta zentzugabea den, eta pertsona hori ni neu naiz.
9. Niretzat, esperientzia da autoritate gorena... Hartara itzuli behar dut etengabe, egiarengana hurbiltzeko, neu bihurtzeko prozesuan gertatzen den bezala.
10. Esperientziaren ordenua aurkitzen gozatzen dut.
11. Gertakariak dira nire lagunak... berrantolamendu mingarriak irakaskuntzaren izenaz bataiatzen ditugu.
12. Pertsonalena dena da orokorra..., gutako bakoitzaren pertsonalena eta bakarrena da, besteekin konpartituz gero, haiei gehien adierazten diena.
13. Dudan esperientziak dioenez, pertsonak funtsean positiboan den norabide bat dute... Sentitu ahal izan dudanez, pertsona bat zenbat eta osokiago ulertua eta onartua, are ta nabarmenagoa du bizitzan agertzen duen babeski faltsua alboratu eta aurreranzko norabidean mugitzeko joera.
14. Bizitza, betea denean, prozesu jariatkorra eta aldakorra da, ezer fin- korik ez duena. (Rogers, 1974)

Ikuspegi baikor horretatik, Rogers-entzat, gizakiak autoaktualizatzeko, gizarteratzeko eta aurrerapenerako joera berezkoa du. Psikanalisiaren ikuspegitik, gizakia irrazionala, asoziala eta suntsikorra bezala agertzen da, baina Rogers-entzat, horrelako pertsona neurotikoa litzateke.

Rogers-ek hiru ezagutza mota bereizten ditu, erabili den metodoaren arabera:

1. Subjektiboa.
2. Objektiboa.
3. Pertsonartekoa.

1. Pertsonaren esparru indibidualizatu subjektibotik ihaltzen dena da lehena. Gure erreferentzia esparru propiotik ezagutzen ditugu gauzak.

2. Bigarrenean, aspektu subjektibotik abiatzen bada ere beti, beste pertsonekin edo prozedura objektibagarriekin (esperimentalak edo estatistikoak) kontrastatzen da informazioa.

3. Pertsonarteko ezagutza, gure besteekiko gaitasun «enpatikoa» garatzean ekoizten da. Beste pertsonaren mundu fenomenikoa ezagutzeko, gure trebetasun enpatikoak darabiltzagu. Ezagutza modu hau ezagutza fenomenologiko deitzen du, eta psikologia zientziaren zati da. Ezagutza mota hau, besteak bezain onargarria jotzen du, eremu klinikoan hain garrantzitsuak diren esperientzia subjektiboko gertakariak ulertzea ahaleztazen diolako. «Zientzia positiboaren eredua» ez da bakarra ez eta egokiena ere Rogers-i interesatzen zaizkion gertakariak ezagutzeko. Halaz guztiz ere, ez du aldebatera utzi, eta saiatu da hipotesiak eraiki eta enpirikoki egiaztatzen, eraikitako kontruktoak operazionalizatzuz.

Rogers-entzat, hiru metodoak erabili behar ziren, jarrera zientifikorako erret-biderik ez dagoelako. Harentzat, materiale klinikoak datu fenomenologiko baliotsuak ematen ditu. Bere abiapuntua materiale klinikoa da; aurrera egin ahala, ikerketa zientifikoan sakon litekeela iruditzen zaio. Terapia klinikotik ateratzen ditu bere hipotesiak eta ikerketa objektiboaren bidez egiaztatzen edo gezurtatzen. Subjektiboaren eta objektiboaren arteko leizea betetzen saiatu da.

Rogers-entzat, bere teoria ez zegoen erabat zedarritua. Lan zabal batek denbora asko eskatzen zuen beretzat; horregatik, beti utzi zuen atea irekita, etengabeko aldaketaren prozesuan osagai berriak integratzeko.

6.2. SELFAREN TEORIA

Rogers-en nortasunaren teoria lau gai garrantzitsuetan oinarritzen da: ardatz zentrala nia da, esperientzien mekanismo bezala, ezagutzaren objektu bezala, prozesu bezala baino gehiago; nia, hiru zutaberen gain oinarritzen da: autoerrealizazioa, autokontserbazioa eta autohobekuntza.

Rogers-en nortasunaren teoriaren kontzeptu giltza «self-arena» edo norbereburuarena da. Gizabanakoak kanpoko objektuak hauteman ditzake, eta norberaren barne esperientziak ere bai; barne esperientzia hauetan, subjektua bera da, aldi berean, objektu. Pertsonari loturik agertzen diren perzeptzio eta esanahi partikularrek Self-aren eremu fenomenikoa osatzen dute. Self-arekin oro loturik agertzen den beste kontzeptu bat, Self Ideialarena edo Norbera Ideialarena da. Pertsona batek eduki nahiko lukeen norbereburuaren kontzeptua da; self-arentzat garrantzitsuak diren perzeptzio eta esanahiak biltzen ditu.

Rogers-ek dioskunez, hasieran bere teoriak ez zuen norbereburuaren kontzepturik. Hasieran pentsatu zuen deitura lausoa eta esanahi zientifikorik gabea zela. Baina, bere bezeroak beren problemei buruz hitzegiten entzun zituenean, beren buruei sarritan egiten zietela erreferentzi ikusi

zuen. Rogers-ek norbere buruaren kontzeptuaren definizio operatibo baten beharra ikusi zuen. Magnetofonoz grabatu zituen elkarrizketa terapeutikoak eta self-ari zegozkion terminoak sailkatu zituen, edukinaren analisia eginez. Azterketa horretatik ateratako kategoriek fidagarritasuna bazuten, eta terapiari zehar aldaketak jasaten zituzten. Ondoren, Q teknika erabili zuen (Q teknikan, subjektuak norbereburuari buruzko esaldi sail bat kategorietan banatu behar ditu, bereizgarrietik bereizgarritasun gutxienerako kategorietara. Q teknikak, self errealari eta self idealari dagozkien esaldien neurketarako indize bat du; self bion arteko desadostasunak eta biotan gertaturiko aldaketak neurtzen ditu. Q teknikak datu garrantzitsuak ematen ditu subjektuaren eremu pertzeptulaz, baina, esperimendatuak emaniko esaldiak darabiltza, eta ez da erabat fenomenologikoa den txostenik ematen.

Izenlagunen zerrendak eta diferentzial semantikoa ere erabili izan dira selfari buruzko txosten subjektiboak lortzeko. Izenlagunen zerrendatan, bere buruari aplikatzen zaizkiola uste duen izenlagunak seinalatzen ditu subjektuak; diferentzial semantikoa, selfa eta self idealala bezalako kontzeptuak ebaluatzen ditu, ona-txarra, ahula-indartsua bezalako izenlagun bipolarren bidez. Tresna hauen bidez niari buruzko datu fidagarriak lortu izan dituzte ikerlariek.

6.3. PROZESUA

Rogers-ek aldaketa gehiago azpimarratzen du, nortasunaren egitura baino. Egiturako kontzeptu gutxi ditu Rogers-en nortasunaren teoriak. Gizakia, aurreranzko etengabeko mugimenduan dago; autoaktualizaziorako joera du: bulkadaren gutxitzea baino areago, autoaktualizaziorako joera hau da jokaeraren motorea eta bizitzari zentzuna damaiona. Motibaziozko kontzeptu abstraktoetara jotzea baino nahiago izan du, bizitza prozesu aktibo bezala ulertzea. Aktualizazioaren kontzeptuak hazkuntzarako joera suposatzen du gizakiarengan; joera horrek eramango du egitura simple bat edukitzetik egitura konplexu diferentziatu bat edukitzera, dependentziazatik independentziara, finkotasunetik mugikortasunera, zurruntasunetik malgutasunera. Autoaktualizazioaren prozesuan tentsioen gutxitzea baldin bada-go ere, hazkuntza pertsonaletik eratorritako asebetetzea garrantzitsuagoa da oraindik. Aktualizazioaren konstruktoak organismoaren jarduera sortzailea asko azpimarratzen du. Haur osasuntsu bat fisikoki normalki garatu eta haziko den bezala, elikurik falta ez bazaio, eta bere berezko eboluzioa hazkuntzaranzkoa den bezala, giro positibo batean bizi den subjektuak ere, autohazkuntzara berez joko du, hazkuntza pertsonala berez gertatuko zaio. Pertsonak baditu bere baitan bere bizitzaren ibilbidea aldatzeko adina baliabide, eta balibide hauek mobilizatuak izan daitezke, giro egokia dagoela suposatuz.

Rogers-en teoriaren zati bada ere, autoaktualizaziorantz doan organismoaren kontzeptua ez da enpirikoki ikertu eta egiaztatu. Ikerketan garrantzi gehiago hartu dute autokonsistentziak eta self eta esperientziaren arteko kongruentziak. Rogers-en arabera, bere autoperzepzioekin koherente izaten eta norbereburuaren perzepzioaren eta esperientziaren artean kongruentzia mantentzen saiatzen da pertsona.

Autokonsistentziaren kontzeptua Lecky-k sortua da. Nortasuna, bata bestearekin konsistenteak diren balioen antolamendu bat da. Antolamendu horren integritatea eta batasuna mantentzen saiatzen da gizabanakoa, bere jokaera irrazionala eta nahastua dela iruditzen zaigunean ere. Antolamendu horrek bi eginkizun emango dizkio: batetik, barneko armonia mantendu, ideien eta interpretazioen konsistentzia mantendu barnean; bestetik, beren adimenaren eta ingurunearen eta esperientziaren arteko armonia gorde.

Rogers-en arabera, pertsona inkongruentzia egoeran aurkitzen da, bere selfaren eta esperientzia errearen artean desadostasun bat esperimendatzen duenean. Adz. pertsona batek altruista bezala kontsideratzen badu bere burua, eta sentimentu berekoiak esperimendatzen baditu, inkongruentzia egoeran aurkituko da. Horrek, nahasketa eta barne tentsioa sortuko dizkio. Inkongruentzia hori gertatzen denean, baina pertsona horretaz konziente ez denean, larritua sentitzen da. Esperientziaren eta selfaren arteko desadostasunaren emaitza da hori.

Pertsonak bere esperientziarik gehienak sinbolizatu egiten ditu, kontzientziara sarrera emanez. Hala ere, haietako batzuen sinbolizazioa eragotz dezake, kontzientziara sarrera eragotziz. Subzepzioaren prozesua aipatzen du hemen Rogers-ek. Gizabanakoak estimulu bat esperimendatu dezake, bere kontzientzian sartu gabe. Pertsona batek esperientzia bat hauteman eta mehatxu bezala sentitzen badu, hau da, bere buruaren kontzeptuarekin gatazkan sentitzen badu, sinbolizazioa ukatu egingo dio. Selfaren eta esperientziaren arteko kongruentzia gordetzearren, esperientzia batzuei ez die kontzientziara sartzen uzten. Horrek larritasuna sortzen du berarengan.

Organismoa saiatzen da bere buruaren kontzeptua babesten. Selfarekin ados ez datozen esperientzia mehatxatzaileen aurrean defentsa altxatzen du. Bi defentsa prozesu deskribatzen ditu: esperientziaren esanahiaren distortsioa eta esperientziaren ukazioa. Ukazioan, esperientziaren sinbolizazioa eragozten da, horrela selfaren egitura mehatxutik askatuz. Distortsioan, esperientzia kontzientzian sartzen da, baina selfarekin konsistentea den modu batean. Adibidez, self kontzeptuaren arabera ikasle txarra banaiz, nota onak jasotzen ditudanean, «sorte ona izan dudala» edo «irakaslea zoraturik dagoela» esango dut, esperientzia distortsionatuz.

Autoperzepzioa, defentsa perzeptiboa eta doiketa ikertuz, zera aurkitu zen: subjektuek denbora gehiago behar dute beren nortasunerako garrantzitsuak diren estimulu mehatxatzaileak hautemateko, estimulu neutroak hautemateko baino.

Autokonsistentziak oroitzapenean zituen ondorenak aztertu ziren eta zera ikusi zen: beren selfarekin konsistenteak ziren izenlagunak hobeto gogoratzen zituztela subjektuek, beren selfari arrotz zitzaizkion izenlagunak baino. Pertsonak, beraz, bere buruaren kontzeptuarekin adostasunean dagoen jokaera agertzeko joera du.

Horretaz gain, Rogers-ek agertzen du kontsiderazio positiboaren premiaren kontzeptua ere. Premia honek, berotasun, amodio, begirune, sinpatia eta onarpenezko jarrerak biltzen ditu. Gurasoek haurren baldintzagabeko kontsiderazio positiboa egiten badute, haurrak ez du bere esperientziak ukatu beharrik izango. Gurasoen kotsiderazio positiboa baldintzatua baldin bada, bere esperientzia prozesua alde batera utziko du haurrak; selfaren eta organismoaren artean leize bat sortuko da. Bere buruaren kontzeptu faltsua osatuko du. Gurasoen maitasuna kontserbatzearen, berak sentitzen ez dituen balio eta perzeptioak, bereak balira bezala, barneratuko ditu haurrak.

Rogers-ek niaren inguru biratzen duen bere nortasunaren teoria zedarritzeko hogeita bi proposizio formulatu zituen, oinarritzko osagai bezala honako hau jarritz: gizabanako bezala gizakiaren batasuna. Hona hemen proposizioak:

1. Gizabanako guztiak, etengabe aldaketan ari den esperientzien mundu batetan bizi dira, eta beraiek dira mundu horren erdigune. Mundu guztia-erentzat globala den esparru batean gertatzen badira ere esperientziak, modu indibidualizatuan hautematen dira eta ingurunea etengabe aldatzen ari da.

2. Esperimentatzen eta hautematen duen bezala erreakzionatzen du organismoak ingurunearen aurrean. Sistema perzeptual subjektiboa da errealitatea ezaguarazten duena. Objektuak ez dira zuzenki ezagutzen.

3. Organismoak osotasun bezala erreakzionatzen du eta eremu fenomeniko horretan integraturik dago.

4. Inguruneak eskaintzen dizkion esperientzien bidez autoerrealizatzen, autokontserbatzen eta autohobetzen da organismoa.

5. Hautemandako eremuan esperimentaturiko premiak modu indibidualizatuan eta globalean asebetetzen saiatzen denean sortzen da jokaera.

6. Pentsamendu, emozio eta jokaeraren arteko harremana kontsideratzean, Rogers-ek pentsatzen du, emozioak lagundu eta erraztu egiten duela helburu baterantz zuzenduriko jokaera. Bilaketa alderdiekin erlazionatzen da nagusiki, eta organismoa kontserbatu eta hobetzeko hautemandako garrantzirik datorkio bere intentsitatea.

7. Jokaera ulertzeko posiziorik onena, gizabanako beraren barneko erreferentzia esparrua da. Honek introspekzioaren muga metodologikoak handiagotzen dituen arren, ezinbestekoa da, ikuspegi honetatik, subjektua-erentzat garrantzitsua dena, beste batentzat ez delako. Ezberdinak izan arren, gizakiek kidetasunak dituzten neurrian, beste pertsonaren kidetasun introspektiboak ulertu eta neurri batean sentitu ere egin ditzakete.

8. Garapen ebolutiboan zehar, nia bereizten doa ezarian ezarian, eremu perzeptiboaren zati bezala.

9. Ingurunearekiko elkarreraginaren emaitz bezala eta erreferentzia sozialaren esparruaren barnean, niaren egitura eratzten da; niaren luzapen materialaren («nire») bereizgarriak hautematen dituen patroik kontzeptual egituratu, jariakor eta iraunkor bezala eratzten da.

10. Esperientziak subjektiboki baloratuak dira, baina balorazio sistema norberak eraikia edo kanpotik barneratua izan daiteke, hau da, beti esperientzian du jatorria.

11. Niarekin harremanean, esperientzietan hiru bide jarrai ditzakete, autoadostasuna lortzeko:

- a) Sinbolizatu egiten dira: modu konzientean hautematen dira eta niarekin harremanean antolatzen dira.
- b) Baztertu egiten dira, subjektua haieran inplikatu sentitzen ez delako. Niaren lehen prozesu babestailea da: esperientziaren ukazioa. Beraz, sinbolizaziorik ez da gertatzen.
- c) Niaren egiturarekin ados ez etortzean, modu distorsionatuan sinbolizatzen dira. Esanahiaren distortsioa da bigarren prozesu babestailea: esperientziari kontzientziarako sarrera baimentzen dio, baina selfarekin konsistente izan daitekeen modu batean. Bramel-en ikerketa interesgarri batetan (argitaratu gabeko tesi doktora) agertzen denez, autoestima baxuko pertsonen errazago onartzen dute beren nortasunari buruzko informazio negatiboa, autoestima garaia dutenek baztertu eta beste pertsonengana proiektatzen duten bitartean.

12. Bere buruarekin ados datorren jokaera bat ezartzen du niak.

13. Batzuetan, sinbolizatu gabeko esperientzia eta premia organikoek ekoitzen dute jokaera. Hemen, Rogers-ek, niarenak ez diren prozesu inkonzienteei atea pizkat irekitzen die. «Subzepzioaren» kontzeptuaren bidez adierazten du: maila konzientekoa ez den sentipen bat atzeman dezake organismoak.

14. Sentimenezko edo erraietako esperientzia esanguratsuak sinbolizatzeko gai ez denean, desdoiketa psikologikoa gertatzen da.

15. Sentimenezko edo erraietako esperientzia esanguratsuak modu konzientean sinbolizatzeko gai denean nia, doiketa psikologikoa gertatzen da.

16. Mehatxu bezala hauteman daiteke, niaren antolamendu egituratuarekin uztarrezina den edozein esperientzia. Honelako esperientzia asko baldin badaude, nia modu oso zurrunean antolatuko da.

17. Autoegiturari buruzko mehatxurik ezean, esperientzia inkonzientekak hauteman eta azter litezke, niaren egitura haiek asimilatu eta barneratzen lagunduz.

18. Subjektu batek sistema konsistente eta integratuan hautematen eta onartzen baditu kanpoko eta barneko esperientziak, besteak hobeto ulertu

ahal izango ditu eta subjektu independente bezala kontsideratu. Ni konsistente eta egonkorak erraztu egiten ditu pertsonarteko harremanak.

19. Barne egonkortasun autobaloratu honek ere garatzen laguntzen dio.

20. Estimatu sozialaren desirak batzuetan ordezkatu egiten du norberaren autoestima.

21. Aitzitik, norberarekiko maitasunak eraman dezake pertsona presio sozialak eta estima soziala ahanztera.

22. Estimatu sozialaren eta norberarekiko maitasunaren artean, autobalorapen bat sortzen da; zentzun honetan, zerbaitetarako duin izatearen sentimenduak indartu egiten du norberarekiko maitasunaren desira eta estima soziala lortzeko gaitasuna.

22 proposizio hauetan, termino batzuk ia denetan formulatzen dira: niaren kontzeptua, perzeptzio eta esperientzia fenomenikoa, niaren egitura eta globaltasunaren aldaketa eta, azkenik, sinbolizazioa eta barne baloreak. Guzti hauek dira Rogers-ek bere teoria eraikitzeko darabiltzan osagaririk garrantzitsuenak. Guztiarekin ere, zaila gertatzen da «niaren» kontzeptu rogerstarra zehazki definitzea, eta berak ere ez zuen egin modu esplizito batean. Edozein modutara, bere niaren kontzeptua, «izatearen eta funtzionatzen jarraitzearen» kontzientzia izango litzateke; baita ere, «gizabanakoak norberarenak bezala errekonozitu, interpretatu eta baloratzen dituen ahaleginak, sentimendu emozionala eta ideiak». Eta proposizio hauetatik nabarmentzen da, baita ere, nortasunaren ahalegin nagusietako bat autokonsistentzia lortzea dela.

6.4. HAZKUNTZA ETA GARAPENA

Rogers-entzat, hazkuntzarako indarrak gizabanako guztiengan aurkitzen dira. Hazkuntzaren prozesu naturalaren ondorenez, autoaktualizatzen joaten da gizabanakoa: bereizten, hedatzen, autonomizatzen eta gizarteratzen. Eredu fenomenikoaren zati bereizi bezala eratzen da selfa. Selfa eraikitzen doan heinean, gurasoen maitasunaren premia sentitzen hasten da haurra.

Bide horretatik, garapenaren arazo nagusia, haurrak behar adina askatasun edukitzean datza, bere kongruentzi eta autoaktualizazio lerroan aurreratzen joan dadin.

Rogers eta bere lankideen arabera, gurasoen jarrera demokratiko eta onartzaileek haurren adimenaren garapen bizkorra, ziurtasun emozionala eta kontrola ahalbidetzen zuten; guraso autoritarioen seme-alabak, eze-gonkor, oldarkoi eta burrukazale bezala agertzen ziren.

Haurrentzat, garrantzitsuenak, gurasoek beraiei buruz pentsatzen dutenari buruzko perzeptzioa da. Haurrak pentsatzen badu gurasoen iritzia positiboa dela, gogo onez onartuko du bere gorputza eta selfa; gurasoen iritzia

negatiboa dela pentsatzen badu, bere gorputzari buruzko jarrera negatiboa hartuko du. Dirudenez, beraz, gurasoek beren seme-alabei buruz dagizkiten ebaluapenak, haurren autoonarpenaren islada nahiko zehatzak dira.

Coopersmith-ek (1967) autoestimaren ikerketa bat egin zuen. Haurren autoestimaren finkamendurako, gurasoekiko hiru elkarreragin arlo agertu ziren garrantzitsuak. Lehenak, gurasoek beren seme-alabekiko agerturiko onarpen, interes, afektu eta berotasunarekin zuen zerikusia. Autoestima handiko haurren amak maitakorrangoak ziren eta harreman estuagoa zuten haurrarekin. Bigarrenak, permisibitatearekin eta zigorrarekin zuen zerikusia. Autoestima altuko haurren gurasoek sariak darabiltzate nagusienik, baina zigorrak, jokaera okerretara zuzenduak daude, eta ez du maitasunaren galerarik suposatzen. Autoestima bajuko haurren gurasoek, gogor tratatzen dituzte, begirune galtze gehiago dago, zigorra gehiago darabilte saria baino, eta maitasunaren galtzean gehiago insistitzen dute. Azkenik, autoestima altuko haurren gurasoek araudi zabala finkatzen zuten eta hura betearazten zuten, haurren eskubide eta iritzia errespetatuz.

6.5. PSIKOPATOLOGIA

Rogers-entzat, pertsona osasuntsuarengan, kongruentzia dago selfaren eta esperientziaren artean. Esperientziara irekia dago eta defentsa gabezia. Pertsona neurotikoa, bere organismoaren esperientzietara egokitzen ez den moduan egituratu du bere buruaren kontzeptua. Psikologikoki desdoitua dagoen pertsonak eragotzi egingo die kontzientziarako sarrera barneko eta kanpoko esperientzia garrantzitsuei. Norbereburuaren egiturarekin ados ez datozen esperientziak mehatxu bezala subzedituak dira eta sinbolizazioa ukatu egiten zaie edo modu distorsionatuan sinbolizatzen dira. Ondorenez, selfa modu zurrunean eta defentsiboan mantentzen da, bere antolamendua mehatxatzen duten esperientzien kontra. Horrek eragotzi egiten du bere burua positiboki kontsideratzea.

Jokaera psikotikoak, selfarekin ezkontezin bezala kontsideraturiko joaerak, defentsak hautsi eta kanpora irteten dira. Honela, adibidez, bere bulkada sexualak zurrunki kontrolatu dituen eta bere selfaren zati izatea ukatzen dien pertsonak, proposizio sexual irekiak egin diezazkieke orain berarekin harremanen bat duten pertsoneri.

Rogers-ek ez du diferentziarik ezartzen forma patologiko desberdinen artean, baina defentsazko hiru jokaera tipo bereizten ditu. Freud-en antzeko defentsak deskribatzen ditu.

Arrazionalizazioa: jokaera distorsionatzen da, selfarekin uztartzeko asmotan.

Fantasia: perfektoa dela pentsatzen duen batek, printzipe bat dela fantasea dezake, emakume guztiek gurtzen dutela, eta irudi horrekin ados ez datozen esperientziak ukatu.

Proiektzioa: gizabanako batek premia bat agertzen du, baina hartaz konziente ez da eta uste du bere jokaera selfarekin konsistentea dela. Edo, bere buruarengan ezer txarrik ez dagoela pentsatzen badu, zerbait txarra ikustean, besteek eragina dela pentsa dezake.

Jarrera defentsiboak, beraz, selfaren eta esperientziaren arteko kongruentzia gordetzeko entseguak dira Rogers-entzat. Hala ere, Rogers-en ikerketa gehienak self errearen eta self idealaren arteko harremanaz arduratu ziren.

Rogers-ek, geroago, esperientzia pertsonalen prozesuan eta neurketan arreta gehiago jarri zuen. Eskala bat ere sortu zuen, pertsona batek bere sentimenduak nola esperimentatzen eta adierazten dituen neurtzeko. Pertsona desdoituak zehaztasunik gabe eta modu lausotsuan agertuko dituzte beren sentimenduak; pertsona osasuntsuek, beren sentimenduak onartzen dituzte eta garbi ezagutzen dituzte.

6.6. ALDAKETA

Nortasunaren aldaketa nola gertatzen den jakitea da Rogers-i gehien interesatzen zaiona. Baina, aldaketaren barnean, aldaketa terapeutikoaz interesatu da gehien. Liburuaren izenburuetan garbi agertzen da hori: *Clinical Treatment of the Problem Child* (1939), *Counseling and Psychotherapy* (1942), *Client Centered Therapy* (1951), *Psychotherapy and Personality Change* (1954), *The Therapeutic Relationship and its Impact* (1967) (Pervin, 1970).

Terapia rogerstarraren eboluzioak hiru fase iragan ditu:

1. Lehen fasean, «islada afektiboaren teknika» bereziki garrantzitsua izan zen: terapeutaren egitekoa, pazienteak agertzen zituen sentimenduak errekonozitu eta argitzea zen. Terapeutaren eskuhartzeak minimoak ziren, pazienteak agertzen ez dituen jarreraren interpretazioa ekidinez; horretatik datorkio, «terapia ez-zuzentzailearen» deitura. Terapiaren lehen garapen hau beharbada pasiboegia zen; horregatik, indiferentziaren agerpen bezala hartu izan zen. Fase honetan, terapeutaren jokaera eta teknikak azpimarratzen ziren.

2. Bigarren fasean, pazientearen mundu fenomenikoaz benetako interesa agertzen zen. Terapeutaren egitekoa, errealitatea ulertzea zen, bezeroak ikusten zuen bezala. Interesgunea, tekniketarik jarreretara iragan zen. Kontseilariak pazientearen barneko erreferentzi esparrua bereganatu behar zuen, eta pazienteak bere burua zekusan bezala ikusi behar zuen terapeutak pazientea. Haren larruan sartu behar zuen empatikoki.

3. Azken fasean, «giro terapeutiko» egoki baten eraikuntza azpimarratu zen. Giro hori zen terapiaren arrakastaren edo porrotaren arduradun na-

gusia. Psikoterapiak sentimenduak eta emozioak gehiago ukitzen ditu, «insight» intelektualak eta hitzeko erreflexioa baino. Bezeroarengan zentraturiko terapiak bere bereizgarri propioak ditu: pazientearengan sinesten du; harreman terapeutikoari garrantzi handia damaio eta aurrikus daitekeen prozesu bat da: baldintza batzuk betetzen badira, nortasunaren eta jokararen aldaketa ekarriko duen prozesu bat gertatuko da. Horrelako giro bat lortzeko, bost baldintza bete behar ziren:

- Terapeutak bezeroaren arazoei buruz agertu behar zuen baldintzaga-beko kontsiderazio positiboa. Erabat eta baldintza gabe onartzen du terapeutak pazientea.
- Terapeuta beraren autoadostasuna. Bera izaten saiatu behar du, itxurak egiteari utziz. Irekia eta gardena da, konfiantzakoa. Den bezala izateko libre sentitzen da. Terapeutak askatasuna du bere sentimenduak bezeroarekin konpartitzeko, horrek bere sentimendu negatiboak komunikatzea suposatzen badu ere. Bezeroarekin «berdinetik berdiner» egoteko gai izan behar du, den bezala agertuz.
- Ulerkuntza enpatikoa: une bakoitzean pazientearen esperientzia eta sentimentu esanguratsuak hautemateko gai izan.

Azken bi aspektuak, geroago erantsi ziren:

- Bere autoikerkuntzarako terapeutak duen gaitasuna.
- Potentzia persuasiboa.

Baldintza guzti hauekin prozesu terapeutiko berezi bat jartzen da martxan, hiru etapa dituena:

1. Pilaturiko sentimendu negatiboen deskarga (katarsi emozionala).
2. Insight-a, edo zailtasunen jatorri eta izaerari buruzko bapateko eza-gutza global sakona, aurretikotik koalitatiboki desberdina dena. Ez du balio insight-aren edukia esateak, pazienteak berak heldu behar du bere buruz hartaz konturatzerara, nahiz eta terapeutaren egitekoa den hura pazienteari modu egokian gogoratu eta errepikatzea.
3. Aldaketa eta gainditzetarako erabaki aktibo eta positiboak hartu; horrek lagunduko dio zurruntasunak gainditu eta ibili dinamikoagoan norbereburua esperimentatzen.

Bezeroarengan zentraturiko terapiak sorturiko aldaketa prozesuak «Self» kontzeptuan eta norbereburua esperimentatzeko moduan aldaketak ekartzen ditu. Eta horrek, jokaeraren aldaketak ekartzen ditu.

«Psikoterapia eta bizitza konsustantzialak» direla pentsatzen zuen, bieran autogarapen bat gertatzen dela pentsatzen baitzuen. Psikoterapiaren helburuak, bezeroari autozuzentzaileagoa izaten laguntzea izan behar du, besteen eraginetatik haratago autodeterminatzea, eta baliozko aukera subjektiboak askeki egiteko gai izatea. Bestalde, terapiak eta bizitzak pertsona garatzen badute, zein da terapeutaren egitekoa? Terapeutaren egitekoa,

«alter ego» hurbil bat izatea da, bere problemak esperimentatu eta bizitzen bezeroari lagunduko diona, horrela kontrolatu eta ebatzi ahal izateko.

Pertsonak berarengan dituenz autogarapenerako mekanismoak, terapia rogerstarra aldaketa probokatzen zentratzen da, nahastearen eduki konkretuan baino areago; horregatik, diagnostikoari arreta gutxi jartzen dio, tratamenduaren aurrean.

Bestalde, gizakia bere irriken eta bulkaden mirabe bezala ikusten zuten beste hurbilketen alboan, Rogers-ek pentsatzen du gizakiak baduela beregan joera bat, aurreratzera, garatzera eta bere burua nahiz errealitatea eraikitzen daramana. Zentzun honetan, gizakiarekiko baikorra da.

Zeintzuk dira bezeroarengan zentratutako terapiak sortarazten dituen aldaketa nagusiak?:

- Terapiaren buruan, subjektuaren balioetan aldaketa gertatzen da: balio arrotzak utzi eta bere balio propioak finkatzen ditu.
- Defentsan eta esperientziatzeko moduan aldaketak: malguagoak, konzienteagoak, esperientzietara irekiagoak, defentsa gutxiagokoak bihurtzen dira.
- Bere buruaren kontzeptuan aldaketak: self argiagoa, positiboagoa eta kongruenteagoa ematen die terapiak bezeroei.
- Besteak kontsideratzeko eta haiekin harremanak edukitzeko moduan aldaketak. Terapian, beren duintasun propioaren zentzun gehiago dute eta besteak ere positibokiago ebaluatzen dituzte. Beste pertsonengandiko sentimendu positiboak onartzen eta beren sentimendu positiboak adierazten ikasten dute.
- Nortasunaren heldutasun eta antolamenduan aldaketak: frustrazioa toleratzeko gaitasun gehiago lortzen dute, erreaktibitate autonomiko gutxiago, eta situazio frustratzaileak berehala gainditzen dituzte terapiaren ondoren.

Ikus ditzagun orain niari inguruan moldatzen laguntzen dioten hiru printzipio sekundarioak; esan dugun bezala, autoerrealizazioa, autokontserbazioa eta autohobekuntza dira.

Autoerrealizazioan, haurtzarotik helarorara bitartean doan garapeneren dinamikarekin batera, gizaki batzuk besteetatik bereizten dituzten prozesuak inkluitzen dira. Bakunetik konplexura doan prozesu bat da, beraz, subjektua norbera bihurtzen den bitartean; horretatik abiatuta sor ditzake beste gauzak bere ingurunean. Autoerrealizazioaren prozesua, esperientziak biziz eta niarengan adostasunez integratuz bakarrik da posible.

Autoerrealizazioaren osagai garrantzitsuenetako bat autoestimarena da. Hau, haurtzarotik hasita eskuratzen da, eta kanpoko balioetatik baino gehiago dependitzen du, ingurune afektibo hurbiletik, hots, familiaratik. Autoestima handiagoa da, gurasoen hiru jarrera tipo edo jokaera bizi izan dituztenengan:

1. Onarpen baldintzagabea (baldintzatuaren aurrez-aurre).
2. Zilegitasuna edo permisibitatea (zigorraren aurrez-aurre).
3. Demokrazia (autoritarismoaren aurrez-aurre).

Gurasoek seme-alabekiko agerturiko onarpena mailari, interesari eta afektuari egiten dio erreferentzi lehenak. Autoestima handiago zen, haurrek baldintzagabeko onarpena eta harreman intimoago eta maitakorragoa sentitzen bazuten. Gurasoen interesa, beren balio propioaren indize bezala interpretatzen zuten haurrek. Bere onarpena baldintzatua ez egonik, bere sentimendu edo ideiak modu egiazkoagoan agertzeko gai zen, eta ez zeukan defentsiban egon beharrik edo inkongruentziaz jokatu beharrik. Gurasoen gaitzespenak ez zihoazen zuzenki haurren kontra, haien jokaeren kontra baizik, egokiak ez zirenean. Hutsegite kognitibo larria da, haurren jokabide bat zuzendu nahiz, «ez zaitut maite» esatea. Gaitzetsi behar dena ez da haurra bera, haren jokabidea baizik.

Bigarrenik, beren jokaera desegokiengatik haurrei ezartzen zaizkien korrektiboek ez dute haien selfa minberatu behar. Zentzun honetan, errefortzu positiboak edo negatiboak erabiltzea kontseilagarriagoa da, zigorra erabiltzea baino. Batez ere, zigorra gogorra eta proportziorik gabea denean, zigortzailea «sututa» dagoenean gertatzen den bezala. Zilegitasunak alternatibak eskaintzen dizkio jokaera gaitzetsiari; zigorrak itxi egiten du ahalbide hori.

Hirugarrenik, haurra pertsona bezala kontsideratu, bere eskubide guztiekin; horien artean, bere iritzia emateko eskubidea. Eta ez kontsideratu haurra gauzak egiten ez dakien burugabe bat bezala. Gurasoek arauak eta eginkizunak markatzen dituzte, baina hurrekin modu egokian eta lasaian negoziatuz, ez modu derrigortzailean.

Autoestima garaia edukitzearen abantailak nabariak dira. Coopersmith-ek (1967), 50 item-eko Autoestima Inbentariotik abiatuz, hiru talde-tan banatu zuen eskola-haurren talde bat: autoestima garaia, ertaina eta bajua zutenak. Autoestima garaikoak asertiboagoak ziren, independenteak, sortzaileak eta «barne kontrol locusaren» motako oharpen gehiago egiten zituzten. Autore honen arabera, garrantzitsua, haurrek bere gurasoei buruz duten perzepzioa da, eta ez jokaera konkretuak; familiako giro osoa da eragiten duena.

Norberaren errealizazioarekin batera, garrantzitsua da nortasuna kontserbatzea. Zaila ez da heltzea, mantentzea baizik. Autokontserbazioak norbereburuarekiko autokonsistentzia eta esperientziarekiko adostasuna (kongruentzia) eskatzen ditu. Gizabanakoak balio sistema bat garatzen du; balio sistema horretan, norberaren balorazio pertsonala da nukleo nagusia, eta horren integritatea gordetzeko antolatzen da. Subjektua heldutasunean autoaberastu liteke eta orainaldia bizi dezake, iragana baino askoz garrantzitsuagoa delako. Ez da esaten jokaeraren jatorria iraganean ez dagoenik, baizik zaila dela jatorri hori zehazki ezagutzeko. Bere autokontserba-

zio kontzeptua ez da homeostatikoa; beti dago garapen bat, aurrerapen bat eta esperientziarekiko kontakto berri bat.

Azkenik, autohobekuntza, aurrerantz jauzi koalitatiboak emateko gai izatean datza; ez da nahikoa eskuratzearekin eta kontserbatzearekin. Horregatik, autohobekuntza ez da erraza; lortzeko, aurreratu eta atzeratu egin behar da, sofritu eta zorientasuna lortzen da.

Rogers-en teoriaren barnean aipamen berezia merezi du «norbera ideialaren» kontzeptuak, subjektuak eduki nahiko lukeen norberak. Kontzeptu honek perzepzio eta esanahi oso garrantzitsuak biltzen ditu, eta positiboki ebaluatuak dira.

Selfaren eta self-ideialaren arteko distantzia edo adostasun indizea, doitasun edo desdoitasun psikopatologikoaren indize bezala hartu izan da. Datu empirikoek baieztapen hori beti egiaztatu izan ez duten arren, beste problema bat sortu da, ni-ideialaren ebaluazioa konbentzionalismo sozialari atxikitako subjektu estereotipatu baten ebaluazioa dela askotan egiaztatzean. Zentzun honetan, kongruentzia handiagoa, subjektuaren gizartearekiko arazo gabeko integrazio oso bezala, edo arazoan izkutatze bezala interpretatu liteke.

Hain zuzen ere, ikerketa batzuek (Crowne eta Stephens, 1961), oso koerlazio garaiak (0.80) seinatzen dituzte Q teknika bidezko ni-ideialaren estimazioen eta desiragarritasun sozialaren eskalen artean.

Teknika asko erabili izan dira norberaren kontzeptua eta norbera ideialaren kontzeptuak ebaluatzeko: entrebista grabatuen analisisa, izenlagunen zerrendak, Osgood-en diferentzial semantikoa eta Stephenson-en Q teknika. Saio terapeutikoen ondorenez sortutako aldaketen ebaluapenerako teknika bezala erabili dira teknika horiek.

Hurbilketa honen mugetako bat, aldaketa berbalen eta ez-berbalen ebaluapenerako material berbala erabiltzea izan zen. Muga hau ez da, noski, hurbilketa honena bakarrik.

6.7. IKUSPEGI HURBILAK ETA TEORIAREN EBOLUZIOA

Goldstein eta Maslow-ren teoriekin batera, Rogers-ena ere giza potentzialaren mugimenduaren zati garrantzitsu bat da. Psikanalisisa eta konduktismotik bereizten den hirugarren indarra da. Giza potentzialaren mugimendu honek autoaktualizazioa, potentzialaren hezurramitzea eta esperientziarako irekiera azpimarratzen dute.

Paralelismoa dituzten arren, Rogers eta Kelly-k puntu desberdinak azpimarratu zituzten terapian. Biak zeuden pertsonen, munduaren eta norberaren perzepzioan interesatuak, baina Rogers-entzat pertsonaren esperientzian zetzan garrantzitsuena, Kelly-rentzat pertsonaren konstruktoetan zetzan bitartean. Rogers-entzat pertsona autoerrealizatua zen ideiala, Kelly-rentzat zientzilari eraginkorra zen bitartean. Rogers-entzat, psikote-

rapiaren helburua, pertsonari bere sentimendu propioekin kontaktu estuagoan egoten eta besteekin enpatikoago izaten laguntzea zen. Kelly-rentzat, psikoterapiaren helburua, pertsonari auresate egokiagoak egiten laguntzea eta gertakizunen datuen aurrean bere nortasunaren teoriaren (konstruktoen sistema) egiaztapenerako irekitasun gehiago lortzea zen.

Terapeuta bezala, Rogers saiatzen zen giro egokia sortzen, pazienteak pertsona bezala hazitzeko. Kelly-k eginkizun aktiboagoa jokatzen zuen, beren konstruktoak aztertzeko pertsonak zuzpertzuz eta beren bizitza esperimentazio giro batean gidatuz.

Rogers-entzat, Kelly-ren ikuspegi «ia erabat funtzio intelektual bat zen». Kelly-rentzat, Rogers-ek gehiegi sinesten zuen izaki emergente batean, eta gutxiegi inplikatzeko pazienteak gauza berriak egin zituzten, haietatik datu hobek ateratzeko.

Urte askotan zehar ikuspegi fenomenologikoa defendatu zuen Rogers-ek, selfaren garrantzia eta aldaketa prozesua azpimarratuz. Hasieran, ikuspegi klinikoa eta zorrotasun zientifikoa konbinatu nahi izan zituen. Azken urteetan, eboluzionatu egin zuen Rogers-ek, eta azterketa pertsonal eta fenomenologikoetan oinarritu zen batez ere. Bera zientifikoa ez zela zioen. Arlo klinikoan modu intuitiboz ezagutzera hel daitekeena, zientifikoki ezagu daitekeena baino garrantzitsuagoa dela pentsatzen zuen.

Ezarian ezarian galtzen joan zen psikoterapia indibidualerako bere interesa. Taldeekiko interesa, berriz, gehitzen joan zen; Rogers-ek pentsatzen zuen, talde txiki intentsiboetan gertatzen diren aldaketak, banakako aldaketak baino azkarragoak eta sakonagoak direla.

6.8. KRITIKA ETA EBALUAPENA

Rogers-ek ez du uste ikuspegi fenomenologikoa denik psikologiarako baliozko ikuspegi bakarra. Esperientzia ez-sinbolizatuen garrantzia aitortzen du, baina ez ditu kontutan hartzen bere ikerketetan.

Rogers-i galdetu zioten, ea zertan oinarritzen zen, berak Freud-ek bezain ondo edo hobeto ulertzen zituela pazienteak pentsatzeko. Rogers-ek erantzun zion, bezeroarengan zentratutako terapeuta, terapeuta freudiarra baino aurreiritzi gutxiagorekin doala terapiara.

Rogers-entzat, norbureburuaren kontzeptuak iraunkortasun tenporala eta espaziala badu situazio guztietan. Bestalde, bere self kontzeptuak Gestalt oso bat eratzen du, lotura gabeko zatiez osatua egon ordez.

Rogers-ek egindako azterketen arabera, self errearen, self idealaren eta selfaren eta idealaren arteko desadostasunaren ebaluaketak nahiko iraunkor mantentzen dira terapiarik jasaten ez duten taldeetan. Arrakastaz egiten den terapiaren buruan aldatu egiten dira.

Beste ikerketa batzuen arabera, norbureburuaren kontzeptua nahiko iraunkorra da denboran zehar. Hala ere, ikusi zen, eremutik dependente

direnek situazio desberdinetan gehiago aldatzen dituztela beren buruaren kontzeptuak, eremutik independente direnek baino.

Autoaktualizazioaren neurketarik ez da egin. Baina, arreta berezia jarri zaie kongruentzia, larriatsun eta defentsa kontzeptuei.

Rogers-en arabera, selfaren egiturarentzat arriskutsuak diren esperientziei (esperientzia subzedituak) kontzientziarako sarrera eragozten zaie ukazioaren eta distortsioaren bidez. Norberaren eta esperientziaren arteko inkongruentzia, tentsio eta mehatxu iturri iraunkorra da.. Defentsa mekanismoak etengabe erabili beharrak kontzientzia eremuaren hertsaketa bat eta erantzun askatasunaren gutxitze bat dakar berekin.

Bai Rogers-en teorian, bai Freud-en teorian, gatazka, larritasuna eta defentsa agertzen dira. Teoria bietan, larritasunaren gutxitzea da defentsen egitekoa. Baina, diferentziak, larritasunaren iturburuari buruzkoak eta larritasuna gutxitzeko erabiltzen diren prozesuei buruzkoak dira. Freud-entzat, bulkaden eta nortasunaren egituren arteko gatazkak sortzen du larritasuna. Harentzat, instintuen mehatxuen kontra erabiltzen ditu gizakiak bere defentsak. Emaizta, sintomak dira: instintuen adierazpen partzialak eta bulkaden gutxitze partzialak. Rogers-entzat, berriz, norbereburuaren kontzeptuarekin uztarrezinak diren esperientziak baztertuak dira, edozein dela bere karakter soziala. Pertsona baten bere nortasunaren aspektu positiboak bazter ditzake, norbereburuaren kontzeptuarekin ados ez badatoz. Rogers-ek, beraz, esperientziak eta norbereburuarekin kontzeptuarekin adostasunean edo desadostasunean dauden begiratzen du batez ere. Freud-en azken helburua, bulkaden kanaleztatze egokia zen; Rogers-ena, berriz, organismoaren eta selfaren arteko adostasun egoera.

Rogers organismoaren esperientziaren eta selfaren arteko disoziazioaren garapena azaltzen saiatzen da, eta «kontsiderazio positiboaren beharraren» kontzeptua sartzen du. Rogers-en arabera, gurasoek kontsiderazio positibo baldintzatua eskaintzen badiote haurrari, honek ez ditu onartuko balio eta esperientzia batzuk bereak bezala. Rogers-entzat, gizakiaren oinarritzko besterentzea «selfaren» eta esperientziaren artekoa da. Besteen kontsiderazio positiboa zaindu beharrez, norberaren balioak faltsuztatzen dira.

Rogers-ek ez du askorik aztertzen hazkuntzaren eta garapenaren alderdia. Hirurogeiko hamarkadan haurrekin egindako ikerketa batetan agertu zenez, adin gehiagoko eta inteligentzia gehiagoko haurrek, berenburu errearen ebaluapenen jaiste bat eta berenburu idealaren irudien gehitze bat aurkezten zuten. Heldutasunean aurrera doazen heinean, erruduntasuna sentitzeko eta ezagutz diferenziaziorako gaitasun gehiago agertzen dute gizakiek.

Oso gaituak ziren subjektuek selfaren eta idealaren arteko aldentze gehiago agertzen zuten, gaitasun sozial gutxi zutenek baino. Rogers-en teoria psikopatologikoan selfaren eta esperientziaren arteko adostasun

faltari egiten zaio erreferentzia berezia, ez hainbeste selfaren eta ideialaren arteko desadostasunari. Rogerstarrek aurkitu dute erlaziorik selfaren eta ideialaren arteko desadostasun mailaren eta autoguttiespena, larritasuna edo ziurtasunik eza bezalako ezagugarri psikopatologikoen artean.

6.9. LABURBILDUZ

Organismoa eta norbereburua dira nortasunaren egitura nagusiak. Motibazio printzipioa, berriz, autoaktualizazio prozesua da. Nortasunaren garapena, dinamika motibazio horretatik esplikatu behar da.

Organismoak pertsonaren osotasuna biltzen du, haren alderdi fisikoak eta psikologikoak. Ere mu fenomenikoa eta norbereburua biltzen ditu. Ere mu fenomenikoak organismoak esperientziatzen duen guztia biltzen du; norbereburua edo autokontzeptua, organismoaren zati bat da, ere mu fenomenikoaren zati bereizi bat.

Rogers-ek ez zuen nortasuna inoiz definitu; gehien hurbiltzen zaion definizioa, norbereburuari dagokiona da. Norbereburua, Gestalt kontzeptual konsistente eta antolatua da; «niaren» bereizgarrien perzepzioa eta «niak» besteekin eta bizitzaren alderdi eta balio ezberdinekin dituen harremanen perzepzioak osatzen dute.

Organismoa ekintzan murgil dadin, motibatua egon behar du. Joera aktualizatzaileak motibatzen du; joera horrek darama organismoa eta haren zati den norbereburua mantendu eta hobetzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzera. Aktualizazio joera hori jaiotzetikoa da; gaitasun positiboaren antualizazioa norabidetua da; autonomiarantz darama gizakia; hazkuntza eta bereizkuntza pertzeptuala eta kognitiboa eragiten du; organismoaren joera aktualizatzailea eta norbereburuaren joera aktualizatzailea bereizten ditu; norbereburuaren joera aktualizatzailearen barnean, kontsiderazio positiboaren premia aipatzen du: pertsonak badu besteen maitasunezko, begirunezko, liluramenduzko, atseginezko eta onarpenezko jarrerak esperientziatzeko premia. Horrela, gizakia hel dai teke, bereburuaren kontsideraziorako garrantzitsuak diren heinean esperientziak ebaluatzen, eta ez organismoaren aktualizazioan eskuhartzen duten heinean. Haurrak ikas dezake, bere organismoarentzat asebetetzai lea dena, beste esanguratsuek negatiboki baloratzen dutela. Haurrak ikasten du, besteen balioen arabera jokatzeko badu bakarrik esperim entatzen duela kontsiderazio positiboaren asebetetzea. Ondorenez, bereak bezala esperim entatzen ditu besteen baloreak. Merituzko baldintzen oi narria, gurasoek inposatutako eta hurrek bereganaturiko baloreek osatzen dute. Modu honetara, norbereburuaren eta esperientziaren arteko inkongruentzi bat sor daiteke, nortasuna nahaste egoeran utziz. Aktualizazio joeraren eta norbereburuaren aktualizazioaren artean kon-

gruentzia edo inkongruentzia egon daiteke, beraz, horrek nortasunean eragin garbia duelarik.

Rogers-en ikuspegitik, beraz, psikologikoki aske den pertsonak ez du defentsa bidez jokatuko, baizik esperientziara irekia egongo da; malgua, moldakorra, toleratzailea eta espontanea izango da, organismoaren barne esperientziei arreta jarriko die, nahi duen bezala bizitzeko aske eta ardura-dun da, eta sortzailea izango da.

7

Nortasunaren teoria faktorialistak

7.1. SARRERA

Hurbilketa *nomotetikoaren* ondoren nagusietako bat da ikuspegi hau; guztiok nortasunaren egitura bera eta berezitasun berberak ditugula, baina berezitasun horien *gradiente eta konbinaketa* konkretuetan bereizten garelako suposatzen du ikuspegi nomotetikoak. Zentzun honetan denok egituralki berdinak gara eta denok ezberdinak gara elementuen konbinaketan eta ponderaketa indibidualizatuan.

Teoria hauetan erabilitako eredu metodologikoa eredu «*estatistikoa*» da, batez ere bere saihest multibariatuan. Zentzun honetan berezitasunak eta egiturak metodoen eta prozedura estatistikoaren ezaugarri konkretuek determinatuak dira. Hau da elkarren artean oso desberdinak diren teoria eta ereduak elaboratu izanaren zergatietako bat, estatistika era ezberdin aniztetara erabil baitaiteke, denak metodologikoki zuzenak; eta beste zergatia, teoria desberdinak ez direla elementu berberetatik irteten, nortasunaren eraikuntza garrantzitsuak formulatzeko garaian ikuskera desberdinak daudelarik.

Hurbilketa honen barnean bi teoria bloke handi bereiz daitezke:

1. Berezitasun bakarreko teoriak: nortasunaren egituraren zati konkretu batek jokaera nola determinatzen duen aztertzen du.
2. Berezitasun aniztetako teoriak: nortasunaren egitura eratzen duten berezitasunen konstelazio guztia finkatu eta berezitasun bakoitza neurtu. Baieztapen nomotetikoak nahiz idiografikoak egin ditzake.

Lehen teoria motak, bere izenak adierazten duen bezala, nortasunaren *berezitasun bakarraren* dimentsioztatzeaz eta azterketaz arduratzen diren teoriak biltzen ditu. Ezagugarri bakar hori oinarritzkoa eta funtsezkoa jotzen da jokaeraren zati esanguratsu bat ulertzeko. Bigarren teoria motak, *berezitasun serie* baten bidez edo subjektu guztien ezaugarri amankomunen bidez, nortasunaren egitura globala definitzera doazen teoriak biltzen ditu.

Azken teoria hauekin harremanean, *Eysenck eta Cattell*-en teoriak bi apartatu independenteetan garatuko ditugu aurrerago, errepresentatiboenak eta maila aplikatuan erabilienak baitira. Autore biek antzeko ezaugarriak dituzte beren nortasunaren teoriak garatzeko orduan. Beharbada, koinzidentzi puntu nagusiak, interpretazio zaileko eta anbiguoko froga proiektiboen aurrez-aurre, *puntuaketa objetiboko test eta galdekizunen* erabilera prioritatzean eta *analisi faktorialaren* erabileran aurkitu behar ditugu. Teoria biak bereizten dituena, berriz, nahiz eta metodologi faktorial bera erabili, modu desberdinean lantzen dutela, teoria biek behar adina distantzia gordetzen dutelarik elkarren artean, eta ezaugarri partikular oso «pertsonalak» dituztela.

Berezitasun bakarreko teoriaren blokeari dagokionez, jokaeraren determinazioan nortasunaren egituraren zati konkretu batek betetzen duen eginkizunean zentratzen dira. Jokaeraren eremu zabal batean eskuhartzen duten berezitasunak deskribatzen dituztenak dira berezitasun bakarreko teoria eragingarrienak. Berezitasun bakarreko teoriari hauei dagokienez, teoria errepresentatibo baten aukeraketa askoz ere konplexuagoa da, asko baitaude, batzuk faktorialistak eta besteak ez. Laburki aipatuko ditugu, adibide moduan, *Rotter-en (1966) «Barne-kanpo kontrol-locusaren»* teoria (*B-K*), *Zuckerman-en (1971) «Sentimenen bilaketaren» (SB)* teoria eta *Witkin-en Eremitik Dependentsia-Independentsiaren* teoria, guk dakigunez dexente azterketa enpiriko eta aplikatu baitaude nortasunaren berezitasun hauen garrantzia eta erabilkortasuna bermatzen dutenak. Aipatzekoak dira, baita ere, autoritarismoaren berezitasuna (Adorno, Frenkel-Brunswick, Levinson eta Sanford, 1950), errendimenduaren edo lorkuntzaren motiboa (Mc Clelland, Atkinson, Clark eta Lowell, 1953) eta errepresio-sentsibilizazioa (Byrne, 1964).

7.2. J.B. ROTTER-EN (1966) «KONTROL LOCUS-AREN» TEORIA (KONTROL FOKOAREN TEORIA)

Gizarte elkarreragin konplexuko situazioetan giza jokaera esplikatze-ko asmoarekin sortzen da. Teoriaren formulazioaren barnean, trataera konduktuala duten situazio osagaiak eta barne osagaiak, pertsonalak edo kognitiboak aurki ditzakegu. Horregatik, «analisi unitate», subjekuak ingurune esanguratsuekin duen elkarreragina dela kontsideratzen da, ingurune honek ongi deskribatua egon behar duelarik, aurretiko antezedenteen eta auresandako ondorenen funtzioan.

«*Kontrol locusaren*» kontzeptuaz, bere jokaeraren kontrola egozten zaion subjektuaren barne edo kanpoko lekua adierazten da. Dimentsioztatu bezala hartzen da, bi polo ertzeko egonen bailirateke: «barnekoa» batetik eta «kanpoko» bestetik. Lehenengo kasuan, pertsonak uste du badauela beregan bere jokaera determinatzeko adina indar. Bigarren kasuan,

jokaerak azaretik, zoritik, destinotik edo beste pertsona nahiz gertaeretatik dependitzen duela uste izaten du. Jokaera konkretu batean barne-osagai batzuk eta kanpoko beste batzuk daudela finkatzea suposatzen du dimentsionatzeak; honek esan nahi du, «kontrol locus» erabat polarizaturik ez dela emango, baizik bi ertzen artean, continuum-aren tokiren batean islatua egonen dela. Dimentsio hau subjektuaren aurrejarrera karakteristiko bezala kontsideratua da, situazioen perzepzioari buruz expektatiba generalizatu bat finkatzen duena, eta jokaera pertsonala determinatzera helduko dena.

Adibidez, selektibitateko azterketa bat daukazunean, bi jarrera ezberdin har ditzakezu. Azterketa ongi egiteak aurretiko prestakuntzatik dependitzen duela edo zure kontrolari ihes dagoiten faktoreetatik dependitzen duela pentsatzea, hala nola, irakaslearen umore egoeratik. Zure ahaleginetik dependitzen duela uste baduzu, kontrol locusa zeure barnean dagoela pentsatzen duzu. Zeure eskumenetik (eskueratik) at dagoela iruditzen bazaizu, kontrol locusak azaretik, zoritik edo zure eraginetik kanpo dauden pertsonen boteretik dependitzen duela iruditzen zaizu. Lehen ikuspegia duenak, barne kontrol locusa du; bigarrenak, kanpo kontrol locusa.

Barne-kanpo kontrolaren teoria Rotter-ek formulatu zuen (1966) eta nortasunaren teoria zabalago baten zati txiki bat osatzen zuen. Teoria hori ikaskuntza sozialaren teoria zen, ikaskuntzaren psikologiaren hainbat printzipio biltzen zituen. Ikaskuntza sozialaren teoriko batentzat, jokaera errefortzuaren funtzioan dago, expektatiba generalizatuak efektu aldatzaile garrantzitsuak badituzte ere jokaera eta errefortzuaren arteko harremanean. Eredu konduktual orokorra jarraituz, Rotter-ek pentsatzen du, jokaera bat gertatuko bada, edo errefortzu bat eraginkorra izango bada, *hiru baldintza* bete behar direla: lehenik, jokaera aztertua espeziearen erreperitorium orokorrean ager dadila, hau da, jokaera bat egiteko gaitasuna eduki behar du pertsonak; bigarrenik, saria desiragarri bezala hauteman dadila; hirugarrenik, saria, jokaera gertatzen bada jasoko dela konbentzitura egotea. Zentzun honetan egiaztatu zen, jokaerarekin kontingente bezala hautematen den neurrian bakarrik duela eragina errefortzuak. Ikusten dugunez, dimentsio honetan lortu nahi dena, expektatiba, perzepzioa eta egozpena bezalako elementuek giza jokaeran duten garrantzia egiaztatzea da.

Barne-kanpo kontrolaren neurketa: Rotter-en eskalak (1966) 29 item ditu, bakoitzak baieztapen pare bat duela. 23 itemek B-K kontrola neurtzen dute, eta beste seiak kontrol locusarekin zerikusirik ez duten baieztapenak dituzte.

Item-en adibideak:

Konbentziturik nago:

1a Lan gogor eta iraunkorraren bidez lortzen dira igoerak gizartean.

- 1b Diru asko irabaztea, neurri handi batean, aukera egokiak aprobetxatzearen kontua da.
- 2a Gobernuaren erabakietan eragin dezakete presio taldeek.
- 2b Jende arruntaren eraginetik haratago dago gobernuak.

Item hauek ez dira agertzen testaren egungo formulazioan. Helburu ilustratzailea dute. 1a eta 2a, barne baieztapenen adibideak dira; 1b eta 2b, kanpo baieztapenenak.

Nortasunaren galdekizun bat egiteko, urrats batzuk eman behar dira:

Lehenik, intuizioz eta aurretiko ikerketez, dimentsioa neurtzen dutela diruditen itemak idatzi behar dira. Ondoren, item horiek jende errepresentatiboaren lagin bati pasa behar zaizkio, eta erantzunen analisi detailatua egin. Jende guztia ados dagoen eta jende guztia desados dagoen itemak baztertu egiten dira, ez baitute diskriminatzen erantzuleen artean (eta horixe da galdekizunaren helburua). Rotter-ek, % 85 baino gehiago edo % 15 baino gutxiago ados zeudeneko item guztiak bazteru egin zituen.

Hurrengo urratsa, testak barne konsistentzia baduela ziurtatu behar da. Eskalak bere osotasunean neurtzen duen dimentsio bera zein mailatan neurtzen duen item bakoitzak ikusi behar da. Puntu honetan, ikertzailearen kezka, testaren fidagarritasuna neurtzea da, eta barne konsistentzia da test bat fidagarri izateko errekisitoetako bat. Barne konsistentzia modu askotara neur liteke, baina printzipio orokorra hau da: item indibidualei emandako erantzunek korrelazio garaiak eduki behar dituzte eskalaren puntuazio osoarekin. 30 itemeko eskala batetan item bera errepikatuko baltz, barne konsistentzi perfektua aterako litzateke (1,0ko koerlazioa). Baina, nortasunaren dimentsioak jokaera barietate batean agertzen dira, eta jokaera horiei dagokien item barietate bat eduki behar dute eskalek. Horregatik, barne konsistentziak altuegia ez du izan behar, eskala bat fidagarria izan dadin. Rotter-ek, 0,65tik 0,79ra doazen fidagarritasun koefizienteak aipatzen ditu, eta hori onargarria da, jokaera eremu zabala biltzen duen dimentsio bat neurtzeko.

Barne konsistentzia duen item multzo bat eraikita gero, erantzun sozialien eragina ikertu behar da. Bi daude, nagusienik: erantzun onartueta-ko aurrejarrera eta desiragarritasun soziala.

Onarturiko erantzunetarako (akieszentzia erantzunetarako) aurrejarra, item-en proportzio handi samarrarekin («baieztatzaileekin») ados egoteko eta item-en proportzio handi samarra («ukatzaileak») baztertzeko jorerari dagokio. Itemak idazterakoan, gertatu liteke behartua, «bai» eta «ez» erantzunak dituzten itemak idaztera, eskalaren puntuazio total maximoan, item-en erdiei baieztoko erantzunak eta beste erdiei ezeztokoak ateratzeko moduan. Asmoa da, item bakoitza zehazki aztertzea. Item-en edukari begiratu gabe «baieztatzen» eta «ukatzen» dutenek, 0 inguruko puntuazio osoak ateratzen dituzte, ezabatu egiten baitira baieztoko eta ezeztoko itemak.

Gerta liteke, beti *a* nahiz *b* baieztapenak hautatzeko estrategia aukeratzearantzuleak; hori kontrolatzeko, barne kontroleko eta kanpo kontroleko kasuak erdibana jarri behar dira *a* nahiz *b* itemetan.

Desiragarritasun sozialaren erantzun solaiak, positiboki baloratuak diren jokaera edo sinesteak isladatzen dituzten item-ekin ados egoteko eta negatiboki baloratuak diren jokaerei dagozkien itemak baztertzeko joera agertzen du. Alde batera utzita, erantzuleak birtute ereduak diren edo itxurak egiten ari diren. Sozialki desiragarriak diren erantzunak emateko joera hain da garrantzitsua, zenbait psikologok nortasunaren dimentsio bat bezala aztertu baitute.

Rotter-ek baztertu egin zituen, modu selektiboz, desiragarritasun sozialarekin koerlazio garaiak zituzten itemak. Hala ere, eskala bere osotasunean kritikatu izan da, desiragarritasun sozialarekin korrelazio sustantziala. Ikerketen emaitzek iradokitzen dutenez, barne locusaren erantzuna desiragarri bezala errekonozitua da.

Rotter-ek erantzuten zuen, desiragarritasun soziala ez zela galdekizun beraren propietate bat, testaren situazio orokorraren emaitza baizik. Egin behar dena, item bakoitzak desiragarritasun sozialarekin korrelazio bajua edukitzea da eta, gero, testaren ebaluazio situazioa neutrala izan dadila.

Barne konsistentzia duen eta erantzun soslairik ez duen test bat eginda gero, fidagarritasunaren beste aspektu bat demostratu behar zuen: test-retest fidagarritasunarena. Pertsona batek testa bi situazio desberdinetan egiten badu, bi erantzun multzoek oso koerlazonaturik egon behar dute.

Behin fidagarritasuna demostratuta, testaren balidezia demostratu behar da. Testak, neurtzen duela esaten duena neurtu behar du; horretan datza testaren balidezia.

B-K dimentsio honek nortasunaren ezaugarrietan dituen ondorenak honako hauek dira:

«*Barne*» *pertsonak* bere osasun propioaren zainketarekin erlazionaturiko arazoetaz kezkatua egoteko joera du: pisu kontrola, dieta, tabakoaren kontrola, jokaera aztura deportiboak, haginlariarengana aldizka joatea etab. Gainera, ingurunearen gain kontrol gehiago emango dien informazioa bilatu eta edukitzera jotzen dute; autokontrolerako ahalegin gehiago egiten dute eta eragin sozialarekiko erresistentzi handiagoak dituzte. Psikopatologiaren eremuan, barnekoak moldatuagoak agertzen dira, eta ez kanpoko subjektuak bezain larrituak. Barne subjektua, kanpoko ez bezala, independente, goranahia (anbiziotsua) eta dominantea da.

«*Kanpoko*» *subjektuak*, esanekoa, besteengandik dependentea izateko joera du, eta gauzak gaizki irteten bazaizkio, jokaera eta pertsamendu superstiziosoak eta obsesiboak garatzera hel daiteke.

Batzuetan gertatzen da, jendeak sinesten duela, gerta daitezkeen gauza on eta txarren arduradun bakarra gizakia dela, baina, gertaerei buruz duten beren kontrol pertsonalari buruz, uste dute boteregabeak direla. Ikasle unibertsitari beltzekin egindako ikerketa batean, ikasleek beren buruak

botere gabeak jotzen dituzte, baina jende gehienak beren destino propioa kontrolatzen duela uste dute. Barne kontrolaren locusean pertsonalki sinesten zuten pertsonak, aspirazio maila handiagoa zuen beren bizitzan, barne kontroleko locusean kultur orokorrerako sinesten zutenek baino.

Zeintzuk dira politikoki aktibistagoak: barne kontrolean sinesten dutenak ala kanpo kontrolean sinesten dutenak? Lehen begiratura, badirudi barne kontrolean sinesten dutenek, gauzak aldatzeko beren gaitasun propioan gehiago sinesten dutela eta, beraz, aktibitate politikoetan gehiago eskuhartuko dutela. Baina, norbanakoaren boterean sinesten badute, ze premia dute sistema aldatzeko jardueretan parte hartzeko? Beharbada, gehiegi sinplifikatzea da B-K testean ateratako puntuazioan pronostikoak oinarritzea.

Rotter-en jatorrizko teorian, errefortzuaren balioak eginkizun garrantzitsua betetzen du jokaeraren determinazioan, eta gerta daiteke, kasu askotan, talde jardueretan eskuhartzeko sari sozialak igurikapen orokorrak (Barne-Kanpo kontrol locusari buruzko igurikapenak) baino eragin gehiago edukitzea.

B-K kontzeptuaren azpibanaketaren beste adibide bat, igurikapenari dagokiona da. Jendeak sinets dezake barne kontrol locusean, emaitz arrakastatsuak lortzeko, baina kanpo kontrol locusean, porrotetarako.

S.E. Hampson-ek dioenez, bereizketa honen esanahia, galdekizun baten bidez aztertu da, Intellectual Achievement Responsibility Questionnaire (Crandall, Katkovsky eta Crandall, 1965) galdekizunaren bidez. Bi azpieskala zituen galdekizun honek: batek, arrakasta norbere ahaleginekiko kontingentea dela sinestearen indarra neurtzen du. Besteak, norbere ahaleginik ezari zor zaiola porrota sinestearen indarra neurtzen du.

Bi-bider-bi diseinu batetan, oso barnekoak eta oso kanpokoak ziren haurrak autosariketa baldintzetan eta kanposariketa baldintzetan jarri ziren. Morris eta Messer-ek (1978) aurrean zuten, autosariketa baldintzetan, barnekoak izango zirela lan gehien egingo zutenak, eta heterosariketa baldintzetan, kanpokoak ahaleginduko zirela gehien. Baina, ez zen bete auresate horrek zioena. Orduan, haurrak berriro sailkatu zituzten: barne taldean, barneko bi azpieskalatan altu puntuatutako haurrak bakarrik sartzen ziren: beren bizitzako gertaera positiboak nahiz negatiboak kontrolatzen zituztela uste zutenak. Eta kanpoko haurrak, bi eskalatan altu puntuatzen zutenak bakarrik ziren. Subjektuen sailkapen honetatik eratorritako datuak analizatu zituztenean, auresandako harremana lortu zen. Autosariketa baldintzetan, barnekoek egiten zuten lan gehien. Kanposariketa baldintzetan, kanpokoek egiten zuten lan gehien. Azpieskalen bereizketa ahazten denean, erresultatu esanguratsurik ez da aurkitzen.

B-K kontrolarena, expektatiba generalizatua da. Azpieskalen garapenak gutxiti egiten du bere generalizazio boterea, situazio espezifikoetan bere auresate ahazten badezake ere.

Eraikuntza honekin bukatzeko, esan dezagun «barne» bereizgarriak, kulturalki determinatua dagoen «mendebaldeko gizakiaren» ereduari egokitzen zaizkiola, kultura horretan indibidualismoa eta inizatiba propioa balio oso garrantzitsuak baitira. «B-K kontrolaren» azterketak, garatzen direneko kultur markoaren emaitza dira, nolabait esateko.

7.3. ZUCKERMAN-EN (1971) «SENTIPEN BILAKETAREN» (SB) TEORIA

Berezitasun bakarrek teoriak honek ere oso emaitz interesgarriak eskaini ditu. Kontzeptu hau, «*esperientzia eta sentipen bariatuen, berrien eta konplexuen premia bezala eta arrisku fisiko eta sozialekin konprometitzeko desira bezala*» definitu da. Etengake estimuluei menpekotua egoteko organismoak duen premian oinarritzen da. Teoria honen markoan analisi faktoriala erabili da, eraikuntza horren neurtresna garatu eta egituratzeko.

268 gizonen eta 277 emakumeen bete zuten bere lehen bertsioak 54 item zituen. Bi laginak bereiziki analizatu ziren, eta emaitzak, bariantzaren %30a esplikatzen zuen, eta ia item berdinez osaturik zegoen faktore orokor bat aurkitu zuen erakuskari bakoitzean. Gero, konsistentziaren beste froga estatistiko batzuk egin ziren, eta irizpide guztiak gainditzen zituzten (baita 0.30ren gainetik saturatzearena ere) 22 itemak aukeratu ziren, bai gizonezkoen soluziobide faktorialean, bai emakumeenean.

Ondorengo azterketetan, eskala orokor honetan 0.30ko karga gainditzen zuten itemak inkluitu zitezkeela pentsatu zen, emakume edo gizonen laginetik independenteki, eta 34 itemeko eskala bat osatzera heldu ziren. Bigarren elaborazio honetatik aurrera, SBren eraikuntzaren barnean eraikuntza hori hobeto zedarrituko zuten zenbait faktore bilatzen eta egituratzen saiatu ziren, jatorrizko soluziobide faktorialari errotazio bat aplikatuz. Azken analisi honek iradoki zuen, egon zitezkeela beste faktore adizional batzuk, SB eraikuntzarekin erlazonaturik zeudenak. Horrela, item batzuk erantsi zizkioten, 113 item osatu bitartean, eta 160 gizon eta 172 emakumeri aplikatu zitzairen. Eskala bereizita faktorializatu zuten eta gero, jatorrizko soluziobidea errotatua izan zen. Emaitz bezala, konsistentzi eta saturazio irizpideak biltzen zituzten 72 item gorde zituzten. Hemendik aurrera, ikertzaileek honako urrats hauek finkatu zituzten: errotatu gabeko lehen faktorea, SBko «eskala orokorra» bezala erabil daiteke, bere erabilera teorikorako eta ikerketarako, eta zentzun klinikoago eta aplikatuago batez ere probetxa liteke. Laburtuz, bertsio honek, azken analisi hauen ondoren, zati hauek ditu:

1. «*Sentipen Bilaketaren Eskala edo Faktore Orokorra*».
2. «*Emozioen eta abenturen bilaketa*» izendaturiko lehen faktore bat, kirol jardueretan edo arrisku nahiz bizkortasun maila bat inplikatzeko duten

jardueretan murgildua egoteko desira agertzen duten itemez osatua. Adibidez, jauskailuan jauzi egitea bezalako arriskuzko kirolak praktikatzeko zaletasuna, edo abiadura handiz gidatzeko zaletasuna.

3. «*Esperientzien bilaketa*» deituriko *bigarren faktore* batek, ezarritako konbentzionalismoekiko haustura eta arrisku kontrolagarri batetik igarotzea suposatzen duten esperientzia berriak bilatu eta aurkitzeko premia iradokitzen du. Kleptomania jokaeren oinarrian, adibidez, honelako faktore bat egon liteke.

4. «*Desinhibipen*» deituriko hirugarren faktore batek, ezarritako arauetatik askatzeko eta lotura sozialak hausteko desira bat islada dezake. Normatiboki oso zilegiztatuak ez dauden jokaera pautak berriak, behar bada kode etiko berri batekin, ezartzeko entsegua izango litzateke.

5. Laugarren faktorea gizonengan zedarrituago agertu zen emakumeengan baino. «*Asperrarekiko sentiberatasuna (suszeptibilitatea)*» deitu zuten eta errutinazko lanak errepikatu beharrak edo monotonian bizi beharrak sortarazten duen disgustoa izango litzateke.

Eskala definitiboki behin eraikita gero, *MMPI*, *16 PF*, *EPI*, *MAS* bezalako nortasun irizpide eta irizpide kliniko ezberdinekin analisi korrelazional bat ezarri zen. Emaitzak laburtzen zaila da, baina esan behar da, erai-kuntza horrek eremu klinikoarekiko duen inplikazio garrantzitsua egiaztatu zutela. Aplikazio berezia du adikziozko jokaeretakiko (erre, jan etab), estilo kognitiboetan, drogomenpekotasunetan eta jokaera antisozialetan.

Berezitasun bakarrek teoriek ezin eman dezakete jokaeraren azalpen osorik, hurbilketa oso partziala delako. *Berezitasun bakarrek hurbilketa* nahitaez mugatua bada ere, pertsonaren ikuspen globalik eman ezin duela, bere *aurreate gaitasuna* nabarmena da, *situazio testuinguruaren* barnean aztertutako *jokaera konkretuekiko*. Edozein modutara ere, teoria hauetako bakoitzak berezian duen eragina askoz txikiagoa da, orokorragoak izateko pretentsioekin garatu diren teoriek dutena baino; eta, kasuren batean, marko teoriko orokorrako baten *mikroteoria* izatera heldu dira. Zentzun honetan, situazio aplikatu konkretuetarako botere aurreale garaia erakutsi duten berezitasun bakarrek teoria haien eredu global integratzailearen beharra ikusten da.

7.4. BEREZITASUN ANITZETAKO TEORIETAN

Zentratuz, diferentzia nabariena honetan datza: *Eysenck*-en aukerak kontsideratzen du, *nortasunaren egitura bi edo hiru berezitasun edo dimentsioetatik* abiatuz esplikatu litekeela, *Cattell*-entzat gutxienez *hamasei* behar direnean. Diferentzia hauek ikuskera desberdinetatik abiatuz ezartzen dira, eta, batez ere, teknika estatistikoko multibariatuen erabilera ezberdinetik abiatuz.

Baina, goazen urratsez urrats. Berezitasun anitzetako teoriak jokae-
ra zuzenaren behaketatik abiatzen dira, datu bilketarako hiru teknika
erabiliz:

1. Galdekizunak.
2. Ebaluapenak.
3. Test objektiboak.

1. Lehen teknika da ezagunena eta erabiliena. Galdekizunen erabilera-
ren azpiko arrazoiak hau da: pertsona baten nortasunari buruzko informa-
zioa lortzeko biderik egokiena, berari zuzenki galdetzea da. Bere jokaera,
sentimendu, pentsamendu eta iritziei buruzko galderei erantzutea eskatzen
zaio. Pertsonaren jokaeren erakuskari mugatu bat bakarrik ematen digute,
hots, bere autobehaketak. Datu horiek distortsioetara eman dira, hala-
nahiez, ezjakintasunez edo hautemate okerrez datuak aldatu egiten baitira.
Subjektuak egiten, sentitzen edo pentsatzen duenari buruz *galdera pertso-
nal sail* luzeagoak edo laburragoak formulatzen dira, *erantzun alternatiba
posibleak* ezarritik (gutxienez bi erantzun, eta gehienekoa zehaztu gabe).
Bigarren gaian ikusi genuen bezala, teknika «*egituratua eta halanahiez-
koa*» da, mozorrotua edo mozorrotutu gabea izan daitekeena. Suposatzen
da, subjektuaren jokaera orokorra nahiko ongi errepresentatuko duela jo-
kaera «berbalari» buruzko erakuskari honek. Nolanahi ere, erantzunen
muga eta soslai (sesgo) anitz seinatu dira, eta horien artean, baita galde-
rei erantzutean subjektuak duen autokonzientzia mailari dagokiona ere.

2. Bigarren teknika, *heterobehaketa* ere deitu duguna, subjektuari
arrotz zaizkion *kanpoko ebaluatzaileen behaketetan* oinarritzen da. Jokae-
ra desberdinak deskribatzen dituzten itemen zerrenda bat ematen zaio be-
hatzaile talde bati: «bere gela txukun eta ordenaturik dauka», «talde ezta-
baida batean inizatiba hartzen du» bezalako esaldiak. Item horiei buruzko
ebaluapenak egin behar dituzte behatzaileek, eskala mailakatu baten ara-
bera. Behaketak, gehiago edo gutxiago egituratua eta definitua egon daite-
keen erantzun orri batean biltzen dira. Teknika honekin hutsegite batzuk
ekiditen dira, adibidez, autodistortsioa; baina, beste batzuk produzitzen
dira, behatzaileen arteko eta behatzaile barneko akordiotatik eratorriak ba-
tez ere, errealitatea modu fidagarri eta konsistente batean erregistro kon-
duktual batean isladatu nahi izatean, anbiguitatea maneiatu baharrak nahi-
taez sorturikoak. Ebaluatzaileak ez dira erregistradore mekanikoak,
distortsioetara lotuak dauden gizakiak baizik. Ebaluatzaileek ebaluatuen
nortasunaren alderdi bat bakarrik ikus dezakete. Ebaluatzaileen idiosin-
krasia eta ebaluaketen aurrean dituzten mugak ekidiezinak dira. Gainera,
kanpotik bakarrik beha daitezkeen jokaeretara mugatzen da.

3. Azken teknika, *test objektiboena*, bi aurrekoen zailtasunak eta mu-
gak gainditzeko entsegua da, objektibitatea eta laborategiko baldintza ex-
perimentalak bultzatzen ditu, jokaerak situazio kontrolatuetan bildu eta
probokatzeko. *Kanpo balideziaren* arazoak sortzen dira, testuinguru artifi-

zial batean lorturiko jokaerak generalizatzeko gaitasun eskasarekin, desbirtua baitaitezke; beste alborapen eta artefaktoak ere egon daitezke. Guzt honek, teknika honen mugak agerian jartzen ditu. Bere modalitate erabili-
lienen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

1. Fisiologikoa
2. Kognitiboa
3. Psikomotorea

Lehenaren adibide bezala, «*Limoiairen testa*» aipa genezake. Test honetatik abiatuz, Eysenck-ek aurkitu zuen, subjektu barnerakoiek kanporakoiek baino txistu gehiago jariatzen zutelara, mihia limoi zukuarekin estimulatzean (S.B.G. Eysenck eta H.J. Eysenck, 1967). Bigarren modalitatea, *problemen ebazpen lan* bat burutu eta nortasunaren bereizgarriekin eduki dezakeen erlazio posiblea zehaztean datza, adibidez, *Pelechano-ren «Messung von problemlosen Strategien» (MPS)*, buruhausteko bat ebaztea edo marrazki batzuen izenburua jartzea. Hirugarren alternatiba, ikaskuntz tipu konkreturen bat (mugimenezkoa, ikusmenezkoa etab.) nortasunaren bereizgarriekin erlazionatzean datza, adibidez, *Brenghelmann-en «Figurekonstruktionstests» (FRT)*-ean bezala.

Datuak konpromezua nahitaezkoa da. Metodologiak mugak edukitzeak eta behaketak kutxatzeak ez du eskakizun hori ezabatzen. Aitzitik, kontuzago eta modu kritikagoan ibiltzeko esaten digu, lortutako emaitzak potentziatuz. Nortasunari buruzko datuak biltzea da lehenengo egin-kizuna; hurrengo urratsa, materialeari esanahia aurkitzea da. Ezagutza zientifikoa bat edukitzeko, datu bilketa ahalbidetuko digun metodologia bat edukitzea noraezekoa da, ondoren taldekatu eta esanahia ematen saiatzeko; teknika estatistiko multibariatua erabilienez artean analisi faktoriala dago.

7.5. TEKNIKA MULTIBARIATUAK: ANALISI FAKTORIALA

Apartatu honen helburua ez da teknika multibariatuen eta, konkretuki, analisi faktorialaren azalpen exhaustibo eta detailatua. Anitz dira eduki askoz espezializatuago batekin lan hori modu osoagoan eta sakonagoan garatzen duten eskuliburuak. Nortasunaren egituraren eraikuntzarako duten aplikazioa ulertzea posible egingo diguten ideia orokorretan zentratuko gara.

Hasteko, datuen taldekatze ordenatu eta sistematikorako teknika da *analisi faktoriala*, haien jatorria alde batera utzita. Teknikak, beraz, prozedura estatistiko bat garatzen du, ikertzailearengandik eta beronen kordinada teorikoetatik guztiz independenteki, eta prozedura horretatik abiatu-rik, *aldagaien arteko harremanen ezagutza* argitzaileago bat lor dezake. Horretarako, aldagai hauek modu jarraitu eta dimentsionalizatuan neur-

tuak izan behar dute, subjektuen talde nahiko handian orokorki. Horrela, *galderei edo erreferentzi iteiei subjektuek emaniko erantzunen kodifikazioz osaturiko datu zuzenen matrize* bat finkatzetik hasten da prozedura estatistikoa.

Imagina dezagun, S.E. Hampson-ekin batera, ikertzaile bat gela bateko 50 ikasleren nortasunean interesatua dagoela, eta jokaeraren hogeit hamar itemi buruzko (A-T) ebaluapenak biltzen dituela. Behatzaileek item horiei buruz egiten dituzten ebaluapenak emaitz gordinak dira. 20 zutabeko eta 50 iladatako taula batetan jar ditzakegu. Taulan agertzen diren zenbakiak, ebaluatzaileek haur bakoitzari item bakoitzean emandako puntuazioak dira.

Sarrera bikoitzeko taulan, *iladek subjektuak errepresentatzen dituzte eta zutabeek aldagaiak*. «*R teknika*» deitua da, adimenaren eta nortasunaren egitura eta osagai nagusiak aurkitzeko bereziki indikatua. Lehen matrize honek lehen eraldakuntza bat jasaten du, *koerlazioen matrize* bihurtuz, item «*guztiak guztiekiko*» kobariazioak ezartzean. *Koerlazioen matrizea* lehen begiratura errekonozitzea erraza da, diagonal nagusia 1.00 puntuazioz formatua baita eksklusiboki (aldagai bakoitzak bere buruarekin koerlazioan), eta simetria bat gertatzen da matrizearen behe erdiko indizeen eta goi erdikoen artean; bi triangelu osatzen dituzte, barnean aldagai pareen koerlazio koefizienteak aurkitzen direlarik.

Analisi faktorialaren lehen urratsa koerlazio matrizea da. Item bakoitza beste itemetako bakoitzarekin koerlazioan lortzen da. Koerlazio bategi, itemek elkarrekin ze mailatan kobariatzen duten neurtzen du. Koerlazioen matrizean, bai iladetan eta bai zutabeetan itemen izenak jartzen ditugu, eta matrizearen gorputzean koerlazio koefizienteak jartzen.

Koerlazioen matrizea honetatik abiatuta, prozedura matematiko iteratibo konplexu eta luze baten bidez, *kalkulu matrizialaren bidez*, aldagaiak beren arteko kobariazio amankomunagatik taldekatzen dituzten *azpiko dimentsioak edo «faktoreak»* ateratzen dira. Prozedura honen bidez koerlazioen kopuru handi bat gutxitzea lortzen da, faktoreen kopuru askoz txikiago batean elkarrekin interpretatu ahal izateko. Item kopuru handi bategi, koerlazioen arabera elkarrekin gehien erlazioan daudenak biltzen ditugu, azpiko bereizgarri bera neurtzen dutela pentsatuz. Pentsa liteke, elkarrekin kobariatzen duten itemek gauza bera («faktore» bera) neurtzen dutela. Horregatik, neurri ezberdinak, azpiko dimentsio bakarrean biltzen dira.

Faktoreen kopurua zehaztearekin batera, itemak faktoreekin zein mailatan erlazioan diren ere esaten du analisiak. Item bakoitzak faktore bakoitzarekin duen erlazioa, «*karga faktorial*» bezala ezagutzen den koerlazio motaz kalkulatu da. Faktoreetako bakoitzean «*karga edo saturazio faktorial*» sail bat agertzen da, faktorearen eta aldagai inplikatu bakoitzaren arteko koerlazio direnak.

Faktoreak ateratzeko prozedura asko daude, matrize faktorialaren erroztazioa esate baterako. Nortasunaren psikologian erabilienak, *Hotelling*-en

«*Osagai nagusia*», eta *Kaiser-en varimax* sistema dira. Erlazionaturiko lehen mailako faktoreetatik, hau da, ez-ortogonaletatik abiatuz, errotazioz edo ekstrakzio metodoz, bigarren edo hirugarren mailako faktoreak lor litezke, elkarrekin egitura hierarkiko bat era dezaketenak.

Faktoreen izendapena ikertzailearen esku dago, eta hark bere intuizioaren eta marko teorikoaren arabera izendatzen ditu, arau matematiko zehatzik ez dagoelarik horretarako. Metodologia hau, nortasunaren teoria faktorialistentzat noraezeko teknika bihurtu da.

7.6. EYSENCK-EN NORTASUNAREN TEORIA DIMENTSIONALA


7.6.1. Nortasunaren egitura hierarkizatua

Berezitasun anitzetako teoria faktorialisten artean, hemen aurkezten dugun hau da landuenetako bat. Bere teoriaren formulazioaren hasieran, subjektuen artean dakusagun jokaera barietate handia *nortasunaren bi faktoreetan bakarrik oinarrituta* esplikatu zitekeela pentsatu zuen, eta geroago *hirugarren bat* proposatu zuen. Faktore hauek isolatu eta deskribatzeko, analisi faktorialaren teknika erabili zuen; erakuskari desberdin askotan aplikatzen zuen, nortasunaren egiturari buruzko bere hipotesiak kontrastatzeko. Nortasunaren egituraren formulazio konplexua egin zuen, maila fisiologikoa eta ingurunea bilduz.

Eysenck-engan, jatorrian, teoria somatotipikoek eragina izan zuten, batez ere, aspektu biologiko heredatuen eta konstituzionalen tradizio topologiko grekoa biltzen zuen *Kretschmer-en teoriak eta Jung-en nortasunaren teoriak* ere bai. Jung-ek, esana dugun bezala, pertsonak *kanporakoietan eta barnerakoietan* sailka zitezkeela proposatu zuen. Kanporakoiek beren energia kanporantz zuzentzen dute; barnerakoiek beren burutiko barne egoeretara zuzentzen dute. Jung-en arabera, sintoma histerikoak edukitzeko joera zuten neurotikoak, kanporakoiak ziren; larritasunerako joera zuten neurotikoak, berriz, barnerakoiak ziren.

Malenkoniatsua, kolerikoa, sanguinea eta flematikoa bezalako tipoen arabera, pertsonak tipo batean ala bestean sailkatuak izan behar zuten. Baina, dimentsio terminoa erabiltzean, pertsonak dimentsioan zehar edozein puntutan lekutu daitezke. Eysenck, ikuspegi dimentsionalaren alde agertzen da, eta ez ikuspegi tipologista baten alde. Hasiara batetan, giza nortasunaren aldakuntzen berri emateko bi dimentsio nahikoa zirela pentsatu zuen: barnerakoi-kanporakoitasuna eta neurotizismo-egonkortasuna. Geroago (H.J. Eysenck eta S.B.G. Eysenck, 1976), hirugarren dimentsio bat eranstea proposatu zuten: psikotizismoa.

Kanporakoitasun-barnerakoitasun eta neurotizismo-egonkortasuna dimentsioek lau kuadrante ematen dituzte, grekoen lau tipoekin egokitzen direnak:



Barnerakoitasun-kanporakoitasun dimentsioaren baliokide bezala kontsideratzen ditu Eysenck-ek Kretschmer-en dimentsioak. Jung-en neurosiaren bi aldakiak, larritasuna eta histeria, barnerakoitasun neurotikoarekin eta kanporakoitasun neurotikoarekin, edo grekoen melankoliko eta kolerikoarekin egokitzen dira.

Eysenck-ek hipotesi bat jarri zuen frogan: paziente neurotikoak bi dimentsio horien arabera uler zitezkeela. Paziente histerikoek kanporakoitasun eta neurotikoak izan behar zuten, paziente larrituak barnerakoitasun eta neurotikoak izan behar zuten bitartean. Hospitale militar bateko zazpiehun pazienteren ebaluapen psikiatrikoak jaso zituen; ebaluapen eskalak interkorrelazionatu eta analisi faktoriala egin zuen. Analisi horrek bi faktore nagusi eman zituen: neurotizismoa eta barnerakoitasun-kanporakoitasuna.

Nortasunaren indikatzaile sinpleenetatik abiatuz, Eysenck-ek egitura hierarkizatu bat eraikitzea bultzatu du, analisi faktorialaren laguntzaz. Egituraren mailarik garaienean «*tipo*» edo «*dimentsioa*» kokatuko litzateke, bigarren mailako faktoreez errepresentatua egonen litzakeelarik eta lehen mailako faktoreetan sostengatuko litzatekeelarik, hauek aldi berean nortasunaren *berezitasunez* errepresentatuak. Hauek, beren aldetik, *erantzun eta/edo ohiko jokaeretan* sostengatuko lirateke eta jokaerok erantzun erabat espezifikoeetan agertuko lirateke.

Erantzun espezifikokoak: behin bakarrik behatzen diren jokaerak.

Ohiko erantzunak: egonkortasun bate agertzen duten jokaerak. Antzeko situazioetan antzera erreakzionatzen duenean.

Nortasunaren berezitasunak: ohiko erantzun edo aztura ezberdinen interkorrelaziotik ateratako eraikuntza teorikoak. 1. mailako faktoreak dira.

Tipoak: berezitasun desberdinen interkorrelazioan oinarrituak. Adibidez, gizartekoitasuna, arduragabeziarekin, bizitasunarekin eta bulkadatsutasunarekin elkartzen denean, kanporakoitasuna ematen du.

Eysenck-en arabeko nortasunaren egitura hierarkizatuaren eskema hurrengo irudian ikus liteke; irudi horretan, adibide bezala, egitura deskribatzen da, Kanporakoitasun-Barnerakoitasun dimentsioaren Barnerakoitasun ertzean.

Nortasunaren egitura hierarkikoa, Eysenck-en arabera Barnerakoitasun dimentsioa

Tipo maila	Barnerakoitasuna
Berezitasun maila	Haserrekort. Persistentzia Zurruntasuna Orekatzea Zehaztapena
Ohiko erantzunaren maila
Erantzun espezifikoa maila

Bajuenetatik hasi eta altuenetarainoko elementu guztien *elkardepentzian (ez-ortogonalitatean)* oinarrituta, posible da egitura hau finkatu ahal izatea. Maila bakoitzeko elkarrerlazioek harremanak eta taldekatzeak ezarri ahal izatea zilegiztaten dute; harreman eta taldekatze horietatik abiatuta, goragoko maila hierarkikoa sortzen da. *Aurresate maila* gehitu egiten da *orokortasun mailarekin*, honela, beheneko elementuak dira espezifikoenak eta ezegonkorrenak, situaziotik situaziora aldakorrenak direlarik. Goragoko mailan, ohiko jokaerek badute egonkortasun eta konsistentzi maila garaiagoa, eta haien gain eratzen da nortasunaren ereduaren oinarria. Ohiko jokaeren neurrien elkarkoerlazioetatik abiatu-rik eta analisi faktorialaren laguntzaz, nortasunaren berezitasunak deskribatzen dituzten lehen mailako faktoreen egitura sintetizatzea posible da. Ateratako faktore hauek oraindik elkarren artean esanguratsuki elkar-korrelazionatzen dute, eta analisi faktorialaren bidez, dimentsio eta/edo tipoz deskribaturiko nortasunaren maila garaiago okupatzen duten bigarren mailako faktoreak lor litezke, hauek ia elkarrengandik independenteak edo ortogonalak direlarik.

7.6.2. Lehen eta bigarren mailako faktoreak

Analisi faktorialaren teorikoen arteko eztabaida garrantzitsu bat, akordiorik gabe amaitzen dena, nortasunaren eremua deskribatzeko beharrezkoa den faktoreen kopurua zehaztearena da. Honela, adibidez, *Cattell-ek 16 faktore* kontsideratzen ditu, nahiz eta jarrera hau aldatu egiten duen, unean unean erabiltzen duen metodologiaren arabera, batzutan 21 berezitasun postulatzeraino helduz. Beste autore batzuek, hala nola *Guilford-ek, 14 faktoreekin nahikoa* dela kontsideratzen dute, eta «*California Psychological Inventory*» bezala oso zabaldurik dauden galdekizun batzuek, 18 faktoreri buruzko informazioa biltzen dute. Hala ere, faktore hauen arteko elkarkoerlazioirik gehienak oso esanguratsuak dira beren zatirik handiene-

an, faktoreen kopuru txikiagora reduzi zitezkeelarik, eta eztabaida honetan zentratuko zen: analisiaren zein mailatan dugu hobe mugitzea, lehen mailan, bigarrenean, hirugarrenean etab.

Termino hauetan planteatuta, Eysenck-ek iradokitzen du, bi edo hiru dimentsioekin (*kanporakoitasuna, neurotizismoa eta psikotizismoa*) nahikoa litzatekeela. Hiru dimentsio hauek *ortogonalak, hots, elkarrengandik independenteak* izango lirateke, eta bigarren maila batean kokatuak egongo lirateke, eskema hierarkizatu batean; haietako bakoitzetik abiatuz, lehen mailako faktoreak («nortasunaren berezitasunak») determina litezke, eta hauek, aldi berean, ohiko jokoaretan adarkatuko lirateke, eta hauek erantzun espezifikotetan.

Lehen begiratura hala balirudi ere, sistema hau ez da sinplista, batzuetan halakotzat kritikatu bada ere. Lehenik, nahiko konplexitate duten analisi maila desberdinak erabil daitezkeelako. Eta, bigarrenik, dimentsio ortogonal berriak definitu eta aztertzeko posibilitatea irekita utzi duelako Eysenck-ek; bere lehen ereduaren formulazioa egin ondotik, Eysenck-ek berak inkluitu zuen hirugarren dimentsio bat, «adimenak» joka dezakeen papera eta nortasunaren bereizgarriekin duen erlazioa planteaturik utziz, adibidez.

Eysenck-ek aurrean zuen, neurotiko barnerakoiek, larrituak, obsesiboak edo deprimituak bezala diagnostikaturiko subjektuak bilduko zituztela, eta neurotiko kanporakoiek, histeriko edo psikopata bezala diagnostikatutakoak bilduko zituztela. Hori izan zen egiaztatu zena. Analisi faktorialaren emaitzak sailkapen independente batekin alderatzeko teknika, irizpide analisia bezala ezagutzen da. Bi dimentsioak irizpidearekin ados daudenez, Eysenck ziur zegoen, pertsonak sailkatzeko zentzuzko modua zela berea.

Kanporakoitasunean altu puntuatzen duena, pertsona gizartekoia izan ohi da, jarduera kitzikatzailen bila dabilena. Urduriak, bulkadatsuak eta baikorrak dira. Pertsona barnerakoiek, pertsonen konpainia baino liburue-na nahiago dute; ordenatuak, neurtuak eta serioak dira. Neurotizismoan altu puntuatzen dutenek pertsonarteko zailtasunak eta arazo somatikoak dituzte, tentsioaren eta larritasunaren adierazle.

Geroago, nortasunaren konzeptualizazioan hirugarren faktore bat sartu zuen Eysenck-ek: psikotizismoa. Kanporakoitasunean eta neurotizismoan inkluiturik ez zegoen nortasunaren alderdi bat neurtu nahi zuen faktore honek: krisi psikotikorako pertsonaren aurrejarrera. *Eysenck-en Nortasunaren Galdekizunak (EPQ)* nortasunaren hiru faktoreak neurtzen ditu: kanporakoitasuna, neurotizismoa eta psikotizismoa (H.J. Eysenck eta S.B.G. Eysenck, 1975).

Hans Jürgen Eysenck-en nortasunaren teoria argitaralpen ugaritan zehar garatua izan da. Liburu eta bildumen artean honako hauek azpimarra litezke, garrantzitsuenak bezala: «*Dimensions of Personality*» (1947), «*The Scientific Study of Personality*» (1952), «*The Structure of Human*

Personality» (1953), «*The Dynamics of Anxiety and Hysteria*» (1957), eta «*Handbook of Abnormal Psychology*» (1960, 1973) eskuliburu ospetsu eta eraginkorra. Saiatu zen, bere teoriak behar besteko itzal zientifikoa eduki zezan, sostengu metodologiko ona emanez, eremu sozialean hedadura eta aplikagarritasuna edukitzearekin batera. Konkrétuki, «*Crime and Personality*» (1964) bere liburuan, bere ondorioak eta emaitz orokorrak delinkuentziaren eremu espezifikora luzatu nahi izan zituen. Nortasunaren aldagaien neur-tresna bezala, «*Maudsley Personality Inventory*» (MPI) eta «*Eysenck Personality Inventory*» (EPI) azpimarratu behar dira.

Eysenck-en teoria faktorialaren bereizgarri nagusi bezala honako hauek azpimarra ditzakegu:

1. Jokaeraren zergati bezala, *aurrejarrera eta osagai biologikoak* azpimarratzea, inguruko fakoreen aurrez-aurre. Jokaeraren azken determinazioan ingurune aspektuak garrantzitsuak badira ere, eginkizun oso garrantzitsua ematen zaie teoria honetan egitura eta aspektu fisiologikoei.

2. *Nortasunaren bereizgarriak dimentsionatuak* bezala hartzeko preferentzia, izaera kategorial diskretukoak kontsideratu ordez, hau da, talde eta pertsona desberdinek continuum beraren toki desberdinetan puntuatuko lukete, besteekin erlaziorik gabe kategoria itxien barnean sartu ordez.

3. *Normalitatearen eta anormalitatearen* arteko mugan eragina du honek, kualitatiboki ez, baizik *koantitatiboki zedarritua* baitago, hau da, termino biek posizio oposatuak okupatzen dituzte aldagai beraren continuum-ean. Puntu honek kritika gogorra suposatzen du taxonomia psikiatriko klasikoarentzat. Nortasunaren dimentsio garrantzitsuenak hartzen dira eta subjektu bakoitzak dimentsio bakoitzean duen posizio koantitatiboa kontsideratzen da.

4. Froga proiektiboak eta entrebista klinikoak bezala modu subjektibotan bakarrik balora daitekeen materialearen aurrez-aurre, *interpretazio objektibagarria duten tresna eta neurriak* erabiltzen ditu.

5. Giza jokaera ez da erabat espezifikoa, baizik *orokortasun* maila jakin bat du. Hau da, situazio batetan ematen den jokaera, *aurretiko situazio* batetan eman den jokaerak *esanguratsuki aurrean* dezake. Orokortasun maila aldakorra da ezaugarri kontzeptual desberdinetan, eta nortasunaren maila desberdinak ekoizten ditu.

Honek esan nahi du, nortasunaren egitura orokortasun maila horretatik eratzen dela eta, beraz, *hierarkikoki ordena* daitekeela.

Mailarik bajuenean, erantzun espezifikoko aurkitzen dira. Jokaeraren zati partikularrak dira: aurrean daukagunari hitzegitea, telefonotik deitzea etab. Hurrengo mailan, ohiko azturak aurkitzen ditugu: erantzun espezifikoen taldeak dira. Hirugarren maila, berezitasunen maila da: jokaera behagarritik inferitutako ezaugarriak dira. Ohiko erantzun ezberdinen multzo bat, azpiko berezitasun bakar batez esplika liteke. Berezitasunaren mailaren gainetik, hierarkiaren goi mailan, tipoaren maila aurkitzen da.

Elkarrekin erlazionaturiko berezitasun multzoak dira tipoak: adibidez, kanporakoitasunaren osagaiak dira gizartekoitasuna eta bulkadatsutasuna..

Eysenck-ek hierarkiaren goi mailan tipoak jartzen baditu ere, neurotizismoa, kanporakoitasuna eta psikotizismoa dimentsioak dira, ez tipoak; edozeinek eduki ditzake hirurak, maila desberdinetan. Hiru dimentsio horietako edozeinetan ze puntuazio duen pertsona batek jakinez gero, ze berezitasun, ohiko erantzun eta erantzun espezifiko izango dituen auresan liteke.

Orokortasun maila operatiboki determina daiteke, analisi korrelazionalaren laguntzaz. Orokortasun maila bazuena, *test-retest koerlazioaz* determina daiteke, hau da, *barne konsistentzia*. Hurrengo maila, *berezitasunena*, *testen koerlazioaren* bidez lortzen da, nortasunaren *lehen mailako berezitasun* berak neur ditzakeelarik. Mailarik altuena, *lehen mailako berezitasunen elkarkoerlazioetik* lortzen da, horrela «g» inteligentzia orokorra bezalako *bigarren mailako* eraikuntzak eta nortasunaren eta motibazioaren beste batzuk, dimentsio deituak, eratortzen direlarik. Horregatik, teoria honen helburu garrantzitsua, *nortasun hierarkizatu eta ortogonalaren* egitura samurra bilatu eta lortzea da, jokaeraren bariantza oso dimentsio gutxirekin esplikatzea lortzeko, eredu anbiguo eta konplexua erabili ordez.

6. Metodologi *hipotetiko-deduktiboaren* erabilera, hurbilketa aktuariari dagokiona, metodologi induktiboa, edo «begi klinikoa» oinarritua erabili ordez.

Lan esperimental ugariaren bidez lorturiko nortasunaren dimentsio garrantzitsuenak eta formulazio teoriko bat ahaleztatzen dutenak hauek dira: «joera neurotikoa» eta «extrabertsioa», «intelligentzia orokorraren» («g») ondoan. Geroago, beste bi dimentsio sartu zituen: «psikotizismoa» eta «kontserbadurismoa». Eraikuntza guzti hauek, dimentsioak izatean, bi ertz dituzte. Bata, seinalatu duguna, eta bestea, «egonkortasun emozionala», «barnerakoitasuna», «intelligentzia bazu», «oreka psikopatikoa» eta «erradikalitasuna, liberalismoa».

Eysenck-en teoria dimentsionalak beste teorietako elementuak hartzen ditu, haietatik abiatu beren nortasunaren teoria propioa berdefinitu eta eraikitzeko. Honela, jokaeraren *determinatzaile heredatu eta ingurunetiko* determinatzailei buruzko eztabaida zaharrea, aurrez seinalatu dugun bezala, tipo *biologikoko* zergati eraginen aldeko apustua egiten du. *Teoria konduktistaren* gorakadarekin, *teoriko ambientalistek* psikologia modernon eragin kontsideragarria eduki dute. Hurbilketa hau, bere bertsiorik erradikalenean, ikusi dugun bezala, nortasunari buruzko teoria baten posibilitatea ukatzera heltzen da. *Watson-entzat*, adibidez, «nortasuna, *behaketaz* aurki daitezkeen iharduren batuketa da eta hari buruzko nahiko informazio bil daiteke modu fidagarri eta egonkorrean»; nolabait esateko, subjektu baten *jokaera egonkor* eta bereizgarria da, baina bitarteko erreferentzi arartekotzaile bat planteiatu gabe, eta are gehiago, aurrejarrerazko edo kausalitatezko determinatzailearen bat han kokatu gabe.

Hurbilketa ambientalistarentzat behargarria dena bakarrik har dezakegu kontutan, hau da, *estimulu eta erantzunak (E-E)*. Organismoak, estimulu transmititzaile bezala, bigarren mailako tokia bakarrik okupatzen du, zentzun honetan hura (organismoa) inpultsoarekin identifikatzera jotzen da, eta eskema hau da «Animalien psikologia» deituaren oinarri nagusia, zeina ingurugiroko faktoreen aldakuntzen eta jokaeraren arteko harremanak finkatzen konzentratzen baita, kondizionamendu prozesuen bidez.

Eysenck-ek, jokaera eskema zabalago batean berrartzen du *kondizionamendu kontzeptua, organismoaren bitarteko bereizgarriak* kontutan hartuz. *Hull-ek* seinalatu zuen bezala, jokaeraren gainean eragin erabakiorra dute haiek. Sentipen gabetzearen azterketetatik eta besteetatik ikusi den bezala, *garuna ez da inoiz pasibo* egoten, baizik bere ingurunearekin forma sortzailean elkarreragiten duen fenomeno aktibo bat da. Zentzun honetan, ezarian ezarian, *E-Eren lehen eskema, E-O-E berdintza konduktual* bihurtzen da. Ekuazio honetan aldagai biologikoak ere kontutan hartzen dira, nerbio sistemaren bidez organismoaren erantzunak eta kondizionamendu prozesuak arartekotu behar dituzten aldagaiak. *Eskema berri honekin aurrejarrera biologikoen eta ingurunearen eraginaren arteko konbinaketa posibleak* integratu egiten dira. Behagarriak ez diren osagai hauei buruzko ikerketa, haien operazionalizazioaren bidez finkatzen da. Errepikapen experimentalaren eta analisi korrelazionalaren bidez, talde kriterial normal eta anormal ezberdinen arteko banaketa eta diferentzialtasuna finka daitezke.

Eskema konduktuala berrartuz, Eysenck-ek defendatzen du, *estimularen eta erantzunaren artean eragin sail handi bat aurkitzen dela, organismotik eratorriak* eta estimuluen elizitazioa eta subjektuaren ondorengo erreakzioa aldatzen dutenak. Eraginak, «bitarteko» *aldagai edo aldagai «eskuhartzaile»* deitzen dira, eta ikaskuntz nahiz kondizionamendu prozesuetan determinatzaileak dira. Aztura, errefortzu primario eta sekundario, generalizazio prozesu, inpultso (bulkada), inhibipen kondizionatu eta erreaktibo etab. kontzeptuei buruz Hull-ek garatutako sistematizazioa, bere teoriaran jaso eta integratu zuen Eysenck-ek, eraikuntz eysenckyarrek kondizionamenduan eta jokaeran duten funtzioa zedarrirituz.

Barnerakoien eta kanporakoien arteko diferentzia psikologiko esanguratsuenak, erantzun baldintzatuak eskuratzeko batzuek eta besteek duten erraztasun edo zailtasun erlatibotik datoz. Barnerakoiek, estimulu baldintzatugabearen eta estimulu baldintzatuaren arteko elkarketa kopuru txikia-goarekin lortzen dute erantzun kondizionatua. Gainera, erantzuna iraungiko bada, entsaio kopuru handiagoa behar dute barnerakoiek. Azalpena: barnerakoien arousal maila handiagoa. Barnerakoiaren baldintzatze azkarragorako baldintzak hauek dira: errefortzu partzialeko programak, estimulu baldintzatu gabearen intentsitatea ahula eta bi estimuluen arteko denboratartea laburra. Aurkako baldintzetan, kanporakoia errazago baldintzatuko.

Barnerakoiak sentiberagoa zaio estimulazioari kanporakoiak baino. Barnerakoiak sentimen atalase bajuagoak dituzte, hau da, intentsitate bajuagoko kitzikapenei erantzuten die.

Kanporakoiak epe laburreko oroimen hobea dute eta epe luzeko oroimen txarragoa, barnerakoiak baino. Geroago ikusi zen, kanporakoiak epe laburreko oroimen hobea dutela, oroimenean hartu beharreko lanak zailak direnean.

Eysenck-en arabera, kanporakoiak istripu gehiago edukitzen ditu eta legehauste gehiago egiten ditu. Espetxean gehiagotan aurkitzen da. Nolanahi ere, gaizkiletasunaren aurreale onena ez da dimentsio hau, psikotizismoarena baizik.

Jokaera sexualari dagokionez, Eysenck-en arabera, kanporakoiak sarriagotan edukitzen ditu harreman sexualak, harremanak posizio bariatu gehiagotan edukitzen ditu eta barnerakoiak baino bikote gehiago osatzen ditu. Libido gehiago duela, orgasmo gehiago edukitzen dituela esaten du. Jokaera sexual desinhibituagoa du. Ama ezkongabe gehiago dago kanporakoiaren artean, eta gaixotasun benereok dituzten pazienteak ere bai.

Eysenck-en arabera, barnerakoiaren humore zentzuna hitz-jokoetatik edo inkongruentzietatik igarotzen da; kanporakoiak, berriz, nahiago ditu txiste sexual eta agresiboak.

7.6.3. Joera neurotikoaren oinarri biologikoak

Esan dugun bezala, bere teoriaren elaborazioaren hasieran, nortasuna deskribatzeko bi dimentsioetako sistema bat darabil Eysenck-ek. Gizabanako partikular baten posizioa, bi continuum-en aldaketa koantitatiboaren konbinaketa espezifikoa determinatzen du: «barnerakoitasun-kanporakoitasuna» eta «egonkortasun-labilitate emozionala». Antzeko eskema bat iadanik erabili zuen Wundt-ek, lehenaren tokian «makal-azkar» ardatza eta bigarrenaren lekuan «indartsu-ahul» ardatza kontrajarritik.

Eysenck-entzat, neurotizismo hitzak ez du nahitaz jokoera anormala adierazi nahi, baizik gizabanakoaren emozionalitatea isladatzen duen dimentsioa da.

Neurotizismoaren oinarri neurofisiologikoak sistema linbikoan edo garun biszeralean aurkitzen dira: hipokanpoan, amigdalari, zinguluan, septum-ean eta hipotalamoan. Sistema linbikoa GSEA-tik erlatiboki independentea da. Neurotizismoari buruzko diferentziak, garun biszeral horretatik dependitzen dute, eta neurotizismo positiboa dutenek aktibitate emozional gehiago dute.

Ikaskuntza prozesuak, nortasunaren dimentsioak eta situazioaren elementuak elkartu nahirik, neurosien inkubatzearen teoria landu zuen Eysenck-ek:

- a) Pertsonak badute nahaste neurotikotarako berezko joera bat. Situazio jakin batzuen aurrean bildurrezko erantzunak ematen dituzte, superbizipenera zuzenduriko erantzunak direlarik. Estimulu batzuen aurrean errazago ematen dituzte pertsonak erantzun kondizionatuak, beste batzuen aurrean baino.
- b) Bildurrezko eta larritasunezko erantzunak baldintzatze klasikoak eskuratzen dira, eredu bidezko ikaskuntzaz baino gehiago.
- c) Estimulu baldintzatu gabe bezala, gizakien artean, frustrazioa eta gatazka dira garrantzitsuenak, erantzun baldintzatu gabe mota berezi bat sortarazten baitute: min psikologikoa.
- d) Estimulu baldintzatu bera bakarrik aurkezten bada, iraungitzea gertatzen da: bildur eta larriatsueneko erantzuna desagertzen da. Baina, fobiak, tratatzen ez badira, denborarekin larritu egiten dira, ez dira desagertzen. Estimulu baldintzatu errefortzatu gabe gertatzen den erantzun baldintzatuaren indartze honi deitzeko darabil inkubatze hitza Eysenck-ek. Iraungitzea edo inkubatzea, baldintzen arabera gertatuko da. Erantzun baldintzatuak propietate inpulsiuak ez badu, iraungitzea gertatuko da; propietate inpulsiuak baditu, inkubatzea gertatuko da.

Nortasuna, estresa, minbizia eta gaixotasun kardiobaskularren arteko harremanei buruz, Eysenck-ek dio, estres situazio antzekoek, N+ pertsonengan tentsio gehiago sortzen dutela. Minbizia estresarekin erlazioaturik dago: momentuko estresak kantzerraren hazkuntzaren gehikuntza dakar; estres kronikoak, aitziko eragina du.

Eysenck-en arabera, N+-ak emozionalki hunkikorrak dira, desira sexual gehiago dituzte eta sexuaz gehiago kezkatzen dira. Desira sexualak harremanetara darama, baina bestalde, larritasunak ekiditera darama. Sexuak nahastu egiten du, eta asebate gabe gelditzen da.

Nortasunaren oinarri fisiologikoak aztertzean, kanporakoitasun-barnerakoitasun dimentsioa garunaren Goranzko Sistema Erretikular Aktibatzailearekin jarduerarekin loturik dago. GSEaren iharduera mailak determinatzen du garunaren goi zentruen arousal maila. Garunazaleko goi zentru hauen aktibazio maila honek eragina izango du garunaren behe zentruetan eragingo den kontrolean. Kanporakoiak arousal maila baxua edukiko du; barnerakoiak arousal maila garaia. Horregatik, kanporakoiak estimulazio gehiagoren bila ibiliko dira, barnerakoiak estimulazioa saihesten saiatuko diren bitartean.

Joera neurotikoa eta labilitate (aldakortasun) begetatiboa: Eysenck-ek, nerbio sistema autonomoarekin erlazioaturiko bulkada begetatibo bat bezala hartzen du joera neurotikoa. Neurotikoa nerbio sistema autonomo aldakorra edo labila du, estimulazioari oso sentibera zaiona. Hau baieztatzeko, nerbio sistemaren bi ezaugarritan oinarritzen da. Lehenik, *erreaktibitate kimiko diferentziala* eta sistema begetatiboaren zati *adrenergikoen*

(*sinpatikoa*) eta *kolinergikoaren (parasinpatikoa)* arteko antagonismo fisiologikoa. Bigarrenik, *labilitate begetatiboa* forma jarraituan banatzen da populazio orokorrean.

Labilitate begetatiboa *neurosiarekin* identifikatzen da. Nagusitasun adrenergiko-sinpatikoa gertatzen da subjektu neurotikoengan. Baldintza-garritasunean dituzten diferentzietan aurkitu behar da, neurotiko barnera-koeiek larritasunezko erantzun baldintzatu gehiegi eskuratzearen arrazoia; larritasun neurotikoaren eta neurosi obsesibo eta depresiboen oinarrian jartzen du hori Eysenck-ek. Neurotiko kanporakoiek ikaskuntzaren aspektu batzutan dituzten hutsuneak ere hortik esplikatuta behar dira; histerian eta psikopatian nabarmen agertzen dira hutsune horiek. Eysenck-ek dio, psikopaten jokaera gizarteaurkakoa, konzientziak ezartzen dituen hertsapenen eskurapenean porrot egitetik ulertu behar dela. Neurotizismoak ere eragina izan dezake, neurotizismo maila altua denean, ikaskuntzarekin interferentziak sortzen baitituzte bildurrak eta larritasunak. Horregatik, psikopatak, oso neurotikoak izatean, baldintzatzen zail gertatzen dira.

Joera neurotikoarekin erlazioan eta jokaera pauten ikaskuntzarekin duen harremanari buruz, eztabaidatu behar diren hiru kontzeptu daude:

1. Lehenik, *Yerkes-Dodson-en legeaz* gero badakigu, ikaskuntza U alderantzikatuaren forma duen funtzio kurbilineo batetatik abiatuz deskriba daitekeela, bulkadaren intentsitatearekin harremanean, bitarteko baloreak dituen emaitz optimo bat lortuz.

2. Bigarrenik, *ikaskuntzan* kontutan eduki behar dugu, *bulkadaren eta lanaren zailtasunaren arteko efektu erreziprokoa*. Zailtasuna gehitzen denean, bulkadaren indar optimoa gutxitu egiten da eta bere balore minimora hurbiltzen da. Honela, lan bat zaila bada, bulkada minimo bat eman behar da, eta lana oso erraza bada, bulkada bere balore maximoan eman behar da.

3. Hirugarrenik, hemen paper garrantzitsu bat eduki dezakeen beste osagai bat «*kitzikakortasun kortikalarena*» edo «*arousalarena*» da. *Subjektu neurotikoak, estimulaketa bazu baten aurrean, bulkadaren bizipen indartsu* batekin erreakzionatzen du, emozionala ez den pertsona egonkor batek estimulazio oso indartsu bat jasan dezakeen bitartean, ikaskuntz gaitasuna aldatua sentitu gabe. *Neurotikoaren sentikortasun handiagoak*, subjektu normalak duena baino kitzikakortasun handiagoa damaio, lanean zailtasun (edo mehatxu) maila garaiagoa hautematen denean, eta horrek bere burutzapenarekin interferitzeko joera du.

7.6.4. Kanporakoitasunaren oinarri biologikoak

Eysenck-ek aztertu duen bigarren kontzeptua kanporakoitasunarena da, eta Paulov eta Jung-en teoretatik eratoritzen da. Paulov-ek postulatu zuen, *histerikoaren* nerbio sistema, *inhibipen potentzial indartsu* baten-

gatik bereizten zela eta *psikastenikoarena* (Eysenck-ek distimiko deitzen duenarena) *kitzikakortasun potentzial indartsu* batengatik bereizten dela. Eysenck-ek, behaketa hau, histerikoak tenperamentu kanporakoia eta psikastenikoak tenperamentu barnerakoia duela dioen *Jung-en postulatuekin elkartu zuen*. Ikuskeraz «tipologiko» honi bere konzeptzio dimentsionala erantsi zion Eysenck-ek, garunazaleko inhibipen-kitzikakortasunaren aldaketekin erlazionatuz. Modu honetara, inhibizio erreaktibo indartsueneko eta inhibizioaren disipazio geldieneko subjektuek jokaera kanporakoia izateko joera dute, inhibipen erreaktibo txikia eta inhibipenaren iraungitze bizkorra jokaera barnerakoiarekin erlazionatzen den bitartean.

Eysenck-entzat *histeria eta psikopatia kanporakoitasunaren* aldaketa neurotikoak dira, *larritasun egoerak, obsesioak eta depresio erreaktiboak barnerakoitasunaren* kategoria neurotiko distimikoarekin erlazionatzen diren bitartean. Inhibipen erreaktibo bazu batek eta kitzikapen indartsu batek jokaera barnerakoiaren formak sortertzen dituzte subjektu normalengan eta psikastenien edo sintoma distimikoak (larritasuna, depresioa) neurotikoengan. Inhibipen indartsu batek jokaera forma kanporakoiak sortzen ditu subjektu normalengan eta sintoma psikopatikoa eta histerikoak neurotikoengan. Neurotizismoa eta kanporakoitasuna bi dimentsio independente diren neurrian, lehenak subjektu neurotikoak subjektu normalengandik bereiz ditzake, bigarrena bi taldeen artean banatzen den artean.

Eysenck-en ikuspegitik, osagai psikologikoez eta haien artean, nortasunarenez, oinarri biologiko bat badute, neurri batean heredatua dena eta beste neurri batean ingurunearekin elkarreraginean eraikitzen dena, baina, ez dago behintzat determinismo linealiko faktore biologiko/heredentziazkoen eta jokaeraren artean; jokaera faktore askoren elkarreraginaren emaitza da, faktore horien artean faktore biologikoez garrantzi berezia dutelarik eredu honetan. Eta horrek ez du jokaeraren aurre-determinazio osoa esan nahi, oinarriko aurrejarrera garrantzitsua baizik.

Oinarri biologikoa nortasunean duen eragin hau, «Kanporakoitasun-Barnerakoitasun» dimentsioaren kasua adibide bezala hartuz ikus dezagun. Hemen Eysenck-ek kontsideratzen du, nortasunaren dimentsio hau garunazalaren mailan, «*inhibipen-kitzikapen*» dimentsio biologikoarekin erlazionaturik dagoela. Hau da, maila biologikoan bada aurrejarrera edo joera bat, oinarrian heredatua dena, nerbio sistema zentrala abtibatzeko modua determinatzen duena. Subjektuak, garunazalaren «inhibipen-kitzikapen» handiagoa edo txikiagoaren arabera bereizten dira, horrek ondoren batzuk dituelarik jokaeran, laborategiko esperimenduetatik abiatuz frogatutako bezala. Hain zuzen ere, bereizgarritasun esanguratsua aurkitu da baldintzagarritasunean: kanporakoiek txiki baldintzatuak izateko joera dute eta erantzunaren iraungitze prozesuak azkarragoak dira berengan barnerakoiengan baino.

Eysenck-en arabera, droga lasaitzaileek, dosi txikietan, garunazalaren inhibizioa gehitzen dute, garunazalaren kitzikapena gutxitzen dute, eta jokaera kanporakoia sorrarazten dute.; droga estimulatzaileek, berriz, garunazaleko inhibizioa gutxitzen dute, kitzikapena gehitzen dute eta jokaera barnerakoia sorrarazten dute.

Ondorengo laukian aurki daiteke Eysenck-ek eta bere lankideek aurkituriko emaitz esperimentalen laburpen bat, Pelechano (1972) eta Brengelmann-engandik (1976) hartu duguna.

**«Kanporakoitasun-Barnerakoitasun»
dimentsioaren bereizgarriak, Eysenck-en lan esperimentalen arabera**

	Barnerakoitasuna	Kanporakoitasuna
1. Konstituzio fisikoa	leptomorfoa	eurimorfoa
2. Sedaketa atalasea	garaia	baxua
3. Irudiaren post-efektua	laburra	luzea
4. Pertsonabarneko bariazioa	txikia	handia
5. Estres erreakzioa	hiperaktibitatea	hipoaktibitatea
6. Perzepzio zurruntasuna	handia	txikia
7. Iraunkortasun perzeptiboa	txikia	handia
8. Reminiszenzia	handia	txikia
9. Persistentzia	handia	txikia
10. Bizkortasuna	txikia	handia
11. Bizkortasun/zorroztasun arrazoia	baxua	garaia
12. Begininiaren baldintzatzea	azkarra	geldia
13. Hitzeko baldintzatzea	ona	txarra
14. Problemen soluziobidean hutsegite kop.	gutxi	asko
15. Alerta maila	garaia	baxua
16. Denboraren perzepzioa	luzea	laburra
17. Aspirazio maila	garaia	baxua
18. Errepresioa	ahula	indartsua
19. Gizartekoitasuna	txikia (gutxi)	handia (asko)
20. Jarrera sozialak	gutxi	asko
21. Rorschach	Rs. M-ren % garaia	Rs. N-ren % garaia
22. T.A.T.	produktibitatea bajua	produktibitate garaia
23. Sindrome neurotikoa	distimia	histeria, psikopatia

Baldintzapenean, erreaktibitatean eta beste bereizgarrietan gertatzen diren diferentzia hauek, ikusi berri dugun bezala, ikaskuntz prozesuetan eta konkretukiago, «sozializazioaren ikaskuntz» prozesuetan eragina badute. Honela, adibidez, zigorrari eta sariari zaion sentiberatasunean gertatzen den diferentziak hobeto esplikatu lukeela baldintzagarritasunean ematen den erraztasun edo zailtasuna. Barnerakoiak zigorrarekiko bereziki sentiberagoak izanen lirateke, kanporakoientzat saria esanguratsuki gra-

tifikatzaileago gertatuko litzatekeen bitartean. Zentzun honetan, aurrejarrera biologikoak, inguruneke errealitatearekiko «elkarkomunikazio-mol-daera» mailan isladatzen diren ohiko jarrera eta pentsamenduetan eragina edukiko du. Alde batetik, zirkunstantzi eta esperientziak eta bestaldetik aurrejarrera biologikoen arteko elkarrekinza konplexutik dependituko du, jokamoduak bere jokaera patroiz bereziak har ditzan.

Bestalde, kanporakoitasunaren dimentsioak eta inhibipen erreaktiboarekin duen loturak bere garrantzia du jokaera pauten ikaskuntz prozesuan. Hull-ez gerotzik badakigu, erreazio baten ondoren, ikaskuntz lan baten ondoren adibidez, erreazio berrien, eta, beraz, ikaskuntz berrien agerpena blokeatzen duen *inhibipen* bat sortzen dela. Inhibipen hau gehitu egiten da era guztietako lanen ikaskuntzarako ariketekin, hala nola, lan higikor, kognitibo edo perzeptiboetako ariketekin, eta atsedenearekin gutxitu egiten da. Modu honetara, neuronen nekatzeak errendimentuarekin interferitzen du, bulkada negatibo baten forman. Honela behatu da, «*praktika masiboa*» bereziki indartsuak diren inhibipen erreaktiboak ekoizten dituela. Ikaskuntz indibidualak, sortarazten den inhibipen erreaktiboaren kantitate-tik dependituko du, eta sortarazten deneko erraztasunetik. Jakin ahal izan da, subjektu barnerakoiek kanporakoiek baino onura gehiago ateratzen dutela entrenamendutik, inhibipen erreaktiboari kontrajartzen zaion garunazaleko kitzikakortasun handiagoa baitute; kanporakoiek garunazaleko inhibipen gehiago edukitzean, «nekea» edo inhibipen kortikal azkarragoa eta handiagoa gertatzen baita beraiengan, eta beraz, ikastea lortzeko entsegu gehiago eta pausaldi gehiago behar dituzte (noski, adimena eta beste gaitasunak konstanteak kontsideratzen dira talde biengan).

Gray (1970): baldintzagarritasunaren faktore orokor baten aldeko froga berrikusi ondoren, barnerakoiek kanporakoiek baino baldintzagarriagoak, baldintza jakin batzuetan bakarrik direla ikusi zuen. Zigorra eta sari gabezia sartzen diren situazioetan, barnerakoiek baldintzagarriagoak dira; kanporakoiek, berriz, sari positiboak direnean baldintzagarriagoak dira. Barnerakoiek, beraz, zigorrarekiko sentiberagoak dira; kanporakoiek, sariarekiko dira sentiberagoak. Neurotizismoak bi sistemak bil ditzake, neurotikoak sentiberak baitira, bai zigorrarekiko, bai sariarekiko. Geragoko ikerketa batek ere Gray-ren hipotesia apoiatzen zuen.

7.6.5. Kanporakoitasunaren eta joera neurotikoaren efektu konbinatuak

Nortasunaren bi dimentsioen konbinaketatik, bere ertzeko bi poloekin, sailkapenerako lau posibilitate sortzen dira:

NE: neurotikoa eta kanporakoia (extrobertitua).

NI: neurotikoa eta barnerakoia (introbertitua).

EE: egonkorra eta kanporakoia (extrabertitua).

EI: egonkorra eta introbertitua (barnerakoia).

Ikaskuntzaren prozesuetan eta, beraz, subjektuak bere jokaera finkatu eta garatzeko duen moduan nortasunaren ezaugarri arartekotzaile hauek duten eragina ikertu da.

Eysenck-en lankide batek (Jones, 1960), lan esperimentalen bidez, jokaera ikasiaren tipo bezala uler daitekeen *errendimenduaren eta nortasunaren bereizgarrien konbinaketa* desberdinen arteko harreman garrantzitsuenak ezarri zituen. Horretarako, Eysenck-en MPIaren bidez nortasunaren aldagaiak operazionalizatu zituen eta aurrez deskribaturiko lau kategorietan sailkatu zituen subjektuak. Ondoren, egin beharreko ariketa batzuk jarri zituen eta lau taldeetako bakoitzean errendimendu maila behatu zuen. Talde guztietzat, bulkadaren maila, zailtasunaren maila eta beste parametroak maila optimoan mantenduz, ordenu hazkorrean aurkitu zuen errendimenduaren ordenu seriala honako hau izan zen:

NE → NI → EE → EI

Hemendik ondoriora daiteke, neurosia, jokaera desantolatzeke duen gaitasunagatik, zama bat dela jokaerak ikasteko orduan, eta subjektu barnerakoiek kanporakoiek baino hobeto ikasten dutela; entrenamendu guztietan sortzen den inhibizio erreaktiboa gaingintzeko duten gaitasunagatik, beren garunazalaren kitzikakortasun handiagoan oinarrituta.

7.6.6. Nortasunaren neurketa

Hasiera batetan, ebaluapenak eta test objektiboak erabili zituen Eysenck-ek, berak proposaturiko nortasunaren bi lehenengo dimentsioen neurketan. Geroago, pasazioaren bizkortasun eta erosotasunaren, eta lortzen joan ziren fidagarritasun eta balideziaren funtzioan batez ere, gero ta gehiago erabili zituen galdekizunak.

Asmatu zuen lehen galdekizuna «*Maudsley Medical Questionnaire*» (MMQ, 1947) izan zen, neurotizismoa neurtzen zuten 40 item-ekin eta MMPIren egiaztatutasun egokituaren 18 itemeko eskala zeukana. Galdekizunaren tematika, medikuntzari dagokiona zen nagusiki, eta Eysenck-en arabera, «nortasun desantolatuaren» epai psikiatrikoarekin 0,45 inguru koerlaziozera heldu zen sintomatologia serie bat biltzeko entseguak zen.

Subjektu normal eta anormalengan ezaugarriak dimentsionalki neurtzeko posibilitatea kontsideratzen joan zen neurrian, bereizgarri medikoak baino psikologikoak gehiago zituen tresna garatu zuen, neurotizismoaren ondoan, *kanporakoitasun-barnerakoitasun* dimentsioa biltzen zuena. «*Maudsley Personality Inventory*» (MPI) (Eysenck, 1959) deitu zuen. Guilford-en eskala desberdinetatik jasotako 250 item-etatik, MMQ-tik eta behaketa klinikoetatik abiatu zen, galdekizuna definitiboki eratu zuten 48

item aukeratuz; erdiek neurotizismoa neurtzen zuten eta beste erdiek kanporakoitasuna.

Geroago, item-en analisi jarraikorretatik abiatuz, «*Eysenck Personality Inventory*» (EPI, 1964) garatu zuen, bi eskala paralelorekin (A eta B), eta aurrez esandako bi dimentsioak neurtzen jarraitzen zuten 57 item-ekin (24 item, neurotizismorako; 24 item, kanporakoitasun-barnerakoitasunera-ko; 9 item, gezurrerako joera aztertzeko). Eskala hauek hizkuntza desberdinetara itzuliak eta adin maila desberdinetara egokituak izan dira.

Bi dimentsio eysenckiar hauetan ertzeko puntuaketak dituzten pertso- nek ondoko bereizgarriok edukiko lituzkete:

7.6.7. Kanporakoitasuna-barnerakoitasuna

«Kanporakoi tipikoa gizartekoaia da, bilerak gustatzen zaizkio, lagun asko ditu, haiekin hitzegiteko pertsonak behar ditu eta bakarrik ez da pozik sentitzen. Animazioa bilatzen du, alderako abadaguneak probetxatzen ditu, sarritan espontaneoki aktuatzen du, asko arriskatzen da eta orokorrean inpultsiboa da. Broma astunak egiten ditu, beti erantzun azkarra aurkitzen du eta aldaketak atsegin zaizkio; arduragabea, arina, optimista, farre asko egiten du eta alai egon ohi da. Mugitzeko eta gauzak egiteko, agresibo izateko eta pazientzia galtzeko joera du; bere sentimenduak ez ditu beti dominatzen eta ez da beti konfiantzako pertsona bezala agertzen.»

«Barnerakoi tipikoa lasaia da, erreserbatu samarra, liburuzalea da, lagunzalea baino gehiago; bere baitan bildua eta distantea da, lagun intimoen artean izan ezik. Gauzak planifikatzeko joera du, zuhurra da eta momentuko bulkadetik mesfidatia. Animazioa ez zaio atsegin, eguneroko gauzak seriotasunez hartzen ditu eta bizitza ordenatua gustatzen zaio. Bere sentimentuak hertsiki kontrolatzen ditu, pesimista samarra da eta garrantzi handia damaie arau etikoei.»

K

Gizartekoaia / Bitala / Aktiboa / Dogmatikoa / Sentipenzaea / Arduragabea / Dominatzailea / Surgentea / Abenturazalea

7.6.8. Neurotizismoa

«N balio altuak labilitate (aldakortasun) emozionalaren eta erreakzio anormalerako joeraren seinale dira. Puntuazio altua duten pertsonak *hipersentikortasun emozionalerako* joera izaten dute eta normalitatera itzultzea kostatzen zaie, esperientzia emozionalen ondoren. Honelako pertsonak sarritasun handiagoz experimentatzen dituzte larriak ez diren *nahasmendu somatiko difusoak*, hala nola, zefalalgia, nahasketa gastriko-

ak, insomnia, bizkarreko mina etab. Gainera, *kezka asko, larritasunak eta beste sentimendu desatseginak* eduki ohi dituzte. Sintoma neurotikoak izateko aurrejarrera dute, estresaren efektupean daudenean, baina ez dira nahastu behar aurrejarrera horiek nahasmendu neurotiko zorrotz batekin; pertsona batek eduki ditzake aipatu balore altuak N-an eta hala ere bere lanbidean, sexualitatean, familian eta eremu sozialean jokaera egokia agertu.»

N

Larritua / Deprimtua / Erruduntasuna / Autoestima gutxi / Tentsoa / Irrazionala / Herabea / Tristea / Emotiboa

Subjektu «barnerakoi» edo «kanporakoi» puruak oso arraroak dira. «Inteligentziaren» edo beste aldagaien kasuan bezala, dimentsio honetan ere banaketa normal bat gertatzen da populazioan. Subjektu gehienek, nahiz eta polo baterako joera eduki, bietako bereizgarriak dituzte.

Kanporakoitasun eta neurotizismoarekin batera, geroago, «*Psikotizismoaren*» (Eysenck & Eysenck, 1968) eraikuntza ere garatu zen, «*haustura psikotikorako aurrejarrera*» bezala definitua. Aurreko aldagaiak bezala, populazio normalean forma dimentsional jarraitua agertzen du, eta ertz batean bakarrik errepresentatzen du «psikosiak». Eysenck-darrek, eraikuntza hau goian aipaturiko lanean deskribatutako 20 item-etatik abiatuz definitzea lortu zuten.

P

Oldarkoia / Hotza / Egozentrikoa / Inpertonala / Bulkadatsua / Antisoziala / Ez-enpatikoa / Hunkiezina

P-n puntuazio garaia dutenek, psikotiko ez izan arren, halakoa izateko aurrejarrera eta minberagarritasun bat edukiko lukeen subjektu bat deskribatuko lukete. P-n puntuazio baxua dutenek, normalitate ez psikotikoa bakarrik agertuko lukete, puntuazio oso baxuak dauzkaten neurrian, joera hori edukitzeko probabilitate gutxiago edukiko litzateke. Puntuazio altuetako subjektuak, ondorengo aspektu hauengatik bereziko lirateke:

1. Bakartia, beste pertsonen xera preziatzen ez duena.
2. Desosegatua, egokitugabea.
3. Ankerra, besteekiko etsaitasuna.
4. Sentimendu afektiboen gabezia, sentikaitza, enpatia gaitasunik ez.
5. Sentipenen bilaketa: juergazalea.
6. Besteekiko etsaitasuna duena, erasokorra maite dituenekiko.
7. Arrarotasun eta extrabagantziarako joera.
8. Arriskuaren zentzunik eza, temerarioa.
9. Besteak zorutzen eta nahasten ditu. Besteak deskonzertatzea atsegin du.

Ondorengo laukian 20 itemez osaturiko psikotizismo eskala, eraikuntza hori neurtzeko eskuarki erabilia, aurkitzen da (Eysenck & Eysenck, 1968, or.290).

Eysenck eta Eysenck-en Psikotizismoaren Eskala (1968)

-
- (+) 1. Gauza gehienei buruz indiferente al zara? (berdin al dizu bat ala beste?)
 - (+) 2. Maite zaituztenak zauritzen disfrutatzen al duzu?
 - (-) 3. Osasun ona al duzu normalki?
 - (-) 4. Zure ama emakume ona izan al zen?
 - (+) 5. Gehiengoak baino tragu txar gehiago pasatu al duzu?
 - (+) 6. Zorte txarreko denboraldi izugarri bat pasatu al duzu?
 - (+) 7. Gaixotasunak harrapatzeko oso kezka handia al duzu?
 - (-) 8. Zure ama maite al zenuen?
 - (+) 9. Ekiditen (saihesten) zaituzten hainbat pertsona al daude?
 - (+) 10. Zure kezka gehien arduradun den norbait ba al dago?
 - (+) 11. Zure ametsak prebenitzen edo gidatzen al zaituzte?
 - (+) 12. Jendeak irainak erraz asumitzen dituela iruditzen al zaizu?
 - (+) 13. Efektu extrainoak edo arriskitsuak eduki ditzaketen drogak hartuko al zenituzke?
 - (+) 14. Kalte egin diezazuketean etsaiak ba al dituzu?
 - (+) 15. Zure laguntasuna erraz hausten al da, zure erruagatik izan gabe?
 - (-) 16. Zure aita gizon ona izan al zen?
 - (+) 17. Kalte egiten dizuten gauzak esan eta egitea pretenditzen al du jendeak?
 - (+) 18. Arrakasta gehiago edukiko al zenuen, jendeak zure bidean zailtasunak jarri izan ez balitu?
 - (+) 19. Autobusa bezalako toki itxi batean zaudenean, kutsadura arriskueta kezkatzen al zara?
 - (-) 20. Haur bat edo animalia bat sufritzen ikusteak asaldatzen al zaitu?

Oharra: (+) eta (-) zeinuen psikotizismoaren norabidean itxarondako erantzuna seinaltzen du.

Psikotizismoaren kasuan, Eysenck-ek ez du oinarri biologiko bezala egitura neurofisiologiko konkreturik proposatzen. Hipotesi poligenikoari eta ikerketak bere garaian ager ditzakeen gen espezifikoaren hipotesiari helden dio Eysenck-ek. Nahaste psikotikoak dimentsio jarraitu baten ertzeko poloa dira; dimentsio horrek bilduko lituzke, jokaera normaletik hasita, jokaera gaizkilea, jokaera psikopatikoa, alkoholikoa, drogomenpekotasunezkoa, jokaera eskizoidea eta egoera psikotikoak.

Hasiera batetan Eysenck-ek E+-arekin lotzen zuen inpulsibitatea, baina gaur egun P+-arekin lotzen du. Bestalde, P+-a duenarengan agresibitatea ere osagai garrantzitsuenetakoa da; agresibitate hori, testosterona mailarekin erlazionaturik egon daiteke. Eysenck-ek P+ duen pertsonen testosterona maila garaia goa dutela ikusi zuen. Inpulsibitatearen eta agresibitatearen korrelato biologikoak, jokaera antisozial garaia duten pertso-

nengan aztertu dira. Eysenck-ek berehala ikusi zuen, espetxeratuen, drogazaleen edo alkoholikoen taldeek P-an ountuazio garaiagoak zituztela, psikotikoek baino (irizpide taldeak baino).

Eysenck eta lankideen arabera:

1. Gaizkiletasuna P mailarekin erlazionatzen da.
2. E-I dimentsioak ere gaizkiletasunarekin erlazionatzeko joera du.
3. Gaizkile gehienek, nerabeak kenduta, N+-a dute.
4. EPQ-ko L eskala konformitate sozialaren neurri dela jakinda, L-aren eta jokaera antisozialaren arteko koerlazioa negatiboa dela ikusi da.
5. EPQ-ko itemetatik abiatuta egindako gaizkiletasunaren eskalak, hiltzaileen eta hiltzaile ez direnen artean bereizketa esanguratsua egiteko balio du.
6. Inpulsibitatea, arriskuzaleatasuna, abenturazaleatasuna eta enpatia bezalako berezitasunek jokaera antisozial eta hiltzailearekin korrelazionatzen dute, itxarondako zentzuan.
7. Nortasunaren eta gaizkiletasunaren arteko korrelazioek badute kulturaz gaindiko balidezia bat, garantzi berberaz agertzen baitira lurralde eta kultura desberdinetan.


Eysenck-en teoriaren laburpen estu honetan nortasunaren aldagai honeztaz detailean okupatuko ez garez, lerro batzuk dedikatuko dizkiogu hemen. Neurotizismoaren eta kanporakoitasunaren dimentsio independente hau aztertzen 20 urte baino gehiago ari diren arren, hala ere, balideziaren indikatzaileak inoiz ez dira izan behar bezain indartsuak. Delinkuentziaren eta «joera hiltzailearen» gaian, batez ere, jarri den ahaleginak ez du eman espero zen fruiturik, nahiz eta lortu dela dirudien aldagai horretan botere diskriminatzaile bat aurkitzea, subjektu normalen eta giltzaperatuen artean. Zailatsun hauek autoreren bat eraman dute, P-k psikopatologia edo batez ere, «bere burua eta besteak modu negatiboan epaitzeko joera» detektatzen duen planteatzea.

7.6.9. Kanporakoitasun eta neurotizismo korrelatoak

Eysenck-en erudian duen finkamendu handiagogatik, eta nahiko garrantiaz biltzen dituelako konsistentzi eta egonkortasun irizpideak, kanporakoitasun eta neurotizismo dimentsioen korrelatoak deskribatu behar ditugu (Psikotizismoak zorte desberdina izan du, parametro estatistikoko horiek ezin izan direlarik bermatu (Baumann & Dittrich, 1976)).

Galdekizun eta tresna objektiboetatik abiatuta, laborategiko experimentuen, datu bilketa enpirikoaren eta irizpide bilketaren kopuru handi bat egin eta estatistikoki analizatu ondoren, Eysenck-ek 6.7 irudian agertzen den bezala laburbiltzen ditu bere erresultatuak:

Nortasunaren egituraren korrelatoak, Eysenck-en arabera



Zirkuluaren kanpoaldean adierazitako bereizgarriek, analisi faktoriala aplikatu den lan kopuru handi baten emaitzak agertzen dituzte. Bakoitzak okupatzen duen posizioak, besteekiko duen koerlazioarekin zerikusia du; honela, elkarrengandik zenbat eta hurbilago egon, amankomuneko kobariario handiagoa edukiko dute eta zenbat eta beren posizioa urrunago egon, zirkuluaren beste alderaino, erlazioa galtzen joango dira, negatibo eta/edo antagoniko bihurtu bitartean. Bi bereizgarrien arteko angelua 90 gradu ingurukoa denean, koerlazioak ez-esanguratsua izateko joera izango du eta kontzeptuak elkarrengandik independenteak izango dira, erlaziorik ez gordez, ez positibo eta ez negatiborik.

Zirkuluaren barnean agertzen diren izenek, temperamentuetan islatzen ziren antzinateko teoria biotipologikoak bere erakarrietara eta bere teoriaren eremuan garatutako azterketa enpirikoetara hurbiltzeko eta egokitzeko Eysenck-ek egindako ahalegina agertzen dute. Ia ez dago kategoriatan diskretu independenterik, baizik, temperamentu batekoa edo bestekoa izateko modu mailakatu batean gertatzen da eta beste temperamentuekin kobariatuz, temperamentu pururik eta ezaugarri determinanterik ez dagoelarik; temperamentu predominantek bai, beste temperamentuen ezaugarriez lagundurik joan daitezkeenak, eta, edozein modutara, subjektuek maila handiagoan edo txikiagoan dituzte, eta subjektua kategoriatan konkretu batekoa izatea determinatuko dute, osotasunean.

7.6.10. Nortasunaren inplikazioak anormalitatean

Postulatu den bezala, Eysenck-en nortasunaren ereduko aldagaiak *dimentsionalak* dira, hau da, *etengabeko jarraipen* printzipio bat dute, *normalitatetik anormalitateraino* doana. «Dena edo ezerez» joerako jauzi koolitatiborik ez dago, baizik jauzi mailakatuak. Hainbat dimentsioren laguntzaz, Eysenck-ek sailkapen psikiatriko berria lortu nahi du. Honela, teoriak esaten du, *neurotiko «distimikoek»*, hau da, larritasuna, depresio erreaktiboa, ideia obsesibo konpulsiboak eta fobiak jasaten dituzten subjektuak «*kuadrante melankolikoan*» sailkatuko lirakeela, hau da, oso introbertituak eta labilak direla. Subjektu *histerikoak, psikopatak eta gaizkileak* orokorrean, «*kuadrante kolerikoan*» aurkituko lirakeke; beren ezaugarrien artean nagusiak, kanporakoitasunaren osagaiak eta labilitate emozionala dira. Neurosia, lehen kasuan subjektu beraren kontra orientatzen da eta bigarrenean, gizarte ingurunearen kontra. Eysenck, ideia hauek espermentalki frogatzen eta ikertzen joan da urte askotan zehar, erresultatu desberdinekin. Bere ahaleginak meriturik baduen arren, ez dira beti positiboki egiaztatu bere hipotesiak (Guerra, 1980).

7.7. CATTELL-EN NORTASUNAREN BEREZITASUNEN TEORIA

7.7.1. Sarrera

Ingalaterran jaio zen 1905ean. Londres-ko Unibertsitatean, batxiler titulua lortu zuen kimikan. London-eko Unibertsitateko Kings College-en doktoratu zen 1929an. Hurrengo urtean ezkondu zen Monica Rogers-ekin, eta dibortziatu ondoren, 1962an berriro ezkondu zen, matematikari batekin. Urte askotan Charles E. Spearman-en ikerketa laguntzaile izan zen Exeter-eko Unibertsitatean. Spearman izan zen analisi faktorialaren sortzaile. Nortasunari buruzko azterketa sail bat egin eta Leicester-eko Haurren Orientazioko Klinikako zuzendari izan zen 1932etik 1937ra bitartean. Garai honetan ezagutu zuen teoria psikoanalitikoa, eta horrek eragina izan zuen motibazioa ulertzeko moduan. Estatu Batuetara joan zen, 1937an. Estatu Batuetan, Columbia, Harvard, Clark, Duke eta Illinois-eko unibertsitateetan irakatsi eta ikertu zuen. Hogei urtez izan zen Illinois-eko Unibertsitateko Nortasunaren Diagnosirako Laborategiaren zuzendari. Artikulu eta liburu asko idatzi ditu, eta ikerketa sari ospetsuak jaso. Gaurregun, Hawaii-ko Honolulu-ko Unibertsitatean dago.

Bere bizitzan jaso dituen eraginen artean aipatu beharrekoak:

—Nortasunaren ikerketan analisi faktoriala erabili eta nortasunaren egituraren antolamendu hierarkikoa ezarri. Honetan, Charles E. Spearman eta Cyril Burt-en eragina nabari da. Spearman-ek zioen,

test mental guztiek, ezaugarri espezifikokoak neurtzeaz gain, haien oinarrian zegoen eta gaitasun guztiei amankomuna zitzaien «g» indize edo gaitasun orokor bat ere neurtzen zutela, neurri handiagoan edo txikiagoan.

- Cattell-ek motibazioari buruz dituen ideiak, Wiliam McDougall-en eraginetik datozkiola dirudi. Gizaldi hasierako bere idatzietan, McDougall-ek gizakiarengan hamabi instintuk eragiten zutela esan zuen: gosea, disgustoa, jakinmina, bildurra, haserre, sexu jotzea (larrujotzea), amatasuna, gregarismoa, autobaieztapena, menpekotasuna, eraikuntza eta eskurapena. Gizakiaren esperientzien buruan, lehen mailako motibo hauek objektuekin lotzen dira eta sentimenduak sortzen dira. Honela, adibidez, amodioaren sentimendua, instintu sexual, gregario edo amatasun instintuen agerpen izan daiteke.
- Cattell-ek, nortasunari buruzko ikerketa, esperientzia klinikoarekin batera eraman zuen.
- Kimika arloko bere ikasketek ere eragina izan zuten bere psikologian. Mendelejev-ek kimikako elementuak sailkatu zituen bezala, Cattell nortasunaren aldagaien taxonomia bat egiten saiatu da.

Cattell-ek darabilen ikerketa metodoaren eta nortasunaren teoriaren artean harreman estua ikusten da. Metodoaren eta teoriaren arteko sinbiosi bat kontseilatzen du: teoriak neurrian oinarritu behar du, baina neurriak esanguratsua izan behar du.

Hiru metodo bereizten ditu Cattell-ek nortasunaren azterketan: bi aldagaiena, multibariatua eta kliniko.

1. Metodo unibariatua edo bibariatua: aldagai baten (independentearen) kontrola eta aldaketa sistematikoa beste aldagaiaren (dependentearen) aldaketekin erlazionatzen da. Bibariatua da, bi aldagai dituelako: esperimentatzaileak zuzenki manipulatzeko duena edo independentea; dependentea, manipulazio esperimentalaren ondoren ezagutzeko neurtu edo erregistratu behar dena. Metodo honen abantailak: harremanen argitasuna eta kontrola dira. Desabantailen artean hauek aipatu behar dira:

- a) kontrolatu behar diren aldagaiak ezin daitezke oso garrantzitsuak izan, arazo etikoengatik;
- b) subjektu esperimentalei oinazeak eta sofrikarioak ekidin behar zaizkienez, sorrarazitako aldaketak txikia behar du izan;
- c) zergati erlazio linealak aztertzen ditu, gehienik ere hiru aldagai isolatu baitaitezke (aldagaiak ugaritu ahala, artefakto estatistikoaren maila igotzen da), eta aldagai horien eta besteen arteko elkarreraginarekin arazoa baztertera uzten da.

Metodo honek fisikaren diseinu esperimental klasikoa jarraitzen du, eta bere jatorria Wundt-engan, psikologia modernoaren sortzailearengan

aurkitu behar da. Ez da batere erabilgarria metodo hau nortasunaren ikerketarako, aldagai eta elkarreraginen konplexutasun handia gertatzen baita arlo honetan. Bi aldagaien arteko zergati erlazioa argitu nahi denean, kasu oso konkretuetan bakarrik erabil daiteke. Prozesu konplexuek ihes egiten diote; prozesu sinpleak eta arruntak aztertzeraz mugatua dago.

2. Metodo multibariatua: aldagaien kopuru handi baten arteko aldi bereko harremanak bere situazio naturaleko testuinguruan aztertzen ditu, subjektuen erakuskari batean. Metodo honetan ikerlariak ez ditu aldagaiak manipulatu, erlazio funtzionalak ezarri bakarrik baizik. Bizitzak berak egin behar ditu esperimenduak. Aldagaiak beren konplexitatean eta zehaztasunean neurtu eta haien arteko erlazioaren kobariazio estatistikoak ezartzen saiatzen da. Manipulaziorik ez egotean, zehaztasuna galtzen du, baina ez ditu galtzen objektibotasuna eta kontrastagarritasuna. Metodo estatistikoaren bidez dimentsioak eta zergati lotura esanguratsuak ateratzen dira.

Lehen bi metodo hauek garrantzi handia ematen diote zehaztasun zientifikoari.

Cattell oso kritikoa da bi aldagaien metodoari buruz, bi aldagaien arteko erlazioari bakarrik begiratzea, nortasunaren ikuspegi atomista bat edukitzea baita. Giza jokaera oso konplexua da eta aldagai askoren arteko elkarrekintzaren adierazpena da.

3. Bi aldagaien metodoaren aurrez aurre, metodo klinikoak gertatzen diren bezala aztertzen ditu jokaera garrantzitsuak, organismo osoaren funtzionamenduan erregulartasunak bilatuz. Pertsonarentzat garrantzitsuak diren elementuak aztertzen ditu. Metodologia bezala, nagusiki, intuizioa eta «begi kliniko» darabiltza. Bere arazo nagusia, datu bilketan, analisi moduan, azalpen eremuan eta pronostikoan adostasunik ez lortzearena da. Bere baieztapenak egiazkoak edo gezurrezkoak izan daitezke, baina inoiz ez kontrastagarriak edo fidagarriak.

Bai metodo multibariatua, bai metodo klinikoa, gertaera globalez interesatzen dira; biei, jokaeraren pautak konplexuak, bizitzan gertatzen diren bezala, interesatzen zaizkie. Klinikoaren eta multibariatuaeren arteko diferentzia: lehena intuizioaz baliatzen da aldagaiak diagnostikatzeko garaian, eta memoria darabil, gertaeren haria jarraitzeko; bigarrenak, prozedura esperimentaletara eta analisi estatistikoetara jotzen du. Cattell-entzat, metodo klinikoa multibariatuaeren antzekoa da, baina zehaztasun zientifikoaren kezkarik gabe.

Cattell-ek metodo multibariatua hobesten du. Eta ikerketa multibariatuan darabilen metodo estatistikoa analisi faktoriala da. Metodo honek, Cattell-entzat, beste bi metodoen ezaugarri positiboak ditu, eta aldagaien kontrolean bakarrik galtzen du zerbait; horretan metodo multibariatua bezain zehatza ez da, baina, gai da fenomeno konplexuak beren situazio naturalean aztertzeko.

7.7.2. Egitura

Situazio jakin batean pertsona baten jokaera aurrerata ahalezatzen duenaren batuketara da nortasuna, Cattell-entzat. Formula honen bidez ager liteke:

$$R = f(S, P)$$

Jokaeraren erreakzioa (R), situazio estimularraren (S) eta nortasunaren egituraren (P) funtzioa (f) da.

Nortasuna deskribatzeko, bi dimentsio mota handi bereizten ditu Cattell-ek: erlatiboki egonkorak direnak eta berak berezitasunak (traits) deitzen dituen ezaugarriak eta situazioaren arabera aldatzen diren ezaugarriak: egoerak, rolak, humore disposizioak (states, roles, sets).

Nortasunaren egituraren oinarritzko elementua *berezitasuna* da Cattell-entzat. Erreakzionatzeko joera orokorrak eta jokaeraren ezaugarri iraunkorak adierazten ditu berezitasunak. Denboran eta situazio desberdinetan zehar jokaerak duen nolabaiteko konfigurazio eta erregulartasuna suposatzen du berezitasunak.

Berezitasunen sailkapen desberdinak egiten ditu Cattell-ek. Hona hemen bi: Berezitasun mota konplementarien araberrako zatiketara eta azalpen formen araberrakoa.

A) Berezitasun mota konplementariak:

- Berezitasun *orokorrak* eta berezitasun *singularrak*: Berezitasun batzuk pertsona guztiei amankomunak zaizkie (common traits), besteak pertsona batzuen eksklusiboak dira edo gizabanako bakar bati dagozkionak dira (unique traits). Berezitasun orokorren adibideak: adimena, gizartekoitasuna, barnerakoitasuna; guztiengan era berean agertzen dira, intentsitate desberdinean bada ere. Berezitasun singularren adibideak: talentu edo berezitasun dinamikoak: adibidez, mendi baten gaina harrapatzeko gaitasuna.
- Berezitasun *konstituzionalak* eta *ingurune* berezitasunak: batzuk hereditariak determinatuak dira, besteak inguruneak eraginak eta besteak, bien nahasketaz sortuak.
- Azaleko berezitasunak eta oinarritzko berezitasunak: berezitasunen arteko bereizketa garrantzitsu bat, *azaleko berezitasunen eta iturburu (oinarritzko) berezitasunen* artekoa da. Oinarritzko berezitasunak, konstituzionalak (constitutional traits) izan ohi dira, baina inguruneak remodelatuak dira. Azaleko berezitasunak, inguruneko eraginetatik sortuak dira (environmental mold traits), baina faktore konstituzionaletan oinarritzen dira. Azaleko mailan (surface-traits) elkarrekin loturik agertzen diren jokaerak, baina elkarrekin kobarietzen ez dutenak eta zergatizko sustrai bera ez dutenak biltzen dira azaleko berezitasunean. Iturburuko berezitasunean (source-traits),

elkarrekin kobariatzen duten jokaerak biltzen dira, eta nortasunaren dimentsio baterakor eta independente bat agertzen da. Azaleko berezitasunak metodo subjektibo bidez aurkituak izan daitezke, baina iturburu berezitasunak aurkitzeko analisi faktorialeko prozedura estatistikoetara jo behar da. Berezitasun hauek dira nortasunaren erai-kuntzaren blokeak.

Nola aurkitu ordea berezitasun sakon hauek?

Datuen hiru iturri daude Cattell-entzat: bizitzatik sortzen direnak (Bizitz datuak: B-Datuak), galdekizunetatik sorturiko datuak (Galdekizun datuak: G-Datuak) eta test objektiboetatik sorturikoak (Test Objektiboetako datuak: TO-Datuak).

B-Datuak: bizitza errealeko eguneroko situazioetan gertatzen diren jokaerekin dute zerikusia. Heterobehaketaz biltzen dira datu hauek.

G-Datuak: galdekizunetatik lortuak, subjektuaren introspektiotik dependitzen dute. Gezurra eta autoiruzurketa posibleak dira.

TO-Datuak: situazio estandarizatuetatik lortuak, erantzunen erregistroa objektibatzen saiatzen diren prozedurak darabiltzate. Datu bilketarako Cattell-ek hobesten duen iturria da test objektiboena. Jokaera-situazio miniaturizatuak dira: zehazki neur liteke, bai kitzikapena eta elizitazioa, baita erantzuna ere. Gainera, subjektua ez da jabetzen, bere erantzunaren eta neurtu nahi den nortasunaren arteko harremanaz.

Hiru datu mota hauetatik abiatuz, teknika multibariatuen eta analisi faktorialaren bidez, faktore berberak lortu nahi ditu Cattell-ek, azpian dauden nortasunaren egitura berbera baita. Ikerketa multibariatuek eta analitiko-faktorialak nortasunaren oinarritzko egiturak ezagutarazi baditzaizkete, orduan datu guztiek (B-Datuek, G-Datuek eta TO-Datuek) faktore eta berezitasun berberak eman behar dituzte.

Cattell-en ikerketa prozesua *B-Datuekin* hasi zen. Giza jokaeran garrantzi gehien duten aspektuei buruzko informazioa bildu zuen. Hasierako bilduma honek «nortasunaren eremua» izena hartu zuen, eta helburua, «iturri-berezitasunak» aurkitzea zen. B-Datuen hasierako ikerketan, zera aurreuposatu zuten: nortasunaren eremua biltzen duten jokaerak hizkuntzaren bidez espresatzen direla sinbolikoki. Hau da, bere jokaeren deskribapenerako subjektuek darabiltzaten hitz guztiak biltzen baditugu, nortasunaren eremu osoa biltzea lortua izango dugu. Ikerketaren hasieran, beraz, berezitasunen izenen oinarritzko zerrenda bat bildu zuten, jokaerari buruzko 4000tik gora hitzez osatua. Zerrenda hau, literatura psikiatriko eta psikologikoko beste hitz batzuekin osatu zuten. Sinonimoen analisi baten bidez, zerrenda 200 ezaugarri baino gutxiagotara bildu zuten. Ondoren, 100 pertsona helduk ezaugarri hauetako bakoitzean lorturiko puntuazioak hartu eta analizatu ziren eta 42 aldagai bipolodun atera ziren: lasaia-eremua, aktiboa-pasiboa etab. Ondoren, helduen erakuskari zabal bat ebaluatu zuten, aldagai hauetako bakoitzean, eta gero ebaluapenak

faktorialki analizatu zituzten. Analisi horretatik, lehenik 12 faktore atera ziren, eta geroagoa, antzeko beste experimentu sail batek, bizitza erreale-tiko 15 faktore.

Analisi honetan aurkituriko 15 faktoreetako batzuk jokaeraren ebaluazioan erabilitako ohiko kategoriekin uztartzen ziren. Beste batzuk, aldiz, ez ziren egokitzen gizartean finkaturik zeuden espresioetara. Azaleko berezitasunen azpian gorderik zeuden iturburuko berezitasunak izendatzeko hitz egokirik ezean, Cattell-ek hitz berriak asmatu zituen. Lehenengoen adibide bezala, Dominantzia-Menpekotasuna berezitasuna daukagu. Bere-zitasun honek ondorengo adjektibo bipolodun hauek biltzen zituzten: aser-tibo-menpekoa, segurua-insegurua, kementsua-otzana, abenturazalea-he-rabea. Bigarrenen adibide bezala, Molizie-Gogortasuna har dezakegu, edo gero deitu zuten bezala, «Premsia-Harria». Berezitasun honetan bildutako adjektiboak honako hauek dira: inpazientea-emozionalki heldua, irudi-mentsua-irudimenik gabea, friboloa-arduratsua. Hitz hauetako batzuk gre-ko klasikoan dute jatorria eta besteak Cattell-ek berak asmatutako hitz konposatuak dira. Honela, esate baterako, «premsia», «protected emotio-nal sensitivity» terminoetatik dator, «harria», «hard sensitivity» termino-e-tatik. Geroago, faktoreak izendatzeko zenbaki bat eta indize unibertsal bat erabiltzen zituen, konnotazio semantikoaren problemarik egon ez zedin.

B-Datuetan diferentzia indibidualak esplikatzeko aurkitutako faktore interesgarrienetakoa, Ziklotimia-Eskizotimiarena da. Literatura klinikoan agertzen den faktore honi orrialde asko eskaini zizkieten Kraepelin eta Kretschmer-ek. Dimentsio honekin erlazionaturiko berezitasunak ondoko hauek dira: kontentaeraza-kontentagaitza, moldakorra-zurruna, beroa-hotza, irekia-erreserbatua, konfiatua-deskonfiatua, komunikatzailea-ezko-munikatzailea. Bere agerpenik ertzekoenetan, pertsona ziklotimikoak umore aldaketa bapatekoak jasaten ditu, depresiotik euforiara oso erraz iraganez. Pertsona eskizotimikoak, aldiz, hotsasun eta bakardaderako joe-ra du, eta pertsona nahiz situazioekin konpromezu afektibo guztiak ekidi-ten ditu. Iturri berezitasun hau gorputz egituraren diferentziei loturik doa, ziklotimikoaren gorputzak eskizotimikoarenak baino forma borobilagoak dituelarik. Dirudienez, beraz, pertsonaren nortasunean eginkizun garran-tzitsua betetzen dute heredentziako osagaiek.

Ikerketaren bigarren fasean, *G-Datuetan* faktore berberoriek aurkitzea posible ote zen zehaztu behar zen. G-Datuen bidez, B-Datuetatik lorturiko emaitzak kontrastatu nahi zituzten. Galdekizunak pasatuz, berezitasun eta faktore berberak aurkitu nahi izan zituen. Arlo honetan egindako lanen emaitza izan zen «Nortasunaren 16 faktoreen inbentarioa». Inbentario honen eraikuntzan, B-Datuetan aurkitutako nortasunaren dimentsioetan oi-narritu zen, testaren itemak osatzeko hipotesi iturri bezala serbitu baitzio-ten. Ikertzaileek milaka item idatzi eta pertsona normalen talde handiei administratu zizkieten. Emaitzak analizatu egin zituzten, faktore amanko-munak zehazteko asmoz. Analisi faktorialak eginda gero, «*Nortasunaren*

16 Faktoreen Inbentarioa» lortu zen. Galdekizunaren 16 faktore edo iturri ezaugarrietatik 12, B-Datuetatik ateratako faktoreekin bat zetozen, 4 faktore galdekizunaren faktore eksklusiboak ziren bitartean. Bestalde, B-Datuetatik ateratako 4 faktore ez ziren errepikatu galdekizunean, eta Q1, Q2, Q3 eta Q4 bezala identifikatu zituen.

Cattell-ek, 16 P. F.a bezalako, analisi faktorialetik ateratako galdekizunekiko preferentzia agertzen du. Hala ere, galdekizunei emandako erantzunetan egindako distortsioek eta autoiruzurketa arazoek benetan kezkatu dute Cattell: erantzun soslaiak (desiragarritasun soziala, akieszentzia etab.), gaitasun mugatuko pertsonekin sortzen diren problemak etab. Arazo guzti hauek, eta balidezia nahiz objektibitatea lortzeko bere grinak, TO-Datuen bilaketara bultzatu zuten Cattell.

Azken urteetan, *test objektiboetatik lorturiko datuen* bidez nortasunaren egitura aztertzen jardun da Cattell. Aurretik aurkituriko berezitasunak neurtuko zituzten test objektiboak sortzera zuzendu zuen ikerketa. Test objektiboetan, bizitzako situazio bati, miniaturan, erantzun behar dio pertsonak; situazio horretan, pertsonak ez daki testak zer neurtu nahi duen, eta itxurak egiten ezin da ibili. Test objektiboen adibideak dira, adibidez, atzeraka irakurtzea, bi txisteen arteko dibertituena aukeratzea etab.

Nortasunaren dimentsio hipotetiko guztiak biltzearren, ikertzaileek 500 test objektibo baino gehiago sortu zituzten. Ondoren, subjektuen erakuskari zabalei aplikatu zitzaizkien eta analisi faktorial errepikatuak egin ondoren, nortasunaren 21 berezitasun oinarritzko aurkitu ziren. TO-Datuetatik lorturiko berezitasun hauek, indize unibertsalen sistema baten bidez izendatuak izan dira, I.U. siglak erabiliz eta 16tik 36ra bitarteko zenbakiekin. Datu tipo hauek ere harremanak badituzte B eta G datuekin.

Hona hemen T-Datuetatik ateratako lehen mailako faktoreak

UI. 16 Ego narzisista	Baieztapenik Ezaren aurrez aurre
UI. 17 Inhibipena-herabetasuna	Segurantzaren aurrez aurre
UI. 18 Bizitasun maniakoa	Pasibitatearen aurrez aurre
UI. 19 Independentzia	Esanekotasunaren aurrez aurre
UI. 20 Adostasun gregarioa	Objetibotasunaren aurrez aurre
UI. 21 Ugaritasuna	Ezabamenduaren aurrez aurre
UI. 22 Kortertia (alerta kortikala)	Pathemiaren aurrez aurre
UI. 23 Energiaren mobilizapena	Erregresioaren aurrez aurre
UI. 24 Larritasuna	Doiketaren aurrez aurre
UI. 25 Errealismoa	Tesinflexiaren aurrez aurre (joera psikotikoa)
UI. 26 Norberaren sentimendu narzisikoa	Arruntkeriaren aurrez aurre
UI. 27 Apatia eszeptikoa	Inplikazioaren aurrez aurre
UI. 28 Astenia superego	Ziurtasun harroskoaren aurrez aurre
UI. 29 Enpatia kordiala	Borondate gabeziaren aurrez aurre

UI. 30	Inpasibilitatea	Disoziazio frustratuaren aurrez aurre
UI. 31	Kautela	Nahikeria bulkadatsuaren aurrez aurre
UI. 32	Exvia (kanporakoitasuna)	Inbiaren (barerakoitasuna) aurrez aurre
UI. 33	Beherakada	Kontrapisu sangineoaren aurrez aurre
UI. 34	Zentzun ez-praktikoa	Zentzun praktikoaaren aurrez aurre
UI. 35	Logurea	Kitzikapenaren aurrez aurre
UI. 36	Norberaren sentimendua	Norberaren sentimendu ahularen aurrez aurre

Nola uztartu TO-Datuetatik lorturiko faktoreak aurretiko azterketetatik lorturikoekin? Ugari dira B-Datuetatik eta G-Datuetatik ateratako faktoreen eta TO-Datuetatik ateratako faktoreen arteko harremanak, puntuz puntuko erlaziorik aurkitu ez bada ere.

Zer dela eta, Cattell-en ikerketan hamabost berezitasun ateratzen dira, Eysenck-en ikerketan bi ateratzen diren bitartean?

Analisi faktoriala erabiltzeko duten modu berezian aurkitu behar da azalpena. Analisi faktorialaren kalkuluan badira bi une, erabaki bat hartu beharrekoak. Korrelazio matritzetik zenbat faktore atera behar diren erabakitzea da lehenengoa; azken soluziobidera heltzeko teknika konkretuari dagokiona da bestea. Eysenck eta Cattelle- erabaki desberdinak hartzen dituzte:

- Zenbat faktore aukeratu behar diren erabakitzerakoan, Cattell-ek faktore gehiagorekin lan egin nahiago du, dimentsio garrantzitsurik ez galtzeko.
- Karga faktorialaren azken kalkulua lortzeko erabiliko den teknikari dagokionez, «biraketa» deitzen ditugun prozedura multzo batez lortzen da azken soluzioa. Biraketa ortogonalak eta errotazio oblikuoak daude. Biraketa ortogonaletan, agertzen diren faktoreak elkarrengandik independenteak dira. Eysenck, biraketa ortogonalen alde agertu da, orokorrean, azkenaldian faktore oblikuoen alde jarri bada ere. Hori dela eta, kanporakoitasuna, neurotizismoa eta psikotizismoa nortasunaren faktore desberdinei erreferentzi egiten dieten faktore independenteak dira: faktore horietako batetan subjektuak duen puntuazioa jakiteak ez du pistarik ematen beste faktoreetan izango duen puntuazioa auresateko. Cattell, berriz, faktore oblikuoen alde agertu da; faktore hauek elkarrekin erlazonaturik daude. Hau da, ez dira bata bestearengandik independenteak, elkarrekin erlazonaturik dauden nortasunaren eremuei egiten baitie erreferentzia. Cattell-entzat, nortasunaren faktoreen artean elkar-loturak daude, eta horregatik darabiltza errotazio oblikuoak.

Faktoreek biratu egiten dute, posizio optimoan kokatu bitartean: posizio optimoa, egitura sinplearen printzipioek definitzen dute. Egitura sinplea, zero karga faktorialak maximizatzean gertatzen da. Karga faktorial gehienak zeroaren ingurukoak badira, faktore batzuek bakarrik

egongo dira inplikatuak aldagai bakoitzarekin elkarturiko bariantzaren azalpenean. Cattell-entzat, egitura simplea, biraketa oblikuoak bakarrik lor liteke.

7.7.3. Prozesua

Nortasunean eta gaitasunetan bakarrik oinarrিতuta jokaera auresatea ez da zuzena; motibazioaren berezitasun dinamikoak ere kontuan hartu behar dira.

Kanpora agertzen diren bezala (*Azalpen formaren arabeko berezitasunen sailkapena*), berezitasunak hirutan banatzen ditu Cattell-ek: 1) Trebetasuna, talentua edo gaitasuna, 2) Tenperamentua eta 3) Berezitasun dinamikoak (ergioak, sentimenduak eta jarrerak). Bereizketa hori, ezagutza (pentsamendu), afektu (emozio) eta konazioaren (motibazioaren) arteko bereizketaren parekidea da.

1. *Gaitasunak (ability-trait)*, jomuga garbi duenetik pertsona batek situazio bat nola dominatzen duen adierazten du. Adibideak: adimena eta kontzentrazioa.

2. *Temperamentua (temperament-traits)*, «estilo» ere deitua, bere ekintzak burutzeko pertsonak duen modu konstituzionalari dagokio: bizkortasuna, energia, erreaktibitate emozionala, iraunkortasuna.

3. *Berezitasun dinamikoek (dynamics-traits)*, zerbait egiteko motibazioa edo interesa izendatzen dute. Jokaera zergatik eta nola gertatzen den aztertzen dute. Hiru osagaietan zatitzen dira: ergioak, sentimenduak eta jarrerak. Motibazio konkretu bakoitzaren egiturari buruzko arazoa soluzionatu eta gero, gizakiari interesatzen zaizkion motibo kopuruaz galdezen du Cattellek. Gizakiarengan agertzen diren motibo ezberdinen identifikaziorako ere, jarrera desberdinak neurtzeko testen analisi estatistikoa egin zuen eta bi kategoria talde desberdin aurkitu zituen: *ergioak eta sentimenduak*.

3.1. *Ergioak* oinarrizko berezitasun konstituzional bat izendatzen du, energia fisikoaren iturburu bezala (*constitutional source-trait*). Helburu jakin batera zuzentzen da eta energia kantitate jakin bat du. Aldagai motibaziozkoen analisi faktorialetan ergioen existentzia egiaztatu da. Orain arte instintu edo bulkada deitzen ziren jokamoduak izendatzeko erabiltzen da ergio kontzeptua, eta jokaeraren iturri energetikoa eratzen dute. Adibide bezala, sexualitatea, bildurra, gizartekoitasuna, autobaieztapena, gurasoen laguntzeko prestutasuna, borrokazaletasuna etab. aipa litezke.

Helburu jakin batzuen aurrean modu berezi batez erreakzionatzeko jaiotzetiko joera; bulkada biologiko jaiotzetikoen indarrak isladatuko litzukete ergioek, nahiz eta beren kanpoko adierazbidean sozialki arartekotak egon. Ergio nagusien artean hauek nabarmentzen dira:

- | | |
|------------------------|-------------------------------------|
| 1. Sexua | 6. Jakinmina |
| 2. Segurantza-beldurra | 7. Sormena |
| 3. Autobaieztapena | 8. Narzisismoa |
| 4. Gregarismoa | 9. Sentsualitatea/erakargarritasuna |
| 5. Gurasoen babesia | 10. Borrokazaletasuna |

Ergioak kulturalki unibertsalak dira, baina ergio horiek asebetetzeko bideak aldatu egiten dira kulturatik kulturara. Gure gizartean, kirolak, erlijioa, hobiak etab dira ergioak asebetetzeko bideak. Ergioak asebetetzeko jarduera berezi hauek sentimendu deitzen ditu Cattell-ek.

3.2. *Sentimendua (sentiment)*, inguruneak determinaturiko berezitasun dinamiko bat da. Testuinguru sozialean ikasgai izan daitezkeen objektuei egiten die erreferentzi: ogibidea, kirola eta jolasa, gurasoak, ezkontidea edo laguna.

Norberaren sentimenduak, norberari buruzko jarrera multzoa biltzen duelarik, toki garrantzitsua betetzen du. Lehen haurtzaroen garatzen da eta geroago autoirudian finkatzen; ergioen bulkadak kontrolatu eta garrantzitsuak ez diren sentimenduak lan sistema global batean integratzeko funtzioa betetzen du. Sentimenduek, inguruneak determinaturiko jokaera pautak isladatuko lituzkete, eta beren jatorria testuinguru sozio-kulturean aurkitu behar da. Jarrera eskuratuen pautak errepresentatzen dituzte. Estrukutura dinamiko ikuskorrak dira, pertsonen, erakundeen eta objektu sozialen erreakzio patroio orokor bezala definituak. Hasierako jarreraren eta azken helburuen arteko tarteko helburuak. Garrantzitsuenak hauek liriateke:

1. Erlijiosoa.
2. Profesionala.
3. Deportiboa.
4. Norberatasunaren sentimendua, identitate sozialaren aurrez aurre.

Cattell-entzat, norberatasunaren sentimendu hau izango da ergioen eta sentimenduen batasuna lortzeko serbitzen duen oinarritzko egitura.

Kirolarena bezalako sentimendu simple bat, ergio desberdinen asebetetzean inplikaturik egon liteke: gregarismoa, borrokazaletasuna, sexua etab. Sentimenduen eta ergioen arteko lotura konplexuak sare dinamiko deitzen ditugu. Kultura konkretu baten edo gizabanako konkretu baten sare dinamikoak esango digu, zeintzuk diren pertsonaren interesak eta zein ergio asebetetzen dituzten interes horiek.

Ergioak	Sentimenduak
Janaria bilatu Gregarismoa Borrokazaletasuna Sexua	Kirol elkarte bateko kide izan Elkarte kultural bateko kide izan

3.3. *Jarrerak (attitude)*, jokaera behagarri bati dagio erreferentzi; situazio jakin batean ekintza batekiko interesa adierazten du. Adibidez: norbait atzerriko hiri batetan dago, eta bakarrik sentitzen da. Filme baten iragarkia ikusten du, patrikan dirua du eta denbora badu. Bere jarrera honela agertzen du: «Zinera joatea gustatuko litzaidake».

Taxonomia oso baten garapenerako oinarritzko unitate kontzeptuala, Cattell-en arabera, *jarrera* da. Ekintzabide partikular bat jarraitzeko indarra edo interesa agertzen da jarrera hitzaren bidez. Arlo ezberdinekiko interesak edo jarrerak, egitura dinamiko osoaren adreiluak dira. Situazio konkretu batean, norabide jakin batean ekiteko prestutasuna bezala hartu behar da jarrera. Cattell-engan *jarrera eta motibapen* kontzeptuak bat datoz. Eskema honen bidez esplikatzen du jarrera:

zirkunstantzi haueetan	nik	hau egin	nahi dut	honen bidez
situazio-estimulua	organismoa jakineko interesa	intentsitate espezifikoa	helburu	objektua

(Cattell, 1965)

Motibazio prozesuei buruzko ikerketan, bi galdera nagusi ditu Cattell-ek: Zeintzuk dira motibo edo jarreraren osagaiak? Zeintzuk dira motibo edo jarrera mota desberdinak?

Motibazioaren edo jarreraren osagaiak aztertzen hasita, bost faktore desberdin aurkitu zituen Cattell-ek:

1. Zera konzientea: «nik nahi dut» edo «desiratzen dut» kalitateak adierazten duen jokaera.
- 2) Niaren espresioa: interes heldu bat, errealitatearekin kontaktuan adierazten duen jokaera
3. «Self-ideala» edo «Super-Nia»: «nik interesatua egon behar nuke» kalitateak adierazten duen jokaera.
4. Premia fisiologikoen adierazpenak: erreakzio fisiologikoen adierazpeneko jokaerak.
5. Konplexu erreprimituak: gatazkagatik erreprimituak eta inkonziente bihurtuak adierazten duen jokaera.

Psikanalisi zalea ez izan arren, motibazioaren hiru osagai nagusiak in-terpretatzeko egokiak aurkitu zituen Zera, Nia eta Super-Nia:

1. Zera konzientea, Alfa ere deitua, «zera psikoanalitikoari» dagokiona: bulkaden eta desiren mundua. Norberaren desirak egiazkoak eta egingarriak direla adierazten du faktore honek. Gure izatearen bizkarrezurra da: ondorenei, situazioari edo logikari begiratu gabe instintuak asebetetzea.

2. Niaren adierazpidea, Beta ere deitua, «ni freudiarrari» dagokiona, kanpoko erreferentziaz gidatzen dena. Interes konziente edo integratuaren osagaia.

3. Self ideala edo Supernia: Gamma ere deitua, «izan behar lukeenak» markaturiko «Superni freudiarrari» dagokiona. «Nik hartan interesatu beharko nukeela» iradokitzen du.

4. Premia fisiologikoen adierazpena: Delta ere deitua, odol presioa, nerbio sistemaren erreaktivitatea etabarri egiten die erreferentzi. Cattell-ek iradoki zuen, zera inkonzientea izan zitekeela.

5. Konplexu erreprimituak, Epsilon ere deitua, gatazka inkonziente baten, finkamendu batzuen edo esperientzi traumatiko batzuen ondorenez sortzen direnak.

Bost osagai hauek gero analisi faktorialaren bidez elkarrekin erlazionatuak izan ziren, hierarkikoki goragoko mailakoak ziren bigarren mailako bi faktore identifikatuz:

1. Interesaren osagai integratua.
2. Interesaren osagai integratu gabea.

Lehena, beta eta gamma osagaietan saturatua dago; «niak» eta «superniak» zuzenduriko motibazio konzientea isladatzen du.

Bigarrena, alfa (zera), delta (premia fisiologikoak) eta epsilon (konplexuak) osagaietan saturatua. Bulkaden motibapen inkonzientea deskribatzen du.

Egitura honetatik abiatuz, motibapenaren osagaiak mugatzen ditu Cattell-ek. Honela, subjektu batek bere jokaera gidatzen duten «motore edo motibo» bat edo zenbait eduki ditzake eta beren osagaiak egon litezke gehiago edo gutxiago integratuak. Zentzun honetan, motibo bakoitzak elementu desberdinak ditu, eta bere azken konfigurazioan elementu konzienteak edo inkonzienteak nagusitu daitezke. Motibo batzuk nahiko integratuak daude, baina beste batzuk integrazio eskasa dute; batzuk nagusiki konzienteak dira, besteak, aldiz, erabat inkonzienteak dira.

Adibidez, suposa dezagun hiru zirujau ditugula, denak zirugian oso interesatuak. Hirurek beren profesioarengatik interes bera badute ere, beren motibazio indarraren egitura desberdina izan liteke: honela, batengan, niaren indarra izan daiteke nagusi (ongi bizitzeko, familia aurrera ongi ateratzeko, gizartean onartua izateko etab.); bestearengan, superniaren osagaia izan liteke nagusi (giza sofrikarioa ekiditea, ezagutza zientifikoa jendearen onagatik aplikatzea etab.); hirugarrenarengan, zeraren indarra nagusitu liteke (zirugiaren bidez gorputzak ebakitzearen atsegin sadiko-agresiboa etab. Hobe da noski, osagai sadiko hauek zirugiaren bidez sublimatzea, Jack Destripatzailearen modura gitea baino).

Beste adibide bat: etxe bat erosten duen pertsona batena. 1) Erosteke interesaren indarra inpulsihoa izan liteke: etxe zoragarri bat ikusi du eta

hura nahi du. Zeraren osagaia da hemen nagusi. 2) Etxea pertsonaren aukeraketa irizpideekin bat baldin badator: neurri egokikoa da, toki egokian dago eta prezio onean dago. Niaren nagusigoan oinarritzen da erosteko interesa. 3) Etxea erostea inflazioari ihes egiteko egokia denean, nahiz eta alkilatzea erosoagoa izan, Superniaren eskaerei erantzuten ari zaio.

Nola erlazionatzen dira ergioak eta sentimenduak jokaeraren prozesu eta dinamikarekin? Puntu honetara helduz gero, Cattell-en urratsak espekulatiboak dira, bere gaitasun intuitiboan oinarritzen da. Cattell-ek, «*saretxo edo sare dinamikoaren*» kontzeptura (*dynamic lattice*) jotzen du, ergioen, jarreraren eta sentimenduen arteko harremana modu grafiko batez agertzeko. Jomuga dinamiko hurbil eta urrunen grafikoa da sare dinamikoak

Lehen zutabeen jarrerak jartzen ditu. Hauek, objektu oso konkretuei buruzkoak dira: filmea, emaztearen orrazkera, New York hiria, zergak, lagun bat etab.

Bigarren zutabeen, jarrera desberdinei dagozkien sentimenduak agertzen dira: argazkigintza hobby bezala, zinearekiko eta emaztearen orrazkerarekiko interesari lotuta; bankuko kontua, zergekin eta lagunarekin lotuta.

Hirugarren zutabeen, ergioak agertzen dira: jakinmina, sexualitatea, gizartekoitasuna, afektua, autobaieztapena etab. Ergio bakoitza sentimendu desberdinei loturik dago. Honela, sexualitatearen ergioak emazteari eta argazkigintzaren hobbyari egiten dio erreferentzi. Autobaietzapenaren ergioak, Jainkoari eta lurraldeari egiten die erreferentzi.

Jarrerek edo interesek, sentimenduen bidez, ergioen helburu instintiboak lortzen lagutzen dute.

Sare dinamiko honen barnean, pertsona batek jarrera ezberdinak (pertsona, gertaera edo printzipio batekiko) ager ditzake, jarrera horiek sentimendu desberdinei (sentimendu erlijiosoa, politikoa, profesionala...) loturik joan daitezke eta sentimendu horiek ergio ezberdinei (jakinmina, autobaieztapena edo babesa) loturik ager daitezke. Honela, adibidez, «ikasteko motibazioa», jakinminak, mehatxuak, autogarapenak eta abarrek arartekotua egon liteke. Jokaera bakar batek bulkada ezberdinak asebate ditzake, aldi berean edo mementu ezberdinetan. Edonola ere, jaiotzetiko bulkada biologiko motaren bat asebetetzea da sakonean beti lortu nahi izaten dena.

Jarrerak, sentimenduak asebetetzeko dira, eta sentimenduak, oinarriko ergioak eta premia biologikoak asetzeko.

Cattell-entzat, jokaerek berehalako helburuak eta helburu urrunak asebate ditzakete. Jokaera bera, jarrera desberdinen agerpen izan liteke, eta jarrera hauek, aldi berean, sentimendu eta ergio oso desberdinekin erlaziona daitezke. Hau da, jokaera bakarrak bulkada oso desberdinak asebate ditzake. Bulkada biologikoak asebetetzea bada ere azken helburua, «Norberaren sentimenduak» eginkizun garrantzitsua betetzen du saretxo dinamikoaren

barnean. Ergio askoren asebetetzeak norberaren sentimendutik dependitzen du. Sentimendu hori da ergioen bulkaden kontrolaren arduraduna, eta sentimendu kopuru handi baten integrazioaren arduradun ere bai.

Motiboen konplexutasun handia dela eta, jokaera berarekin ergioen (bulkaden) kopuru handi bat asebate daiteke; ez hori bakarrik, gatazka bat ere sor liteke, ergio (bulkada) baten asebetetzea, beste baten frustrazioarekin batera gertatuz gero. Gatazka hau gerta liteke, dela jarrera ezberdinen artean, dela jarrera beraren barnean. Kasu bietan, ergio bat asebetetzeko entseguak, beste ergio bat frustratuz agertzen dira. Gertaera honekin kontrastean, integrazio egoera batean, ergioen asebetetzeak elkarri batuta doaz, elkar ezabatu gabe. Gatazka mailak determina lezake pertsona baten psikopatologi maila.

Situazio jakin batean pertsona batek egingo duena auresateko serbitzen duen hori da nortasuna. *Espezifikazio berdintzan* agertzen ditu Cattell-ek jokaera auresateko garrantzitsuak jotzen dituen indarrak. Situazio espezifikoetan eskuhartzen duten nortasunaren faktoreak agertzen dira espezifikazio berdintzan. Situazio batean gizakiak duen jokaerak, bere nortasunaren berezitasun iraunkorretatik eta situazio horretan eskuhar dezaketan aldagai iragankorretatik dependitzen du.

Situazioan eragina duten ezaugarriak, Cattell-en arabera, *egoerak, rola eta humore disposizioak (states, roles, sets)* dira. Situazio batetan gertatzen den jokaera, disposizio animikoak, rola eta euforia edo depresioa bezalako egoerek eragina da. Berezitasunak momentuoro ekiten du, egoerak, rola eta humore disposizioak iragankorra goak diren bitartean.

Nortasunaren ezaugarriak situazioetara egokituko dira eta «egoera» edo «rola» bezalako beste aldagai iragankor batzuen eragina jasango dute.

Azken aldagai hauen adibidea da, beraz, egoera. Pertsona bat une batean larritasun egoeran badago, bere jokaeran eragina izango du egoera horrek. Adibidea: gazte batek entrepresa batetan enplegua eskatzen du. Presidentziako kide batek baztertu egiten du, kandidatoak telefonoz buila egin omen ziolako. Jokaera hori berezitasun bezala egotzi zitzaion. Geroagoko ikerketek erakutsi zuten, kandidatoak telefonoz deitu zuen garaian sute bat zegoela eskatzailearen bulegoan.

Modu iragankorrean eragiten duen bigarren elementu bat rolarena da. Estimulu bera modu desberdinean hautematen da, situazio batetan subjektuak bete behar duen eginkizunetik dependituz. Adibidea: familia bat otordurako esertzen da. Semeak laguna ekarri du bazkaltzera; semeak ogi purrak uzten ditu mahai gainean, eta gauza bera egiten du lagunak, baina aitak semeari bakarrik egiten dio errita.

Humore egoerari buruzko adibide hau dakar Cattell-ek: gizon askok, pasio erromantikoaren suak eramanda, ezkontz proposamenak egiten dizkiote komeni ez zaien emakumeari. «Zortzi egoerak» identifikatzen zituen galdekizun bat eraiki zuen Cattell-ek: exvia, larritasuna, depresioa, aktibazioa, nekea, erruduntasuna, depresio-erregresioa eta tentsioa.

Espezifikazioaren ekuazioaren bidez, azpiko berezitasun iraunkorren jarrera internalista batetatik, ingurugiro faktoreek eginkizun garrantzitsua betetzen duteneko jarrera situazionistago batera hurbiltzen da Cattell.

Pertsonak aldatu egiten dira, situazioen arabera. Nortasun faktoreen garrantzia ere aldatu egiten da situazioen arabera. Situazio desberdinetan jokaeraren egonkortasun maila bat edukitzera eramaten dutela nortasunaren faktoreek pentsatzen badu ere Cattell-ek, baita ere pentsatzen du, pertsona baten egoera animikoak edo bete behar duen rolak ere eragina izango dutela haren jokaeran. Espezifikazioaren ekuazioari esker, jokaera ez da nortasun faktoreen edo situazioaren arabera bakarrik ulertu behar, baizik bien efektuaren ondoren bezala.

7.7.4. Hazkuntza eta garapena

Heredentziaren eta ikaskuntzaren eragin bateratua gertatzen da nortasunaren garapenean. Berezitasunak heredentziaren eta ingurunearen eraginez determinatzen dira. Berezitasun bakoitzean inguruneak eta heredentziak duten eragin erlatiboa zehazteko, *Bariantza Multiple eta Abstraktoaren Analisi Metodoa (MAVA= Multiple-Abstract-Variance-Analysis)* garatu zuen Cattell-ek. Familia kopuru handi bati MAVA metodoa aplikatu zitzaion. Lau eragin tipoen arabera analizatu ziren datuak: famili barneko ingurune diferentziak, famili arteko ingurune diferentziak, familia barneko heredentzi diferentziak, famili arteko heredentzi diferentziak. Ekuazio sail baten bidez, berezitasun bat zehaztean heredentziak edo ingurunean izan duten eragina determina liteke. Eragin hori ezberdina da berezitasun bakoitzaren kasuan. Honela, adibidez, gaitasun intelektuareneko puntuazioan gertatzen diren aldaketan 80-90% heredentziak esplikatzen du. Neurotizismoaren kasuan, erdira jaisten da heredentziaren eragina. Sentikortasun emozionalaren kasuan, inguruneak du eraginik handiena. Nortasun osoaren bi herenak inguruneak determinatuak dira, eta beste herena heredentziak determinatua.

Nortasunaren garapenean, heltze prozesuek ere garrantzia badute. Bizitzako lehen urteak oso garrantzitsuak dira Cattell-entzat eta zazpi urtetan jartzen du muga; zazpi urterako nortasunaren oinarritzko aspektuak osatuak daude iadanik Ahalegin handia egin zuen, haurtzarotik helarora bitarteko adinetara egokitutako nortasun testak eta galdekizunak egiten.

7.7.5. Patologia

Gatazkaren ereduaren arabera ulertu behar da psikopatologiaren garapena. Lehenik ergioen (bulkadaren) estimulazioa eta gero blokeatzea gertatzen denean, *gatazka* sortzen da. Gizakia saiatten da hesi hori hausten,

baina porrot egiten du eta bere helburuari uko egitera behartua da. Gatazka eta larritasun egoerara darama honek, eta, ondorenez, sintoma neuroti-koaren formakuntzara. Gatazka egoera, bulkada baten asebetetzea beste bulkada baten frustrazioaz lagundurik doanean gertatzen da.

Nortasunari dagokionez, gatazkaren indizeak «Niaren ahultasunarekin» erlazonaturik agertzen dira 16PF-an. Cattell-ek, bestalde, hurbilketa aktuariala egiten du eremu klinikoan. Beste autoreek «begi kliniko» beste tresnarik ez darabilten artean, Cattell-ek subjektu normal askorengandik informazio ugari jasotzen du, eta behin berezitasunak eta faktoreak zedarrituta gero, subjektu hauek nahasmendu bat duten beste subjektuekin alderatzen ditu, haien nortasunaren profilak alderatuz. Horregatik, bere ikerketa prozesua normaletik anormalera doala esan liteke, eta ez alderantziz, kliniko askok dagiten lez. Hurbilketa honen abantaila, nortasunaren ezaugarrien hautemate garaian aurretiko distortsiorik ez egotea da.

Neurotizismoa eta larritasunari buruzko ikerketa garrantzitsu batek zera aurkitu zuen: neurotikoak faktore bat baino gehiagotan bereizten direla normalengandik, eta larritasuna neurosiara eramaten duen faktoreetako bat besterik ez dela. Faktore batzuk garrantzitsuak dira neurosi forma guztietan; beste batzuk, neurosi mota batzuetan bakarrik agertzen dira. Neurotiko guztiengan agertzen dira larritasun eta neurotizismo maila garaiak eta Niaren ahultasuna. Baina, depresiboek bakarrik dituzte puntuazio bazuak agitazio testetan. Psikitikoen pertsona normalek eta neurotikoek ez bezalako nortasun berezitasunak dituzte: neurotikoek bezala, niaren indarrean puntuazio bazuak dute, baina larritasun testetan ez dute puntuazio garairik.

Honela ikusi ahal izan zen, beraz, neurotikoak ez direla larritasunean bakarrik bereizten normalengandik. Cattell-en ondorioetako bat, neurosia aztertzerakoan, hau izan zen: subjektu neurotikoengan nortasuna ez dela normalengan bezala egituratzen.

7.7.6. Aldaketa

Cattell-entzat, nortasunaren ezaugarriak denboran eta situazio ezberdinetan zehar nahiko iraunkorrak dira; nortasunaren aldaketak, berriz, gertatzen direnean, astiro gertatzen dira.

Hau horrela da, nortasunaren oinarrizko berezitasunei dagokienean, baina ez da gauza bera gertatzen jarrera eta motibapenekin. hauek errazago aldatzen dira.

Aldaketan hiru osagaik hartzen dute parte: heltze prozesuak, fluktuazio iragankorrek eta ikaskuntzak.

Heltze prozesuari dagokionez, aldaketa globalak, progresiboak eta prozesu biologikoei lotuak dira. Organismo biologikoaren destolestatzet mailakatuaren aurrean gaude. Espezie bereko guztiengan antzekoak dira sekuentzia ordenua eta kronologia.

Fluktuazio iragankorren osagaia, «egoera» kontzeptuarekin loturik dago. Itzulkorrak diren jokaerei egiten die erreferentzi egoerak, eta egoeren maila askoz azkarrago aldatzen da, berezitasunei loturiko jokaeren maila baino. Larritasunari buruzko beren ikerketan, Cattell eta Scheier-ek (1961) ikusi zuten, badirela karaktereologikoki larritasun maila garaiak agertzen dituzten pertsonak, eta badirela, lasaiak diren pertsonak, iragan-korki larritasun garaiko egoeran aurki daitezkeenak. Lehen kasuan, edozein situazioaren aurrean larritasun prozesu generalizatuak agertzen dira, subjektu neurotikoengan ohi denez. Bigarren kasuan, estimulu estresatzailerdo aldaketa biologikoei erantzunez sortzen diren larritasun jokaerak aipatzen dira. Bigarren kasuan, patologiarik ez dago. Lehen kasuan, egon liteke, mailaren arabera.

Bi larritasun buruzko azterketa egin ondoren, bi larritasunak ezberdinak direla ikusi ahal izan da. Badira, beraz, jokaera fluktuazioak, berezitasunen egituran inolako aldaketarik suposatzen ez dutenak, eta organismoaren funtzionamendu fisiologikoaren aldaketen emaitza direnak.

Ikaskuntzaz egindako aldaketei dagokienez, Cattell-ek pentsatzen du, berezitasunen globaltasunaren edo berezitasunen konfigurazioen mailako aldaketak ekartzen dituela, eta ez jokaera espezifikoen aldaketa bakarrik.

Aldaketa terapeutikoari dagokionez, neurosiak nortasunaren konfigurazio osoa ukitzen du, eta psikoterapiak, eraginkorra izango bada, konfigurazio horren aldaketa eragin behar du. Baina ez du soluziobiderik eskaintzen aldaketa horretarako. Cattell-en ekarpen terapeutikoa hutsaren hurrengoa izan zen, diagnostikoaren formulaziora mugatu baitzen.

Cattell-en nortasunaren teoria «nomotetikotzat» jo dezakegu, subjektu guztiak ukitzen dituzten aldagai guztiak ezagutarazteko lege orokorrak aurkitzen saiatzen baita. Baina, esan behar da, baita ere, nortasunaren aspektu orokorren aplikazio konkretu eta indibidualean interesatua dagoela Cattell. Ikuspegi idiografikotik ere ari da beraz. Horretarako, teknika estatistiko sail bat garatzen ditu, modu global eta orokorrean lortu den informazioa modu indibidualizatuan «txukatze» («exprimitze»). «P» eta «O» teknikak dira. «P» teknikan, subjektu bakarraren diseinu longitudinalaren bidez aztertu nahi da eboluzio situazionala. «O» teknikaren bidez, situazio suzesiboetan zehar subjektu beraren bereizgarriak aztertzen dira. Bi metodo hauen bidez, subjektuen azterketa sakona eta intentsiboa egin daiteke. Baina, ez modu indibidualizatu eta pertsonalizatuan, baizik gizabanako bakoitzean unibertsalaren errepresentazioa kontsideratuz; zentzun honetan, subjektu indibidualengan, erakuskari handietan aurkitu dituen berezitasun berberak topatuko dituela pentsatzen du, eta horrela indikatzaile objektibagarriak lortu ahal izango dituela.

Bi teknika hauen bidez, ikuspegi idiografikoa eta nomotetikoa, kliniko eta aktuariala elkartzen dira, Cattell-en iritzi.

Cattell-en teoriako nortasunaren faktoreak, lehen mailako faktoreak dira; lehen mailako faktore horiek elkarrekin korrelazionatuz, bigarren

mailako faktoreak atera litezke: exvia-invia eta larritasuna dira garrantzitsuenak.

Cattell-ek dio, Eysenck-en neurotizismoa eta kanporakoitasuna ez direla benetako lehen mailako faktoreak; Eysenck-ek ez ditu behar adina faktorizatu bere datuak. Barnerakoi-kanporakoitasuna, Cattell-en exvia-inviaren antzekoa litzateke, eta neurotizismoa, Cattell-en larritasunaren antzekoa litzateke. Psicotizismoa, berriz, Cattell-en psicotizismoaren hurbilketa bat izan liteke.

Ez dirudi, beraz, Eysenck eta Cattell-en teoriak oinarritzkoan bereizten direnik.

7.7.7. Cattell-en «Nortasunaren Galdekizun Faktoriala» (16 PF)

Lehen mailako faktoreen interpretazioa

A FAKTOREA

Sizotimia: erreserbatua, urrundua, kritikoa, hotza. Bajua puntuatzen duen subjektuak, gogorra, hotza, eszeptikoa izateko eta urrundua mantentzeko joera du. Pertsonak baino gauzak gehiago atsegin zaizkio; bakarka lan egiteko eta iritzi konprometituek ekiditeko joera du. Gauzak egiteko moduan eta irizpide pertsonaletan zehatza eta zurruna da. Abadagune batzuetan kritikoa, behaztopatzailea eta zurruna izan daiteke.

Afektotimia: Altu puntuatzen duen pertsonak, maitakorra, lasaia, emozionalki espresiboa, lankidetzarako prestua, laguntzailea, bihotz onekoa, maitakorra eta moldagarria izateko joera du. Jendearekiko harremana eskatzen duten lanbideak eta gizarte harremanetako situazioak ditu atsegin. Erraz hartzen du parte talde aktiboetan. Eskuzabala da harremanetan. Kritiken bildurrik ez du eta nahiko erraz oroitzen ditu pertsonen izenak.

B FAKTOREA

Inteligentzia baxua, pentsamendu konkretua: ikasketetarako burutiko gaitasun gutxi. Bajua puntuatzen duena, gauzak atzeman eta ikasteko geldia da, «motza» eta interpretazio konkretu eta literaletarako joera duena. Bere moztasuna, bere gaitasun intelektual urriari edo bere jarduera mugatzen duten faktore psikopatologikoen eraginari zor zaio.

Adimen garaia, pentsamendu abstraktoa, dizdiratsua: ikasketetarako burutiko gaitasun handia. Bajua puntuatzen duen pertsonak, ideiak ulertzen eta ikasten azkarra izateko joera du. Kultur mailarekin eta burutiko bizitasunarekin erlaziotzen bat badu. Diagnostiko psikopatologikoko situazio batean, puntuazio garai hauek burutiko hondamenik ez dagoela esan nahi dute.

C FAKTOREA

Sentimenduek afektatua, egonkortasun emozionalik ez, nahasgarria: niaren indar gutxi. Frustrazioari tolerantzia gutxi, gutxi puntuatzen duenak; baldintzak asebetetzailak ez direnean, aldakorra, plastikoa, errealitatearen premiak eta deiak ekiditen dituenak, neurotikoki nekatua, displizentea, erraz emozionatzen eta turbatzen dena, asebategabe dagoenean, aktiboa; sintoma beurotikoak agertzen ditu (fobiak, ametsaren aldaketak, kexu psikosomatikoak etab.). Puntuazio baxu hauek, alterazio neurotikoen ia forma guztiei eta nahasketa psikotiko batzuei amankomunak zaizkie.

Emozionalki egonkorra, heldua, errealitateari aurre egiten diona: niaren indar asko. Altu puntuatzen duen pertsonak, heldua, egonkorra, bizitzari buruz errealista, lasaia, barne finkotasun onekoa eta taldearen moral solidoa mantentzeko gaitasuna duena izateko joera du. Batzuetan, erabaki gabeko arazoak dituenak, doiketa konformistak aurkez ditzake.

E FAKTOREA

Esanekoa, ahula, moldakorra, konformista: Menpekotasuna.

Baju puntuatzen duen pertsonak, besteen aurrean zeditzeko, esanekoa izateko eta adostasunerako joera du. Sarritan dependentea da, besteen ideiak onartzen ditu, eta zehaztasun obsesibo batengatik larritua sentitzen da. Pasibitate hori, sindrome neurotikoa askoren zati da.

Menperatzailea, independentea, oldarkoia, lehiakorra, obstinatua: dominantzia. Altu puntuatzen duen pertsona dogmatikoa da, bere buruarengan segurantzia badu, mentalitate independentea. Austeritateerako joera, autoerregulatzaila, besteekiko etsaitasuna eta zigorra agertzen duena, autoritarioa, autoritateari jaramonik egiten ez diona.

F FAKTOREA

Sobrioa, zuhurra, serioa, isila: desurgentzia. Baju puntuatzen duen pertsonak, erreprimetua, retizentea eta introspektiboa izateko joera du. Batzuetan egoskorra, pesimista eta zuhurregia izateko joera du; besteek presumitu eta zuzenegia jotzen dute. Pertsona sobrioa eta konfiantzarako duina da.

Utzia (adurrari konfiatua), animatua eta bulkadatsua, entusiasta: surgentzia. Altu puntuatzen duen pertsonak, alaia, aktiboa, berbajariora, frankoa, adierazkorra, beroa eta utzia izateko joera du. Sarritan, lider hautatu bezala aukeratzen dute. Bulkadatsua eta auresankaitza edo aldakorra.

G FAKTOREA

Axolagabea, arauak ekiditen ditu, eginkizun gutxi onartzen ditu: superniaren indar gutxi. Baju puntuatzen duen pertsona, bere asmoetan eze-

gonkorra da. Bere ekintzak kasualak dira eta taldearen konpromezuei eta eskakizun kulturaleri arretarik ez die jartzen. Taldearen eraginetik urrun-
tzeak, ekintza antisozialetara eraman dezake, horrek eraginkorragoa izate-
ra daramalarik; araukiko atxikimendu gabeziak, tentsio situazioetan ga-
tazka somatiko gutxiago edukitzera eramaten du.

*Eskrupuloso*a (konziente), iraunkorra, zentzuduna, araei menpeko-
tua: superniaren indar handia. Altu puntuatzen duen pertsonak, exigente,
eginkizunaren zentzunak dominatua, iraunkorra, arduratsua, antolatua
izateko joera du, eta ez du minuturik alferrik galtzen. Eskrupuloso eta
moralista da eskuarki. Laguntzat, pertsona graziosoak baina nahiago ditu
pertsona langileak. Superni esentzial honen inperatibo kategorikoa, Q₃-
ko «ni sozial ideialetik» bereizi egin behar da, itxuraz antzekoak diren
arren.

H FAKTOREA

Kohibitua, erreprimitua, timidoa, bere buruarengan konfiantzarik ez
duena: Trektia. Bazu puntuatzen duen pertsona, herabea, urrundua, zugu-
rra, atzeratua, gizarteko ihardueratik alde batera gelditzen dena izan ohi
da. Gutxiagotasun sentimenduak aurkeztu ohi ditu. Hitzegitean makala eta
geldoa izan ohi da, harreman pertsonalak eskatzen dituzten lanbideak ez
zaizkien gustatzen. Talde zabala baino nahiago ditu, lagun intimo bat edo
bi, eta bere inguruan gertatzen ari den guztiarekin harremanean ez du
egon nahi.

Enprendedorea, sozialki ausarta, espontaneo, inhibizio gabea: Par-
mia. Altu puntuatzen duen pertsonak, gizartekoia, ausarta, espontaneo
izateko joera du; gauza berriak entseiatzeko prest; erantzun emozional
ugari ditu. Bere indiferentzia dela ta, erraz jasaten ditu jendearekiko ha-
rremanetako gorabeherak, eta emozionalki eramanezinak diren situazioak.
Hala ere, detaileengatik gehiegi ez kezkatzea gerta liteke, eta denbora
asko eman solasean. Enprendedorea izateko eta beste sexuari buruz akti-
boki interesatua egoteko joera du.

I FAKTOREA

Sentikortasun gogorra, bere buruarengan konfiatua, errealista: *Harria*.
Bazu puntuatzen duen pertsonak erealista, baronila, independentea, ardu-
ratsua eta, aldi berean, elaborazio kultural subjektiboekiko eszeptiko izate-
teko joera du. Batzuetan mugikaitza, gogorra, zinikoa eta «pagada de sí
misma» izan ohi da. Oinarri praktiko, errealista eta azertatuen gain lan
eginez taldea mantentzeko joera du.

Sentikortasun biguina, dependentea, superbabestua, inpresionagarria:
Premisia. Altu puntuatzen duen pertsona, sentimenduek hunkitzen dute,
idealista, ameslaria, artista, kontentagaitza, femeninoa ohi da. Batzuetan,

beretzako besteen arreta eta laguntza eskatzen ditu; egonarri gabea, dependentea, eta ez-praktikoa da. Pertsona eta profesio gogorak desatsegin ditu. Taldearen ekintza frenatu eta haren moralak nahasten du, iharduera alferrikako eta idealistekin.

L FAKTOREA

Konfidagarria, moldagarria, jelosiak eta bekaitzak jo gabea, tratu errazekoa: Alaxia. Bazu puntuatzen duen pertsonak ez du agertzen zelotarako edo jelosiarako joerarik; moldagarria da, animosoa, ez lehiakorra, besteekiko interesatua, taldean lankide ona.

Suspikaza, harroskoa, iruzurkaitza: Protentsioa. Altu puntuatzen duen pertsona, deskonfiatua eta anbigua izan ohi da. Sarritan, bere niak konplikatu du, bere buruaz iritzia ematea gustatzen zaio, eta bizitza mental intimoan interesatua dago. Premeditazioarekin jokatu du; besteengandik aldentzen da eta taldearekin gutxi kolaboratu du.

M FAKTOREA

Praktikoa, arretatsua, konbentzionala, kanpoko errealitateak arautua, formala eta zuzena: Praxernia. Bazu puntuatzen duen pertsona larritua sentitzen da gauzak zuzen egitearren, problema praktikoetara adi eta nabarmenki posible denaren esanera makurtua. Xehetasunez ez da arduratzen, emergentzi situazioetan patxada gordetzeko gai da, batzuetan irudimen gutxi agertu arren.

Irudimentsua, bere premia intimoetan zentratua, arazo praktikoekiko axolagabe: Autia. Altu puntuatzen duen pertsonak ez-konbentzionala izateko joera du, egunerokoaz arduragabea, bohemioa, bere buruaz motibatua, sortzailea, irudimentsua, «esentzialaz» arduratua eta pertsona partikular eta errealitate fisikoaz arduragabe. Bere interesak, bere intimitatera zuzenduak, situazio irrealak daramate batzuetan, eztanda espresiboekin. Talde jardueretatik baztertuta sentitzera darama bere indibidualitateak.

N FAKTOREA

Frankoa, naturala, sotila, sentimental: sotiltasuna. Bazu puntuatzen duen pertsona, sotila, sentimental, laua, gutxi sofistikatua izan ohi da. Erraz asebetetzen da, eta gertatzen denarekin kontent aurkitzen da; naturala, espontaneoa, gutxi refinatua eta baldarra (torpea) da.

Maltzurra, kalkulatuzailea, mundutarra, susmatia. Sarritan, «buru gogorra» eta analitikoa da. Bere ikuspegia, intelektuala eta ez-sentimentala da, situazioetara modu ia zinikoz hurbilduz.

O FAKTOREA

Baketsua, bere buruaz segurua, malgua eta serenoa: egokitzapen asal-dagaitza. Bazu puntuatzen duen pertsonak baketsua eta humore aldakaitze-koa izateko joera du. Bere buruarengan konfiantza badu, eta heldua eta larritasun gutxiakoa da gauzekin tratatzean; malgua eta segurua da, baina ez-sentibera ager liteke, berarekin ados ez dagoenean taldea, horrek anti-patiak eta errezelok sorraz ditzakeelarik.

Aprensiboa, kezkatua, depresiboa eta turbagarria: erruduntasunerako joera. Altu puntuatzen duen pertsona, depresiboa, kezkatua, luzaz gestaturiko presagioz eta ideiez betea da. Zailtasunen aurrean, larritasunerako joera infantila aurkezten du. Taldeetan ez da onartua sentitzen, ez eta ekiteko askatasunarekin ere. Puntuazio garaia, eskuarki gertatzen da era guztietako talde klinikoetan.

Q₁ FAKTOREA

Kontserbatzailea, ezarritako ideiekiko begiruneduna, defekto tradizio-nalekiko eramankortasuna: kontserbadurismoa. Bazu puntuatzen duen pertsonak, sinestarazi nahi izan zaionean konfiatzen du eta «ezaguna eta egiazkoa» onartzen ditu, bere inkonsistentziak gorabehera, hobeia izan litekeen zerbait aurkezten zaion arren. Ideia berriekin prekabitua eta puntill osoa da, aldaketak gerorako utzi edo haiei jazarri egiten da, tradizioari jarraitzen dio, erlijio eta politikan kontserbakorra eta ideia analitiko eta intelektualetaz ez da arduratzen.

Analitiko-kritikoa, liberala, esperimentazalea, ideia libre eta pentsamendu irekikoa da: Radikalismoa. Altu puntuatzen duen pertsona, arazo intelektualetaz interesatzen da eta oinarriko printzipioetaz zalantza egiten du. Aseptikoa eta espiritu inkisitibokoa da ideiei buruz, tradizionalak nahiz berriak izan. Ongi informatua egon ohi da, moralizatzeko joerarik ez du, bizitzaz galdetzeko joera badu eta molestiekin eta aldaketarekin toleratzailea izateko ere bai.

8

Nortasunaren teoria psikodinamikoak

8.1. SIGMUND FREUD

8.1.1. Freud-en bizitza

Jakob Freud, Sigmund-ek aita, artile salerosketara dedikatzen zen. Amalia, Sigmund-en ama, ez zen Jakob-en lehen emaztea izan, hirugarrena baizik. Bigarren emazteari buruz ez dirudi ezer zekienik hirugarrenak. Beharbada, Sigmund-ek berak ere ez zuen jakingo. Sigmund-en ama ez zen bere anaia zaharrena baino askoz zaharragoa. Adinez, anaia zaharra, bere amaren senarra izan zitekeen.

Sigmund, 1856 urtean jaio zen Freiberg-en, Morabian. Bere amaren seme zaharrena eta kuttuna izan zen. Bere idatzietan esango zigun gero: «Bere amaren zalantzagabeko kuttun izan diren gizaki guztiek, konkistatzaile sentimendua edukiko dute bizitza guztian, arrakastan konfiantza, eta horrek benetako arrakastara eramango ditu». 1859an Bienara aldatu zen bere familiarekin eta han bizi izango zen bere bizitza guztian, London-era joan zen bere bizitzako azken urtean ezik.

1873an amaitu zituen bigarren mailako ikasketak. Ikasle oso ona zen, klaseko lehena denborarik gehiengan. Lizeoan, zuzenbidea ikastea pentsatzen zuen, baina Darwin-en lanen eta Goethe-ren «Naturari buruz» idazlanaren irakurketak, medikuntza ikasten hastera eraman zuten, nahiz eta geroago esango zuen, inoiz ez zitzaiola medikuntza gustatu, ez gaztetan ez heldutan.

Bost urte edo bost urte t´erdiko ikasketak amaitzeko, zortzi urte behar izan zituen. Urte horietan, zoologia, botanika, kimika, mineralogia eta fisiologia ikasi zituen. Ikaslea zen bitartean ikerketan hasi zen, Anatomia Konparatuaren Institutuan eta fisiologia Institutuan. Ernst Brücke fisiologo ospetsuaren eragina jaso zuen unibertsitatean. Brücke-k, sistema fisiologiko dinamikoa bezala hartzen zuen gizakia; sistema horretan, energiaren kontserbazioaren printzipio fisikoez gidatzen diren indarrek

bultzatzen dute gizakia. Aingiren gonaden egitura aztertu zuen eta haien barrabilei buruzko artikulu bat argitaratu ere bai. Hemen ezagutu zuen Josef Breuer.

Medikuntza doktoratua eginda gero (1981), ezin izan zuen jarraitu Fisiologia Institutuan, dirurik ez zuelako. 1884ean, neurologi departamendu batean interno moduko bihurtu zen eta Meynert, neurologo ospetsuaren laborategian lan egin zuen. Lehen ikerketetako batean, gizaki helduaren eta umekiaren garunak alderatu zituen. Azterketa honetan ikusi zuen, lehen egiturak ez direla desagertzen bizitzan zehar; pertsonaren garapenari buruz duen ikuskeran agertuko da gero berriro ideia hau. Neuropatologia-ko Privatdozent (kurtso enkargatu) nahi zuen izan garai horretan, bere kontsultorio pribatua edukitzeko. Privatdozent-ak honorario altuagoak eduki zitzakeen.

Privatdozent izateko helburua 1885ean lortu zuen eta urte berean Parisiko Salpêtrière-n, Charcot-en zerbitzuan sei hilabete pasatzeko beka lortu zuen. Europako neuropsikiatra ezagunena zen garai hartan Charcot.

Ikuspegi pertsonaletik, Freud-ek depresio ziklikoak eta larritasun aldiak izan zituen. Aldi batez kokaina erabiltzera ere iritsi zen, bere urduritasuna lasaitu eta egoera animikoa igotzeko.

Bere bizitza emozionalean, lagun intimo bat eta etsai gorrotatu bat beti behar izan zituen Freud-ek, *Ametsen interpretazioa* liburuan aitortu zuenez. Ezkontzaren ondoren, hamar bat urtez, Wilhelm Fliess izan zuen lagun. Fliess-en erudizio zientifikoa zabala zen. Freud-en eskuidatzien irakurle sentibera izan zen. Freud eta Fliess, biak ziren establishment medikuaren kide onartuak, biak ziren juduak.

1882an konprometitu ziren Freud eta Martha Bernays. Prestigio soziala bazuen Martharen familiak, baina dirurik ez. Freud-ek ez zeukan, ez bata, ez bestea. 1882tik 1886ra bitartean iraun zuen nobiazgoak, baina urte horietan, denbora gehienez bereizita egon ziren Freud eta Marta. Hanburgo inguruan bizi izan zen urte hauetako denbora gehienez Marta, bere amarekin. Freud-ek ia egunero idazten zion eta sarri bisitatzeko dirurik ez zeukan. Martha familia judu ortodoxo eta praktikante batekoa zen; Freud, berriz, sinesgabe eta atea. Eskutitz batetan, bere zigarroekiko menpekotasuna aitortu zion Marthari: erretzea nahitaezkoa da, batek muskatuko duen norbait ez badu. 1885eko udazkenean, Nôtre Dameko toretako batera igo zen, eta honela kontatu zio Marthari: «Hirurehun maila igo behar dira; oso ilun eta bakarti dago; nirekin egon izan bazina, maila bakoitzean musu bat emango nizukeen».

1886an Parisera joan zen, Jean Charcot-ekin ikastera. Metodo hipnotikoaren bidez tratatzen zuen Charcot-ek histeria. Freud inoiz ez zen egon hipnosiaren balioaz konbentzitu, baina estimulatu behintzat egin zuen, eta Parisera joan zelako utzi zuen neurologia, psikopatologiara dedikatze-ko. Pariserako beka onartzeak, ziurtatua zuen karrera alde batera uztera behartu zuen. Charcot-en estilo zientifikoa eta lilura pertsonala oso atsegi-

nak zitzaizkion. Hipnosiaren teknika ez zen erabateko errebelazioa izan beretzat. Medikuntzako ikasle izan zenetik, egoera hipnotikoaz zerbait ezagutzen duen. Charcot-ek zioen, egoera hipnotikoa histerikoengan bakarrik proboka zitekeela. Garaiko Nancy-ko eskolako beste mediku batek esaten zuen, pertsona guztiak hipnotiza zitezkeela eta hipnotismoaren agerpenak bizitza psikologiko normaleko eta ametsetako fenomeno ezagunekin lotuta daudela.

Parisetik itzultzean kontsutategi bat ireki zuen. Breuer-ek pazienteak bidali zizkion. Tratitzen zituen gaixo nerbioz batzuk zientifikoki interesgarriak iruditu zitzaizkion; beste batzuk, aspergarriagoak iruditzen zitzaizkion, baina fakturak ordaintzen laguntzen zizkioten.

1895ean argitaratu zen *Histeriari buruzko idatziak*, Breuer eta Freud-ek idatzia. Liburuan agertzen den kasurik zaharrena, «Anna O»-rena, 1880koa zen. Psikoanalisi fundatu zuen kasua bezala kontsideratua da; behin baino gehiagotan egotzi zion Freud-ek Breuer-i psikanalisiaren aita izatea. Anna O-ren kasua Freud-i agertu zionean, ideia asko jarri ziren irakiten haren buruan. Anna O., Bertha Pappenheim, Martharen lagunaren ezizena zen. Anna O-ren kasuak, elkartu baino gehiago aldendu egin zituen Breuer eta Freud. Freud-ek ikusten zuen bezala, bera izan zen Breuer-en aurkikuntza asumitzeko adorea eduki zuena. Hamar urteren buruan, Breuer-ek berotasuna, afektua, apoio ekonomikoa eman zion Freud-i. Baina, dirua baino zerbait gehiago zor zion Freud-ek Breuer-i. Katarsiarri buruz ere hark ilustratu zuen.

Sigmund, 1886an ezkondu zen. Diru aurrerapen txiki batzuk eginak zituen; emaztegaiak heredentzi txiki bat jaso zuen; lagun aberatsek mailegu batzuk egin zizkien. Alemanian ezkondu ziren zibirez, baina Austrian zeremonia erlijiosoa egin beharrean gertatu ziren. Freud-ek ere, erritu erlijiosoen etsai izan arren, erantzunak errezitatu behar izan zituen.

Freud-en etxeko pertsona garrantzitsua izan zen bere ezkonarreba Minna ere. Senargaia eduki zuen, baina hil egin zen. Martha-ren ahizpa intelektuala zen. Hasieran, Freud-ek bere konfidente bezala kontsideratu zuen, Fliess-ekin batera.

Depresioaldiak izaten zituen Freud-ek. Inkonzientean aurkitu nahi izan zuen erantzuna. Horretarako, autoanalisi egin zuen: horri dedikatzen zion egunaren azken orduerdia. Autoanalisi horretan gehien lagundu ziona, Fliess izan zen. Eskutitzen bidez eduki zituzten batez ere harremanak. Freud-i Fliess indispentsable zitzaion: hari egiten zizkion bere ikerketen konfidentziak, eta ez bere emazteari. Fliess Freud-en konfiantzako sendagile ere izan zen. Bere eskutitzetan, Freud-ek sarritan aipatzen zizkion buruko minak, migraina krisiak, sudurreko eta sinusetako infekzioak, urdail eta hesteetako sintoma lausoak. Baina, batez ere, bihotzeko sintomak. Fliess-ek tabakoari egotzen zizkion sintoma hauek. Freud saiatzen zen tabakoa uzten, baina ezin izaten zuen denbora luzez erre gabe egon. Lanerako behar zituen zigarroak. Freud-ek aukeratu zituen bere sei seme-alaben

izenak. Seiak bederatzi urtetan eduki zituen Marthak. Etxeko lanik gehiena, Martharen bizkar erortzen zen.

1893tik 1896ra bitartean, takikardia paroxistikoaren krisiak sofritu zituen, angina minez eta ezker bentrikularen hutsegite seinaleez lagunduak. 38 urte bete zituenean, Fliess-i idatzitako eskutitz batetan, miokarditis reumatikoa izan daitekeela dio Freud-ek. Breuer-en teoria, «miokarditis kronikoarena» zen. Freud, batzuetan Fliess-en diagnostikoaren alde eta besteetan Breuer-en diagnostikoaren alde agertzen zen.

1896an bere aita gaixo zegoen. 81 urte zituen: bihotzak eta maskuriak hutsegiten zioten. Aita egoera estazionarioan zegoela probetxatuz, Sigmund oporretara joan zen, eta 1500 metrotako mendia igo zuen. Sendatua zegoela ikusi zuen. 1896ko urriaren 26an hil zen bere aita, biriketako edema batez. Azkenerarte oso ausarki jokatu zuen. Zaharraren heriotzak asko hunkitu zuen Sigmund. Superbizitzen denaren erruduntasuna sentitu zuen: aita gairitu zuenez, eta hori galerazia dagoenez, errudun sentitzen zen.

1896ko apirilaren 23an, «Histeriaren etiologiari» buruzko hitzaldi bat eman zuen: histeriaren jatorria haurtzaroko abusu sexualetan aurkitu behar dela esan zuen. Bere iritzian, harrera hotza izan zuen. Egun batzuek geroago Fliess-i idatzi zion, hitzaldiak harrera oso hotza eduki zuela entzule zituen «astoen» aldetik eta «denak infernura» joan zitezkeela. Inguratzen zuen giroa inoiz baino hotzagoa zela konturatu zuen, eta hitzaldiak isolamendura kondentatu zuela ziur zegoen.

1890eko hamarkadan, Freud-ek terapia teknika desberdinak aplikatu nahi izan zituen. Hasieran, Charcot-ek bezala, hipnosia erabili zuen. Gero, konzentrazioaren metodoa erabili nahi izan zuen: eskuaz bekokia presionatu eta bere oroitzapenak kontu zitzala eskatzen zion pazienteari. Garai honetan, berrogei urte beteak zituenean, psikoanalisiak ez zuen oraindik ia ezer landu. Psikoanalisia hitza, lehenengo aldiz, 1896an erabili zuen, lehenik frantsesez eta gero alemanez. Urte horretan hasi zen elkarketa askeaz baliatzen eta urte horretan heldu zion fermuki bere autoanalisiari. Lehenik Breuer-en eraginpean egon zen. Gero, hipnosiatik sendaketa katartikora pasatu zuen, hitzaren bidez; azkenik, 1890 hamarkadaren erdialdera, psikoanalisiari ekin zion. Elkarketa askearen metodoak pazienteari bere pentsamenduak askeki adierazteko aukera ematen zion; horri esker, Freud-en idazlan nagusienetakoa agertu zen 1899 urtean: *Ametsen interpretazioa*. Liburu horren argitarapenarekin, psikoanalisiaren oinarriak jarrita zeuden. Argitaratu ondorengo lehen bost urteetan 600 ale bakarrik saldu ziren, baina Freud-ek aurrera jarraitu zuen bere lanarekin. Freud-entzat, «ametsen interpretazioa da bizitza mental inkonzientearen ezagutzarako erret bidea». Baina, liburu hori, autobiografi bat ere bada. Bertan, Freud-en bizitzako pasarte asko aurki daitezke.

1902an Elkarte Psikoanalitikoak eratu zen, kide ospetsu hauek osatzen zutela: Alfred Adler, Sandor Ferenczi, Otto Rank eta Paul Federn. 1904ean idazten zuen Freud-ek *Eguneroko bizitzaren psikopatologia*.

1905ean argitaratutako *Teoria sexualari buruzko hiru entseiuak* liburua izan zen bere printzipioak agertzen zituen bigarren liburu nagusia. Liburu honetan, Freud-ek, haurraren sexualitatearen, perbertsioen eta neurosien arteko harremanak azpimarratzen ditu. Ideia horien ondorenez, Freud izaki perbertso eta gaiztoa bezala kontsideratua da, eta bere jarraitzaileak gaizki ikusiak eta baztertuak. Nolanahi ere, Freud-entzat, ametsen liburua zen garrantzitsuena.

1901ean, Erroma bisitatu zuen, bere anai Alexander-ekin batera. Erroma zaharrak liluratzen zuen batez ere. Bere bizitzako goien puntua izan zen Erromarako ikustaldia. Urtetan eta urtetan egon zen bisitaldi hau egiteko bildurrez. Erroma konkistatzea, juduen etsaisik gogorrenen etxean irabaztea zen. Erromari buruzko obsesio neurotikoa zeukan.

Irakasle karrerari buruz: 1897an Ohizkanpoko Irakasle izateko proposatu zuten eragin handiko bi adiskidek. Freud-ek Privatdozent izaten jarraitzen zuen. Beretzat katedrarik ez zegoen. 1902an sinatu zuen enperadoreak Freud Ohizkanpoko Irakasle bihurtzen zuen dekretoa. Freud-ek berak mugitu behar izan zuen, hori lortzeko paziente eta lagun zaharrena joz. Beste batzuen artean, Freud-en paziente eta lagun zen Ferstel baronesak parte hartu zuen. Hezkuntz ministraria konbentzitu zuen, «osasuna itzuli zion sendagileari» katedra eskaini ziezaion. Freud-ek esan zenez, sobornoa, ministroak fundatu nahi zuen galeriarako pintura moderno ko koadro bat izan zen.

Zirkulu ofizialetan bazegoen Freud-en kontrako aurreiritzirik. Batetik, judua zelako; bestetik, histeriaren etiologia sexualaz 1896an egin zuen hitzaldiagatik. Nolanahi ere, Freud-ek bazekien, titulu berriak atek ireki eta bere irabaziak nabarmen igoko zituela.

50 urterako, bi liburu garrantzitsu argitaratuak zituen, irakasle titulu ederra lortua zuen, Bienako zirkulu medikuetan bere alderako zenbait lortuak zituen, baina horrek ez zuen lasaitu. Mugimendu psikoanalitikoaren antolamendua lan gogorra zen. 50. urtebetetzean, bere admiratzaileek domina bat oparitu zioten. Alde batean, bere aurpegia, perfilez, eta beste aurpegian, Edipo, Esfingearen enigma ebazten. Inskribapena grekoz zihonan, *Edipo erregetik* hartua zen eta honela zioena: «Enigma ospetsua ebatzi zuen eta oso gizon boteretsua izan zen». Jones-ek dioenez, Freud zurbil geratu zen hura irakurtzean. Izan ere, unibertsitateko ikasle zela, hango patioiko bustoei begira, dominako inskribapen horrekin berarekin bere bustoa han jarriko zutela noizbait amets egin baitzuen.

Freud eta Fliess-en arteko harremanak gaizki bukatu ziren. Fliess-ek plagioaz ere akusatu zuen. Freud-ek *Hiru entseiuak* berrikusteko eta bere liburuaren ondotik argitaratzea eskaini zion. Baina, Fliess-ek ez zuen onartu.

1907an Karl Abraham-ek Bienan bisitatu zuenean, zahar konplexuak jota zegoen Freud, nahiz eta intelektualki eta fisikoki indartsu egon. Itxura fisiko oso ona zuen. Eguneru joaten zen ileapaindegira, bizarra eta bigote-

ak konpontzera. Zazpitan jaiki eta zortzietan hasten zen lanean. Hamabiak arte paziente psikoanalitikoekin egiten zuen lan. Ordubatean bazkal-tzen zuen: erlojuak jotzean, mahaiaren inguru biltzen zen familia. Freud estudiantik irten, emaztea bere aurrean eseri eta neskamea agertzen zen, zo-paontziarekin. Gero, ibiltzera irteten zen, bere zirkulazioa estimulatzen. Hirurretan hasten ziren kontsultak eta gaueko bederatziak arte hartzen zituen paziente analitikoak. Afal garaia etorrira, karta partida jokatzeko Minna koinatarekin, edo emazte edo alabaren batekin ibilalditxo bat egiten zuen, kaferen batetan amaituz. Ondoren, gauean, irakurri, idatzi etab. egiten zuen. Ordubatean oheratzen zen.

Unibertsitateko konferentziak larunbatetan ematen zituen, arratsaldeko bostetatik zazpitarera eta gero bere lagun Leopold Königstein-en etxera joaten zen, Austrian oso ezaguna zen tarok-a jokatzera. Igande goizetan bere ama bisitatzen zuen; eguna amaitzean, astean erantzun ezin izan zituen eskutitzak idazten zituen. Udako oporrak seriooki antolatzen zituzten. Austriako edo Babariako hotel lasairen batetan pasatzen zituzten opor asteak, perretxikuak bilduz, arrantza eginez etab. Udaren azken zatian, Freud Italia esploratzera joaten zen, bere anaia Alexanderrekin edo Sandor Ferenczi bezalako lagun batekin.

1908an Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak sortu zuten. Talde horretan, kide Bienarrak eta atzerritarrak zeuden. Freud-ek gehiago estimatzen zituen atzerritarrak. Karl Abraham-ek 30 urte zituen Freud ezagutu zuenean. Zurich inguruko gaixo mentalentzako hospital batetan egiten zuen lan, Jung-en alboan. Gero, Freud-en eraginaren pean, kontsulta psikoanalitiko pribatua jarri zuen Berlin-en. Abraham-ek 1908an fundatu zuen Berlingo Elkarte Psikoanalitikoak, bost kiderekin. 1909an, Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoaren lehenbiziko lehendakari izendatu zuten Jung.

1912tik aurrera, Freud-ek, Loe Kann, Jones-en maitale erakargarria, morfinaren menpekotasuna zuena tratatu zuen. Freud-ek esan zion Jones-i, aurrerapenak egiten ari zela, eta gero ta morfina gutxiago behar zuela. Sandor Ferenczi izan zen Freud-en konfidente profesional hurbilenekoetakoa. Medikuntza ikasi zuen Bienan. Lou Andreas-Salomé ere etortzen zen Bienako Elkarte Psikoanalitikoko bileretara. Nietzsche-ren eta Rilke-ren laguna izana zen Lou. Beharbada, Tausk-ekin, bera baino askoz gazteagoa zen mutil ederrarekin amodiozko harremana izan zuen. Harreman onak eduki zituen Freud-ek Lou-rekin.

Jung-ek Basileako Unibertsitatean ikasi zuen medikuntza. Bleuler-ek bere ondoan egiten zuen lan. Charcot-ekin Parisen ikasi eta Suizara itzuli zen Bleuler. Freud-i atsegin zitzaion Jung. Bazituen esperantzak hari buruz. Fliess idealizatu zuen bezala, beste norbait ere idealizatu beharra zuen. Jung, bere seme kuttuna zuen. Lagun juduei eginiko eskutitzetan behin eta berriro goraiatu zuen Jung-en lana. «Ez zaitetz jeloskorra izan —idatzi zion Ferenczi-ri 1910ean— eta sar ezazu Jung zure kalkuluetan. Inoiz baino konbentzituago nago, bera dela etorkizuneko gizona». Bera

desagertzean, Jung-ek ziurtatuko zuela psikoanaliaren superbizipena iruditzen zitzaion Freud-i.

1909an, doktore «honoris causa» titulua eman zioten Freud-i Clark University-n, Massachusetts-en. Jarraitzaileak zituen, beraz, Bienan, Zurich-en, Berlin-en, Budapest-en, London-en eta New York-en ere bai. Stanley Hall-ek eskatu zion Clark Unibertsitatean hitzaldi batzuk emateko. Hitzaldiak ekainerako prestatu nahi zituen Hall-ek. Freud-ek ezezkoa eman zion, bere irabaziak gutxitu zitzaizkion horrek. Hall-ek irailera atzeratu zituen hitzaldiak eta Freud-i emango zitzaion dirua gehitu zuen. Freud-ek onartu egin zuen eta bere ingelesa hobetzen hasi zen. Jung, Ferenczi eta Freud joan ziren. Zortzi egun iraun zuen trabesiak. Elkarren ametsak interpretatzen pasa zituzten egunak. Bidaian, kamarero bat aurkitu zuen *Eguneroko bizitzaren psikopatologia* irakurtzen.

Bost hitzaldiek harrera ona izan zuten. William James entzuleen artean izan zuen. Elkarrekin ibilaldi bat ere egin zuten. Egurasten zebiltzala, bere kartera eman zion James-ek Freud-i eta esan zion bihotzeko angina bat edukitzera zihoala. Handik urtebetera hilko zen William. Nolanahi ere, James hobeto konpontzen zen Jung-ekin. Ernst Jones, Torontotik exprefeso etorri zen.

Adler-en lanak goraiatzen zituen Freud-ek 1906an, baina 1910ean seriooki enfrentatu zen Adler eta haren aliatuekin, Nürnberg-eko nazioarteko kongresu psikoanalitikoan. Kongresu horretatik Freud nahiko pozik irten zen, baina nahiko jende gelditu zen erresuminduta. Jung aukeratu zuten elkarte psikoanalitiko internazionalaren lehendakari eta 1911n utzi egin zuen Adler-ek Bienako Elkarte Psikoanalitikoaren lehendakari zela. Lehendakariordeak ere, bere laguntasuna erakutsiz, utzi egin zuen kargua. Ekainean, baztertu egin zuen Freud-ek Adler eta Elkartea uztera bultzatu zuen. Jung gelditzen zen bere ondoan.

Jung-ekiko harremanak ere okertzen hasi ziren. Bere *Inkonzientearen psikologia* aintzakotzat ez zuela hartu Freud-ek iruditu zitzaion Jung-i. «Liburu hau idaztea, Freud-ekiko amestea kostatu zitzaidan, berak ez baitzuen onartu ahal izan». Baina, gero konturatu zen, liburu hura azken zergatia izan zela, eta ez benetako zergatia. Jung-ek esan zuen, hasieratik eduki zuela Freud-ekiko nolabaiteko erreserba mentala, haren libidoaren teoriari buruzkoa batez ere. Jung saiatu zen Freud-en terminoaren adiera zabaltzen, eta bulkada sexuala bakarrik errepresentatu ordez, energia mental osoa bil zezan.

1912an nahiko eztabaida gogorrean ari ziren, inzestoen tabuari buruz. Adler-ekiko zauriak oraindik itxi gabe zeudenean, Jung-ekiko eztabaidak agertu ziren. Orduan, Jones-ek ideia bat eduki zuen: antolamendu psikoanalitikoak behar zuena, lagun leialen antolamendu txiki eta itxia zela, komite klandestino moduko bat, Freud babestuko zuena, konfiantzako guardia pretoriano batek bezala. Jones-en ideia ongi hartu zuten Ferenczi, Rank eta Freud berak. Horrela eratu zen, Eraztunaren Elkarte Izku-

tua: elkarteko kide bakoitzari urrezko eraztunean kokaturiko harribitxi bat erregalatu zion.

Jung-en asmoa, Psikoanalisi sexualitatea bakarrik azpimarratzetik askatzea zen. Freud-en eta Jung-en arteko eskutitzak gutxitu egin ziren. 1913ko Munich-eko Kongresu Internazionallean Jung aukeratu zuten berriro, baina partaide asko abstenitu egin ziren. Freud-ek dio, berriro elkar ikusteko batere desirarik gabe agurtu zirela.

Lehen Mundu Gerrako urteek eragin handia izan zuten Freud-engan. Egunean 20 zigarro-puru erretzen ohitua, gerra garaian nekez lor zitzakeen eta horrek nekea eta humore txarra sorrarazten zizkion. Garai honetan Nobel Saria jasotzeko proposatua izan zen. Horrelako sari bat desiratu, desiratzen zuen, baina ez zuen espero jasotzerik. Bere semea italiarrek atxilotu zuten, baina bizirik irten zen, austro-hungriar gudarosteko beste asko ez bezala. Bienan gosea nagusitu zen eta estuasunetatik pasatu ziren. Berogailurik ez zuten. 1919ko udan, bere emaztea sanatorio batetan konbaleziente zegoela, Freud-ek hilabete igaro zuen bere balneario faboritotan, bere ezkonarriba Minnarekin.

1920an, 26 urteko alaba bat galdu zuen, eta bi seme gudan zituen. Bere alaba Sophie-ren heriotzak asko hunkitu zuen Freud. Guzti horrek eragina izan zuen eta 1920an Heriotz instintuaren teoria lantzen du. Garai horretan, baita ere, taldeen jokoaren bere teoria lantzen du: taldeko kideek liderrarekiko duten identifikazioa azpimarratuz.

1922 eta 23an bizitzeko adina janari bazegoen. Baina, inflazioak jaten zituen Freud-en aurrezkiak. Gerraren ondorenez, Freud-en seme gehienak berarengandik dependitzen gelditu ziren. Bere lanak salbatzen zuen Freud. Batez ere, kanpoko txanponez ordaintzen zioten bezeroek.

Gerra osteko lehen nazioarteko kongresu psikoanalitikoak La Hayan egin zen. Bere alaba Anarekin joan zen, ametsen teoria berrikusten zuen artikulu batekin.

1920an, *Atseginaren printzipiotik haratago*, 1921ean, *Masen psikoanalisi eta Niaren analisisa* eta 1923an *Nia eta Zera* argitaratu zituen. Bere bizitza guztian mantendu zuen sistema estrukturala agertzen dute liburuskak hauek. 1914tik 1918ra bitarteko sarraski handiak agirian utzi zuen gizakiaren erasokortasuna; krudeltasunaren sustraiak, gizakiaren barnean ongi erroturik ikusten zituen Freud-ek.

1923an bere iloba batek, haurdun eta ezkongabe zegoenak, bere buruaz beste egin zuen. Bestalde, urte horretan bertan, matraileko minbizia zuela jakin zuen Freud-ek. Matrailean ebakuntza asko egin zizkioten. Hizlari hain ona izan zenak, galdu egin zuen hitzegitean bere garbitasuna. Eskuin belarriaren entzumena ere ukitu zuten ebakuntzek. Dibana beste paretera aldatu zuten, ezker belarriaz hobeto entzun zezan. Jaterakoan, zailtasunak izaten zituen, eta publikoan jatea galerazten zioten. Ahoa eta sudurzuloa bereizten zituen protesiak, jarri eta kendu behar zuen bakoitzean torturatzen zuen. Behin baino gehiagotan aldatu zuen

protesi hori. 1920 hamarkadako azkenaldian, beste protesi bat egitera joan zen Berlinera.

Freud-en hiru semeen bidez, familia hazten zihoan. Bere alaba Annaren eragina gero ta handiago izango zen. Berak zainduko zuen ospitalean. Freud kezkatu egiten zuen Anna ezkongabe egoteak, nahiz eta haren gaitasun intelektualak preziatu. Annaren lana ez zen Freud-en lanak makinara pasatzea, edo haren lanak kongresu eta zeremonietan irakurtzea bakarrik izan. Haren gorputzaz ere arduratu zen. Protesia jarri ezin zuenean, hari eskatzen zion laguntza.

1926an, lurralde anitzetako egunkariek psikoanaliaren fundatzailearen 70. urtebetetzea gogorarazi zuten. New York Times-ek, Eisntein-ekin batera, zientifikorik ezagunena bezala jartzen zuen. Psikoanalisia osasuntsu agertzen zen. 1933an naziak agintera heldu ziren arte, nahitaezkoa zen kongresu psikoanalitikoetara joatea. Freud, bere protesiarekin kezkatuta, ez zen ia joaten. Bere lanak ingelesera itzultzeak zabalkunde handia ekarri zien haren teoriei.

Otto Rank-engandik ez zuen problemarik espero. Freud, baldintzarik jarri gabe eta denbora askoz interesatu zen Rank-en lanez. Egia esan, Rank-ek lan asko egiten zuen: editatu, idatzi, analizatu. Freud bera izan zen Rank-ek susmatzen azkena. Analisia laburtu beharrez, haurretako esperientziak alde batera uztera jotzen zuen, jaiotzeko traumari garrantzia emanez. Freud-ek ez zien garrantzirik eman Rank-en idatziei. Baina, Karl Abraham ez zegoen gustora. Freud-ek bere eszeptizismoa agertu zuen, Rank eta Ferenczi bultzatzen ari ziren terapia laburrari buruz. Baina, komitekoen artean borrokarik ez zuen nahi. Abraham-ek gogor jarraitzen zuen. Jones-ek Abraham-i esan zion, jaiotzeko traumaren teoriak Ediporen konplexuari ihes egitea esan nahi zuela. Freud baino freudiarragoak agertzen ziren. Rank Ameriketara joan zen eta han arrakasta handia lortu. Bienara itzultzean, komitekoek Ferenczi bereganatua zeukaten. Rank bera ere damutu eta komitekoengana itzuli zen. Freud-ek onartu zuen, baina bere jarraitzaileak ez zeuden barkatzeko prest. Berlingo taldeak bere jokaera gogorazten zion, eta teoria berrikusi bitartean, argitalpenik ez egiteko.

1925ean Karl Abraham-ek minbizia zeukan. Gabonetan hil zen. Heriotz hori zela ta, Freud-ek asko sufritu zuen: antolatzaile zentzuduna, teoriko interesgarria, analisatzaile pedagogoa desagertu zen..

Rank Estatu Batuetara joan zen bizitzera, eta berehala irten zen arlo freudiarretik. Freud-ek, bere aldetik, Ifar Ameriken kontrako jarrera hartu zuen Freud-ek, ikusi baitzuen, harako bidea hartzen zutenek (Jung, Rank edo Ferenczi), ortodoxia utzi egiten zutela. Estatu Batuak etsai seduzitzailerik bezala ikusten zituen.

1930ean, Francfort-ko hiriak Goethe saria eman zion. Zeru ilun batean eguzki izpi bat bezala izan zen. Dirutan ere sari ederra jaso zuen. Baina, batez ere, sariak Goethe-ren izena eramateak ematen zion atsegin. Sa-

riak Freud-en morala jaso bazuen ere, ez denbora askorako. Pentsatzen zuen ez zela ona izango Sari Nobela lortzeko, etsaitasun sorraraziko baitzuen. Bi aste geroago, atzerriko egunkarietan bere osasun egoerari buruzko berri alarmarazleak atera ziren, eta saria jaso izanari egotzi zizkion berri horiek Sigmund-ek.

Aurrerantzean, oporretara ez zen urrunera joaten. Biena inguruan gelditzen zen, bere zirujauarekiko harremana ez galtzeko. 1930ean erretzeari ere ia utzi zion, bihotzetik, urdailetatik eta hesteetatik gaizki sentitzen zelako. Bere tarok jokaldietako lagunak desagertzen ari ziren. Freud-en ama ere 1930ean hil zen, laurogeita hamabost urterekin.

1931n, David Forsyth, jarraitzaile ingelesetako batek, Huxleyren urteurrenko konferentzia ematera inbitatu zuen. Ez zen bidairako nahiko ongi sentitzen. Ebakuntza gogor bat jasan behar izan zuen. Hospitaletik etxera itzultzean, telegramaz eta lorez beterik aurkitu zuen etxea. Bere jaiotetxean ere plaka oroitarazle bat jarri zuten, baina Freud-ek ez zuen agertzerik izan. Bere seme-alabak, anaia eta jarraitzaile sutsuak bidali zituen. Urte honetan, Ferenczi hasia zegoen bide desberdin bat hartzen, bere pazienteen afektibitatearekin egiten zituen experimentuekin. Freud-i ez zitzaion bide emankorra iruditzen.

1932an jarrera lotsagabeagoa hartu zuen Ferenczik. Bere asmoa, analizatuak pertsona erabat garatuak bihurtzea zen, beraiekiko enpatia intentso bat onartuz. Ferencziren unibertsoarekiko batasunaren eta panteismoarekin bat zetorren armoniarako desira hori. Ferencziren biraketa hau, Freud-ek atzean utzi zuen sedukzioaren teoriaren berraurkikuntza bat zen. Ferenczi-k Freud-i irakurri zion Wiesbaden-go nazioarteko kongresurako idazten ari zen entsaioa. Freud-i lan kaxkarra iruditu zitzaion eta horrela esan zion Eitingon, komiteko beste leialetako bati. Baina laster hil zen Ferenczi, Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoaren lehendakari ordetza hutsik utziz. Freud-ek Marie Bonaparte aipatu zuen postu horretarako.

1932an, naziek Freud-en liburuak publikoki erre zituzten. Hitler-en alderdi naziak igoera meteorikoa izan zuen. Literatura ezkertiarra, demokratikoa eta judua baztertzean, zeharka, Freud ere beren jazarpenen helburu bihurtu zuten. Biena, Italia faxista eta Alemania naziaren artean gelditzen zen. Freud-i bere lagunek Austria uzteko kontseilatu zioten, baina zaharregia zela esaten zuten. Urte guzti horietan, behin bakarrik kontentatu zuen Hitler-ek Freud, berrehun bat nazi etsai erahil zituenean hain zuzen ere, Hirugarren Reich-a berak erabat dominatzeko.

Zirkunstantzi hauetan, judu sentimendua indartu zitzaion eta Moises, obsesio eta babes bat bihurtu zitzaion.

80. urtebetetzean, hainbat erregaliren artean, Stefan Zweig, Thomas Mann eta 191 artista eta idazlek zoriontze oroigarri bat sinatu zioten. Bere alaba Anak jarraitzen zuen bere zaindari leialena izaten. «Nire inguruan dagoenetik ederrena», zioen berak. 1936ko irailaren 14an ospatu zituzten beren urrezko eztaiak Freud eta Marthak..

1936ko abenduaren 30ean, Marie Bonapartek esan zion, liburu saltzailer batek Fliess-en eskutitzak (Freud-ek Fliess-i bidaliak) eskaini zizkiola. Fliess-en emazteak salduak liburu saltzaileari. Freud izutua gelditu zen. Desegin egin nahi zituen. Marie-k liburutegiren batetan izkutuan gorde nahi zituen etorkizunerako. Azkenean, Bienako Rothschild Bank-en gorde zituzten eskutitzak.

Analisi amaigarria eta amaiezina, 1937ko ekainean atera zen. Urte horretan jakin zuen Adler hil zela, bihotzeko atake batez. Ez zuen batere sentitu.

1938ko martxoaren 12an, alemaniarrek Austriaren jabe egin ziren. Juduak Bienako bizitzatik desagertzen hasi ziren. Bere nazioarteko ospeagatik libratu zen Freud neurri handi batean. Ernest Jones Bienara etorri zen Freud-i laguntzera. Anna, Gestapok detenitu zuen. Gestaporen bulegoetan ez zuen Annak kontrolik galdu. Gestapori agertu zion, Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak, erabat zientifikoa zela, eta ez politikoa. Azkenean, askatu zuten Anna.

Gertaera honek konbentzitu zuen Freud aldegitiko. Azkenik, Bienatik aldegin zuten, eta Parisetik pasa ondoren, Londonera heldu ziren, «askatasunean hiltzera». Harrera ona egin zioten han. Royal Society-ko hiru idazkarik elkarte horretako liburu sakratua ekarri zioten, han Newton-en edo Darwin-en sinaduren ondoan berea jar zezan Sigmund-ek.

Freud-ek lanari ekin zion berriro. *Moises*-en hirugarren zatia lantzen ari zen. Juduen kode moral hertsia kontrako erresuminari egozten zion Freud-ek antisemitismoa. Uztailaren 22an, *Psikoanalisiaren eskema* hasi zuen. Irailean amaitu zuen, ahoko gaitza berrindartu zitzaionean.

1939ko ekainaren hasieran, Max Schur, bere sendagilea, Ameriketara zegoen, hango gorabeherak konpontzen. Uztailaren zortzian etorri zenean, Freud-en osasunak okerrera egina zegoen. Argalago zegoen, lo nekez egiten zuen; hitzegitea asko kostatzen zitzaion.

Abuztuaren batean, bizitzari agur esanez, Freud-ek ofizialki utzi zuen bere praktika medikua. Nekatua zegoen eta elikatzea zaila zitzaion, oraindik irakurtzen jarraitzen bazuen ere. Irakurri zuen azken liburua, Balzac-en *Zaparrak* izan zen.

Schur (Freud-en sendagilea) etsipendurik zegoen, Freud-en alde ezer ezin zuelako egin. Irailaren 21ean eskutik heldu eta beren arteko ituna oroitarazi zion Freud-ek: momentua helduan, ez zuela atakan utziko. «Orain tortura bakarrik gelditzen da, eta zentzunik ez du». Eta gero esan zion: «Eskertzen dizut». Zalantza piska batekin, gero: «Hitzegin ezazu honetaz Annarekin eta bera ados badago, amai dezagun». Annak luzatu egin nahi zuen Sigmund-en bizitza, baina Schur-ek esan zion ezertara ez zeramala, eta etsi egin zuen. Eta Schur-ek, irailaren 21ean, morfina hiru zentigramo injektatu zizkion, eta Freud amets lasaiean murgildu zen. Berriro mugitzen hastean, beste dosi bat eman zion, eta irailaren 22an azkeneko bat. Freud koman sartu zen eta gehiago ez zen esnatu. 1939ko irailaren 23ko goizeko hiruretan hil zen.

8.1.2. Freud-en ekarpena

8.1.2.1. SARRERA

Psikologiaren eremuan, eta eremutik at, eragin gehien izan duen teoria psikodinamikoetako bat, Psikoanalisi da. Sigmund Freud-ek (1856-1939) fundatua eta garatua.

Freud-ek esan zuen, gizakiak bere narzisismoaren kontrako hiru eraso jaso zituela: lehena, Kopernikok, lurra ez zela unibertsoaren erdigunea aurkitu zuenean; bigarrena, Darwin-ek aurkitu zuenean, gizakia ez zela esistitzen animalien erreinuko beste kideetatik independenteki; hirugarrena, gure psikismoaren zati handi bat inkonzientea dela eta indar ezezagunek gobernatzen dutela aurkitu zenean.

Teoria psikoanalitikoak hiru aspektu biltzen ditu nagusiki:

1. Ikerketa metodo bezala.
2. Metodo terapeutiko bezala.
3. Aurreko bi urratsetatik abiatuz eskuratzen diren ezagutza psikologikoen multzoa, «nortasunean» zentratua nagusiki.

Psikoanalisi, nagusiki klinikoak diren testuinguruetan garatu da. Bere hasierako helburua, subjektu neurotikoen prozesu inkonzienteak, motibazioa, emozioa eta gatazka pultsionalak aztertzea izan zen. Baina, bere eragina, eremu kliniko eta psikologikotik askoz haruntzago hedatu da, kultur eta gizartearen azterketetaraino helduz.

Bere garaiko zientzilari bezala, Freud-ek ezagutzen zituen momentu hartan interesgarrienak ziren teoriak. Konkrétuki, energiaren dinamikaren teoria, eta energiaren kontserbazioaren printzipioak; teoria horrek, fisikaren mundutik irten bazen ere, medikuntzan eta psikologian eraginik izan zuen. Teoria horren oinarrian dagoen printzipioak honela dio: sistema itxi guztietan, energia konstantea dela, eta ezabatu gabe transformatu egiten dela. Freud, orduan, giza psikismoaren funtzionamendua presupostu berberetatik esplikatzen saiatu zen, horrek eraman zuelarik bere teoriarentzat «eredu hidrauliko» bat hartzera. Freud-ek Brücke-ren fisiologiaren eragina jaso zuen. Brücke-rentzat, energiaren kontserbazioaren printzipioak gidatzen du gizakia. Ideia hori jokaera psikologikora hedatu zuen Freud-ek.

Gizakia energia sistema bat da. Sistema horretan, energia jariatzen da, estankatzen da edo enbalsatzen da. Energia kantitate mugatua du sistemak; energia horren deskarga bat gertatzen bada, beste bideetatik deskargatzeko energia gutxiago du. Asmo kulturaletako erabiltzen den energia, ezin erabil daiteke asmo sexualetarako, edo alderantziz. Energiaren adierazpide bat blokeatzen bada, erresistentzi gutxiago aurkitzen duen beste adierazpide bat aurkituko du. Jokaera guztiaren helburua atsegina izango litzateke, hots, tentsioaren gutxitzea edo energiaren askatzea.

Eredu horretatik abiatuz, paralelismo bat ezartzen saiatu zen, urez betetzen ari den ontzi itxi bat «autorregulatzeko» den moduaren eta energiaren betetzen ari den organismoaren autoerregulazio moduaren artean; energia bere ohiko bideetatik ongi jariatzen ez delako, estankatu delako, sistemen funtzionamendu txar bat dagoelako, sor litezkeen problemak aztertu zituen.

Gizakia, energia sistema bezala ikusteaz at, izaera sexual eta erasokorreko instintuek bultzatua bezala ikusten du Freud-ek. Bai instintu erasokorra, bai instintu sexuala, gizakiak beregan dituenak dira. Freud-entzat, gizakiak atseginaren printzipioaren arabera jokatzeko du; printzipio horren arabera, berehalako asebetetzea bilatuko luke. Baina, jokatzeko modu hori gizartearen eskakizunekin kontraesan dago: atseginaren bila askatu behar harko litzatekeen energia, gizartearen helburuak lortzeko inhibitua eta bideratua izan behar du. Kultura, instintuekiko errenuntzian oinarritua egon litzateke.

Freud-entzat, jarduera zientifikoak, kultur eta arte ekoizpenak, zuzenki ager ezin daitezkeen energia sexualaren eta erasokorraren agerpenak edo sublimazioak dira. Kultura da, beraz, instintuen eta gizarteak jarritako mugen arteko gatazkaren emaitzetako bat; beste emaitza bat, sofrikarioa eta neurosia dira. Neurosia erortzen bada, gizarteak ezarritako frustrazio maila gainditu ezin duelako da. *Zibilizazioaren egonezina* liburuan dioen bezala, zibilizazioaren aurrerapenaren prezioa, sofrikarioa, erruduntasun sentimendua eta zorientasunaren faltsutzea dira.

Teoria psikoanalitikoak nagusiki darabilen metodologia, klinikoa da, hau da, intuizioaren eta «begi klinikoaren» erabilera. Aplikazio esparrua eremu klinikotik sortzen da eta psike normalaren azterketara nahiz kultur eta gizarte arloaren interpretaziora hedatzen da.

Freud-ek beti ukatu zuen bere teoriak filosofiarekin erlaziorik zuenik. Psikoanalisiak ez zuen gizakiaren filosofiarekin suposatzen. Beretzat, filosofiarik gabe zientziaren zehaztasunetik. Psikoanalisi Psikologiaren adar bat zen; beraz, zientzia bat zen.

Zientziaren etsaia erlijioa zen Freud-entzat, unibertsoaren iturria eta jatorria ezagutzeko giza-desira asebetetzen baitu eta gizakiaren pentsamendua eta ekintzak lege moralen bidetik orientatzen baititu. Zientziak, berriz, gertakarien aurkikuntza eta baieztapena bakarrik eskaintzen dio; sofrikarioaren aurrean ez du kontsolatzen eta dilema etiko nahiz moralen aurrean norabiderik ez dio ematen.

Freud-ek bereizketa garbia egin zuen ezagutza zientifikoaren eta ezagutza filosofiko edo erlijiosoaren artean, ezagutza zientifikoaren aldeko apustua eginez; ezagutzen zituen metodo zientifikoaren eskakizunak: behaketa, operazionalizazioa, hipotesiak, kontrastazioa etab., baina behin eta berriro azpimarratu den bezala, bere teoria oinarritzeko garaian hutsune nabariak izan zituen. Beharbada, ezagutza eremu berri bat irekitzen ari zela bazekienez, horregatik onartu zuen bere eraikuntzek abstrakzio maila

garaia edukitzea, zientzia baten garapenaren lehen faseetan gertatu ohi den bezala.

Kasu indibidualen bere behaketa klinikoek, exhaustiboak izanik ere, ez zuten objektibotasun eta egiaztapen garantia minimorik; hala ere, berengan fidagarriak zirela eta inolako esperimendazio beharrik ez zegoela esateraino heldu zen Freud. Rosenzweig-ek idatzi zionean, errepresioaren kontzeptu psikoanalitikoari buruzko bere ikerketa esperimentaletaz informatzeko, Freud-ek erantzun zion, kontzeptu psikoanalitikoak behaketa fidagarrien gorputz zabal batetan oinarritzen zirela, eta ez zutela egiaztapen esperimental independente baten beharrik. Benetan, esan daiteke, psikoanalistak ez direla gai izan metodologi zientifiko iraunkor eta fidagarri bat garatu eta aplikatzeko; baina bere kontzeptu eta eraikuntzek psikologia guztia igurtzi dutelako, esperimentalista ez-psikoanalista batzuk, psikoanalistik eratorritako hipotesiak frogatzen saiatu dira. Emaizak, era guztietakoak izan dira (Eysenck & Wilson, 1973).

Psikoanalisiaren bereizgarri garrantzitsuetako bat hau da: kontzeptu eta eraikuntzen kopuru mugatu bat finkatu nahi du, haietatik abiatu jorkaera globalki esplikatzeko. Organismoaren barnean elkarreragiten duten indarren konplexitatetik abiatzen da, jokaera, haien kanpoko islada besterik ez dela eta motibo, bulkada, premia eta gatazka ezberdinen arteko elkarreraginek definitzen dutela adieraziz. Osagai hauek modu oso konplexuan antolatutak egonen lirateke, barne egituren maila ezberdinetan hierarkikoki antolatutak, eta, dinamika partikular baten arabera, organismo bakoitzean diferentzia indibidualak eta giza jokaeraren konplexutasun osoa esplikatuz helduko lirateke.

Psikoanalisiak, antolamendu maila desberdinetan kontsideratzen du jokaera: ekintza bera indar oso desberdinen adierazpen izan liteke, eta indar bera jokaera desberdinetan ager liteke. Bestalde, jokaeraren konzientzia maila desberdinak ditu pertsonak, bere jokaera desberdinak determinatzen dituzten indar izkutez konzientzi gehiago edo gutxiago agertuz.

Kontzeptu psikologiko garrantzitsuenen eta hedatuena artekoa, ez ahatik ezagunena, «inkonzientearena» da. Psikoanalisiarentzat, subjektua-arentzat inkonzienteak, ezezagunak diren barne indar jakin batzuek dira ageriko jokaeraren zergati. Geroago aztertuko dugu kontzeptu hau.

Bestalde, «makroteoria» baten adibide bat ere bada psikoanalisia: giza jokaeraren osotasuna esplikatuz nahi du, eta errealitate guztiaren interpretaziorako marko teoriko globala izan nahi du. Planteamendu iradokorrak eta intuizio zorrotzak eduki ditu; horrek eraman du, bere ideiak, psikiatria eta psikologiatik harantzago joanez, eremu zientifiko, filosofiko eta sozialetaraino ere hedatuz; bestalde, psikanalisten, «sekta» ia erlijiosoak ere eratu dituzte, beren erituekin eta integrazio edo pertenez sinboloekin.

Nortasunaren teoriarekin erlazioan, nortasuna baino gehiago izan du psikanalisiak «karaktere» hitza erabili, jokaera behagarriaren zergati zuzen-

na den barne egitura egonkorra eta iraunkorra denotatzeko. Zentzun hone-tan «karakterearen egituraz» gehiago hitzegingo da, «nortasunaren egitu-raz» baino.

8.1.2.2. TEORIA PSIKOANALITIKOAREN GARAPENA

Teoria eta terapia bezala psikoanalisia eraikitzeko lehen etapak, Freud-en biografiarekin paraleloan datoz. Esan dugun bezala, medikuntza ikasi ondoren, neurologiara dedikatu zen denbora batez eta 1886an Parise-ra joan zen, histeriaren hipnosi bidezko trataeran murgildurik zegoen Charcot-ekin ikasteko. Sintomatologia organikoa, gainditu gabeko nahas-keta psikologikoren baten ondorena zela arrazoituz hasi zuen bere teoriaren formulazioa; inkonzientearen mailan jartzen zuen sintomatologi hor-ren zergatia, konturatu baitzen, mugitu ezin ziren subjektu batzuek, edo nahasketa psikomotrizak zituztenek, egoera hipnotikoaren pean hobera egiten zutela.

Ezarian ezarian, konturatzen joan zen, metodo hipnotikoak ez zuela beti pertsona guztiengan funtzionatzen, eta teknika terapeutiko desberdi-nak bereganatzen joan zen, hala nola, ametsetako materialaren interpreta-zioa eta katarsiarena (norbere problema emozionalen soluziobiderako as-kabidea). Eta, batez ere, 1896an, elkarketa askearen metodoa sortu zuen, hau da, inolako inhibipen edo kanpoko behaztoporik gabe bere pentsa-menduak hitzetaratzeko (berbalizatze) askatasuna eman pazienteari.

1899an argitaratu zuen *Ametsen interpretazioa* eta 1902an «Elkarte Psikoanalitikoa» fundatzen du. Jarraian agertzen ditu beste idazlan gar-rantzitsu batzuk ere: *Eguneroko bizitzaren psikopatologia* (1904) eta *Teo-ria sexualari buruzko hiru entseiu* (1905). Liburu hauetan agertzen ditu haurren sexualitateari buruzko bere ideiak, garaiko mentalitatean hainbes-teko zurrumbiloa sorrarazi zutenak, eta inkonzientearen garrantzia erreko-nozitzen du; kontzeptu biak klabeak izango dira jaioberri den teoria freu-diarrean. 1909 inguruan hasi zen nabarmenki hedatzen teoria psikoanalitikoa, erakundeen hainbat hesiren kontra, psikoanalisia terapia bezala finkatuz.

Baina, laster hasi ziren Elkarte Psikoanalitikoaren beraren barneko ti-rabirak ere, eta horrek bultzatu zuen Freud, elkarte sekretu moduko bat eratzeri: *Erantzun izkutuaren elkarte*, atxikimendu handia zioten zazpi ki-derekin, bakoitzari urrezko erantzun bat erregalatu ziolarik harribitxi bate-kin; elkarte horren funtzioa, psikoanaliaren ortodoxia zaintzea zen, bai-na ez zuen lortu, enbor psikoanalitiko amankomun horretatik sortu ziren eskola eta heterodoxia kopuruari begiratuta ikus daitekeen bezala.

Gerora, zailtasun ekonomikoak, osasun gorabeherak, senitartekoen ga-lerak, I Mundu Gerrateak, judu izaeragatik jasandako jazarpenak eta abar zirela eta, bere karakterea ozpintzen joan zen, eta horrela, «Heriotz instin-tuaren» teoria landu zuen 1920 inguruan. Teoria honen ideia nagusiaren

arabera, instintuek organismoa materia ezorganikoaren egoera primitibora itzularazten dute.

Bere haragian nozitu zituenez nazien jazarpenak, jokaera psikopatologikoak ere bere teorizazioen zati bat osatu zuten. Sofrikarioa, depresioa eta larritasunak ekarri zizkioten bizipen intimo intentsoak bizi izan zituen Freud-ek; baina, horrek, sormen intelektualera bultzatu zuen, ekoizpen handi batera eraman zuen sormenera hain zuzen ere.

Bere bizitzako azken urteetatik datoz bere nortasunari buruzko ekarpen nagusiak: nortasunaren egitura, kulturari buruzko ideiak, neurosia, psikosia, larritasunaren eta defentsa mekanismoen teoria. Batzuek kritikatu egingo dute Freud, besteek, berriz, defendatu; edonola ere, nahiz eta bere teoriak mugak eduki (bere eraikuntzen operatibitate maila eskasa eta, beraz, bere lan hipotesien kontrastagarritasun eskasa), «lehenago» eta «ondoren» bat markatzen duen mugarri bat izango da.

Nortasun eta kuraia handikoa, intuizio sakonekoa, behaketa gaitasun nabarmenekoa, lanerako gaitasun apartekoa eta etsaitasunen aurrean atzera egiten ez zuena: guzti horrek egin zuen Freud, historiako pertsonaiarik garrantzitsuenetakoa.

8.1.2.3. NORTASUNAREN TEORIA PSIKOANALITIKOA

8.1.2.3.1. *Nortasunaren oinarritzko egiturak*

Nortasunaren teoria bakoitzaren atzean gizakiaren eta bere funtzionamenduaren ikuskera bat dagoela esan izan badugu, hau egia da behintzat psikanalisiaren kasuan. Teoria honek darabiltzan kontzeptu askok, momentuko problematika soziala, garatu zeneko zirkunstantziak eta mende amaierako Bienako erdi klasmailako subjektuen puritanismo eta erreprezio sexuala isladatzen dituzte.

Teoria honen ideia zentrala honako hau izango da: gizakia energia sistema bat da, eta energia hau jariatu, estankatu edo bere bidetik irteten da. Organismo guztietan bada energiaren kantitate jakin bat; jarduera batzuk egin behar direnean, kantitate bat erabiltzen da, eta beste jardueretarako energia gutxiago gelditzen da. Organismo baten barruan, energiaren karga eta deskarga prozesu normal bat bada; energia hori blokea daiteke, eta hasieran aurrikusitakoak ez diren beste helburu batzuetara jo dezake. Giza jokaerak, energia gutxitzera eta/edo deskargatzera jotzen du nagusiki. Hemen sartzen da, giza jokaeraren motore bezala, *Atsegina-ren printzipioa*: sexual jatorria duen tentsioa eta energia ahal den azkarrena gutxitu eta deskargatzeko gizakiak duen joera naturala; tentsio eta energia hori behin askatuta gero, atsegin eta asebetetze sentipen bat sortzen da.

Freud-entzat, gizakia, beste animaliekin batera, bi instintuk bultzatua dago: bata, izaera sexualekoa eta bestea izaera agresibokoa. Freud-ek,

bere teoriaren zati handi bat, jokaera sorrarazteko instintu sexualak zuen gaitasunean oinarritu zuen. Bere bizitzaren eta teoriaren amaiera aldera, oinarrizko bigarren instintua sartu zuen, lehenengoak nahikoa esplika ezin zitzakeen jokaera jakin batzuk esplikatzen laguntzen ziona.

Instintu sexualak, bizitzaren motore den heinean, organismoaren eta kanpoko gizartearen artean gatazka bat probokatzen du. Bere desirak asebetetzearen bidean, gizabanakoaren eta gizartearen interesen arteko konfrontazio bat sortzen da. Gatazkaren ondorenez, une jakin batean askatu behar zen energia, hertsatu egiten da eta gizarteak onartzen duen bide batetik bideratu behar da. Hemen datza kulturaren eta zibilizazioaren iturburua, Freud-entzat, «frustrazio sozialetik» abiatuz ezartzen baitira biak. Jarduera artistiko, zientifiko, kultural guztiak, energia sexual hertsatu edo sublimatuaren adierazpide dira. Baina, emaitz guztiak ez dira prozesu honetan «emankorrek»; adierazpide «sexualaren» (eta «agresiboaren») gabeziak, eraman dezake gizakia sofrikariora eta neurosiara. Honela seinalatzeko du Freud-ek *Kulturaren egonezina* liburuan: zibilizazioaren aurrerapenaren prezioa, norberaren sofrikarioan, zoriontasunaren galaran eta erruduntasun sentimenduaren goititzean datza.

Energiaren eta instintuen sistema honetan ez dago askatasunarentzat lekurik. Jokaera guztiak determinatuak daude, haietako batzuek kasualitatez, ausaz edo borondate soilez gertatzeko ahalbiderik gabe. Gainera, jokaeraren zergatietako askotaz subjektua ez da konziente. Hau izango da, beharbada, Freud-ek zientzia psikologikoari egin dion erakarpenik garrantzitsuena: inkonzientearen azalpena. Jokaera normala eta patologikoa ulertzeko erreferentzia puntu klabea da *inkonzientea* psikanalisiarentzat. Bere teoriaren erdigunea da, eta pertsonaren edozein prozesu garrantzitsu, inkonzientearen galbahetik igarotzen da neurri batean. Gizabanakoaren bizitzan gertaturiko gertakariak, inkonzientean pila daitezke, eta geroago jokaera batzuk eragin.

Bulkaden aspektua Freud-en teoriaren momentu desberdinetan garatua izan zen. Gero, nortasunren teoria psikoanalitikoak landutako egiturazko unitateen baitan bildua izan zen.

Zeintzuk dira teoria psikoanalitikoak giza jokaera esplikatzekeko darabiltzan egitura unitateak?

Teoria psikoanalitikoaren barnean bi azpiteoria edo ikuspegi desberdin daude: kontsiderazio topografikoa eta kontsiderazio estrukturala. Ikuspegi topografikoak sistemaren azaleko bereizgarriak deskribatzen ditu: inkonzientea, prekonzientea eta konzienteaz hitzegiten du, bizitza mentalaren kualitateak deskribatzeko. Konzientziaren maila desberdinetan kontzentratu zen pentsamendu psikoanalitikoak. Garai honetan, psikanalisiaren helburua, bizitza psikikoan inkonzientea dena aurkitzea zen.

Psikismoaren maila hauetako bakoitza, gertakari psikikoetatik subjektuak duen konzientzi mailaz ari da, eta jokaeraren zergatia gertatzen deneko maila psikikoaz.

Honela, *konzientea*, zuzenki ezagutzen ditugun gertakarietara buruz ari da; *prekonzienteak*, behar den arreta eta ahaleginaz ezagutzera hel gaitzkeen gertakariak biltzen ditu; *inkonzienteak*, berriz, konzientziari ihes dagoen eta zirkunstantzi berezietan bakarrik ezagutzera hel gaitzkeen fenomenoa.

Freud-en teoriaren zati handi bat, bizitza *inkonzientearen* bereizgarriak sistematikoki esploratzen eta bizitza psikikoan duen eragina aztertzen zentratzen da. Azterketa horretarako, ametsen, «*lapsus linguae*»-en, neurosien eta psikosien, idazlanen, agerpen artistikoen, erritu kulturalen eta abarren analisi sinbolikoa darabil. Bizitza psikiko inkonzientearen bereizgarriak aztertzean, han ezinezkorik ez zegoela ikusi zuen. Alogikoa da, kontzeptu desberdinek gauza bera errepresenta baitezakete; denbora ez du kontutan hartzen, beraz, momentu desberdinetan gertaturiko gertakariak elkarrekin agertzen dira; espaziorik ez dago, tamainu eta distantzia erlazioak ez ditu kontuan hartzen: objektu handiak txikien barnean sar daitezke, eta elkarrengandik urrun dauden tokiak elkarrekin ager daitezke.. Eraikuntza horren barnean, beraz, jariakortasun eta plastizitate handia dago, bizitza arrazionalen eta esna dagoenean nekez gertatzen dena; hain zuzen ere, ametsen bidez ezagu liteke ondoen inkonzientea, sinboloen munduan aurkitzen baikara. Sinbolizazio prozesu honek, beste era batera kokatu ezin litezkeen elementu asko kokatzea ahaleztatzen du: ideia asko hitz bakar batean bil litezke, objektu baten zati batek objektu osoa errepresenta lezake, objektu bakarrak objektu multzoa errepresenta lezake; teoria psikoanalitikoan, kontzeptu eta elementu askok, batez ere atal sexualerako erreferentzi egiten dietenak, sinboloen bidez izkutatuak dira. Honela, zakila suge edo sudur batetan errepresentatua egon liteke, ama xurgatzaile bat olagarro batek, emakume bat eliza edo txalupa batek etab. Sinbolizazio prozesuari esker, gertakarien kontrol magikoa lortzeko, errituak finkatzen dira; prozesu berari esker, izaera sexuala eman diezaiokegu, idaztea bezalako ekintza neutro bati: luma zakila da; papera, luma hori hartzen duen emakumea; tinta, lumaren goranzko eta beheranzko mugimenduetatik irteten den semena.

Zuzenki behagarria ez bada ere, inkonzientearen esistentziaren kontzentzimendura, psikikoki nahasturiko pertsona batzuek egoera hipnotikotan zuten jokaera berbala behatuz heldu zen. Sugestio hipnotikoari esker, hipnotizatzailearen aginduz, gero gogoratuko ez dituzten gauzak egiteko gai dira, eta esna egoeran oroit ezin ditzaketen gauzak oroitzeko ere bai.

Beharbada, inkonzientearen kontzeptua izango da teoria psikoanalitikoan garrantzitsua. Baina, kontzeptu honen frogak enpirikoak aurkitzeko garaian zailtasunak aurkitu dira. Inkonzientea onartzea, batzutan gauzak konturatu gabe egiten ditugula edo egiten ditugun gauza askoren konzientziarik ez dugula onartzea baino zerbait gehiago da. Gure jokaeraren zati handi bat indar inkonzienteek determinatzen dutela eta gure energiaren zati handi bat, sozialki onartuak ez diren bulkada inkonzienteak kontrola-

tzera edo ideia inkonzienteei adierazpide egokiak aurkitzera zuzentzen dugula esan nahi du inkonzientearen kontzeptu psikoanalitikoak.

Geroago, 1923an, eredu estruktural formalago bat landu zuen Freud-ek. Teoria psikoanalitikoaren ikuspegi estrukturala hiru kontzeptuk definitzen dute:

1. *Zera edo Id-a.*
2. *Nia edo Ego-a.*
3. *Supernia edo Superego-a.*

Gizakiaren oinarri biologikoa errepresentatzen du *Zerak*, eta handik eratoritzen da organismoaren funtzionamendua ahaleztatzen duen bulkaden energia. Zera bi instintuk osatua egonen litzateke: bizitz instintuak edo instintu sexualak eta heriotz instintuak edo instintu oldarkoia. Giza funtzionamendurako beharrezko den energia, beraz, instintu horietatik ateratzen dugu. Bere funtzionamenduan, kitzikaduraren, tentsioaren eta energiaren deskarga bilatzen du *Zerak*. «Atseginaren printzipioaren» arabera funtzionatzen du, hau da, tentsioa eta exzitazioa bapatean deskargatuz, atsegina bilatuz eta mina saihestuz. Guztiok barnean daramagun piztia dela Zera esan daiteke: bulkadatsua, berekoia, irrazionala eta atsegin zalea; ez du eskrupulorik, frustraziorik ez du jasaten, eta errealitatearekiko kontsiderazio moralik ez du gordetzen. Errealitatea kontutan hartzen ez duenez, ekintzaren bidez edo fantasiazko desiren bidez asebetete liteke. Fantasiazko asebetzea, asebetetze erreala bezain ona izan liteke.

Aurkako poloan *Supernia* dago: gure funtzionamenduaren aspektu morala errepresentatzen du, subjektuak integratu dituen printzipio eta arau sozialak biltzen ditu, eta baita jokoaren kontrol positibo eta negatiboen mekanismoak ere (sariak, norberaren maitasuna, harrotasuna, guttiagotasun eta erruduntasun sentimenduak etab.). Superni gogorregiak, nortasun zurruna, perfekzionista eta estereotipatua edukitzera eraman gaitzake; Superni ulerkor eta malgu batek Zeraren bulkaden egokitzen hobe bati lagun diezaioke. Superniak maila oso primitiboan joka dezake, pentsamendua eta ekintza bereizi gabe, eta erruduntasun sentimenduak sorraraziko ditu, pentsamendu txarrak edukitze soilagatik, nahiz eta pentsamendu horiek ekintzara eraman ez.

Bi kontzeptuen arteko bitarteko leku bat okupatuz, *Nia* aurkitzen dugu: ingurunearekin elkarrengaitzen duen gure organismoaren zatia da, aurreko bi egituren aurkako jarreraren emaitza, ikuspegi rogerstarrean ez bezala; han Self-a, nagusiki «autokontzientea» baita; zentzun honetan, barneko eta kanpoko eskaeren funtzioan egokituko litzake gizabanakoaren erantzunak. «*Errealitatearen printzipioak*», instintuen bapateko asebetetzea momentu egokiago batera atzeratuz arautuko luke Niaren jarduerak. Printzipioa honen arabera, Zerarengandik datorren energia, blokeatua, desbideratua eta ondoren askatua izan daiteke. Printzipioz, Niaren jarduerak oso komenigarria izango litzateke gizabanakoarentzat, bere instintuak

bizkorki asebetetzeko Zerak duen joera bulkadatsua arautuko bailuke eta tentsioa nahiz frustrazioa toleratzen lagunduko bailuke, subjektu helduen trebetasun perzeptual eta kognitiboak garatuz.

Zerak atsegina bilatzen duen bitartean eta Superniak perfekzioa bilatzen duen bitartean, Niak errealitatea bilatzen du. Zeraren desireri adierazpidea eta asebetetzea ematea da Niaren funtzioa, errealitatearekin eta Superniaren eskaerekin adostasunean. Zerak Atseginaren Printzipioaren arabera funtzionatzen duen bitartean, Niak Errealitatearen Printzipioaren arabera funtzionatzen du. Printzipio honen arabera, instintuen asebetetzea unerik egokienera bitartean atzeratzen da. Printzipio honen arabera, Zeraren energia izan daiteke blokeatua, desbideratua edo askatua, errealitatearen edo konzientzia moralaren eskaerak kontutan hartuta. Ez dago Atseginaren Printzipioaren kontra, baizik piska baterako atzeratu egiten du.

Niaren garrantzia ezagututa ere, Freud-ek espazio gutxi eskaini zion bere teoriaran, antzeko rolak betetzen zituzten Inkonzientean eta Zeraren zentratu baitzen nagusiki. Freud-ek landutako metafora batetan, Nia zalduna izango litzateke eta Zera bere zaldia; honek indarra ematen dio eta hark norabidea. Nia, logikoa, razionala eta malgua izango litzateke, eta errealitatearekiko harremanean subjektuari lagunduko lioke.

Azken etapan, Niaren garrantzia azpimarratzen hasi zen Freud; Nia ez zegoen ia Zeraren esanetara, baizik bere energia propioa sortzen zuen. Gizabanakoak ingurunearen gain dagien ekintzari, haren pentsamendu eta perzeptzio konzienteari garrantzi gehiago ematen dio nortasunaren deskribapenean. Tentsio gutxitzearen mekanismoak bakarrik ez zuela funtzionatzen postulatu hasi zen; gizabanakoak ingurunearen gain egiten duen ekintzari, perzeptzioari eta pentsamendu konzienteari ere garrantzia eman zien, jarrera fenomenologikoetara hurbilduz.

8.1.2.3.2. Nortasunaren eredu psikoanalitikoaren funtzionamendua

Nola funtzionatzen dute elementu guzti hauek sistema energetikoaren barnean? Oinarritzko sustratua, agerpen desberdinetan eraldatua izan daitekeen energia da, oinarrian berdina eta sexual jatorrikoa dena. Psikanalisiaren teorizazioen zati handi bat, energiaren garapen, eraldaketa, adierazpen eta blokeoan zentratzen da. Energiaren iturria, gorputzaren kitzikapen egoerak dira, energia kanpora azaltzean edo deskargatzean gutxitzen direnak: animalien organismo guztiek dituzten instintu eta bulkadak. Energiak, instintuen eta bulkaden bidez ekoizten du jokaera.

Hasiera batetan, teoria psikoanalitikoak bi instintu mota berezi zituen: *niaren instintuak*, autokontserbazioarekin erlazionatuak, eta *instintu sexualak*, espeziearen kontserbazioarekin erlazionatuak. Geroago, instintuen artean, *bizitz instintuetan* (hauetan instintu sexualak eta niaren instintuak sartzen zituztela) eta *heriotz instintuak* berezi zituzten. Heriotz instintuek, bera ihalgia zeneko materia ezorganikora itzultzeko organismoaren

joera agertzen zuten. Instintu biak Zeraren zati bezala kontsideratu zituen Freud-ek. Bizitz instintuaren edo sexual instintuaren energia «libidoa» deitu zuen; heriotz instintua eta eraso instintua, «tanatos» deitu zuen.

Instintuen joera, tentsioa gutxitzea eta asebetetzea berehalakoan lortzea da. Instintuen gratifikazioa objektuen bidez lortzen da. Anitz dira gizakiaren instintuak asebeste ditzaketen objektuak. Gizakia, gainera, beharrezko denean deskargaren atzerapena lortzeko gai da. Instintuaren asebetetze partziala ere posible da. Objektuaren aldaketak ere posible dira, objektu naturala ez den beste batek instintua asebetetzeko. Instintuak, gainera, batzuk besteekin konbina edo nahas daitezke: adibidez, erosa eta erasokortasuna konbina daitezke kirurgian. Honela, bada, instintuek, berehalako irteerarik aurkitu ezean, aldakuntza batzuk jasango litzekete bere aurrerabidean edo objektuan: blokeoa, eraldaketa, objektuaren desplazamendua, konbinaketa, gratifikazio partziala etab. Instintuen aldakortasun honek, organismoen agiriko jokaeraren aldakortasunean eragina izango luke; hitz batean, instintu beretik abiatuz, jokaera oso desberdinak sor litezke eta subjektu askorengan itxuraz antzekoa den jokaera batek instintu oso ezberdinak asebeste ditzake.

Derrigorrean deskargatu behar den energiak har dezakeen bideari buruz, psikanalisiak bi prozesu oinarritzko postulatu ditu:

1. Objektuan inbertitzen da energia: *katexia* prozesua da.
2. Instintuaren asebetetzearen inhibizioa edo desbiderapena da: *kontrakatexia* prozesua da. Energia inbertitzearen inhibipena. Inhibipen honek ere energia gastu bat suposatzen du, eta bulkadaren inhibizioan bere energia inbertitzen duena, nekatu eta aspertu egiten da.

Instintuen adierazpenaren eta inhibipenaren (katexien eta kontrakatexien) elkarrekiko harremanetan datza dinamika psikoanalitikoaren kaxoa. Bi prozesu hauen arteko dinamika eta elkarreraginak okupatu du jokaeraren azalpenaren erdigunea.

Indarren joko honetan, larritasunak eginkizun garrantzitsua betetzen du. Teoria psikoanalitikoan, emozio esperientzi mingarria da larritasuna, organismoarentzat mehatxu edo arrisku erreal bat ordezkatzeko duena. Larritasuna lausoa denean, gizabanakoak ezin erlazioa dezake egoera hori kanpoko objektu batekin; bildurraren kasuan, berriz, subjektuak oso ongi daki zein den tentsioaren iturria.

Freud-ek bi teoria ditu larritasunaz edo angustiaz: lehenengoan, libido erreprimetua bezala, hau da, deskargatu gabeko tentsio sexualaren ondorena bezala kontsideratzen du, eta bigarrean, etortze dagoen arrisku edo mehatxuren baten presentziaz *Nia* abisatzeko desatseginezko emozio bat bezala kontsideratzen du. Une jakin batean organismoak trauma bat jasatu du. Larritasuna, esperientzia traumatikoaren errepikapena izango litzateke, miniaturan bada ere. Oraingo larritasunak, iraganeko arrisku batekin edukiko luke erlazioa. Trauma primitiboak ez du kontzientzian sarrerarik:

larritasun lausoa sortzen du. Aurretiko esperientzia traumatiko gogorren miniaturazko errepikapen bat bezala agertzen zaio, beraz, larritasuna subjektuari, eta, kontzientea ez izatean, modu «flotzailean» ageri zaio. Angustiaren zergatiak Zerari, Supernian edo kanpoko Errealitatean egon litezke. Larritasunaren iturria Zerari dagoenean, bere bulkada propioek gaudituko ote duten bildurrak mehatxatzen du gizabanakoa. Larritasunaren iturria Supernian dagoenean, erruduntasun sentimenduak sentitzen ditu pertsonak. Zerak, «hau nahi dut», Superniak, «bildurgarria da» eta Niak, «bildurra dut» esango balute bezala gertatzen dira gauzak. Oinarrian, gatazka, adierazbidea aurkitu nahi duten Zeraren instintuen eta kanpoko arriskua ikusten duen Niaren artekoa da; edo, Zeraren instintuen eta Superniaren zigor-mehatxuaren artekoa.

Teoria psikoanalitikoaren arabera, instintu desberdinen artean gerta daitezke gatazkak, eta baita instintuen eta errealitatearen artean ere. Larritasuna nekez jasan dezakegu luzaroan. Zer egin orduan gainditzeko?

Larritasunaren aurrean, defentsa mekanismoek ekiten dugu. Kontraktariaren eta instintu eta errealitatearen printzipioaren arteko gatazkaren testuinguruan, eta larritasunaren kontrolaren testuinguruan ekiten dute «defentsa mekanismoek»; mekanismo hauek laguntzen digute maila inkonzientean errealitatea distorsionatzen eta horiei esker Niak ez du gatazkaren benetako konzientziarik hartzen; horrela, gehiegizko larritasuna eragotzi egiten dute.

Defentsa mekanismo hauen artean garrantzitsuenak hauek dira:

1. Proiektzioa
2. Introiektzioa
3. Ukazioa
4. Disoziazioa eta isolamendua
5. Razionalizazioa
6. Atzeraitzultzea
7. Errepresioa
8. Formazio errektiboia
9. Sublimazioa
10. Desplazamendua
11. Konpentsazioa

Proiektzioan, gure barnekoa eta gure konzientziarentzat onartezina dena, kanpoko beste pertsona edo objektu batengana lekualdatzen dugu eta ez dugu norberarena bezala errekonozitzen, arrotz bezala kontsideratzen dugu. Honela, adibidez, norbere etsaitasun sentimenduak errekonozitu ordez, beste guztiak etsai zaizkiola uste izango du, paranoian gertatzen den bezala. Prozesu honetan ez dago muga garbirik niari dagokionaren eta niari arrotza zaionaren artean. Mekanismo hau, atsegingarri den guztia niari dagokiona bezala, eta desatsegingarri dena nia ez denari dagokiona bezala hartzen duen perzeptzio primitiboarekin bat dator. Modu honetara,

barne bulkada negatibo bat sortzen bada, kanpoko objektu batengan proiektatzeko subjektuaren ahalegin bat egon daiteke.

Proiektzioari buruzko azterketa esperimental batetan (Sears, 1936), pertsonen zekentasuna (zikoiztasuna), egoskorkeria, desordenua eta herabetasuna, berezitasun horietaz zuten kontzientzia maila eta beste pertsonen berezitasun horiek zein neurritan egozten zizkieten neurtu zuten. Bereziatasun horietaz kontziente ez direnek, beste pertsonen askoz ere gehiagotan egozten zizkieten berezitasun horiek, berezitasun horietaz kontziente zirenek baino.

Bigarren babes mekanismoa, *Introiektzioarena* da. Modu fantasmatikoa batez, subjektuak kanpotik barnera iraganarazten ditu objektuak eta objektuei dagozkien kualitateak. Introiektzioa inkorporaziotik hurbil dago, hau delarik haren prototipo korporala. Ez du nahitaez eskatzen gorputz mugaren erreferentziarik. Identifikazioarekin harreman estuan dago. Psikoanalisisan, inkorporazio prozesua gorputz mugarekin harremanean dago. Introiektzio terminoa zabalagoa da: jokoan dagoena ez da gorputz barnea bakarrik, aparailu psikikoaren barnea baizik.

Mekanismo hau oso loturik dago elikua (eta bere sinbolo den bularra) irensteko subjektuaren esperientzia oralarekin, eta objektua kontrolatzeko sentipenarekin (hortzen irteerarekin, objektua ezabatuz integratzen duela). Bulkada oldarkoi eta erotikoen kontrol mekanismo bihurtzen da, beraz, introiektzioa, objektua subjektuaren zati bezala barneratuz. Objektua desatseginetara denean, haren barneraketak gatazka eta nahasketak sorrarazten ditu, batez ere, depresioa eta malenkonioa.

Hirugarren babes mekanismoa, *Ukazioarena* da. Bi ukazio mota daude: errealitatearen ukazioa (bere zakilgabezia ukatzen duen neska kasua) eta bulkadaren ukazioa (haserretua dagoen pertsona batek ez dagoela haserretua esaten du). Mehatxu baten magnitudea errekonozitu nahi ez denean, errealitatearen ukazioa egiten dugu. Adibidez: iristear dagoen porrot baten aurrean, «hau ezin dakidake niri gerta» esanez, errealitatea ukatzen dugu. Treblinka-ko Nazien konzentrazio kanpoan, hango biztanleek heriotzik ez balego bezala jokatzeko zuten, nahiz eta inguruan kontrakoaren ebidentzia garbiak egon (Steiner, 1966). Herri oso baten desagertzea edo iraungitzea hain irudikaezina izanik, presonerrek ezin zuten onartu.

Disoziazio edo *isolamenduan*, bulkada, pentsamendua edo ekintza kontzientziara sartzen dira, baina ez afektua. Pentsamendua edo ekintza, dagokion emoziotik bereizten du subjektuak. Afektu edo emozio hori, objektuaren anbivalentziak sortua da, aldi berean aspektu onak eta txarrak baititu. Subjektua bulkadaz kontziente da, baina ez, darraikion sentimenduz. Mekanismo honen emaitza, intelektualizazio gehiegia eta jokaera oso logiko eta zurrunen finkapena da. Oroitzapenaren edo bulkadaren afektua eta edukina bereizten ditu. Bulkadari kontzientziarako sarrera ez zaio ukatzen, baina haren afektu normalari eragotzi egiten zaio sarrera. Isolamendu mekanismo honen emaitza da intelektualizazioa edo pentsa-

menduan enfasi gehiegi jartzea, sentimendua eta afektua galtzen irteten direlarik.

Isolamendu mekanismoa erabiltzeko joera dutenek, *egindakoa desegitearen* mekanismoa ere erabiltzen dute. Ekintza edo desira bat modu magikoz desegiten dute, beste ekintza bat eginez. Mekanismo hau ekintza konpultsiboetan gertatzen da, adibidez, pertsona batek hilketa edo suizidio fantasia bat desegiten duenean, etxeko gasaren giltzak konpultsiboki itxiz.

Razionalizazioan, pertsonak ekintza bat hautematen du, baina ez haren benetako motiboa. Horrela, arrazoizkoa eta onargarria iruditzen den berrinterpretatzen da jokaera. Zuzenki baztergarria den ekintza bat zuzitzeko hitzezko gaitasuna du horrela subjektuak. Mentalitate inkisitorialengan tipikoki ematen den mekanismoa. Bulkada arriskutsua zilegiztatzen du, Superniaren gaitzespenaren ondorenak jasan gabe. Astakeria handienak Jainkoaren izenean egingo dira.

Erregresioaren defentsa mekanismoa oso garrantzitsua da karakterearen formazioa ulertzeko. Lortutako posizioa utzi eta aurretiko situazio edo estadio batetara itzultzean datza, bere bulkadak asebetetzeko eragozpen garrantzitsuak aurkitzen dituenen subjektuak.

Errepresioaren mekanismoak, konzientzian pentsamendu edo desira jakin batzuk sartzea eragozten du. Errepresioaren efektua, beste defentsa mekanismo batzuetan ere ikusten da, eta inkonzientearen mailan bulkada arriskutsuak mantentzean datza oinarrian, konzientziaratu gabe. Errepresioak beste babes mekanismo guztietan eskuhartzen du eta energia gastua dakar berekin; energia gastua nabarmena da, eta subjektuaren burutiko osasunean duen ondorena oso kaltegarria. Horregatik, psikopatologiaren garapenarekin oso harreman garrantzitsua ikusten zaio. Bere inplikazio klinikoengatik, psikoanalisian aztertu zen lehen mekanismoa izan zen, subjektu normalek darabilten mekanismo usuenetakoa izanik gainera. Momentuko nahasketa txikiez, ahanzketez eta pentsamenduaren hutsunez adierazten da.

Aurrekoaren antzeko mekanismo bat, *formazio errektiboa* da. Gizarteak onartzen ez duen bulkada baten kontra defendatzen da pertsona, kontrako bulkadari dagozkion ageriko azalpenak emanez. Gizartean onartuak diren jokaerak modu oso zurrunean, desegokian eta gehiegizkoan agertzen dituztenengan nabaria da maniobra hau. Beren benetako sentimentuak ez dituzte onartzen; honela gertatzen da, adibidez, beren semearekiko etsaitasuna onartzen ez duten ama hiperbabestaileengan. Honela gertatzen da, «euli bat hiltzeko gai ez den» pertsona eredugarri batek triskantza bat egin duenean. Batzuetan ez da errepresiotik bereizten erraza, bere ekintzaren ondorenez, sozialki zentsuragarriak diren bulkada eta errepresentazioak inkonzientean mantentzen baitira. Diferentzia: errepresioan, energia, inkonzientearen irteera pultsionala kolapsatzeko eta ekiditeko erabiltzen den bitartean, formazio errektiboan energiak jokaera mota bat bultzatzen

du, frenatu denaren aurkakoa dena, amodio-gorroto motako mekanismoan oinarritua. Adibidez, haur batekiko gehiegizko zaintzearen eta gehiegizko babesaren jarrera, harekiko etsaitasun izkutukoaren kontrako defentsa bezala, luzarora garapen askea estutu eta galerazten duena. Bere espresioaren zurruntasunagatik detektatzen da eta baita bazterturiko edukinen nahi-gabeko agerpen esporadikoen bidez ere.

Sublimazioak ez du bulkaden deskarga blokeatzen, baizik bulkada bat larritasun gabe agertzen uzten digu, bere garapenerako aukeratutako bidea sozialki onartua baita. Mekanismo honetan, bere gratifikazioaren hasierako objektua, beste batez ordezkaturia da; beste objektu hau, instintuaren adierazpen zuzenetik oso urrun dago. Beste babes mekanismoek instintuen deskarga eragozten duten bitartean, sublimazioak beste bide batzuetatik desbideratzen du instintua. Beste babes mekanismoetan ez bezala, hemen Niak ez dauka energiaren etengabeko gastua egin beharrik, deskarga galerazteko. Sublimazioa baliagarria da osasunaren ikuspegitik, jariakorrak diren kanaleetatik desbideratzen baititu instintuak. Orokorrean, Freud-entzat, Kultura eta Zibilizazioa defentsa mekanismo honen gainean altxatzen dira, pertsonen energia pulsionala modu ordenatuan probetxatzen baitu, aurrez finkaturiko helburu «goragokoetarako»; batzuetan sofrikarioa eta nahasketak sor baditzake ere, ez da beti horrela. Leonardo Da Vinci-ren artelanak haren desiren sublimazioak ziren Freud-entzat.

Desplazamendua, sublimazioaren antzeko defentsa mekanismo bat da, errepresentazio multzo batetik bestera energia zuzentzean datzana, tratamendu psikoanalitikoko transferentzien garapenean gertatzen den bezala; transferentzian, hasieran guraso irudiei loturiko afektuak analisatzailearengana lekualdatzen dira. Lekualdatzearen pautara, hasierako bulkaden objektuen eta transferentziko objektuen arteko antz handiagoak edo txikiagoak determinatua egondo da; horrela, zenbat eta antz handiagoa eta zenbat eta hornidura sinboliko gehiago eduki lotura hori interpretatzeko, gatazka inkonzientea isladatzeko ahalbide gehiago egongo da.

Pertsona gehienek jokaera sozializatua sublimazio mekanismoak esplikatu balu, zenbait pertsonen jokaera desegokia *konpentsazioaren* defentsa mekanismoaz esplikatu litzateke. Instintuen garapen normala eragotziko lukeen hesi bat agertzen denean sortzen da mekanismo hau; organismoa, pilatutako tentsioa beste bide batetik deskargatzera behartua dago, eta energia bide egokitik deskargatu ezinak sortzen duen defizita desagertaraztera. Harrigarritzko ahalegin batek, gainkonpentsaziora eramanez lezake, behaztopa fisiko handiak edukirik pertsonai ospetsu izatera heldu diren pertsonen kasuan bezala. Horrela, subjektu batek duen desegokitasun erreala edo mentalaren sentimenduak konpentsatu nahi lirateke. Ahalegin hori oso handia bada, indar defentsiboak ahuldu litezke eta nor-tasuna desintegrazioa eramanez: deskonpentsazioaren kasuan geundeko. Prozesu terminalean, psikosi batean amai liteke.

8.1.2.3.3. *Nortasunaren garapena*

Psikanalisia teorikoki zedarritzen duten mekanismoak eta oinarrizko egiturak azalduta gero, ikus dezagun orain karakterearen egitura desberdina nola konfiguratu diren (Psikanalisiak «karaktere» gehiago darabil «nortasuna» baino, jokaeraren iraunkortasuna eta egonkortasuna eta haren jatorria azpimarratzeko).

Karakterearen garapena ulertzeko giltzarria bi oinarrizko ideiek erazten dute: lehenik, pertsonaren eboluzioak etapa sail bat iragaten du eta etapa horiek organismoaren prozesu biologikoetan dituzte beren sustraiak; bigarrenik, garapenaren lehen gertakariak pertsonaren geroko nortasunarentzat edukiko duten garrantzia azpimarratzen duen ikuspegi genetikoa dago. Teoriko psikoanalista askok kontsideratzen dute, nortasunaren aspektu garrantzitsuenak pertsonaren lehen bost urteetan finkatzen direla.

Pentsamenduaren prozesuen garapenaren teoria psikoanalitikoak, prozesu primariotik prozesu sekundarioerako iraganbidean zentratzen da. *Prozesu primarioa* inkonzientearen lengoia da: irudien eta mundu errealeko objektuen arteko nahasketa, fantasia eta errealtatearen konfusioa ematen da lengoia horretan. Pentsamenduak izaera magikoa du. *Prozesu sekundarioa*, konzientearen, ikaskuntzaren, oroitzenaren, pentsamenduaren eta errealtatearen egiaztapenaren lengoia da.

Teoria analitikoaren zatirik garrantzitsuenak, instintuen garapenaz tratatzen duena da. Instintuen iturria, gorputzaren tentsio egoeretan aurkitu behar da; tentsio horiek gorputzaren eskualde jakin batzuetan kontzentratzen dira; gorputzaren eskualde espezifikoen, «eskualde erogeno» deituetan, kontzentratzeko joera dute. Gorputzeko eskualde erogeno nagusiak aldatu egiten dira, pertsona garatzen doan neurrian, eta aldaketa hauek biologiak determinatuak dira.

Aurrez finkaturiko ordenu batetan, bat besteari atzetik datozen faseetatik iragaten da subjektua; gizarteko elkarreraginetatik eta eskualde erogeno desberdinetan sorturiko gratifikazio ahalbideetatik dependitzen du garapenak eta hazkuntza emozionalak; gainera, defentsa mekanismo desberdinen jarduerak, batez ere, defentsa mekanismo nagusiaren jarduerak arartekotua da garapen hori.

Subjektu guztiek beren garapenean etapa hauetatik iragan behar dute eta honako hauek dira beren eskualde erogenoak:

1. Aho aroa: ahoa.
2. Uzki aroa: uzkia.
3. Aro falikoa: genitalak.

1. *Aho aroa*: Bizitzaren lehen etapan, Otik 2 urtetara bitartean, ahoa dago eskualde erogenoen erdigunean, kitzikapen eta gratifikazio iturri garrantzitsu izanik. Etapa honetan bi fase daude: lehen zatian haurra pasiboa eta hartzailea da; bigarrenean, hortzen garapenak atsegin sexual eta agre-

siboaren fusiora eraman dezake. Fusio instintibo honen adibidea, kanibalismoa eta komunio erlijiosoan ikus dezakegu. Fase bietan, janariak egin-kizun garrantzitsua betetzen du, amaren bularretik eta biberotik hasita, beste otordueta-raino. Aho aroan, bost funtzionamendu tipo desberdin eman daitezke, geroago, beste situazio batzuetan, harremanen prototipo bezala serbi lezaketenak. Tipo hauek honakook dira: barneraketa, eustea, hortzakada, jaurtiketa eta ahoa ixtea. Geroagoko ekintzak, fase honen hondakinak kontsidera litezke; honela, adibidez, erretzeko, txiklea masakzeko edo musukatzeko jokaera, eta orokorrean, harrapazka jateko, janari exotikoak dastatzeko jokaera, elikatze funtzio hertsirik gabe.

2. *Uzki aroa*: Garapenaren bigarren fasean, 2tik 3 urtetara luzatzen denean, kitzikapena uzkiaren eta gorozkiak egitean konzentratzen da, kanporatzean atsegina sortuz eta tentsioa gutxituz. Eskualde erogeno honen erlasionaturiko atseginek hiru gatazka mota sortzen dizkiote pertsonari: lehenik, kanporatze eta euste prozesuek sorturiko gatazka mota; bigarrenik, kanporatzeak sortutako atsegina instintiboaren eta Niaren kontrol entsegunen arteko gatazka; hirugarrenik, subjektuak kanporatzeko premia sentitzen du, baina gizarteak eskatzen dio, hori zirkunstantzi batzuetan bakarrik gerta daitekeela, tentsioaren deskarga atzeratu beharrean aurkituz. Hirugarren gatazka honek jartzen ditu, Zeraren eta Niaren arteko gatazka estrukturalaren oinarriak; gizabanakoaren eta gizartearen arteko lehen gatazka garrantzitsua errepresentatzen du. Atseginarene printzipioaren baztertzea eskatzen dio inguruneak haurrari. Gorozkien eustearen eta kanporatzearen arabera markatuko dira ondorengo jokae-ren pautak.

3. *Aro falikoa*: Hirugarren etapa, «faliko» deitua da eta lau eta bosgarren urteetan gertatzen da. Kitzikapena eta tentsioa genitaletan konzentratzen dira. Sexuen arteko bereizkuntza biologikoak bereizkuntza psikologikora eramaten du. Adin honetan iadanik haurra bere berezitasun biologiko sexualaz konziente da, hori izango duelarik bere bereizkuntza psikologikoen abiapuntu. Zakilaren kitzikapenak, emakumeak horrelakorik ez duela konturatzeak eta berak galtzeko bildurrak, «Ediporen konplexuaren» agerpenean eta «zikiramendu larritasunean» eragiten dute. Konplexu honen arabera, aita etsai bihurtzen da, haurra amaren afektua bereganatzen saiatzen denean; mutilak bere amarekin ezkondu eta aita hil nahiko luke; aitarengana proiektatzen du bere etsaitasuna eta horrek ondorenez, mendeku bildurra sortzen du beregan. Mutilarengan, Ediporen konplexua honela ebazten da: ama amodio objektu bezala gordetzen du, eta aitarekin identifikatzen da, hura irabazten saiatuz. Konplexuaren ebazpena errazten duten faktoreak hauek dira: amak sortarazten dituen desengainoak (desatzipamenduak), aitari zaion bildurra eta aitarekiko identifikaziotik sor litezkeen irabaziak. Aitarekin identifikatzean, haren balioak eta moralitatea bereganatzen ditu haurrak. Zentzun honetan, Supernia, Ediporen Konplexuaren ebazpenaren oinordekoa da.

Ediporen konplexuaren garapena desberdina da haur neskatilarengan. Bere zakil gabeziak konturatzen da eta bere amodioaren lehen objektu izan den amari botatzen dio errua. Zakilaren bekaitzak eramanda, aita amodiozko objektu bezala aukeratzen du, eta bere fantasian pentsatzen du, galdu duen atala itzulia izango zaiola bere aitarekin haur bat edukitzen badu. Mutilarengan, zikiramendu larritasuna Ediporen konplexuarekin amaitzen den bitartean, neskatilarengan zakilaren bekaitza da Edipoa has- ten duena. Ediporen konplexua (Elektraren konplexua?) gainditzeko, nes- katilak aita amodio objektu bezala gordetzen du; amarekin identifikatuz, aita bereganatu nahi izango du. Neskatilarengan, arinagoa da Ediporen konplexua mutilarengan baino: zakila galtzeko bildur gutxiago du, eta amari errenutzi egin beharrik ez du, mutilak bezala. Horregatik, neskatil- ak, Superni ahulagoa eta gozoagoa garatzen du; horregatik gertatzen da bere karakterearen ontasun eta leuntasun handiagoa.

Sexu bereko gurasoarekiko identifikazioa oinarritzko kontzeptua da garapenaren psikologian. Identifikazioan, gizabanakoak beste pertsonaren kualitateak bereganatu eta bere funtzionamenduan integratzen ditu. Lau identifikazio mota bereizten ditu Freud-ek:

1. Narzisista.
2. Helbururantz zuzendua.
3. Objektu galduarekikoa.
4. Erasotzailearekikoa.

1. *Identifikazio narzisistan*, bera bezalakoak direla hautematen ditue- nekin identifikatzen da gizabanakoa. Identifikazio honetatik abiatuta, tal- de sozialak eta identifikazio etnikoa eratu eta sustatzen dira. Talde bereko kideen artean loturak sortzen dira.

2. *Helbururantz zuzenduriko* identifikazioan, arrakasta eduki duen eta norberarentzat balio garrantzitsuak dituen pertsonarekin gertatzen da iden- tifikazioa. Superniaren garapenean eskuhartzen du identifikazio mota honek.

3. *Objektu galduarekiko* identifikazioaren bidez, galdutako edo urrun- dutako pertsona bat berreskuratu nahi izaten da, harekin identifikatuz. Oraindik txikia dela bere aita galdu duen haurrak, harekiko edo haren iru- di idealizatu batekiko gehiegizko identifikazioa gara lezake.

4. *Erasotzailearekiko* identifikazioa: Autoritate irudi batekin identi- katzen da, horrela zigorra ekiditeko. Superniaren garapenean identifikazio mota hau ere ematen da, eta gizarteratze prozesuan indar boteretsua da. Konzentrazio zelaietako presonerren esperientzietan ere, mehatxu larrie- neko situazioetan edo pertsona bahituengan (Estokolmoko sindromea, Guerra, 1988) ere ikus daiteke. Honela, konzentrazio zelai horietan, zen- bait presonerrek ahal zuten ezagugarri nazi gehienak jartzen zituzten, be- ren lagunak krudelki tratatuz. Honela esplikatu liteke judu batzuen antisemi- tismoa ere.

Aho, uzki eta faliko aroak, genitalaurreko aroak dira, ugalketarako gaitasunik ez duten garaikoak. Freud-ek ez zuen arreta handirik jarri, Ediporen ondorengo etapetan. Aro falikoaren ondoren, latentzi aroan sartzen da haurra: aro horretan, bulkada sexualaren gutxitze bat dago eta libidorearen garapen berririk ez da gertatzen. 6tik 13 urtetara bitartean bulkada sexuala jaistearen ideia egia izan zitekeen kultura Victoriano batetan, baina ez da beste kulturetan ikusten dena.

Pubertaroaren iratzarraldiarein, bulkada sexualak eta sentimendu edipiarrek berpizten dira, etapa *genitalari* hasiera emanez. Aro genitala deitzen da, subjektuak gaitasun ugaltzailea baduelako. Helduaren bizitzarako iraganbide definitiboa markatzen duen etapa hau, garrantzi handikoa da maila pertsonalean eta sozialean, kultur gehienetan gertatzen diren «iniziazio errituek» erakusten diguten bezala.

Garapenaren genitalaurreko etapetan ongi erabaki ez ziren dependenzi sentimenduak eta edipiar konplexuak, orain berpizten dira eta nerabegaroko nahasketa eta arazoak neurri batean esplikatzen dituzte.

Aro honetan, genitaletan konzentratzen da kitzikapena, baina helburua ez da iadanik norberaren atsegina eta autoerotismoa (aro falikoan bezala), baizik elkarketa sexualaren atsegina. Erikson-en arabera, etapa honetan garatzen da norbere identitate propioaren zentzuna, eta irudi propioa eta rol sozialak zedarritzen dira.

Azken bi etapa hauek garrantzi sekundarioa dute Freud-entzat. Bizitzaren lehen bost urteak biltzen dituzten lehen hiru etapetan gertatzen da kritikoa pertsonaren garapena, eta ondorengo bizitzako eboluzioa hor determinatzen da. Instintuen garapenean, *finkamendu* deituriko geldialdi asko gertatzen dira. Gehiegiaz edo gutxiegi, haurrak etapa batean bulkadari dagokion gratifikazio egokirik jasotzen ez duelako gertatzen dira finkamenduak; hori dela ta, subjektuak ez du aipatu etapa gainditzen, edo pozik aurkitzen da han, hurrengora aurreratu gabe. Finkamendu bat gertatzen bada, subjektuak, aurreko etapa batetan lortu zuen gratifikazio mota bera eskuratzera joko du beti. Adibidez, aho aroan finkatzen bada, aho eskualdeko asebetetzeak bilatzen jarrai dezake pertsonak, janarietan, edarrietan, tabakoan etab.

Finkamenduarekin oso erlazionatua dagoen beste fenomeno bat, *Erregresioarena* da. Aurretiko asebetetze moduetara edo finkamendu puntuetara itzultzen saiatzen da pertsona. Etapa desberdinetan zehar nortasunaren garapen normala eragotz dezakeen beste mekanismo bat da, beraz, erregresioaren hau. Subjektuak, tentsio baldintzen menpe dagoenean, orokorki, aurretiko asebetetze moduetara itzuli nahi izaten du, haietan gratifikatzaileagoa eta maneigarriagoa zitzaielako situazioa. Tentsio baldintzetan gertatzen da sarritan erregresioa; frustrazio eta larritasun garaietan, pertsonak gehiegi jan, edan edo erreko dute. Honela, adibidez, erlazioa ikusi izan da frustrazioaren eta erretzeari utzi ezinaren artean (McArthur, Waldron eta Dickinson, 1958).

Garapen etaparen, finkamenduaren eta erregresioaren kontzeptuek garrantzi eskerga dute karakterearen formazioaren teoria psikoanalitikoan. Garapenaren lehen etapa bakoitzeko, dagokion karaktere tipo bat dago, eta tipo hori fase horrekiko finkamendu partzialen emaitza da.

Honela, karaktere oralaren bereizgarriak, aho aroaren garapenean geratutako prozesuekin erlazionaturik daude. Karaktere oral nazisista da, bere buruaz bakarrik interesatzen delako, eta besteak ez dituelako garbi errekonozitzen entitate desberdin bezala. Norberari eman diezaioketenaren arabera dira hautemanak beste pertsonak. Amaren bularretik oraindik bereizi gabea izaki, txupatzeko kualitate iraunkorrak bereizten du; onez edo txarrez, beti zerbaiten bila dabil; besteen izainak bezala dira.

Beste pertsonetik elkartrukean agertzen da baita ere karaktere «bereko» hau: itxuraz eskuzabala dirudienean ere, eskuzabaltasun hori ez da benetakoa: ez dago hartzailearen beharrean oinarritua, emailearen kapritxoan baizik. Eskuzabaltasun fortzatua da, bestea derrigortzen duena. Bestea derrigortua geldituko da zerbait ematera. Lan munduan, pertsona orlak segurantza bilatzen du, rol pasiboak eta dependentziazkoak hobetsiz. Frustrazioaren eta desoseguaren aurrean, etorkizunari aurre egiteko, energia eta erreserbak almazenatuz erantzungo du.

Karaktere oralari elkartu zaizkion nortasunaren bereizgarrien artean, janariarekiko zaletasuna, isolamendu soziala, onarpen beharra azpimarratu behar dira; gainera, karaktere oral, inpazientea, exigentea, bekaiztia, gutiziatsua, jeloskorra, haserre eta depresiorako joera duena, eta, orokorrean, ezezkorra da

Uzki aroko finkamendu partzialek edo ez hain partzialek, *karaktere anala* garatzen dute. Bulkada analaren gratifikazioak transformazio indartsu bat jasaten du, gizarteak derrigorturik. Bulkada oralen asebetetzeak ez zuen hainbesteko eraldaketaren premiarik. Era batera edo bestera, hondakinen pilaketa eta kanporatzeak, eta premia sentitzen duenean berehala kanporatu ezinak sortzen duen gatazkak determinatuko du karaktere anala. Maila sinbolikoan, hondakinek boterea edo/eta dirua errepresentatuko lukete/lituzkete. Karaktere oralaren eta analaren arteko aldea, «emaidazu» eta «agintzen dizudana egizu»-ren artean dagoena da. Edo, «eman behar dizut» eta «obeditu behar dizut»-en artean dagoena.

Karaktere anak, «berezitasun analen hirukotea» agertuko du: ordena eta garbitasuna, ekonomia eta zekentasuna, eta egoskortasuna. Lehen berezitasunak, dena ordenuan eta garbi edukitzeko joerari egiten dio erreferentzi. Zikina eta desordenatua denarekiko interesaren formazio erreaktiboa da. Bigarrena, dirua pilatzeko interes anal-konpultsiboarekin erlazionaturik dago, eta hondakinak pilatzeko haurraren desirarekin lotua dago. Hirugarrena, egoskortasuna, hondakinak uzteko haurraren ukazioarekin (batez ere norbaitek agintzen dionean) erlazionaturik legoke.

Karaktere anala anibalentziz eta kontraesanez beterik dago. Ordenatua da, baina desordenu aztarnak ere baditu. Honela, despatxuko mahaia

gutziz garbi edukiko du eta kajoiaren bat erabat narrats. Menpeko eta esaneakoak dira orokorrean, baina jazarpen eta mendeku eztrandak ere edukitzen dituzte. Atzerapenak oso gogoko dituzte, horrela tentsio situazioak sortzen baitituzte.

Orokorrean, uzki karakterearen nagusigoa dutenak, beren bulkaden kontrolean zurrinak eta hertsia izan ohi dira, kontserbakortasunerako joerarekin. Pertsonarteko harremanak, «nork nor kontrolatzen du» plataformaren gain ezartzen dira; orokorrean, besteen gain nagusitasuna ezartzen du. Bereizgarri guztien artean, kantitate handiak pilatzea izan daiteke definitzaileena; zentzun honetan, nahiago du seguruan inbertitzea, atsegin iraunkorretan gastatzea baino.

Karaktere falikoa, Ediporen Konplexuaren aroan finkamendu partzialen bat gertatu delako sortzen da. Zikiratua izan denaren aztarna guztiak ukatzea da nortasun falikoaren ezaugarri nagusia. Besteen aurrean auto-baieztatzea da beretzat handia izatearen sinonimoa. Arrakasta edukitzen saiatzen da pertsona falikoa, baina arrakasta edukitzeaz errudun senti daiteke, Ediporen garaiko gatazkengatik, horrek «aita garaitzea» inplikatzeko baitu. Nortasun falikodunak arrakasta eduki lezake bere lanean, konkista sexual asko entseia ditzake; edo bere lanean eta bizitza sexuarean porrota izan dezake, aitaren kontrako borrokatik sorturiko erruduntasun sentipena dela ta. Jokaerok oposatuak diruditen arren, kasu bietan bere dinamikak problema edo gatazka bera agertzen du. Jokaera biak dira haurtzaroko finkamendu baten islada, bulkadatsuegiak, zurruneziak direlako eta errealitateari arrotz zaizkiolako. Karaktere orala, anala eta falikoa ez dira gai frustrazio tipo batzuk gainditzeko, eta garapenaren lehen etapei dagozkien atsegin lortzeko moduei atxikitzen zaizkie.

Teoria psikoanalitikoak lehen haurtzaroko gertaerek nortasunaren georagoko garapenean duten garrantzia azpimarratu izan du; animaliekin egindako esperimentuetan eta haurren hazkuntz estiloer buruzko behaketa antropologikoetan frogan jarri izan da hori. Horrela, Whiting eta Child-ek (1953), hirurogeita hamabost gizarteetako hazkuntz eta hezkuntz azturak aztertu zituzten. Lan hipotesi honetatik abiatu ziren: erlazio bat badagoela gizarteratzeak sorturiko larritasunaren eta gaixotasunen etiologia eta tratamenduari buruzko sineste kulturalen artean.

Gizarteratzeak sortarazitako larritasuna, zigorren zorrotasun eta sarritasunak sortua, garapenaren finkamendu faktore bezala kontsideratua izan da, eta, beraz, gaixotasunaren azalpen etiologiko desberdinen sortzaile bezala. Honela, adibidez, gaixotasunaren zergatien azalpenak, maila oralean, analean edo falikoan aurkituko lirateke. Azalpen oralek, irensteari (janaria, edaria, pozoina) eta besteengandiko konjuro edo hitzezko madarizazioei egingo liekete aipamena; azalpen analek, gorozkiei, errituei edo ekintza magikoei egingo liekete aipamena, haiengan jarriz gaixotasunaren zergatia; azalpen sexuarek, jokaera sexualari, isurketei edo hilekoaren odolari egingo liekete aipamena. Ikerketa honetako autoreek erlazio ga-

raia aurkitu zuten gizarteratzeak sortarazitako larritasun oralaren eta gaixotasunaren azalpen oralen artean, eta baita ere, gizarteratzetik eratorritako asebetetze oralen eta praktika terapeutiko oralen artean. Antzeko erlazioa aurkitu zuten, gizarteratzetik sortutako larritasun analaren eta gaixotasunaren azalpen analen artean, eta asebetetze analen eta gaixotasunak formula eta erritu magikoen bidez tratatzearen artean. Arlo desberdinetako hipotesiak egiaztatu zituzten datuek. Azterketak hipotesi hau ere egiaztatu zuen: garapenaren etapa jakin bateko jokaera berezien frustrazioak, jokaera horiekiko interesaren finkamendu bat sortzen duela.

Kultura bereko gizabanakoekin egindako ikerketak ere badira. Hauen tan ikusienez, ditikentze goiztiarra ezkortasun oralari loturik doa; ditikentze berantiarra, baikortasun oralari loturik. Baikortasun oralak: baikortasuna, pasibitatea, bakardadea, autismoa eta eraso oralak. Baikortasun oralak: baikortasuna, kanporakoitasuna, jokaera maternala, gizartekoitasuna, goranahia (anbizioa).

8.1.2.4. PSIKOPATOLOGIA ETA TERAPIA

Psikopatologiaren garapenaren giltza, instintuak asebetetzeko eta mina ekiditeko gizabanakoak duen moduan aurkitu behar da. Honek, noski, patologikoak ez diren jokaerentzat ere balio du.

Funtzionamendu normalaren eta patologikoaren arteko bereizketa ezartzerakoan, hiru faktore hartu behar dira kontutan: asebate behar diren instintuen izaera, instintuekin tratatzeko garaian egon daitezkeen babes maniobrak, eta errealtatearen distortsio maila.

Jokaera psikopatologikoetan, garapenaren hasierako etaparen batetan finkaturik gelditu diren instintuak asebetetzen saiatzen da pazienteak. Instintu bizitza, haurtzaroko estadio batean finkaturik gelditu da eta gizakiak haurtzaroko bide tipikoetatik asebate nahi izaten ditu bere bulkada sexual eta erasokorrak.

Asebetetzea, gizarteko mugek bitartekotua egon liteke, edo, perbertsioen kasuan bezala, zuzenki ager liteke, aldaketa garrantzitsurik gabe. Neurosian, larritasuna eta bulkadak kontrolatzeko defentsa mekanismoak dira osagairik nagusienak; psikosian, berriz, errealtatearen distortsioa eta errealtateetik urruntzea dira garrantzitsuenak. Kasu guztietan, instintuen asebetetzea eta derrigortze sozialak gatazkan jartzen direnean garatzen da psikopatologia.

Teoria psikoanalitikoaren arabera, nahasketa psikopatologiko nagusiak sor ditzaketen finkamenduak, bizitzako lehen bost urteetako etapetan gertatzen dira. Psikopatologia psikoanalitikoaren gune nagusia, «Ediporen konplexuaren» ebazpenari edo ez-ebazpenari zor zaio. *Teoria sexualari buruzko hiru entseguak* (1905) liburuan, «perbertso polimorfoa» zela haurra esaten duen Freud-ek, oraindik diferentziatu gabea egotean, gorputzaren zati guztiek serbi zezaketelako atsegina lortzeko. Perbertsioetan, se-

xualitate normala haurtzaroko sexualitatearen osagaiek ordezkatzeko. Freud-en arabera, perbertsoen helmuga sexualak eta haurrenak berdinak dira. Zikiramendu bildurratik, perbertsoak haurtzaroko eran asebetetzen ditu bere instintuak. Mutil transbestia emakumeak bezala jazten saiatzen da, emakumeak zakil bat baduela fantaseatzeko. Horrela, ukatu egiten du emakumeari zakila falta zaiola eta bere zikiramendu bildurra gutxitu egiten du. Haurtzaroko lehen etapetako bideetatik lortzen du asebetetzea.

Perbertsioetan instintuak asebetetzen diren bitartean, psikoneurosetan beren deskarga blokeatu egiten da. Psikoneurosiak, Zeraren instintuen deskargaren eta Niak dagien deskarga horren galerazpenaren arteko gatazketan oinarritzen dira. Zeraren eta Niaren arteko gatazkaren emaitza da neurosia, estrukturalki hitzeginda. Prozesu terminoetan hitzeginda, deskargatu nahi duen instintuak larritasun edo erruduntasun sentimenduak askatzen ditu, eta horiek babes mekanismoak mugimenduan jartzen dituzte. Zeraren eta Niaren arteko gatazkak, instintuaren eta defentsaren artekoak, sintomaren garapenera eramaten du kasu askotan. Sintomak (tikak, paralisi psikologikoa, konpulsioa), instintuaren eta defentsaren arteko konpromezua erreprezentatzen du. Bulkada erreprimitu baten adierazpen moztortua da sintoma. Energia terminotan hitzeginda, instintuaren energia, zati batean babes prozesuak xurgatzen du, eta beste zati batean, sintomak adierazten du modu sinbolikoan.

Frustrazio eta traumak ere garapenaren aurretiko etapetarako itzulpenak sorraraz ditzakete. Neurosiaren eta psikosiaren forma psikopatologikoak, itzultzen deneko etapatik dependitzen du. Psikosian, aho arorako atzera itzultzeak egiten dira, edo, eskizofrenia paranoidearen kasuan, uzki aroaren fase goiztiar batetara. Garapenaren lehen etapa hauei dagozkien babes mekanismoak proiektzioa eta ukazioa dira, errealtatearen distorsio nabarmena suposatzen dutenak.

Teoria psikoanalitikoaren arabera, jazarpen eldarnioek, paranoikoen gan sarritan gertatzen direnek, ongi erreprimitu ez diren joera homosexualetan dute jatorria. Lehenik, pertsonak beste mutilarekiko amodioa ukatu eta aitziko sentimendua (gorrotoa) adierazten du. Gero, besteengana proiektatzen du etsaitasun hori, eta jazarria sentitzen hasten da. Paranoia kasu gehienetan, gatazka homosexual inkonzienteak daude Freud-en iritziz. Labur esanda, beraz, aho aroan finkatzeak edo aro horretara itzultzeak, sintoma paranoideak sorrarazten ditu, gatazka homosexual inkonzienteen ondoren bezala.

Sintoma obsesibo konpulsiboak, uzki arora atzera itzultzearen ondoren bezala gertatzen dira. Obsesionatua dagoena, gauza batzuk pentsatzera derrigortua dago; konpulsionatua dagoena, ekintza jakin batzuk egitera derrigortua dago. Eskuak konpulsiboki garbitzen dituen pertsona batek, adibidez, bere pentsamendu eta sentimendu «zikinak» modu magikoz garbitu nahi lituzte. Neurosi obsesibo-kompulsiboarekin zerikusia duten babes mekanismo analak, isolamendua eta egina desegitea dira. Obsesioen-

gan, pentsamenduak azpimarratzen dira: haien efektuak isola ditzake subjektuak. Konpultsioengan, egindakoa desegitea azpimarratzen da: larritasuna arintzen duten erritu magikoak.

Aro falikorako finkamendu eta atzeraitzulpenak sintoma histerikoe-kin erlazionatzen dira. Larritasunezko histerian, pertsonak sintoma fobikoak gara ditzake, hala nola, espazio itxiekiko bildurra (klaustrofobia), edo konbertsio sintomak eman daitezke. Teoria psikoanalitikoaren arabera, histerikoek askotan jotzen dute errepresioaren babes mekanismora, Ediporen konplexua inguratzen duen larritasuna ekiditeko. Errepresioak konzientziatik bartertzen dituen pentsamendu, ideia, oroitzapen, afektu eta desirak sintoma fobiko edo konbertsio sintomak bezala itzultzen dira. Errepresioa ugari erabili dutelako, eta garapenaren etapa falikoan finkatu direlako, interes eremu estua eduki ohi dute histerikoek, eta pentsamendu sortzailerako gaitasun gutxi; beren bereizgarriak, aldakortasun afektiboa, inpultsibitatea eta sexualitateari buruzko tolesgabetasun infantila dira.

Nahasketa behin diagnostikatu eta gero, aldaketa lortzen saiatuko da terapia, nortasunaren garapen normala bultzatuz.

Lehen garaietan, *hipnosi katartikoa* deituriko metodoa erabili zuen Freud-ek, hipnosiaren bidez, sintoma neurotikoen sortzaile ziren blokeaturiko emozioen deskarga eraginez. Metodo honen eragozpenik handiena hau zen: jende guztia ezin zitekela hipnotizatu; gainera, emaitzak sarritan iragankorrak ziren.

Horregatik, bigarren sistema bat erabili zuen, *esnagaraiko sugestioa*, erreprimaturiko esperientzia emozionalak kanporatu eta haiei aurre egiteko. Freud-ek bere eskua jartzen zuen pazientearen buru gainean eta ziurtatzen zion, nahi izanez gero bere emozio erreprimituak oroit zitzakeela.

Geroago, ametsen interpretazioan interes gehiago jartzen hasi zen eta *elkarketa askearen* metodoan zentratu zen. Hau bihurtu zen terapia psikoanalitikoaren oinarritzko teknika. Elkarketa askean, pazienteak analizatzaileari burura datorkion guztia esan behar dio, bere konzientzian agertzen zaion bezala, atzerapenik, murrizketarik eta zentsurarik gabe. Ametsak dira inkonzienterako «erret bidea». Elkarketa askearen metodoaren bidez, pazienteak eta analizatzailea irits litezke ametsen izkutuko edukineraino, haien agiriko edukinetik abiatuz; hau da, hel litezke ametsen edukin izkutua ezagutzera, desira inkonzienteen agerpena dela ikustera. Ametsak, sintomak bezala, desira mozorrotu eta partzialen asebetetze dira. Elkarketa askeari esker desagertzen da mozorroa. Kontrol konzientearen erlaxapenari esker, konzientziaratu egiten dira bulkada, desira eta fantasia inkonzienteak. Elkarketa askearen prozesua ez da askea, baizik jokaera guztiak bezala, gizakiaren barneko indarrek determinatua da.

Metodo hauen bidez, ametsen eta hitzen esanahi sakonera heldu nahi da, sintometan bezala desira mozorrotuak eta izkutuak agertzen baitira haietan. Teknika hauen bidez, bulkada eta fantasia inkonzienteak kon-

tziente bihurtzen dira, baina sarrera ez da zuzena, hitzezko edukinen interpretazio sinbolikoaren bidezkoa baizik.

Hasiera batetan Freud-ek pentsatu zuen, inkontzientearen ezagutza nahikoa zela aldaketa eta sendaketa sortzeko; gatazka bat konpontzeko nahikoa zela eduki inkontziente problematikoak konzienteki ezagutzearekin. Gero ikusi zuen, bazegoela oroitzapenen berreskurapena baino zerbait gehiago; aldaketa eta berreskurapena lortzeko, ordurarte erreprimaturiko emozioen prozesu katartiko bat produzitzea beharrezkoa zela. Sintomen zergatien ezagutzaren aspektu razionala ez da nahikoa gatazka konpontzeko; beharrezko da, lehenik hartaz jabetzea, jokaeraren kontrola Zerarengandik Niarengana transferitzeko, inkontzientean pilaturiko energia maila konzienteago eta helduagoetara berbanatuz. Honekin, gatazka gutxitzea eta prozesu defentsiboak askatzea lortuko litzateke.

Terapia analitikoak, psikoanaliarentzat, gizabanakoari bere garapen eta hazkuntza amaitzea eta borobiltzea baimentzen dion elaborazio eta berriintegrazio prozesu bat da; gatazkak eta larritasunak gelarazia izan baitzen garapen hori. Horretarako, lehenik, «izkutuko oroitzapenera» heldu behar du, energiaren irteera naturala itxi edo galerazten duen giltza baita; gero, azaldu gabeko sentimendu eta bulkadetan bizipen eta esperimentazio indartsuko prozesu katartikoa produzitu behar da, «bapateko ulerkutza» edo «insight» emozionalki esanguratsua baimentzen duena; eta ondoren, energia naturalki jaria dadila. Hemen, pazienteak maila kontzientean eta maila emozionalean ezagutzen ditu bere gatazkak, eta bere instintuak modu helduan eta orekatuan asebetetzen has daiteke.

Lehen inkontzienteak ziren emozio eta desirak menperatzea suposatzen du aldaketa terapeutikoak. Terapia analitikoak bigarren abadagune bat damaio gizabanakoari: lehen gaizki ebatzitako gatazkak berpizten ditu, orain modu egokian ebazteko. Energia berriro berbanatzen da, ez babeserako, baizik jarduera helduago eta gratifikatzaileagoetarako. Psikopatologiak gatazka eta defentsa mekanismoak suposatzen ditu; psikoanaliak, berriz, gatazkaren gutxitzea eta prozesu defentsiboen mugetatik askatzea.

Psikopatologiak, Inkontzienteak eta Zeraren tiraniak menderatutako gizabanakoa suposatzen du; psikoanaliak, inkontziente zenaren konzientzi hartze bat, eta lehen Zeraren edo Superniaren kontrolpean zegoena Niaren kontrolpera pasatzea.

Terapian, iraganean bere indarrak baino nagusiago izan ziren situazio emozionalen aurrez aurre jarri behar da pazienteak, baina oraingoan baldintza egokiagoetan. Horretarako bitartekoak, transferentzia erlazioa eta transferentzi neurosia sorraraztea izango dira. Transferentzian, analizatzailearenganako jarrera pertsonalak garatzen dira pazientearengan, haurtzaroan gurasoekiko izan zituen jarreretan oinarrituak. Bere elkarketa askeetan, karaktere orala kezkatua ager liteke, analizatzailea elikatzen ari ote den, eta hark nahikoa itzultzen ote dion. Karaktere anala kezka dezake

nork kontrolatzen dituen saioak jakiteak. Karaktere falikoaren kezka saioetan nork irabaziko ote duen jakitea izan liteke.

Psikoanalisiak jokaera aldaketarako indar dinamiko bezala erabiliko du transferentzia. Situazio analitikoaren aspektu formal asko transferentziaren garapena errazteko egituratuak daude. Pazientea dibanean etzanda egoteak, dependentzia egoeraren garapena errazten du. Entrebisten sarritasunak (bost edo sei, astebetean), pazientearen eguneroko bizitzarako harreman analitikoak duen garrantzi emozionala indartzen du. Azkenik, pertsonalki hain gutxi ezagutzen duen batekin hain lotura estua edukitzera heldzeak, pazientearen erantzunak bere gatazka neurotikoek determinatuak direla adierazten du. Pazienteak bere desira eta larritasunak jaurtikiko dituen espilu edo pantaila bat da analizatzailea. Analizatzaileak bere burua ahal duen gutxiena agertzen du, pazienteak agerturiko jarrerak barnetiko erantzun bezala hartuak izan daitezen, situazio objektibo batek probokatuak baino areago.

Transferentzia errazteak, transferentzi neurosia ekoizten du. Neurosi horretan, pazienteak modu irekian bizitzen ditu bere gatazka zaharrak. Jomuga ez da ongi jartzea, haurtzaroan falta izan zitzaiona analizatzailearengandik lortzea baizik. Analisiaren testuinguruan jarrera horiek agertzen direlarik, pazienteak eta analizatzaileak behatu eta ezagu ditzakete haurtzaroko jatorrizko gatazkatik datozen osagai instintiboak eta defentsak. Situazioan karga emozional eta afektibo indartsua jarriko du pazienteak, eta horrek ulerkuntza edo «insight»-a emozionalki esanguratsua izatea ekarriko du. «Insight»-a gertatzen denean, pazienteak gatazkaren izaera, bai maila intelektualean eta bai maila emozionalean errekonozitzen duenean, bere buruaren nahiz munduaren hautemate berri bat burutzen duenean, bere instintuak modu helduago batetan asebetetzeko aske sentitzean, orduan gertatuko da aldaketa.

Iraganean, erruduntasunak eta larritasunak eragotzi zuten hazkuntza; situazio analitikoan, gatazka zaharrei berriro aurre egiteko abadagunea du. Zergatik da orain desberdina erantzuna?:

1. Analisisan, gatazka ez da jatorrizko situazioan bezain intentsoa.
2. Pazientearen gurasoek hartu zuten jarreratik oso desberdina da terapeutak hartzen duena.
3. Pazientea pertsona handia eta heldua izatean, Niaren zatiak erabiltzeko gai da, lehen bere eskura ez zeuden funtzionamenduaren aspektuak tratatzeko.

8.1.2.5. HURBILEKO IKUSPEGIAK ETA GARAPEN BERRIAK

Teoria psikoanalitikoak, hasieratik, ikerketa klinikoan oinarritu da. Anna Freud eta Melanie Klein hasi ziren haurren tratamenduan kontzeptu psikoanalitikoak erabiltzen.

Teoria psikoanalitikoaren barruan, Niaren funtzionamenduari gero ta garrantzi gehiago eman zaio. Defentsazkoak ez diren eta gatazkatik aske dauden Niaren aspektuak azpimarratu dituzte Hartmann, Kris, Lowenstein, Rapaport eta Schafer-ek. Moldatzaileak diren Niaren funtzionamenduren alderdiak azpimarratu nahi izan dira: sorketa artistikoak esate baterako, sintoma neurotikoen aurrez-aurre.

Niaren psikologia psikoanalitikoan, perzepzioa eta pentsamendua gai dira instintuetatik independenteki funtzionatzeko. Kognizioaren eta ezagutz kontrolen psikologiarekin lotzen da psikanalisia bide honetatik. *Ezagutz kontrolak*: barne bulkaden eta errealtatearen eskaeren artean oreka bat lortzeko ahaleginean, gizabanakoek hautemateko modu berezi batzuk lantzen dituzte. Honela, adibidez, gizabanako batzuek zertzeladei, diferentzia txikiei, aldaketei garrantzi handia ematen diete. Beste batzuek, aldiz, sinpletasuna, uniformitatea, homogeneitatea eta diferentzien berdintzearen bidezko egonkortasuna bilatzen dute. Lehenak, *zorroztaileak* dira; bigarrenak, *nibelatzaileak*. Ezagutz kontrolaren mekanismoak, zorrozketanibelaketa (Klein, 1951) deituak izan daitezke. Eraikuntz honek badu Witkin-en analitiko-global eraikuntzarekin erlaziorik.

Ezagutz kontrolaren beste mekanismo bat, *kontrol zurruna-kontrol malguarena* da. Elkar interferitzen duten eta kontraesanezkoak diren seinaleen aurrean erreakzionatzeko moduak adierazten dituzte. Adibidez, koloreen izenen zerrenda irakurtzeko eskatzen diegu subjektuei, baina inkongruentziak jarritz. Honela, subjektuak «gorria» hitza tinta «urdinean» idatzita ikusten badu, «urdina» irakurri behar du, hitzaren esanahia alde batera utzita. Kontrol malguko subjektuek eragozpenik ez dute hitzaren esanahi alde batera uzteko, baina kontrol zurrunezkoak zailtasun handiak dituzte.

8.1.2.6. AZKEN ONDORIOAK

Psikoanaliaren eraginak, jokaeraren determinazioan inkonziienteak eta barneko indar dinamikoek duten garrantziari dagokionak, batez ere, teoria bera gaingitu du. Baina, beste kontzeptu batzuk ez dira hain onartuak izan, hala nola, instintu sexualen eginkizuna. Gai horren inguruan, Adler eta Jung izan ziren mugimendu psikoanalitikoko lehenengoetako disidenteak. Adler-entzat, Niarekiko harremanean garrantzitsuagoak ziren interesak eta gizarte testuingurua; bide horretatik, garatu zuen bere «psikologia indibiduala». Bere aldetik, Jung, gizabanako barneko indar kontrajarrien (barnerakoitasuna-kanporakoitasuna etab.) garrantzi eta barietatean zentratu zen. Egun, neofreudiarrek, hasierako ortodoxiatik urrunduta, indar biologikoetaz baino gehiago arduratzen dira indar sozialez. Azkenik, teoria psikoanalitikoaren eta psikologia kognitiboaren hurbilketa progresiboa seinalatu behar da. Pertsonen ezagutz estiloaren funtzionamenduan gertatzen diren desberdintasunak (zurruna-malgua) agerian jarri dituzte ikerke-

ta askok, eta baita estilo horiek premia psikofisiologikoez nola arartekotzen dituzten ere.

Laburtuz, kontzeptu psikoanalitiko guztietatik, disidentziak eta eskola heterodoxoak gorabehera, bi kontzeptuk iraun dute: inkonziencia eta haurtzaro goiztiarreko gertakariak bizitzan duten garrantzia. Ikerketa eta diagnostiko klinikoko teknika berri bezala, «elkarketa askea» eta «ametsen interpretazioa» azpimarratu behar dira. Baina, guztiaren gainetik, psikoanalisiaren ekarpenik nagusiena, behaketarako sentikortasun eta intuitzio kliniko bereziak dira, giza psikismoaren gai garrantzitsuenak ikertzeko gai direnak, eta hipotesi egiaztagarrien iturburu izan daitezkeenak; beste ikuspegi bat duen psikologo batentzat hau da problema: interpretazioan ez dela adostasuna beti ematen, batzuetan interpretazio arbitrarioa dirudiela; zalantzarik ez dago ordea, gai klinikoetan behatzeko eta intuitzeko duen gaitasunagatik, psikoanalisiak oso eragin handia izan duela gertaera askoren ikerketa eta aurkikuntzan.

Baina, kortesiak ausardiari behaztoporik egin behar ez dionez, sar gaitzezen orain psikoanalisiari seinalatu zaizkion kritika eta mugetan. Eragin-kortasun terapeutikoari (Eysenck & Rachman, 1965) buruzko arazoak aldebatera utzita, bi kritika egin dakizkioke nortasunaren teoria orokorrari:

1. Gizakiaren eredua
2. Ezaugarri zientifikoa

Lehenari dagokionez, proposaturiko «eredu energetikoak» ez dirudi esplikatzen duenik giza jokaeren zatirik handiena; gainera, bigarren puntuari dagokionez, erabilitako eraikuntza eta kontzeptu asko, operazionalizazio zailekoak dira, eta, beraz, ezagutza zientifikoari noraezekoak zaizkion hipotesi kontrastagarrietara ezin daitezke bil. Giza jokaera guztiak energiaren elkarganbio eta eraldakuntza bezala ulertuak izan daitezke; horrela, organismoaren jomuga, homeostasia, oreka eta tentsio gutxitzea izango da. Atseginaren printzipioak dio, tentsio gutxitzearen forman bilatzen duela organismoak atsegina. Baina, froga experimental asko daude, organismoak ez duela beti tentsio gutxitzea bilatzen diotenak, baizik estimulazioa bilatzen duela. Sentimen gabetzearen azterketek diotenez, organismoa ez da gai luzaroko geldialdi (atsedenaldi) egoera mantentzeko, estimulaziorik gabe eta kanpoko mundutiko sentimenezko isuririk gabe. Animaliek, garunaren zati batzuen estimulaketan atsegina aurkitzen dutela dirudi eta ingurugiro berriak ikertu ahal izateko lan egingo dute. Jokaera asko ta asko daude, bulkada biologikoaren eta tentsio gutxitzearen ereduarekin bat ez datozenak; honela, jokaera ludikoez, esploraziokoez, jakinminnezkoak, sormenezkoak etab., «sentimen gabetzearen» lan experimentalekin batera, organismoa ez dela gai atsedenaldira egoera luze bat mantentzeko seinalatzeko dute. Adibidez, katuen jakinmina eta haurren jolasak, ez dira bulkada biologikoez erlazionaturik ageri: ez dute organismoa asebetetzen, eta tentsioa ez dute gutxitzen.

Bestalde, konzepzio energetiko hau nahiko redukzionista da, eta, bere bertsiorik ortodoxoenean, instintu sexualak eta agresiboak, jokaeraren benetako motoreak bezala kontsideratzen ditu. Gizon batek emakume batekiko duen maitasuna, bere jomugan inhibituriko instintu bezala kontsideratzen du Freud-ek, amarekiko inzestozko desiraren errepikapen bezala. Ikuskera honek ez du behar besteko arretarik jartzen, haur baten eta heldu baten maitasunen arteko diferentzietan. Antzekotasunak exajeratzen dira eta diferentzietan ez da arretarik jartzen. Gainera, autore humanistagoek argudiatu duten bezala, psikoanalisiak zergati biologikoak aurkitu nahi izan ditu, garatzen direneko testuinguru soziala kontutan eduki gabe, pazientea gaixo bezala etiketatuz, familia eta gizartea kontutan eduki gabe.

Bestaldetik, gertakarietatik independenteki, kontzeptu teoriko psikoanalitikoak, jokaera kopuru handi bat esplikatzen gai dira. Horretarako, anbiguo samarrak izan behar dute, eta horrek behatzaile arteko fidagarritasuna, neurketa objetiboa eta kontrastaketa enpirikoa kaltetzen ditu. Psikoanaliagatik esan izan da, dena esplikatzen gai dela, baina ezer ezin dezakeela aurrean. Egia esan, auresate gaitasuna da zientziaren garantia seilua, eta ez «ad hoc» azalpenak; hau kontutan hartzen ez den bitartean, teoria psikoanalitikoak ezin gezurta daiteke, ez eta egiazatu ere. Termino anbiguo, metafora eta analogia asko ditu. Terminoak ongi definiturik daudenean ere, jokaera neurgarri eta behagarritik urrunegi daude, enpirikoki erabiliak izateko. Zera, Nia edo Supernia bezalako kontzeptuek indar deskribatzaile handia dute, baina zaila da haiek jokaera behagarrietara itzultzea.

Teoria lausoa eta egiaztapen zailakoa da. Dena esplikatzen du, aurkako emaitzak ere bai. Jokaera jakin bat agertzen bada, instintuaren agerpena izango da; aurkakoa agertzen bada, defentsaren agerpena izango da; beste jokaera bat agertzen bada, instintu eta defentsaren arteko konpromesua izango da. Psikoanaliaren problema, jokaera konkretuen auresaterik ez egitean datza; auresate konkreturik ez egitean, teoria psikoanalitikoak ezin daiteke izan, ez egiaztatua, ez gezurtatua.

Laburtuz, esan dezagun, iradokorra izanik ere, bere garapen maila lehen maila prezientifikoetan kokatuko litzatekela; bere balio nagusia, maila induktiboan eta hipotesi nahiz eraikuntzen iradokipenean egonen litzateke; hipotesi horiek, gero kontrastatuak izan litezke, hurbilketa objektibagarriagoen esparruan, edo gutxienez, metodologia kontrastagarriago baten bidez.

Psikoanalistak ez dira geldi egon kritika hauen aurrean. Aipatu beharrekoa da, labur bada ere, psikoanaliaren estatus zientifikoak bermatzeko barnetik egindako ahalegin serioa, besteen artean Wallerstein-ek (1986 a,b) egina.

Autore honek, kritika ezezkor desberdinei eta beste autoreek emandako alderako argudioei errepaso bat eman ondoren, bere ekarpen propioa egiten du. Teoria psikoanalitikotik ihaltzeko arazo eta zailtasunei, zien-

tzia enpirikotik eratorritako postulatu epistemologikoak aplikatzen dizkie. Guztia, galdera batean laburbil liteke: Zein da psikoanalisiaren auresate gaitasuna? Arazo honek, ebazten zaila denak, urte askotan zehar nortasunaren teoria garrantzitsu honen aldeko eta kontrako izan direnak hurbil ditzake.

Kritikak, teoria beraren barnetik, edo beste esparru kontzeptualetatik etor litezke. Kanpotik begiratuta, behatzaile arteko adostasun irizpideak beteko dituzten behaketak lortzeak ematen ditu lanak. Ikuspuntu horretatik, psikoanalisiak ez du lortu gertaerak kontzeptualizatzeko modu bakar bat; horrela, gertaerek interpretazio desberdinak izan ditzakete, informazio biltzailearen eta elaboratzailearen ikuspegiaren arabera. Ikuspegi esperimentaletik, gertaerak kontzeptualizatzeko garaian adostasuna egotea, ezagutza zientifiko objektibagarria lortzeko baldintza «sine qua non» da.

Psikoanalisiaren barnetik ere sortu dira, alde batetik, «aurreranzko ihesaren» estrategiaren bidez kritikak gainditzen saiatu diren argudioak. Teoria hauen arabera, psikanalisia arte bat bezala kontsidera liteke; ez da berdin fenomeno naturalak aztertu edo fenomeno sozial edo psikologikoak aztertu. Psikoanalisia zientzia humanista bat izango litzateke, fisika edo kimika bezalako zientzia naturalek ez bezalako presupostuak, metodologia eta konzepzioak dituena. Jarrera «hermeneutikoa» deitu zaio honi, bere helburu nagusia esperientzia subjektiboaren edukiak ulertzea baita, esplikatzea baino areago.

Bestalde, beste psikoanalista talde batek, psikoanalisia zientzia natural bat gehiago bezala kontsideratzeko ahalegina egin du. Horretarako, alde batera utzi nahi du XIX. mendeko eredu mekanizista, energetiko eta estrukturala, metafora kaltegarri bat bezala gaitzetsiz, eta informazioaren teoria batez, eredu sistematiko eta zibernetiko batez ordezkatu nahi dute; hau da, informazioa prozesatzen duen eta egungo konputadoreen antzera funtzionatzen duen sistema bezala ulertu nahi dute giza psikismoa. Psikologiaren eredu berriekin ados etortzeko eraikitako «eredu zibernetiko» honek paradoxazkoa dirudi, paradigma razionalistegi eta metaforiko batetatik abiatzen baita, gizabanakoaren aspektu pultsionala eta irrazionala ulertzeko.

Psikoanalisian bi hurbilketen integrazio batera hel zitekeela pentsatu izan da: alde batetik subjektuaren ikuskera idiografikoa, eta bestetik, psikoanalisiaren formulazio unibertsialetik eratorritako ikuskerak (zientzia naturalen barruan, giza psikismoaren zientzia). Baina, ez dirudi proposamen hori aurrera irten denik.

Psikoanalisen barnetik nagusi izan dena, eta gaurregun ere nagusi izaten jarraitzen duena, jarrera hermeneutikoa da. Konzepzio fenomenologiko subjektiboetatik eta oinarri linguistikotik irteten den jarrera. Zentzun honetan, sintoma psikopatologikoaren azterketa, esanahi bat edukitzean eta gizaki konkretu batek eraikia izatean, gizabanakoaren ezagutza huma-

nista bihurtzen da, zergati eta efektu natural eta orokorren ezagutza fisiko-naturala baino gehiago. Ezingo litzaike, beraz, logika eta metodologi bera aplikatu, hain desberdinak diren bi ezagutz tipoei: naturalei eta gizatiarrei. Hau da Dilthey-ren «Psikologia ulerkorren» argudio nagusia, giza psikea ulertzera eta aditzera (ez esplikatzen edo auresatera) bakarrik hel gaitzkeela postulatu baitu; beraz, psikoanalisi ez litzateke disziplina zientifiko naturala bezala kontzeptu beharko, disziplina humanista bat bezala baizik, historia edo kritika literarioa diren bezala. Beste autore batzuek, berriz, psikoanalisi zientzia bat dela uste dute, baina egiaztapenerako bere arau eta irizpide propio, subjektibo eta partikularrekin.

Ikuspegi hermeneutikotik, ezagutza nola balioztatzen da zientifikoki? Sare teorikoa eta terapeutikoa eratzen duten elementu guztiei koherentzia emanez (bateratasun argudioa), adibidez, trataeraren eraginkortasuna egiaztatuz (nahasketak sendatzen baditu, esparru teorikoa zuzena dela eta arazoaren zergatiak egoki maneia ditzakeela suposatzen da). Ondorio mota honek ez ditu asebetetzen irizpide esperimenterako minimoak, balioztatze prozesuko zirkularitateak gezurtagaitzasuna, eta, beraz, egiaztagarritasunik eza bultzatzen baitu. Gainera, konkretio gutxi duen eta abstraktoa den hizkera, zaila baita erabiltzeko eta konkretatzeko.

Psikoanalista askorentzat, jarrera hermeneutikoa, arduraren zientifikoaren klandikazio bat da, hitzeko zuriztapen bat gehiago baitirudi, irizpide zientifikoak betetzen dituen errealtatea baino. Edozein modutara ere, argudio hermeneutikoen artean, aplikatu behar den metodologia zientifikoari dagokiona nabarmentzen da. Aztergaiarentzat, batez ere inkonzientearentzat, metodologia propio bat erreibindikatu da, metodologia zientifiko ezin baitaiteke «Prokrustes-en ohea» izan (Prokrustes, Atikako bandido bat zen, bidaiariak detenitu eta berekin zeraman burdinezko ohe batean etzaten zituen, eta luzatu edo mutilatu egiten zituen, ohearen neurietara egokitzeko), eta metodoak aldatu egiten dira zientzia batetik bestera, beren edukinaren arabera.

Aldatzen direnak metodo konkretuak dira, ez «ideologia zientifikoak»; honen arabera, ezagutza bat zientifiko izan dadin, egiaren irizpide bezala balidezia auresankorra eduki behar du. Hermeneutika ulertzailearen arriskua, dena esplikatzen heldu ahal izatearena da. Enpatia eta objektibitateak, giza zientzia batetan beharrezko izanik ere, ez dute berez ezagutzaren kalitate bera ekoizten.

Grunbaum-engandik datozen kritikek aparteko puntualizazioak merezi dituzte. Teoria psikoanalitikoaren oinarri logikoen kontra zentratzen da autore hau, zientifikoki egiaztagarriak diren oinarriko frogarik ezin izan duela finkatu esanez; enpirikoki frogatu daitezkeen datu fidagarriak ez duela biltzen esaten du, situazio psikoanalitikotik eratorritako diren datu guztien kutsadura epistemikoa nahitaezkoa baita. Bestalde, eraginkortasun terapeutikoaren argudioa oso eztabaidagarria da, irizpideei buruz ados jartzea zaila baita.

Grunbaum-entzat, ongi diseinaturiko azterketa extraklinikoak, azterketa alderatzaile prospektiboak, azterketa esperimental kontrolatuak eta azterketa epistemologikoak beharrezkoak dira gai ezagutzaren estatus zientifikoa bermatzeko.

Azkenik, psikoanaliaren estatus zientifikoa konfidantza berreskuratzeko entseguan, Wallerstein-ek erreserba gabe onartzen ditu argudio extrakliniko hauek, eta guztiz psikoanalitikoak diren datuetan sakontzen jarraitu beharra azpimarratzen du. Egia da, saio klinikoetan datuen kutsadura gertatzen dela, baina hau ez da «dena ala ezerezeko» arazoa, baizik kontrolatu behar den errore iturri bat, beste edozein bezala; eta gaia, psikoanaliak auresate gaitasuna edukitzean zentratu behar da; horretarako, Freud bera aipatzen du: «gatazken ebazpidea eta erresistentzien eza-bapena, errealitatearekin bat datozen errepresentazio auresaleak ematen dizkiegunean bakarrik lortzen dira»; psikoanaliak zentratu behar du, baita ere, plausibilitate berdina duten azalpen alternatiboen posibilitatea murrizten.

8.2. CARL GUSTAV JUNG (1875-1961)

8.2.1. Bizitza

Freud-ekin batera, Jung izango da psikologia dinamikoaren arloan aurtorerik garrantzitsuenetakoa. Freud-en ikuspegi mekanizistaren aurrez aurre, Jung-ek kontutan hartzen ditu aspektu filosofiko-mistiko-erlijiosoak, giza jokaera eta existentzia interpretatzerakoan.

Suizan jaio zen, Turgobia kantoiko Kesswil herrian, 1875eko uztailaren 28an, eta bertan bizi izan zen bere bizitza osoan. Eliza erreformatuko artzain baten semea zen. Aitarekin komunikatzeko arazoak zituen, erlijio gaietan batez ere. Bere ama errespetukoa eta ona zen, baina nahaste emozionalak izaten zituen. Nortasun bikoitza zuen: alde batetik maitakorra, baina, bestetik, zorrotza eta erreserbatua zen.

Haurtzaro bakartia izan zuen. Nortasun barnerakoia zuen. Bere bi anaiak Jung jaio baino lehen hil ziren, eta bederatzi urte zituela jaio zen bere arreba. Txikitan, bakarrik jolastu behar izaten zuen sarritan. Bakardadera ohitze horrek eragina izango zuen gero bere bizitza osoan.

Haurtzaroan, heriotzaren hurbiltasuna bizi izan zuen. Txikia zela, hila-bete luzeetan ospitalean egon behar izan zuen bere amak, izeba zahar batek eta neskame batek zaintzen zuten bitartean. Gaztetan, zorabioaldiak izaten zituen eta sei hilabete baino gehiagoz eskolara joan gabe egon zen. Bere gaixotasunak, eskolarekiko askatasuna ematen zion, eta horrela eskolakoak ez ziren arloak ikertzen saia zitekeen.

Hasieran arkeologo izan nahi zuen, baina diru arazoengatik, Basileako Unibertsitatera bakarrik joan zitekeen eta han ez zen arkeologiarik irakas-

ten. Horregatik, medikuntza ikastea erabaki zuen. 1895etik 1900 urtera egin zituen medikuntza ikasketak. Kirurgian espezializatu nahiean zebilen, Krafft-Ebing-en testuliburu batekin topo egin zuenean. Neurologo aleman horrek, psikiatrian subjektibitateari ematen zion garrantziak Jung-en interesa piztu zuen: arlo horretan aurkitu ahal izango zituen ametsen, misterioen eta gertakari izkutuen klabeak.

Burghölzli izeneko Zurich-eko ospitale psikiatriko batetan hasi zen lanean, Bleuer-en zuzendaritzapean. Geroagoa, Zurich-eko Unibertsitateko konferentziantze bihurtu zen. Kontsultategi pribatu bat ireki zuen eta erreakzio emozionalak aztertzeke hitzen elkarketako frogak bat asmatu zuen.

1903an, Emma Rauschenbach bere lankidearekin ezkondu zen. 1906an ezagutu zituen Freud-en lanak. Burghölzli-ko taldearen apoioa oso garrantzitsua izan zen Freud-en teoriak ezagutarazteko.

1907an ezagutu zuen Freud lehenengo aldiz, harekin eskutitzen bidez harreman labur bat edukita gero. Bienan elkartu ziren biak. Denboraldi batez, Freud-ek bere oinordeko bezala kontsideratu zuen Jung, eta honekiko haren sentipenak, aita batek bere semearekiko dituenaren antzekoak ziren.

1909an, psikoterapia psikoanalitikoak praktikatzen zuen Jung-ek, bezero pribatuekin. Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak eratu zenean, 1911. urtean, Jung izan zen haren lehendabiziko lehendakaria, Freud-en babesarekin.

1912. urtean, *Libidoaren transformazioak eta sinboloak* argitaratu zuen. Hor agertzen ziren iadanik, Freud-en teoriakiko lehen desadostasunak, batez ere libidoaren teoriari buruzkoak.

Behin baino gehiagotan, Jung Freud-ekin desados zegoenean, azken hau asko molestatzten zen, zorabiatzeraino ere helduz. 1913an Freud eta haren eskolarekiko harremanak eten egin zituen Jung-ek, bere metodoa «psikologia analitikoak» deituz. Bereizkuntza hau, galera handitzat hartu zuen Freud-ek, eta Jung berari ere problemak sortu zizkion, desorientazioaldi batetan murgildu baitzuen. Ezin zuen irakurri, ez ta idatzi ere; horrek bere autoanalisiara bideratu zuen. Freud-ekiko harremanak eteteke arrazoi bat baino gehiago zegoen; desadostasun puntu nagusia, sexualitateari Freud-ek ematen zion garrantzia Jung-ek ez onartzetik zetorren. Freud-entzat goi prozesu intelektualak eta esperientzia emozional esanguratsuak sexualitatearen ordezkariak ziren bitartean, Jung-entzat, sexualitatea bera ere sinboliko bezala kontsideratu behar da. Sexualitateak eta hura erreprezentatzen duen sormenak badute kualitate misterioitsu bat, eta ezin daitezke erabat analizatu edo deskribatu.

1920. urtean, *Tipo psikologikoak* argitaratu zuen, inkontziente kolektiboaren nozioa sakonduz. 1920tik 1926ra bitartean, Afrika Ifarraldeko, Kenyako eta Arizonako lurraldeetara bidaiak egin zituen.

1930etik 39ra bitartean, bere idazlanak jazarriak izan ziren Alemaniari, baina lortu zuen Alemaniako Psikoterapiako Sendagile Elkartearen

lehendakari izendatua izatea. Horregatik, nazismoarekin sinpatizatu izatea egozten zaio.

1939. urtean, Freud hil zen urtean, hain zuzen ere, *Psikologia eta erlijioa* argitaratu zuen.

Jung-ek, bere pentsamendu eskola propioa garatu zuen, psikologia analitiko bezala ezagutua izan zena. Asko idatzi zuen eta bere teoriak, erlijioetako, mitologietako eta alkimiako elementu ugari ere kontutan hartu zituzten. Gai guzti horiek beharrezkoak jotzen zituen inkonziienteko indar misterioitsuak ezagutzera heltzeko.

1944. urtean, *Psikologia eta alkimia* argitaratu zuen. Klinika utzi eta etnologiaz eta erlijioaz (batez ere Ekialde Urrunekoetz) interesatzen hasi zen. Jung-en idazlanen bigarren aroa izango zen hau.

1948. urtean, C.G. Jung Institutua sortu zuen Zurich-en. 1958. urtean, berriz, Psikologia Analitikoko Nazioarteko Elkarteak sortu zuen, metodo jungiarrak erabiltzen dutenen elkargune bezala.

1961. urteko ekainaren 6an hil zen Jung, 85 urte zituela, bizitza luze eta emankor baten ondoren.

8.2.2. Nortasunaren egitura

Gatazkan dauden hiru instantziren arabera deskribatzen zuen Freud-ek nortasuna, baina Jung-ek, azken armonia bat lortzeko borrokatzen diren sistema elkarreragileen sare konplexu bat bezala ulertzen du. Elkarreragiten duten sistema horiek, nia, inkonziente pertsonala (bere konplexuekin) eta inkonziente kolektiboa (bere arketipoekin) dira. Jung-ek, errealtateari buruzko bi jarrera primario eta lau funtzio oinarrizko ere deskribatu zituen; hauek, psikearen edo nortasun osoaren aspektu bereizi baina erlazionatuak dira.

Psikeak, prozesu psikologiko guztiak biltzen ditu: pentsamenduak, sentimenduak, sentipenak, desirak. Jung-entzat, prozesu kontziente eta inkonzienteak biltzen ditu psikeak.

Freud-entzat, erreprimutako materialeak biltzen ditu inkonzienteak; Jung-entzat, berriz, kontzientziaren iturburu bezala eta bizitz posibilitate berrien matrize bezala hartu behar da inkonzientea.

8.2.3. Energia psikikoa

Freud eta Jung-en arteko haustura, libidoari buruzko eztabaidarekin gertatu zen. Freud-entzat, libidoa edo bulkada sexuala da nortasunaren indar motibatzailea. Jung-ek ere «libido» hitza erabili zuen energia psikikoari dei egiteko. Baina, Jung-entzat, bizitz energia diferentziatu gabea adierazi nahi zuen. Jung-entzat, ugalketa instintutik abiatuz garatzen da

libidoa. Eboluzioaren buruan, helburu kulturaletara sublimatzen da. Sexualitateari edo beste premia batzuei egin diezaieke erreferentzia. Borondatea, afektua eta emozioa da. Bere burua sinbolikoki errepresentatzen du. Kontzientea eta inkontzientea da. Finkamenduak, atzera itzultzeak, proiektzioak, introiektzioak jasan ditzake; bideratua, erreprimitua, disoziatua edo antzaldatua izan daiteke. Baliokidetasun eta entropia printzipioen arabera jokatzeko energia psikikoak; oreka bat bilatzen du, eta autoerrealizazio prozesu batetan mugitzen du pertsona aurrerantz. Inkontziente kolektiboan ditu sustraiak. Libidoaren autoerreprentazio sinbolikoa, mitotetan, literaturan gertatzen da. Argiaren, suaren, indarraren sinboloek, mitologiaren eguzkiari edo eguzkiaren jainkoari egotziek, energia kosmikoki egiten diote erreferentzi, Jung-en iritziz.

Jung-ek arimaren ikuskera monistiko bat agertu zuen, bere libidoaren teoriarekin. Atzera itzultze, proiektzio eta disoziazio kontzeptuak erabiltzen zituen, baina haiek ez ziren atsegin eta desatseginaren arteko oposizioetik sortzen, Freud-entzat bezala. Atsegin-desatseginaren arteko oposizioak ez zuen hainbeste garrantzirik Jung-entzat. Libidoaren prozesu dinamikoak autoerregulatu egiten dira, inguru munduarekin komunikazio zuzenik gabe. Bere burua autoarautzen duen sistema itxi bat da. Autoarauketa printzipio honi deritzo *konpensazio* Jung-ek. Libidoaren dinamikako prozesuak, hala nola, atzera itzultzeak, inflazioak, proiektzioak edo introiektzioak, libidoaren transformazio eta sinboloak dira.

Jung-ek kritikatu egin zuen Freud-ek sexualitateari ematen zion garrantzia; beretzat, sexualitatea bera ere sinboliko bezala hartu behar da.

8.2.4. **Nia**

Freud-entzat nortasunaren exekutazailea zen. Hasieran pentsatzen zuen, nia nagusiki kontzientea zela; geroago pentsatzen zuen, niaren zati handi bat inkontzientea zela eta kontrol kontzienteari ihes egiten ziola.

Errepresentazioen konplexu bat, kontzientziaren eremuaren erdigune, jarraipen eta identitate handiak dituen bezala definitzen du Jung-ek Nia. Gizabanakoaren gogamen kontzientea da nia, kontzientzian sartu behar duten pertzepzio, pentsamendu, sentimendu eta oroitzapenak aukeratzen dituen psikearen zatia. Gure identitate eta jarraipen sentimenduen ardura da nia. Gure niaren bidez finkatzen dugu egonkortasun bat, geure burua hautemateko moduan. Nia ez da, halere, nortasunaren benetako zentrua, Jung-entzat.

8.2.5. **Tipo psikologikoak**

Jung-ek bi oinarritzko jarrera eta lau funtzio bereizi zituen.

8.2.5.1. JARRERAK

Kanporakoitasuna, objektuarekiko harreman positiboak bereizten du. Barnerakoitasuna, objektuarekiko harreman negatiboak bereiziko du.

Kanporakoitasunaren bidez, psikea kanporantz, mundu objektiborantz zuzendua dagoen jarrera bat adierazten da; kanporakoiak, objektuari begira pentsatzen, sentitzen eta ekiten du; bere interesa subjektuarengandik objektura zuzentzen du, kanporantz orientatzen da. Kanpo munduko pertsona eta gauzekin erosoago sentitzen da kanporakoiak. Barnerakoiarengan, mundu subjektiborantz orientatua dago psikea. Subjektua da bere orientazioaren abiapuntua, eta objektuak bigarren mailako balioa du. Kontzeptu eta ideien barne munduan erosoago sentitzen da. Jung-ek bere burua barnerakoitzat zeukan, eta Freud kanporakoitzat.

8.2.5.2. FUNTZIOAK

Psikearen lau oinarrizko funtzioak, *pentsatzea*, *sentitzea*, *hautematea* eta *intuitzea* dira. Ezagutzaren bidez munduaren ulerkuntzara eta mundura moldatzera eramaten du pentsatzeak. Sentimenduak, berriz, «atsegin-desatsegin» kontzeptuen arabera atzematen du mundua. Pentsamenduarentzat, «egiazkoa-gezurrezkoa» denaren ikuspegia da garrantzitsua mundua ezagutzeko; sentimenduarentzat, «atsegina-desatsegina» emozioen ikuspegitik atzematen da mundua.

Beste bi funtzioak, perzeptio eta intuizioa, funtzio irrazionalak dira; baloraziorik gabe edo zentzunik eman gabe hautematen dute. Sentipenak, diren bezala hautematen dituela gauzak pentsatzen zuen. Intuizioak, berriz, «barne perzeptioaren» bidez hautematen du. Tipo sensitiboak, zertzelada guztiakin jasoko dituzte gertakariak, baina erlazioak alde batera utziko ditu. Intuitiboak, aldiz, zertzeladetan arretarik ez du jarriko, baina gertaeren barne zentzuna berehala jasoko du.

Jung-en lau funtzioak bi bikote oposatutan taldekatzen dira. *Sentipen eta intuizioaren* funtzioek, datuak eta informazioa biltzeko moduari egiten diote erreferentzi. Sentipenean oinarritzen dena, erosoago sentitzen da, sentimenen bidez, gertakariekin eta errealtatearekin harremanean. Intuitzen duenak, iraganeko edo etorkizuneko gertakariei buruzko harremanak, esanahiak edo posibilitateak bilatzen ditu. *Pentsamendu eta sentimenduek*, ondorioetara heltzeko edo judizioak egiteko dugin modua adierazten dute. Pentsatzen duenak, nahiago du logika eta analisi inpersonala erabili. Sentitzen duenak, balio, jarrera eta sineste pertsonalekiko interes gehiago du.

Jung-en arabera, funtzioetako bat nagusitu egiten da gizabanako bakoitzean, eta bere oposatua menpekotu egiten da. Beste bi funtzioek, laguntzaile bezala jokatzen dute. Adibidez, irakasle batek oso landuak eduki ditzake bere gaitasun intelektualak eta ezagutzazkoak, eta bere nortasuna-

ren sentimendu alderdia murgilduta eduki. Hala ere, sentimendu horiek ager daitezke, egoera animiko, sintoma edo proiektzio bezala.

Jung-ek funtzio nagusia deitzen du, beti nagusitzen den funtzioa; men-debaldeko zibilizazioetan, pentsamendua da gehienetan; sentimendua eta intuizioa, behe mailako funtzioak bezala, bizitzako aspektu tragikoetara zuzenduak daude. Funtzio baten edo bestearen nagusigoa kaltegarria da gizabanakoarentzat, eta neurosia sor dezake.

Bi jarrerak eta lau funtzioak konbinatu egiten dira, zortzi tipo psikologiko eratzeko. Tipoa bi faktorek bereizten dute, Jung-entzat: funtzio baten nagusigoak, eta ondorenez, barne eta kanpoko motiboei gizabanakoak ematen dien erreakzioak. Erreakzio tipoa, barnerakoa edo kanporakoa izan daiteke.

8.2.5.3. TIPO KANPORAKOIAK

Lau dira tipo kanporakoiak:

Pentsamendua: arau finkoen arabera bizitzeko joera dute pertsona hauek. Sentimenduak erreprimitzen dituzte eta objektiboak izaten saiatzen dira, baina batzuetan dogmatikoak dira beren pentsamenduan.

Sentimendua: gizabanako hauek gizartekoiak dira, munduarekiko armonia bilatzen dute eta tradizio eta aginte zaleak dira. Dexente emozionalak izateko joera dute, pentsamendua erreprimetua dagoelako.

Sentipena: pertsona hauek atsegina bilatzen dute eta sentimenezko esperimentzia berriekin disfrutatzen dute. Errealitatera intentsitatez orientatuak daude eta intuizioa erreprimitzen dute.

Intuizioa: oso sortzaileak dira pertsona hauek eta ideia berriak erakarriak gertatzen zaizkie. Bihozkadetan oinarrituta hartzen dituzte erabakiak, gertakarietan oinarrituta baino gehiago; beren jakinduria inkontzientearekin harremanean daude. Sentipenak erreprimetua daude.

8.2.5.4. TIPO BARNERAKOIAK

Pentsamendua: pertsona hauek teorikoak, intelektualak eta batere praktikoak ez izateko joera dute. Sentimenduak erreprimitzen dituzte eta beste pertsonekin modu asebetean erlazionatzeko problemak eduki ditzakete.

Sentimendua: isilak, pentsakorrak eta hipersentikorrak izateko joera dute pertsona hauek. Pentsamendua erreprimetua dago eta pertsonak beste-ekiko misterioitsua eta hotza iduri dezake.

Sentipena: pasiboak, patxadatsuak eta artistikoak izateko joera dute. Sentimenezko gertakari objektiboen ikuspegitik ari dira, eta intuizioa erreprimitzen dute.

Intuizioa: barnerakoi intuitibo bezala deskribatu zuen Jung-ek bere burua. Pertsona hauek ameslari mistiko izateko joera dute, ohikoak ez di-

ren ideia berriak proposatzen dituzte, eta besteek nekez ulertzen dituzte. Sentipena erreprimetua dago.

Aipatu tipook, nekez agertzen dira beren forma puruan. Tipo bakoitzaren barnean, aldaketa gama zabal bat dago eta tipo espezifiko bateko pertsonak alda daitezke, beren inkontziente pertsonala edo kolektiboa aldatzen den neurrian. Ez dago besteak baino hobea den tiporik; bakoitzak ditu bere alde on eta txarrak.

8.2.6. Inkontziente pertsonala

Libidoa energia bereizi gabea eta autonomoa den bezalaxe, inkontziente kolektiboak arautzen du, modu autonomoan, psikea; psikeak gizadiaren esperientzia guztiak beregan ditu, prezipitatu bat bezala. Inkontzientean, inkontziente pertsonal dei daitekeen geruza bat bereizi behar da, Jung-en iritziz. Geruza honetako materialeak pertsonalak dira, gizabana-koaren existentzian eskuratuak.

Itsasotik irteten den uharte batekin alderatu zuen Jung-ek psikearen aspektu kontzientea. Uraren gainetik irteten den zatia bakarrik nabarmentzen da, nahiz eta azpian dagoena, inkontzientea, askoz ere handiagoa izan. Inkontziente pertsonala ez dago beti itsaspean murgildurik, beraz azaleratua izan daiteke. Inkontziente horretan daude, baztertuak izan diren, eta erraz berreskura daitezkeen perzeptzio, pentsamendu, sentimendu eta oroitzapenak. Erreprimetua edo ahaztua izan diren pertsonaren bizitzako esperientziak ere biltzen ditu inkontziente pertsonalak. Ahaztutako esperientzia horiek ere kontziente bihur litezke, nahiz eta batzuk kontzientziaritzea nekeza izan.

Inkontziente pertsonalean, *konplexu* deituetan taldekatzen dira esperientziak. Pentsamenduen, sentimenduen eta oroitzapenen talde antolatua bat da konplexua. Konplexuak botere konstelatzailerik bat du: ideia berriak atera eta dagokien bezala interpretatzeko gaitasuna du. Harekin erlazio-aturiko esperientziak erakartzen dituen iman batekin aldera daiteke. Zenbat eta botere konstelatzailerik gehiago eduki konplexuak, are eta boteretsuago bihurtzen da. Konplexuek inplikazio garrantzitsuak dituzte gure pertsonar-terko harremanetarako.

Konplexua inkontzientea da, baina hainbeste hazi da eta hain independente bihurtu da, bigarren Nia batek bezala jokatzeko duela; Ni kontzienteari oposatzen zaio. Ni-konplexua disoziatu eta autonomo bihur liteke, eta «nortasun bikoitzaren» fenomenoaren sortzeraino heldu. Konplexuak karga indartsua hartzen badu, bere orbitara erakartzen du Nia; menperatu eta irentsi egiten du. Kasu horretan, Niaren eta konplexuaren artean identifikazio partziala edo osoa gertatzen da. Hori gertatzen da, adibidez, ama konplexua duten gizonengan, edo aita konplexua duten emakumeengan. Pertsona horiek uste izan gabe, aitaren edo ama-

ren hitzak, ikuspegiak, aspirazioak beraien Niaz jabetu dira, beren tresna eta bozeramaile bihurtuz.

Honela, bada, pertsona edo objektu partikular baten inguru antola daiteke konplexu bat. Jung-en adibideetako bat, amatasunari dagokiona da. Amatasun konplexuak, ama batek haziak izanaren esperientziatik sortu diren ideia, sentimendu eta oroitzapenen taldeari egiten dio erreferentzi. Bizi izandako beste amatasun esperientzietan ere oinarritzen da. Aurkitzen dugun amatasun esperientzia berri bakoitza gure amatasun konplexura eramaten dugu, eta haren arabera interpretatzen.

Konplexu batek, situazio batetatik askatzea zaildu diezaguke. «Kontzientziaren identiko ez den psikearen zati horretan sortutako hazkuntza espontaneo bat da konplexua. Kontzientzian sartzen den garapen autonomo bat dirudi» (Jung, 1938). Konplexu batek, pertsona independente batek bezala joka dezake, gure niarengandik eta intentzio kontzienteetatik modu berezian ekinez.

Konplexu bat izan daiteke kontzientea, erdi kontzientea edo inkontzientea. Haren elementu batzuk, inkontziente kolektiboraino heda daitezke. Konplexuek, Nia osoa edo Niaren zati batzuek bakarrik menpera ditzakete. Niaren zati batzuek bakarrik menperatzen badituzte, moldaeraren nahasteak edo errealtatearen galera arinak bakarrik gertatuko dira; Nia osoa hartzen badute, psikosiak eta Niaren galerak gertatzen dira.

Konplexuaren erdigunean, arketipoaren berdina den sinbolo kolektibo inpersonal bat aurkitzen dugu. Konplexuak arketipo bat gordetzen du. Inkontziente pertsonaleko edukinak, karga emozional handiko konplexuak dira nagusiki; inkontziente kolektiboko edukinak, arketipo deituak dira.

8.2.7. Inkontziente kolektiboa

Gizadiaren eboluziotik heredentziz jasotako masa espiritual boteretsua da inkontziente kolektiboa, gizabanakoen egitura bakoitzean berjaiotzen dena. Inkontziente pertsonala gizabanako bakoitzarentzat bakarra den artean, inkontziente kolektiboa elkarbanatua izan daiteke. Jung-entzat, inkontziente kolektiboa «transpersonal» da, pertsonengan zehar hedatzen da. Gizaki guztiok konpartitzen ditugun potentzialitate batzuetan datza.

Inkontziente kolektibo horrek, irudi eta sinbolo arkaikoak ezezik, instintuak, afektuak eta emozioak ere jasotzen ditu.

Pertsona guztiok, gizakiak garen neurrian, gauza batzuk ditugu amankomunean. Gizaki guztiok bizi gara taldeetan, eta talde horietako kideek eginkizun batzuk bete behar dituzte. Gizaki guztiok konpartitzen ditugu emozio batzuk, nahiz eta emozioak adierazteko moduak aldatu. Gizaki guztiok konpartitzen ditugu kontzeptu eta sinboloak; arketipo eta sinbolo batzuk behin eta berriro berragertuko dira gizarte batetik bestera, eta esanahi amankomuna dutela ikus daiteke.

Jung-entzat, inkontziente kolektiboarena kontzeptu enpiriko bat da: haren existentzia egiazta daiteke, ametsen, mitologiaren eta datu transkulturalen bitartez. Inkontziente kolektiboko efektuak nabarmenak dira gure esperientzietan (adibidez, «beste perfektu batez» maitemintzea, artelan batez asebetarik sentitzea, itsasoak erakarriak izatea etab.), eta esanahi unibertsala duten sinbolu konpartitueta adierazten dira.

Niaren eta inkontzientearen arteko harremanak idazlanean, paziente baten kasua agertzen du Jung-ek: analisisan bere haurtzaroko desirak eta aspirazioak, analisatzaileaz gaineko aita guztiahaltso bati trasferitzen dizkio. Sendagilearekiko transferentzia gaizki ulertze bat besterik ez litzateke; benetako joera, jainko batenganzkoa izango litzateke; hau da, jainko batenganako aspirazioa eta grina, gizakiarenganako baino indartsuagoa izanen litzateke. Kasu horretan Jung-ek pazienteari bere iritzia agertu zionetik, ondorengo ametsetan, jainko-aitarenganako transferentzia indartzen joan zen, eta pazientearen berarekiko transferentzia indargabetzen.

Jungentzat, hemen, psikebarneko libidoaren autoerregulazioa gertatzen da. Baina, nola gertatzen da autoarauketa hau? Inkontziente kolektibotik sortzen diren arketipoek gidatzen dute; arketipo horiek arduratzen dira psikearen gidaritzaz.

8.2.8. Arketipoak

Jung-ek sinbolo primitiboak, arkaikoak, aurkitu zituen pazienteengan; horrek eraman zuen, inkontzientearen barnean, gizadiaren esperientzia guztiak modu sinbolikoan (arketipoak) gordetzen dituen geruza baten existentzia postulatzera. Geruza hori gizaki guztiengan aurkitzen denez, kolektiboa da. Elementu psikikoak irudi batzuen arabera ordenatzen dituzten faktore eta motiboak dira arketipoak. Arketipoa ez da irudi bat bakarrik; irudi arketipikoak indar liluratzaille bat ere badu. Errepresentazioen ordenatzaile izkutuak dira; psike inkontzientearen ordenu ikustezina «protoeredu» horietan oinarritzen da; «ardatz sistema potentzial» bat eratzen dute, kristalezko sare ikuskaitz bat. Arketipoak ezin bildu litezke formula samur batetan. Behin ere hustu edo bete ezin daitekeen ontzi bat dira. Potentzialki bakarrik existitzen dira, eta materia batetan eratzen direnean, ez dira iadanik lehen zirenak.

Inkontziente kolektiboaren barnean aurkitzen dira arketipoak edo jatorrizko irudiak. Pentsamendu unibertsaleko forma bat, edo munduaren aurrean modu jakin batean erantzuteko aurredisposizioa da arketipoa. Potentzialitatea azpimarratzen du: gure karakterea agertzeko forma potentzial desberdinak errepresentatzen ditu.

Arketipoak ezin daitezke erabat ezagutuak edo deskribatuak izan, inoiz ez baitira kontzientziara erabat sartzen. Modu piktoriko pertsonifikatu edo sinbolizatuan agertzen zaizkigu, eta mitoen, ametsen, errituen eta

sintomen bidez sar daitezke kontzientziara. Onuragarria da guretzat hauekin kontaktuan egotea, psikearen potentzialitate izkutua errepresentatzen baitute. Hori egitean, gure potentzialitate indibidualetatik haratago joaten gara, eta betiko prozesu kosmikora biltzen.

Jung-entzat, behin eta berriro ideia mitiko berberak ekoizteko aurre-disposizio moduko bat da arketipoa.

Psike kolektiboak funtzio psikikoen «beheko aldeak», heredentziaz ja-soak, biltzen ditu. Kontzientziak eta inkontziente pertsonalak, funtzio psikikoen «goiko aldeak» biltzen dituzte, ontogenetikoki eskuratu eta garatu direnak. Leinuko buruzagia besteengandik mozorro batek bereizten duen bezala, pertsonalitate bat ere bere «pertsonagatik» bereizten da ingurutik. Baina, pertsona, psike kolektiboko mozorro bat da, indibidualitate simulatzen duen mozorro bat, besteei eta norbere buruari indibiduala dela sinestarazten diona, psike kolektiboa, mintzatzen den paper errepresentatu bat besterik ez den bitartean.

Pertsona, komunitatean jokatzeko den rol sozialari dagokiona da. Gizartearen eskaeretara moldatzeko gizabanakoak darabilen mozorroa da pertsona. Benetako identitatearen eta gizarte identitatearen arteko konpromezu bat errepresentatzen du. Pertsona baten garapena alde batera uzten bada, gizarteaz haratago uko egiten zaio. Bestalde, pertsonarekin gehiegi identifikatzen bada, benetako identitatea alde batera gelditu liteke eta nortasunaren beste aspektu batzuk garatu gabe gelditu. Pertsona analisatzen dugunean, beraz, mozorroa altxatu eta ikusten dugu, indibiduala zirudiena, sakonean kolektiboa dela; psike kolektiboaren mozorroa besterik ez zela pertsona.

«Niaren bildukina» da Jung-entzat pertsona; Nia, pertsonak estaltzen du. Pertsonaren atzean dago bere «benetako Nia». Nia ez da identifikatzen, ez pertsonarekin, ez inkontziente kolektiboarekin, baizik inkontziente pertsonalarekin. Indibidualitateak askatu egin behar du psike kolektibotik; gizabanako izatera heltzeko prozesuari indibidualitatea deritzate. Indibidualitatearen helburua, pertsonaren estalki faltsutik eta irudi inkontzienteen botere iradokorretik askatu eta autoerrealizaziora heltzea da.

Pertsonaren berregituraketa erregresiboa gertatzen denean, psike kolektibotik ez da askatzen gizabanakoa; indibidualitatea psike kolektibora biltzen da, psikotiko bihurtzen da, inkontziente kolektiboaren edukinekin identifikatzen da zorotasunean. Psikosian, edo profeten jokaera extrabagantean, gizabanakoa psike kolektiboarekin identifikatzen da.

Potentzian ditugun eta gizarteragarriak ez diren pentsamendu, sentimendu eta jokaerak biltzen ditu *itzalak*. Gure «beste aurpegia», gure «ilunetako senidea» sinbolizatzen du itzalak. Pertsonaren aitziko aldea da, gizarterako arauarekin eta nortasun ideialarekin uztarrezinak diren desira eta emozioak biltzen baititu. Barne etsaia bezala deskriba liteke. Itzalik uzten ez duen eguzkirik ez dago. Itzala ezin ekidin daiteke, eta itzalik gabe, osatugabe dago bat. Jung-entzat, gizarteragarriak ez diren bulkadak sublima

daitezke eta helburu asebetegarrietara bideratu. Itzala ere proiektu liteke beste gizabanakoetara, aurreiritzia bezalako ondoren sozialekin.

Itzala ukatzeak, hipokrisian eta iruzurrean murgiltzen gaitu. Jung-ek beharrezkotzat jo zuen, gure bulkada animaliak errekonozitzea. Horrela egiteak, sinesgarritasuna damaio gure nortasunari eta bizitzarako entusiasmoa gehitzen du.

8.2.9. Anima eta animus

Psike kolektiboarekin identifikatzeko joera erregresiboari aurre giten dio heroia, eta ez du uzten munstroak irents dezan. Indibiduatze bat gertatzen da, zorotasunari ihes egiteko prozesu honetan. Prozesu honetan, bere «itzala» eta bere «anima» edo «animusa» aurkitzen ditu gizakiak.

Giza esperientzia guztiek disposizio subjektibo bat suposatzen dute, jaiotzetiko egitura psikiko bat. Gizonaren izate guztiak auresuposatzen du emakume bat, bai fisikoki, bai espiritualki. Gizonaren sistema, a priori, emakume bati begira eratu dago. Gutako bakoitzak genero sexual bat dauka izendatua, maskulinoa edo femeninoa, gure agiriko bereizgarri sexualetan oinarritua. Baina, gutako inor ez da gizon edo emakume, forma puruan. Gutako bakoitzak ditu beste sexuko kualitateak, bai biologiarenean aldetik, bai psikologi ikuspegitik. *Animaren* arketipoa, psike maskulinoaren alde femeninoa da; emakumearen irudi kolektibo bat izango litzateke, gizabanako bakoitzarengan, bere esperientzien arabera, aldaketa pertsonalak jasaten dituena. Arketipo honek, emakume errealekin korrespondentzian, forma oso ezberdinak har ditzake: sorginak, jainkosak, silfideak, amazonak etab. Irudi arketipiko hauek, gehienez, konpentsatzaileak dira: gizon ahul eta afeminatu batek, anima bezala, amazona bat eduki dezake; gizon kementsu, maskulino batek, silfide bat eduki dezake.

Gizonak anima bakarra duen artean, emakumeak animus anitz ditu. Emakumeak gizonarengandik kontzientzia desberdina du. Harreman pertsonalak garrantzitsuagoak dira harentzat, errealitate objektiboen arteko harremanak baino. Harreman pertsonalen kontzientzia zabalagoa du emakumeak, gizonak baino. *Animusaren* arketipoa, psike femeninoaren alde maskulinoa da. Gizabanako baten anima edo animusak giza esperientzia kolektibo edo indibidualak isladatzen ditu, norberaren aitzikoa den sexuaren aldietan zehar jasandakoak. Beste sexukoekin harremanak izaten eta haiek ulertzen laguntzen digu. Jung-entzat, alde bereiztailea dago gizonen eta emakumeen psikologiaren artean. Jung-ek uste zuen, garrantzitsua zela pertsona batek beste sexuko bereizgarriak agertzea, nortasun desorekatu eta aldebakarrekoa ekiditeko. Pertsona batek, izendatutako sexuaren berezitasunak bakarrik agertzen baditu, besteak inkonzientean gelditzen dira, azpigaratuak eta primitiboak. Beste sexukoak ulertzeko zailtasunak dituztenak, ez daude seguraski beren animus edo animarekin tonuan.

Emakume batzuk beren aliatu bezala kontsideratu dute Jung, norbera-rena ez den sexuaren arketipoarekin harremanean egoteko premia azpimarratu duelako. Baina, baita ere, esaten zuen, emakumeen psikea ezberdina dela gizonezkoen psikearengandik. Harentzat, gizonezkoen kontzientzia, pentsamendu razionalak eta analitikoak bereizten du; emakumeena, berriz, harremanak edukitzeko gaitasunagatik bereizten da. Pertsona, edo mozo-rra soziala, ezberdina da emakumeengan eta gizonezkoengan, gizarteak eta kulturak rol ezberdinak izendatzen baitizkie. Anima eta animus-ek, kanpoko nortasuna konpentsatzeko moduan funtzionatzen dute, eta kanpoko adierazpen kontzientean falta diren kualitateak agertzen dituzte.

Jung-entzat, animusak iritziak ekoizten ditu, eta animak, egoera animikoak. Horrela, gizonaren egoera animikoak putzu ilunetatik ateratzen dira; eta emakumearen iritziak ere bai.

Jung-entzat, sinboloek, edukin arketipiko unibertsala edukitzeaz gain, bi funtzio bete behar dituzte: inkontziente kolektiboaren eta pertsonalaren arteko bitartekariak dira, eta libidoaren «energiaren transformatzaileak» dira. Psikearen oposatuak mantentzeko duen gaitasunean datza sinboloaren funtzio bitartekaria; sinboloaren bipolaritateak arerio uztarrezinak elkartzen ditu; kontzienteko eta inkontzienteko arerioak sinboloan elkartzen dira. Sinboloan gertatzen den arerioen elkarketa hori gaixotasunean eteteak, ondoren tragikoak ditu gizabanakoarentzat. Sinboloaren zati bat beste-ari nagusitzen zaio.

Sinboloaren jaiotzarekin, libidoa ez da iadanik inkontzientera atzera itzultzen. Atzera itzultzea progresio bihurtzen da, estankamendua ibai bihurtzen da, primarioa denaren indar liluratzaila hautsiz. Freud-entzat, libidoaren transformazioa, sublimazioa, unipolarra da: material erreprimitu inkontzientea «kulturaren produkzioa» etengabe aldatzen da. Jung-engan, libidoaren transformazioa bipolarra da, bi elementu kontrajarrien ondorena baita beti, aldentze eta elkartze prozesu etengabea.

Sinboloa, ikuskor edo kontziente bihurtu den arketipoa da, gizabana-koaren situazio indibidualaren, biografiaren edo arrazaren arabera aldatzen dena. Sinboloa, eta sinboloan arketipoa, Niak asimila eta atzeman de- zake analisiaren buruan, edo Niari eta kontzientziari arrotz mantentzeko, aluzinazio psikotikoan, extasietan edo ikuspenetan.

8.2.10. Autoerrealizazioa eta norbera

Inkontzientearen propietate esentzial bat da «mana»; nia inkontziente-arekin identifikatzen denean, mana niaz nagusitu daiteke. Jung-entzat, «manak» botere magikoa adierazten du: inkontziente kolektiboaren irudi eta sinbolo guztiei, batez ere animari, dagokien botere magikoa. Animare- kiko borrokan, harekiko identifikazioa iraungitzen bada, orduan mana Niarengana iragaten da. Animarekin borrokatu dena, Ni kontzientea izan

da; ondorenez, Nia izan da mana hartu duena. Horrela, Ni-kontzientea, mana-nortasuna bihurtzen da. Baina, mana-nortasuna inkontziente kolektiboaren dominante bat da: gizon boteretsuaren arketipo ezaguna. Azkenean, manaren obsesiotik askatu egin behar du Niak, bere buruaren ezagutzara heltzeko; mana, autojainkotze bat baita.

Arketipo zentrala, niarena da Jung-entzat. Nortasunaren zati guztien arteko batasunerako borroka errepresentatzen du niak. Psikearen printzipio antolatzailea da, arketipo guztiak eta beren adierazpenak beregana erakarri eta armonizatzen dituena. Niak energia psikikoaren banaketa ordenatua gidatzen du, nortasunaren alderdi desberdinak modu egokian adieraz daitezzen. Nia edo norbera da nortasunaren benetako erdi puntua; horregatik, nortasunaren zentrua ez dago ni razionalaren kontzientzian. Jung-entzat, benetako nia, kontziente eta inkontzientearen, arrazoi eta desarrazoiaren arteko mugan aurkitzen da. Niaren garapena da bizitzako helburua, baina niaren arketipoa ez da azaleratuko, nortasunaren beste sistemak erabat garatu bitartean. Horregatik, adin ertaina lortu bitartean ez da agertuko.

Niaren sinboloa *mandala* da: zirkulua, gurpila edo gurutzeta bezala forma kontzentrikoan egokitutako irudia. Jung-ek irudi hori behin eta berriro agertzen ikusten zuen bere pazienteen ametsetan eta kultura guztietako arte lan guztietan. Osotasuneranzko burrukan ari den nia errepresentatzen du mandalak.

Jung-ek, inkontziente kolektiboaren beste arketipo asko ere deskribatu zituen: jaiotza, heriotza, ernazimendua, boterea, magia, haurra, heroia, jainkoa, deabrua, ama handia eta zahar jakintsua. Gainera, arketipo horiek ezin uka edo ezaba daitezke.

Adibidez, mendebaldeko kulturak ama handiaren aspektu bildurgarriak ukatzeak, gizarte patriarkal bat ekarri zuen, emakumeak zapaldu eta natura desegin zuena. Horregatik, beharrezkoa zaigu arketipoekin eta beren botere sendatzailearekin harremanean egotea.

Niaren autoerrealizazio prozesuan ez zuen etaparik ezarri Jung-ek. Jaiotza psikikoa ez da nerabegarora bitartean gertatzen; nortasunaren garapena, bizitza guztian zehar hedatzen da, eta adin ertainean ere (35-40 urte) aldaketa garrantzitsuak gertatzen dira.

Autorrealizazioaren kontzeptuaren hastapenak Aristotelerengan aurkitu behar dira. Filosofari honentzat, guztiak du esentzia edo potentzialitatea adierazten duen telos bat, asmo edo helburu bat. Adibidez, ezcurraren esentzian dago bere zuhaiztasuna eta haritz handi bihurtzeko potentzialitatea. Era berean, gutako bakoitzak du ni baterarte garatzeko potentziala, hau da, gure giza potentzialitate nagusiak hezurmamitzeko eta asebetetzeko potentziala. Ikuspuntu hau teleologikoa da. Oraina, etorkizunari begira, gure patua gidatzen eta zuzentzen duen jomuga bati begira esplikatzeko du. Freud-ek iraganetik zetozen baldintzen terminotan ulertzen zuen nortasuna. Jung-entzat, bai kausalitatea, bai teleologia, beharrezkoak dira nortasunaren ulerkuntza osorako.

Garapenak neurri handi batetan aurrerantz egiten badu ere, frustrazio baldintzetan atzeranzko itzulketa bat gerta liteke. Jung-ek ez zuen modu negatiboan hartzen atzera itzultze hau. Atzeranzko mugimendu horrek, azkenean, erraz zezakeen aurreranzko mugimendua. Inkontziente pertsonala eta kolektiboa aztertzean, niak ikas dezake iraganeako esperientzietatik eta erregresiora eraman zuen problema ebatzi ere bai. Freud-entzat neurosi batek erreprimituaren itzulera adierazten duen bitartean, Jung-entzat, nortasun azpigaratuaren zati batek entzuna izateko eta osatzeko egiten duen dei errepikatua da.

Norbereburuaren autorrealizazioak indibiduatzeko eta trszendentzia inplikatzeko ditu. Indibiduatzeko, psike indibidualaren sistemek beren diferentziazio, adierazpen eta garapen maila garaiena lortzen dute. Trszendentziak, berriz, niaren sistema desberdinen integrazioa adierazten du, gizadi osoarekiko integritatea eta identitatea lortzeko. Jung-entzat, indibiduatzeko ez du indibidualismoa esan nahi, norbere izaera espezifikokoaren asebetetzea eta norbere batasunaren osatzea baizik. Trszendentziaren prozesuan, nia edo esentzia sakonago bat sortzen da, pertsona gizadi osoarekin eta unibertso guztiarekin elkartzeko.

Benetako pertsona ez datza kontzientean edo inkontzientean, gogamean edo gorputzean, pertsonan edo itzalean, bereizgarri sexual agirikoe-tan edo konplementarrietan, baizik guzti horietan. Nortasunaren aldebakarrereko garapenetik dator neurosia. Oposatuaren batera etortzea da nortasunaren garapenaren azken helburua, Jung-en ikuspegitik. Freud-entzat, pertsona gatazkan egongo da ezinbestean; Jung-entzat, pertsonak armonia bilatzen du.

8.2.11. Psikoterapia jungiarra

Psikoterapiaren helburua eta bidea gizabanakotzea (indibiduatzeko) da Jung-entzat. Elkarketa askea baino areago, anplifikazioa erabiliko du; transferentziari balio sinboliko soila emango zaio; errepresioari ez zaio garrantzi handirik emango, eta bai sinbolo kolektiboari; eta ametsak, subjektuaren eta objektuaren mailan interpretatzen dira.

Jung-entzat, Adler eta Freud-ek instintua (botere gosea edo sexualitate) azpimarratzen dute, eta iraganean bilatzen dituzte egungo nahasteen zergatiak. Beretzat, ordea, psikismo osoa kontutan hartu behar da; adibidez, espiritua eta gizakiaren behar erlijiosoa kontutan hartu behar dira. Bere psikoterapiari, psikoterapia prospektibo eta sintetikoa deritzaio, erretrospektiboa eta analitikoa den Freud-en psikoterapiaren aurrez aurre.

Jung-ek prozedura dialektikoa darabil: bi pertsonen arteko elkarrizketan, bi sistema psikikoen elkarreraginean oinarritzen du terapia; bi errealtate psikikoen, Niaren eta Ni-ezaren, kontzientziako edukinen eta inkon-

tzienteko edukin arteko enfrontamendua ere gertatzen da. Bien arteko loturatik, hirugarren sistema baten sintesia gertatzen da. Ez du objektua distantzia teoriko batetatik aztertzen, baizik analisisan sarturik aurkitzen da, paziente bera bezala.

Nortasunaren aspektu kontraesankorrek adiskidetzeko entseiu bat bezala kontsideratzen zuen Jung-ek neurosia. Terapia, prozedura dialektiko bat da, sendagile eta pazientearen, kontziente eta inkontzientearen arteko elkarriketa bat.

Analizatzailea eta pazientea elkarren ondoan esertzen dira. Saioak ez dira analisi freudiarrean bezain sarritan gertatzen. Sarritasunak, pazienteak lortu duen etapatik dependitzen dute. Terapeuten eta pazientearen arteko elkarriketa bihurtzen da Jung-en analisisia.

Tratamenduaren lehen etapetan aitortza premia bat dago. Aitortza horri, lasaize emozional batek darraikio. Besteen presentziak, besteen apoio intelektual, moral eta espiritualak propietate sendatzailea damaio aitortzari.

Proiekzio eta transferentziak garrantzia badute analisi jungiarrean; baina transferentzian ez dira pazientearen iraganeko pertsona esanguratsuak bakarrik agertzen, irudi arketipikoak ere bai baizik. Hala ere, Freud-ek ez bezala, Jung-ek ez zuen pentsatzen transferentzia terapiarako premiazko aurrebaldintza zenik. Batzuetan, indar exageratua hartzean, kaltegarri ere gerta liteke tratamenduaren aurrerapenerako.

Tratamendua, elkarreragite bat da: bi nortasunen topo egitea, bi gorputz kimiko desberdinen nahasketa bezala da; komunikazioa gertatzen den unean, biak aldatzen dira. Nahastea baino areago, konbinaketa da beraz. Sendagilearen nortasunak, integritateak eta indarrak garrantzi handia dute hemen: arima gidari guztiak, bera heldu den punturarte bakarrik gida ditzake bere jarraitzaileak.

Jung-entzat, terapiaren buruan, lehenik inkontziente pertsonalarekin amaitu behar da, hau da, inkontziente hori kontziente bihurtu behar da. Bestela, inkontziente kolektiborako iraganbidea hertsirik egongo da. Honen esan nahi du, gatazka guztiak lehenik maila pertsonalean eta norbere esperientzien argitan ulertu behar direla.

Freud-entzat, desira inkontzienteen agerpen ziren ametsak; Jung-ek funtzio prospektiboa eta erretrospektiboa ematen die. Funtzio prospektiboa: etorkizuneko gertakarietara prestatzeko pertsonaren ahalegin bat adierazten du. Funtzio konpentsatzaile bat ere badute ametsak: pazientearen alderdi kontziente osatu eta inkontzientetik hitzegiteko ahalegina dira.

Ametsak interpretatzeko, amplifikazio metodoa erabili zuen Jung-ek, elkarketa askea baino areago. Amplifikazio metodoan, ametsen materialea, irudi, sinbolo, ipuin, mito eta abarretako materiale analogoekin aberastuko da. Terapeuten edukin arketipikoak aurkitzen baditu bere pazienteen ametsetan, mitoetako, ipuinetako eta erlijioetako an-

tzeko materialeari erreferentzi eginez argitzen ditu. Pazientea elementuan zentratzen da modu errepikatuan, eta elkarketa anitz egiten ditu. Ametsa den bezala hartzen da, agiriko eta ezkutuko edukinak bereizten ahalegindu gabe. Terapeuta eta pazientea, biak elkartzen dira ametsa interpretatzeko ahaleginean, elkarketa pertsonalak erantsiz, mitologiari eta ipuinei aipamena eginez etab, ametsaren esanahia hedatzeko. Freud-ek ametsak banaka hartzen zituen; Jung-ek amets serieak hartzen ditu. Amets talde baten analisiak, pazientearen barne bizitza agertzen du.

Terapeuta bezala, pazientearen barne munduaren ulerpenera errazteko, haren irudimen aktiboa eta ekoizpen artistikoak erabiltzen zituen. Marrazterea, irudiak egitera, margotzera edo artelanen bat egitera bultzatzen zuen pazientearen barne bizitza ezagutzeko.

Jung-ek inkontziente pertsonalaren garrantzia onartzen du, baina sendaketara heltzeko, inkontziente kolektiboaren ateak ireki behar dira: animarekin, itzalarekin eta arketipo denboragabeekin konfrontatu behar du.

8.2.12. Ebaluapena eta ikerketa

Hitzen elkarketaren frogaratu zuen Jung-ek, prozesu inkontzienteen lehen datu esperimentalak lortzeko; frogaratu hori ikerketan eta praktika klinikoan erabilia da egun. Frogaratu horretan, emozioak produzitzeko diseinaturiko hitz estimuluen zerranda bati erantzuten dio subjektuak. Ez-ohiko erantzun batek, erantzun aurreko pausaldi luze batek, hitz oso ezberdinei erantzun bera emateak, eta beste faktore batzuk, konplexu bat adieraz dezakete. Jung-en hitzen elkarketaren frogaratu izan daiteke geroztik etorri diren teknika proiektiboen (esaldien osatzea, poligrafoa edo gezur detektatzailea etab.) aitzindari.

Jung-en tipologiak ere bultzatu du ebaluapenaren garapena eta tipologia psikologikoen ikerketa. Myers-Briggs-en Tipologia Indikatzailea (MBTI: Myers-Briggs Type Indicator) da klinika, aholkularitza eta ebaluapen arloetan populazio ez psikiatrikoarentzat tresnarik ezagunenetakoa. Katherine Briggs eta haren alaba Isabel Briggs Myers-ek garatu zuten tresna hori eta lau dikotomietan oinarrituta sailkatzen ditu pertsonak: Kanporakoitasuna-Karnerakoitasuna (KB), Sentipena-Intuzioa (SI), Pentsamendua-Sentimendua (PS) eta Judizioa-Perzepzioa (JP). Lehen polaritatean, Jung-en bi jarrerak errekonozitu daitezke; bigarren eta hirugarren polaritateetan, niaren lau funtzioak agertzen dira. Azken polaritateak, judizioarekiko edo perzepzioarekiko preferentzia agertzen dute. Judizioarekiko preferentzia dutenek, egitura eta itxiera kantitate handia nahi dute beren bizitzan; perzepzioarekiko preferentzia dutenek, espontaneitate eta irekiera gehiago nahi dute.

Lau dikotomi horietan oinarrituta, lau hizkitako hamasei tipo posible dira. Adibidez, KSSJ bat, sentipena, sentimendua eta judizioa dituen kanporakoi bat da. Ebaluapen eskuliburuan agertzen dira, tipo bakoitza bestetatik bereizten duten deskribapenak.

Jung-en ikerketa eta ebaluapen teknikak, metodo zientifiko eta enpirikoetan ezezik, ikuspegi mistiko eta ez-zientifikoetan ere oinarritu ziren. Garai ezberdinetako kultura ezberdinak aztertu zituen, haien mitoak, sinboloak, erligioak eta erritualak ikertuz.

9

Kognitibismoa nortasunaren psikologian

9.1. SARRERA

Ikusi dugun bezala, nortasunaren psikologian teoria eta eredu eniztasun handia aurkitzen dugu, bakoitza bere metodologi eta ideologiarekin. Eredu teoriko hauetako batzuek faktore emozionalak edo motibaziozkoak azpimarratu dituzte; beste batzuek, berriz, nortasunaren berezitasun eta tipologia jakin batzuk azpimarratu dituzte. Guztiek nahi izan dute beren teoriak aspektu generalizatzaile bat edukitzea, pertsonaren jokaera guztia esplikatu ahal izateko. Hasierako adostasun gabezia honek, teoria ugariaren sorrera ekarri du: esparru teoriko bakar batetan integratzen eta biltzen zailak diren ondorioetara heldu da teoria bakoitza.

Bestaldetik, aldi berean, «kognitibismo» dei dezakegun paradigma berri bat joan da garatzen zientzia psikologikoan. Psikologia esperimentalaren esparruan, barne prozesuak eta ezagugarriak aztertzen zentratu da nagusiki paradigma hori. Konduktismoaren eragin radikalaren aldi luzearen ondoren, giza gogamenaren jarduera aztertzeke interesa pizten da psikologia kognitiboarekin: perzeptioa, arreta, kodifikazioa, oroimena, giza ikaskuntza, adimena, pentsamendua eta lengoia bezalako «goi prozesu psikologikoak» aztertzeke interesa. Hitz batean esateke, kanpoko mundua eta barne mundua nola interpretatzen diren aztertzeke interesa. Bai kanpoko baliabideak bai aspektu organikoak, sinbolikoki kontrolatuak eta kanalez-tatuak daude.

Eredu konduktista, asmo onak bazituen ere, motz gelditu zen. «Objektibatu» beharrak eramanda, gizakiaren berezitasun jatorrizkoenak ahanzi zituen; jokaera behagarria bakarrik kontuan hartuta aurrerate posible izan balitz ere (nahiz eta hori izan ez kasua), bitarteko prozesuak kontutan ez hartzean, aspektu psikologikoaren gure ezagutza oso mugatua izango litzateke. Badakigu, bitarteko prozesu horiek aztertzea zaila dela, baina horiek dirudite bereziki psikologikoak eta garrantzitsuak.

Gainera, jokaeraren eredutik eredu kognitiborako aldaketak beste inplikazio asko ere baditu. Lehen ondorioetako bat, subjektua, kanpoko inguruneak erabat determinatzen duen elementu pasibo bat ez, baizik intenzionalitatea duen «bilatzaile aktiboa» izatearena da. Intenzionalitatearen jabe denez, gertaerak auresan ditzake, informazioa sinbolikoki eta mentalki prozesatuz. «Intenzionalitatearen» eta «estimulu-ingurunearen manipulaziorako gaitasun sinbolikoaren» kontzeptuek eratzen dute informazioaren giza-prozesaketa, eta horiek dira gizakiaren jokaera globalaren zati handi bat esplikatzeko dutenak.

Modu honetara, «iraultza kognitiboa» nortasunaren psikologiara ere heltzen da, baina hark ez du hau irensten, baizik elkarri mailegu batzuk egiten dizkiote, batak besteari irteera teoriko berriak eta bateratzaileak eskainiz. Honela, batetik, perzeptzioa eta oroimena bezalako gaiak nortasunaren eskema eta ereduaren zati izatera heldu dira; bestetik, larritasuna eta introbertsioa bezalako aldagaiak kontutan hartzen dira prozesu kognitiboak aztertzerakoan.

Heldu ote gara eredu bateratzaile batetara nortasunaren psikologian eta psikologia orokorrean? Oraindik goiz da erantzuteko, baina bidea egiten hasia da, behar bada. Elkarrekiko eragina, bitarteko aldagaien garrantziaren konstatazio eta kontrastaketa eta metodologia zientifikoa bereganatzea izan dira hurbilketa horren ondorioetako batzuk.

Orokorrean, nortasunaren teoria klasikoak, datu enpirikoeekin kontrastagarriak ez diren espekulazioaren maila handiago edo txikiago batez bereizten dira; gainera, jokaera batzuei koherentzia ematen diela iruditzen zaion aldagaietaz bakarrik interesatzean, hau da, Kelly-ren terminologia erabiliz, beren «konbenientzi fokoaren» esparruan sartzen diren jokaerak bakarrik aztertzean, gehiegizko «zatikeria» praktikatzeko dute; beste arlotako berezitasunak eta elkarreraginak ez baitituzte kontuan hartzen.

Hurbilketa berri honekin, bitarteko aldagai eta dimentsio berriak agertzen dira, hala nola, informazioa prozesatzeko «estilo kognitiboak»; estilo hauek, nortasunaren dimentsio bezala eta gizakien artean bereizteko iturri bezala ere kontsideratzen dira. Guzti hori, «integrazio osoaren talante» berri batez egiten da. Osagai afektibo eta motibaziozkoen garrantzia, nortasunaren oinarritzko faktoreak eta «norberaren» (selfaren) kontzeptutik abiatuz asumitutako identitate sozial eta/edo pertsonala, ikuspegi berri batez biltzen eta baloratzen dira.

Hemendik abiatuz, «jokaeren multzoen ikuspen global bat eman nahi duen batasun koherente, egonkor eta individualizatu bezala, eta afektibomotibazionalaren eta kognitiboaren sistemetan azpizati daitekeen bat bezala» definitzen da nortasuna. Bada, bestalde, nortasunaren bereizgarrietan oinarrituta orainarte baino auresangarritasun gehiago lortzeko interes zientifikoa; horretarako, korrante kognitiboa, hain globalak ez diren jokaeretan sarriagotan zentratuko da, ikuspegi naturalista eta nomotetiko bat hartuz.

Izaera kognitiboa duen nortasunaren psikologiaren eraikuntza honetan, nortasunaren teoria klasiko ia guztiek eskuhartzen dute: psikoanalisiatik abiatuz, fenomenologia bezalako teoriak, eta gogamen prozesuen analisatzaileek ere bai. Honek, nortasunaren teorien «kognitibatze» batetara eta teoria kognitiboen «pertsonalizatze» batetara (Huteau, 1989) eramán gaitu, gai honetan zehar ikusiko dugunez.

Beste ondoren bat ere izango du honek, gainera. Oso espekulatiboak diren eta gizakiaren ikuspegi filosofiko eta ideologiko globala dutenen ondoan, «mikroteoriak» agertuko dira, hertsiañoak, baina oinarri kontrastagarri eta esperimental handiñoa dutenak. Guzti horrekin, aldagai «dizdiratsuenak», «estilo kognitibo» deituriko nortasunaren dimentsio berriak izango dira. Estilo horiek, gizabanakoen arteko aldakortasuna eta jokaeraren kualitatea aztertuko dute, horien kantitatea eta/edo eraginkortasuna baino gehiño.

9.2. BEREZITASUNEN PSIKOLOGIATIK PSIKOLOGIA KOGNITIBORA

Azterketa zientifiko kontrastagarriena eta generalizatuena lortu duen nortasunaren psikologia, «bereztasunen psikologia» deituriko nortasunaren psikologia da; bere ordezkari nagusienak, teoria faktorialistak garatu dituzten autoreak dira.

Bere adiera klasikoenean, erlatiboki orokorra eta iraunkorra den barne dispoizio bat bezala hartzen dira bereztasunak, gizabanakoen arabera gehiño edo gutxiño nabarmenduak, eta balio esplikatzaile bat dutenak. Hurbilketa honetan, bereztasunek jokaerari koherentzia eta iraunkortasuna ematen diotela suposatu da. Halaz guztiz ere, psikologo situazionistek kritikatu dute hau nagusienik, bereztasunaren estatus hori ez baitute salbatu ahal izan ikerketa askotan. Hasteko, situazio desberdinetan, bereztasun beraren indikatzaile desberdinen artean korrelazio bájua ikusi da, eta horrela, situazioek bereztasunek baino auresangarritasun gehiño dutela dirudi. Gainera, nahastea oraindik handiñoa da, deitura bereko bereztasun baten indikatzaile desberdinak elkarrengandik independente direla ikusi denean; horrek esan nahi du, tresna desberdinek ez dutela eraikuntza bera neurtzen; eta bereztasunak atzemateko egiten diren inferentziek, batez ere metodologia klinikoz eginek, balidezia gutxi agertzen dutela.

Arazoa ez dagoke, beharbada, bereztasunaren eraikuntza teorikoan, erabiltzen diren neur-tresnetan baizik; hauek, hutsegite eta soslai askoren iturburu bezala agertu dira, fidagarritasun eta balidezia indizeen berma metodologikoa zalantzan jarritz.

Baina, neurketa eta metodologi problemetatik at, jokaeraren balizko koherentzia eta egonkortasuna ez al liráteke gehiño egongo situazioaren eta hari loturiko rolen funtzioan (behatzailearen aurrejarrera kognitiboetatik dependituko lukeelarik), aldagai pertsonalen funtzioan baino?

Beste edozein subjektu bezala, psikologoak ere ez daude beren apreziazio kategorialetan, nortasunaren «teoria inplizitoetatik» aske, horiek koherentzia gehiago ematen baitiote jokaerari, estereotipo sozial baten antza duenean.

Badirudi, beraz, behatzailearen jarduera kognitiboak eskuhar dezakeela, jokaeraren koherentzia modu determinatzailean behatzen; hau areago gertatzen da oraindik, neur-tresnak anbiguotasun maila bat badu, nortasunaren galdekizunetan gertatzen den bezala: galderak oso orokorrak dira, jokaera suposatuetan gainformulatzen dira eta errealtatetik urruneko esparruetan ebaluatzen dira. Modu honetara, «kalitate bajuko» erantzunak sustatzen dira. Baina, bestalde, jokaera zehatz eta hertsiki kodifikatuei buruzkoak direnean behaketak, behatzailearen eskema kategorialak dexente egoki daitezke errealtatera. Nortasunaren test objektiboak darabiltzaten lanetan, hurbilketa kognitiboan gertatzen den bezala, ez da beraz hain narbaria izango soslai konstruktibista.

Jokaera behagarria azaldu eta auresateko garaian, inguruneko estimulazioetan bakarrik oinarritzen ziren situazionistak, barneko egitura eta prozesuak alde batera utziz. Situazionismoa, beraz, ikuspegi konduktistak nortasunaren psikologiaren esparruan egiten duen sarrera da. Situazionismoak jokaera auresateko darabilen argudiaketa honako hau da: situazio berri batetan aurkitzen denean, iraganean antzeko situazioetan sarrienen errefortzatu zaion erantzuna emateko joera izango du subjektuak. Jokaera, antzeko situazioetan koherentea izango da. Baina, jokaera ez da orokorki koherentea, situazioko testuinguruaren arabera modu dsikriminatuan errefortzatua izateko joera baitu. Zentzun honetan, situazionismoak erantzunaren berezitasunaren aldeko apustua egiten du, haren orokortasunaren aldekoa baino gehiago; beraz, ez du berezitasun pertsonaletara jo beharrik, jokaera esplikatzeke; nahikoa du, jokaera gertatzen deneko situazioa eta baldintzak aztertzearekin.

Situazionistek kontuan hartzen dituzten barne egitura bakarrak, maila fisiologikoan aurkitzen dira; horiek esplikatuko lukete, gainera, espezie bakoitzean gertakari batzuek zergatik duten balio errefortzatzailea, eta besteek zergatik ez duten.

Jarrera «konduktista erradikal» hau berkontsideratzen ari dira «ikas-kuntza sozialaren» teorikoak (Bandura eta Walters, 1963; Mischel, 1968); jokaera behagarriarekin batera barne-prozesuak hartzen dituzte kontuan, batez ere barne prozesuak. Testuinguru sozialetan jokaera konplexuak aztertu nahi dituzte, eta horretarako, hasiera batean, itxuraz errefortzu gabe gertatzen den giza ikaskuntzan jartzen ditu begiak (behaketa bidezko ikaskuntza edo ikaskuntz bikarioa), hau da, prozesu sinbolikoak, gogamen errepresentazioak, inguruneari eta perzepzioei buruzko perzepzio eta igurikapenak inplikatzan dituen ikaskuntzan. Baina, fase honetan, prozesu kognitiboak ez dira barne disposizio bezala ulertzen, situazioen isladapen bezala bakarrik baizik; horren ondorenez, lan esperimentaletan aldagai

kognitiboak ez dira «balioen hautespenez» eraikitzen, inguruneko testuinguruaren «manipulazioz» baizik.

Teoriko hauek epistemologikoki konduktistak izaten jarraitzen badute ere, bitarteko prozesuen azterketa sistematikorako ahalbidea irekitzen dute, alderdi kognitiboan gutxienez fenomenoen koherentzi eta egonkortasun on bat ezarri; jokaera oso espezifikoean bakarrik zentratzean, nortasunaren psikologiaren globaltasun pretentsioaren aurrean oso mugatuak gelditzen badira ere. Situazionismoaren ikuspegitik behintzat, jarreren hurbilketa ahaleginak, mugatua izanik ere, berme metodologikodun irteera bat eskaini du; hori bai, berekin ekarri du jokaera sozialetan zentratzeko joera, nortasunaren azterketaren objektu bezala pertsona desagertuz. Situazionismotik iragatean, nortasunaren psikologiak bere osagai kliniko eta pertsonalak galdu ditu, eta psikologi sozial bihurtu da, testuinguruari dagokionez behintzat.

Jokaeraren koherentziaren gaiak hausnarketarako gain-lerro batzuk merezi ditu. Mischel-ek honi buruz dituen lanak kritikatu dira, egokiak ez direlako iruditzen, ez aldagai aztertuak (espezifikoeziak izateagatik), ez subjektu aztertuak (gazteegiak eta/edo homogeneousiak izateagatik), eta beraz, azterturiko bitarteko ezagugarriek hasiera batetan itxaron zitezkeen situazio konsistentziarik ez dutela ikusten da. Honela, alde batetik, tresnen fidagarritasun eta balidezia maila baxuak, eta bestaldetik, erakuskariaren motibazio gabeziak edo aukeraketa egokirik ezak, situazionisten garatutako lanetan ikus daitezkeen jokaeraren inkoherentziaren portzentai altua esplikatuko lukete. Erakuskari oso homogeneousoak erabiltzean, errorearen bariantza kontrolatzeko beharbada, gizabanako arteko aldagarritasuna eta behaketen artean itxarondako korrelazioak gutxitzen dira.

Problema hau soluzionatzeko eta jokaeraren koherentzia sakonki aztertzeko modu bat, jokaera konkretu baten neurketak subjektu berarengan jokaeren multzo batekin erlazioan finkatzea (neurketa ipsatiboak) izango litzatekeela pentsatu da. Hala ere, bariantza osoaren zatirik handiena osagai pertsonalen eta situazio osagaien arteko elkarreraginak esplikatzen du. Aldagarritasuna ez zaio egozten osagai bati bakarrik, elkarreraginari baizik, Sarason eta lankideen azterketatik (1975) eratorzen den bezala: bariantza analisia aplikatu zuten 140 ikerlan laburtuz, berezitasunek %9a esplikatzen zuten eta situazioek %10, elkarreraginek bariantza osoaren %20a esplikatzen zuten bitartean.

Situazioaren eta subjektuaren dikotomiaren eztabaida psikologiaren hasieratik gertatu da. Gizabanako arteko aldagarritasuna gehitzean eta situazioen arteko homogeneousitatea bilatzean, subjektuaren faktorearen pisua gehitzen da. Alderantziz, gizabanako arteko aldagarritasuna gutxitzean eta situazioen heterogeneityatea gehitzean, situazio faktorearen pisua gehitzen da. Gatazka ospetsu hau, «psikologia zientifikoaren bi disziplinei» buruzko disertazioaz objektibatu zuen Cronbach-ek (1957). Bi disziplina horiek, bereziak dira, elkar ezagutzen ez direlako: ikerketa korrela-

zionalak eta ikerketa esperimentalak, «errore bariantza» edo «bariantza sekundario» bezala kontsideratzen dute, bestearantzat «bariantza primarioaren iturri» dena. Cronbach-ek bi hurbilketen nahastea proposatzen du: subjektuaren aldagaiekiko, situazioaren aldagaiekiko eta, batez ere, elkarreaginarekiko aldibereko interesa suposatuko lukeena.

Dikotomia hau nabarmena baldin bazen ere psikologia orokorrean, nortasunaren psikologian betidanik mantendu da elkarreraginezko jarrera bat, teoriaren eta datu psikologikoen artean gerta zitekeen disoziazioarengatik beharbada. Hain zuzen ere, sarritan aurkitzen ziren elkarreraginezko elementuak nortasunaren teorietan, gizabanakoa eta ingurunea erlazionatzerakoan, mugimendu interakzionista, berezitasunen psikologiarekiko eta jarrera situazionistarekiko kritikaren ondoren bezala sortzen bada ere, biak aldagai independente (zergati) bezala kontsideratuz, eta jokaera behargarria aldagai dependente bezala (efektua) hartuz.

Guzti honekin batera, efektu atzeraelikatzaileak ere kontuan hartzen badira, hau da, jokaerak barne dispozizioen eta situazioaren gain eragin dezakeen ekintza kontuan hartzen bada, «transakzioaz» hitzegin daiteke. Efektu hauei esker uler dezakegu, subjektu batek bere jarduera pertsonalaz nola ekoiz edo aukera dezakeen bere ingurune propioa.

9.2.1. Situazioen egitura eta subjektuen definizioak

Subjektuaren eta situazioaren arteko elkarreraginarekiko interesak situazioen egitura aztertzea behartu zuen eta «situazioen taxonomiaren» finkatzea ere proposatu zen. Zentzun honetan bost dimentsio handi bereizi ziren, aspektu naturaletatik hasita, aspektu artifizial, kultural, instituzional eta abarretaraino doazenak. Baina, defini zitezkeen situazioen kopuru handiak oraindik gehiago ilundu zuen panorama. Geroago, elizitatzen (eragiten) zituzten jokaeren arabera sailkatu nahi izan ziren situazioak, adibidez, larritasunezkoak edo erantzun emozionalekoak, profesionalak etab. Garrantzitsua zena, ingurunea erantzun tipo konkretuekin lotzea zen, dela subjektuaren inplikazio beharrarekin, dela inguruneak subjektuarentzat duen esanahiarekin, ingurune «fisiko» eta ingurune «psikologikoaren» artean bereizketa nabarmen bat lortuz horrela, ingurune psikologikoari zuzenkiago erantzuten diolarik subjektuak. Ikuspegi horretatik, analisi unitatea ez dira premiak edo jokaerak, subjektuak inguruneari buruz lantzen dituzten kognizioak edo gogamen errepresentazioak baizik.

Ikerketa helburuekin subjektuen taldeak eratzeari dagokionez, oso gutxitan ezartzen da erakuskari aleatoriorik, edo gutxienez, nolabaiteko ausazkotasuna duenik. Sarrirenetan, erakuskari akzidentalak eta subjektu boluntarioak dituztenak eratzen dira. Subjektuak bereziki bereizten dituzten berezitasun batzuek serbi dezakete, kasu honetan, kontrol taldeak edo irizpide taldeak eratzeke. «Aldagai modulatzailaren» kontzeptua hemen

sartzen badugu, jokaeraren koherentziak ez duela barne dispozizioetatik bakarrik dependitzen (inguruneekin erlazioan), baizik barne dispozizio desberdinen arteko elkarreraginetik ere dependitzen duela ikusten da.

Guzti honetatik ondiora dezakegu, jokaeraren koherentzia are handiagoa dela, situazioak eta subjektuen bereizgarriak ongi defini daitezkeen neurrian. Horregatik, aldagai modulatzailen eta beren arteko elkarreraginen kopuru handi bat aztertzea beharrezkoa da, horrek zailtasun teknikoetara eramaten duelarik, jokaeraren auresate onak lortzeko garaian. Mischel-ek esaten duen bezala, «subjektu x ingurune» arteko elkarreraginaz hitzegitea sinpleegia da, bi elementuen auresale kopuru handia ezagutu behar baitugu, elkarrekiko harremana konplexuagotzen duena. Cronbach-ek esaten zuen bezala, 10 aldagai hartzen badira, 1000 elkarreragin baino gehiago aztertu beharko lirateke, eta ez dago hori jasango duen diseinu esperimentalik!. «Psikologia zientifikoaren bi disziplinetatik haratago» (1975) idazlanean autore honek proposatzen duenaren arabera, «behaketa intentsiboetatik» abiatzea beharrezkoa da, a priori metodologiko esperimentalik eta/edo korrelazionalik gabe, «naturak aurkez diezaguzen sorpresa» jaso ahal izateko; proposamen hori, literaturatik hurbilago dago, ezagutza zientifikotik baino. Beharbada hau izango da nortasunaren psikologiak duen mugarik garrantzitsuenetakoa. Edozein modutara ere, sistema kognitiboaren propietate batzuetatik abiatuz, posible da oinarri batzuk proposatzea, jokaerari nolabaiteko koherentzia emango diotenak, eta nortasunaren psikologia ahaleztatuko dutenak.

Zentzun honetan, kognitibismoa ez da bakarrik, psikologiak hartu duen joera bat, baizik, teoria desberdinak integratzeko bere gaitasunagatik, nortasunaren psikologiari irteera zientifiko bat ahalbidetzen dio. Agian, joerak bateratzeko eta mugak gainditzeko beharrezkoa zen paradigma da.

9.3. JOKAEREN KOHERENTZIA: SISTEMA KOGNITIBOA ETA SISTEMA AFEKTIBO-MOTIBAZIONALA

Organismo baten jokaeran bi eragin iturri errekonozitu daitezke: afektiboak, alde batetik, eta kognitiboak bestetik. Bi sistema hauek teoria psikologikoen bi multzo sorrarazi dituzte betidanik: teoria dinamikoak eta teoria kognitiboak. Teoria kognitiboak gogamen eta pentsamenduaren prozesu eta edukinetan zentratu dira nagusienik; teoria dinamikoak, berriz, motibazioetan, premietan, bulkadetan eta, orokorrean, egoera subjektibo emozional positibo nahiz negatiboetan, jokaera erraztu nahiz inhibitzen dutenetan. Sistema biok iraganean antagoniko bezala kontsideratuak izan badira ere, bai prozesuetan, bai helburuetan, egungo joera, biak konplementari bezala kontsideratzean datza. Sistema biok elkarrekin jokatzen dute subjektuaren nortasun osoan, maila metodologikoan bereiz badaitezke ere; baina, funtzionalki bereizi ezinak dira.

Errepresentazio eta ebaluapen kognitiboek karga afektibo garrantzitsu bat eduki dezakete. Motibazioak eta afektibitateak jarduera kognitiboa orientatzen eta elikatzen dute, «hautepen perzeptiboan» edo «problema komplexuen ebazpenean» ikusi ahal izan den bezala. Bi sistemen disoziazioa posible da, bietako bat nagusi dela dirudien jokoerak biltzen ditugun neurrian, eta arrazoi praktiko eta metodologikoengatik erabilgarria izan daiteke, beren konplementaritatea errekonozitzea debekatzen ez badu ere horrek.

Kultur esparru guztien barnean bada beti munduikuskera bat, maila psikologikoan «nortasunaren teori inplizitua» garatzen duena eta jokoaren koherentzia bere modura esplika eta aurrean lezakeena. Horren adibide bat «errefrau eta atsotiz herritarrak» izan daitezke, beren jokoera-ikuspegitik begiratuta. Psikologiako ikasketak sistematizatu zirenean, motibazioaren psikologia izaten hasi zen batez ere psikologia. Teoria karakteriologikoak eta somatotipoenak historiara pasatu ziren. Organismoak eta bere fisiologiak psikologian eta jokoeran duen eragina ekidiezina bada ere, eragin hori ez da sinplea, ez lineala, ez tipifikaeraza; horregatik, teoria tipologikoez botere auresale kaxkarra lortu zuten.

Korrante dinamikoen artean, indar gehienaz agertzen dena «psikoanalisia» da. Funtzionamendu mentalaz eta haren patologiaz gehiago arduratzen da, jokoera behagarriaz baino. Baina, nortasunaren psikologiaren garapenean eragilea izango den elementu bat agertzen da iadanik: «jokabide jakin batetara eramaten duten indar dinamikoen kontzientziarik eduki gabe jokutzen du askotan subjektuak». Sentimenduek eta aspektu afektiboek toki garrantzitsua betetzen dute lan hauetan. Aldi berean eta paraleloki, «fisika koantikoaren» eta «energiaren» kontzeptua eremu zientifiko guztietara hedatuko da. Jatorri biologikoko energia (bulkadak) izango da jokoera patologiko eta normalaren iturburua. Mekanismo hau erabilgarria iruditzen zaie neurosia eta histeria bezalako nahasteak esplikatzeke, kulturaren garapena esplikatzeke, eta, noski, nortasuna indar motibazionalen eta instintiboen terminotan esplikatzeke.

Psikologia dinamikoarekiko interesa, nortasunaren psikologiaren azterketan psikologia esperimentalak ahaleginik ez agertzearekin batera gertatu da. Historiari begiratuta, Binet (1903) izan zen kasu indibidualen azterketa sakonera metodologia esperimentalez dedikatu zena, baina, nahiz eta funtzio intelektualen soslaietatik begiratu nortasuna, estilo kognitiboek buruzko lanak ez dira bere lanetik eratorri. Psikologia esperimentalak ere ez zion ekarpen handirik egin nortasunaren psikologiaren garapenari, aipatu arrazoiengatik. Halaz guztiz ere, Hull-ek, «ikaskuntzaren psikologia mediazionalaren» formulazioan «drive» kontzeptu dinamikoa erabili zuen, «premia fisiologikoen propietate motibazionala» bezala definituz, eta geroago, gainera, barne edo kanpoko estimulazio guztiak, behar beste intentsioak baziren, «drive» bihur zitezkeela pentsatu zen. Halaz guztiz ere, bai drive kontzeptua bai «aztura» kontzeptua, estimulu-erantzunaren elkarketa indarra esplikatzeke erabiliak, gutxi erabili dira nortasunaren psikologian,

ikaskuntzarako beharrezko den faktore energetiko soil bezala geldituz, baina jokaera helburu konkretuetara orientatzen ez duena bezala. Edonola ere, kontzeptu hau berriro hartua izan zen, eta Taylor-ek (1953) galdekizunez garatu zuen «larritasun» mailaren edo erreaktibitate mailaren ebaluapenaren oinarrian dago.

Bidenabar bakarrik, nortasunaren teoria konduktualak bergidatzeko entseiu laudagarri bat aipatuko dugu: kontzepzio psikoanalitikoak enpirikoki oinarritzen saiatu ziren Dollard eta Miller-ek protagonizatua, hain zuzen ere. Erantzun-estimulu harremanen terminotan nózio freudiarrak berdefinitzen saiatu ziren, baina lan honek ez zuen bildu beren ahaleginak merezi izan zuen emaitzik.

Orokorrean, teoria konduktualek porrota jasotzen dute nortasunaren teoriak garatzeko orduan, eta hori arrazoi askorengatik. Lehenik, ikaskuntzaren teoriak elementu sinpleegiak hartzen dituztelako. Bigarrenik, diferentzia indibidualez interesatzen ez direlako; eta, hirugarrenik, jokaeraren elementu iraunkor eta orokorren garrantzia guttitzen dutelako. Edozein modutara, teoria bion hurbilketak ez dirudi uztarrezina izan behar duenik, baizik ikerketen berehalako inperatiboen eta emaitz azkarrak lortzeko premiaren emaitza. «Kontrol locus-aren» teoria (Rotter, 1966), jokaerak aurreratzeko «estilo kognitiboak» erabili behar dituen «konduktismo kognitiboaren» konjugazioaren adibide on bat da.

Hurbilketa biok «nortasunaren psikologia kognitibo» baten agerpena eskaintzen eta ahalbidetzen dute; teoria horiek, jatorriz psikodinamikoak diren elementuak bildu eta ikuspegi kontrastatzaileago bat ematen diete.

9.4. TEORIA PSIKOANALITIKOA ETA ALDAGAI KOGNITIBOAK

Teoria psikoanalitikoak ikusia dugu. Aldagai kognitiboekin erlazioan, hiru eraikuntz psikoanalitiko interesatzen zaizkigu: bulkadarena, gatazkarena eta defentsa mekanismoena.

Psikoanalisiaren arabera, jokaeraren jatorrian bulkada dago. Oinarri biologikoa du eta ezin daiteke ezabatua izan: zuzenki asebetetzen da edo beste objektu egokiago edo desegokiago baterantz orientatzen da. Eskuar-ki, prozesu hau ez da arazo gabe gertatzen; bulkaden eta haien adierazpidea bideratzen edo eragozten duten indarren artean gatazka ugari sorrarazten dute. Gatazka, beraz, bermatua dago, eta gizakiari berezkoa zaio, modu desberdinetan gara daitekeelarik. Gatazkak desberdinak izan daitezke: bulkaden artekoak, instantzien artekoak (sexualitatearen eta galerazpen sozialen artekoak), instantzien barnekoak (ni idealaren eta niaren idealaren artekoak). Gainera, niaren desantolaketa baten aztarna bezala, gatazkak larritasuna eta angustia sortzen du, eta bere efektuak defentsa mekanismo ezberdinek mugatzen dituzte. Mekanismo horietako orokorre-na, bizitza inkonzientearen sorreran dagoen «errepresioa» da.

Hiru kontzeptu hauetatik abiatuz eta psikanalisiak deskribatzen dituen garapen etapetan zehar, nortasunaren egitura indibiduala nola eratzen den uler dezakegu; egitura hori jokaeraren azpian gordeta dago, jokaeraren zergatia eta egonkor samarra izango da; horregatik, psikoanalistek nahia-go dute «karaktere» hitza erabili, «nortasunaren» ordeztuz, behin eratuta gero aldaketa gutxi jasaten dituen «niaren moldaeraren ohiko moduen» (Fenichel) kristalizazioaren ideia sustatzeko.

Psikoanalistek sarritan proposatu izan dituzte karaktereen tipologiak, jokaera eta nahasteen eragile diren nortasunaren egituraren eta bereizgarri batzuen arteko harremana esplikatzen nahirik.

Psikanalisiak jaso duen kritika nagusia, darabiltzan kontzeptu konplexuen eta esplikatzen nahi dituen gertakari behagarrien arteko harreman garbirik ezari dagokiona da. Intuizio klinikoak kontuan hartzekoa dirudi, baina datuak ez dira metodologia kontrastagarri batez biltzen, baizik «begi kliniko», horrek dakartzan muga guztiekin.

Baina, bestalde, teoria psikoanalitikoaren teoria bat baldin bada ere, nahikoa espazio uzten du, errepresentazio mentala, ametsen interpretazioa, oroitzapenen deformazio eta ahanzteak, arreta etab. bezalako aldagai kognitiboak sartzeko. Bi pentsamendu mota bereiztera heltzen da: prozesu primarioa eta prozesu sekundarioa. Lehena, pentsamendu irrazionalak definitzen du, atsegin printzipioaren arabera gidatzen da eta bizitza inkonzientea dominatzen du; bigarrena, pentsamendu razionalak eta realitatearen printzipioaren arabera gidatzen da, funtzio psikologiko klasikoak biltzen ditu. Hala ere, bi-biak bigarren planuan daude, beren jatorrian dauden bulkaden zerbitzura. Psikoanalisian, premien asebetetze gabeziatik sortzen da jarduera kognitiboa; eta, objekturik ezean, hondakin egoeran aurkitzen da ametsetan, sintoma neurotikotetan, fantasietan etab. Bulkadak, pentsamendua sortzeko energia ematen dituzte, eragiketa mentalen egituraren jatorrian ere aurkitzen dira.

Psikoanalisiaren eta kognitibismoaren artean giltzarri eta zubi kontsidera litekeen autore bat R. B. Cattell da. Alde batetik, «kezka» psikoanalitikoak biltzen ditu, eta bestaldetik, neurketa eta objektibitate premia. Hiru berezitasun mota bereizten ditu:

- a) Berezitasun dinamikoak
- b) Gaitasun berezitasunak
- c) Tenperamentu berezitasunak

Berezitasun dinamikoek jokaeraren intentsitatea eta helburu batzuetarantzko orientazioa biltzen dute. Bigarrenak, helburu horiek lortzeko jokaerak duen eraginkortasuna adierazten dute. Hirugarrenak, jokaeraren forma eta estiloan zentratzen dira. Situazio jakin batean, jokaera-erantzun konkretuek hiru berezitasun tipo horien konbinaketatik dependitzen dute; berezitasun horiek, situazioetatik dependituz, garrantzi desberdina dute eta subjektuak elkarrengandik bereizi ere egiten dituzte.

Cattell-en nortasunaren teoria da maila psikometrikoan eta faktorialean garatuenetakoa. Freud-en eragina nabarmena da Cattell-engan, ez bakarrik terminologiaren erabileragatik, baizik baita ere behaketen interpretazioan kontzeptu dinamikoen erabileragatik. Baina, Cattell-ek ez du pentsatzen metodo klinikoak ezagutza zientifikoa ahalbidetu dezakeenik; horregatik, metodo multibariatuak eta batez ere analisi faktoriala proposatzen ditu; adibidez, analisi faktoriala, «p» teknikarekin, subjektu berbera situazio ugarian eta une desberdinetan aztertzeke eta «psikoanalisi koantitatibo» bat ahaleztatzeke.

Cattell-ek motibaziozko berezitasunen bi tipo bereizten ditu: ergioak, oinarri pultsionala dutenak, eta sentimenduak, sozialki landuagoak direnak, baina osagai bulkadatsu indartsua dutenak. Metodologia multibariatu bat erabiliz, 70 situazio oso barreiatuak aukeratu zituen, haietan motibazioaren indarra aztertzeke; analisi faktorialez bost osagai atera zituen; bost horietatik hiru, psikoanalisiako nortasunaren egiturarekin zuzenki erlazionatuak zeuden (Zera, Nia, Supernia), eta beste biak errepresio eta energia fisiologikoaren kontzeptu psikoanalitikoetara loturik. Guzti horretatik ondoriora dezakegu, psikoanalisiatik independente izan arren, hau izan zela Cattell-en teoriaren oinarri orientatiboa.

Bulkadaren aspektuaz gain, gaitasun kognitiboen eta tenperamentalen aldagaiei egiten zaien erreferentzia garrantzitsua da Cattell-en teorian; gaitasun horiek, psikoanalisian giltzarri den gatazkaren kontzeptuaren eremutik aske daude.

Psikoanalisiaren barnean ere, psikoanalista disidente ospetsuen eskuetik, «gatazka-bulkada» bikotearen liberalizazio bat gertatu da, eta «Niaren Psikologia» («*ego-psychology*») deituriko korrante bat sortu da, eremu eta funtzio independente batzuen alde egin duena. Funtzio hauek izaera perzeptibo, mugimenezko eta intelektualekoak izan behar dute, eta haien garapenean gatazkak ez du tokirik. Honek, perzepzioa, intentzioa, pentsamendua eta hizkuntza bezalako kontzeptuak aztertzea ahalbidetuko du, haien garapenean gatazka kontutan hartu gabe. Funtzio hauek dira psikologo esperimentalek tradizionalki aztertu dituztenak. Korrante honetako autore ezagunenak, Hartmann, Kris, Loewenstein, Rapaport eta Erikson dira.

«Niaren Psikologiaren» jatorria psikoanalisian aurkitzen da, baina haren garrantzi independentea egiten da, psikologia kognitiboaren iturri garrantzitsuetakoa bihurtuz. Hasteko, «nia» ez da «superniarekin» eta errealitatearekin erlazioan «zerarengandik» bereizten den zerbait, baizik perzepzioaren, mugikortasunaren, moldaeraren eta abarren eremuan funtzio autonomoak dituen entitate bat. Arreta gune nagusi izateari uzten dio gatazkak eta haren tokia garapen psikosexualak eta psikosozialak hartzen du. Beraz, motibazioak beste aldagaiek duten estatus bera edukiko du, eta aldagai kognitiboak indar bereziz kontsideratuko dira. Orain ez da bulkadaren intentsitatea bakarrik interesatzen, baizik baita bere esanahi funtzio-

nala, balio kognitiboak, positiboak eta negatiboak, haren errepresentazio subjektibo eta barnekoa etab.

Niaren Psikologiak «estilo kognitiboei» buruzko azterketa esperimental ugari inspiratu ditu. Aztertu den lehen kontzeptuetako bat «perzepzioarena» da. Freud-en hitzetan, «perzepzioa niari zaio, instintua edo bulkada zerari zaiona». Ingurunerako moldaera guztiek aurretiko informazio bilketa bat suposatzen dute; informazio bilketa hori motibapenak eta premiak arartekotzen dute; baina perzepzioak eta niaren kognizioak lantzen dute. Motibazioaren eta perzepzioaren artean bada atzeraelikadura bat, estimuluak anbiguoak direnean edo beren aurkezpen denbora laburra denean argitzen dena. Perzepzioa, Klein-en hitzetan, ekintza kognitibo moldakor bat da, pertsonaren motibazioan eta intenzionalitatean sustraitua (inguru-nearen aurrean).

Hemendik sortzen da «kontrol kognitiboen» nozioa sartu beharra; premiek perzepzioaren gain dituzten efektu desantolatzaileak bideratzen eta gutxitzen dituzten egiturak dira «kontrol kognitiboak». Zentzun honetan, defentsa mekanismoak bezala dira, baina zerarekin erlazionaturik egon ordez, beren funtzioak niarengan inkluituak daude. Beraz, perzepzioak premietatik eta kontrol kognitiboetatik dependitu behar du aldi berean.

Kontrol kognitiboak dimentsio bezala kontzeptualizatuak dira; dimentsio horiek jaiotzetikakoak dira eta horietatik abiatuz, subjektuak modu egonkorrean bereiz daitezke. «Kontrol» hitza «estiloaren» sinonimo bezala erabiltzen bada ere, estiloak kontrolen antolamendu bezala definitzen dira eskuarki.

Nagusiki, sei kontrol kognitibo bereizi dira:

1. *Errealismo gutxiko esperientziei tolerantzia*: errealitatetik ezberdin direla badakigun perzepzioak onartzeko erraztasun handiago edo txikiagoa. Ilusioari erresistentzia bezala, phi fenomenoari sentiberatasuna (bi argi dizdiraren ordez bat bakarra ikustean datza, bi estimulazioen arteko denboratartea laburtzen denean) bezala neurtzen da. Subjektu tolerantzaileenak, Rorschach-en originalagoak agertzen dira: gehiagotan hautematen dute mugimendua besteek baino.

2. *Kategorizaketa edo bereizketa kontzetualean zorrozketak*: objektuak libreki sailkatzerakoan finkatzen den mota edo kategoria kopurua. Kategoria asko darabiltzaten subjektuak ez dira oso irudimentsuak: Rorschach-en laminen interpretazioetan, deskribapen soilera mugatzen dira.

3. *Kontrol hertsia edo malgua*: ohiko erantzunak inhibitzeko gaitasun handiago edo txikiagoa. «Stroop-en testaren» bidez neurtzen da dimentsio hau. Hitzak izendatzen duen koloretik ezberdina den kolore batetan inprimaturiko izenak aurkezten zaizkie subjektuei («gorri» hitza berdez inprimaturik egon daiteke, adibidez); eskuarki, koloreaz arduratu gabe irakurtzen dira hitzak, baina test honetan kolorea da izendatu behar dena. Subjektu «malguengan», koloreak izendatzeko beharrezkoa den denbora

ez da asko bereizten koloreen izenak irakurtzeko behar den denboratik; denbora hori askoz luzeagoa da subjektu «hertsengan».

4. *Nibelaketa-zorrozketa*: denborazko sekuentzia baten buruan subjektuak aldaketa txikiak tratatzeko duen moduz ari da: diferentzia horiek ez dira ikusten, perzeptio berria aurreikoari asimilatuz, edo, alderantziz, azpimarratu egiten dira, perzeptio berria aurrekoarekin kontrastatu egiten da. «Eskematizazio testaren» bidez, tamainu hazkorreko irudi geometrikoen perimetroaren estimazioz ebaluatzen da. «Zorroztaileen» estimazioek agudo egiten dute aurrera, «nibelatzaileenek» berriz, astiro.

5. *Esplorazioen hedapena*: estimuluen eta ideien gain arreta zenbateraino fokatzen den neurtzen du. Ideia bat besteetatik eta laguntzen dioten efektuetatik bereiztean datzan isolamenduaren defentsa mekanismoarekiko analogiaz proposatu zen. Zirkulu ereduaren berdina bihurtu bitartean subjektu batek zirkulu baten diametroa nola aldatzen duen analizatuz ebaluatzen da. Ereduen gehiegizko estimazioa, zentratze perzeptiboaren ondorena da. Beren arreta gehiago banatzen duten subjektuek doiketa hobekak egiten dituzte.

6. *Eremuaren artikulazioa*: arreta selektiboki orientatzeko eta egin beharreko ariketa bati ez dagozkion perzeptioak neutralizatu ahal izateko gaitasun handiagoak edo txikiagoak definitzen du. Dimentsio hau ebaluatzeko, irudi izkutuen frogetako errendimentuari edo Delboeuf-en zirkulu konzentrikoen ilusioarekiko sentikortasunari begiratzen zaio.

Sei dimentsio horietaz gain, beste bi gehiago ere hartu izan dira kontrol kognitibo bezala:

7. *Kontrastearekiko sentiberatasuna*: aldeberean aurkezturik bi luzera diskriminatzeko gaitasuna.

8. *Perzeptuei bereizgarri emozional espresiboak egozteko gaitasuna*: norberak edo besteek marraztutako lerroei sentimenduak egoztetik ebaluatua.

Onar liteke, hasieran egon zela kontzeptu psikoanalitikoaren eta kontrol kognitiboaren arteko elkarreragin eta asimilazio bat, batez ere «defentsa mekanismoekin». Hartmann-entzat, defentsa mekanismoek eta moldaera mekanismoek «niaren defentsatan» dute jatorria; defentsa horiek, berriz, kontrol kognitiboetara asimila daitezke. Defentsa eta kontrolen artean korrespondentziak daude beraz. Analogiak daude kontrolen eta defentsen artean: «errepresioaren» eta «nibelaketaren» artean, «isolamenduaren» eta «esplorazioen hedaketaren» artean, «proiektzioaren» eta «eremuko artikulazioaren» artean. Analogia soilak baino zerbait gehiago zirela ikusi da. Defentsen aukeraketaren eta kontrol kognitiboaren artean korrelazioak daudela ikusi zen.

Psikoanaliaren piskanakako beheraldiarekin, eremu ezberdinetako mikroteoriekin elkartz gogoratzen dira kontrol kognitiboak; horrela, «bereizkuntza kontzeptuala», «kategorizazio estiloek» buruzko azterketetan agertzen da, «errealismo gutxiko esperientziei buruzko tolerantzia», «sor-

menaren» azterketetan, «hertsi-malgu» kontrola, «zurruntasunari» buruzko lanetan, eta «eremuko artikulazioa», «eremutik dependentzia-independenziari» buruzko azterketetan. Kontrol kognitiboek, beraz, psikoanali-siaren defentsa mekanismoen eta egungo nortasunaren teoriaren estilo kognitiboaren arteko zubia eraikitzen dute. Hala ere, prozesua ez zen posible izango nortasunaren beste teoriaren lankidetzarik gabe.

Ikus dezagun orain zein izan den teoriarik garrantzitsuenetako batzuen ekarpena, nortasunaren psikologia kognitiboa ulertzeko.

9.5. NORTASUNAREN PSIKOLOGIA KOGNITIBOAN IKUSPEGI FENOMENOLOGIKOA

Korrante humanistak edo fenomenologikoak hiru ideia nagusietan al-dentzen dira jarrera psikoanalitikotik: motibazioa, inkonzientea eta deter-minismoa. Ez zaie iruditzen bulkadak eta premia biologikoak direnik giza jokaera esplikatzeko arrazoi bakarrak, ez eta ere arrazoi nagusiak. Alde-rantziz, predeterminismo biologiko edo situazionaletik urrun, giza premia nagusiak gizabanakoaren autohazkuntzari eta garapen pertsonalari dagoz-kionak dira. Inkonzienteari dagokionez, haren existentzia ez da ukatzen, baina haren garrantzia gutxitzen da; pentsatzen da, bizitza konzientean eta autokontzientzian datzala gizakiaren benetako arrazoa. Gizakiaren ikus-kerak positiboa da: «aktualizaziorantz» etengabeko hazkuntzan dago; «ak-tualizazioa» da jokaeraren benetako jatorria, eta pertsonaren potentzialita-teen garapen integroan datza nagusiki. Giza nortasuna, elementu ezberdinen integrazio joeragatik eratzen da, gatazkagatik edo desintegra-zioagatik baino gehiago; azken hauek, eremu klinikotik datozen elemen-tuak izango lirarteke, nortasun normalaren eremutik datozenak baino gehiago.

Psikologia fenomenologikoak, pertsonaren errepresentazio mental «konzienteen» azterketarekiko interesa bultzatu zuen, errepresentazio ho-rietan ezarriz jokaeraren batasuna, eta teoria konkretu desberdinen bidez (batez ere G.A. Kelly-ren teoriaren bidez) pertsonaren psikologia kogniti-bo diferentzialaren garapena sustatu zuen.

Bitarteko aldagaien ideia lehenengo aldiz sartu zuena Tolman izan zen. Erantzunak ez dituzte estimuluek determinatzen zuzenki, baizik esti-muluen errepresentazio mentalek. Gestaltistek, haien artean Lewin-ek, kontzeptu hau berrartu zuten eta globalki kontsideratu zuten, bere erlazio guztiekin. Psikoanalistek proposaturiko jokaeraren azalpenak (premiak) eta konduktismoak proposaturikoak (estimuluak) baztertzan ditu Lewin-ek, psikologiko soilak diren zergatien planu bat zedarritu nahiz. Beste ges-taltistekin batera, garaiko atomismoa baztertu eta beren harreman errezi-prokoan kontsideratzen ditu gertakariak. Jokaera, unean uneko errealtate psikologikoak orientatzen du, «indar psikologikoen eremu batek, «bizitz

espazioak». Bizitz espazioak, pertsona eta haren ingurunea biltzen ditu. Pertsona eta pertsonak inguruneaz dagien errepresentazio mentala biltzen du «bizitz espazioak». Errepresentazio mental horretan elementu aktualak eta elementu aurrealeak sartzen dira: ezagutzak, desirak, igurikapenak.

«Bizitz espazioa» eskualdetan zatitua dago, iragazkortasun gehiagoz edo gutxiagoz komunika daitezkeen eskualdetan zatitua. Eskualdeen iragazkortasunaren nozio hau gogamen zurruntasunaren bidez definitu da operazionalki. Kanpoko estimuluek eta premiek egituratzen dute bizitz espazioa. Bizitz espazio elementuek «balentziak» dituzte eta beraien artean «tirabirak» sortzen dira. Pertsonaren bizitz espazio bakoitzeko «balentziatik» eratoritako «tirabirak» jardueraren bidez gutxitzen dira. Dakusagun bezala, kontzeptu energetikoak dira nagusi Lewin-engan, eta bere teoriak hedadura handia hartu ez bazuen ere, haren kontzeptuetako batzuk bildu eta kognitibismoaren oinarri izan ziren nortasunaren arloan. Konkretuki, estimuluek eta premiek, «eremu psikologikoaren» zati diren neurrian bakarrik eskuhartzen dutela jokaeran pentsatzea, hau da, bere errepresentazioaren propietateen funtzioan bakarrik eskuhartzen dutela jokaeran pentsatzea, «lorpen premiari» buruzko lanetan eta «kontrol locus-ari» buruzko ikerketetan jasoa dago.

«Lorpen premiaren» ideiak, lehiaketa batetan jomuga lortzeko aspirazio bezala definituak, emaitz ugari eman zituen mendebaldeko kultura bezalako gizarte lehiakor batetan. Atkinosn-en «motibazioaren teoriarekin» bateratu zen, bi premia kontutan hartuz: arrakasta entseiatzera bultzatzen duen lorpen premia eta jarduera gabeziara bultzatzen duen porrota ekiditeko premia. Lehenak ekitera darama subjektua; bigarrenak, aktibitate gabeziara. Porrota ekiditeko premia, larritasun eskalen bidez neurtzen da (Taylor-en MAS-aren bidez, bereziki). Baina, jokaera ez dute bi premia hauek bakarrik sortarazten, errepresentazioei dagozkien aldagaiak ere eskuhartzen dute Atkinson-en teorian. Bietako baten nagusigoak, beste aldagai batzuen eskuhartzetik dependitzen du; aldagai horiek, arrakasta edo porrota edukitzeko ebaluapenari buruzkoak dira. Aldagai kognitiboak bereganatu ditu beraz.

«Kontrol locusaren» arabera, «kanpo kontrola-barne kontrola» dimentsio continuumean sailkatzen dira subjektuak. Barne kontrolekoak, gertatzen zaienak beren ekintzetatik dependitzen duen sentimendua du; kanpo kontrolekoak, gertatzen zaienak azaretik edo beren kontrolari ihes dagoen kanpo faktoreetatik dependitzen duela sentitzen du.

Rotter-ek (1966) garatu dituen lan hauek ikaskuntzaren psikologiaren esparuan sortu dira. Rotter, ikaskuntzan errefortzuak duen eginkizunaz arduratu zen. Errefortzuaren efektua desberdina da Rotter-entzat: bere jokaeraren eta errefortzuaren lorkuntzaren artean zergati-lotura ezartzetik edo ez ezartzetik dependitzen du. Subjektuak errefortzuari egozten dion baloretik, eta bere jokaeraren eta errefortzuaren arteko erlaziotik dependitzen du. Beren jardueraren eta errefortzuaren artean inolako loturarik ez

dagoela pentsatzen dutenean, gutxiago aldatzen dute beren igurikapena aurretiko esperientziaren funtzioan, bizkortasun gutxiagoz ikasten dute, baino hobeto oroitzen dira. Beste ondoren bat, situazioari buruzko kontrol gabeziak, larritasun maila nabarmenki gehitzen duela da.

Dimentsio hau nortasunaren bereizgarriekin erlazionatua dago. «Kanpo subjektuak» sarritan larrituagoak, oldarkoiagoak eta dogmatikoagoak dira; «barne subjektuek», aldiz, konfiantza gehiago dute beren buruengan eta txikiagoa da beren onarpen sozialaren premia.

Aldagai kognitibo interesgarrienen artean «norbera» (selfa) nabarmentzen da. Rogers da hemen aipatu beharreko autorea. Existentialisten eraginaren ondorioz, subjektuaren ideia nagusia, «nia» ezagutzera eta onartzera ailegatzea dela pentsatzen du; niak etengabe eboluzionatzen badu ere, bere autokontzientzia iraunkor mantentzen dela aldaketa ugari-tan zehar. Nortasunaz hitzeging ahal izateko beharrezkoa den koherentzia kognitiboaren printzipioa sartzen da honela.

Aipa ditzakegun teoria indibidualisten artean, G.A. Kelly-rena prekognitibista bezala har dezakegu. Oinarrizko postulatu bat du: «Gizabanako baten jokaera, gertaerak auresateko moduak psikologikoki orientatzen du». Subjektu guztiek zientzilariek bezala jokutzen dute, auresaten saiatuz; horretarako, «hipotesien kontrastaziorako metodo» bera erabiltzen dute, nahiz eta datu eta eraikuntza desberdinekin; teoria zientifiko desberdinak dauden bezalaxe, gizakiek ere beren esperientzia eta gaitasunen arabera eraikuntza desberdinak erabiltzen dituzte, auresatera heltzeko. Eraikuntza edo errepresentazio kognitibo hauek giza ingurune hurbilean zentratzen dira nagusiki, subjektuak pertsonalizatzen baditu ere.

Subjektuen errepresentazio kognitiboaren dimentsio bezala definitzen dira eraikuntzak. Eraikuntzek, hedadura, iragazkortasuna eta egonkortasuna bezalako propietate sail bat eduki dezakete; propietate horiek dituzten neurrian hierarkiza daitezke, beraz. Subjektu bakoitza bere igurikapen sistema propioaren eta bere auresate gaitasunaren arabera bereiz dezakegu, bere errepresentazio sisteman integraturik dauden eraikuntzen kantitate eta kalitatearen arabera. Erlatiboki egonkorra den sistema hori, objektu edo gertaera multzo baten aurrean jartzen da martxan. Gizabanako baten nortasuna definitzeko, errepresentazio kognitiboaren sistemaren funtzioan egin daiteke, iraunkor samarra eta koherentea baita.

Kelly-ren arabera, gizabanakoa ez da bere premia eta bulkaden funtzioan garatzen, organismoak duen propietate baten funtzioan baizik: organismoak «estimuluak antolatu behar ditu, ondorenak auresateko». Errealitateko gertakariak esplikatuz eta auresatean, norberaren eraikuntza sistema egiaztatzea, sari material bat jasotzea baino errefortzatzaileagoa eta positiboagoa da subjektuarentzat. Kelly-rekin, beraz, psikologia indibidual bat garatzen da, ikuspegi diferentziala bereganatzeko modukoa, eta estilo kognitibo desberdinak definitzeko serbi dezakeena.

Geroago, parametririk garrantzitsuenetako bat, «*sinpletasun-komplexutasun kognitiboaren*» dimentsioari dagokiona dela pentsatu zen (Bieri, 1966) (Huteau, 1989); erabiltzen diren eraikuntzen bariedade handiagoak edo txikiagoak definitzen du dimentsio hori, eta jokaeraren batasuna esplikatzen duen neurrian, nortasunaren dimentsio bezala kontsidera liteke. Subjektu «konplexuenek», «sinpleenek» baino gaitasun handiagoak dituztela besteen jokaera auresaterakoan, kontraesanezko informazioa hobeto toleratzen dutela eta ezaugarri neurotikoen sarritasun handiagoa dutela aurkitu da.

Bestalde, eraikuntzak antolatzeko entseiu batean (Harvey eta besteak, 1961) (Huteau, 1989), «*sistema kontzeptualen teoria*» proposatu zen. Teoria horrek psikologia kognitiboaren korranteak elkartu nahi izan zituen, batez ere funtzionamendu intelektualarekin erlazionatzen direnak eta autoritarismo nahiz dogmatismoarekin erlazionatuak. Gizabanakoari bere ingurunea atxemaitea baimentzen dioten dimentsioen multzo bat bezala eta dimentsio horien kohesioa ahalbidetzen duten arauak bezala definitzen dute «egitura kontzeptuala». Kontzeptu edo eraikuntza desberdinak diskriminatzea edo kohesionatzea baimentzen duen jarduera bikoitzetik («bereiztea» eta «integratzea») dependitzen du. Egitura kontzeptualak, «abstraktu-konkretu» jarraipen batean kokatuak egongo dira, darabiltzaten eraikuntza kopuruaren eta haien erabilpenerako arauen konplexitatearen arabera. Gizabanakoaren konplexutasun mailaren ezagutzak, sektore ezberdinetan izango duen jokaera auresatea erraztuko du. Konstatatu ahal izan denez, subjektu «abstraktuengandik» datozen judizio ebaluatzaileak, subjektu «konkretuengandik» datozenak baino moderatuagoak dira; konkretuenak azentuatuagoak dira, positibo edo negatibo izatetik independenteki.

Prozesu guzti honetan ikus daitekeenez, jatorri klinikoko teoriak kognitibizatu egiten dira eta beren balidezia praktika eta ikerketarekin kontrastatzen saiatzen dira; aldi beran, aldagai dinamiko edo fenomenologikoak piskanaka aldagai kognitiboez ordezkatzeko joaten dira. Adibide bezala, autoritarismoari eta pentsamendu dogmatikoari buruzko ikerketetan gertatu denak serbi lezake.

9.5.1. Autoritarismoa eta pentsamendu dogmatikoa

Hiru momentutatik iragan dira jarrera autoritario eta dogmatikoei buruzko ikerketak. Lehen momentuan, bulkaden dinamikaz esplikatzen dira, Adornoren lanetan garatu den ikuspegi psikodinamiko batetatik. Geroago, gatazka pultsionaletik eratorritako bereizgarri kognitibo autonomoagoek definitzen dute autoritarismoa: «niaren psikologiaren» esparruan aztertutako «anbiguotasunarekiko intolerantzia» eta «zurruntasun mentala» bezalakoek. Azkenik, Rokeach-ek modu kognitibo soilean de-

finitu zituen kontzeptuok, «sistema errepresentatzailearen egitura» bezala karakterizatuz.

Esparru honetan garatzen den lehen kontzeptua «nortasun autoritarioarena» da. Nazismoaren biktima ziren alemaniar autore batzuek, fenomeno honen zergatiak galde egin zuten. Oihartzun psikologikoak dituen azalpen soziologiko posible bat honako hau da: sistema ekonomiko kapitalistak askatasuna eta independentzia ematen du, baina subjektuak isolatzen ditu; isolamendu egoera horetan, ez daki bere askatasunarekin zer egin eta larritasun egoera batetan sartzen da; oreka aurkitzeko, subjektu horiek zer-baitetan «sinestu» beharra dute, eta agintzen dagoen autoritate sozialari atxekitzen zaizkio, horrek ziurtasuna ematen baitie, aldi berean menpeko-tu egiten baditu ere.

Geroago, hausnarketa soziopolitiko hauek ahaztu eta gurasoen hezkuntz praktiketan eta nortasunaren eraketan jokatzeko funtzioan zentratzen dira. Bulkada oldarkoein desplazamendu bat gertatzen dela pentsatzen dute; bulkada horiek aitarengana zuzendu ezin izatean, momentu historiko bakoitzean egokienak izan daitezkeen txibo expiatorioengana zuzentzen dira (juduak, beltzak, gutxiengo etnikoak, turko-buruak etab.), «biktimaren funtzio soziala» deienez betetzen baitute horiek, hau da, bakoitzak duen posizio sozial eta hierarkikoan autobaiezta-tzearena.

Interpretazio guzti hauek tresna psikologiko desberdinez, eskuarki egituratu gabe, balioztatzeak entseiuak egin izan dira. Horrela, «F eskala» (faszismo eskala) ospetsua eratu zen, nortasunaren neurri bezala; eskala horrek, «izkutuko joerak» atxeman nahi zituen eta «sindrome autoritario» deituaren bederatzi sintoma definitzera heltzen zen. Horien artean nabarmentzen direnak: «agintearekiko eta gizarteko arau nagusiekiko atxekimendu zurruna», «beste kulturen bazterketa», «joera paranoikoak eta superstiziosoak», «puritanismo sexuala», besteen artean. Teoria psiko-analitikotik kontsideratzen da, subjektu autoritarioek «superni zorrotz eta zurruna» dutela, «zera» indartsu batekin eta «ni» ahul batekin. Edozein modutara ere, zeraren bulkada oldarkoak, eta «zurruntasun mentalaren eta anbiguotasunarekiko eraman ezinaren» osagai kognitiboak ulertzea beharrezkoa da, nortasun autoritarioa ulertzeko. Osagai biak, gatazka jakin batzuek sortarazten duten larritasuna gutxitzeko jarrera bezala sortzen dira. Anbiguotasunarekiko eraman ezina, simetriarekiko, ezagunarekiko, ongi definituarekiko, soluziobide eskematikoekiko, dikotomien erabilera-rako gehiegizko preferentziaz agertzen da. Situazio autokinetikoan ebaluatu da anbiguotasunarekiko eraman ezin hau: subjektu intoleranteen erantzunak azkarrago egonkortzen dira. Autoritatedun irudiekiko erasoaren galerazpena larritasun iturri da. Larritasun hori gehiegizkoa izan ez dadin, larritasuna gehi dezaketen esperientzia eta gertakariak kontzientziaz at baztertzeko joera garatzen du subjektuak. Jarrera horien generalizazio bat izango litzateke zurruntasuna.

Adorno eta lankideek, «eskuindarren» autoritarismoa aztertu zuten batez ere. Rokeach-ek nahiago du «dogmatismoaz» hitzegin, «autoritarismoaz» baino areago, inolako ideologia politikori lotu gabe. Edozein modutara ere, edukin konkretuetatik independenteki agertzen den bereizgarri pertsonal bat da dogmatismoa, eta errepresentazio mental baten propietateek definitzen dute; subjektuak onartzen eta baztertzen dituen ideiez osaturiko «sinesteen sistema» batek osatuko du errepresentazio mental hori. Orokorrean, sineste sistemak dimentsionaliza daitezke, aldaketa edo sineste berriak onartzearen («irekiak») edo ez onartzearen («itxiak») arabera. Rokeach-entzat, jatorria bulkadetatikoa izanik ere, jarrera dogmatikoa, aldagai kognitibo bezala, autonomia maila garaia du, eragiketa mentalez eta errepresentazioez ere esplikatzeko delarik.

9.6. PSIKOLOGIA KOGNITIBOA, NORTASUNAREN PSIKOLOGIAREN AURREZ AURRE

Nortasunaren teoriak aspektu motibazionaletik kognitiboetara eboluzionatzen joan ziren aldi berean, zorrotzagoak bihurtzen ere joan ziren, auresate gaitasun gehiagoren bila, eta estilo kliniko batetik estilo aktuarialago batetara eboluzionatu zuten, diagnostikoaren eta aldagaien ebaluapenaren ikuspegitik.

Alderantzizko hurbilketa ere gertatzen da. Psikologia kognitiboa, oinarrizko prozesuen (perzeptioa, arreta, oroimena) azterketarekin, eta informazioaren trataera eta prozesaketaren osagaiak aztertuz garatu zen. Hasierean, oinarrizko prozesu orokorrak aztertzea bakarrik interesatzen zitzaion, baina gerora angelu bereiztaileago batetik aztertu zituen prozesuok, aldagai ugariarekin zuten harremana ikertuz, eta batez ere jokaera sozioafektiboen aldagaiekin zuten harremana aztertzen hasi zen. Guzti horrengatik, bi iker-lerroen arteko hurbilketa bat konstata liteke.

Bitarteko aldagaien sarrerak, subjektuaren ikuskera aldatu egiten du: informazioari zuzenki erantzuten dion dispositibo bezala ulertzetik, informazioa sinboluen bidez interpretatzen eta aldatzen duen subjektu bezala ulertzera. Interesa, berriro ere, jokaera behagarritik barne prozesuetara eta kogniziora desplazatzen da. Neisser-ek (1967), honela definitu zuen kognizioa: «Sentimen sarrerak antzaldatu, kodifikatu, landu, pilatu, berreskuratu eta erabiltzen dituen prozesu multzoa».

E-E lotura esplikaterakoan konduktismoak iragaten duen krisi egoerak eta psikologia esperimentalaren ondoriozko berrikuntzek eredu berriak bilatzera behartzen dute, dela europar psikologian oinarriturik, dela disziplina edo teknologia berrietatik ereduak hartuz. Psikologia beraren barnean, «Gestalt teoriaren» eragin garrantzitsu bat gertatzen da, hizkuntza alemaneko psikologoak Estatu Batuetara sartzearekin, 30. hamarkadan. Teoria hau nagusiki historiko bezala kontsidera badaiteke ere, eskertzekoa da izan

zuen eragina, psikologiaren azterketa erreflexu sinpleetatik eta jokaera beharrietatik haratago zihoala kontsideratzean. Gestaltistek, jokaeratik ezberdina zen errealtate psikologiko bat aldarrikatu zuten; errealtate horretara ez dago sarrera zuzenik. Gainera, unitate esperientzialak, unitate funtzionalekin batera doaz, oinarrizko prozesu fisiologikoetan (Köhler). Gestaltistek, gainera, erreflexu sinpleak edo erreflexu kondizionatuak baino konplexuagoak eta bariatuagoak diren funtzionamoduetara jotzeko premia azpimarratu zuten. Gestaltisten eta egungo kognitibisten ikuspegiak ez datoz bat, hauen iritziz, prozesu psikologikoak ez baitira prozesu fisiologiko eta fiskoen isomorfoak. Gainera, kognitibistek leku garrantzitsua ematen diote subjektuaren jarduerari, gestaltistek berriz, orokorrean, ez zuten kontutan eduki gizabanakoaren saihets aktiboa, estrukturnala baizik.

Psikologia kognitibismorantz bultzatuko duten eraginak, ordenagailuen eta zientzia zibernetikoaren agerpenarekin sortzen dira. Zibernetikak, inteligentzia artifizialari buruzko ikerketak hasten ditu. Ordenagailuak, jarduera intelektuala simula dezakeen neurrian, subjektuaren eredu fisiko bat ematen du, eta eragiketa psikologikoak deskribatzeko hizkuntza informatikoa erabiltzen hasten dira. Inteligentzia artifizialari, simulazioari eta abarri buruzko lanek jarraitu beharreko eredu bat ematen dute eta psikologian hizkera informatikoa erabiltzen hasten dira.

Ikaskuntzaren psikologiatik psikologia kognitibora hurbilketa urratsak eman dituzten autore aitzindarietako bat, Hebb izan zen (*The organization of behavior*, 1949); printzipio neurofisiologikoak erabiliz, cortex-aren funtzionamendua esplikatu zuten mikroeredu kognitiboak aurkezten hasi zen. Aurrerago, Newell eta lankideek, *Logic Theorist*-en (1957), ariketa konplexuetan jarduera kognitiboaren simulazio egokiak emateko gai diren lehen ereduak proposatu zituzten.

Eredu berri honen eragina, aldagai eta kontzeptu guztietan sentitzen da; adibidez, motibazio ez da iadanik prozesu energetikoen bidez bakarrik ulertzen, baizik informazioaren terminotan, errepresentazioen sistemako desoreka bat bezala.

Orokorrean, aldagai kognitibo ez motibazionalak, bi motatakoak dira: egoera mentalak edo errepresentazioak eta prozesaketak. Bi tipo hauetako bakoitzak bi lerro kontzeptual orientatuko ditu psikologia kognitiboan. Inspirazio fenomenologikoa duten teoria handiek errepresentazio mentalen aldagaiak azpimarratuko dituzte; psikologia esperimentaletik sortzen diren kontzepzioak, berriz, «datuen prozesaketako» aldagaiez interesatuko dira.

9.6.1. Nortasuna eta perzepzioa

Nortasunaren psikologiarekin bat egiten duen psikologia kognitiboaren lehen esparruetako bat, perzepzioarena da. Antzinetatik ezarri zen tipologia bat, multzoa batez ere globalki hautematen zuten subjektuak, ba-

tez ere zertzeladetan fijaszen direnengandik bereizten dituen. Bere «mantxen testean» Rorschach-ek tratatu zuen dikotomia hau, gero Kretschmer-ek analizatu zuen, zikloidearen perzepzio «sintetiko», «oso azkarra eta hedatzailea dena, sakontzen ez duena baina zentzun guztietan aldi berean biderkatzen dena», eskizoidearen «analitikoari», geldiagoa eta sakonagoa denari kontrejarri zionean. Gestalt-aren teoriaren eragina eremu honetan nabaria izan da, batez ere «moldaera mailaren» eta «eremutik dependentzia-independentziaren» teoretan, eta «new-look» perzeptiboaren testuinguruan ere bai.

Moldaeraren mailaren teoriak (Helson, 1964) erreferentzia esparru bat definitzen duten barne aldagaiak darabiltza, eta gainera diferentzia indibidualak kontuan hartzen ditu. Organismoak estimuluak bere propietate dimentsionalen arabera (tamainua, intentsitatea...) ebaluatzeko gaitasuna du. Teoria horren arabera, organismoak estimulazioa ebaluatzen du, moldaera maila bat, hau da, «puntu neutro bat edo zero subjektibo bat» definituz; puntu horri erreferentzi eginez ebaluatzen dira estimuluak. Moldaera maila hori ez da subjektuaren bereizgarri bat, aurretiko eta oraingo estimuluen emaitza ertaina baizik. Teoria hau psikofisikaren eremuan sortu bazen ere, berehala hedatu zen psikologia osora: perzepzioa, problemen ebazketa, motibazioa, ikaskuntza etab. Moldaera maila, beraz, oraingo eta iraganeko estimuluen batezbesteko ponderatu bezala definitzen da, eta, beraz, nahiko kontuan hartzen du aspektu koantitatibo-dimentsionala, estrukturalari jaramonik egin gabe.

Moldaera mailaren eta nortasunaren arteko harremanei buruzko hausnarketa, hiru dimentsioetan garatu da. Lehenaren arabera, jokaeraren batasuna esplikatzeko gai diren barne disposizioak badira, baina situazioari espezifiko zaion moldaeraren mailatik dependituz agertzen dira. Zentzun honetan, teoria honen ikuspegia interakzionista da, barne disposizioak ez direla agertzen situazioari independente zaion modu batean uste baitu.

Moldaera mailaren nozioaren bigarren erabilera bat ere bada, subjektuaren propietate egonkor bihurtzen duena. Norberaren gorputzaren bereizgarrietatik ihalgitzen dira besteak epaitzeko arauak. Adibidez, besteen aspektu fisikoari buruzko epaia, ebaluatzailearen gorputzaren bereizgarriek determinatzen dutela zati batean ikusi ahal izan da; honela, norberaren larruazalaren arabera epaitzen da besteen azalaren kolorea argiago edo ilunago bezala, eta pertsona txikiek gainbaloratu egiten dute pertsona ertainen altuera.

Hirugarrenik, moldaera maila estilo kognitibo bat bezala har liteke, beste arloetan dituen korrelatoak azter litezkeelarik. Honela, subjektuek darabiltzaten estimulu ezberdinen batezbestekoaren ponderazio arau ezberdinen erabilera, gizabanakoen arteko nolabaiteko bereiztasuna konstatatu ahal izan da. Estilo kognitibo hau, «zurruntasun-malgutasun» dimentsio diferentzialetik abiatuz estimuluen asimilazioaren fenomenoak esplikatzen nahiko lukeen «nibelaketa-zorrozketa» kontrol kognitiboaren

antzekoa izango litzateke. Subjektu zurrunenek garrantzi gutxiago ematen diote informazio hurbilenari, datu zaharrenetan oinarrituz ebaluatzen baitute informazioa.

Kognitibismoa nortasunaren arloan sartzen lagundu duen bigarren teoria, «eremutik dependentzia-independentziaren» teoria da. Psikologia esperimentalaren ikerketan problema klasikoa den batetatik abiatzen da, «bertikalitatearen perzepzioetik»; espazioko orientazioa bermatzen duten bi erreferentzia sistemetako bakoitzaren eginkizuna aztertzeke bitarteko ona bezala agertzen da bertikalaren perzepzioa: ikusmen erreferentziaren sistema (gure inguruneko bertikalak eta horizontalak), eta subjektuaren jarreraren sistema (giharreetatik, tendoietatik, artikulazioetatik eta barne belarriko hartzaileetatik datozen informazioak).

Bi erreferentzia sistemen garrantzia aztertzeke, situazio esperimentalak pentsatu zituzten Witkin eta Asch-ek. Adibidez, «Barratxoaren eta markoaren frogak». Subjektuak, ilunean, barratxo argiztatu bat bertikalera doitu behar du. Barratxoa marko argiztatu batetan kokatua dago, bere aldeak bertikalak edo horizontalki orientatuak ez dituen marko argiztatu batetan.

Esperientzien emaitzen arabera egiaztatu ahal izan denez, ikusmen erreferentziak dira erabilienak, baina aldakortasun handia dago subjektu batzuegandik besteengana. Subjektu batzuegan, «ikusmen» eremua da nagusi, «ikusmen eremutik dependenteak» dira; beste batzuegan, sistema «jarrerazko propiozeptiboa» da nagusi, «ikusmen eremutik independenteak» dira. Biok, dimentsio baten bi poloak dira; anitz bitarteko puntu aurki ditzakegu dimentsio horretan. Bere bi poloek, ikusmen eta jarrera poloek definitzen duten dimentsio bat atera da horrela.

Gai hau perzepzioaren azterketarekin loturik sortu zen, baina nortasunaren ikerketa diferentzian txertatua gelditu zen. Jokaera perzeptiboaren mekanismoen azterketatik, jokaeraren elementu aldakaitz zabalak aztertzerira iragan ziren. Perzepzioaren azterketa esperimentala utzi eta nortasunaren azterketa diferentzialera iragan ziren. Dimentsio zabalago baten definizioa proposatu zen. Horren arabera, subjektuak, elementu partikular bat testuinguru oso batetan isolatzeko gaitasun gehiago edo gutxiago edukitzearen arabera bereiz zitezkeen. Estilo kognitibo batez hitzegiten ari gara: subjektuek testuinguru horiek ongi kontrolatzen dituztenean, «eremutik independenteak» dira gehienbat; aldiz, kontrol txikia badute, «eremutik dependente» dira gehienbetean. Gaitasun kognitibo handiago edo txikiago honek, subjektuaren eta ingurunearen arteko harremanak karakterizatzen dituzten funtzio psikologikoen «bereizkuntza» mailatik dependitzen du; zenbat eta kopurutsuagoak eta espezializatuagoak izan funtzio hauek, subjektua diferentziatuago dago eta kanpoko munduarekiko atxikimendu gutxiago agertzen du. Zenbat eta atxikimendu gutxiago izan kanpoko munduarekiko, subjektua are eta diferentziatuago izango da.

Eremu honetan garatu diren ikerketek jokaera perzeptibo, kognitibo, sozial eta afektiboen artean nolabaiteko koherentzia bat konstatatzea baimendu dute.

Adibidez, maila kognitiboan independenteak efektiboagoak dira «kontzeptuen formazioaren frogetan», ez baitira hain sentikorrak ariketen ebazpenerako pertinenteak ez diren elementuekiko. Aktiboagoak eta sortzaileagoak dira, beren hipotesiak egiaztatzen saiatuz, dependenteak errefortzuen kadentziaz gehiago mobilizatzen diren bitartean. Perzepzioak eta/edo errepresentazioak egituratu edo desegituratu behar diren situazioetan malguagoak agertzen dira eremutik independenteak. Adimen testetan eremutik independenteek puntuazio garaia goa ateratzen dute, desegituraketa ariketak eskatzen dituzten azpitestetan batez ere.

Gizarte arloan, dependenteek jatorri sozialeko informazioarekiko erakarpin gehiago sentitzen dute eta gizartekoitasun gehiago agertzen dute. Independenteez azalpen emotiboen kontrol handiagoa dute. Larritasuna maneiatzeko subjektu independenteek darabiltzaten defentsak, «intelektualizazioa», «isolamendua» eta «proiekzioa» bezalako prozesu kognitiboak dagozkienak dira, eremutik dependenteek «ukazioa» eta «errepresioa» bezalako defentsa sinpleak erabiltzen dituzten artean. Nahaste neurotikotant, eremutik independenteengan, joera obsesiboak eta oldarkoitasunaren kanporantzko proiekzioa gertatzen dira; dependenteengan, identitate sentimenduaren ahultasuna eta kontrol emozionalaren aldakortasun handiagoa agertzen dira.

Witkin-entzat, hezkuntz praktiketan dago eremutik dependentzi-independenziaren sorrera, taldearen arauetikiko begirunean edo norberaren autonomiarekiko begirunean oinarritzearen arabera. «Niaren» eta «Nia ez denaren» arteko bereizkuntza prozesuak ere badu zerikusia.

Perzepzioaren eremuaren barnean sortzen da «*new-look*»-aren teoria ere, faktore funtzionalen eginkizuna berrindartzen saiatzen dena. Bruner eta Postman-ek geroztik, bi determinatzaile mota bereziki dira perzepzioan: determinatzaile formalak (estimuluak berak eta estimuluen atal hartzaileak) eta determinatzaile funtzionalak (aurretiko esperientzia, premiak, jarrerak, balioak eta emozioak). «*New look*»-aren korronea sortu bitartean, perzepzioaren determinatzaile formalak aztertu ziren; determinatzaile funtzionalak, neutralizatu behar ziren bizkarroiak bezala kontsideratzen ziren. Mendeko laugarren hamarkadaren hasieran agertu ziren «*new look*» perzeptiboaren ikerketak, faktore funtzionalak aldagai independente bezala aztertuz. Korrone honek jarrera kritikoa hartu zuen formaren psikologiarekiko, subjektuaren motibazioak eta historia ahanzten zituelako. Baldintza perzeptibo anbiguotan faktore funtzionalek duten eginkizuna garbi geratu da ikerketa anitzetan. Honela, adibidez, irudi anbiguoak «objektu elikatzaile» bezala interpretatzea, gosearen arabera aldatzen da. Baina, honek ez digu baimentzen subjektuaren jokaeraren koherentzia modu egonkorrez esplikatzerik. Gosea eta egarria bezalako gabezia egoerek per-

zepzioan eragina zutela ezagutzen bazen ere, hurbilketa honen teorikoei gehiago interesatzen zaie motibapen egonkorragoen azterketa. Psikologo hauek nortasunaz arduratu direnean, motibazio egonkorren ikuspegitik egin dute, ikuspegi dinamiko klasikoan bezala. Subjektuek, adibidez, errazago errekonozitzen dituzte beren intereseekin erlazioa duten hitzak.

New-look-aren lehen egileentzat, perzepzioan eragin zuzena zuten motibaziozko aldagaiek. Baina, laster hasi ziren bitarteko prozesu kognitiboan aipamena egiten. Orduan agertu ziren nortasunaren teoria kognitiboak, batez ere Bruner eta Klein-en lanak, jokaeraren batasuna eta gizabanako arteko aldakortasuna prozesu kognitiboan arabera esplikatu.

Bruner eta Postman-entzat, hiru fase daude perzepzioan. Perzepzio aurrekoa da lehena; hemen dute eragina igurikapenek eta aurretiko informazioek; bigarren fasean, informazioa jasotzen da; azken fasean, bere hipotesiak kontrastatzen ditu: bere igurikapenen eta jasotako informazioaren arteko egokitasuna aztertzen du. Hipotesiak egiaztatzen badira, perzepto bat agertzen da kontzientziaren eremuan; agertzen ez bada, beste hipotesi batzuk aztertzen dira, jasotako informazioaren arabera. Azken fase honetan gerta daiteke «distortsio perzeptiboa»: hipotesiekin bat datozen objektuak hobeto hautematen dira, beren bereizgarri batzuk azpimarratu egiten dira eta hautemandako objektua deformatu ere egin daiteke, subjektuaren hipotesietara egokitzeko. Zentzun honetan, perzepzioa kognizioaren zati osatzaileetako bat da; horrela, aurretiko perzepzio edo premien eta erantzun perzeptiboen artean, bitarteko aldagai kognitiboak diren subjektuaren hipotesiak tartekatzen dira. Bruner-entzat hipotesi hauek berehalako esperientziatik autonomoak dira. Kelly-ren *erai-kuntzak* ere hipotesi generalizatu bezala har ditzakegu. Hipotesiak indartsuagoak edo ahulagoak izan daitezke, egiaztatzeko edo gezurtatzeko behar duten informazio kopuruaren arabera: hipotesi indartsuek informazio gutxi behar dute egiaztatuak izateko eta informazio asko, gezurtatuak izateko. Alderantziz gertatzen da hipotesi ahulekin. Bruner-entzat, lau faktorek determinatuko lukete hipotesi baten indarra: iraganeko egiaztapenen sarritasunak, hipotesi alternatiboan kopuruak, motibaziozko sostenguak eta sostengu intelektualak.

Hipotesi guztiek ez dute gaitasun berdina pertsonak bereizteko eta beren jokaeraren batasuna esplikatzeko. Hipotesi batzuk kultur talde berekoei amankomunak zaizkie eta kulturen arteko aldakortasuna aztertzeko bakarrik balio dute.

Klein-engan, bitarteko egitura kognitiboak motibapenetatik erabat independenteak dira. Kontrol kognitiboek ez dituzte motibazioen efektuak modulatu; kontrolen izaeraren arabera oposatuak izan daitezke, Klein-en esperimentu batetan (1954) gertatzen den bezala. Esperimentu horretan, egarriak perzepzioaren gain duen eragina aztertu nahi zen. Berrogetamarreko hamarkadan, estimulu errefreskatzaileek dituzten zirkuluak gainestimatu egingo zituztela egari zirenek pentsatzen zen. Baina, sarritan

igurikapen hori ez zen betetzen, baizik aitzikoa agertzen zen. Kontraesan hauek esplikatzeko, aldagai moderatzaile bat sartu zuen Klein-ek, «hertsimalgue» kontrol kognitiboari dagokiona. Horrela ikusi ahal izan zuen, subjektu «malguk» gainestimatu egiten zutela estimulu errefreskatzaileen taimainua, subjektu «hertsiek» azpiestimatu egiten zuten bitartean. Subjektu malguk, estimulua eta eremu periferikoa behatzen dute, subjektu hertsiek beren arreta estimuluan zentratzen duten bitartean. Horrela, premia baten efektua ezagutzeko, subjektuaren kognizioa ezagutzea hobea da, premiaren indarra ezagutzea baino.

9.6.2. Kategorizazioa eta kognizioa

Nortasuna aztertzeko bide nagusietako bat perzeptzioa bada ere, informazioa prozesatzeko beste eragiketen azterketak ere lagun diezaguke nortasunaren beste dimentsio batzuk aztertzen. Eragiketa hauen artean aztertuena, indukzio eragiketak dira; eragiketa horiei esker, jasotako informazioa antolatu, perzeptiboki kategorizatu eta erabakiak hartuko dira.

Horrela bada, prozesu arartekotzaile hauetatik abiatuta ere azter dezakegu nortasuna, adibidez, analogia edo antzekotasunen bidez objektuak kategorizatu eta sailkatzeko subjektuek darabiltzaten indukzioko prozesu mentalen bidez.

Estrategia kategorizatzaile motaren batekiko preferentzia, situazioko faktore araberak alda daitezke: lan baldintzak, denbora konstriktzioak, materiale esanguratsua izatea ala ez. Baina, bereizgarri indibidual bat ere bada, problema desberdinetan zehar koherenteki mantentzen dena. Indukzio lanetan gertatzen diren diferentzia indibidualak, sailkapen frogetan aztertuak izan dira batez ere.

Sailkapen libreko frogetan, subjektuek beti uzten dituzte objektu isolatu sailkatu gabeak. Messick eta Kogan-en (1963) arabera, isolatuak uzten diren objektuen kopurua, bereizgarri indibidual egonkor bat da, eta estilo kognitibo baten adierazle bezala erabili da: «konpartimentalizazioa». Sailkatu gabe objektu asko uzten dituztenek, ideien jariakortasunean puntuazio baxuak lortzen dituzte.

Sailkapen libreko frogak egiten direnean, hiru kategorizazio mota bereiz daitezke: kategoriazkoa edo inferentziazkoa, funtzionala eta analitiko. Kategoriazkoa edo inferentziazkoa: objektu guztiak biltzen dituen mota, deitura generiko batez bereizten du. Funtzionala: gai beraren ebokazioan edo ohiko hurbiltasunean oinarritzen da taldekatzea. Analitiko: objektuek nabarmenki amankomunean duten edozein gauza izendatzen du. Pertsona desberdinen argazki multzo bat sailkatu behar bada, esaterako, irizpide desberdinen arabera egin daitezke: a) Adinaren arabera (kategoriala), b) Familiez (funtzionala), edo, c) Jantzi bat edukitzearen edo ez edukitzearen arabera (analitiko).

Behatu ahal izan denez, kontzeptu analitikoak ekoizten dituzten haurrak dira eskolako gelan arretatsuen egoten direnak, eskolako lanetarako zaletasun gehien dutenak eta beren emozioak hobekien kontrolatzen dituztenak.

«Premiaren gutxitzearen eta/edo asebetetzearen» ereduak jokaera kopuru handiaren azalpena ematen du, adibidez, mina ekiditearena, baina ezin esplikatu ditzake premia primario edo sekundarioen gabezia sortzen diren beste jokaera batzuk. Adibidez, jokaera ludikoak edo jakinminezkoak. Frogatu ahal izan denez, subjektu askoren jardura estimulatutako egiten da informazio berriak aurkezten direnean. Motibapen mota hau «barne» motibazio deitu izan da, eskuarki inplikazio fisiologikoak dituen kanpoko sari homeostatiko baten aurkezpena suposatzen duen «kanpo» motibapenaren aurrez aurre. Organismoak arau batzuk ditu. Arau horiek izan daitezke konstante fisiologikoak. Arau horiek kognitiboki definitzean, barne motibazioaren eremuan sartzen gara. Arau kognitiboek estimuluen propietate formal ideialak izenda ditzakete: estimulazio kantitate, konplexutasun eta antolamendu maila. Estimuluen edukinarekin ere erlazioa daitezke, eta orduan hipotesiez edo igurikapenez ari gara. Igurikapenak sarritan ez dira egiaztatuak izaten. Kasu horretan, disonantzia kognitiboaren aurrean gaude. Disonantziak, berriz, informazio bilaketara edo errealtatea aldatzera bultzatzen du.

Premia tradizionalen zerrendari, honela, premia kognitiboak erantsi behar zaizkio. Horrela, Murray eta Cattell-ek, premia kognitiboak jarriko dituzte premien zerrendan.

Forgus eta Shulman-entzat (1979), lau motibo talde handiren integrazio kognitibotik dator nortasuna: lotura afektiboari dagokiona, segurantzari dagokiona, lehiakortasunari dagokiona eta kognizioari dagokiona. Azken biak, jardura kognitiboarekin eta estimulazioarekin loturik daude. Estimulazio premia eta ekin beharra, oinarritzko premiak dira; «sentipen gabetzearen» esperientziaz gero badakigu, estimulazioaren gabezia absolutu eta jarraitua desatsegina gertatzen dela. Izaki bizidunaren oinarritzko premia da munduarekin harreman funtzionalean sartzea (Nuttin, 1980). Zuckerman, Hebb-en ikerketa lerroari jarraituz, saiatu zen «estimulazio bilaketa» deituriko premiaren indarra aztertzen. Horrela, estimulazio premiaren indarra neurtzeko eskalak asmatu zituen (*sensation seeking scales*). Eskala horien itemetan oinarrituta, sentipen bilaketaren faktore orokor bat eta lau faktore talde aurkitu ziren: «Emozio eta abenturen bilaketa», «Esperientzien bilaketa», «Desinhibipena» (arau sozial eta moralak hausteko desira bezala) eta «Asperrarekiko sentiberatasuna».

Estimulazio garaiaren premia handiago duten subjektuek jardura mugikor gehiago agertzen dute experimentuetan eta azkarrago mozten dituzte. Inpultsiboak, kanporakoiak, inkonformistak eta antisozialak bezala agertzen dira. Jokaera behagarriari dagokionean, subjektu hauek estimula-

garriak, drogak eta tabakoa kontsumitzeko eta arriskueta murgitzeko (jokoak, kirol arrisksuak, gidatze temerarioa eta) joera dute.

Emozioen kontrol kognitiboari edo arauketari dagokionez, hiru lan talde bereiz daitezke:

1. Schachter-en lanek erakusten dutenez, emozioan bi faktorek eskuhartzen dute, bata fisiologikoa eta bestea kognitiboa; lehenak intentsitatean du eragina, bigarrenak izaeran eta norabidean. Lehen faktoreak emozioaren aktibazio maila ematen du; bigarrenak, situazioari egotzitako esanahia. Honela, adrenalina injekzio batek aktibazio maila igotzen du, baina horrek haserrea edo euforia sorraraziko du, testuinguru kognitiboaren arabera.
2. Gainera, aktibazioaren maila bera informazio iturri izan liteke. Maila emozionala garaiagoa edo bajuagoa izan liteke, aktibazio maila bera mantenduz, aktibazio maila horri buruz subjektuak duen perzeptioaren arabera. Kasu honetan, emozioa kognizioaren ondorena da.
3. Aktibazio maila jarrera kognitiboek zuzenki modula dezakete. Adibidez, Lazarus-ek filme estresanteak erakusten dizkie bere subjektuei eta aktibazio mailaren aldaketak erregistratzen ditu. Aldaketa horiek, filmeak induzitutako jarrera kognitiboen ondorenak dira.

Valins-ek (1967), beren egoera somatikoan jartzen duten interesaren arabera bereizten ditu subjektuak. Aktibazio mailari buruzko informazio trukatuaren ondorenez sortzen diren egoera emozionalaren aldaketak ez dira hain nabarmenak gorputzaren egoeraz gutxi interesatzen direnengan.

Emozioen kontrolean agertzen den gizabanako arteko aldakortasuna aztertzean, errepresio-sentsibilizazio diementsioarekin topo egin da. Alde batetik, psikanalisiaren ego-psychologiarekin ahaidetasunik badu dimentsio honek. Emozioa kognitiboki arautzeko bi modu daude, alde batetik, errepresio eta ukazioaren defentsa mekanismoei dagokiena, eta bestaldekik, intelektualizazioaren defentsa mekanismoari dagokiona. Tipologia psikoanalitikoetan egin ohi den bezala, preferentziz darabilten defentsa mekanismoaren arabera sailka daitezke pertsonak.

Ikerketa esperimentalen ikuspegitik, errepresio-sentsibilizazio dimentsioa new-look perzeptiboaren mugimendurekin kidetzen da. Larritasun sortaile diren eta ez diren hitzen errekonozimenduen atalaseak alderatzerakoan, subjektu batzuentzat denbora luzeagoz aurkeztu behar dira hitz larritasun sortaileak, hautemanak izateko; beste subjektu batzuegan ez da ikusten atalaseen igoerarik; gehiago oraindik, jaitsierarako joera agertuko litzateke. Emozioa kontrolatzeko bi modu desberdinen aurrean gaude.

Errepresio-sentsibilizazioaz hitzegitean, hasiera batetan pentsatzen zen, ahaidetasun bat egongo zela errepresioaren eta defentsa perzeptiboaren artean eta intelektualizazioaren eta bigilantzia perzeptiboaren artean.

Baina, kontzeptu psikoanalitikoaren eta experimentu perzeptiboen arteko hurbilketak balio heuristikoa bakarrik eduki du. Errepresioaren eta defentsaren perzeptiboen arteko analogiak bakarrik iraun du. Intelektualizazioa ezin daiteke bigilantzia perzeptiboarekin ahaidetu.

MMPI-ko itemak erabiliz errepresio-sentsibilizazio eskalak egin dira eta honako hau ikusi da: sentsibilizazio ertzean kokatuek puntuazio garaiagoak ateratzen dituztela MMPIren depresio, psikostenia eta barnera-koitasun eskaletan. Errepresioaren ertzean kokatuek, berriz, histerian eta niaren indarrean puntuazio garaiagoak ateratzen dituztela. Subjektu erreprimitzailiek, sentikorrek baino agiriko larritasun gutxiago agertzen dute, baina osasun arazo gehiago: istripuak, arazo fisiko eta psikosoamti-koak.

9.6.3. Sormena eta kognizioa

Humanismoaren ekarpenak garrantzi handia eman dio sormenari, giza-banakoaren autohazkuntzaren eta autoerrealizazioaren premiaren agerpen jatorra baita. Sormena, eremu artistikoan, zientifikoan edo politikoan talentu berezia dutenengan aztertu izan da klasikoki. Produktu berriak eta interesgarriak sortzea daraman mekanismo multzoa biltzen da prozesu sortzaile batetan.

Guilford-ek «pentsamendu konbergente» eta «pentsamendu dibergentearen» artean egindako bereizkuntzak, logikaren eta irudimenaren arteko bereizkuntza oroitarazten digu. Lehen kontzeptuak, inteligentzia orokorrek in lotu ditzakegun arrazomendu logikoaren prozesuei egiten die erreferentzi. Arrazomendu logiko hori ebaluatzeko testek, erantzunetako bat bakarrik onartzen dute soluziobide zuzen bezala. Pentsamendu konbergentearen prozesuak, soluziobide bakarra onartzen den situazioetan sartzen dira. Pentsamendu dibergentea, irudimenaren prozesuei dagokiena da; erantzun anizkoitza posible edo desiragarri den situazioetan sartzen da. Guilford-entzat, pensamendu dibergenteak erantzun ugariaren (jariakortasuna), bariatuen (malgutasuna) eta jatorren (originaltasuna) agerpena eragiten du.

Lau jariakortasun mota bereizten ditu: hitzezko jariakortasuna, jariakortasun asoziatiboa, ideien jariakortasuna eta adierazpen jariakortasuna.

Malgutasuna, hiru modutara agertzen da: malgutasun espontanea, malgutasun moldakorra eta berdefinizioa.

Originaltasuna, populazio batetan duen agerpenaren sarritasunarekin loturik doa.

Nolanahi ere, ezin bereizi ahal izan da erabat «pentsamendu dibergentearen» dimentsio hau, «intelligentzia» bezala propioki definitutakotik, «gaitasun ideazionala» salbuespen bezala utzita. «Ariketa batetan, ego-kiak, originalak eta elkarrekin erlazionatuak diren ideia kopuru kandi bat

ekoizteko gaitasuna» bezala definitzen da gaitasun ideazionala; analogien eta metaforen ekoizpenean agertzen den «pentsamendu elkartzailea» da.

Gainera, «subjektu sortzaileengan» sarritan agertzen den bereizgarri pertsonal sail bat aurkitu da. Honako hauek aipa litezke: esperientziaren aspektu estetikoekiko estimua, interesen eremuaren hedadura, konplexutasunarekiko erakarpena, energia, judizio independentzia, autonomia, intuitzioa, bere buruarengan konfidantza, norberaren kontraesanak ebazteko edo haietara egokitzeko gaitasuna, eta, baita ere, sortzaile izateko sentipena. Sarri aurkitzen diren beste berezitasun batzuk, barnerakoitasuna, humorea, indibidualismoa, goranahia eta feminitatea dira.

9.6.4. Zurruntasuna eta kognizioa

Zurruntasun mentalaren kontzeptua hasieratatik erabilia izan da psikiatrian, eta tradizio faktorialistak berlandu du nortasunaren dimentsio bezala (Brenghelmann & Fisch, 1969). «Pertseberazio mentala» bezala definitu ohi da, eta ez-beharrezko eta ez-egoki diren pentsamendu edo jarduera errepikakorrei, neurosi obsesiboaren sintoma direnei, dei egiteko erabiltzen da.

Kontzeptu hau ulertzeko, nerbio sistemaren funtzio primario eta sekundarioaren nozioak ulertu behar dira. Nerbio zelula multzo batek estimulu batzuei erantzuteko edukin mental bat elaboratzean datza lehena. Hala ere, momentu batera helduta gero, funtzionatzen jarraitzen badute ere, denboratarte jakin batean ezin dezakete informaziorik zuzenki landu, eta jarduera mentala modu inkonzientean orientatzen da; funtzio sekundarioa da. Aurretiko gogamen jardueren pertseberazio aldia are ta luzeagoa da, edukinak zenbat eta afektiboki kargatuagoak egon. Pertseberazio interbalo hau zurruntasunaren parametro indibiduala ere bada, hau da, esperientzia baten efektuen iraupena adierazten du. Wiersma-k hiru situazioetan neurtu nahi izan zuen funtzio sekundario hau: diska baten sektoreen gainean aurkezturiko koloreen fusioaren atalasearen neurketa, diskaren errotaio abiadura gehitzean; iluntasunera moldatzeko beharrezko denbora; korrante indartsu bat jaso ondoren, korrante ahulekiko sentiberatasuna berreskuratzeko eskuak behar duen denbora. Funtzio sekundario hau, Heymans eta Wiersma-ren tipologiako hiru moduetako bat da.

Spearman-entzat, buru-lana ahalbidetzen duen energiak, harremanak aurkitzeko eta aplikatzeko gaitasuna ematen du, baina pertseberazioa edo zurruntasuna ere ematen du. Zurruntasunaz hitzegitean, talde faktore batzuk izendatzen dira. Faktore horietako bi, Cattell-en pertseberazioaren P faktorea eta estimuluaren aldaketekiko sentikortasunik ezaren faktorea dira. «Estimuluen aldaketekiko zurruntasun» mota bi bereizi dira: pertseberazioa eta sentikortasunik eza. «Perzepzioaren eta pentsamenduaren azturak hausteko ezintasuna» bezala definitzen da lehena, eta beren ohiko

jokaera aldatzeko eskatzen zaien ariketetan neurtu da: adibidez, alderantziz idatzi, espilu baten bidez marraztu etab. Bigarrena, perzeptioaren eremura mugatzen da gehiago; subjektuei estimulu bat aurkezten zaie, estimulu berri bat emateko progresiboki deformatzen doana. Adibidez, katu baten irudia txakurraren irudi bihurtzen da irudi jarraikorren bidez. Subjektu zurrunenak dira hasierako perzeptioari denbora gehienez loturik mantentzen direnak.

Analisi faktorial ugariaren ondoren, Cattell-ek pertseberazioaren P faktorea ateratzen du, «egiturazko zurruntasuna» ere deitua dena. Ongi finkaturiko aztura zaharrek eskakizun berriekiko duten zurruntasuna adierazten du.

Zurruntasun mentala nortasunaren bereizgarri bezala ikertzeko zailtasuna, aldagai horrek erakutsi duen espezifitate situazional handiari loturik doala dirudi; hala ere, soslai diferentzialak zirriboratu dira. Pertseberantzia gutxi duen subjektua aktiboa izan ohi da, indarrez baieztatzen da eta lider bihurtzen da, gauzetara orientatuago dago pertsonetara baino eta bizitza emozional pobrea garatzen du. Alderantziz, pertsona pertseberatzaileak, itxuraz lasaiak, makalak eta pasiboak dira, ilun samarrak eta bakarriak, oso errealistak ez dira, ametsetarako joera dute, inhibitua eta emozioekiko sentiberak dira.

Subjektu zurrunak hiru bereizgarriaren arabera definitu dituzte Zazzo-k eta Stambäck-ek (1969):

1. Ideazioan makaltasuna, eta ondorenez, ezaguna dutenarekiko atxikimendu handiagoa, arreta kontzentratzeko joera gehiago, dispersatzeko baino.
2. Aurikusi gabearekiko mesfidantza: horregatik, segurantzaren damaienari eta ordenu bat duenari atxikitzen dira.
3. Jarduera blokeatzen duen emotibitatea, besteen eraginarekiko sentikortasun handiarekin.

Zurruntasun-aldaketarekiko sentikaiztasunaren eta autoritarismoaren artean harreman estua dago. Subjektu zurrunak,aldi berean autoritarioagoak, oldarkoiagoak, superstiziosoagoak dira; proiektzioa darabilte defentsa bezala, beren ahultasunak ukatu egiten dituzte eta rol sexualen eta balioren errepresentazio estereotipatuak dute.

9.7. ONDORIOAK

«Nortasunaren psikologia» kontzepzio dinamiko batekin hasi zen, motibaziozko bereizgarriak esplikatzeko. Ikerketa psikologikoak, kognitibismoan amaitu zen eboluzio bikoitz batetan zehar garatu ziren. Alde batetik, psikoanalisi edo teoria humanistak bezalako teoria kliniko handiak, jokararen iturri bezala bulkadari garrantzia ematekin hasi, eta errepresentazio

mentalaren propietatei garrantzia ematera iragan ziren. Bestaldetik, psikologia esperimentala, jokaera osoaren berri ematera behartua aurkitu zen, perzeptzioa, kategorizazioa, erabaki hartzea eta pentsamenduaren malgutasuna bezalako prozesu kognitibo espezifikoak zehatz-mehatz esplikatzen ondoren. Gainera, giza prozesu orokorren ondoan, gizabanakoen arteko aldagarritasuna ere asumitu zen, ez errore bariantza bezala, ikerketa objektu bezala baizik.

Laburtuz, aldagai kognitiboak lau taldetan bana daitezke:

1. Prozesu kognitibo oso orokorrak: erantzun espontaneoaren inhibizio gaitasuna, eremutik dependentzia-independentzia, erreflexibitate-impulsibitatea, pertseberazioa eta errepresio-sentsibilizazioa.
2. Pentsamendu elkarkorraren malgutasuna (ideiazko sormena, errerealismo gutxiko esperientziekiko tolerantzia).
3. Sistema errepresentatiboaren (kategorizazioa) antolamendua.
4. Informazio berrien premia (anbigutasunarekiko tolerantzia-intolerantzia, konplexutasunarekiko preferentzia, sentipen bilaketa eta aldaketa perzeptiboarekiko sentikortasun-sentikortasunik eza).

Psikologia kognitiboa, jokaeraren batasunaren unitate ezberdinez arduratzen diren nortasunaren teoria lokal ezberdinak integratzera etorri da, batez ere motibazio tipokoak eta kognitibo tipokoak.

Bi aldagai mota hauei buruz, galdera zenbait planteatzen ditugu: lehenik, ze harreman mota duten bi aldagai taldeek aztertu, eta, bigarrenik, aldagai mota bien «pertinentzia eskualdea» eta eskualde horren muga aurrikusgarriak determinatu. Eskuarki bi sistemen independentzia postulatu denez, bi aldagai motaren arteko harremanak «nagusitasun-menpekotasunezkoak» izan ohi dira, erreferentziako autorearen eskema teorikoetatik dependituz. Honela, nortasunaren teoria dinamikoetan, sistema afektibo-motibazionalak hartzen du eginkizun nagusia, eta kognizioa motibaziozko gatazken eratorpen bat da. Teori fenomenologikoetan, iturri kognitiboetako autonomia gehiago ematen bazaie ere, dimentsio kognitiboek inbariante motibazionalak sostengatzen jarraituko dute; adibidez, bulkadatsutasuna, larritasunetik eratoritzen da, dogmatismoa ziurtasun premiatik etab. Bestalde, kontzeptzio kognitiboetan aldagai kognitiboek sistema afektibo-motibazionalarekiko nagusigoa duela kontsideratzen da, bereizgarri afektibo-motibazionalakiko interesa marginala izanik.

Iturri kognitiboetan oinarrituz jokaera esplikatzeak, subjektuen bereizgarri ezberdinetatik dependitzen du: adina, sexua, nortasuna. Situazio batzuetan emozionaltasuna oso sutua izango da eta aspektu motibazionala determinatzailea; beste batzuetan, inplikazio afektiboa minimoa da. Bestalde, adinean aurreratu ahala, subjektua heltzen joan ohi da eta egoera emozionala eta motibazionala kontrol kognitiboaren pean mantentzen ditu. Era berean, subjektuak sozialki entrenatuak izan daitezke, aspektu kognitiboan gehiago, aspektu emozionalean baino.

Edonola ere, ez da alferrikakoa izango, jokaera batasun bat bezala hartzea, eta, aldi berean, helburu metodologikoekin, elementu aldakaitz kognitibo eta afektibo-motibazionalak bereizian kontsideratzea, nahiz eta errealtatean loturik (ez nahi ta nahiez hierarkizaturik) elkarreragiten duten.

9.8. ESTILO KOGNITIBOAK

9.8.1. Estilo kognitiboen kontzeptua

Situazio beraren aurrean pertsona ezberdinek diferentzia nabarmenak aurkezten dituzte. Estilo kognitiboak, hasieratik bertatik, pertsonaren dimentsio kognitiboa eta nortasunaren bereizgarriak gurutzatzen diren gunean kokatuak ikusi ditugu.

Alde batetik, Niaren Psikologiaren korronea osatzen duten psikanalisten ildotik, estilo kognitiboak subjektuaren kontrol kognitiboarekin loturik ikusten ditugu: subjektuaren desirak errealtatearen eskabideetara egokitzeko, Niak eginkizun modulatzailerik bat jokatu luke. Niak, eginkizun diplomatiko bat jokatzen du. Gizakiaren bulkaden (pultsioen) eta errealtatearen eskabideen artean bitarteko bezala kokatuak daude Niaren estruktura kognitiboak. Baina, Niaren psikanalista hauek funtzio autonomoak, bulkadetatik eta gatazketatik aske daudenak, egozten dizkiote Niari. Ikuspegi honetatik, ikaskuntza eta garapena ez dira nahitaez gatazkaren emaitza. *Ego-psychology*-aren ikuspegitik, Nia ez da Zeraren bereizkuntza bat, baizik Nia eta Zera, indiferentziario egoera primitibo batetatik sortzen dira.

«Ils considèrent que le moi n'est plus une différenciation du Ça, mais que le moi et le Ça émergent d'un état primitif d'indifférenciation.» (Huteau, M., 1985, 128 o.)

Niaren psikanalista hauek, bulkadarenn nozioa zalantzan jartzen dute, gizakiaren sentsualitatea determinatzen duena, bulkada ez, baizik osagai kognitibo indartsuko estruktura bat dela esanez. Sentimenezko esperientzia baten indar motibatzailea neurtzeko, sentsualitatearen indar subjektiboa, esanahi funtzionala, balio kognitiboa, aztertu behar da, eta ez bulkadaren indarra.

«Les divers aspects de la sensualité de l'individu sont gouvernés non par une pulsion mais par une structure à forte composante cognitive qui se met en place en fonction des expériences et de la maturité intellectuelle.» (Huteau, M., 1985, 129 o.)

Premien asebetetzean eginkizun arautzaile garrantzitsua betetzen dute, beraz, subjektuaren ezagugarri kognitiboek. Pertsonaren perzeptu-

zioa ez dute premiek bakarrik determinatuko, pertsona horren estruktura kognitiboek ere bai baizik. Horrela, premiek perzepzioa gehiegi desantola ez dezaten, pertsonak kontrol kognitibo batzuk ditu. Kontrol kognitibo horiei esker, gizabanakoak hobeto egokitzen dira ingurura. Kontrol kognitiboaren nozioarekin, estilo kognitiboetarako zubia irekia dago:

«On retrouve en effet dans des courants de recherches contemporains bien vivants, qui seront évoqués par la suite, la plupart des contrôles cognitifs, ou du moins des dimensions voisines, dans des contextes divers: la différenciation conceptuelle apparaît dans les études sur les styles de catégorisation, la tolérance aux expériences peu réalisées dans celles sur la créativité, on retrouve le contrôle «contraint-flexible» dans les travaux sur la rigidité, l'articulation du champ peut être assimilée à la dépendance-indépendance à l'égard du champ. Les contrôles cognitifs sont devenus des styles cognitifs. Les travaux sur les contrôles cognitifs apparaissent donc comme une transition entre les théories dynamiques et les théories cognitives de la personnalité.» (Huteau, 1985, 137 o.)

Kontrol kognitiboak egitura hierarkiko batetan antolaturik agertzen dira. Egitura zabalagoetan kontrolak antolaturik edukitzeari deituko zaie estilo kognitibo.

Bestalde, berezitasunen kontzeptuaren mugak gainditzeko soluziobide bat eskaintzen digute estilo kognitiboek. Berezitasunak, lehen mailako faktore bezala hartzen badira, elkarrekin koerlazioztatzen duten faktoreak biltzen dituzten superfaktore modukotzat hartu behar ditugu estilo kognitiboak.

Honela bada, bereizgarrien eta aldagai afektibo dinamikoaren arteko lotura-zubi bezala funtzionatu dute estiloen kontzeptu hauek. Beste zenbait aldagairen aldagai integratzaile bezala hartu izan dira estilo kognitiboak. Alderdi kognitiboa eta ez-kognitiboa kontutan hartuz, pertsonaren jokaeraren berri ematen digute. Estilo kognitiboen eraikuntza hauek, konstruktio hipotetiko bezala funtzionatu dute eta emankortasuna erakutsi dute beren historian zehar.

Kinada eta erantzunen bitarteko kaxa beltzeko prozesuak esplikatzeko erabili izan dira estilo kognitiboak. Pertsonaren jokaeraren berri ematen digute. Baina, ez dute alderdi kognitiboa bakarrik biltzen: aspektu kognitiboak eta dinamikoak (ez-kognitiboak) biltzen dituzte.

Estilo kognitiboen kontzeptuaz ari garenean, bi joera nagusi ikusten ditugu:

a) Witkin-en taldearentzat, pertsona baten alderdi kognitiboaren funtzionamenduaren agerpen bezala bakarrik ez, baizik ezagugarri zabalagoen luzapen eta agerpen bezala ere hartu behar dira estilo kognitiboak. Beste era batera esanda, pertsonaren nortasunaren dimentsio ez-kognitiboekin

loturik agertzen zaizkigu haren ezagugarri kognitibo indibidualak Estilo kognitiboek, diferentzia indibidualak agertzen dituzte, bai ezagutz alderdian, bai nortasunaren alderdi ez-kognitiboetan.

«... para Witkin, los estilos cognitivos, nos hablan sobre otras cosas o aspectos, además de sobre lo cognitivo, son para él dimensiones más amplias de funcionamiento personal que se evidencian también en otras áreas de la actividad psicológica individual.» (Garcia Ramos, J.M., 1989, 21 o.)

«... it has been demonstrated that the information-processing styles and skills of the preschool child extend beyond the strictly cognitive domain to incorporate aspects of personality and social behavior.» (Kogan, N., 1976, 58 o.)

«Cette fois l'accent est mis non plus sur des propriétés du fonctionnement cognitif, mais sur une propriété structurale de la personnalité: son degré de différenciation. Cette notion de différenciation a été introduite en psychologie de la personnalité par des psychologues du développement ...» (Huteau, M., 1987, 13 o.)

«The links between cognitive styles, on the one hand, and personality and socioemotional behaviors, on the other, are abundant and multifaceted, but these relationships do not necessarily remain constant either within the preschool period or across preschool and later ages.» (Kogan, N., 1976, 123 o.)

b) Beste taldearentzat (Kagan, J.; Moss, M.A. eta Sigel, I.E., 1963), gaur egun zaharkitua gelditu da nortasunaren motibazioen alderdia eta estrategia kognitiboak lotzeko joera. Estilo kognitiboak ez dira hartzen nortasunaren alderdi ez-kognitiboak eta kognitiboak lotzen dituzten eraikuntza bezala. Talde honetakoentzat, kanpoko munduaren antolamendu perzeptiboa eta kategorizazio kontzeptuala egiteko prozedurazko preferentzi indibidual egonkor bezala hartu behar dira estilo kognitiboak. Problema ebazteko garaian pertsonak darabiltzaten estrategia eta prozeduren arteko diferentziak agertzen dira estilo kognitiboen bidez. Hautemateko, oroitzeko, pentsatzeko, informazioa jaso-pilatu-transformatzeko, problema ebazteko strategi eta prozedura bereziak gordetzen dira estilo kognitiboaren kontzeptuaren pean.

«There are additional classes of variables, however, that deserve attention in descriptions of «cognitive style», a term that refers to stable individual preferences in mode of perceptual organization and conceptual categorization of the external environment. One particular style dimension involves the tendency to analyze and to differentiate the stimulus environment in contrast to categorization that are based on the stimulus-as-a-whole.» (Kagan, J.; Moss, H.A. eta Sigel, I.E., 1963)

Honela agertzen du Garcia Ramos-ek talde honen ikuspegia:

«La otra línea de definiciones pone el acento — ... — más sobre los propios aspectos cognitivos, es decir, sobre las diferencias que existen entre unos individuos y otros en lo relativo a las estrategias y procedimientos de que se sirven en la resolución de problemas. Así, Kagan, Moss y Sigel (1980), definen el concepto de estilos cognitivos en referencia a «preferencias individuales y estables en el modo de la Organización perceptiva y de la Categorización conceptual del mundo exterior.» (Garcia Ramos, J.M., 1989, 22 o.)

9.8.2. Estilo motak

Ezagunenak hauek dira:

- Eremutik dependentzia/independentzia.
- Erreflexibitatea/inpulsibitatea.

Baina, badira beste batzuk ere:

- Kontzeptualizazio estiloa.
- Kontrol hertsia/malgua.
- Nibelaketa/zorrozketa (leveling-sharpening).
- Arakaketa (scanning=eskudrinaketa).

9.8.2.1. EREMUTIK DEPENDENTZIA/INDEPENDENTZIA

Eremu perzeptibo konplexu bat berregituratzeko gaitasun altua bezala ulertzen da Eremutik Independentzia.

Eremu perzeptibo konplexu bat berregituratzeko gaitasun kaxkarra bezala hartzen da Eremutik Dependentzia.

Informazioa modu analitiko, testuinguruaren eraginik gabe hautematen dute Eremutik Independentteek. Eremutik Dependenteek, berriz, modu globalean hautematen dute informazioa. Nolanahi ere, dimensio jarraitu bat bezala, «continuum» bat bezala ulertu behar da Eremutik Dependentzia/Independentzia.

1948 urtean bertikalitatearen perzeptioari buruzko ikerketekin ari zen iadanik Witkin. Bertikaltasuna lekutzeko erabiltzen dituzten informazio iturri ezberdinak integartzeko modu ezberdinak dituzte pertsonak.

Subjektu batzuek, inguruan duten eremua, ikusmenaren bidez hautemana, hartzen dute erreferentzia markotzat. Bertikaltasuna finkatzeko oinarri bezala, espazioaren direkzio bertikal eta horizontala erabiltzen dituzte.

Beste subjektu batzuek, espazioaren norabide bertikalaren definizioa emateko, bestibuluko, ukimeneko eta kinestesiko sentipenez baliatuko dira.

Bai kanpoko erreferentzien hautematez lortzen den bertikalak, bai grabitatearen bidez lortzen denak norabide bera dutenez, emaitza bera da: nahiz erreferentzia bakarra erabili, nahiz biak konbinatu, emaitz berberera heltzen da.

Witkin-ek, ikerketa giroan, bertikalaren finkapenerako erabiltzen ditugun erreferentzia horiek bereiztea lortu zuen. Horrela, bertikalitatearen lekutzeko ikusmen markoan konfiantza dutenak aurkitu zituen, batetik. Bestetik, bertikalitatearen lekutzeko erreferentzia bezala batez ere grabitatea erabiltzen dutenak topatu zituen. Noski, diferentzia horiek ez zituen hauteman zirkunstantzi normaletan, hots, bi erreferentzia markoak batera zihoazenean.

«La dirección de la verticalidad percibida está habitualmente determinada por dos conjuntos de experiencias que actúan simultáneamente. En primer lugar, el campo que nos rodea, aprehendido a través de la visión, habitualmente tiene el carácter de marco de referencia, cuyos ejes principales corresponden a las verdaderas direcciones vertical y horizontal del espacio. Este marco de referencia aporta una base disponible para establecer la verticalidad. En segundo lugar, la dirección de la gravedad, aprehendida mediante las sensaciones vestibulares, táctiles y quinestésicas, aporta otra definición de la dirección vertical del espacio.» (Witkin, H.A., eta Goodenough, D.R., 1985, 30 o.)

Eremutik Dependenteak, eremu ez-egonkor batetan ikusmenean gehiago konfiatzen zutenak ziren. Eremutik Independenteak, gorputzaren grabitate zentruan gehiago konfiatzen zutenak. Witkin-ek berehala ikusi zuen, bitzta errealean grabitazio klabeek eta ikusmen klabeek informazio baterakoia ematen dutela bertikalitatearen lokalizatzeari buruz, eta Eremutik Dependenteek bezala lortzen dutela zehaztasuna Eremutik Independenteek ere. Horregatik esan zuen, Dependenti-Independenti dimentsioa funtzionamendu moduari zegokiola, eta erlazio gutxi zuela xedeen lorkuntzarekin.

Kontzepzio berri bat landu zuen Witkin-ek: funtzionamendu kognitiboaren dimentsio orokorrago baten bila abiaturik, kanpoko erreferentziei buruzko autonomiaren zabaltasunean gertatzen diren diferentzia indibidualen dimentsioa kontutan hartzen hasi zen.

Dimentsio hau estilo bezala hartu zuen, eta ez gaitasun bezala; xede baterantz mugitzeko forma bezala hartu zuen, eta ez xedeen lorkuntzarako kompetentzia bezala. Eremutik Dependentsia-Independentsia, kanpoko erreferentziei buruzko autonomiaren zabaltasunari buruz ari den dimentsio bezala hartzea erabaki zuen Witkin-ek. 1962az gerotik egindako ikerketetan, bertikalitatearen perzeptioan somatzen den eremutik independentsia, funtzionamendu kognitiboan aurki daitekeen berregituraketa kognitiboarekin erlazionatu zuen.

Eremutik Dependente eta Independenteek ez dirudi alderik dutenik, estimulu askok produzitzen duten perzeptio zuzenari buruz. Baina, Ere-

mutik Independentek gaituagoak dira perzeptio ezberdin bat lortzeko, hasierako beren esperientzia perzeptiboa berregituratuz. Eremitik Dependenteengan nagusi den eremu perzeptiboa, hasierako antolakuntzan ematen zaiena bera da.

Witkin-ek zera ikusi zuen: Eremitik Independentzia erlazionaturik zegoela gestalt mozorrotu batetan irudi sinplea lekutzeko erraztasunarekin. Bertikalitatearen perzeptioari buruzko Eremitik Independentzia erlazionaturik dagoela eremuaren berregituraketa espazialerako gaitasunarekin.

Witkin-ek erlazio positiboa konstatatu zuen berregituraketa espazialerako dimentsioen artean: Irudi Izkutuen Testean (EFT) eskatzen den berregituraketarako gaituagoak diren haurrak, gaituagoak dira baita ere Hiru Mendien Testean panpina behar den tokian jartzeko.

Piaget eta Inhelder-en Hiru Mendien Testean subjektuari paisaia eredu bat erakusten zaio. Paisaia horrek neurri ezberdinetako hiru mendi ditu. Paisaiaren ikuspegi ezberdinak agertzen dituzten marrazkiak erakusten zaizkio eta eskatzen zaio, marrazkietan agertzen den paisaiaren ikuspegi ezberdinak hartzeko beharrezkoa den situazioan jar dezala panpina.

Berregituraketaren dimentsioak, ikusmena ezezik, entzumena ere harapatzen du, nahiz eta egin diren estudio faktorial gehienen arabera, ikusmen eta entzumen arloetako berregituraketa gaitasunak oso erlazionaturik ez egon. Berregituraketa dimentsioa hitzen eremura ere heltzen ote den ikusteko egin diren ikerketetan, zera ikusi da: Irudi Mozorrotuen Testa burutzeko gaitasuna eta sintaktikoki anbiguoak diren esaldiak berregituratzeko gaitasuna erlazionaturik daudela; hizkuntzaren prozesaketa sakonaren berregituraketa erlazionaturik dagoela ikusmenaren perzeptiozko berregituraketarekin.

Bi konponente horiek bereizteko ikerketa estrategia bezala, situazio ezberdinetan jarri zituen subjektuak:

9.8.2.1.1. «*Tilting-Room-Tilting-Chair test*» (TRTC) eta bere modalitateak: «*Body Adjustment Test*» (BAT), «*Room Adjustment Test*» (RAT) eta «*Rotating Room Test*»(RRT)

TRTC: Aparailu konplexu honetan, ardatz berarekin mugi litezke subjektua esertzen den aulkia eta esperimentatzaileak biraaraz dezakeen gela. Aulkia eta gela nahi den neurrian eta nahi den norabidean mugi litezke: norabide berean, nahiz aurkako norabidean. Subjektuak egin behar duena hau da: besaulkian eserita dagoela, nahiz gela inklinatua egon, berak posizio bertikalean jarri behar du.

Gelaren inklinazio horrek iruzurtu egiten ditu Eremitik Dependente deitzen ditugunak: bertikalitatearen erreferentzi bezala gelako paretak hartzen dituzte, beren gorputz propioa hartu ordez, eta ez dute lortzen besaulkia bertikalki jartzetik.

BAT: Subjektua gela itxi inklinagarri batean esertzen da. Eskuinera nahiz ezkerredera inklinatu daiteke gela. Aulkia ere esperimentatzaileak gelatik askeki inklinatu dezake.

Hasierako inklinazio posiziotik aulkia eta gorputza zuzentzeko agindua ematean, subjektu batzuek inklinaturiko gelarekin lerrotatzen zuten gorputza. Subjektu horiek ziren Witkin-ek Eremitik Dependente deitzen dituenak, hots, bertikalitatearen perzeptiorako lehen erreferentzi bezala kanpoko ikusmen eremua erabiltzen dutenak, gorputzaren sentipenak erabili ordez.

Beste subjektu batzuek lortzen zuten beren gorputza benetako bertikalitate hurbil lerrotatzea. Subjektu hauek, grabitate bertikalaren arabera lerrotatzen zuten gorputza. Beren gorputza zen bertikalitatearen perzeptioaren lehen erreferentzia.

Halere, esan beharra dago, subjektu gehienek bi ertz hauen arteko bitarteko posizio batetan jartzen zituztela beren gorputzak.

RRT: Subjektua aulki batetan esertzen da, aulkia eskuinetara edo ezkerretara inklinatua egon daitekeelarik, karril zirkular batetan inpulsetatik gela txiki baten barnean. Gorputzaren gain eragiten duen indarraren norabidea aldatzen da, ikusmen eremua posizio bertikalean mantentzen den bitartean.

Gorputzaren gain ekiten duen indar efektiboaren norabidea bi indarren emaitza da: kanpotik eragiten zaion indar zentrifugoa eta barnetik eragiten dion grabitate indarra.

Subjektuari bere gorputza zuzen jartzeko eskatuko zaio. Test hau burutzen zuten subjektuak ere bereizi egiten ziren: bertikal zegoen gelaren arabera beren gorputzak lerrotatzen zituztenak, alde batetik, eta berengan eragiten zuen indar aldatuaren arabera lerrotatzen zirenak, bestetik.

Test ezberdinen situazioetan subjektuak ebaluatzen zirenean, autokonsistentzia bat agertu ohi zuten: BAT-ean inklinaturiko gelaren arabera bere gorputza jartzen zuenak, RRTn bere gorputza bere gorputza gela bertikalari buruz lerrotatuko zuen. Edo, alderantziz, BATean bere gorputza benetako bertikalaren arabera jartzen zuenak (gelaren posizioari begiratu gabe), RRTan bere gain eragiten zuen indarraren arabera inklinatuko zuen gorputza.

Test guzti hauetan ikusi diren diferentziak, subjektuek beren konfiantza ikusmen eremuan edo beren gorputz sentipenetan jartzearen arabera ziren. Kanpoko eremua erreferentzia nagusi bezala hartuz gero, Eremitik Dependenteen aurrean geundeko. Lehen erreferentzi bezala beren gorputza hartzen dutenak, Eremitik Independente deitzen ditugu. Froga batzuetan, erantzun zuzenagoak ematen dira, gorputza hartzen bada erreferentzia bezala. Beste situazio batzuetan, ikusmen eremuan oinarritzeak burutzapen zehatzagorako posibilitatea ematen du.

9.8.2.1.2. «Rod and Frame Test» (RFT)

Gela erabat ilun batetan eser erazten da subjektua. Subjektuari lauki-marko argitsua aurkezten zaio, barnean barratxo argiztatua duelarik. Barratxo hau bira daiteke, erdigune bezala markoaren erdigunea edukirik, eta markotik askeki inkлина daiteke. Hau da, barratxoa eta markoa norabide berean edo aurkakoan inkлина daitezke. Subjektuak egin behar duena, markoaren inklinaziotik independenteki, barratxoaren bertikalitatea lortzea da. Barratxoa bertikalera doitu behar du, markoa inklinazio posizioan dagoen bitartean.

Test honetan, gorputzaren posizioa baino areago, kanpoko objektu baten posizioa zehaztu behar zen, baina oraingoan ere gorputza edo ingurunekeo estimulu eremua erabili behar zuen erreferentzi bezala. Horrela bada, beren gorputza edo ingurunekeo estimuluak erreferentziazat hartzearen arabera bereizten ziren subjektuak.

Beste testetan bezala, Eremitik Dependenteek oker situatzen dute barratxoa. Eremitik Independenteez zuzen jartzen dute.

BATEan inklinaturiko gelari buruz bere gorputza lerrokatzen zuenak eta RRTan bere gorputza gelaren bertikalari buruz lerrokatzen zuenak, RFTan marko inklinatuaren arabera inklinatuko zuen barratxoa. BATEan bere gorputza benetako bertikalaren arabera lerrokatzen zuenak eta RRTan bere gain eragiten zuen indarraren arabera gorputza inklinatzen zuenak, RFTan barratxoa markotik askatu eta bertikalki doitu zuen.

9.8.2.1.3. E.F.T. (Embedded Figures Test = Irudi Mozorrotuen Testa)

Bertikalitatearen perzepzioan behatutako diferentziak, perzepzioaren beste eremuetan ere agertzen zirela ikusi zen. Subjektuak, konfiantza, eremuan edo gorputzean jartzen duen ikusteko egindako ariketek, esan ziezaguketen aldi berean, elementu bat eremu antolatu batetik bereizteko subjektuak zenbaterainoko gaitasuna duen.

Ariketa hauetako bat, EFT testa zen (Witkin): subjektuari irudi simple bat erakusten zaio eta hori irudi konplexu batetan aurkitzeko esaten zaio. Irudi simplea gorderik, maskaraturik dago. Non dagoen jakiteko, irudi konplexuaren egitura apurtu egin behar da.

Test hau aplikatzean zera ikusi zen: irudi simplea irudi konplexutik askatzeko zailtasunak zituztenak berak direla, gorputza gelatik eta barratxoa markotik bereizteko zailtasunak zituztenak. Eremitik Dependente deituak dira.

Witkin-ek gero ikusi zuen, subjektuak perzepzioan duen desmozorrotzeko gaitasuna, erlasionaturik dagoela adimen funtzionamenduaren desmozorrotzeko gaitasunarekin. Problemen soluzionatzeko ariketa batzuetan zati bat testuinguru batetik berezi beharra gertatzen da. Soluzibidea aurkitzeko, elementu bat hartu, bere testuingurutik atera eta beste testuinguru

ezberdin batetan berregituratzeko gaitasuna behar da. Eremitik Dependenteek honetarako zailatsun gehiago dutela ikusi zuen.

«Los sujetos identificados como dependientes de campo en la percepción de la verticalidad mostraron mayor dificultad en solucionar esta clase específica de problemas en los que la solución depende de que se tome un elemento crítico para la solución fuera del contexto en el que se presenta y que se reestructure el material problema de tal forma que este elemento se use en un contexto diferente.» (Witkin, H.A. eta Goode-nough, D.R., 1985, 40 o.)

Desmozorrotzeko gaitasunaren eta egituratzeko gaitasunaren arteko erlazioa estudiatu zuen. Eremitik Independenteek, antolamendu garbirik ez duen eremuari egitura ezartzen diotela ikusi zuen. Eremua antolatu bezala kontsideratzeko joera dute.

Ikasi behar den materialeak egitura jakinik ez duenean, egitura haute-mangarririk ez duenean, Eremitik Independenteek azkarrago ikasten dituzte, Eremitik Dependenteek baino. Diferentzia horiek ez dira agertzen material antolatuaren aurrean.

9.8.2.2. IKUSPEGI ARTIKULATUA VERSUS IKUSPEGI GLOBALA

Ikerketa hauek eginez, ikuspegi artikulatua duten pertsonak eta ikuspegi globala dutenak bereizi zituen.

Forma artikulatuz ari den pertsonak:

- a) Eremua antolatua dagoenean, elementuak ingurunetik askeki bidentzia ditzake.
- b) Egitura kaxkarra duen estimulu-eremu bati egitura ezar diezaioke, horrela, estimulu eremua antolatua bezala kontsideratzen duelarik.

Enfoke artikulatua/enfoke globala dimentsioa erlazonaturik dago organismo osoaren garapenarekin: arlo perzeptiboan, intelektualean, nortasunaren arloan eta gizartekoan agertzen da. Prozesu aldagaietan diferentzia indibidualak inplikatzeko ditu, baina ez eduki aldagaietan. Diferentzia indibidualak jokaeraren nolakotasunari buruzkoak dira, ez edukiari buruzkoak. Dimentsio honetan pertsonak duen lekua egonkorra da denboran zehar.

Hurrek, ikuspegi globala izatetik ikuspegi artikulatua izaterantz eboluzionatzen dute:

«Current theory holds that the child's initial perception of the world are global, but, with time, become more articulated and differentiated. The 4-year-old has a penchant for reacting to the stimulus-as-a-whole, whereas the 9-year-old is more likely to consider both the whole and the internal parts of a stimulus array. It is probable that this age difference is a matter of maturational capability as well as acquired habit.» (Kagan, J.; Moss, H.A. eta Sigel, I.E., 1973, 73 o.)

Hasiera batetan, Enfoke Artikulatua-Enfoke globalari eman zitzaion estilo kognitibo izena, Eremitik Dependentsi-Independentziari eman ordez, baina gerora, Dependentsi-Independentzi izena asko erabilia izan zen, eta bestearen lekua hartu zuen.

9.8.2.3. ERREFLEXIBITEA versus INPUTSIBITEA

Problema planteiatzen duen situazio batetan soluzio-hipotesi ugari baldin badaude aldi berean eskueran, haurrak ahalbide bakoitzaren egokiera diferentziala ebaluatu behar du. Haur batzuek, lehenik ekin, eta gero ikusten dute asmatu duten ala ez. Kanpoko estimuluen aurrean berehala erreazionatzen dute. Beste haur batzuek, erantzun aurretik erreflexionatu egiten dute, erantzun posibleak aurrez ebaluatu ondoren, erantzun okerrak buruz baztertzen dituztelarik.

Erreflexibitate-Input्सibitate dimentsio hau agerian jarriko bada, erantzun edo soluziobide posible asko dituzten situazioen aurrean jarri behar dira subjektuak. Erantzun posible guzti horien artetik, baliozkoa den bakarra aukeratu behar dute.

Erreflexibitatea-Input्सibitatea ebaluatzeko, latentzi denborari eta erantzunen zehaztasunari begiratu behar izaten zaie. Horrela, Erreflexiboak, latentzi luzeak eta hutsegite gutti dituztenak dira.

Problema bat ebazteko irudi asko aztertu behar dituzten situazioetan, Input्सiboek ez dituzte irudi guztiak aztertuko. MFF (Matching Familiar Figures) bezalako testetan, prest daude irudi bat zuzentzat jotzeko, globalki begiratuta ereduaren antzekoa baldin bada. Zertzeladazko alderaketa gutti egingo dute azterturiko irudien artean.

Subjektu erreflexiboek, aurkezten zaizkien irudien esparru zabalagoak begiratzen dituzte, beren ikusmenak finkamendu kopuru handiagoa egiten du irudian, irudien zati homologoen arteko alderaketa gehiago egiten dituzte, irudien ezagugarri kopuru handiagoa egiaztatzen dute. Horretarako, denbora asko ematen dute irudi-eredua aztertzen.

Input्सiboek prozesaketarako estrategia globalak erabiltzen dituzte. Analisisarako denbora gutxi dutenean, beren errendimendua ez da erreflexiboena baino okerragoa.

Erreflexiboek prozesaketarako estrategia analitikoak erabiltzen dituzte. Prozesaketarako nahiko denbora dutenean, input्सiboak baino hobeto moldatzen dira.

Prozesamodu globala eskatzen duten ariketetan input्सiboak bizkorragoak eta eraginkorragoak agertu izan dira. Prozesaketa analitikoa eskatzen duten ariketetan, berriz, subjektu erreflexiboek errendimendu hobea agertu izan dute.

Halere, dirudienez, txikiagoa da prozesaketa globala eskatzen duten ariketetan input्सiboek erreflexiboen gain duten abantaila, zertzeladazko ariketetan erreflexiboek input्सiboen gain duten abantaila baino.

Ariketen aurrean, arreta eta kontzentrazio gehiagoz jokatzeko erreflexiboek, lanak zailak direnean. Haur inpulsiiboek ez dute alde handirik agertzen lan erraza izan ala zaila izan.

Froga piagetiarrek erlazio garbiagoa ematen dute Dependentsia edo Independentziarekin, Erreflexibitate edo Inpulsiibitatearekin baino.

Inpulsiibitate-Erreflexibitate estiloak erlazio garaiagoa agertzen du Problema Ebazteko ariketekin, Piagetiar Frogekin baino. Piagetiar frogen barnean ere, Erreflexibitate-Inpulsiibitateak gehiago korrelazio-natzen du zalantzazko erantzuna duten lan formalekin (penduluaren oszilazioaren zergatia zehaztea eskatzen duena, adibidez), permutazio eta konbinazio ariketekin baino. Izan ere, inpulsiiboek kasu konkretutik konkretura, aurretiko hipotesi abstrakturik gabe, aleatorioki jotzen dute. Erreflexiboek estrategia hobeak dituzte hipotesi ezberdinak frogatzeko.

Datorkien lehen hipotesia onartzen dutenak, eta haren zehaztasun nahiz balideziari jaramonik egin gabe jokatzeko dutenak dira inpulsiiboak. Erreflexiboek prozesaketarako estrategia analitikoak erabiltzen dituzte.

9.8.2.4. KONZEPtualIZAZIO ESTILOA

Kategorizatzeo subjektu batek darabilen zabalerarekin loturik doa. Objektu desberdin sail bat taldekatzeo subjektuak forma berezi bat izan ohi du, nahi duen multzotan sailkatzeo aukera uzten zaionean. Bi jokabide nagusi bereziko genituzke:

- Objektuak kategoria sail txiki batean taldekatu, kategoria abstrakto samarretan oinarrituz, kidetasun kontzeptualen arabera.
- Kategoria sail handia erabili, objektuen diferentzia perzeptibo ugaritan oinarriturik, bereizgarri konkretuak kontutan hartuz.

Hautemandako antzekotasunak kategorizatzeo edo estimuluen arteko diferentziak kategorizatzeo bi joera daude: kontzeptu diferentziatu asko bereizten dituztenak eta kontzeptu gutti bereizten dituztenak.

9.8.2.5. KONTROL HERTSIA-KONTROL MALGUA

Ezagutz jarduera bat burutzerakoan sortzen diren interferentziak gainditzeko gai diren subjektuek kontrol malgua dutela esan ohi da. Adinean aurreratu ahala, subjektuek kontrol malguagoa lortzen dute.

9.8.2.6. NIBELAKETA-ZORROZKETA edo DISKRIMINAZIOA-EZDISKRIMINAZIOA

Iraganean aurkeztu zitzaizkion estimuluen irudiak oroimenean gordezko subjektuak duen gaitasunari erreferentzi giten dio estilo honek.

9.8.2.7. SCANNING:IKERKETA

Estimulu perzeptiboetarako buruz emandako iritziak edo egindako estimazioak egiaztatze gaitasun handiago ala txikiagoa.

9.8.3. Estiloen jatorria. Ontogenia

9.8.3.1. EBOLUZIOA

Eremutik Dependente izatetik Eremutik Independente izaterantz doa haurra eboluzioaren buruan. Ikusmen eremuan gero ta konfidantza guttiago jarriko du, gorputza erreferentzia bezala hartzearen garrantzia gero ta handitzenago doalarik, hogei bat urte bitartean.

Aldaketa ezarian ezarian ematen da. 10etik 13 urte bitartean kolpeko aldaketa gertatzen da, eta 13tik 17 urtetara bitartean jarraitu egiten du independentzia handiagorako joerak. Helduarengan finkatu egiten da estiloa eta, zahartzaroan, dependentziarako joera handiagoa agertzen da.

Adinean aurreratu ahala diferenziaketa handiagotu egiten bada ere, pertsona bakoitzak bere posizio erlatiboa mantentzen du bere adinekoko beste subjektuekin alderatuz gero. Dependientzia-Independentzia estilo kognitiboa egonkorra da garapenean zehar subjektu batengan.

Helduen artean, mutilak Eremutik Independienteagoak dira emakumeak baino. Era berean, berregituraketarako gaitasun testetan heldu mutilek altuago puntuatzen dute, heldu neskek baino. Emakumeen artean, berriz, gizonaen artean baino handiagoak dira gaitasun sozial eta pertsonartekoak.

«Los datos sugieren tambien algunas diferencias en el desarrollo de la dependencia-independencia de campo entre niños y niñas en las culturas occidentales. Es bien conocido que, entre los adultos, los varones tienden a ser más independientes de campo que las mujeres en el RFT (por ejemplo, Witkin et al., 1962). Las diferencias entre sexos no se han encontrado tan consistentemente en el BAT,...Sin embargo, los varones adultos tienden a puntuar más alto que las mujeres en muchos tests de aptitudes de re-estructuración (por ejemplo, Maccoby y Jacklin, 1974; Witkin et al., 1962). Las habilidades sociales e interpersonales suelen ser tambien mayores entre las mujeres que entre los varones (por ejemplo, Tyler, 1965) ...» (Witkin, H.A. eta Goodenough, D.R., 1985, 98 o.)

Pubertaroan beranduago sartzen direnek erantzun hobea ematen dute berregituraketa lanetan, goiz sartzen direnek baino. Pubertaro hasierako hormonaren gehikuntzak berregituratze gaitasunaren garapenean geldialdi bat sorterazen duela dirudi. Berregituratze gaitasuna inbertsoki erlazionatua agertzen da androgenoen nibelarekin. Beranduago heltzen diren mutilek, pubertaro aurreko aroa luzeagoa dute. Aro horretan, berregituratze kognitiboaren gaitasunak bere garapen bizkorrean jarraitzen du.

Dependentzi-Independentzi estiloaz ari garenean, perzeptio eremuaren zati bat bere testuingurutik bereizita hautemateko subjektu batek duen gaitasunaz ari gara. Nagusi den eremu antolamenduak, haren osagaien perzeptioa zenbateraino determinatzen duen zehazten du estilo kognitibo honek.

Eremutik Dependenteek globalki hautematen dute informazioa, testuinguruaren eragina jarraituz.

Eremutik Independenteeek, testuinguruari begiratu gabe, analitikoki hautematen dute.

Eremutik Independenteeek beren identitatearen zentzun garbia dute, inguruntik independentzia erlatibo bat gordetzen dute. Eremutik Dependenteek ez dituzte beren premiak eta interesak inguruko premia eta interresetatik garbiki bereizten.

Heldutasunean aurreratzen doan heinean, subjektu batek gero ta funtzionamendu diferentziatuagoa du. Esan nahi baita, ez duela jokaera hain globala, ez ezagutza aldetik, ez gizartekoitasun aldetik.

Eremutik Dependentzi-Independentziaren eta nortasunaren arteko harremani buruz Witkin eta lankideek eginiko ikerketen emaitzak honela laburbiltzen ditu Huteau-k:

«Witkin et al., regroupent les différences observées, profondément solidaires les unes des autres, en trois grandes rubriques ...

1. Rapport de l'individu avec son milieu. Les sujets DC son passifs tandis que les sujets IC sont actifs. L'activité-passivité exprime la plus ou moins grande capacité à se passer d'un milieu sécurisant, les plus ou moins grandes facultés d'initiative, les plus ou moins grandes possibilités de résistance aux contraintes extérieures.

2. Rapport de l'individu à ses pulsions. Relativement aux sujets IC, les sujets DC ont une faible conscience de leur vie interne (inner life); ils ont peur des pulsions sexuelles et agressives qu'ils contrôlent mal; ils sont anxieux.

3. Evaluation de soi. Chez les sujets DC, toujours relativement aux sujets IC, on observe une faible estime de soi, des difficultés à s'accepter, un manque de confiance dans son corps. Le schéma corporel des sujets indépendants est plus différencié et mieux intégré.» (Huteau, 1987, 79 o.)

Erreflexibitate-Inputtsibitateari buruz ere, adimenean aurreratu ahala, haurrak erreflexiboagoak bihurtzen dira. Hutsegiteak gero ta guttiagotzen doaz eta latentziak luzatzen, adinean aurreratu ahala. Estimulu eta erantzunaren artean pausaldi bat sortzeko gaitasuna agertzen da haurraren, mugimenduak inhibitzeko gaitasuna garatzen da.

Haur batzuk zergatik diren erreflexiboagoak eta beste batzuk zergatik diren inputtsiboagoak galdetzen dugunean, kultura eta heziketatik at, aurre-disposizio konstituzionalak ere zerikusia baduela esaten digute. Baina, bada beste faktore bat, Jesus Palacios-ek bere artikuluan jasotzen duena (Palacios,1982): larritasuna. Subjektu batzuk larritasuna sentitzen dute

lana gaizki egiteko bildurraren aurrean. Larritasun hori desagertarazteko, ahal den azkarrena amaitu behar dute lana. Ez dute planifikatzeko denborarik. Lehenik egin, eta gero pentsatu. Beste subjektu batzuk ere larritasuna sentitzen dute egin ditzaketen hutsegiteen aurrean, baina horrek hausmarketara daramatza, hutsegite horiek ekiditeko.

«The hypothesis that minimal anxiety over error characterizes the impulsive child has not fared well under empirical examination. The hypothesis that different types of anxiety characterize reflectives and impulsives—anxiety over error versus anxiety over task competence— appears to be more viable.» (Kogan, N., 1976, 57-58 o.)

9.8.3.2. GARAPEN ONTOGENIKOAN ERAGITEN DUTEN ALDAGAIK

9.8.3.2.1. *Faktore biologikoak*

Androgenoen mailaren eta Eremitik Dependentsi-Independentziaren arteko erlazioaz, edo X kromosomaren gen azpirakor baten eta Eremitik Dependentsi-Independentziaren arteko erlazioaz ikerketak egin badira ere, arreta gehien, garunaren espezializazio hemisferikoaren eta Dependentsi-Independentziaren arteko harremanetan jarri izan da (Huteau, 1987). Horrela, Eremitik Independentziaren eta hemisferioen bereizkuntza handi-goaren arteko erlazioa egiaztatu izan da. Eremitik Independentteek espezializazio hemisferiko handiagoa agertzen dute. Eremitik Dependenteek aldebitako orientazio handiagoa. Emakumeak Eremitik Dependenteago agertzen dira.

«Diversos estudios parecen comprobar esta hipótesis de relación entre independencia de campo y mayor especialización hemisférica (Oltman, Enrlichman y Cox, 1977), así como también una relación entre lateralización y D.I.C. (Zoccoloti y Oltman, 1978). Fernández Ballesteros y Manning (1981) y Manning y Fernández Ballesteros (1982), investigaron estas hipótesis derivadas de la teoría de la diferenciación psicológica establecida por Witkin, en sendos estudios. En ambos estudios se comprobó la hipótesis de mayor diferenciación hemisférica de los I.C. respecto de los D.C. ya que los D.C. mostraban mayor orientación bilateral; las mujeres tienden a estar menos lateralizadas (y tendía a la D.C.) y los hombres no bien lateralizados parecían también tender hacia la D.C.» (García Ramos, J.M., 1989, 91-92 o.)

9.8.3.2.2. *Hezkuntza*

1962 urtean Witkin-ek hipotesi hau aurreratu zuen: haurraren funtzionamendu autonomoa bultzatzen duten hezkuntz praktikek, haren diferentziazio handiagoa garatzen dute; batez ere Eremitik Independentziaren garapena faboratzen dute. Hezkuntz praktikek gurasoen autoritatetik

dependentzia jarraitua zuzperten badute, haurra ez da hainbesteko diferentziara helduko, Eremutik Dependenteagoa izango da.

Honela bada, besteengandik berezia den nortasunik ez da garatuko, kanpoko araukiko begirunea azpimarratzen denean. Nortasunaren bereizkuntza landu nahi bada, norberaren esperientzia propioa sustatu behar da, barneko erreferentzi esparrua indartu behar da.

Eremutik Dependente direnen gurasoek beren haurrak gehiago kontrolatzen dituzte, haurren jarduerak gehiago orientatzen dituzte, haurra ez dute hainbeste bultzatzen erantzukizuna hartzera, jokaera asertiboak ez dituzte sustatzen. Bere bizitzako lehen urteetan haurraren autonomia eta bereizkuntza sustatzearen eta Eremutik Independentziaren artean erlazio positiboa dagoela ikusi da. Eremutik Dependente direnen amek jokaera inplutsiboagoa eta arbitrarioagoa erakutsi dute besteek baino.

Eremutik Dependenteen amek konfiantza guttiago dute berengan eta beren ama izateko gaitasunean, horrek haurraren garapen autonomoa galarazten duelarik. Haurraren sozializazio garaian autonomia bultzatu zuten amek Eremutik Independentteago ziren seme-alabak eduki zituzten, dependentzi arauak bultzatu zituzten amek baino.

«Nuestros primeros trabajos sobre socialización (Witkin et al., 1962) nos llevaron a formular la hipótesis de que las prácticas educativas de los niños que alientan el funcionamiento autónomo fomentan el desarrollo en general de la diferenciación, y de forma más particular, del estilo cognitivo independencia de campo. En contraste, las prácticas educativas de los niños que alientan la dependencia continuada de la autoridad paterna son más propensas a producir menos diferenciación y un estilo cognitivo de mayor dependencia de campo.» (Witkin, H.A. eta Goodenough, D.R., 1985, 117 o.)

Edo, Huteau-k dioen bezala:

«Les corrélations entre le style cognitif de l'enfant et la personnalité et les attitudes éducatives de la mère, et plus généralement les attitudes du milieu parental, sont donc des faits bien établis: lorsque la mère a une personnalité bien équilibrée ou lorsqu'elle encourage l'autonomie de son enfant, celui-ci est plutôt IC; lorsqu'elle a une personnalité peu équilibrée ou met l'accent sur l'intériorisation des normes, son enfant est plutôt DC.» (Huteau, 1987, 151 o.)

Familia batetan aitaren ausentziak oso luzeak direnean, haurraren dependentzia gehitu egiten da, aitaren faltagatik amarekiko menpetasun gehiegia sorteraizten baitzaio. Garapen garaian aita luzaz faltatu izan bada, Eremutik Dependentezia sortzen du horrek bai mutil eta bai neskegan.

Desmozorrotzeko gaitasun gutti zuten haurren amek agindu gehiago ematen zuten, gaitasun altua zutenen amek baino. Gaitasun gutti erakutsi duten haurren gurasoek autoritatea eta harekiko adostasuna azpimarratu izan dituzte, autobaieztapen jokaerak baztertuz.

«Busse (1969) encontró que las madres de los niños con baja aptitud de desmascaramiento emiten más órdenes que las madres de los niños con una alta aptitud de desmascaramiento.» (Witkin, H.A. eta Goodenough, D.R., 1985, 120 o.)

Bestalde, ikerketa batetan ikusi denez, denbora luzeagoz negar egiten uzten zaion haurrak, lehenago lantzen du Independentzia. Beren haurren negarraren aurrean latentzi luzea agertzen zuten amen hurrek, esanguratsuki hobeto erantzungo zuten gero desmazorrotze lanetan, negarrari segituan erantzuten zioten amen hurrek baino.

«Un segundo estudio longitudinal llevado a cabo desde la infancia fue realizado con un pequeño número de casos entre la población Logoli del este de Africa (Munroe y Munroe, 1975). Los niños cuyas madres mostraban un latencia de resouesta más larga ante el lloro de sus hijos eran significativamente más altos en la capacidad de desmascaramiento alrededor de los cinco años que los niños cuyas madres respondían más rápidamente.» (Witkin, H.A. eta Goodenough, H.A., 1985, 122 o.)

Erreflexibitate-Inpultsibitateari dagokionez, haur inpultsiboen amek konfiantza guttiago agertzen dute beren haurren errendimendu intelektua-lean, haur erreflexiboen amek baino. Lanari arrakastaz aurre egingo ez diotenaren irudipena dute haur inpultsiboen eta horregatik agertzen dira larritasunez beteak. Eremitik Dependenteak eragingarriagoak dira; Eremitik Independentetek baino konfiantza guttiago dute beren epaietan.

Eremitik Independentetek jarrera ez-autoritarioagoa dute, autosufizienteagoak dira, kanpoko araukiko desadostasun gehiago agertzen dute, inkonformistagoak dira.

9.8.3.2.3. *Kulturaren eragina*

Gizarte antolamendu zurruna duten kulturetako kideak Eremitik Dependenteago agertzen dira eta berregituraketarako gaitasun guttiago agertzen dute, antolamendu sozial malguagoa duten kulturetako kideek baino. Ehiztari ibiltari eta igali biltzaileen gizarteetako kideek Eremitik Independentetek izateko joera dute eta berregituraketa lanak ongi betetzen dituzte, nekazari egonkorren gizarteetako kideekin alderatuz gero. Nekazari kulturetakoak Eremitik Dependenteagoak dira. Honekin esan nahi dena hau da: Ehiztari kulturetako kideentzat jokaera moldakorragoa dela Eremitik Independentzia, eta nekazari kulturetakoentzat adaptakorragoa dela Eremuarekiko Menpetasuna (Witkin, H.A. eta Goodenough, D.R., 1985).

Kultura ezberdinetan egindako azterketen ondorenez, zera ikusi da: ehiztari-ibiltarien eta igali biltzaileen kulturetakoak Eremitik Independenteteagoak zirela eta berregituraketarako gaituagoak, nekazari egoiliarren kulturetakoak baino.

Nekazari egoiliarren kulturek esanekotasunari eta onarpenari ematen diote garrantzia haurren heziketan. Ehiztari ibiltarien kulturek autonomia eta norbereburuarekiko konfiantzan hezitzen dituzte beren kideak.

Honela bada, ehiztari ibiltarien kulturatik nekazari egoiliarren kultura pasatzean, garapen ontogenetikoan ikusten denaren aurkako bidea egiten da: ontogenian, Dependentsiatik Independentziara eboluzionatzen den bitartean, gizartearen bilakaeraren fase horretan alderantzizko bidea egiten da.

Witkin-ek dioenez, emakumeek gehiago dependitzen dute ingurune eremu perzeptibotik. Okerrago konpontzen dira ikusmen eremurik ez dutenean. Ikusmen hori gabe, desorientatu egiten dira (Witkin eta Goode-nough, 1985).

Erreflexibitate-Inpulsibitateari dagokionez, kultura ezberdinetan, haur txikien inpulsibitateak haur helduagoen erreflexibitatearentz doa eboluzioaren zentzuna. Gure kulturen ere erreflexibitatea inpulsibitatea baino moldakorragoa da. Hezkuntza sistemak erreflexiboaren zehaztasuna bultzatzen du, inpulsiboaren abiadura baino gehiago.

Mendebaldeko zibilizazioko subjektuekin egindako azterketetan, emakumeak eremutik dependenteago agertu izan dira gizonetakoak baino. Gizonezkoek emakumezkoek baino emaitz hobekak eman izan dituzte adimenaren indize ez-hitzezkoetan. Emakumeek, garaiagoak, indize berbaletan.

«Así, si los trabajos de Witkin indican que las mujeres dependen más del campo perceptivo que las rodea, los datos de Sandström, pueden ser interpretados en el sentido de que actúan peor, cuando no disponen de un campo visual y reaccionan en su ausencia de una manera desorientada. Estas diferencias intersexuales fueron estudiadas por Witkin y sus colaboradores en la obra de 1954 «Personality through perception». En estudios posteriores (Kagan y Kogan, 1970) (Maccaby, 1966) se ha ido confirmando esta idea, al obtenerse puntuaciones más altas en hombres que en mujeres en el índice de la D.I.C. Por otra parte, sabemos que en múltiples investigaciones se ha demostrado que los hombres son superiores a las mujeres en índices no verbales de la inteligencia (ver Tyler, 1965).» (García Ramos, J.M., 1989, 110-111 o.)

Witkin-ek dioenez, gizonaren eta emakumearen arteko diferentzia horiek egonkortu egiten dira nerabezarotan, eta azkenean txikiak dira. Nolanahi ere, horrelako diferentzia sexualik ez da ikusi eskimalengan eta Australiako aborijenengan. Neskei gizarteko arauen begirunea gehiago azpimarratzen zaielako izan daiteke, horrek Eremutik Dependentsia handiagoa sortarazten baitu (Witkin, 1985).

9.8.3.3. ESTILO KOGNITIBOAK ETA ADIMENAREN GARAPENA

Erreflexibitate-Inpulsibitatearen eta adimen mailaren arteko harremanei dagokienez, ez da erlazio sistematikorik aurkitu beraien artean.

«Como es lógico, uno de los problemas que los investigadores de la reflexividad-impulsividad se han planteado ha sido el de sus relaciones con el nivel de inteligencia tal y como se mide a través de los test de CI. A primera vista, la impresión que da tras la revisión de distintas investigaciones es la de que no existe una relación sistemática entre la reflexividad-impulsividad y el CI (Kogan, 1976), pues a veces no se encuentran correlaciones significativas y a veces sí, siendo en este caso habitualmente pequeñas.» (Palacios, J., 1982, 49 o.)

Froga piagetiarrek Dependentsi-Independentsiarekin erlazio nabaria goa agertzen dute, Erreflexibitate-Inputsitbatearekin baino. Inputsitbate-Erreflexibitateak piagetiar frogekin baino erlazio garaiagoa erakutsi zuten problemak ebazteko lanekin. Estilo kognitibo hau gehiago erlazio-natzen da zalantza erantzuna duten lan formalekin, permutazio, konbinazio eta koerlazioarekin baino.

«En su estudio longitudinal sobre el desarrollo de las operaciones formales, Neimark (1975) puso en relación los estilos cognitivos dependencia-independencia de campo y reflexividad-impulsividad con las realizaciones de los sujetos en tareas piagetianas típicas de las operaciones formales (combinaciones, permutaciones, correlación) y en una tarea de resolución de problemas ideada años atrás por Neimark y Lewis (1967). En lo relativo a la relación entre tareas piagetianas y estilos cognitivos, en el estudio de Neimark aparece más clara la relación entre aquellas y la dependencia-independencia de campo; de hecho, las correlaciones con reflexividad-impulsividad son bajas...» (Palacios, J., 1982, 50 o.)

Subjektu Erreflexiboek hipotesi ezberdinak egiaztatzeko estrategia hobeak erabiltzen dituzte, inputsitboek baino. Erreflexiboek hipotesi abstraktuagoak erabiltzen dituzten artean, inputsitboak kasu konkretutik kasu konkretura aleatorioki jotzen dute.

Witkin-en bereizkuntza psikologikoaren teoria eta Piaget-en teoria psikogenetikoaren teoria elkar-lanean hasi ziren Pascual-Leone-ren bidez. Pascual-Leonek Piaget-ekin lan egin zuen Ginebran eta Witkin-ekin New York-en. Ikertzaile horrekin hasi zen Estilo Kognitiboen eta Garapen intelektualaren arteko erlazioa: Operagailu Eraikikorren teoria.

Pascual-Leoneren teoriak aurreratu zenez, Eremutik Independenteek emaitz hobeak aterako dituzte lan piagetiarretan Eremutik Dependenteek baino, beren espazio mentala problemak ebazteko garrantzitsuak diren eskemez bakarrik okupatua edukiko dutelako. Eremutik Dependenteek, berriz, aspektu figuratibo iruzurkor batzuetan jarriko dute beren arreta, horrek galerazi egingo dielarik beren espazio mentaletik probetxu gutzia ateratzea.

Pascual-Leoneren teoriaren arabera, subjektu bat Eremutik Dependente bada, nahiz eta behar besteko hedaturako espazio mentala eduki, F operagailuaren eraginez iruzurtua gerta liteke, eta problema modu okerrean erabaki. Diferentzia hau, perzeptiboki iruzurkorak diren ele-

mentuak dituzten problemetan gertatuko da, F operagailua tartean sartzen delako.

Ikertzaile ezberdinek, bestalde, erlazio esanguratsua aurkitu izan dute «Hiru mendien froga»-ren eta Eremutik Dependentsi-Independentziaren artean, beti ere Eremutik Independentziaren abantailarekin. Froga horretan, ikuspegi ezberdinetatik ikusita bezala deskribatu behar du subjektuak paisaia batetako elementu garrantzitsuenen posizioa. Haurrak deszentratzen jakin behar du, bere posizio propioa utzi eta beste erreferentzi puntu batzuk bilatu behar ditu, paisaiaiko elementuak berregituratzeko.

Nolanahi ere, Eremutik Independentteek hobeto ebatzen dituzte ariketa formalak Eremutik Dependenteek baino. Estilo kognitiboak noraezeko tresna bihurtu dira zenbait subjektuk lan formaletan erakusten duten porrota esplikatzen. Besteak beste, Eremutik Dependentsi-Independentzia estilo kognitiboa delako, subjektuek duten kompetentzia formala ez da dagokion aktuazioan bihurtzen.

Konbinazio eta permutazioiko ariketa formalak ez daude gehiegi koerlazonaturik estilo kognitiboekin.

« ... puede decirse que en lo referente a la relación entre la DIC y la resolución de tareas de combinaciones y permutaciones no hay unos resultados demasiado claros... En cualquier caso aparece que puede concluirse que este tipo de tareas formales sólo están moderadamente correlacionadas con el estilo cognitivo DIC.» (Carretero, M., 1982, 76 o.)

Aldiz, erlazio garbi eta esanguratsua aurkitu izan da, aldagaien kontrola eskatzen duten problemak ebatztearen eta Eremutik Dependentsi-Independentziaren artean, batez ere, aldagaiei buruzko informaziorik ematen ez zaienean. Ariketak aurkezteko moduak eragina baduela esan behar da. Hasieratik esaten bazaio subjektuari zein aldagai aztertu behar dituen, horietatik garrantzitsuak direnak bereizteko, Eremutik Dependenteen eta Independententeen artean ez da ia alderik agertzen. Informazio hori ematen ez zaienean, diferentzia nabariak agertzen dira bi taldetakoen artean. Eremutik Dependentei zaila egiten zaiena, aldagaien kontrolaren eskema erabiltzea baino areago, aurretiko informazioaren egituraketa da (Carretero, M., 1982).

Koerlazio positiboa agertzen da EDIaren eta balantza bat orekatzeko prozedurak asmatzeko gaitasunaren artean. Era berean, orainarteko ikerketetan erlazio nabaria aurkitu izan da EDIaren eta proportzionalitate lanen burutzearen artean. Koerlazio positiboa aurkitu izan da Eremutik Independentziaren eta kontserbazioari buruzko lanak modu zuzenez erabakitzearen artean.

10

Nortasunaren nahasteak

DSM-IV-aren arabera, nortasunaren nahasteen hamar tipotaraino bereiz daitezke. Honako hauek izanen lirateke:

- Eskizoidea.
- Paranoidea.
- Eskizotipikoa.
- Antisoziala.
- Border line: mugako nahastea.
- Histrionikoa.
- Saihesteagatikoa.
- Menpekotasunagatikoa.
- Obsesibo-konpultsiboa.

10.1. NORTASUN ESKIZOIDEA ETA NORTASUN ESKIZOTIPIKOA

Nortasun eskizoideak ondorengo oinarritzko bereizgarriok ditu: herabeak eta errealtatetik urrunduak dira; exzentrikoak eta bakartiak; emozio mingarriak esperimentatzeko bildur handia, eta beren sentimendu propioak eta barneko bizitza agertzeko zailtasun garrantzitsua dute; horregatik, arazoren bat edo nahasteren bat dutenean, blokeatu egiten dira eta ukatu egiten dute beren arazoa, laguntza mota guztiak baztertuz; beren barnea agertzeko zailtasunak, beren buruaren ezagutza gabezia ere eragiten du. Nortasun eskizotipikoan, modu nabariagoan agertzen dira bereizgarri hauek.

Kasu klinikoa

X Jauna, gorputz guztiko oinaze generalizatuez kexatzen da; azterketa kliniko exhaustibo batzuen ondoren, zergati somatikorik ezin zaie aurkitu oinaze horiei. Bere nortasunaren deskribapena honela laburbil liteke: X

jaunak pertsona isila dirudi; hitzak derrigorrean atera behar zaizkio. Emozio gutxi agertzen du, farre eta irrifarre egiteko ez da gai; bere emazteak egiaztatu egiten du informazio hau eta «pertsona oso ona» dela gaineratzen du, eta haren jarduera sexual urriaz kexatzen da. Nolabaiteko harremana soma liteke oinazeen agerpenaren eta familiako nahiz laneko arazo-en artean, harreman hori eta darraion atsekabea bai senarrak bai emazteak ukatzen badute ere.

Behaketak

Sintomatologiaren konkrezio gabeziak, eta errealtatearekiko lotura emozionalaren gabeziak, bere sintomatologiaren zergatiak bilatzeko garaian klinikoa desorienta dezakete. Subjektuak autoperzepzio gaitasun gutxi du. Kalkuluak egiteko eta ondorio logikoetara heltzeko gai diren arren, beren emozioak hitzez agertzeko ez dira gai. Larritasuna edo oina-zea sentitu arren, ez da hura agertzeko gai izango.

10.2. NORTASUN PARANOIDEA

Nortasun paranoidea duten subjektuek, klinikoa molesto sentitzea eragiten dute. Azalpenen edo zainketen etengabeko eskaerek, bere mesfidantza generalizatua eta bere estilo manipulatuak agertzen dituzte. Egiten ditugun txosten edo historia klinikoen kopiak eska ditzakete, gure diagnostiko eta ebaluapenak beste profesional batenekin alderatzeko. Ezagugarri nagusienak ondoko aspektu hauetan laburbil litezke: hiperzelatari eta mesfidati bezala agertuko dira, sorpresaz harrapatuak izateko bildurti; sozialki oso kontrolatzaileak dira, eta ez dira espontaneitatez eta berotasunez agertzen; kritikekiko hipersentikorak dira; kexuetarako joera handia dute, eta susmagarria gerta litekeen edozein aztarnaren aurrean erne egoteko joera dute. Arazo eta zailtasunen aurrean etsaitasunez erreakzionatzen dute, etsaitasuna klinikoa arengana proiektatuz; klinikoa asmoekiko mesfidatiak dira eta hura errudun sentiaraztera joko dute edozein tirabiraren aurrean.

10.3. NORTASUN ANTISOZIALA

Izenak berak agertzen duen bezala, nortasun tipo honen moldagarritasun maila oso txikia da. Besteekin modu «interesatu» batetan erlazionatzeko aurrejarrerak arartekotuko du edozein sintomatologi somatiko edo psikiko. Orokorrean, jatorri familiar gatazkatsu eta marginala dute, gizarteratze pauten ikaskuntz egokiagatik nabarmentzen ez dena. Legetasunaren mugetan dabilzan jokaera eta jarrera dira bere bereizgarri esanguratsuenak; pertsonarteko harremanak, gezurrean eta probetxua nahiz

atsegina lortzean oinarrizten dira; jokaera arduragabeak, erruduntasun sentipenik edo remordimenturik gabeak agertzen dituzte; oso haserrekorak eta izaera oldarkoiekoak agertzen dira.

Orokorrean, subjektu gatazkatsu, oldarkoi bezala, arazoz beteriko familien testuinguruan sortuak bezala, hautematen dituzte oso gaztetatik beren irakasleek. Nortasun tipo honen zeharkako indikatzaile bat, bere «kanpoko itxura» izan daiteke; bere jazkera eta kanpoko jarrera, «marginala» izan ohi da eskuarki. Gainera, aspektu negatibo eta patologikoetara orientatuagoak bezala kontsideratuak dira, aspektu positibo eta eraikitzaileetara orientatuak baino gehiago.

10.4. MUGAKO NORTASUNA (BORDER LINE)

Bere intimitatearen bizipenean nahiz pertsonarteko harremanetan agertzen duen jarraipenik eza da «border line» nortasun baten ezagugarri nagusia. Bere egoera animikoan aldaketa handiak gertatzen dira, tristuratik pozkariora erraz iraganez. Honela laburbilduko genituzke nortasun horren ezagugarriak: pertsonarteko harreman intimo eta intentsoak atsegin ditu, baina sarritan ez dira egongorak; bakardadearekiko tolerantzia bajua dute; kontrolatzen zaila den haserrekortasun maila duten subjektu bulkadatsuak dira; beren egoera animikoan aldaketa handiak dituzte. Arazoen aurrean, baztertuak izateko bildurra dute, horregatik arazoak izkutatzen edo haien errua besteei botatzen saiatzen dira; ekimen gutxiko eta «niaren indar» gutxiko pertsonak dira.

Borondate gabeko eta autodisziplina gutxiko pertsonak dira; besteen grinak kutsatzen eta eramaten ditu, baina nekez kateatzen dira pertsonalki. Bakardadea oso eramangaitza gertatzen zaie, eta beren bakardade zentzuna maneiatzeko ez dira gai; bakardadearen hutsunea betetzeko, proiektu berrietan sartuko dira, baina ez dute haiek aurrera ateratzeko behar adina ahalegin eta iraunkortasun jarriko, besteak beste, frustraziorako gaitasun gutxi dutelako.

10.5. NORTASUN HISTRIONIKOA

Nortasun histrionikodunak bezala kontsideratuek garbi bereizten dute errealitatearen eta fantasiaren artean; baina, fantasiaren lilurak atzipetzen ditu eta beren jokaera horrek markatzen du. Adibidez, indar paranormaletan sinesten duten pertsonak, edo beraiek indar horiek dituztela uste duten pertsonak dira, eta uste horietatik abiatuta finkatzen dute beren jardueraren iparra. Irudimen handia garatzen dute, eta irudimen horretatik iragazten dituzte errealitatearekiko harremanak, adibidez, irudimenezko eginkizun edo situazioak irudikatuz.

Nortasun histrionikoaren beste osagai tipiko bat, bere egonezina edo alaitasuna exageratzeko nolabaiteko joera da, besteen arreta soziala bereganatzeko helburu izkutuarekin.

Honela, beren klinikoarekiko harremanetan, eginkizun atzipetzailer eta inguratzailea hartuko dute; arretaren erdigune izatea lortzeko, somatizatu eta beren gorputzeko sintomatologiaren perzepzioak exajeratuko dituzte, antzerki itxura emanez beren agerpenei.

10.6. NORTASUN NARZISITA

Munduaren erdigunetzat dauka bere burua. Pertsona gehienak baino askoz hobea dela pentsatzen du bere buruaz, eta beste pertsonengandik distantzia afektibo handi samarrera kokatzen dira, besteen emozio eta sentimenduekiko enpatia eta hurbiltasuna sentitzeko gaitasunik gabeak agertuz. Gizarteko harremanak finkatzeko gai dira, baina beti ere beren probetxurako helburu eta asmo partikularrekin.

10.7. SAIHESTEAGATIKO NORTASUNA

Herabetasunaren eta gizarte trebetasunen gabeziaren gainean finkatzen da saihesteagatiko nortasunaren nahastea. Baztertua izateko, hutsegiteko, gauzak zuzen ez egiteko bildurrak, neurri handiagoan edo txikiagoan isolatu egiten du, eta bere garapen eta heldutasun pertsonalerako beharrezkoak diren gizarte harremanei uko egitera edo haiek mantentzera behartzen du. Honela, erridikulua egiteko edo modu idealean onartua edo maitatua ez izateko ahalbide eta bildurraren aurrean, hazteko eta ingurunea ezagutzeko benetako abadagunea galtzen du.

Hitzegiteko moduan prekauzioa nabarmentzen da, erridikuluaren bildurrez bezala, tonu monotono eta iluna erabiliz. Bere emozio eta sentimenduak agertzeko zailtasuna du, eta hitzekoa ez den indikatzaile interesgarri bat, solasaldi batetan solaskidearen begietara zuzenki begiratzeko duen zailtasuna da.

Jokamodu honek, deskontsiderazioen eta erasoen erdigune izatera daramate, eta horrek oraindik gehiago indartzen du bere saihesteko joera. «Turko buru» izateko pertsona egokiak dira, erantzuteko gaitasun asertibo eskasa dutelako.

10.8. NORTASUN DEPENDENTEA

Autobaieztapen gabeziagatik bereizten da nortasunaren nahaste hau. Subjektu dependenteei bildurra ematen die ardurak hartzeak. Eguneroko

lanak erraz hartzen dituzte, baina erabakiak hartzeari ihes egiten diote. Larritasun eta depresio sintoma garrantzitsuekin batera agertzen da nortasunaren nahaste hau. Gizarte harremanetan ez dira gatazkatsuak izaten, erabakimena eta agintea eskatzen duten situazioetan erraz atzera egiten dutelako. Besteek inizatiba hartzera ohitzen dira, eta beren oreka galtzearekin mehatxatuak sentitzen badira, laguntza eskatzen dute, «zer egin dezaketen» esan diezaietela eskatuz.

Autobaieztapen gabezia kroniko honek, hitzez eta fisikoki erasotuak izatera eramaten ditu sarritan, eta erresistentziarik ez jartzean, besteen hurre txarraren ihesbide izateko erraz aukeratuak dira.

10.9. NORTASUN OBSESIBO-KONPULTSIBOA

Pertsona hiper-arduraduna eta perfekzionista da subjektu obsesibokompulsiboa; errendimendu profesionala oso aspektu garrantzitsua da beretzat. Gauzei «buelta asko ematen dizkie (gogamenez)», aspektu bakoitza xehetasunez analizatuz. Subjektu oso ordenatuak da eta bere jarduerak azken xehetasuneraino planifikatu beharra du.

Subjektu mota hau sozialki ongi kontsideratua egon ohi da, bere itxurazko patxadarengatik; pertsona fidagarritzat daukate, giza jokaeraren kontzeptu hertsia bat duelako; gainera, batzuetan, arau zurrun eta dogmatikoak ditu.

Nortasun honen azalpen bezala, honako hau eman izan da: estimuluen inplosio bat bezala hautematen du subjektuak inguruneke situazioa; estimulu horiek ordenatu beharra dago situazioa ulertu eta hartara egokitzeke; nolana ere, maila guztietan etengabe aldatzen ari den ingurune batetan aldaketarik txikiak ere detektatzeko bere sentikortasun zorrotzak, desosegu handia sortzen dio, ingurunea ulertzeko eta hartara moldatzeko gai ez dela sentiarazten baitio. Edozein aldaketaren edo kontrol galketaren perzeptioaren aurrean, adibidez gaixotasun baten aurrean, zerbaitetan hutsegin duela hautematen du eta bere garuna aztarnarik txikiak bila hasten da, gertaerak kontrolatzera heltzeko.

Bibliografía

- ALLPORT, G.W.: *La Personalidad. Su configuración y desarrollo*. Herder, 1963, Barcelona. *Pattern and growth in personality*, Holt, Rinehart and Winston, Inc. New York, 1963.
- AMELANG, M. & BARTUSSEK, D.: *Psicología diferencial e investigación de la personalidad*. Herder, 1986, Barcelona.
- BANDURA, A. & WALTERS, R.H.: *Aprendizaje social y desarrollo de la personalidad*. Alianza Universidad, 1963, Madrid.
- BAUMANN, U. & DITTRICH, A.: «Konstruktion einer deutschsprachigen Psychotizismusskala» *Zeitschrift für Experimentelle und Angewandte Psychologie*, 22, 421-443, 1976.
- BELL, C.R.: «Personality Characteristics of Volunteers for Psychological Studies», *British Journal of Social Clinical Psychology*, 1, 81-95, 1962.
- BERGERET, J.: *La personnalité normale eta pathologique*. Ed. Dunod, 1974, Paris.
- BERMÚDEZ, J.: *Psicología de la personalidad*. UNED, 1986, Madrid.
- BRENGELMANN, J.C.: «Persönlichkeitssysteme». *Manuskript Max-Planck-Institut für Psychiatrie*, München, 1976.
- BRENGELMANN, J.C. & FISCH, R.: «Eine Rigiditäts Fragebogen». *Manuskript MPI*, München, 1969.
- BRUNER, J.S.: *Actual Minds, Possible Worlds*. Harvard University Press, 1986, Cambridge. Gaztelaniazko itzulpena: *Realidad mental y mundos posibles*. Gedisa, 1988, Barcelona.
- BRUNER, J.S.: *Desarrollo cognitivo y educación*. Morata, 1988, Madrid.
- BRUNER, J.S. eta HASTE, H.: *Making sense. The Child's construction of the World*. Methuen, 1987, New York. Gaztelaniazko itzulpena: *La elaboración del sentido. La construcción del mundo por el niño*. Paidós, 1990, Barcelona.
- CARRETERO, M. & PALACIOS, J.: «Los estilos cognitivos. Introducción al problema de las diferencias individuales», *Infancia y aprendizaje*. 17, 21-28, 1982.
- CATTELL, R.B.: *The scientific analysis of personality*. Baltimore, Md., Penguin, 1965.
- CATTELL, R.B. (Ed.): *The Handbook of Multivariate Experimental Psychology*. Rand McNally, 1966, Chicago.
- CATTELL, R.B. & KLINE, P.: *El análisis de la personalidad y la motivación*. Pirámide, 1977, Madrid.

- CATTELL, R.B. & SCHEIER, I.H.: *The Meaning and Measurement of Neuroticism and Anxiety*, New York, Ronald Press, 1961.
- COOPERSMITH, S.: *The Antecedents of Self-esteem*. Freeman, 1967, S. Francisco.
- CRONBACH, L.J.: «The Two Disciplines of Scientific Psychology», *American Psychologist*. 12, 671-684, 1957.
- CROWNE, D.P. & STEPHENS, M.W.: «Critique of Self-concept Metodology», *Psychological Bulletin*. 58, 104-121, 1961.
- ECHEVARRIA, A.: «Sesgos atribucionales». Inc. J.F. MORALES (Ed.): *Psicología social*. McGraw-Hill, 1994, Madrid.
- ENDLER, N.S., HUNT, J. MCV. and ROSENSTEIN, A.J.: «An S-R inventory of anxiousness», *Psychological Monographs*. 76, 1962.
- EPSTEIN, S.: «The Self-concept Revisited», *American Psychologist*. 403-416, 1973.
- EYSENCK, H.J.: *The dimensions of Personality*. Routledge and Kegan, 1947, London.
- EYSENCK, H.J.: «The case of Mrs. Oak: A research analysis». In. C.R. ROGERS and R.F. DYMOND (Eds.), *Psychotherapy and personaly change*. Chicago, III: University of Chicago Press, 259-348, 1954.
- EYSENCK, H.J.: *The dinamics of anxiety and hysteria*. Rotledge and Kegan, 1957, London.
- EYSENCK, H.J.: «Der Maudsley Personality Inventory als Bestimter der neurotischer Tendenz und Extraversion», *Z. exp. u. angew. Psychol*. VI/2, 1959.
- EYSENCK, H.J.: *Crime and Personality*. Routledge & Kegan, Paul, 1964, London.
- EYSENCK, S.B.G. & EYSENCK, H.J.: «The Measurement of Psychoticism: A Study of Factor Stability and Reliability», *Br. J. soc. clin. Psychology*, 7, 283-294, 1968.
- EYSENCK, H.J. & RACHMAN, S.: *The Causes and Cures of Neurosis*. Knapp, 1965, S. Diegó.
- EYSENCK, H.J. & WILSON, G.D.: *The Experimental Study of Freudian Theories*. Methuen, 1973.
- FERNÁNDEZ-BALLESTEROS, R.: «Comparación entre la Evaluación Tradicional y la Evaluación Conductual». FERNÁNDEZ-BALLESTEROS, R. & CARROBLES, J.A. (Eds.): *Evaluación conductual, metodología y aplicaciones*. Pirámide, 1981, Madrid.
- FORGUS, R., SCHULMAN, B.: *Personality: a cognitive view*, Englewoods Cliffs, 1979, Prentice Hall.
- FREUD, S.: *Gesemmelte Werke*, Imago & Fischer, Frankfurt am main, 1940-68, London (Gaztelaniazko itzulpena: *Obras Completas*, 3 ale, Biblioteca Nueva, 1973, Madrid).
- GARCÍA RAMOS, J.M.: *Los estilos cognitivos y su medida: estudios sobre la dimensión dependencia-independencia de campo*, C.I.D.E, 1989, Madrid.
- GRAY, J.A.: «The psychophysiological nature of introversion-extroversion», *Behaviour Research and Therapy*, 1970, VIII, or. 249-260.
- GUERRA, J.: «Estudio de Variables de Personalidad, Motivación, Connotación Semántica y Criterios Cognitivos en Delincuentes». *Tesis de Licenciatura*, Universidad de Valencia, 1980.
- GUERRA, J.: «La Personalidad de la Víctima». BERISTAIN, A.: «Las Víctimas del Delito». *Cursos de Extensión Universitaria*, San Sebastián, 1988.
- GUERRA, J. & LERMA, A.M.: «Aspectos psicobiológicos de la delincuencia femenina». BERISTAIN, A. & CUESTA, J.L.: *Cárcel de mujeres*, Mensajero, 1989, Bilbao.
- HAMPSON, S.E.: *La construcción de la personalidad*. Paidós, 1982, Barcelona.
- HALL, C.S. & LINDZEY, G.: *Theories of Personality*. Wiley, 1957, New York.

- HARANBURU, M.: *Haurren kontzeptu espontaneoak, estilo kognitiboak eta garapen operatorioa*. E.H.U., 1993, Donostia.
- HIGGINS, E.T.: «Self-discrepancy. A theory relating self and affect». *Psychological Review*, 94, 319-340, 1987.
- HUTEAU, M.: *Las concepciones cognitivas de la personalidad*. Fundamentos, Madrid. Jatorrizko liburua: Huteau, M.: *Les conceptions cognitives de la personnalité*, P.U.F., 1989, Paris.
- HUTEAU, M.: *Style cognitive & Personnalité. La Dépendence-Indépendance à l'égard du champ*. Presses Universitaires de Lille, 1987.
- JONES, H.G.: «Learning and Abnormal Behaviour». EYSENCK, H.J. (Ed.): *Handbook of Abnormal Behaviour*. Pitman, 1960, London.
- JUNG, C.G.: *Psychological types*, Harcourt, 1933, New York. (Gazt. itzulp.: *Tipos psicológicos*, 1964, Paidós).
- KAGAN, J.; MOSS, H.A. eta SIGEL, I.E.: «Psychological significance of styles of conceptualisation». WRIGHT, J.C. eta KAGAN, J.: *Basic Cognitive Processes in Children*, Chicago and London, The University of Chicago Press, 73-112 o., 1973.
- KOGAN, N.: *Cognitive Styles in Infancy and Early Childhood*, Hillsdale, New Jersey, Lawrence Erlbaum Associates, Publishers, 1976.
- KANFER, F.H. & PHILLIPS, J.S.: *Principios de aprendizaje en la terapia del comportamiento*. Trillas, 1970, México.
- KLEIN, G.: «Need and regulation», in M.R. JONES (dir.), *Nebraska Symposium on Motivation*, 1954, University of Nebraska Press.
- KLEIN, G.: «The personal world through perception», in R.R. BLAKE and G.V. RAMSEY (Eds.), *Perception: An approach to personality*, New York, Ronald, 1951, or. 328-355.
- KANT, E.: *Antropologie du point de vue pragmatique*. J. Vrin, 1979.
- KLEINMUNTZ, B.: *Personality Measurement*. Dorsey, 1967, Homewood.
- KUHN, T.S.: *The Structure of Scientific Revolutions*. Univ. Chicago, 1970, Illinois.
- LINVILLE, P.W.: «Self-complexity as a cognitive buffer against stress-related illness and depression». *Journal of Personality and Social Psychology*. 52, 663-676, 1987.
- MASLOW, A.H.: *Motivation and Personality*, Harper & Row, 1954, New York. (Gazt. itzul.: *Motivación y personalidad*. Sagitario, 1976, Barcelona).
- MATARAZZO, J.D.: «The Interview». WOLMAN, B. (Ed.): *Handbook of Clinical Psychology*. McGraw Hill, 1965, New York.
- MEEHL, P.E.: *Clinical versus statistical prediction*, Minneapolis, University of Minnesota Press, 1954.
- MESSICK, S.J., KOGAN, N.: «Differentiation and compartmentalization in object sorting measures of categorizing styles», *Perceptual and Motor Skills*. 1963, 16, 47-51, 1963.
- MISCHEL, W.: *Personality and Assessment*. Wiley, 1968, New York.
- MOYA, M.: «Percepción social y de personas». In. MORALES, J.F. eta Iankideak: *Psicología social*, Ed. McGraw-Hill, 1994, Madrid.
- NEISSER, U.: *Cognitive Psychology*, Appleton-Century-Crofts, 1967, New York.
- OGILVIE, D.M.: «Life satisfaction and identity structure in late middle-aged men and women», *Psychology and Aging*. 2, 217-224, 1987.
- PALACIOS, J.: «Reflexividad-impulsividad». *Infancia y aprendizaje*. 17, 29-69, 1982.
- PALACIOS, J. eta CARRETERO, M.: «Implicaciones educativas de los estilos cognitivos», *Infancia y aprendizaje*. 18, 86-106, 1982.

- PELECHANO, V.: «La personalidad en función de los parámetros de estímulo en la solución de problemas». *Tesis Doctoral*: Univ. C. Madrid, 1972.
- PERVIN, L.A.: *Personalidad: teoría, diagnóstico e investigación*, DDB, 1975, Bilbao.
- PINILLOS, J.L.: *Principios de psicología*, Alianza Universidad, 1975, Madrid.
- ROGERS, C.: *Counseling and psychotherapy*, Houghton Mifflin, 1942, Boston.
- ROGERS, C.: *Client-centered Therapy*, Boston, Houghton Mifflin, 1951, Boston.
- ROGERS, C.: *On becoming a person*. Houghton Mifflin, 1961, Boston. (*El proceso de convertirse en persona*, Buenos Aires, Paidós, 1974).
- ROGERS, C.: *On encounters groups*, Harper and Row, 1970, New York.
- ROTTER, J.B.: «Generalized Expectancies for Internal versus External Control of Reinforcement». *Psychological Monographs*. 80, 1-28, 1966.
- SARASON, I.G., SMITH, R.E. & DIENER, E.: «Personality Research: Components of Variance Attributable to the Person and the Situation». *Journal of Personality and Social Psychology*. 32, 199-204, 1975.
- SEARS, R.R.: «Experimental studies of projection. I. Attribution of traits», *Journal of Social Psychology*, 1936, 7, 151-163.
- SEISDEDOS, N.: *Monografía técnica del I6PF*. TEA, 1978, Madrid.
- SILVA, F. & PELECHANO, V.: «La entrevista». *Mimeo*, Univ. Valencia, 1978.
- SKINNER, B.F.: *Ciencia y conducta humana*. Fontanella, 1953, Barcelona.
- STEINER, J.F.: *Treblinka*, New York, Simon and Schuster, 1966.
- TAYLOR, J.: «A Personality Scale of Manifest Anxiety». *J. Abnorm. Soc. Psychol.*, 48, 285-290, 1953.
- VALINS, S.: «Emotionality and information concerning internal reaction», *Journal of Personality and Social Psychology*, 6, 458-463, 1967.
- WALLERSTEIN, R.S.: *Forty-two Lives in Treatment*. Guilford Press, New York, 1986a.
- WALLERSTEIN, R.S.: «Psychoanalysis as a Science: A Response to the New Challenges». *Psychoanalytic Quarterly*, 55, 1986b.
- WESTPHAL, K.: «Körperbau und Charakter der Epileptiker». *Nervenarzt*, 4, 96-99, 1931.
- WHITING, J.W. & CHILD, I.L.: *Child Training and Personality: A Cross-cultural Study*. Yale Univ. N. Haven, 1953.
- ZAZZO, R., STAMBACK M.: *Un test de persévération*, in ZAZZO, R et al., *Manuel pour l'examen psychologique de l'enfant*, Neuchâtel, Delachaux-Niestlé, 1969, 577-630.
- ZUCKERMAN, M.: «Dimensions of Sensation Seeking». *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, 36, 45-52, 1971.
- ZUMALABE, J.M.: *El estudio de la personalidad. Ideas directrices y controversias*. Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990.

Oinarrizko bibliografía

- ALLPORT, G.W.: *La personalidad*. Ed. Herder, 1986, Barcelona.
- AMELANG, M. & BARTUSSEK, D.: *Psicología diferencial e investigación de la personalidad*. Ed. Herder, 1986, Barcelona.
- AVIA, M.D. & SÁNCHEZ BERNARDOS, M.L.: *Personalidad: aspectos cognitivos y sociales*. Ed. Pirámide, 1995, Madrid.
- BISCHOF, L.S.: *Interpretación de las teorías de la personalidad*. Ed. Trillas, 1977, México.

- CATTELL, R.B.: *El análisis científico de la personalidad y la motivación*. Ed. Pirámide, 1982, Madrid.
- CUELI, J. & REIDL, L.: *Teorías de la personalidad*. Ed. Trillas, 1983, México.
- ENGLER, B.: *Introducción a las teorías de la personalidad*. McGraw-Hill, 1996, México.
- EYSENCK, H.J. & EYSENCK, M.W.: *Personalidad y diferencias individuales*. Ed. Pirámide, 1987, Madrid.
- GONZÁLEZ, J.L.: *Psicología de la personalidad*. Ed. Biblioteca Nueva, 1987, Madrid.
- HAMPSON, S.E.: *La construcción de la personalidad*. Ed. Paidós, 1982, Buenos Aires.
- KELLY, G.A.: *The psychology of personal constructs*. Norton, 1955, New York. (Gazt. itzulp.: Troquel, 1966, Buenos Aires).
- LABRADOR, F.J.: *Los modelos factoriales-biológicos en el estudio de la personalidad*, DDB, 1984, Bilbao.
- MISCHEL, W.: *Personalidad y evaluación*. Ed. Trillas, 1968, México.
- MISCHEL, W.: *Teorías de la personalidad*. Ed. MacGraw-Hill, 1986, México.
- PELECHANO, V. & IBÁÑEZ, E.: *Psicología de la personalidad*. Ed. Alhambra, 1988, Madrid.
- PELECHANO, V.: *Psicología de la personalidad*. Ed. Ariel, 1996, Barcelona.
- PERVIN, L.A.: *Personalidad: Teoría, diagnóstico e investigación*. DDB, 1970, Bilbao.
- WITKIN, H.A. & GOODENOUGH, D.R.: *Cognitive Styles: Essence and Origins*, International Universities Press, Inc., 1981. Gaztelaniazko itzulpena, Pilar Sanchez López-ek: *Estilos cognitivos: Naturaleza y orígenes*. Ed. Pirámide, 1985, Madrid.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Información y pedidos/Informazioa eta
eskariak:
Servicio Editorial de la Universidad del País
Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen
Zerbitzua
Apartado 1397 P.K. 48080 - BILBAO
Tf. (94)4647700 / Ext./Luz. 2148
Fax/faxa (94) 4801314
Internet:http://www.lg.ehu.es/servicios/se_az
SOLICITE NUESTRO CATALOGO
ESKATU GURE KATALOGOA

EUSKARATUA INSTITUA

Psikologia

Nortasunaren kontzeptutik eta iker eremutik abiatuz, eremu horren ikerketarako landu izan diren ikuspegi klinikoa, korrelazionala eta esperimentalak azaltzen dira lehenik. Jarraian, nortasunaren teoriaren eredu barnekoia, situazionista eta elkarreraginezkoa jorratzen dira. Nortasunaren kontzeptuak ahaideak diren “tenperamentu” eta “karakterea” bezalako kontzeptuak agertu ondoren, tipologia ezberdinen berri ematen da. Nortasunaren diagnostiko eta garapenari atal bana eskaintzen zaizkie gero nortasunaren teoria nagusien azalpenari bete-betean heltzeko: Allport eta Kelly-ren teoria indibidualistak, Rogers-en teoria fenomenologiko-humanista, Catteli eta Eysenck-en teoria faktorialistak eta Freud edo Jung-en teoria psikodinamikoak. Azkenik, nortasunaren psikologiari kognitibismoak egindako ekarpena azaltzen da, nortasunaren nahasteen azalpen labur batez amaitzeko.